

"Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguin baita, latinez, franceses, edo bertce erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ezpada, euscaldunec berèc dute falta eta ez euscarac"

P. Axular, Gvero, "Iraçyrtailleari", 1643

I

327. I. Atzo, Aristonen seme Glaukonekin batera jaitsi nintzen Peiraieusera jainkosari erregu egitera eta era berean, orain lehenengo aldiz egiten zen jaia nola ospatzen zuten ikusi nahirik. Bertakoen pompa-ospakizuna<sup>1</sup> benetan ederra iduritu zitzaidan, baina Thraikoek ospatzen zutena ez zen inola ere itxura txarrekoago agertzen. Erregu eginik eta ospakizuna ikusi eta gero, hiribururantz<sup>2</sup> abiatu ginen. (b) Kephalosen Polemarkhosek urrunetik ikusi gintuenean etxerantz gindoazela, arineketan bere mutila<sup>3</sup> bidali zigun berari itxaroteko eskatuz. Eta atzealdetik mutilak neure gaineko soinekotik oratuz esan zuen: -Itxaroteko eskatzen dizue Polemarkhosek. Eta itzuli egin nintzen eta itaundu ere ea non zegoen bera. Berak, esan zuen: -Atzetik darrait, itxaron iezaiozue, bada. -Zain gaude, esan zuen Glaukonek.

(c) Eta gerotxoago bertan zegoen Polemarkhos, baita Adeimantos Glaukonen anaia, Nikiasen Nikeratos eta ospakizunetik antza zetozen beste batzuk ere.

Polemarkhosek, bada, esan zuen: -Ene Sokrates, hiribururantz alde egiten duzuelakoan nago.

-Ez zabiltza oker, erantzun nion nik.

- Ez ote duzu ikusten, bada, zenbat garen gu?

-Nola ez, bada?

-Bada, esan zuen, edo gu guztiok baino gehiago zarete edo hemen geratu beharko duzue.

-Ez ote da, bada, esan nuen, besterik geratzen alde egitea beharrezko dugula zuei sinestaraztea baino?

-Ahalko ote zenukete, bada, esan zuen, sinestaraztea entzungor bagara?

-Ezelan ere ez, esan zuen Glaukonek.

-Horrela jakingo duzue ez dizuegula jaramonik ere egingo.

328. Eta Adeimantosek: -Ez ote dakizue, bada, iluntze-aldera zuzi-bira bat zaldiz, jainkosaren omenez egingo denik?

-Zaldiz? Esan nuen, benetan gauza berria dela hori; zaldietan elkarren lehian lasterka direla, zuziak eskuz eramanez, elkarri luzatuko dizkiotela? Ala nola diozu?

-Bai, horrelaxe, erantzun zuen Polemarkhosek eta gainera gero benetan ikusgarri izango den gau osoko jai bat egingo dute. Horregatik afalondoan jaikirik jai hori ikusiko dugu. Eta han gazte anitzekin elkartuko gara eta bertan berriketari ekingo diogu. Gera zaitezte, bada, eta ez dezazuela besterik egin.

-(b) Badirudi, esan zuen Glaukonek, geratu beharko dugula.

-Hala uste bada, esan nuen, horrelaxe egin beharko da.

II. Joan ginen, bada, Polemarkhosen etxerantz eta han Lysias eta Euthydemos bere anaiak, Thrasymakhos kalkhedoniarra, Paianiako Kharmentides eta Kleitophon Aristonymosen semea aurkitu genituen. Bertan zegoen, baita ere, Kephalos, Polemarkhosen aita. Arront zahartua zegoela iduritu zitzaidan (c), aspalditik ikusi barik neukan eta. Ezarrita zegoen ilazkidun aulki baten gainean eta koroaturik zeukan burua, egun hartan, etxean bertan, erre-opari bat eskaini berri suertatzen baitzen. Bere ondoan ezarri ginen, bada, aulki batzuk haren inguruan zeuden eta.

Ikusi nindueneko, bada, agurtu ninduen Kephalosek eta esan zidan:

-Ene Sokrates, beharrezko izan arren, zein urri bisitatzen gaituzun Peiraieusera jaitsiaz. Hiribururantz neke handi barik ibiltzeko ondino indarrik banu, ez zenuke, inondik inora, hona etortzerik behar, (d) gu geu joan gintezkeen zuregana. Orain, berriz, hona sarriago etortzea zuri dagokizu. Ondotxo jakin behar duzunez, zenbat eta gorputzarekiko gainerako atseginak zimelagotzen zaizkidan, hainbat areagotzen zaizkit berriketetarako gurari eta atseginak. Ez dezazula, bada, bestelakorik egin, eta egon zaitez gazte guzti hauekin, eta zatoz sarri-sarri hona guregana lagunengana eta etxe-etxeokengana egiten den bezala.

-Bai, esan nuen, ene Kephalos, biziro pozten nauela, benetan, adinekoekin hitzegiteak. (e) Guk, behar bada, ibili beharko dugun bidea egina dutenez gero, lazgarria eta gaitza, ala erraza eta eroso den eurengandik jakitea beharrezko dela uste dut eta. Horregatik, olerkari-poetek "zahartzaroaren ataria"<sup>4</sup> dela

dioten adin berean honezkero zaudenez, jakin nahi nuke, eta batez ere zuregandik, zer iduritzen zaizun bera, bizitzako une larria agian, edo nola deitzen diozun zuk.

329. III.- Zeusarren, ene Sokrates, esan zuen, gauza agertzen zaidan moduan adieraziko dizut. Sarritan, adin beretsua daukagunok, elkartzen gara halako esaera zaharra<sup>5</sup> gure baitan gogoraturik eta guretariko gehienok, bada, aienaka gabiltza oroimenetan eta gogora erakarriaz gaztaroko atsegintasunak, maitasunarenak, jan-edatearenak eta haelakoxeei dagozkien beste hainbat, eta haserre agertzen dira zenbait gauza handi batzuk urrundu balitzaizkie bezala; orduan ondo bizi zirelakoan, eta orain aldiz bizi ez balira bezala. (b) Batzuk etxekeengandik zahar izatearen irainak jasotzen dituztela eta kexu dira, usterik, horrez gainera euren gaitz guztien sorburua zahartzaroa bera dela. Niretzat, berriz, ene Sokrates, horrelakoek ez dute benetako arrazoia salatzen, hori arrazoia balitz, nik neuk ere, zahar naizenez gero, beste horrenbeste jasan izango nuelako eta adin horretara heldu diren beste guztiek, berdin. Eta nik horietarikoak ez ezik bestelakoak ere aurkitu ditut; adibidez, behinola, Sophokles poetarekin nengoenean batek galdetu zion: "Nola", esan zuen, "zabiltza, (c) ene Sophokles maitasun-arazoetan? Gai ote zara ondino andre batekin etzateko"? Eta berak, "Ixil zaitez, gizon hori", esan zuen, "pozarren, bada, ihes egin nion, be-

netan, jauntzar zakar eta basati bati egiten zaion bezala". Orduan, bada, hark egia esaten zuela iduritu bazitzaidan, orain ez gutxiago, gauza guzti hauei buruz zahartzaroan baretasun eta askatasun handi-zabalak sortzen direlako. Nahikerien irrikak baretzen eta lasaitzen direnean, osoro, bete-betean, Sophoklesek esanikoa gertatzen da: (d) jauntzar asko eta eroengandik aldentzen zarela. Baina arrazoi hauei eta etxekoen ingurukoei buruz, arrazoi bakar bat dago, ez zahartzaroarena, ene Sokrates, gizonen izaerarena baino; izaera eroso eta neurriko diratekeenentzat zahartzaroa ere ez da astunegia; horrela ez bada, ene Sokrates, zahartzaroa zein gaztaroa ere latza gertatzen zaio horrelakoari.

IV. Eta haren esanekin ni pozez miresturik eta hitzegiten jarrai zezan nahirik, zirikatuz, esan nion:

-Ene Kephalos, (e) gauza hauek esan ditzazunean ez dut uste gehienek onartuko dizkizutenik, aitzitik, uste izango dute zuk zahartzaroa errazago daramazula, ez daukazun izaeragatik, aberastasun handiak dituzulako baizik, zeren, aberatsentzat atsedenaldi ugari dagoela baitiote.

-Zuzen diozu, erantzun zidan; ez, ez dizkidate nire arrazoiak ontzat hartzen, euren esanetan zenbait arrazoi badago ere, baina ez uste duten beste. Apropos dator Themistoklesek, bera iraindu nahiz, sortu zen hiriaren ospearengatik eta ez bere merituengatik 330. ezaguna zela seriphiar<sup>6</sup> batek leporatu zionari

erantzun zionean, bera seriphiar izanik ez litzatekeela ospetsu izango, ezta bestea ere Athenetan sortu arren. Zahartzaroa nekez eraman daramaten aberastasun gabeei zuzen datorkie arrazoi bera: zentzuzko gizonak ez dezakeela guztiz erraz zahartzaroa txirotasunean eraman, ezta zentzuzko ez denak ere, aberats izan arren ez dateke hartan laketa.

Eta orduan nik itaundu nion: -Ene Kephalos, dauzkazun ondasunetatik gehienak harturikoak ala zerorrek gaineraturikoak dituzu?

-Zenbat gaineratu ditudan, esan zuen, (b) ene Sokrates? Merkatari-gizon bezala, nire aita eta aititaren arteko suertatu nauzu. Nire izen bera zeukan aititak nik orain ditudan adinako ondasunak gutxi gora-behera harturik, askotan bidertu zituen; Lysanias, nire aitak, berriz, nik orain ditudanak baino gutxiagora eskatu zituen; pozik nengoke ni, jaso nituenak baino gutxiago uzten ez badizkiet hauei, zerbait gehitxoago baino.

-Itaundu nizun hori, esan nuen, ondasunak biziro maite ez zenituela (c) iduritu zaidalako, horrelakorik gehienbat gertatzen da, ondasunik egin ez dutenen artean; eskura dituztenek, oster, hauek baino bi aldiz gogokoago dituzte. Poetek bere olerkiak eta gurasoek bere umeak maite dituzten bezala, era berdinean aberastu direnak ere ondasunez arduratzen dira euren eginkizun berezia balitz bezala, eta besteak bezala hortik datorkien onuragatik ere, eta horrexegatik hauekin bat etortzea benetan neketsu da, aberastasuna baino besterik goratu nahi ez dutelako.

-Egia diozu, esan zuen.

V. -Bai, hala da, (d) esan nuen. Baina ihardetsiozu honi: zure aburuz ondasun ugari izatetik eskuratzen den onurarik handiena zein da?

-Ez dut uste, esan zuen, diodanarekin jende asko erakar nezakeenik. Jakin ezazu ondo, ene Sokrates, inork, bere azkena hur samar somatzen duenean izua eta larria sartzen zaizkiola barrenera lehenago sartzen ez zitzaizkion gauzei buruz, zeren, orduan, Haideseko gauzei buruz kontatu, eta ordurarte barregarri izan diren mitoak, beharrezko izaten dela hemen txarto eginikoen ordaina han ematea, orduantxe haren arima ikaratan jartzen diote egiazkoak ez ote diren; (e) -zahartzaroaren makaltasunak eraginik, edota hango gauzetatik hurrerago dagoelako askoz argiago ikusten ditu- susmo txarrez eta beldurkilik aurkitzen da, eta hausnarrean dabil eta aztertzen ere inori kalterik egin ote dion. Eta bere bizitzan zehar hainbat bidegabekeria aurkitzen baditu, sarritan lotatik itzartzen da, umeez egiten duten bezala, izu-izu eginik eta bere bizimodua itxaropen gaiztoz doa; 331. eta, aldiz, bere baitan ezer txarrik aurkitzen ez duenari itxaropen gozagarri eta baliagarriak laguntzen dio beti, "zahartzaro-elikatzaileak" Pindarosek dioen bezala; zoragarria, benetan, ene Sokrates, haren esan hau, bizitza zuzentasunez eta santutasunez daramanari:

"Bihotz-euskarri, zahartzaro-elikatzaile,  
hilkorren eritzi aldakorra gehien  
gobernatzeko duen itxaropen eztiak  
laguntzen dio."<sup>7</sup>

-Guztiz miresgarri, bada, eta ondo dio, baina horrez gainera, nik neuk niretzako uste dut, ondasunen eskuratzea askoz probetxugarriago zaiola (b) zentzuzko gizonari beste edonori baino. Beraz, inori iruzurrik zein saldukeriarik, borondatez baino ez bada ere egin ez diezaion, ezta ez jainkoari beharrezko erre-opariren batzuk, ez norbaiti zor-ordaina eman gabe hara joateko beldur izan ez dadin, neurri handi batean horretarako laguntzen du aberastasunen eskuratzeak. Badu, baita ere, beste gaineko onurarik asko, baina jar nezake, ene Sokrates, batez-beste kontu eginik, horretarakoxe dela aberastasuna onuragarrien zentzuzko gizonarentzat.

-Guztiz ederto diozu, ene Kephalos, esan nion nik, (c) baina, horixe berori, zuzentasuna ausaz besterik gabe egia esatea eta inori harturikoa bihurtzea dela esango ote dugu, ala gauza hauek egitea ez ote da batzuetan zuzen eta beste batzuetan gaizto jokatzeko? Adibidez honako hau diot, inork bere senean dagokeen adiskide batengandik bere armak jaso balitza eta ero bihurturik honek eska baliezaio, agian mundu guztiak esan lezake ez direla haiek bihurtu behar, eta itzultzailea ez datekeela zuzena, ezta egoera honetan dagoenari, nahirik, egia osoa esan baliezaio ere.

-(d) Zuzen diozu, esan zuen.

-Beraz, egia esatea edo harturikoa bihurtzea, ez da hori zuzentasunaren mugapen zehatza.

-Baina hala da zalantzarik gabe, ene Sokrates, esan zuen Polemarkhosek hitza harturik, Simonidesi sinetsi behar bazaio, behintzat.



-Ederto, esan zuen Kephalosek, hitzegiteko txanda uzten dizuet, honezkero nire opari-az arduratzea beharrezko dut eta.

-Beraz, ni nauzu, esan zuen Polemarkhosek, zure oinordekoa?

-Guztiz, bada, esan zuen irribarrez, eta berehala joan zen opari-zereginetara.

VI. (e) - Erantzun iezadazu, bada, Kephalosen hitzaren oinordeko zaren horrek, zer diozu Simonidesek zuzen dioela zuzentasunari buruz ari denean?

-Zor zaiona, esan zuen, bakoitzari ematea zuzen jokatzea dela,<sup>8</sup> eta hori esateari zuzen dagoela deritzat.

-Bai benetan, esan zuen, -gizon jakitun eta jainkoen denez-, gauza zaila da Simonidesi ez sinestea, baina esaten duen hori, zuk, ene Polemarkhosek, agian, ulertzen duzu, nik ez oster; zeren argi dago ez dioela lehentxeago esaten genuena, hau da, pentsuan utzirikoa, dena delakoa izanik, zoratu ondoren eskatzen duenari ez zaiola itzuli behar; zinez benetan, 332. pentsupeko hori zor baten antzeko da, ala zer?

-Bai.

-Beraz, bere senean ez dagoenean eskatzen duenari, ezelan ere ez zaio itzuli behar.

-Egia da, esan zuen.

-Dirudienek besterik da Simonidesek zorra ordaintzea zuzena dela dioenean.

-Besterik, bai, Zeusarren, esan zuen, adiskideek adiskideei on egitera eta inoiz ere kalterik ez egitera beharturik daudela uste duelako.

-Badakit, esan nuen,-pentsupean jarri duenari bere urrea bihurtzean ez diola ematen zor diona, (b) hartzen zein ematen dutenak lagunak izan arren, itzultze hori eta hartze hori kaltegarri gerta baledi- ez ote da, bada, hori zure esanetan Simonidesek dioena?

-Bai, horrelaxe da, bete-betean.

-Orduan, zer? Arerioei eman behar zaiela, agian, zor zaiena?

-Guztiz horrelaxe, bada, esan zuen, haiei zor zaiena, eta nire ustez, arerioak arerioari dagokion zorra: kalteren bat.

VII. - Dirudienez, bada, esan nuen, Simonidesek zuzentasuna zer datekeen poetikazko asmakizun iduripean jarri zuen. Argi denez, (c) bakoitzari dagokiona ematea zuzentasuna dela ulertu baitzuen eta horri zor deitu zion.

-Zer besterik uste dateke, bada? esan zuen.

-Zeusarren! esan nuen, urliak, "Ene Simonides, sendakuntza deituriko trebetasunak (tekhneak) beharrezkorik eta egokirik nortzuei eta zer ematen dien" itaunduko balio, zer uste duzu hark erantzungo ligukeela?

-Argi dago, erantzun zuen, gorputzei sendagaiak, janariak eta edariak ere bai.

-Eta sukaldaritza deituriko trebetasunak beharrezkorik eta egokirik nortzuei eta zer ematen ote diete, bada?

-(d) Janariei bere gozagarria.

-Bego; eta zuzentasun dei genezakeen trebetasunak nortzuei eta zer ematen ote diete?

-Lehen esanikoei jarraitzea beharrezko bada, esan zuen, ene Sokrates, adiskideei eta arerioei ere, laguntzak eta kalteak ere emango dizkie.

-Beraz, zuzentasuna adiskideei on eta arerioei kalte egitea dela dio?

-Baietz deritzat.

-Gaixotasun eta osasunari buruz, gaixo diren lagunei on eta arerioei kalte egiteko nor ote da trebeen?

-Sendagilea.

-Eta marinelenentzat, (e) itsasoko arriskuari buruz, zein?

-Lemazaina.

-Eta zuzenari buruz, zer? Adiskideei on egitekotan eta arerioei kalte, zein zereginetan eta zein ekintzaz da trebeen gizon zuzena?

-Haiei gudu egiterakoan edota guda-laguntzan, uste dut nik.

-Bego; beraz, Polemarkhos adiskide, sendagilea zinez alferreko da gaixo ez daudenentzat.

-Egia da.

-Eta baita lemazaina itsasoratzen ez direnentzat ere.

-Bai.

-Orduan gudu egiten ez dutenentzat alferreko ote da zuzena?

-Horri ez deritzat guztiz ondo.

-333. Beraz, zuzentasuna, bake-aldian ere, onuragarri da?

-Bai, onuragarri da.

-Eta baita nekazaritza ere, ala ez?

-Bai.

-Fruituak eskuratzeko?

-Bai.

-Eta oinetakogintza ere bai?

-Bai.

-Oinetakoak eskuratzeko uste dut diozula, ezta?

-Zeharo.

-Orduan zer? Bake-aldian, zer probetxutarako eta zer eskuratzeko gauza dela esango zenuke zuzentasuna?

-Itunetarako, ene Sokrates.

-Ituna, elkarteei esaten diezu, ala beste edozeri?

-Elkarteei, zinez.

-Beraz, orduan, (b) txakete jokoan tzotzak jartzeko lagun ona eta baliagarria, zuzena ala txakete-jokalaria da?

-Jokalaria.

-Baina, zohiak eta harriak tolesteko hargina baino kide egokiago eta hobe ote da zuzena?

-Ezela ere ez.

-Zein elkarte-motatarako da, beraz, hargina eta kitara-jotzailea baino kide hobe zuzena, zuzenari buruz, kitara jotzeko kitara-jotzailea denez?

-Diru-arazoetarako elkartea, uste dut.

-Agian, ene Polemarkhos, dirua erabili behar denean izan ezik, baina zaldi bat elkarrekin erosteko edo saltzeko bera behar denean, orduan, (c) nire ustez, zaldietan aditua dena, ala zer?

-Badirudi.

-Eta itsasontzi bati buruz denean, ontzi-jabea edo lemazaina.

-Hala dagokio.

-Elkarrekin urrea zein zilarra zerbaitetan erabili behar denean, besteak baino onuragarriago ote da gizon zuzena?

-Pentsupearan ezartzerakoan eta berme dagoenean, ene Sokrates.

-Beraz, erabili ez ezik, geldirik eduki behar denean diozu?

-Hori da.

-Beraz, dirua gauza ez denean, orduan gertatzen da harekiko onuragarri (d) zuzentasuna?

-Gerta liteke.

-Eta elkarrekin edo banaka inaus-labana zaindu behar denean, zuzentasuna onuragarri izango da, baina erabili behar denean ez ote da egokiago mahastigintza?

-Argi dago.

-Esango duzu baita ere, erredola bat edo lira bat zaindu eta erabili behar ez direnean, zuzentasuna baliagarria izango dela, erabili behar direnean, aldiz, hoplitaritza eta musika?

-Beharrezko da.

-Eta gainerako beste gauza guztiei buruz zuzentasuna alferreko izango da, alde batetik, gauza bakoitzarekiko erabiltzerakoan, eta erabiltzen ez direnean, onuragarri bestetik?

-Gerta liteke.

VIII. (e) -Benetan, adiskide hori, zuzentasuna garrantzi gutxiko zerbait datekeela alferreko gauzentzat bakarrik onuragarri gerta baledi. Azter dezagun, bada, beste hau: borrokan jotzen trebeen dena, ukabiltetan zein beste edozein jokotan, ez ote da, bada, baita ere, bere burua zaintzeko?

-Bai benetan.

-Bere burua gaixotasunetik gordetzeko trebe dena, ez ote da baita ere, trebeen ezkutuan besteei eransteko?

-Hala iruditzen zait.

334. -Baina, ez ote da, benetan, gudaltegiko zaintzaile ona arerioen asmo eta beste burubideak ohosteko den berbera?

-Bai, benetan.

-Beraz, gauza baten zaintzaile trebe den edonor, gauza beraren lapur trebe da.

-Badirudi.

-Beraz, zuzena dirua zaintzeko trebe bada, ohosteko ere trebe da.

-Hala erakusten du, gutxienez, arrazoi horrek, esan zuen.

-Dirudienez, zuzena lapur bat bezala agertzen da; eta ziur asko, hori Homerosengandik ikasi duzu, zeren, hark, Autolykos, amaren aldetiko Odysseusen aitita (b) ederresten baitu eta gizon guztien gain "lapurketan eta zinausketan nabarmentzen dela"<sup>9</sup> baitio. Zuzentasuna, beraz, zure, Homerosen eta Simonidesen aburuz, lapurketarako antze bat dela dirudi, lagunaren onerako eta arerioen kalterako. Ez ote zenuen horrelaxe esaten?

-Ezetx bada, Zeusarren, erantzun zuen; honezkero, zer esaten nuen ere ez dakit; horregatik iduritzen zait zuzentasuna adiskideei laguntzea eta arerioei kalte egitea dela.

-Eta lagunak, (c) bakoitzak ontzat dituenak ala iduritu ez arren benetan direnak direla diozu, eta arerioei buruz, berdin?

-Berezko da, bada, esan zuen, on lirudiketenak norberak maite izatea eta txartzat dituenak gorroto izatea.

-Baina horri buruz, ez ote daude oker gizonak, onak izan ez arren, askok onak direla uste dutenean eta alderantziz beste askori buruz?

-Bai, huts egiten dute.

-Orduan, horientzat onak arerio eta gaiztoak adiskide ote dira, bada?

-Zalantzarik gabe.

-Baina orduan, gaiztoei laguntzea (d) eta onei kalte egitea horientzat zuzen ote dago?

-Hala dirudi.

-Baina onak, zuzenak ote dira eta bidegabekeriarik ez egiteko gai ote dira baita ere?

-Egia da.

-Beraz zure esanaren arabera, zuzen dago bidegabekeriarik egin ez duenari kalte egitea.

-Ezelan ere ez, ene Sokrates, esan zuen, arrazoi horri zitala dela deritzat.

-Orduan, esan nuen, zuzen dago bidegabekeriak kalte egitea eta zuzenei laguntzea?

-Hori bestea baino hobeto dagoela dirudi.

-Askori bada, ene Polemarkhos, gertatuko zaie, gizonei buruz huts egiten duten guztiei, zuzen dela (e) adiskideei kalte egitea, eurentzat gaiztoak direlako eta arerioei laguntzea, onak direlakoan, eta horrela, Simonidesek zioela esaten genuenaren guztiz alderantzizkoa baieztatuko dugu.

-Sarritan hala gertatzen da, esan zuen, baina alda dezagun, laguna eta arerioa zer diren zuzen jarri ez dugun arriskuan gaude eta.

-Aldatu, nola, ene Polemarkhos?

-Ustez ona den hori berori adiskide dela uste izatetik.

-Eta orain, esan nuen, nola aldatuko dugu?

-Ustez, esan zuen, eta izatez ona dena adiskide dela ebatziaz; eta ustezkoa 335. izatezkoa ez bada, bestela iduritu arren, ez dela adiskide ebatziaz. Eta arerioei buruz berriz, ebatzi berbera.

-Hitz honen arabera, dirudienez, adiskide, ona dena da, eta gaizto dena, arerio.

-Bai.

-Zuzen jokatzeari buruz, adiskideei on eta arerioei kalte egitea, hasiera batean zuzen erizten genuena, orain horrez gainera zerbait gehitzea eskatzen diguzu, eta ona benetan den adiskideari on egitea eta benetan gaizto den are-

rioari kalte egitea zuzen dela, era honetan esatea eskatzen diguzu?  
 -Bete-betea, bada, esan zuen, (b) horrelaxe hitzegiteari oso ondo deritzat.  
 -IX. Agian, esan nuen, gizon zuzenari dagokiona ote da edonori kalte egitea?  
 -Horrelaxe, benetan, esan zuen; gaizto eta arerioei kalte egitea beharrezko da.  
 -Zaldiak zigortzen direnean, hobe ala txarrago bihurtzen dira?  
 -Txarrago.  
 -Txakurrei dagokien berezitasunean, ala zaldienean?  
 -Zaldienean.  
 -Orduan, bada, txakurrak zigortzen direnean txarrago bihurtzen dira, txakurrei dagokien berezitasunean eta ez zaldienean?  
 -Beharrezko da.  
 -Eta, ene lagun hori, gizonak (c) kaltetzen direnean, ez ote dugu berdin esango, gizatasunari buruz gaiztoago bihurtzen direla?  
 -Bai, benetan.  
 -Baina, zuzentasuna ez ote da giza bertute bat?  
 -Hori ere beharrezko da.  
 -Nahitaezkoa da, beraz, adiskide, kalteturiko gizonak bidegabeago bihurtzea.  
 -Hala dirudi.  
 -Musikariak, agian, musikaren bidez, musikari zakarrak egiteko gai ote dira?  
 -Ezinezko da.  
 -Eta zaldi gainean ibiltzeko trebetasunaren bidez, zaldi-ibiltariak, zaldi-ibiltari txarrak egiteko?  
 -Ezta.  
 -Eta zuzentasunaren bidez zuzenak, bidegabe? Edota, guztitara, (d) onak bertutearen bidez, gaizto?  
 -Ezinezko da.  
 -Hoztea, bada, uste dudanez, ez da beroaren eragina, alderantzizkoarena baino.  
 -Bai.  
 -Ezta lehorrarena hezetzea, alderantzizkoarena baino.  
 -Hala da.  
 -Ezta onarena kalte egitea, alderantzizkoarena baino.  
 -Hala dirudi.  
 -Eta zuzena ona ote da?  
 -Bai, benetan.  
 -Beraz, ene Polemarkhos, ez da zuzenaren eginbeharra lagunei zein beste inori ere kalterik egitea, alderantzizkoarena, bidegabearena baino.  
 -Ene Sokrates, esan zuen, esan dituzun guztietan egia diozula iduritzen zait. (e)  
 -Beraz, inork, zor zaiona bakoitzari ematea zuzen dela esaten badu eta horrekin gizon zuzenagandik arerioei kaltea eta adiskideei laguntasuna zor zaiela uste badu, honakoak esaten dituen ez litzateke jakitun, ez luke egia esango eta; ezelan ere ez zaigulako agertzen inori kalte egitea zuzen denik.  
 -Bat nator, esan zuen.  
 -Beraz, esan nuen, zu eta ni elkar eginik borrokatuko dugu inork, Simonidesek edo Biasek edo Pittakosek, edota beste jakitun eta zorioneko gizonen batek hori esan duela aitortzea.  
 -Ni, benetan, esan zuen, gertu nago borrokaldi horretan laguntzeko.  
 -Baina, esan nuen, ba ote dakizu, 336. adiskideei laguntzea eta gaiztoei kalte egitea bidezkoa dela dioen esaldia norena dela uste duan?  
 -Norena? Esan zuen.

-Honako hau, Periandrosena edo Perdikkasena edo Xerxesena edo Thebeetako Ismeniasena, edo bere ahalmenean uste handia duen beste ezein gizon aberats batena dela iduritzen zait.

-Egia biribilena diozu, esan zuen.

-Hala izan bedi, esan nuen, eta hori, zuzentasuna zein bidezkoa denik agertzen ez denez gero, besterik zer datekeen zeinek esan lezake?

X. (b) Eta Thrasymakhos, guk hitzegiten genuen bitartean askotan hitza eskuratzeko irrikaturik zegoena, eta azkeneraino arrazoi-bidea entzun nahirik bere ondoan jarririk zeudenek galerazi ziotelarik, geldigunea egin genuenean eta honako hauek esan nituenean, ezin zen inondik inora ixilik geratu, eta pizti bat bezala uzkuriturik gure gain etorri zen gu birrintzeko bezala.

Polemarkhos eta biok izuturik geratu ginen beldurrez eta berak, erdian jarririk deiadarrez esan zuen:

-Zer berriketek (c) hartu zaituzte aspalditik, ene Sokrates? Eta zergatik zabiltzate lelokerietan elkarrekin bata besteei amore emanez? Benetan, oster, zuzena zer datekeen jakin nahi baduzu, eziezaguzu galde bakarrik, ezta zalekeriaz gezurtatu inork zerbait ihardesten duenean, jakinik, zera, errazago dela galdetzea ihardestea baino; zuk zeuk ere ihardetsazu eta zuzentasuna zer den uste duzuna aitortu. (d) Beraz, ez diezadazula esan beharrezkoa dela, edo probetxuzkoa, edo egokia, edo irabazgarria, edo komenigarria; esadazu, bada, argi eta zehatz esan behar didazuna, zeren, honelako huskeriak esaten badituzu ez ditut onartuko eta.

Eta entzutean harriturik geratu nintzen eta beldurrez beterik berari begira eta uste dut baita ere berba barik geratuko nintzela nik lehenago begiratu ez banion berak niri baino<sup>10</sup>; eta gure ihardunaldiaz ernegatzen hasi zen horretantxe lehenen begiratu niolako (e) erantzuteko gai aurkitu nintzen eta dardaraz esan nion:

-Ene Thrasymakhos, ez zaitezela gurekin zorrotza izan, honek eta biok gogaketa hau aztertzerakoan hutsen bat egin badugu, jakin dezazula ondo, gogoz kontra egin dugula. Ez dezazula uste izan, bada, urte bila bagenbiltza, bilaketa horretan borondatez elkarri etsiko geniokeenik eta bilatze-zoria alferrik galduko genukeenik; zuzentasuna bilatzen ari garenez eta aburu hau urte asko baino baliotsuago denez, ez pentsa hain zentzu gabe elkarri amore ematen diogunik eta bera ager dadin ahalik gehien saiatzen ez garenik. Sinets ezazu, bada, ene adiskide, baina ezin dugula iduritzen zait; askoz bidezkoago da, beraz, gutaz zerbait errukitzea, zeuok duinok, haserretzea baino.

337. XI. Eta entzun orduko guztiz barre-zantzo zitalka<sup>11</sup> hasi zen eta esan zuen:

-Ene Herakles, esan zuen, hona hemen Sokratesen ironia ezagun eta ohizkoa; banekien eta hau ere iragarri nien, bada, hauei, ihardesterik ez zenuela nahiko, itxurak egiten ibiliko zinela eta erantzun baino edozer egingo zenuela inork ezer itauntzen bazizun.

-Zuhurra zarelako, esan nuen, ene Thrasymakhos, ondotxo zenekien, bada, zenbat diren hamabi norbaiti itaundu bazeniezaio eta itaunduaz (b) aurrez ohartu: "Gizon, ez niri inolaz ere ihardets, bi aldiz sei, ezta hiru aldiz lau, ez sei aldiz bi, ez lau aldiz hiru hamabi direnik, horrelako tentelkeriak esan badiezazkidazu ez dizkizut onartuko eta" honelaxe galdetzen duenari, uste dut argi zeneukala, inork ez liokeela ihardetsiko. Baina esaten badizu: "Ene Thrasymakhos nola diozu? Zerorrek iragarrikoetatik ez dudala erantzun behar? Horietariko bat izatea gertatu arren, ene harrigarri hori, egia baino besterik esan beharko ote dizut? Ala nola diozu?" (c) Zer erantzungo zeniokeen horri?

-Bego, esan zuen, hori bestea lakoa delakoan.

-Ezerk ez du eragozten, esan nuen, eta berdina ez bada ere, itauntzen zaionari horrela iduritzen bazaio, uste al duzu berak uste duen baino zerbait gutxiago erantzungo duela guk debekatu arren edo ez arren?

-Ez ote da, bada, esan zuen, zu ere horrelaxe egitera zoazela? Nik debekaturiko zerbait erantzutera?

-Ez nintzateke harrituko, esan nuen, aztertu eta gero horrela iduri balekit.

-Zer gerta dateke, esan zuen, (d) nik, zuzentasunari buruz, eman diren erantzun guzti horiek baino bestelako erantzun hobe bat eman baneza? Zer jasan merezi ote zenezake?

-Zer besterik, esan nuen, ez dakienari jasatea dagokiona baino? Edozelan ere, dakienarengandik ikastea legokioke eta nik neuk on deritzot horrelakoa jasateari.

-Bai gizon atsegina zarela, esan zuen, baina ikasiaz gainera dirua ere ordaindu beharko duzu.

-Zalantza barik, egin dezadanean, esan nuen.

-Badago baina, esan zuen Glaukonek. Diruagatik bada hitzegizu, ene Thrasyrnakhos, guk guztiok Sokratesentzat jarriko dugu eta.

-Hala uste dut zalantzarik gabe, (e) esan zuen, Sokratesek ohizkoa lor dezan, alde batetik berak erantzun ez, eta bestetik besteek erantzundakoan hitza hartu eta ezerez dezan.

-Nola, bada, erantzun ote lezake inork, esan nuen, ene gizon hoberen hori, lehenengo ezjakina bada, eta ezertxo ere ez dakiela aitortzen badirau eta gero, zerbait dakiela uste duenean, horri buruz, bat ere nardagarri ez den gizon batek inola ere uste duena esatea debekatzen badio? Beraz, askoz bidezkoago da zuk hitzegitea, badakizula 338. eta esatekorik ere badaukazula diozunez. Ez dezazula, bada, bestelakorik egin eta poz nazazu erantzunez, eta Glaukoni eta besteei ez iezaiezu zure irakatsia uka.

XII. Honakoak esaten nituela, Glaukonek eta besteek ere, ez zezala besterik egin erregutu zioten. Eta nabarmen zegoen Thrasyrnakhos hitzegiteko irrikaz zegoela ondo geratzearren, erantzun ezin hobe bat zeukala usterik; eta tematzen zuela itxura egiten ari zen, erantzungo zuena ni izan nendin. Baina azkenean etsi zuen eta jarraian:

-(b) Hau da, esan zuen, Sokratesen jakituria, berak irakasterik nahi ez izatea, hor-hemenka ibiliz besteegandik ikastea, eta horrez gain eskerrik ere ez ematea.

-Besteengandik, esan nuen, ikasten dudanez, egia diozu, ene Thrasyrnakhos, baina eskerrak ez ditudala ematen diostazunean oker zaude, ahal ditudan beste ematen ditudalako, eta dirurik ez daukadanez gero, ederretsiz bakarrik egin dezaket hori. Baina zein gogotsu egiten dudan, inork ondo hitzegin duela uste dudanean, berehalaxe ondotoxo jakingo duzu erantzun diezadazunean, (c) ondo egingo duzulakoan nago eta.

-Entzun ieza dazula, bada, esan zuen, nik zuzentasuna gehien denari komeni zaiona baino besterik ez dela baieztatzen dut. Eta zer dela eta ez zatoz bat? Nahi ez duzulako, beharbada.

-Lehenengo zer diozun jakin dezadanean, esan nuen, ondino ez dakit eta. Zuzentasuna indartsuenari komeni zaiona dela diozu, eta hori, ene Thrasyrnakhos, zer arraiogatik diozu? Beharbada, ez duzu esan nahiko honako zerbait, zera, gu baino indartsuago den Polydamas borrokalari garaileari bere soinerako



behi-haragia egoki bazaio, jateko hori, (d) guretzat ere, bera baino gutxiago garenai, egoki eta bidezko izango zaigunik.

-Bai lotsagabea zarela, esan zuen, ene Sokrates, nire esanari kalterik gehien egin zeniezaiokeen aldetik oratzen diozu eta.

-Ezelan ere ez, ene bikain hori, esan nuen, baina argiago esan ezazu diozun hori.

-Ez ote dakizu gero, esan zuen, hirietatik batzuk tiranoez, beste batzuk demokratez eta beste batzuk aristokratez gobernatuak direnik?

-Nola ez, bada?

-Eta hiri bakoitzean ez ote du agintzen indarra daukanak?

-Zalantza barik.

-(e) Beraz, aginte bakoitzak berari dagozkion legeak ipintzen ditu, demokratiazkoak demokratiak, tiraniazkoak tiraniak eta besteak berdin. Ezarririkoan, berriz, eurei komeni zaiena zuzentasuna dela iragartzen diete menpekoei, eta hortik aldentzen dena legehausle eta bidegabe bezala zigortzen dute. Hau da, ene lagun hoberen hori, nik diodana, hiri guztietan 339. zuzena gauza bera dela, jarririko aginteari komeni zaiona; eta honek dauka indarra, eta, alde guztietan, zentzuz pentsatzen duen edonor, zuzentasuna indarrik gehien daukanari komeni zaiona dela, bat dator.

-Orain ulertu dut diozuna, egia den ala ez ahaleginduko naiz jakiten. Zuk ere erantzun duzu, ene Thrasya

khos, zuzentasuna komeni dena dela, hori berori erantzun nezan niri debekatzen zenidan arren; baina hemen gaineratzen da baita ere (b) "indartsuen denarentzat".

-Agian, eranskin txikia delakoan, esan zuen.

-Ondino ez dago argi handi denentz, argi dagoena zera da, egia diozun aztertu behar dela, zeren, zuzena komeni den zerbait dela, nik neuk ere onartzen dut, baina zuk gaineratzen duzu, indartsuen denarentzat dela esanez, eta hori nik ez dakit, aztertu egin behar da eta.

-Azter ezazu, esan zuen.

-XIII. Horrelaxe izango da, esan nuen; eta esadazu, ez al duzu esaten baita ere agintariei men egitea zuzen dela?

-Nik bai, behintzat.

-(c) Agian, agintariek hiri bakoitzean ezin huts eginezko ote dira, ala hutsen bat egiteko gai ote dira?

-Guztiz dira gai, esan zuen, zerbait huts egiteko ere.

-Beraz, legeak ipintzen ahalegintzen direnean, batzuk zuzen jarten dituzte eta beste batzuk oker?

-Hala uste dut.

-Eta zuzen jartze hori ez ote da eurei komeni zaizkienak jartzea eta zuzen ez jartzea, kaltegarri? Ala nola diozu?

-Horrelaxe.

-Eta menpekoek bete beharreko jar dezaketena, hori al da zuzena?

-Nola ez, bada?

-Beraz, zure esanaren arabera (d) zuzena ez da indartsuenari komeni zaiona egitea bakarrik, alderantzizkoa egitea, kaltegarri zaiona egitea ere bai.

-Zer diozu zuk? esan zuen.

-Zuk zeuk esaten dituzunak uste dut; azter ditzagun hobeto. Ez ote gara akorduan jarri agintariek menpekoei aginduak betearazten dizkietenean, batzuetan, eurentzat onena denari buruz, huts egiten dutela, eta agintarien esana menpekoek betetzea zuzen dela? Ez gara horretan bat etorri?

-Baitez uste dut, esan zuen.

-Kontutan hartu, bada, esan nuen, agintarientzat eta indartsuenentzat kaltegarri dena egitea zuzen dela onartu duzula, agintariek nahi gabe euren buruen kalterakoa agintzen dutenean, haien agindua betetzea zuzen dela diozulako. Ez ote da bada, ene Thrasymakhos jakintsuen hori, beharrezko gertatzen, zuzena zerorrek diozunaren osterantzekoa egitea dela, bat etortzea? Zalantza barik beheragokoei indartsuenaren kaltekoa egitea agintzen zaie eta.

-340. Bai, Zeusarren, ene Sokrates, esan zuen Polemarkhosek, hori guztiz argi dago.

-Zeuk aitor badiezaiozu bederen, esan zuen Kleitophonek hitza hartuz.

-Eta zertarako, esan zuen, behar du aitorlerik? Thrasymakhos berberak onartzen du agintariek batzuetan

bere buruen kaltetan agintzen dutela, eta agindu horiek betetzea zuzen joketzea dela eta.

-Agintarien esana betetzea zuzen zela, ene Polemarkhos, Thrasymakhosek berak jarri zuelako.

-Baita ere jarri zuen, ene Kleitophon, indartsuenari dagokiona zuzena dela. (b) Eta gauza biok aitortuaz onartu ere egin zuen berriro, batzuetan indartsuenek euren buruen kalterakoa egitea agintzen dietela beheragokoei eta menpekoei. Aitorpen hauen arabera, indartsuenari komeni zaiona egitea ez dateke ezertan zuzenago komeni ez zaiona egitea baino.

-Baina, esan zuen Kleitophonek, indartsuenari komeni zaiona esaten zuenean bere ustetan komeni zitzaiona zela; beheragokoaren betebeharra horixe zela, eta zuzentzat hori jarri zuen.

-Baina ez zen horrelaxe esaten, esan zuen Polemarkhosek.

-Ez da ezer aldatzen, (c) ene Polemarkhos, esan nuen, baina Thrasymakhosek orain horrela badio, horrelaxe onartuko diogu. XIV. -Esadazu baita ere, ene Thrasymakhos, hau ote zen zuzentasunari buruz esan nahi zenuena, indartsuenari bere ustez on zaiona, komenigarri izan arren edo ez arren? Horrelaxe diozula jarriko dugu?

-Txikerranean ere ez, esan zuen, baina huts egiten duenari, huts egiten duenean indartsuena deitzen diodala uste al duzu?

-Nik neuk, esan nuen, horrelaxe esaten zenuela uste nuen, agintariak ez zirela huts eginezinak, (d) zerbait huts eginkorrek baino aitortzen zenuenean.

-Nolako salatari gezurtia zaren, ene Sokrates, esan zuen, zure esaretan; gaixoei buruz huts egiten duenari, huts egiten duen horretantxe, besterik gabe, sendagile deitzen ote diozu? Edota kalkuluan huts dagikeenari, huts egiten duen bertantxe eta huts egite horren arabera, kalkulatzaile? Baina esaera horrekin honako hau esaten dugula uste dut: sendagileak huts egin zuela eta kalkulatzaileak eta gramatikariak ere, eta zera uste dut, haietariko bakoitzak, esaten dugunaren adinakoak direla izanez, (e) ez duela inola ere hutsik egiten; beraz, zehatz esanda, zuk ere zehatz egiten duzunez, edozein lanbidetan maisu denak ez du hutsik egiten. Huts egiten duenak, jakituriak alde egiten diolako huts dagi, eta horretan ez da maisu; maisu edo jakintsu edo agintari bezala, batek ere ez baitu hutsik egiten, agintari datekeen bitartean, nahiz eta denak esan, sendagileak huts egin zuela, edota agintariak ere huts egin zuela. Onartzazu, bada, nik ere orain berdin ihardesten dizudala: zehatzen gertatzen dena zera da, agintariak, agintari den heinean, 341. ez duela hutsik egiten eta hutsik egiten ez duenez gero, beretzat onena jartzen duela, eta horixe da menpekoek bete beharrekoa. Hasieratik, indartsuenari komeni zitzaiona egitea zuzena zela esaten nuen bezala, diot.

XV. -Bego, esan nuen, ene Thrasymakhos, maltzurkeriaz salatzen zaitudala uste al duzu?

-Bete-bete, bada, esan zuen.

-Ihardunean zuri kalte egitearren, bihurkeriaz, itaundu dizudala, itaundu dizudan eran, uste al duzu?

-Ondotxo ere badakit, esan zuen, baina ez duzu ezer lortuko, zeren zure zitalkeria ez zait ezkutuan geratzen, (b) eta agerian, aldiz, ez dukezu ihardun honetan ni behartzerik.

-Ez nintzateke ahaleginduko ere, esan nuen, ene zorioneko hori, baina berdin gerta ez dakigun, agintari eta indartsuenari buruz ari zarenean, ebatzi ezazu orokorrean egiten duzun ala zehaztasunez oraintsu esaten zenuenez, indartsuen delako komeni zaiona beheragokoak egitea zuzen izango den.

-Agintari denari buruz, esan zuen, hitzaren zentzurik zehatzenean. Honen aurka zerbait ahal bazenu ekiozu zital eta salatu; ez dizut ezer eskatuko, baina ez zara (c) gai izango.

-Lehoiari, esan nuen, ile-mozten<sup>12</sup> hasteko eta Thrasyrnakhosi iruzur egiteko lain zoraturik nagokeela uste al duzu?

-Orain gutxienez ahalegindu zara, esan zuen, hori ez ezer ahal izan ez arren.

-Nahikoa da horri buruz, esan nuen, baina esadazu, oraintsu aipatzen zenuen sendagilea, zehatz esanda, merkataria ala gaixoen sendalari da? Baina benetako sendagile denari buruz esan.

-Gaixoen sendalari, esan zuen.

-Eta lemazaina zer? Benetako lemazaina marinelen buru ala marinela ote da?

-Marinelen (d) buru.

-Nire ustez, ez da ezertan kontutan hartu behar untzia ibiltzea, ezta marinela deitu izatea, ez zaiolako lemazain deitzen itsasoan ibiltzeagatik, bere trebetasun eta marinelen gainetik daukan aginteagatik baino.

-Egia da, esan zuen.

-Eta hauetariko bakoitzak ez ote dauka zerbait komenigarri zaionik?

-Zalantza barik.

-Eta trebetasuna bera, esan nuen, ez ote da sortu horretarakoxe, bakoitzari komeni zaiona bilatzeko eta eskuratzeko?

-Horretarakoxe, esan zuen.

-Eta trebetasun bakoitzarentzat ba ote dago beste komenigarriarik, ahalik eta osatuen izatea baino?

-(e) Zergatik galdetzen duzu hori?

-Esate baterako, esan nuen, gorputzari nahiko zaion gorputz izatea ala beste zerbait behar duen itaun bazenit erantzun diezazuket "baietz, osoro behar duela, eta horrexegatik sortu eta asmatu dela orain sendakuntza trebetasuna, gorputza makala delako eta denez izatea nahiko ez duelako; komeni dituenak, bada, berari ematearren, horretarakoxe atondu da trebetasuna". Horrelaxe hitzegiterakoan, esan nuen, zuzen egiten dudala uste duzu ala ez?

-Zuzen, 342. esan zuen.

-Eta zer gehiago? Sendakuntza bera akasuna ote da, ala ba ote dago beste trebetasunik gaitasunen baten beharrezanean aurkitzen denik, begiek ikusmenarena eta belarriek entzumenarena bezala, eta hori dela eta beharrezko izaten ote dute beste trebetasunen bat komeni dutena azter eta eskura diezaien? Eta trebetasun berberagan ez ote dago akatsen bat, eta bakoitzak ez ote du besteren bat behar komeni duena aztertzeko eta beste berri bat aztertzen ari denarentzat, eta horrela eten barik? Edota bera ote da bere buruari komeni zaiona (b) aztertzen diona? Edo ez ote du, ez bera, ez besterik behar, bere akatsei buruz komeni zaiona aztertzeko, inongo trebetasunean inolako akatsik ez orbanik ez dagoelako, zeren eta ez baitagokio bere buruari komeni zaiona bilatzea, trebetasun deneko huraxe baino, zuzena izanik akasgabea eta garbia dela baino, hau da: bakoitza guztiz egin-eginekoa datekeen

heinean horrelakoxea dela baino? Hau ere azter ezazu lehengo arrazoi zehatz hareekin: honelaxe ala beste era batera ote da?

-Horrelaxe dirudi, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, sendakuntzak ez du aztertzen sendakuntzari doakiona, (c) gorputzari doakiona baino.

-Bai, esan zuen.

-Hipikak ere ez, hipikari buruz, zaldiei buruz baino, eta beste edozein trebetasunek ere ez, bere buruari buruz -ezer behar ez baitu-, trebetasuna den horretarakoxe baino.

-Horrelaxe dirudi, esan zuen.

-Baina, ene Thrasymakhos, trebetasunek benetan agintzen dute, eta trebetasun direneko harezaz jabetzen dira.

-Hemen ere, bat etorri zen, baina oso nekez.

-Beraz, ez dago, benetan, inongo jakintzarik indartsuenari komeni zaiona aztertu eta taiutzen duenik, bere azpikoarena (d) eta menpekoarena baino.

Azkenean, hauexek ere, onartu zituen, tematzeko gertu izan arren eta onartu zitueneko esan nuen:

-Ez ote da bada sendagile batek ere, sendagile denez, ez duela aztertzen ez taiutzen sendagileari komeni zaiona, gaixoari doakiona baino? Onartua izan da, bada, benetako sendagileak gorputzak zaintzen dituen dela eta ez dela merkatari, ala ez ote zen onartu?

-Baiezkatat jo zuen.

-Eta benetako lemazain ez ote da baita ere marinelen agintari dena, eta (e) ez marinel dena?

-Onartua izan zen.

-Beraz, lemazain eta agintari den honexek ere, benetan, ez du aztertzen, ez agintzen, marineleri eta menpekoari doakiona baino besterik.

-Baiezkoa eman zuen, baina nekez.

-Beraz, ene Thrasymakhos, esan nuen, beste inork inongo trebetasunean agintari den heinean, ez du aztertzen ez taiutzen berari doakiona, menpekoena eta berak zuzentzen duenarena baino, eta haren alde begiratuaz eta hari komeni zaiona eta dagokiona esaten ditu esaten dituenak eta egiten, egiten dituen guztiak.

XVI. 343. Eztabaidan honaino heldu ginenean, guztiontzat argi agertu zen zuzentasunari buruz esanikoa alderantzizko bihurtu zela. Thrasymakhosek erantzun ordez itaundu zuen:

-Esadazu, ene Sokrates, inuderik ba al duzu?

-Zergatik, bada? esan nuen; ez ote duzu beharrezkoago ihardestea honakoak galdetzea baino?

-Zu muki darizula ikusi eta, esan zuen, ez dizulako zintz eragiten behar duzun arren, beragandik ardi zein artzain zer diren ere ikasi ez dizulako.

-Baina, batez ere, zergatik? esan nuen.

-Artzain zein unaiek (b) ardien edo abelgorrien ona bilatzen dutela eta jabeen edota bere buruen probetxuari begiratu barik beste zerbaiti baino gizentzen eta zaintzen dituztela uste dizulako, eta era berean, hirietan agintedun direnek, benetan agintzen dutenek, agian, menpekoei buruz ardiez edonork egingo lukeenetik bestela pentsatzen dutela, eta gaez zein egunez nondik probetxurik ateratzea baino zerbait besterik bilatzen dutela uste dizulako. Eta zuzena (c) eta zuzentasuna, bidegabe eta bidegabekeriari buruz hain aurrera joan zaren arren, ez duzu ikasi zuzentasuna eta zuzena inoren ona denik, indartsuenari eta agintariari komeni zaiena, eta esanekoarentzat eta menpekoarentzat kaltea, eta bidegabekeria alderantzizko denik, txotxolo eta zuzenen gain agintzen du hark benetan; menpekoek indartsuen den harexentzat komenigarri dena egiten dute, eta otseinduz zoriontsu egiten, eurak inolaz ere izan ez arren. (d) Eta begiratu behar da, ene

Sokrates tentel hori, hau derrigorrez honelaxe dela; alde guztietan gizon zuzena bidegabea baino gutxiago delako. Hasteko, bada, euren artean egiten dituzten elkarteetan, non batak bestearekin esku hartzen duten, elkarte hori hausten denean, inoiz ez duzu ikusiko zuzenak bidegabeak baino gehiago daukanik, gutxiago baino. Gero, hiriko arazoetan, zergaren batzuk jartzen direnean, zuzenak, berdinean, gehiago laguntzen du, besteak gutxiago; hartzeko denean, berriz, (e) batak ez du ezer irabazten, besteak asko. Bietarik batak zenbait aginte daukanean, zuzenari gertatzen zaio, beste zigorrik ezean, bere etxeko arazoak, alde

batera uzten dituelako edo, guztiz hankaz gora izatea, eta zuzena izateagatik herriko gauzez ez probetxatzea, eta horrez gainera etxekoen eta ezagunen gorrotoa izatea, zuzentasunaren aurka lagundu nahi ez diezaietenean. Bidegabeari gauza guzti hauek alderantziz gertatzen zaizkio. Oraintsu nioena diot, 344. gehien eskuratzeko ahalmen handia daukanari buruz, hain zuzen. Begira ezazu, bada, epaitzerik nahi baduzu, nork bere buruarentzat zenbat onuragarriago duen bidegabe izatea, zuzena izatea baino. Eta guztiz erraz jakingo duzu bidegabea zoriontsuen eta, aldiz, bidegabekeria jasaten dutenak eta bidegabekeriarik egin nahi ez dutenak, zoritxarrekoen bilakatzen dituen oso-osoko bidegabekeriara etor bazaitez. Eta inorenak iruzurrez, edota indarrez, sakratu zein beste, pribatu zein herriko, eta ez apurka moltsoka baino lapurtzen dituen, horixe da tirania. Eta norbait, egingo lukeen honako bidegabekeria bakoitzean, gorderik gera ez baledi, zigortua izaten da eta laidorik handienak leporatzen dizkiote, donausle, zapaltzaile, horma-zulatzaila, harrapari eta lapur deitzen diote, egiten dituen hauetako honako hogen bakoitzeko. Baina norbaitek hiritarren ondasunak ez ezik, hauek berak azpiratuz, morroitzaraino eramaten baditu, honako lotsagarritzko izenez deitu beharrean, zoriontsu eta zorioneko esaten diote, ez hiritarrek bakarrik (c), bai egin duen bidegabekeria guztiaren ezagueran dauden gainerako guztiek ere. Eta bidegabekeria gaitzesten dutenek ez dute gaitzesten egiteko beldur direlako, bera jasateko beldur direlako baino. Horrela, ene Sokrates, bidega-

bekeria bete-betekoa gertatzen bada, indartsuago, askatuago eta nagusiago da zuzentasuna baino; eta hasieratik esaten nuena zuzentasuna indartsuenari komeni zaiona dela gertatzen da, eta norberari dagokiona eta komeni zaiona, bidegabekeria.

XVII. Gauza hauek esanik, (d) Thrasymakhosek alde egitea zeukan gogoan, gure belarrietara, bainulari batek bezala, atertu bako hitzaldi luzea isuri eta gero. Baina bertan zeudenek ez zieten utzi, eta bertan geratzera eta esanikoaren arrazoia azaltzera behartu zuten. Nik neronek ere sakon erregutu nion eta esan ere:

-Ene jainkozko Thrasymakhos hori, horrelako hitzaldia jaurtiki eta gero, gogo ote duzu alde egitea guri taiuz irakatsi barik, edo horrela, edo beste era batera den ikasi baino lehen? Edozer dela uste al duzu bizitza iragaiteko bidea mugatzen saiatzea, zeinetik ibilirik guretariko bakoitzak bizitzarik erosoena bizi dezagun?

-Izan ere, esan zuen Thrasymakhosek, hori baino besterik egiten dudarik uste ote dut?

-Itxura zenuen, esan nuen, ez zinela gurekin arduratzen, ezta kezkatzen ere gu txartoago edo hobeto biziko ote ginen, zuk badakizula diozuna jakin barik. Ahalegindu zaitez, bada, on hori, guri argi egiten. Benetan, ez zaizu txarto etorriko, gu garen beste izanik, egingo diguzun mesedea. 345. Nik neure aldetik badiotsut ez dudala onartzen, ezta sinesten bidegabekeria zuzentasuna baino onuragarriago denik, inork



nahi duen guztia egiten utzi ez ezik, galerazen ez badio ere. Baina bego bidegabea, lagun on hori, egin dezala bidegabekeria, azpitik zein indarrez, hala eta guztiz ere, ez dut sinetsiko zuzentasuna baino onuragarriago denik. Hau beharbada, (b) guretariko besteren batek ere berdin nabariko du, ez nik bakarrik. Etsi gaitzazu, ene zorioneko horrek, behar den heinean, zuzentasuna bidegabekeria baino gehiagotzat daukagula diogunean, ez dugula burubide zuzenik.

-Eta nola, esan zuen, sinestaraziko dizut? Orain arte esanikoaz jabetu ez bazara, zer gehiago egingo dizut? Ala arrazoia harturik zure arima barruan sarrarazi beharko ote dut?

-Zeusarren, esan nuen, ez dezazula horrelakorik egin; baina esan dezazunari eutsi iezaiozu, edo alda bazeneza agerian dagizula, eta ez iezaguzu iruzurrik egin. Orain ikusten duzu, (c) ene Thrasymakhos,-azter dezagun, bada, berriro lehengoa-hasieran benetako sendagileari buruz jarri zenuena, ez duzu gero beharrezkotzat uste izan benetako artzainari buruz ere zehatz gordetzea; uste duzu, oster, hark ardiak gizentzen dituela, artzain den arabera, haientzat onena denari begiratu barik, jateko gerturik eta bere atsegin-saritzat edozein gonbidatu batek bezala egingo lukeenez baizik, edota merkatari batek bezala saltzeko baizik, (d) eta ez artzain bezala. Baina artzaintzari, zalantzarik gabe, eginbidetzat jarria duen hura baino besterik ez zaio ardura, beretzat onena eskuratzearen,

berari dagokionez, artzaintza izateko, zalantza barik, hain ondo horniturik dago, non ezer behar ez duen. Eta horrela, uste nuen, beharrezko zela guk orain aitortzea edozein agintek, aginte den arabera, ez duela beste onik bilatzen menpekoena eta bere ardurapekoena baino, (e) zein politikagintzan zein bakoitzaren arazoetan. Zuk uste al duzu hirietako benetako agintariek euren gogoz agintzen dutenik?

-Zeusarren, esan zuen, ez uste bakarrik, jakin dakit.

XVIII. - Eta zer, ene Thrasymakhos, esan nuen, beste aginteei buruz denean, ez ote zara konturatzen, bere borondatez ez duela inork aginterik nahi, saria eskatzen dutela baizik agintaritzatik eurentzat onik aterako ez dutelakoan, agintepekoentzat baizik? 346. Honexeri buruz erantzun iezadazu, bada; ez al dugu, bada, beti esaten, trebetasun bakoitza besteengandik osterantzeko dela, osterantzeko eragina daukalako? Ez dezazula erantzun, ene zorioneko horrek, zure ustearen kontra, zerbait aurrera egin dezagun.

-Horretan, desberdina da bakoitza, esan zuen.

-Eta bakoitzak guztitarikoa barik, ez ote digu onura bereziren bat eskuratzen, sendakuntzak osasuna bezala eta lemazaintzak itsasoan ibiltzeko ziurtasuna bezala, eta besteek beste horrenbeste?

-Horrelaxe da, benetan.

-Eta saripeko langintzak ere, saririk ez? Izan horixe da, bada, bere eragina, (b) ala zuk sendakuntzari eta lemazaintzari berdin deituko zenieke? Edo beste alde batetik, lehen

egiten zenuen bezala, zehatz muga nahi bazeneza, baldin eta itsasoan lemazain ibiltzea komeni zaiolako inor osasuntsu gerta baledi, horregatik, bere lanbide horri sendakuntza deitzen al diozu?

-Ez horixe, esan zuen.

-Ezta, nire ustez saripeko langintzari, inor sari truke lanean ari denean sendatuko balitz ere.

-Ezta ere.

-Eta zer? Sendakuntzari saripeko langintza, inork sendakuntza-lanetan saririk hartzen duelako?

-(c) Ez, esan zuen.

-Orduan, ez ote dugu aitortuko trebetasun bakoitzak bere onura berezia daukanik?

-Bego, esan zuen.

-Beraz, bizibide bat daukaten guztiek, gehienetan, irabazi bera eskuratzen dutenean, argi dago trebetasunek gehienetan daukaten gehigarri berdina erabiliaz eskuratzen dutela.

-Hala dirudi, esan zuen.

-Esango dugu, beraz, bizibidedunek hartzen duten saria, saripeko langintza-trebetasunaz baliatzen direlako datorkiela.

-Bat etorri zen, nekez baina.

-Beraz, saripeko langintzako irabazi hori (d) ez datorkio bakoitzari bere trebetasunetik, baina zehatz aztertu behar bada, sendakuntzak osasuna dakar, saripeko langintzak saria, eta etxegintzak etxea, eta honi ondotik datorkion saripeko langintzatik, saria. Eta horrelaxe beste trebetasun orok bakoitzari dagokion eginkizuna egiten du, eta jarri izan zaionekoxe irabazi bera eskuratzen du. Eta irabazirik gehitzen ez bazaio, bizibidedunak ezer eskuratuko ote du bere trebetasun berezitik?

-Ezetx dirudi, esan zuen.

-Eta dohainik lan egiten duenean, (e) ez ote du irabazirik eskuratzen?

-Nik neuk, hala uste dut.

-Beraz, ene Thrasymakhos, orain argi dago, inongo trebetasun zein agintek, ez duela atontzen bere buruarentzat irabazgarririk denik, alderantziz, agindupekoentzat baino, lehen esaten genuenez, eta honen onari begiratuaz gauzak atontzen ditu eta agintzen, eta ez indartsuenari begiratuaz. Horregatik, nik neuk, Thrasymakhos adiskide hori, oraintsu esaten nuen, inork ez zuela nahi aginterik bere borondatez, ezta inoren arazorik erabiltzerik ez zuzentzerik, saria eskatzen duela baino; bere trebetasunez zuzen baliatu behar duenak, 347. trebetasun horren arabera egiten duenean, beretzat onena izango litzatekeena ez du inoiz atontzen ez agintzen, agintepekoena baino. Horregatik, dirudienez, agintzarako gertu eta nahibera denari, saria eman behar zaio dirutan, edo ospetan, edo agintzen ez badu, isunetan.

XIX. -Nola diozu hori, ene Sokrates? esan zuen Glaukonek; sari bi horiek ezagun ditut, baina diozun isun horrezaz, sari lakotzat aipatu duzun horrezaz, ez dut ulertzen.

-Ez ote zara ohartzen, esan nuen, (b) zentzudunenek agindu nahi dutenean, hoberenen sariagatik agintzen dutela? Ez dakizu ala, handikeria eta diru-zalekeria lotsagarritzat dituztela, eta izan ere hala direla?

-Nik bai, esan zuen.

-Horregatik, bada, esan nuen, bidezko gizonek ez dute aginterik nahi, ez diruagatik, ez ospeagatik; ezta ez dute nahi saripeko direla esan diezaieten, agintea dela eta agerian sariren bat jadesten badute, ezta lapurretan egiten dutela ezkutuan, euren agintea bide dela, zerbait hartzen dutenean. Handizale ez direnez, ospeak berak ere ez ditu bultzatzen. Beharrezko dute, beraz, (c) premiapean eta isunpean izatea, aginterako prest egon daitezen; horregatik lotsagarritzat jotzen da borondatez agintera joatea, eta behartua izan gabe agintean irautea; eta zigorrik handiena, hark aginterik nahi ez duenean, bera baino okerrago baten agindupean izatea da; horren beldurrez, iduritzen zait, agintzen dutela agintzen dutenean gizon iaioek, eta orduan ere, agintera doaz, ez gauza on batera doazenen antzera, eta bertan ondo egongo direnen antzera, beharturik bezala baino, eta eurak baino hoberik ez antzekorik ez daukatelako nor jarri. (d) Agian gizon on hutsezko hiri bat sortuko balitz, orduan, borrokak sortuko lirateke ez agintzearren, gaur agintzeagatik gertatzen diren bezala, eta orduan argi geratuko litzateke, benetako agintariari ez dagokiola berari komeni zaiona begiratzea, agindupekoena baino; beraz, zuhur den guztiak lehenago aukeratuko luke besteen laguntza izatea, besteari laguntza emateko zeregina hartzea

baino. Horregatik, bada, ni neu ezelan ere ez nator bat (e) Thrasymakhosekin, zuzena indartsuenari komeni zaiona delakoan; baina, hau ere beste aldi batean aztertuko dugu; orain askoz garrantzitsuago dela deritzat Thrasymakhosek dioenari, bidegabearen bizitza hobea dela zuzenarena baino esan eta esan dabilenean. Bietatik zuk, ene Glaukon, esan nuen, zein aukeratzin duzu? Zure ustez, bietatik zein da egiazkoena esateko?

-Niretzat, zuzenaren bizitza onuragarriago da.

-Entzun al dituzu, esan nuen, 348. Thrasymakhosek bidegabearen bizitzari buruz oraintsu esan dituen on guztiak?

-Entzun ditut, baina ez nau etsi.

-Nahi duzu, era aurkitzen badugu, etsi dezagun bera, egia ez duela esaten?

-Nola ez dut gura izango, bada? Esan zuen.

-Baina, esan nuen, arrazoiz arrazoi aurre eginez zuzena izateak zenbat on dituen berriro esan bageniezaio, eta berak ere berdina, eta guk berari, beharrezko izango dugu onak zenbatzea, eta bakoitzak gauza bakoitzean aipatzen ditugun guztiak neurtzea, (b) ebatziko lukeen epaile batzuk berehala beharko genituzke; baina orain arte bezala, elkar-akorduan jarriaz azter bageneza, era berean epaile eta hizlari izango gara.

-Hala da, esan zuen.

-Eta bietatik, bada, esan nuen, zein duzu atsegin?

-Azken hau, esan zuen.

XX. -Goazen bada, esan nuen, ene Thrasymakhos, erantzun diezaguzu lehenengoetatik hasirik; osoko bidegabekeria, osoko zuzentasuna baino onuragarriago dela diozu?

-Bete-betean diot, (c) esan zuen, eta esan ditut arrazoiak.

-Ea bada, horri buruz, nola diozu? Batari, agian, bertute eta besteari gaiztakeria esaten diozu?

-Nola ez, bada?

-Agian, zuzentasunari bertute eta bidegabekeriari, gaiztakeria?

-Bidezkotzat ote duzu hori, esan zuen, on huts horrek, bidegabekeriak onura dakarrela eta zuzentasunak ez esaten ari naizenean?

-Baina zer, orduan?

-Gutiz osterantzizkoa, esan zuen.

-Zuzentasuna gaiztakeria dela?

-(d) Ez, berebiziko inozokeria bikain bat baino.

-Eta bidegabekeriari, orduan, gaiztakeria deitzen diozu?

-Ez, zuhertasuna baino, esan zuen.

-Orduan, ene Thrasymakhos, bidegabeak zentzudun eta on direla uste al duzu?

-Benetan, gutzizko bidegabekeria egiteko gai direnak, esan zuen, euren menpeko hiri eta herriak egiteko gaituen diren gizonak; uste izango duzu, behar bada, lau-txikiko sakel-lapurrei buruz ari naizela. Horrek ere agerian agertzen ez bada onurarik ekarri arren, baina ez da kontutan hartzekoa, lehentxoago esaten nuena baino.

-(e) Badakit honek zer esan gura duen, esan nuen, baina zurtz eginik utzi nau, bidegabekeria bertute eta jakintzaren zati bat bezala, eta zuzentasuna osterantzekoan zure jartze horrek.

-Zeharo horrelaxe jartzen ditut.

-Hori, esan nuen, gogorrago da, ene adiskide, eta ez dauka erraz horri erantzun behar dionak; bidegabekeria onuragarri dela jarri bazenu, baina, era berean, gaiztakeria eta lotsagarri ere badela aitortuko bazenu, beste batzuek egiten duten bezala, zerbait esateko izango genuke ohizkoari ekinez; baina orain argi dago esango duzula bidegabekeria eder eta indartsu dela 349. eta guk zuzentasunari jartzen genizkion beste guztiak erantsi beharko dizkiozu, bidegabekeria bertute eta jakintzaren pareko jartzen ausartu zarelako.

-Oso-osoan egia igarri duzu.

-Baina, esan nuen, eztabaida hau aztertzerakoan, ez dut atzera egin behar, uste duzuna esaten duzula jabetu arte; uste dut, ene Thrasymakhos, oraingoan ez dituzula gauzak beste barik aztertzen, egiari buruz uste duzuna diozula baino.

-Eta, esan zuen, zuri zer ardura dizu hori horrelaxe uste dudana ala ez, baina nire arrazoa ez ote duzu gezurtatuko?

-(b) Ez, esan nuen, baina ahalegindu zaitez gauza hauei erantzuten; Uste duzu zuk zuzenak beste gizon zuzen batek baino gehiago izan nahi duenik?

-Ezelan ere ez, esan zuen, ez litzatekeelako orain arte bezala dotore eta inozo izango.

-Eta zer? Ez duela bidezkoa baino gehiagorik egingo?

-Bidezkorik ere ez, esan zuen.

-Eta egokitzat eduki ote lezake bidegabea baino gehiago izatea, eta zuzen dela uste ote lezake, ala ez?

-Pentsa lezake, esan zuen, eta egokitzat eduki ere bai, baina ez lezake lor.

-Baina, esan nuen, hori ez dizut itauntzen, (c) zuzenak gizon zuzena baino gehiago izatea egokitzat ez badauka ere, bidegabea baino gehiago izatea ez ote duen gura baino.

-Baina hala da, esan zuen.

-Eta bidegabeak, zer? Egokitzat izango ote du zuzena baino gehiago izatea, eta bidezkorik baino gehiago egiteko?

-Nola ez bada, esan zuen, beste guztiak baino gehiago izatea egokitzat badauka?

-Orduan, bidegabeak gizon bidegabea eta bidezko ekintza ere gaitzuko ote ditu eta ahaleginduko ote da berak inork baino gehiago lor dezan?

-Hala da.

XXI. -Honelaxe jarriko ote dugu, beraz, esan nuen: gizon zuzena ez dela ahaleginduko bere antzekoarena baino gehiago izaten osterantzekoarena baino, eta bidegabea, aldiz, (d) antzekoarena eta osterantzekoarena baino gehiago izaten ahaleginduko dela?

-Oso ondo esan duzu, esan zuen.

-Ez ote da bada, esan nuen, bidegabea zuzen eta on, eta zuzena ez bata ez bestea?

-Hau ere ondo dago, esan zuen.

-Orduan, esan nuen, bidegabea ez ote da zuzenaren eta onaren itxurako, eta zuzena ez?

-Nola, bada, ez da antzeko izango berdina izanik, eta honakoa ez dena, antzeko?

-Ederto. Bakoitza beraz, antzekoaren lakoxea ote da?

-Zer besterik dateke bada? esan zuen.

-Bego, ene Thrasymakhos, ez ote deritzazu baten bati musikari eta besteren bati, (e) ez?

-Nik bai, behintzat.

-Bietatik, zein da burutsu, eta zein burugabe?

-Zalantza barik burutsu, musikaria, eta ez dena, burugabe.

-Ez ote da bada, burutsu den heineko horretan on eta burugabe den heinekoan, gaizto?

-Bai.

-Eta sendagileari buruz, zer? Ez ote da horrelaxe?

-Horrelaxe da.

-Uste duzu, ene bikain horrek, inork musikari izanik, lira bat gozatzerakoan, hariak estutzean edo lasaitzean beste ezein musikari baino gehiago izan nahi duela, ala musikari egokiago izan?

-Nik neuk ez.

-Eta zer? Musikari ez dena baino?

-Beharrezko da, esan zuen.

-Eta sendagileak zer? 350. Jan-edariak ematerakoan beste ezein osagile baino gehiago izan nahi ote du, ala sendakuntza bera baino gehiago izan?

-Ez, zalantza barik.

-Eta sendagile ez dena baino?

-Bai.

-Ikusazu bada, jakintza zein ezjakintza guztiei buruz jakitun den batek, hitzez eta egitez, zure ustez, beste jakitun batek adina baino gehiago eskura nahi ote duen, eta ez ekintza berdinean, bere antzekoa denak lortzen dituen gauza berak.

-Baina, agian, esan zuen, derrigorrezko da hori horrelaxe izatea.

-Eta ezjakinak zer? Ez ote du nahi izango jakituna zein ezjakituna baino gehiago izan?

-Agian, bai.

-Eta jakituna, zentzudun ote da?

-Hala diot.

-Eta zentzuduna, ona ote da?

-Hala diot.

-Beraz, on eta zentzudun denak, bere antzekoa baino gehiago izaterik ez du nahiko, osterantzeko eta aurkakoarena baino.

-Hala dirudi, esan zuen.

-Gaizto eta ezjakin denak, ostera, bere antzeko eta osterantzekoarena ere bai.

-Hala gertatzen da.

-Orduan, ene Thrasymakhos, bidegabea ez ote zaigu agertzen bere osterantzeko eta antzekoa baino gehiago izan nahirik? Ala, ez zenuen horrelaxe esaten?

-Nik neuk bai, behintzat, esan zuen.

-Eta zuzenak ez ote du nahiko, bere antzekoa baino (c) gehiago izaterik, osterantzekoarena baino?

-Bai.

-Beraz, esan nuen, zentzudun eta onaren antzeko da zuzena eta bidegabea gaizto eta ezjakinarena.

-Baliteke.

-Baina, bakoitza izan ere antza daukanaren lakoa dela aitortzen genuen.

-Bai, aitortzen genuen.

-Beraz, on eta zentzudun agertu zaigu zuzena, eta bidegabea ezjakin eta gaizto.

XXII. Eta Thrasymakhosek gauza guzti hauek onartu zituen, baina ez nik orain esaten ari naizen bezain erraz, (d) narraz eta nekez baino, harrigarritzko izerdi baten, uda zen, izan ere, eta orduan ikusi nuen lehenengo aldiz ordurarte Thrasymakhos gorri-gorri jartzen zela; eta zuzentasuna bertute eta jakintza, eta bidegabekeria gaiztakeria eta ezjakite zirela bat etorri ginenean, esan nuen:

-Bego, utz dezagun hori horrelaxe jarririk; esaten genuen baita ere, bidegabekeria indartsuago zela, ala ez ote zara gogoratzen, ene Thrasymakhos?

-Gogoratzen naiz bai, esan zuen, baina zuk orain esan dituzunak ez ditut gogoko, eta horri buruz badaukat esatekorik, baina hitzegin baneza (e) ondotxo ere badakit berritsukerietan nabilela esan dezakezula; utz iezadazu, bada, nahi dudak guztia esaten, edo itauntzerik nahi baduzu, itaundu, eta nik mitoak kontatzen dituzten atsoei bezala "bego" esango dizut, baietza edo ezetza buruarekin eginik.

-Baina, ezelan ere ez zeure eritziaren aurka, esan nuen.

-Nahi duzun bezala, esan zuen, hitzegiten uzten ez didazunez gero. Zer gehiago nahi ote duzu?

-Ezer ez, Zeusarren, esan nuen, baina horrela egitera bazoaz, egin, nik itaunduko dut eta.

-Itaundu, bada.

-Lehentxeago itauntzen nizuna egingo dizut orain, lerro-lerro eten barik gogaketa hau azter dezagun, 351. bidegabekeriaren arabera zuzentasuna ea zer datekeen. Ziurtzat ezarri genuen, bada, bidegabekeria zuzentasuna baino ahalmen handiagoko eta

indartsuago datekeela eta orain, aldiz, esan nuen, zuzentasuna jakintza eta bertute badira, uste dut errazago agertuko dela bidegabekeria baino indartsuago, bidegabekaria ezjakintasun delako; inork ez dezake horren ezjakinean izan. Baina nik, ene Thrasymakhos, ez daukat gogorik hau hain lau aztertua izan dadin, beste era honetan baino: esan ote zenezake badela bidegabe den hiririk, (b) eta bidegabekeriaz beste hiri batzuk morroitzapean jarri nahi dituenik eta benetan jarri dituenik, eta anitz euren morroitzapean eusten dituenik ere?

-Nola ez, bada? esan zuen. Hori batez ere, hiririk bikainenak eta guztiz bidegabe denak egingo du.

-Badakit, esan nuen, zure ustea hori dela, baina horri buruz aztertu nahi dudana zera da: ea bestea baino indartsuago egin den hiriak zuzentasunik gabe indarrik izango ote duen, ala ezinbesteko duen zuzentasunarekin izatea.

-Orain arte, esan zuen, (c) esaten zenuen bezala, zuzentasuna jakintza bada, zuzentasunarekin, nik esaten nuenez bada, bidegabekeriarekin.



-Gutziz pozten nau, esan nuen, ene Thrasymakhos, zuk baietza edo ezetza buruarekin bakarrik ez emateak, oso ondo erantzuten duzulako baino.

-Zu poztearren dagit, esan zuen.

XXIII. -Ondo dagizu, benetan, baina beste mesede hau ere egidazu, eta esan: uste al duzu hiri batek, edo gudaroste batek, edo gaiztagin batzuek, edo lapurrek, edota beste talderen batek elkarrekin ezein bidegabekeria egitera doazenean ezer egin ahal dezaketenik, batak besteari egin badiezaio?

-(d) Ez horixe, zalantza barik, esan zuen.

-Eta elkarri bidegabekeriarik egin ez badiezaiote, zer? Hobeto ezta?

-Bai benetan.

-Bidegabekeriak, ene Thrasymakhos, nonbait, matxinadak, gorrotoak eta elkarren arteko borrokak ere dakartzalako; zuzentasunak, ostera, elkartasuna eta adiskidetasuna; ala zer?

-Bego, esan zuen, zuri aurre ez egitearren.

-Benetan ondo egiten ari zarela, ene bikain hori, baina erantzun iezaziozu honi: honako hau bidegabekeriaren ekintza berezia bada, dagoenik dagoen lekuan gorrotoa eranstea, gizon askeen zein morroien artean ere izaten bada, ez ote du lortuko elkarri gorroto izatea, eta zatitzea, (e) eta elkarrekin ezer egiteko ezinezko bihurtzea?

-Bai benetan.

-Eta zer gertatuko litzateke hori biren artean sor baledi? Ez ote dute euren artean tematuko, eta gorroto izango, eta bai bata bestearen eta bai zuzenen arerio bihurtuko?

-Bihurtuko dira, esan zuen.

-Eta orain, ene harrigarri hori, bidegabekeria batengan bakarrik gerta badadi, ez ote du bere ahalmen berezia galduko, ala ezer gutxiago izango ote du?

-Ez beza gutxiago izan, esan zuen.

-Beraz, ez ote da agertzen bidegabekeriak halako ahalmen berezi bat daukala sartzen denarengan, hiri zein senitarte, gudaroste zein beste edozer dela ere, lehenengo eta behin 352. sortzen dizkion matxinada eta zatiketak direla eta, berez ezer egiteko gaitasun barik bihurtzen dituelarik, eta, gero, euren buruen edota edozein osterantzekoen, eta zuzenaren arerio bihurtzen dituela? Ez ote da hau honelaxe?

-Bai honelaxe da, benetan.

-Eta bakar batengan jartzen bada, berez egiteko sortua deneko gauza guzti hauek egingo dizkiola uste dut, lehenengo ezer egiteko ahalmen barik utziko du, bere buruarekin matxinadan eta borrokan, eta gero bere buruaren eta zuzenen arerio ere; ala, zer?

-Bai benetan.

-Eta jainkoak ere, ene lagun hori, ez ote dira benetan zuzenak?

-Bego, (b) esan zuen.

-Beraz, ene Thrasymakhos, jainkoentzat ere, bidegabea arerio izango da, eta zuzena, adiskide.

-Beldur gabe ase zaitezela zure arrazoi-oturuntzarekin, esan zuen, nik ez dizut aurkarik egingo, haientzat gorrotagarri bihur ez nadin.

-Goazen bada, esan nuen, eta orain arte egin duzun bezala, erantzunez oso iezazkidazu oturuntzari geratzen zaizkionak; zuzenak, bada, edozer egiteko jakitsuago, hobe eta iaioago agertzen zaizkigu eta, eta bidegabeak elkarrekin ezer egiteko gai ez direla, eta bidegabe izanik, batzuetan, elkarrekin zerbait egiteko iaio-iaioak direla diogunean, horrekin ez dugu, inolaz ere, egirik esaten; guztizko bidegabeak balira ez liekete bata besteari barkatuko eta; argi dago baina, eurengan zuzentasun-apurren bat badagoela; honek ez die uzten, inolaz ere, besteei egitera doazenean elkarri bidegabekeriarik egiten, eta, bera bide dela, egiten dituzte egiten dituztenak, eta gaiztakeria gaiztakeriaren gainean egitera abiatzen dira, erdi gaizto bakarrik direlako, guztiz txar eta bidegabeak

benetan ezer egiteko gai ez direlako. Gauzak, bada, (d) honelaxe direla jakitera heldu naiz, eta ez zuk hasieran jarri zenituen bezala. Eta zuzenak bidegabeak baino hobeto bizi eta zoriontsuago direnekoa, berriro aztertzeke asmoz utzi genuena, aztertu beharko da, eta esan ditugunaren arabera, benetan, uste dudan bezala, orain ere agertzen dira, baina horregatik hobeto aztertu beharko da, eztabaida hau eskura datorren edozeri buruzkoa ez delako, zein eratara bizi behar denekoari buruzkoa baino.

-Azter ezazu, bada, esan zuen.

-Horretara noa, esan nuen. Esadazu, zaldiak egiteko berezirik daukanik uste al duzu?

-(e) Baietz uste dut.

-Agian, bada, zaldiaren eta beste edozeinen eginkizuntzat jar ote zenezake hark bakarrik egin lezakeena, ala hobekien egin lezakeena?

-Ez dut ulertzen, esan zuen.

-Ea era honetan: ikusi ahal ote dezakezu begiez baino bestez?

-Benetan, ez.

-Eta zer? Entzun ahal dezakezu belarriez baino bestez?

-Ezelan ere ez.

-Ez ote genuke, bada, bete-betea esango hauek haien egiteko bereziak direnik?

-Benetan.

-Eta zer? 353. Ez ote zenezake mahats-aihen bat ezpataz, aiztoz edota beste tresna askorekin moztu?

-Nola ez, bada?

-Baina nire ustez, ezerekin hobeto horretarako eginik dagoen inaus-labanarekin baino.

-Egia.

-Beraz, ez ote dugu hau ere haren egiteko berezi bezala jarriko?

-Jarriko dugu, bai.

XXIV. -Uste dut orain hobeto uler dezakezula lehentxeago jakin nahirik itauntzen nuena, ez ote den gauza bakoitzaren egiteko berezia bakoitzak bakarrik egiten duena, ala besteak baino hobeto egiten duena.

-Ulertzen dut, esan zuen, niri ere hori bakoitzaren (b) eginkizun berezia dela iduditzen zait.

-Bego, esan nuen, ez ote duzu uste eginkizun bat jartzen diogunarengan bertuteren bat ere badagoenik? Joan gaitezen berriro lehengoetara; ba ote dago begien egiteko berezirik?

-Bai badago.

-Orduan, begien bertuterik ere bada?

-Bertuterik ere bai.

-Eta zer? Ez ote zegoen belarrien egiteko berezirik?

-Bai.

-Bertuterik ere bai?

-Bertuterik ere bai.

-Eta beste gauza guztiei buruz zer? Ez ote da honelaxe?

-Honelaxe da.

-Ea bada, orduan begiek ondo egingo ote dute bere egitekoa bere bertute berezirik gabe, (c) aldez, bertutearen ordeztakeria izanik?

-Nola bada? esan zuen, beharbada ikusmenaren ordeztasunari buruz diozu.

-Hauen edonolako bertuteari buruz, esan nuen, baina, ondino, ez nabil hori itauntzen, egin behar dituen eginkizunak bere bertute bereziaz ondo egingo dituen baino, eta txarkeriaz txarto baino.

-Honekin, esan zuen, benetan egia diozu.

-Eta belarriek ere, bere bertute berezia galdurikoan, bere eginkizuna txarto egingo ote dute?

-Bai benetan.

-Orduan, jartzen al ditugu beste gauza guztiak (d) erizpide berean?

-Hala uste dut nik.

-Goazen bada, eta hauen ondoren, beste hau azter ezazu. Ba ote dago arimaren eginkizun berezirik bera gabe bestez egin zenezakeenik, adibidez: zuzentzea, agintzea, erabakitzea eta honako gauza guztiak arimari barik beste edozeri arrazoiz ezar geniezaizkioke, eta hark bere-bereak dituela esan genezake?

-Beste inorena .

-Eta zer, oster, bizitzari buruz? Ez ote dugu esango arimaren eginkizun denik?

-Gehienbat, benetan.

-Ez ote dugu esaten baita ere, arimaren bertute bat dagoenik?

-Esaten dugu.

-(e) Baina, agian, bada, ene Thrasymakhos, arimak bere bertute berezi hori barik, bete ahal izango ote du ondo bere eginkizuna, ala ez du ahal izango?

-Ezinezko da.

-Beraz, beharrezko da arima gaiztoak txarto egitea eta txarto zuzentzea, eta arima onak gauza guzti hauek ondo egitea.

-Beharrezko da.

-Ez ote ginen benetan bat etorri zuzentasuna arimaren bertute bat zela, eta gaiztakeria bidegabekeria?

-Bai, bat etorri ginen.

-Beraz, arima zuzena eta gizon zuzena ondo biziko da eta bidegabea, txarto.

-Hala dirudi, esan zuen, zure esanaren arabera.

354.- Baina alde batetik benetan, ondo bizi dena zorioneko eta zoriontsu da, eta bestetik ez dena, alderantziz.

-Nola ez, bada?

-Beraz, zuzena zoriontsu da, eta bidegabea zoritxarreko.

-Bego, esan zuen.

-Bestalde, ez da onuragarri zoritxarreko izatea, zoriontsu baino.

-Nola ez, bada?

-Beraz, ezelan ere, ene zorioneko Thrasymakhos, bidegabekeria ez da zuzentasuna baino onuragarriago.

-Bendidia jai hauetan, esan zuen, on bekizkizuela, ene Sokrates, gauza guzti hauek.

-Zugatik, benetan, esan nuen, ene Thrasymakhos, baketsu gertatu zarelako nirekin, eta zure haserrean baretu zarelako. Baina benetan, ez dut oturuntza onik izango (b) nire erruz, ez zugatik; baina txibixei mahaira atera ahala irenstea atsegin zaien bezala, arteinokoa patxadaz miaztatu gabe, uste dut nik ere, horrelaxe dagidala, hasieran aztertzen genuena zer arraio zen zuzena aurkitu beharrean, hura alde batera utzirik hasi nintzen hari buruz aztertzen, txarkeria eta ezjakintasuna ote zen, edota jakintza eta bertutea, eta gero beste gogaketa bat aurrean jarri zenean, onuragarriago zela bidegabekeria zuzentasuna baino, ez nintzen atzeratu bata utzirik bestera igarotzeko, (c) eta orain suertatu zait eztabaida horri buruz ezer ez jakitea; zuzena zer datekeen ez dakidalako, zail izango dut jakitea bertutea datekeen ala ez, eta bera daukana zoriontsu den ala ez.

## II

357. I. Gauza hauek esan nituenean autua bukaturik zegoela uste nuen, baina, dirudienez, ataria baino ez zen. Glaukonek, bada, gauza guztietan beti adoretu agertzen denak, orduan ere, ez zuen ontzat hartu Thrasyamakhosek atzera egitea, eta osteria esan zuen:

-Ene Sokrates, gogokoago ote duzu gu ustez bakarrik erakartzea, (b) benetan guri sinestaraztea baino zuzen izatea, edozein eratan, bidegabe izatea baino hobe dela?

-Nik neuk, nigan balego, nahiago nuke benetan etsiko bazintzitet.

-Ez duzu lortzen, bada, esan zuen, nahi duzun hori; esadazu, arren: ez al duzu uste, edukitzea nahi izaten dugun lako ondasun-mota bat dagoenik, guk irrikatua, ez dakartzan ondorenengatik, bere-berean atsegin dugulako baino, poztea bezala edo beste kaltegabeke edozein, bera daukatenentzat poza baino beste ondoren iraunkorrik ez dariola?

-Nik, esan nuen, horrelakorik badagoela uste dut.

-(c) Eta zer? Ez ote dago bestelakorik, berezkoagatik ez ezik erakartzen dituzten ondorenengatik ere aintzakotzat hartzen ditugunik, ulertzea, ikustea, eta sendatzea bezala? Besteak beste, ondasun hauek gauza biongatik atsegin izaten ditugu.

-Bai, esan nuen.

-Eta ez ote duzu ikusten, esan zuen, hirugarren ondasun-mota bat, bere artean gimnasia egitea, gaixoa sendatu izatea, sendakuntza bera, edota irabazgarri den besteren bat ere? Honako ondasunak nekagarri direla esan genezake, baina ongarri ditugu, (d) direnagatik edukitzea ez genuke nahi izango, eurentatik sortzen zaizkigun irabazgarriengatik eta beste guztiengatik izan ezik.

-Bai, bada hirugarren mota hau, esan nuen, baina orain zer?

-Hauetariko zeinetan, esan zuen, jartzen duzu zuzentasuna?

-Nire ustez, bada, esan nuen, 358. hoberenean, bera denagatik eta beretik sortzen zaizkionengatik zoriontsu izan nahi duenak maite behar duen horretan.

-Jenderik gehienak, esan zuen, ez du uste hori, mota nekagarritzko ondasuna dela baino, eta berak dakartzan irabazi eta oneritziengatik [usteari esker] egin beharrekoa, berez denekoagatik ihes egiteko bezain astun delako.

II. -Badakit, esan nuen, horrelaxe uste dela, aspalditik Thrasyamakhos ere, zuzentasuna horrelakoxea delakoan gaitzesten dabil, eta bidegabekeria goresten. Baina ni, dirudienez, buru gogorren bat naiz.

-Ea, (b) bada, esan zuen, niri ere entzun iezadazu berdin uste duzun, zeren, Thrasyamakhos behar den baino arinago, sugaeren antzera, zutaz liluratu izan dela uste dut eta. Gauza bi hauei buruzko argibideak inolaz ere ez nau etsi; bakoitza zer den entzun nahi dut, eta bakoitzak zer eragin daukan arima baitan sartzen denean, irabaziak eta eurengeandik sortzen direnak alde batera utzirik. Horrelaxe ekingo diot, bada, zuri ere iduritzen bazaizu. Berriro Thrasyamakosen esana erakarriko dut, eta (c) lehenen zuzentasuna zer den, baita ere nondik sortzen omen den azalduko dut; bigarrenez, bera egiten duten guztiek borondatez kontra egiten dutela, beharrezko gauza bat bezala eta ez gauza on bat bezala; eta hirugarrenez, bidezko dela horrelaxe egitea, esaten dutenez bidegabearen bizitza zuzenarena baino askoz hobe delako. Baina, ene Sokrates, niri ez zait iduritzen benetan horrela denik. Zalantzan nago osteria, eta durundi baten belarriak Thrasyamakhosi eta beste hamaikatzori entzutean, baina ondino ez diot inori entzun, (d) nahi dudana bezala zuzentasunaren alde, bidegabekeria baino hobe deneko arrazoiak. Bera berez denekoaren gorespina entzun nahi dut, eta hoberen zuregandik jakitea dela uste dut. Horregatik luzatuko natzaizu bidegabearen bizitza goresten, eta esanez erakutsiko dizut zein eratan entzun nahi zaitudan bidegabekeria gaitzesten eta zuzentasuna goresten. Baina begira ezazu esaten ditudan gogoko dituzun.

-Ezer baino gehiago, esan nuen, zer beste gaiez (e) poz gehiago har lezake adimena daukan edonork hitzeginaz eta entzunaz?

-Guztiz ondo diozu, esan zuen, eta lehenik azalduko nuela nioenari buruzko hau, zuzentasuna zer den eta nondik sortu den, entzun iezadazu.

Diotenez, bidegabekeria egitea berez on da, eta jasatea kalte; baina bidegabekeria jasateak, egiten duenarentzat, on baino kalte handiagoa dakarrenez, bidegabekeria elkarri egiten eta jasaten hasi zirenean eta gauza biotatik dastatu zutenean, ez ihes egiteko ez aurre egiteko gai ez zirenei, 359. iduritu zitzaien hobe zutela elkar harturik erabakitzea bidegabekeriari ez egin ezta jasatea ere. Harrezkero hasi ziren legeak jartzen eta itunak egiten euren artean, eta legearen aginduak legezkotzat eta bidezkoztat jotzen. Hauxe da, bada, zuzentasunaren sorrera eta izatea ere, bidegabekeria egin eta bere zigorra ez hartzea, gauzarik onenaren eta bera jasatetik burua gordetzeko gai ez den txarrenaren bitartekoa. Gauza bi hauen erdian dagoen zuzentasuna onerizten da, ez (b) gauza on bat bezala, egiteko gai ez izateagatik itzala zaion zerbait bezala baino; hura egiteko gai litzatekeena, oster, benetako gizon bezala ez da inorekin inoiz itunetan jarriko ez bidegabekeriari egiteko ez jasateko, eroa izango litzatekeelako. Hauxe da, eta honelakoxea, ene Sokrates, zuzentasunaren izaera, eta hauexek, diotenez, sortu zeneko arrazoiak ere.

III. Eta baita ere, nola bera egiten ari direnak bidegabekeriari egiteko gai ez direlako, borondatez kontra ari diren gehien kontura gintezke, adimenez bederen honelakoxe bat egin bageneza: (c) eman diezaiogun bakoitzari nahi lukeena egiteko ahalmena, zuzenari zein bidegabeari ere, eta gero jarrai diezaiogun nahikeriak bakoitza nora eramaten duen ikusteko. Bi-

degabearen antzera, berehala, aurkituko genuke zuzena ageri-ageriko huts egitean, zalekeria berdinetara joanik, edozein izaerak berez bultzatzen duen on bat balitz bezala lortzera, nahiz eta legearen indarrez berdintasunaren itzalerantz eramana izan. Eta aipatzen dudan ahalmen hau beteena gerta lekieke, behinola, esaten dutenez, Lydiako Gygesen arbaso bati suertatu zitzaion ahalmen bera hauei ere suerta balekie. Bera, orduko Lydiako agintariaren zerbitzuan jarritako artzain bat omen zen, eta ekaitz eta lurrikara handi bat gertatu zelarik, lurra arrakalatu eta leize bat egin omen zen artzaintzan zegoen leku ondoan. Eta ikusirik, harriturik jaitsi zen, eta mitoek dioten beste gauza harrigarri askoren artean, atetxo batzuk zeuzkan brontzezko zaldi barru-huts bat ikusi omen zuen, haietatik begiraturik, barruan zegoen gorpu bat ikusi zuen, itxuraz gizonezko batena baino handiagoa, eta ez zeukan besterik, (e) eskuan urrezko eraztun bat baino, bera kendurik irten zen. Eta artzainen artean ohitura zenez, batzarra egin zenean artaldeei buruz hilero Erregea jakitun jartzeko, bera ere joan zen eraztuna zeukala, eta besteen artean ezarririk zegoela suertatu zen esku barrurantz eraztunaren harria itzultzean, hori eginez batera, ezarririk han zeudenentzat ikustezin bilakatu zela, 360. eta hari buruz alde egin bazuen bezala iharduneari ekin zioten. Eta harriturik berriro ere eraztuna ukiturik, kanporantz itzuli zuen harria, eta hori eginez batera berriro ikusgai egin zen. Eta



horrezaz konturatu zenean, ekin zion berriro eraztunak ahalmen hori ote zeukan, eta berriro berdin gertatu omen zitzaion, harria barrurantz itzuliz gero ikustezin gertatzen zela, eta kanporantz egiterakoan ikusgai. Eta ohartu zenean berehala ahalegindu zen Erregearengana joaten ziren berri-emaileetako bat izaten, (b) eta heldu zenean haren emaztea ere bereganatu zuen, eta harekin batera eraso eginik Erregea hil zuen, eta aginteaz jabetu. Baleude, bada, honako eraztun bi, bata zuzenak jantzirik eta bestea bidegabeak, uste dudanez ez litzateke inor hain gotor izango zuzentasunean iraungo lukeenik, eta inorenaz jabetzen ausartuko ez litzatekeenik ere, eta merkatura joanik beretzako hartu nahi lukeena beldur gabe eskuratuko ez lukeenik, eta etxeetan sarturik (c) nahi lukeenarekin larrutan egingo ez lukeenik, eta atxilotuetarik ere nahi lituzkeenak hil edo askatuko ez lituzkeenik, eta jainkoaren adinakoa izanik, gizonen artean beste gauza guztiak egingo ez lituzkeenik. Horrelaxe jokatzuz, bata ez luke bestearen desberdinik ezer egingo, biok gauza beretara jo baino. Benetan edonork esan lezake argibide galanta dela hau: inor ez dela zuzena bere borondatez behartuta baino eta beretzat gauza on bat ez bailitzan, eta bakoitzak bidegabekeria egiteko gai dela uste dezanean, egin egiten du. Edozein gizonek uste du (d) beretzat askoz onuragarriago duela bidegabekeria zuzentasuna baino. Zuzen uste duela esango du arrazoi honen alde dagoenak, esanez: izan ere

inork, honelako ahalmena izanik, ezelan ere inoiz bidegabekeriarik egiterik ezta inorenaz jabetzerik nahi ez baleza; horrezaz ohartzen direnek lastimagarriena eta zentzugabeena dela uste dezakete, nahiz eta horrelakoa, bata bestearen aurrean goratu egin lezaketen, elkarri iruzur eginez, bidegabekeria jasateak ematen dien beldurragatik. Gauzak bene-benetan, bada, honelaxe dira.

IV. Hitzegiten ari garen bi hauen bizitzari buruz ebatzi hau (e) zuzen ebazteko gai izango gara, zuzenena eta gaiztoena bana baditzagu, bestela ez. Zein den, bada, banaketa? Hauxe: inola ere ez diezaiegun ezertxo kendu, ez bidegabeari bere gaiztotasunetik, ezta zuzenari bere zuzentasunetik, aitzitik, jar dezagun bakoitza bakoitzaren eginkizun egin-eginean. Hasteko, bada, bidebageak ekin diezaiola lanari artisau trebeenaren antzera. Erpin-erpineko lemazain edo sendagilearen antzera bere ogibidean ahal duenaz eta ez duenaz jabetzen da, 361. alde batetik gauza batzuk egiten ditu, beste batzuk bestetik alde batera uzten, eta zerbaitetan inoiz, agian, huts egin badeza gai izaten da hutsegite hori zuzentzeko; honelaxe, bada, bidegabeak ere, zuhur jokatzuz bere gaiztakeriak ezkuta ditzala oso-osoko bidegabe izan nahi badu. Haietan harrapatua izaten dena ezgaitzat hartua izango da, zeren, bidebagekeriarik beteena, zuzena izan gabe, zuzen-itxura edukitzea da. Utzi behar zaio, bada, guztizko bidegabeari, guztizko bidegabekeria egiten, ezer kendu gabe; zilegi bekio, bada, gaiztakeriarik handienak eginez zuzentasun-osperik handiena eskura dezan, (b) eta,

agian, zerbaitetan huts egin badeza zuzentzeko gai izan dadila, hitzez limurtzeko bere gaiztakeriaren bat salatzeko prest dagokeena, eta behar adina indarkeria egiteko bere adore eta kemenarekin batera eta lagun baliabide eta ondasunez ere baliatuz. Eta hau honelakoxea dela jarri, ipin dezagun eztabaida honetan bere parean gizon zuzena, izurgabe eta jatorra, Aiskhylosek<sup>1</sup> esango lukeenez, ez itxuratu benetan ona izan nahi duena baino. Ken diezaiogun itxura hori, onaren itxura badu, (c) honako itxura daukalako ohoreak eta opariak izango ditu; ez litzateke, bada, argi geratuko zuzentasunagatik ala opari eta ohoreengatik den horrelakoxea. Zuzentasunez ezean, beste gauza guztiez biluzi behar dugu eta aurrekoarengandik alderantzizko bezala jarri, inolako bidegabekeriarik egin gabe, bidegabekeriaren omenik handiena izan beza, non bere zuzentasunean neurtua izanik gaizto-ospeak eta beretik sortzen direnek eragin ez diezaioaten, aitzitik, hel bedi irmo heriotzaraino, (d) bere bizitza guztian zuzena izanik bidegabe dela itxuratuz, biak azkeneraino heldurik, bata zuzentasunean eta bestea bidegabekeria, biotatik zoriontsuen zein den ebazteko.

V. -Ene! esan nuen, ene adiskide Glaukon, erabaki bat hartzeko zein erabakior garbi utzi duzun, giza irudi balira bezala, haietariko gizon bakoitza.

-Ahal izan dudarik eta ondoen, esan zuen, eta bakoitza horrelakoxea izanik, ez da bat ere zail izango, uste dudanez, bakoitzari nolako bizitza datorkion hitzez azaltzea. Esan beharreko da (e) beraz: baina garrantzegi hitzegin baneza, ez ezazu

uste izan neurez diodanik, ene Sokrates, bidegabekeria zuzentasuna baino nahiago dutenez baino. Eta halakoek esango dute zuzena horrelaxe jarria izan denez gero astindua, oinazetua eta atxilotua ere izango dela, 362. begiak erreko dizkietela, eta azkenean txarkeria guztiak jasanik hagazkatua izango dela, eta ikasiko du ez dela gura izan behar zuzena izatea, itxuratzea baino. Eta bidegabeari buruz Aiskhylosena esatea askoz zuzenago legoke. Ezen esango dute benetan bidebageak ekintzak egiarekin eta ez itxurarekin egokitzen dutenez, ez duela bidegabe-itxura nahi, izatea baino, (b)

"adimenez ildo sakoneko uzta eginez,

zeinetik ernetzen diren onu zuhurak,<sup>2</sup>"

lehenengo, bera zuzena delakoaren ustea daukan hirian agindu, gero nahi dezakeenetik emaztea hartu, eta nahi dezakeenei eman, nahi dezakeenarekin batu eta harremanak izan, eta gauza guzti hauetaz baliatu irabazirik, bidegabekeria egiteak ez diolako higuinik egiten; bere etxeko gauzengatik edo hirikoengatik auzitara badoa, benetan garaile aterako da eta bere arerioak baino gehiago izango da, eta gehiago izanik, aberastuko da eta lagunei mesedeak egingo dizkie eta arerioei (c) kalte, eta jainkoei erre-opari eta eskaintza ugari handikiro eskainiko eta opatuko dizkie, eta nahi ditzakeen jainko eta gizonak askoz hobeto zainduko ditu zuzenak baino, beraz, itxuretatik egokiago da berau jainkoez maitatuago izatea zuzena baino. Hauxe esango dute, ene Sokrates, jainkoek eta gizonek bizitza hobe gertatzen diotela bidegabeari zuzenari baino.

VI. Glaukonek honakoak esanikoan eta hauen aurka nik zerbait ihardesteko gogo izanik, (d) bere anaia Adeimantosek esan zuen: - Agian ez duzu uste izango, ene Sokrates, eztabaida honi buruz nahiko esan denik, ezta?

-Baina zer, bada? esan nuen.

-Esatea baharrezkoen zena, ez da esan, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, esaeraren arabera, anaia lagun dakiola anaiari<sup>3</sup>; zuk ere, lagun iezaiozu zerbait uzten badu, zalantza barik, niretzako honek esan dituenak nahiko dira ni garaitua izateko eta zuzentasunaren alde ekiteko ni indarge uzteko.

-Eta berak, (e) esan zuen, ez diozu ezer; baina entzuniezazkidazu ondino hauexek ere, honek esan dituenen aurkako arrazoiak guk aztertzea beharrezko da eta, zuzentasuna goستن eta bidegabekeria gaitzesten dituztenak, hain zuzen, nire ustez Glaukonek esan nahi duena argiago gera dadin. Umeei gurasoek eta beraien zaintzaile diren guztiek esan ohi diete eta erregutu ere, beharrezko dela zuzena 363. izatea, baina horregatik ez dute goستن zuzentasuna, bere bitartez datozen oneritziak baino; zuzenaren antza daukanari, omen horren bidez aginte-karguak, ezkontzak eta bere izen ona dela eta zuzenari etorten zaizkion oraintsu Glaukonek aipatu dituen beste guztiak gerta dakizkion. Halakoek bada, omen onari buruz handiagoak esaten dituzte oraindik, zeren, jainkoen begirunea aintzakotzat harturik, esaten ohi denez, jainkoek zuzenei ematen dizkieten ondasun ugariak

eskuratuko dituztela, esaten baitute. Hesiodos jatorrak eta Homerosek ere dioten bezala; bata jainkoek zuzenentzat arteak (b) "adaburuak ezkurrez beteak, enborrak erlez, eta ardiak iletsu", "sapaz lehertu beharrean<sup>4</sup>" egiten dituztela dio, eta hauetariko beste ondasun anitz ere izango dituztela. Besteak ere berdintsu; dio: "harena bezala"

"Akats gabeko erregearena bezala, jainkoen itzal izanik zuzentasuna zaintzen duenarena, lur beltzak garia eta garagarra ekartzen ditu (c) eta zuhaitzak igaliz lehertzen eta ardiak eten gabe ernaltzen eta itsasoak arrainak ematen.<sup>5</sup>".

Mousaiosek eta bere semeak ere, jainkoen izenean ematen ohi dizkiete honakoak baino ondasun oparoagoak zuzenei, zeren, hitzez, Haidesera eramanez, mahai inguruan etzanarazi eta jainkozaleen oturuntza gertatuz eta denbora guztia koroaturik (d) eta mozkorturik igaroarazten diete, usterik, bertutearen saririk onena amai gabeko mozkorra dela. Badira beste batzuk jainkoen aldeko sariok askoz iraungarriago egiten dituztenak, gizon jainkozaleek eta zinbegiraleek semeen semeak izango dituztela, eta bere ondoren belaunaldi bat utziko dutela diotelako. Honakoak eta honen antzekoak ere esaten dituzte zuzentasunaren gorespenean. Gaiztoak eta bidegabeak, oster, Haidesen lokatz artean lurperatzen dituzte eta bahez ura eramatera behartzen dituzte, oraindik bizi direla (e) ospe txarrera eramana dira, eta Glaukonek itxuraz bidegabe ziren zuzenei heltzen zaizkiela esaten zituen atsekabeak, hauexek berberak bidegabeari buruz esaten dituzte, eta ez besterik. Hauxe da, bada, bakoitzaren gorespina eta gaitzespena.

VII. Gauza hauen ondotik, azter ezazu, ostera, ene Sokrates, zuzentasunari eta bidagabekeriari buruz ezein gizakik eta poetak ere esaten dituzten arrazoiak beste ikuspegi hau ere. 364. Gaitzak eta neketsuak izan arren, denek, aho batez, esaten dute neurritasuna eta zuzentasuna ere gauza onak direla<sup>6</sup>, eta nasaikeria eta bidegabekeria, aldiz, atsegingarri eta erraz lortzekoak, eritziaren eta legearen arabera bakarrik lotsagarri. Gehienek esaten dutenez, bidegabeak gauzak zuzenezkoak baino onuragarriago dira eta gertu egoten dira lasai herriaren aurrean zein bakarka gaiztoak zoriontzeko eta goratzeko aberatsak badira edota beste edozein ahalmen baldin badaukate, eta alderantziz, gaitzesteko eta goitik behera begiratzeko ezertan (b) makal eta behartsu izan daitezkeenei, hauek haiek baino hobe direla onartu arren. Gauza guzti hauek baino harrigarriago da jainkoei eta bertuteari buruz esaten dutena, nola benetan, jainkoek zuzen askori ezbehar eta bizimodu txarra gertatzen dizkieten eta osterantzekoei, osterantzeko zoria. Berritsuek eta aztiekin aberatsen ateetara joanik sinestarazi egiten diete jainkoengandik harturiko ahalmena dutela, erre-opariez eta araoez (sorginkeriez) berak (c) edo bere arbasoek eginiko ezein gaiztakeria garbitzeko atsegin eta jaien bitartez; eta areriores bat, zuzen zein bidegabe, kaltetu nahi badeza, eralketa-apur batengatik kaltetuko dutela sorginkeria batzuez eta aztilokarriez, eta euren esanez, jainkoak etsirik bere zerbitzura jarriak dituzte. Esani-

ko gauza guzti hauen lekukotzat poetak erakartzen dituzte, batzuek gaiztakeriari buruz erraztasunak onartzen dituztelako, adibidez:

"Gaiztakeria ugari eta erraz eskura daiteke,  
laua da bere bidea eta oso hur bizi da; (d)

baina bertutearen aurrean izerdia jarri dute jainkoek<sup>7</sup>",

eta baita bide luze, latz eta aldapatsu bat ere<sup>8</sup>. Beste batzuek jainkoekiko gizonen erakarpenaren lekukotzat Homeros dakarte, zeren hark ere esan baitzuen:

"Jainkoak berak ere, erreguz samurtzen dira,  
erre-opari eta agintza gozoak eginez,(e)  
edari-isuriz eta koipe-keez aldatzen dituzte

norbaitek hauste edo hutsen bat egin duenean<sup>9</sup>".

Esaten denez, Selene eta Mousen ondorengo diren Mousaios eta Orpheusen liburu-pilo bat aurkezten dute, zeintzuen arabera euren erre-opariak moldatzen dituzten; gizakumeei ez ezik hiriei ere sinestaraziaz, benetan askatu eta garbituko direla gaiztakerietatik erre-opari eta joko atseginen bitartez, 365. bizi diren bitartean, eta hil ondoren, berriz, hango kalteetatik misterio-ospakizun deitzen dieten hauek askatuko gaituztela, baina ikaragarritzakoak itxaron izan bide dituztela ospatzen ez dituztenek.

VIII.- Hauexek, esan zuen, ene adiskide Sokrates, eta honakoxeak dira bertuteari eta gaiztakeriari buruz esaten diren guztiak, gizonak eta jainkoak dieten oneritziaren arabera; gazteen arimak guztiok entzutean zer uste dugu egingo dutela, esaniko guztien gainetik hegazka bezala hor-hemenka ibilirik, hauetatik zer ondorengo aterako ote dute adimen jantziko eta gai diren guztiek, bakoitzak (b) nolakoa izan behar duen eta nondik abiatu behar den ahalik eta hobekien bizitza igarotzeko? Bidezko denez, Pindarosena esango lioke bere buruari "zuzentasun-bidetik ala gezurrezko bihurtzetatik igoko ote naiz harresi handi gainera<sup>10</sup> "eta horrelaxe nire burua alde guztietatik aztertuaz igaro beharko ote dut bizitza? Esanen arabera nik, zuzena izan arren irudi ere ez banirudi, hoberik ez dudala izango diote, neke eta oker nabarmenak baino; eta zuzen-omena bereganatu duenaren bidegabearentzat "zoragarritzko bizitza" dagoela esaten da; (c) beraz, "itxurak", jakintsuek argi erakusten didatenez, "egia bera ere azpiratzen du<sup>11</sup>" eta "zorionaren jabe egiten da", horregatik, beharrezko da oso-osorik bera eskuratzen saiatzea. Alde batetik, nire inguruan bertutearen iduriko gaineko azal itxuratsu bat marraztu beharko dut, eta bestetik, atzetik narrazka, eraman beharko dut Arkhilokhos guztiz jakintsuaren azeri "maltzur eta bizkorra.<sup>12</sup>" "Baina, - norbaitek esan lezake - ez da erraza gaiztoa izanik beti gorderik geratzea". Erantzungo diogu, bada, gauza handietarik ez dagoela bat ere erraza denik. Baina horregatik, (d) zoriontsu izan nahi badugu bide horretatik joan behar dugu, esanikoek eramaten gaituzten lorratzetatik. Eta gorderik egoteaz gain, elkarteak eta lagunarteak batuko ditugu; badira sinestarazten maisu direnak, herriaren aurrean eta auzietan hitzegiten irakasten dutenak, zeintzuetatik, batzuetan, sinestarazpena erabiliko dugun, eta besteetan, indarra, iruzur eginez, zigorrik jaso ez dezagun. "Baina ezinezko da jainkoei iruzur egitea eta



behartzea". Beraz, alde batetik, jainkorik ez badago edo gizonen gauzez arduratzen ez badira, zerk arduratu behar ote gaitu (e) iruzur egiteko<sup>13</sup>? Eta baldin badaude, eta arduratzen badira, euren buruz ez dakigu ezer, eta ez dugu ezertxo entzun poeten esan eta genealogien bitartez baino, eta hauexek dira erre-opari eta "agintza gozoez<sup>14</sup>" eta eskaintzez etsirik haiek erakartzeko gai direla esaten dutenak. Sinestekotan, biak sinetsi behar zaizkie edo bat ere ez. Beraz, sinetsi behar bazaie, bidegabekeriak egin behar dira, eta bide txarrez lorturikoez opariak egin<sup>15</sup>; 366. zuzen izanik, aldiz, jainkoentzat errugabe izango gara, baina bidegabekeriak dakarren irabaziari uko egingo diogu; bidegabe izanik oster, etekinik aterako dugu, eta behar ez denik egiten badugu eta huts egin badezagu, erregutuz barkatu egingo digute eta eurak etsirik, errugabe irtengo gara. Baina, Haidesen zigortuko gaituzte, gu edo gure semeen semeak, hemen egin ditugun bidegabekeriengatik". Baina, ene adiskide, zuhurkeriaz esango du, benetan misterio-ospakizunek eta jainko askatzaileek<sup>16</sup> indar handia daukatela, (b) hiri handienek, eta jainko-seme eta jainkoen profeta<sup>17</sup> bihurtu diren poetek esaten duten bezala, gauzak honelaxe direla ezagutarazten digute.

IX.- Zein arrazoiren arabera, bada, bidegabekeria handiena baino nahiago genuke zuzentasuna, sasi garbitasun-itxura batez, geureganatu ahal badugu eta jainkoen zein gizonengandik ere, bizi garela edo hil eta gero, nahi duguna lortzerik badugu, askoren eta gizon gorenen esaniko ustea denez? Eta esan di-

tugun guztietatik, zein bide geratzen zaio, ene Sokrates, zuzentasunari omen egiteko prest egoteko, (c) bere arimak edo ondasunak edo soinak edo jatorriak ahalmen zenbait ematen dionari, besteren batek goستن duela entzunik barre egin ez dezan? Beraz, inork, esanikoak gezurra direla, alde batetik, egiaztatu ahal izan arren, eta bestetik, zuzentasuna hobe dela behar adina jakin arren, ziur asko, erruki handia agertuko du, eta ez da bidegabeekin haserretuko, aitzitik jakin daki, inork bidegabekeria egiteko gorrotoa goitik hartu ezik, edota jasotako jakintzak harengandik aldentzeko bultzatu ezik, (d) beste inor ez dela zuzen borondatez, alderantziz, gizontasun ezak, edo zahar izateak, edo beste makaltasun batek eragiten diola bidegabekeria gaitzestea, bera egiteko ezgai bihurtzen duelarik. Eta argi dago nola: hauetariko aurrenekoa agintera heltzen denean, bera da lehen bidegabekeria ahal dezakeen beste egiten. Eta gauza guzti hauen arrazoia, eztabaida osoa sortu duen huraxe baino besterik ez da, zeinetan, hain zuzen, honek eta nik, ene Sokrates, esaten dizugun: "Ene gizon harrigarri hori, zeuon guztion artetik, (e) zuzentasunaren goresle zaretela diozuenen artetik, antzinako heroetatik hasirik, zeintzuen esanak geratu zaizkigun gaur eguneko gizonetaraino, inork inoiz ez du bidegabekeria gaitzetsi, ezta zuzentasuna goratu ospeagatik, omenagatik, edota harengandik sortzen diren dohaiengatik baino. Eta bata eta besteak berez daukan ahalmenaren eraginari buruz, arima barruan sarturik daukanean, eta jainkoentzat eta gizonentzat ere ezkuturik, inork ez du egundo, ez bertsoz ez hitz lauez, behar den bestean arrazoiz azaldu bidegabekeria dela arimak bere baitan duen gaitzik handiena eta zuzentasuna

onik handiena. 367. Zeuok guztiok hasieratik horrelaxe esan bazenute eta gaztetatik etsi bagintuzue, bidegabekeriari ez egitearren ez genbilzke elkar jagoten, aitzitik, bakoitza bere buruaren zaintzaile litzateke, bidegabekeria egiterakoan beldur izanik gaitzik handiena beregana ez dakion".

Hauek, ene Sokrates, edo beharbada, honakoak baino handiagoak esango zituen Thrasymakhosek edo beste edonork zuzentasunari eta bidegabekeriari buruz, bata eta bestearen eraginari buruz baldarki huts eginez, benetan uste dudanez; baina nik zuri ezer ezkutatu beharrik (b) ez dudanez, zuregandik osterantzeko arrazoiak entzuteko gurari biziz nagoelako, ahal izan dudarik eta zabalen hitzegiten dut. Ez iezaguzu, bada, hitzez bakarrik zuzentasuna bidegabekeria baino hobea denik azaldu, berez daukanarengan hauetariko bakoitzak zer eragin daukan baino, bata kalte eta bestea on izateko. Ospeak eta alde batera utz itzazu Glaukonek agindu zizun bezala, zeren, alde batetik eta bestetik egiazkoak kendu eta gezurrezkoak jartzen ez badizkiozu, salatuko zaitugu ez duzula zuzentasuna goratzen, haren itxura baino, edota ez duzula bidegabekeria (c) gaitzesten, haren itxura baino, eta bai bidegabe izanik ezkutuan gordetzea agintzen duzula ere, eta baita Thrasymakhosekin bat zatozela, zuzentasuna, alde batetik, inoren ona, indartsuenari onuragarri zaiona dela, eta bestetik, bidegabekeria norberarentzat komenigarri eta irabazgarri dena, eta azpikoentzat, kaltegarri. Zuzentasuna, bada, handienetariko ondasuna dela aitortu duzunez gero, beretik sortzen zaizkigun balio handiko gauzengatik edukigarri direnetakoa, baina askoz gehiago berez edukigarri direnengatik, ikusmena, entzumena, adimena eta osasuna

lakoxeak (d) edo beste edozein on bere izaeraz berez emankor dena, eta ez bere ospeagatik; gora ezazu, bada, zuzentasunetik, beretik, bera daukanarentzat onuragarri dena, eta bidegabekeriak, ostera, kalte egiten duela, eta utz iezaiezu besteei sariak eta ospeak gora ditzaten. Niri dagokidanetik, era honetan zuzentasuna goratzea eta bidegabekeria gaitzestea besteei onartuko nieke, haietatik datozten ospe eta sariak goresten eta gaitzesten dituztelarik, baina zuri ez, eskatzen ez badidazu behintzat, zure bizitza osoa (e) hauxe baino besterik aztertzen igaro ez duzulako. Ez iezaguzu, bada, hitzez bakarrik zuzentasuna bidegabekeria baino hobea denik azal, hauetariko bakoitzak, berez, daukanarengan zer eragin egiten duen baino, jainkoentzat zein gizonentzat ageriko zein ezkutuko gertatu, bata ona eta bestea txarra izateko.

X. Eta nik gauza hauek entzunik, Glaukonen eta Adeimantos en izaeraz beti harriturik nintzen honek, orduan, bada, hain zuzen, benetan bete-beteko poza hartu eta 368. esan nuen: - Zuei buruz, gizon haren semeok, Glaukonen maitaleak ez zuen txarto asmatu bere eresien hasiera, Megarako guduketan eskura zenuten ospea bide zela, esan zuenean: "Aristonen semeok, gizon zurenaren goitar leinu." Honi, ene lagunok, oso ondo dagoela deritzat, zeren, bada zuengan zer bait zerutar denik, bidegabekeria zuzentasuna baino hobe dela sinetsi ez arren hain gogatsu uste horren alde ekin ahal izateko. Iduritzen zait, bada, ez zaretela bene-benetan uste horretakoak (b) -eta zuen beste izaeratik nabari dut hori, zuen esanaren arabera balitz ez zintuzket sinetsiko eta,- eta zenbat eta gehiago sinesten zaituztedan, hainbat eta zalantza han-

diagoan nago zer erantzungo dudan. Alde batetik, ez daukat zuzentasunaren alde ekiterik, horretarako nire burua gaitasun gabea iduritzen zaidalako -eta niretzako horren ezaugarri da, Thrasyмахosен aurka esanikoaz, zuzentasuna bidegabekeria baino hobe zela azaldutzat uste nuena ez didazuela ontzat hartu - eta bestetik, ez daukat beste biderik haren alde egitea baino, zeren beldur naiz zilegi ez ote den, (c) norbera aurrean izanik, zuzentasunaren aurka txarto esanari aurre ez egitea, eta arnasa eta hitzegiteko indarra dagoen bitartean bere alde ez joatea. Hoberena, bada, ahal dudan beste hari laguntzea da.

Glaukonek, bada, eta besteek ere, erregutu zidaten era guztietara lagun niezaiela eta ez nezala arazoa bazter, gauza bakoitza zer izan zitekeen eta bakoitzaren onurei buruz zein izan zitekeen egia zehatz ikertu baino. Erantzun nien, bada, uste nuena: hasten genuen ikerketa ez zela edozer, nire ustez horretarako ikusmen zorrotzeko bat behar zela baino.

(d) Gu, bada, horretan trebe ez garenez gero, uste dut nik, esan nuen, ikerketa hori egin beharko dela norbaitek urrunetik letra txiki batzuk irakurteko agindua hartu eta ikusmen guztiz ona ez daukanak egingo lukeenaren antzera, eta orduan ohartzen da haiexek letra berberak beste nonbaiten ere handiago idatzirik daudela eta inguru handiago batean; uste dut aurkikuntza ona idurituko litzaiokeela lehenengo haiek irakurri eta gero txikiagoak aztertzea ea berdina suertatzen diren.

-Oso ondo, bada, esan zuen Adeimantosek: baina, ene Sokrates, (e) horrelakorik zer ikusten duzu zuzentasunari buruzko ikerketan?

-Esango dizut erantzun nuen. Ez ote dugu esaten gizon bakoitzari dagokion zuzentasun bat dagoela, eta bestetik, agian, hiri osoari dagokion zuzentasun bat ere badagoela?

-Bai, benetan, esan zuen.

-Ez ote da, beraz, hiri bat gizon bakar bat baino handiago?

-Handiago, esan zuen.

-Beraz, agian, zuzentasuna handiago eta ulerterrazago dateke gauza handi batean. Nahi baduzue, beraz, lehenengo 369. hirietan nolakoa den aztertuko dugu, eta gero baita gizon bakoitzarengan ere, handiagoenaren antza txikiagoaren izaeran aztertuz.

-Uste dut, esan zuen, ondo esan duzula.

-Beraz, esan nuen, adimenez hiri baten sorrera ikus bageneza ez ote genezake baita zuzentasunaren sorrera eta bidegabekeriarena ere ikusi?

-Berehala, esan zuen.

-Beraz, hori gertaturik, ez ote dugu itxaropenik izango aztertzen duguna argiago ikusteko?

-(b) Askoz argiago, benetan.

-Uste al duzue bada, komeni zaigula aurrera egiten ahalegintzea? Zeren uste dut hau ez dela eginkizun txikia. Ikus ezazue, bada.

-Ikusirik dago, esan zuen Adeimantosek, ez dezazula bestelakorik egin.

-XI. Hiria, beraz, esan nuen, uste dudanez, gutariko bakoitza bere buruarentzako adina suertatzen ez denean sortzen da, gauza askoren beharrean aurkitzen delako; ala hiri bat eraikitzeke beste arrazoiren bat dagoela uste al duzu?

-Ez dago besterik, esan zuen.

-Eta horrelaxe, gero, bakoitzak premia bat betetzeko (c) halako bat hartzen du, eta beste premia batentzat beste bat; gauza askoren beharrezanean daudenean etxe bakar batean elkartzeko dira, auzokide eta laguntzaile bezala, eta elkar-etxebizitza honi, hiri jarri diogu izena, ala zer?

-Oso ondo, bada.

-Elkarri gauzak ematen dizkiote, ezer ematen edo hartzen badiete, bakoitzaren hoberako dela uste izanik egiten ote dute?

-Bai, benetan.

-Ea, bada, esan nuen, eraiki dezagun hitzez hiri bat hasieratik; dirudienez bera eraikiko duena gure premia izango da.

-Nola ez, bada?

-Baina, beharrezanean artean lehenengoa eta handiena, (d) izan eta bizi ahal izateko janariz hornitzea da.

-Guztiz benetan.

-Bigarrena, bada, etxearena, eta hirugarrena janztekoarena da, eta horrelakoxeak.

-Horrelaxe da.

-Ea, bada, esan nuen, nola konponduko ote da hiri bat gauza guzti hauetaz hornitzeko? Bata ez ote da izango nekazari, bestea etxegin eta beste norbait ehule? Eta ez ote dugu bertan ipiniko baita ere oinetakogileren bat eta soinen arduradun litzatekeen besteren bat ere?

-Bai, benetan.

-Orduan, hiri batek, benetan, gutxienez, lau edo bost lagun beharko ditu.

-(e) Hala dirudi.

-Eta zer, bada? Beharrezko ote da hauetariko bakoitzak bere eginkizuna auzo guztiaren zerbitzuan jartzea, nekazariak bezala, bat bakarra izanik beste laurentzat janariak prestatzea, eta lau aldizko denbora eta lana igarotzea besteekin banatzeko janariak atontzen, ala besteez arduratu barik, jateko horren laurdena beretzat bakarrik egitea 370. denbora laurdena erabiliaz eta beste hiru laurdenak, batetik etxearen eginkizunetan,

bestetik jantziarenean edo oinetakoenean eta besteekin gauzak banatu barik igarotzea, hark bereak beretzat bakarrik egitea?

Eta Adeimantosek esan zuen: - Baina, agian, ene Sokrates, halaxe egitea errazago litzateke honelaxe baino.

-Zeusarren, esan nuen, ez da harritzekoa, zeren, zuk hitzegiterakoan, bat-batean, ohartu naiz gutariko bakoitza berez ez dela guztiz (b) elkarren antzeko sortzen, izaera desberdinez baino, bakoitzak gai deneko gauzak egiten dituela, ala ez al duzu uste?

-Nik bai.

-Eta zer? Agian, gauzak hobeto egingo ote ditu batek lanbide askori ekiten dionean, ala bakar bati ekitean?

-Bakar bati ekitean, esan zuen.

-Baina, nire ustez, eta hau ere argi dago, gauza baten une aproposari joaten utziz gero, alferrik galtzen da.

-Bai, argi dago.

-Zeren, uste baitut, egitekoak ez duela nahi izaten egilearen asti-uneari itxaroterik; beharrezko izaten da, oster, egitekorik daukanak egitekoari (c) buru-belarri jarraitzea, edozertzat eduki barik.

-Beharrezko da.

-Beraz, esanikoetatik, gauza bakoitza gehiago, hobeto eta errazago egiten da, norberak bere izaeraren arabera eta une egokian, beste gauzen ardura izan barik eginkizun bakar bati ekiten dionean.

-Zalantzarik gabe.

-Orduan, ene Adeimantos, lau hiritar baino gehiago beharko dira aipatzen genituen horniduren arabera, zeren, nekazariak, dirudienez, ez du berak egingo behar duen goldea, ona gura badu, (d) ezta jorrai-aitzurra, ezta nekazaritzarako beste tresna guztiak. Eta etxeginak berdin, berak ere gauza asko behar dituelako. Eta berdin-berdin ehuleak eta oinetakogileak ere, ala ez?

-Egia.

-Zurginak eta arotzak eta hauen antzeko ogibidedun batzuk ere sortuko dira gure hiri txiki honen auzokide, berau jendetsu eginik.

-Benetan, bada.

-Baina, ondino, ez dateke guztiz handi izan, haiei abelzainak eta artzainak, edo beste eratako aberezainak ere gehi ez bageniezazkie, (e) nekazariak goldaketarako idiak eduki ditzaten, zein etxeginek, nekazariekin batera, garraioetarako zamarien faltan izan ez daitezen, ehule eta oinetakogileak ere larri eta artillerik izan dezaten.

-Ezta ez dateke ere, esan zuen, benetan, hain hiri txikia gauza guzti hauek badauzka.

-Baina, esan nuen, bertara gauzak kanpotik ekartzerik behar ez den leku batean, honako hiri bat eraikitzea ia ezinezko da.

-Ezinezko, benetan.

-Ondinokoarren, bada, behar diren beste gauza beste hiriren batetik ekarriko dituen beste lagun batzuk ere beharko dira.

-Beharko dira.

-Baina, hornitze-arduraduna esku hutsik joan baledi beste hirietakoengandik behar direnak ekartzera eta haiek behar dituztenak eramango ez balitza, 371. esku hutsik itzuliko da, ala zer?

-Hala uste dut.

-Beharrezko da beraz, etxerako adina bakarrik ez egitea, behar izaten ditugun haientzat ere behar duten adina eta beste baino.

-Beharrezko da.

-Gure hirian, beraz, nekazari eta beste bizibidedun gehiago beharko dira.

-Gehiago, bai.

-Baita ere, gauza bakoitza ekarri eta eramango duten beste hornitze-arduradun batzuk ere; eta hauek merkataria izango dira, ala zer?

-Bai.

-Merkatariak ere, beharko ditugu.

-Bai, benetan.

-Eta merkataritza itsasoz egin badadi, (b) itsasoko arazoez aditu diren beste asko beharko dira.

-Askok, benetan.

XII.- Eta zer? Hiri honetan, bakoitzak eginiko gauzak nola banatuko ote dituzte elkarren artean? Eurak direla eta, benetan, elkarte bat eginik eraiki genuen hiria.

-Argi dago nola, esan zuen, salduz eta erosiz.

-Hortik, agora-merkatua eta trukearen ezaugarri den txanpon-dirua sortuko zaigu.

-Zalantza barik.

-Nekazariak, bada, (c) edo beste ogibidedunen batek berak eginikoetatik zerbait merkatura badarama eta berarekin truke egiteko beharrezanean daudenekin ordu berean aurki ez badadi, merkaturaren egon beharko ote du bere ogibidean ezer egin barik?

-Ezelan ere ez, esan zuen, badira hori ikusirik, zerbitzu horretan eurak berak jartzen direnak; ondo atundurik dauden hirietan, gehien bat, soinez ahulenak eta beste gauzarik egiteko gai ez direnak dira, horregatik beharrezko izaten da honakoek, merkaturaren egonik, (d) alde batetik, diruaren truke, saltzeko premian daudenei gauzak erostea, eta bestetik, osterat, erosteko premian dauden guztiei diru truke saltzea.

-Premia honexek, bada, esan nuen, sortarazten dizkigu merkataria hirian, ala, agora-merkaturaren salerosketa-zerbitzuan egoten direnei ez ote diegu azokari deitzen, eta hirietan zehar dabiltzanei, merkataria?

-Bai, benetan.

-Uste dudanez, badira ondino beste zerbitzari batzuk ere, euren adimenagatik (e) guztiz estimagarri izan ez arren, behar neketsuak egiteko nahiko soin-indar dutenak; euren indarraren erabilpena saltzen dutelako eta salneurri horri sari deitzen diotelako, uste dut, saripeko langile esaten dietela, ala zer?

-Bai, benetan.

-Hiriaren osagarri dira, bada, uste dudanez, saripeko langileok ere.

-Hala uste dut.

-Orduan, bada, ene Adeimantos, hiria hazi egin ote zaigu egin-egina izateko bestean?

-Agian, bai.

-Eta hiri horretan, bada, zein lekutan leudeke zuzentasuna eta bidegabekeria? Eta aztertu ditugunetan zeinetatik sortu ote dira?

-Nik neuk, esan zuen, 372. ene Sokrates, ez dakit; gauza horien elkarrenganako premiaren batetik ez bada.

-Agian, bada, esan nuen, zuzen diozu, baina aztertu beharra dago atzera egin barik. Lehenengo, honelaxe atondu direnak zein eratara biziko diren ikusiko dugu. Zer besterik egingo ote dute gari, ardo, janzteko eta oinetakoak baino? Etxeak ere eraikiko dituzte, udaldietan, gehienetan, biluzik eta ortozik arituko dira eta neguan nahiko jantzirik (b) eta oinetakoekin. Eta elikatu, egosiriko edo oreturiko garagar edo gari-irinez eginiko eta zihi edo orri garbi batzuen gainean jarririko ore-opil galantez eta ogiz elikatuko dira,

ezpelez eta mirtoz harroturiko azpigarrietan etzanik atseginduko dira eurak eta euren umeak ere, ardoa edanez eta buruak koroaturik, jainkoei eresiak abestuz,



elkarrekin egoteaz atsegin izanez; umerik ez dute sortuko (c) ondasunaren arabera baino, urritasunaren edo guduaren beldur direlako.

XIII. Eta Glaukonek, hitza harturik, esan zuen: -Antza duzunez, ogitarte gabeko janarira gonbidatzen dituzu gizon hauek.

-Egia diozu, esan nuen, ogitartekorik ere izango dutela ahaztu zait; argi denez, gatza, olibaranak eta gaztaia eta ortuko janariak diren tipula eta ortuariak egosiko dituzte, eta azkeneko gosari bezala, piku, ilar eta babak jarriko dizkiegu, eta mirto haziak eta ezkurak sutan kizkurtuko dituzte, (d) neurrian edanez. Bakean eta osasunez horrelaxe bizia iraganik, berezko denez, zahar eginik amaiturik, euren ondorengoei honelako beste bizitza bat utziko diete.

Eta berak, - Ene Sokrates, esan zuen, urde-hiri bat antolatzen bazenbiltza, zer beste gauzez janarituko zenituzke hauexez baino?

-Baina, zer behar ote da, bada, esan nuen, ene Glaukon?

-Ohizko diren gauzak, esan zuen: uste dut, nekagarritzko bizitza eraman ez dezaten nahi badugu, etzan-leku gainetan etzanik, mahai gainetatik (e) janaria hartuaz jatea, eta gaur egunekoak dauzkaten adinako janari eta ondokoak izatea.

-Bego, esan nuen. Ulertzen dut. Itxura denez, ez gabiltza hiri bat nola sortzen den bakarrik aztertzen, hiri oparo bat nola sortzen den baino. Agian ez da gaizki etorriko. Beharbada, honako hiri bat aztertzerakoan, berehala jakin dezakegu zuzentasuna eta bidegabekeria nola sortzen diren hirietan. Baina benetako hiria, zerbait osasuntsu bezala, azaldu duguna dela deritzat. Baina nahi baduzu, alderantziz, izurriak jotako hiri hori ere aztertuko dugu; ezerk ez du eragozten. Esaniko gauza hauek, argi denez, 373. batzuentzat ez dira nahiko izango, eta bizimodu hau ere ez, ohe, mahai eta beste altzaririk ere ekarraraziko dituzte, baita janariak, gantzukariak, usaingarriak, emalagunak<sup>18</sup> eta gozokiak ere, eta bakoitzetik mota askotakoak. Eta beharrezkotzat ez dira jarriko inola ere hasieran esaten genituenak bakarrik: etxe, jantzi eta oinetako; margolaritzan eta brodalaritzan aritu beharko da baita ere, eta urre, boli eta honako guztiak ere eskuratu beharko dira; ala zer?

-Bai, (b) esan zuen.

-Beraz, berririo, hiria handitu egin beharko da, zeren, lehengoa, osasuntsua zena, ez da inolaz ere nahiko izango; honezkero zabaldu egin beharko da, eremuz eta jende ugariz gehitu, zeintzuk ez diren hirietan egongo beharrezko diren gauzak egiteko, batipat: ehiztari guztiak, edo antzezleak, batzuk itxurei edo margoei buruz ari direnak, eta beste asko musikari: poeta-olerkariak eta bere zerbitzariak, eresle, antzezle, dantzari eta enpresariak. Edozelako tresnerien egileak ere izango dira, (c) besteak beste, andre apaingarriari buruz arituko direnak. Zerbitzari gehiago ere behar

izango dugu; ala ez al duzu uste ez dela beharko hezlerik, inuderik, neskamerik, ile-moztailerik, eta areago, sukaldaririk eta harakinik? Urde-zainak ere beharko ditugu. Guzti hau ez genuen gure lehenengo hirian, ez zelako behar, baina oraingo honetan hauetarik ere beharko da. Eta beste guztitariko abere asko ere beharko dira, inork jango baditu, ala zer?

-Nola ez, bada?

(d) - Beraz, bizimodu hau izanik, lehen baino sendagile-premia askoz handiagoan izango ote gara?

-Askoz handiagoan.

XIV. -Eta bertakoak elikatzeko beste zen lurraldea ere, murrizta eta ezgai gertatuko da; edo nola esango dugu?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Orduan, larre eta lur gorri nahiko izaterik nahi badugu, auzokoen lurraldeaz jabetu beharko ote dugu, eta eurak gureaz, beharizanen muga iraganik, aberastasunak izateko neurri bako gurari batera bultzatuak (e) badira?

-Guztiz beharrezko da, ene Sokrates, esan zuen.

-Hori dela eta, borrokan egingo ote dugu, ene Glaukon? Ala nola izango da?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Ez dezagula esan ondino, esan nuen, guduak txarrik ala onik dakarren, hauxe bakarrik baino: guduaren sorrera aurkitu dugula, zeintzu gauzetatik hiriei, norbanakoari eta

herriari ere kalterik handienak sortzen diren, sortzen direnean.

-Guztiz horrelaxe da.

-Gainera, ene lagun hori, hiria handiago egin beharko da, ez apur baten, gudaroste 374. oso bat izateko heinean baino, zeinek, irtenik, dauzkaten aberastasun guztien eta oraintsu aipatzen genituenen aurka datozenei erasoko dien.

-Eta zergatik? esan zuen, eurak ez ote dira nahiko?

-Ez, esan nuen, benetan zuk eta gu guztiok benetako eritzi batera heldu baginen behintzat, hiria moldatzen ari ginenean; jarria genuen, bada, gogoratzen bazara, lanbide asko ondo betetzea ezinezko zela bakar batentzat.

-Egia diozu, esan zuen.

-Zer, bada, esan nuen, gudu-lehiaketa (b) trebetasun bat denik ez al duzu uste?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ardura gehiagokoa behar ote da izan, bada, oinetakogintza, gudaritza baino?

-Inondik inora ere ez.

-Beraz, oinetakogileari ez genion uzten saiatzen, ez nekazari, ez ehule ezta etxegin ere izaten, oinetakogile baino, oinetakogintza-lana behar den bezala ondo gauza dezaten guretzat, eta beste guztiei berdin, bakoitzari eginkizun bakarra jartzen genion, bakoitzari berez doakiona eta, beste eginkizun guztiak alde batera utzirik (c) bizitza osoan eta ondo egiteko aukerak galdu gabe egingo zuena. Ez ote da, bada, benetan, garrantzi handienetarikoa guduketari buruzko gauzak ondo eginak izatea? Ala hain errazak ote dira egiteko, nekazariren bat edo oinetakogileren bat edota beste trebetasunen batean ari denen bat, era berean gudari izateko, inor, behar beste, txakete edo seiko jokalaria trebe bat izatera heltzen ez denean, umetatik horretan aritu ez bada, une bakan batzuetan baino? Eta nahiko izango ote da erredola bat hartzea, (d) edota gudurako beste iskilu edo tresnaren bat hartzea berehala oinezko gudari (hoplita) edo beste guda sail bateko gudari bihurtzeko, beste edozein tresnak eskuan izateagatik inor ez ogibidedun ez atleta bihurtzen ez duenean, ezta baliagarri ez denean ere, gauza bakoitzean heziketa izan ez duenarentzat edota behar besteko trebetasuna eskuratu ez duenarentzat?

-Benetan, esan zuen, tresnak balio handikoak lirateke.

XV. - Beraz, esan nuen, zenbat eta handiago den zaintzaileen (e) eginkizuna, hainbat beharrezkoago dateke beste gauza guztiak alde batera utzirik trebetasunik eta ardurarik handiena izatea.

-Nik neuk hala uste dut, esan zuen.

-Agian, ez ote da behar baita izaera egoki bat ere, eginkizun horretarako?

-Nola ez, bada?

-Beraz, gure eginkizuna, antza denez, gai bagara behintzat, hiri bat zaintzeko izaera egokiak nortzuk eta zeintzuk diren hautatzea dateke.

-Gurea da, zalantza barik.

-Zeusarren, esan nuen, ez da benetan makala leporatu dugun lorra. Baina horregatik, indarrak geratzen zaigun heinean ez dugu kikildu behar.

375.- Ezelan ere ez, esan zuen.

-Uste al duzu, bada, esan nuen, zaintze-zereginetarako, arraza-txakur baten eta jatorri oneko gazte baten artean alderik dagoenik?

-Zeri buruz diozu?

-Gauzak ikusteko biok behar duten zorrozatasunari, eta ikusitakoaren atzetik jarraitzeko bizkortasunari ere, eta, behar balitz, harrapaturikoaz borrokan egiteko adorea buruz, hain zuzen.

-Benetan, esan zuen, gauza guztiok behar dira.

-Gainera, zangartasuna ere beharko da, behar den bezala borrokan egingo bada.

-Nola ez, bada?

-Baina kementsu ez dena ahalko ote da zangar izan, zaldi, zein txakur, zein beste edozein abere? Ala ez zara (b) konturatu nola azpiratu ezina eta garaitu ezina den kemena, eta bera daukan edozein arima beldur gabe eta menderagaitz denik?

-Konturatu naiz.

-Orduan, nabarmen daude zaintzailearengan gorputzeko berezitasunak nolakoak izan behar duten.

-Bai.

-Baita arimarenak ere, gutxienik kementsu izan behar dute.

-Hori ere bai.

-Nola, bada, esan nuen, ene Glaukon, honako izaera izanik, ez dira elkarrekin eta beste hirikideekin basati izango?

-Zeusarren, esan zuen, ez da erraz.

-Horregatik, beharrezko da (c) etxekoekin abegitsu izatea, eta arerioekin latz; bestela ez lukete itxarongo inork suntsi ditzan, eurak berak aurreratuko dira hori egiten.

-Egia da, esan zuen.

-Zer egingo dugu, bada, esan nuen? Non aurkituko ote dugu aldi berean abegitsu eta kementsu den izaera bat? Zeren, ziur asko, aurkako dira kementasuna eta abegitasuna.

-Badirudi.

-Baina, bestalde, bi hauetariko bat ez balitz, ez litzateke zaintzaile onik sortuko; eta izaera bi hauek batera ezinezko direla dirudienez, honela (d) zaintzaile onik sortzea ezinezko gertatzen da.

-Arriskurik bada horretarako, esan zuen.

Eta ni zurtz eginik geratu nintzen, baina aurretik esanikoak aztertutik esan nuen: - Benetan bidezko da, ene lagun hori, gu ataka gaizto honetan aurkitzea, aurretik jarri genuen eredutik aldendu garelako.

-Nola diozu?

-Ez gara konturatu, guk uste ez genuen arren, aldi berean aurkako hauek dituen izaerarik ere badela.

-Non, bada?

-Aurki litezke beste abere batzuetan ere, baina batez ere zaintzailearekin parean ezartzen genuenarenean. (e) Jakin dakizu, era batera edo bestera, honako hau, arraza-txakurren berezko izaera bat dela, etxekoentzat eta ezagunentzat zein abegitsu diren, eta ezezagunentzat, oster, zein alderantzizkoak<sup>19</sup>.

-Badakit, benetan.

-Beraz, esan nuen, honako hau ahal daitekeen gauza bat da, eta ez goaz izaeraren aurka honako zaintzailea izatea bilatzen dugunean.

-Ez dirudi.

XVI. - Ez al duzu uste zaintzaile izango den honek ondino zerbait gehiago behar duenik, kemenaz gainera berezkotasunez filosofo bat izan behar duenik?

-Nola bada? esan zuen, 376. ez dut ulertzen eta.

-Hauxe gauza hauxe berau, esan nuen, txakurretan ere ikusiko duzu, piztia baten harrigarri dena.

-Zer gauza?

-Ezezagun bat ikustean sutu egiten dela, harengandik aurrez ezer txarrik jasan ez arren; eta ezagunen bat denean txerak egiten dizkiola inoiz onik hartu ez badu ere; ala horrek ez ote zaitu egundo harritu?

-Inoiz ez, esan zuen, orain arte ez nintzen horrezaz egundo ohartu, baina, zalantza barik, argi dago horrelakoak egiten dituztela.

-Begira, bada, hor agertzen da bere izaeraren (b) bereizgarri bikain bat, eta, benetan, filosofo bat bezala agertzen da.

-Nola, bada?

-Ez dutelako, esan nuen, adiskide eta arerioaren itxura ezer bestez bereizten, bata ezagutzeaz eta bestea ez ezagutzeaz baino. Nola ez dateke, bada, jakinzale, etxekoa edo kanpokoa ezagumenetik edo ezezaguntasunetik bereizten duena?

-Ezelan ere ez beste era batera, esan zuen.

-Begira, esan nuen, ez ote da gauza bera jakin-mina eta filosofo izatea?

-Benetan, gauza bera da, esan zuen.

-Orduan, ardura barik jarriko genuke gizonaren baitan ere, etxekoentzat eta ezagunentzat (c) abegitsu izango bada, izaeraz jakinzale eta filosofo izan behar duela?

-Hala jarriko dugu, esan zuen.

-Beraz, hiriko zaintzaile on izatera heltzeko, izaeraz filosofo, kementsu, bizkor, eta bulartsu ere izan beharko du.

-Gutziz horrelaxe, bada, esan zuen.

-Honelakoxeak, bada, dirateke herri-zerbitzariak. Eta zein erataria guk hazi eta heziko ditugu hauek? Arazo hau aztertzea ez ote zaigu baliagarri izango, (d) batez ere, gure azterketa guztiaren arrazoia, hau da, hirian zuzentasuna eta bidegabekeria zein eratan sortzen diren argi ikusteko? Ez gaitezen hitz hutsez ase, ez gehiegi aldentu.

Eta Glaukonen anaiak: - Bete-betea uste dut nik, esan zuen, horretarako azterketa hau baliagarri izango dugula.

-Zeusarren, esan nuen, ene adiskide Adeimantos, benetan, ez da eskutik utzi behar, luzeago suerta baledi ere.

-Ez horixe.

-Ea, bada, kontu-kontari bezala, ipuinez eta horretarako astirik bagenu bezala, hitzez, hezi ditzagun (e) gizonok.

-Hala behar da.

XVII. -Hezkuntza, bada, zein motatakoa izango ote da? Aspaldiko denboretatik etorri zaiguna baino hobea aurkitzea, ez ote da zail izango? Soinentzat gimnastikan alde batetik, eta bestetik arimarentzat musikan datza, gutxi gorabehera.

-Bada, bai.

-Baina, ez ote gara hasiko hezten lehenago musikaz gimnastikaz baino?

-Nola ez, bada?

-Eta musikaren alorrean, esan nuen, sartzen ote dituzu kontakizunak, ala ez?

-Nik bai.

-Eta kontakizunen izaera ez al da bikoitza, bata egiazkoa eta bestea gezurrezkoa?

-Bai.

-Eta bietan hezi beharko ote da, 377. eta lehenen gezurrezkoetan?

-Ez dut ulertzen, esan zuen, zergatik diozun.

-Ez ote dakizu, esan nuen, umeei lehen-lehenengo mitoak esaten dizkiegula? Eta hori, gehien bat, gezurra esatea da, egiaren bat ere horretan egon arren. Gimnasioak baino lehenago, ipuinak erabiltzen ditugu umeein.

-Halaxe da.

-Hauxe da, bada, esaten nuena, gimnasia baino lehen musika eskuratu behar dela.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Orduan, ez al dakizu edozein eginkizunetan hasiera dela gauzarik garrantzitsuenak, eta batez ere ume gazte eta samur bati buruz denean? (b) Moldagaien orduantxe delako, eta inork bakoitzari irarri nahi liokeen iduria hoberen barruratzen zaiolako.

-Bete-betea horrelaxe da.

-Baina onartuko ote dugu, bada, hain arinkeria handiarekin, umeeek lehenengo aurkitzen dituztenengandiko edozein mito entzutea, eta euren arimetan, gehienbat, gure ustez handi egin eta gero izatea komeni zaienaren aurkako eritziak hartzea?

-Ezelan ere, ez dugu onartuko.

-Dirudienez, lehenengo eta behin, mito-egileak jagon beharko ditugu, (c) eta ondo egina datekeena onartu beharko da, eta txarto datekeena, baztertu. Inudeak eta amak etsiko ditugu onartutakoak bakarrik kontatzen diezazkien umeei, eta mitoen bidez hauen arimak askoz hobeto molda ditzaten, eskuekin soinak moldatzen diren baino. Eta orain kontatzen dituztenetatik gehienak baztertu beharko dira.

-Zeintzuk, bada? esan zuen.

-Mito handiagoetatik, esan nuen, txikiagoak ere ulertuko ditugu, zeren ezinbesteko da, benetan, biok iduri eta eragin bera izatea, handiagoak (d) zein txikiagoak ere. Ala ez duzu uste?

-Nik neuk bai, esan zuen, baina ez dakit handiago esaten dituzunak zeintzuk diren.

-Hesiodosek, esan nuen, eta Homerosen ere, eta beste gainerako poetek esaten zizkigutenak. Hauexek direlako, ziur asko, gizakioi kontatu eta kontatzen zaizkigu gezurrezko mitoen asmatzaile.

-Zeintzuk, bada, esan zuen, eta eurentatik zer diozu gaitzesten duzula?

-Lehenengo, esan nuen, eta gehien gaitzetsi behar dena, batez ere itxura barik gezurra esaten bada.

-(e) Zer da hori?

-Inork jainkoen eta heroeen izaera nolakoa den hitzez baldar adierazten duenean, margolari bat, margotzerakoan, margotu nahi lukeen iduritik, zeharo aldentzen den bezala da.

-Benetan, esan zuen, hau ere gaitzestea ondo dago, baina nola esango dugu eta zein gauza?

-Lehenengo, bada, esan nuen, itxura gabeko gezurra esan zuen, gezurrik handiena izaki handienei buruz esan zuenak; hala nola Ouranosen egin eta Khronosen harekiko mendekuari buruz Hesiodosek esan zuena<sup>20</sup>. Eta areago 378. Khronosen ekintzei eta bere semeagandik jasan zuenari buruzkoa<sup>21</sup>, egia balitz ere, ez dut uste esan behar litzaiekeenik hain arinkeria handiaz zentzura heldu ez direnei ezta gazteei ere, zeharo denen gainetik, ixildu behar lirakeela baino, eta inork esan behar balu ahalik eta gizabanako gutxienek entzun ditzatela ixilpean, ez urde bat eskainirik<sup>22</sup>, beste opari handiago eta ezohizko bat baino, gutxien batzuek bakarrik entzutea suerta dadin.

-Benetan, esan zuen, kontu hauek ere arriskutsu dira.

-Eta ez dira esan behar, esan nuen, ene Adeimantos, (b) gure hirian. Ezta entzuten dagoen gazte bati ere ez zaio esan behar bidegabekeria handienak egin, edo edozein eratarik aitarenak zigortu balitza, ezer harrigarrikerik egin lezakeenik, lehen jainko ahaltsuenak egin zuena baizik.

-Ez, Zeusarren, esan zuen, nik ere, hori esateari ez deritzat egoki.

-Ezta, esan nuen, inola ere ez zaie esan behar nola jainkoek jainkoen lehian dabilozan eta maltzurkeriak egiten, eta elkarren aurka borrokan egiten duten, -egia ez delako- (c), benetan nahi badugu hiriko zaintzaile izatera doazenek zentzu barik elkarri gorroto izatea lotsagarritzat izan dezaten. Inolaz ere ez zaizkie kontatu ez margoztu<sup>23</sup> behar gigantomakiarik, ez jainkoen eta heroeen, eta euren jatorrikoen eta senideen arteko beste ezelango gorroto asko ere; baina, alderantziz, etsi nahi baditugu ez dela beste hiritar bati gorroto izan dion hiritarrik izan, eta gorroto izatea ez dela zilegi, honakoxeak, batez ere, esan behar dizkiete berehala umeei (d) agureek eta atsoek, eta adin heldura heldurikoan poetak ere behartu beharko dira, esanikoaren arabera, euren

kontakizunak asmatzera. Herari bere semeak jarritako katei buruzkoak<sup>24</sup>, edota bere ama zigortua babestea nahi izatearren Hephaistos bere aitak jaurtiki izatea<sup>25</sup>, edota Homerosen eginiko teomakia guztiak<sup>26</sup>, ez dira onartu behar gure hirian, alegietan eginak izan arren edo ez arren. Gaztea ez da gai eta alegiazkoak diren ala ez bereizteko, ezen, adin horretakoa izanik hartzen dituen eritziak kendu ezinak (e) eta alda ezinak izatea gertatzen baita gehienetan. Gauza guzti hauengatik eta gauza guztien gainetik, lehenengo entzungo dituzten ipuinak bertutearen alde ondoen eginak entzun ditzaten ahalegindu behar da.

XVIII. - Arrazoa da, esan zuen. Baina inork, oster, honako hauek ere zein motatako mito eta zeintzuk diren itaunduko baligu, zeintzuk direla esango genioke?

Eta nik esan nuen: - Ene Adeimantos, zu eta ni ez gara poetak une honetan, 379. hiri-eraikitzaile baino; eta eraikitzaileei dagokiena, ereduak nolakoak izan behar duten jakitea da, haien arabera, poetek mitoak sor ditzaten behartzeko, eta haien aurkakoak egingo balituzte egiten utz ez diezaion, ez da, beraz, hiri-eraikitzaileen zeregina mitoak asmatzea.

-Zuzen, esan zuen. Baina azken batean gauza bera dena, zeintzuk dirateke teologiei buruzko jakituri ereduak?

-Honako hauek, gutxi gorabehera, esan nuen: zalantza barik, jainkoaren izaera suertatzen den bezalakoxea azaldu behar dela beti, zein epopeietan, zein lirika-eresietan, zein tragedia batean izan.

-Beharrezko da, bai.

-Orduan, jainkoa ez ote da, benetan, ona izaeraz, (b) eta hori ere ez ote da esan behar?

-Benetan.

-Baina, gauza onen artean ez da ezer kaltegarri, ala zer?

-Ez dut uste.

-Orduan, kaltegarri ez denak kalterik egiten al du?

-Ezela ere ez.

-Eta kalterik egiten ez duenak, ezer txarrik egin al dezake?

-Hori ere ez.

-Eta, benetan, ezer txarrik egiten ez duena, ezer txarren iturburu dateke?

-Nola, bada?

-Eta zer? Onuragarri ote da ona?

-Bai.

-Ondo egitearen iturburu, beraz?

-Bai.

-Beraz ona ez da gauza guztien iturburu, ondo daudenena baino, ez ordea txarto dauden iturburu.

-Guztiz ondo, (c) esan zuen.

-Ezta ez dateke ere, beraz, esan nuen, jainkoa, ona denez gero, gauza guztien iturburu, gehienek esaten duten bezala<sup>27</sup>, gizakioi gutxien gertatzen zaizkien iturburu baino, ez ordea gehien gertatzen zaizkigun iturburu. Askoz gauza on gutxiago gertatzen zaizkigu txarrak baino<sup>28</sup>, eta gauza onen iturburutza ez zaio beste inori jarri behar, gauza txarrena, berriz, beste batengan bilatu behar da, ez jainkoarengan.

-Egia guztia diozula iduritzen zait, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, ez da ontzat hartu behar Homerosen, ez beste edozein poetaren jainkoei buruzko honako (d) huts hau, zentzu barik, huts egiten dutelako esaten dutenean:

"Nola bi treska jarririk dauden Jainkoaren etxeko zelaian

zoriz beterik, onez bata, txarrez, aldiz, bestea<sup>29</sup>"

eta Zeusek bietatik nahaste bat ematen dionari:

"Batuetan zoriona jadesten duela, besteetan zoritxarra<sup>30</sup>"

Eta batetik nahastu bakoa baino ematen ez dionari:

"Behar gorri txar batek daramala jainko-eremuetan zehar<sup>31</sup>" (e) Ez da guretzat Zeus

"Onak eta txarrak banatzen dituen<sup>32</sup>" arduraduna.

XIX. Eta Pandaros loturik zeukan zin eta itunen eteteari buruz inork Athena eta Zeusen eraginez<sup>33</sup> egin zela esan baleza, ez diogu onartuko, ezta jainkoen haserrea



eta auzia 380. Themis eta Zeusen<sup>34</sup> eraginez sortu zirenik ere ez; eta ez da utzi behar gazteek entzun dezaten Aiskhylosek dioena:

"Gizakiengan errua sortzen duela jainkoak

etxe bat guztiz suntsitu nahi duenean<sup>35</sup> "

baina inork iambo-bertso hauetantxe daudenez eresi baditza Nioberen atsekabeak edo Pelopidotarrenak<sup>36</sup> edo Troiarrenak edo hauen antzeko beste zer bait, edo jainkoaren egintzak direla esaterik ez zaio utzi behar, edo jainkoarenak badira gu orain bilatzen ari garen arrazoia bilatu beharko du, gutxi gorabehera, eta esan beharko du jainkoak zuzen eta onak (b) egin zituela gauzak, eta zigorturikoek irabazle irten zirela. Baina haren zigorra hartu duena zoritxarrekoztat izatea, eta, areago, guzti hori jainkoak egina dela ez zaio inongo poetari esaten utzi behar. Esan balezate, oster, gaiztoak zoritxarreko zirela, zigortuak izatearen premian aurkitzen zirelako, eta zigorra ematean jainkoak mesede egiten ziela, zilegi izan bekie. Eta era guztietan gogor borrokan egin beharko da, jainkoa izaeraz ona izanik, gaitzen sorburua dela dioenaren aurka, honakorik inork bere hirian, ondo zuzendua izan dadin nahi badu, esan ez dezan; ezta honakorik inork entzun dezan ere, gazte (c) zein zahar, bertsoz zein hitz lauez kontatu, esango balitu gauza dongeak esango lituzkeelako, guretzat behar ez direnak, eta elkarren aurkakoak.

-Eritzi berdinekoa naiz, esan zuen, lege honi buruz, eta gogoko dut.

-Hauxe da, bada, esan nuen, jainkoei buruz diratekeen legeetatik eta ereduetatik bat, zeinen arabera esan beharko dituzten kontu-kontariek bere ipuinak, eta asmatzaileek, asmatu: jainkoa ez dela gauza guztien iturburu, gauza onena baino.

-Erabat nahiko da, esan zuen.

-Eta zer gehiago (d) bigarrenari buruz? Uste ote da bada, jainkoa azitia denik, bakoitzean iduri desberdin batez maltzurki aurkezturik, batzuetan bere eraginez jas askotan bere iduria aldaturik, beste batzuetan guri iruzur eginez, berari buruz hau edo hori dela uste izan dezagun, ala izaera bakar bat dela, eta iduria antzaldatzeko beste inor baino gutxien gai dena?

-Ez daukat, esan zuen, benetan orain ezer esaterik.

-Eta hori zer? Ez ote da ezinbesteko inor antzaldatzen bada bere eraginez, edo beste batenaz aldatzea?

-Ezinbesteko, bai.

-Ez ote dira, bada, gauza egin-eginenak inoren eraginez gutxien antzaldatzen eta iraultzen direnak? Esate baterako, soinak jan-edarien eta nekeen eragina dauka, eta edozein landarek eguzkien, haizeen eta antzekoen eragina; osasuntsuena eta indartsuena ez ote da 381. aldagaitzena?

-Eta nola ez?

-Eta arimarik bulartsuena eta adimentsuena ez ote da kanpokoengandiko eragin gutxienekoa, eta aldagaitzena?

-Bai.

-Eta berdin, arrazoi beragatik, egiten diren guztiak: tresnak, eraikuntzak eta janztekoak. Ondo eginik daudenak eta egoera onean daudenak gutxien aldatzen dira denboraren eta beste gauza eragingarrien eraginez.

-Halaxe da, bai.

-Benetan, berez, edo (b) eginaren bidez, edo bitzuez ondo dagoen guztiak besterengandiko aldaketarik txikiena hartzen du.

-Badirudi.

-Benetan, bada, jainkoa eta berari dagozkionak gauza guztietan onenak dira.

-Eta nola ez?

-Horregatik, itxura asko hartzeko gaitasun bakoena jainkoa da.

-Gaitasun bakoena, benetan.

XX.- Orduan, berak sortaraziko ote dizkio bere buruari aldakuntzak eta besteratzek?

-Nabarmen da, esan zuen, aldatzen bada.

-Ausaz, bada, bere burua hobe eta ederrago bihurtzearren, ala txarrago eta itsusiago egiteko?

-Aldatzen bada, esan zuen, beharrezko da txarrera jotzea, (c) zerren, benetan, ez dugu esango jainkoa edertasunaren eta bertutearen premian dagoenik.

-Guztiz zuzen, esan nuen, diozu. Eta hau horrelaxe iza-nik, uste al duzu, ene Adeimantos, inork, jainko zein gizon, bere borondatez txarrera ezertan egingo duenik?

-Ezinezko da, esan zuen.

-Ezinezko da, beraz, esan nuen, jainkoarentzat ere, bere burua aldatu nahi izatea, ezen, dirudienez, ederren eta gorenaren izanik, haietariko bakoitza, ahal den neurrian, bete-betean bere itxura berezian geratzen da beti.

-Guzti horri, esan zuen, beharrezko dela deritzat.

-Inongo poetak, beraz, (d) esan nuen, ez diezaigula esan:

"Jainkoek, edonongo atzeritarren antzera,

guztitariko itxurak harturik, hirietan zehar dabilta.<sup>37</sup>"-la

Ezta inork ez diezagula iruzurrik egin Proteus eta Thetisi<sup>38</sup> buruz, ezta inork ez dezala azal Hera, ez tragedia ez beste inongo poemen bidez, antzaldaturik, bereterresa bezala eskean:

"Argoseko ibai Inakhoren seme emankorren alde.<sup>39</sup>"

Eta hauen antzeko beste (e) gezur asko ere ez diezazkigula esan. Ezta amek ere, gauza hauekin liluraturik, ez ditzatela umeak beldur mitoak oker esanez, nola jainko batzuk gaez ibiltzen diren edonongo atzeritar- itxurapean agerturik, era berean, jainkoen aurka biraorik egin ez dezaten eta umeak beldurtiago bihur ez daitezen<sup>40</sup>.

-Ezta, esan zuen.

-Ala, ausaz, esan nuen, jainkoak eurak aldatzeko gai ez direlarik, sinestarazi egiten ote digute guztitariko itxuretan agertzen direla, osotoro iruzur eginez eta liluratuaz?

-Beharbada, esan zuen.

-Eta zer? esan nuen, jainkoak gura ote luke iruzur egiterik, 382. hitzez edo egitez, mamu-itxura bat aurkeztuaz?

-Ez dakit, esan zuen.

-Ez ote dakizu, esan nuen, benetako gezurra, honakorik esaterik balitz, jainko eta gizon guztiek gorroto dutela?

-Nola diozu? esan zuen.

-Honelaxe, esan nuen, inork bere borondatez ez duela nahi bakoitza deneko gauzarik garrantzitsuenean ezta gauza garrantzitsuenei buruz iruzurtua izatea, eta gauza guztietan beldurrik gehien ematen duena iruzur horretan geratzea da.

-Ondino, esan zuen, ez dut ezer ulertzen.

-Nik, esan nuen, (b) zerbait harrigarri esango dudala zuk uste izateagatik da; eta nik diodana, direnei buruz, ariman iruzurtu izana edo izatea, eta ezjakin izatea, eta gezurra bertan izan eta geratzea guztiek gutxien onartzen dutena eta egoera horretan egotea gehien gorrotatzen dutena da.

-Bene-benetan, esan zuen.

-Baina, oraintsu esaten nuen bezala, horri, zuzenen, benetako gezurra dei diezaioke iruzurtuak ariman daukan ezjakintasunari, hain zuzen, zeren hitzetan azaltzen den gezurra arimako egoeraren iduri antzeko bat da, ondoren sorturiko (c) iduria, baina ez egin-egineko gezur hutsa. Ala ez da horrelaxe?

-Guztiz, bada.

XXI. - Benetako gezurra, beraz, ez dute jainkoek bakarrik gorrotatzen, gizonek ere bai.

-Hala uste dut.

-Eta zer gehiago hitzetan dagoen gezurrari buruz? Noiz eta norentzat ote da onuragarri, gorrotagarri ez izateko adinean? Ez ote da, agian, sendagai bat bezala egoki agertzen arerioen aurka, edota deituriko lagunen aurka zorakeriaren baten edo zentzugabekeriaren baten eraginez okerkeriaren bat egitera doazenean galerazteko une horretan? Eta ez ote dugu onuragarri egiten baita ere, oraintsu (d) aipatzen genituen mitologietan, antzinako gauzei buruz egia non datzan ez dakigulako, gezurra eta egia ahalik eta gehien pareko egiten ditugunean?

-Bai benetan, esan zuen, hala da.

-Esaniko arrazoietatik, bada, zeinen arabera suertatuko da gezurra jainkoarentzat onuragarri? Ausaz, antzinako gauzak ezagutzen ez dituelako, gezurra eta egia berdinak eginez, huts egin ote dezake?

-Benetan, barregarri dateke, esan zuen.

-Jainkoarengan ez dago bada, poeta gezurtirik.

-Ez dut uste.

-Ala arerioen beldurrez (e) iruzur egingo ote du?

-Horretarako, benetan, asko behar da.

-Ala, lagunen baten zentzugabekeriaren batek edo zorakeriaren batek eraginik?

-Zentzugabe edo zoro den inor ez da jainkoaren lagun.

-Beraz, ez dago inolako biderik jainkoak iruzur egin dezan.

-Ez dago.

-Beraz, gauza guztietan iruzurrik egin ezina izpiritua eta jainkotasuna da.

-Guztiz, bada, esan zuen.

-Guztiz, bada, bakuna eta egiazkoa da jainkoa egitez eta hitzez, bere burua aldatzen ez duena, eta inori iruzurrik egiten ez diona, ez agerraldiekin ez hitzez, ez ezaugarriak bidaliz, ez iratzarrik ez lotan.

383. - Hori horrelaxe dela uste dut nik ere, esan zuen, zuk hitzegin eta gero.

-Orduan, bat al zatoz, esan nuen, bigarren eredua hau dela, zeinen arabera esan eta egin behar diren jainkoei buruzkoak, eta ez direla bere burua aldatzen duten azti batzuen antzekoak, eta ez gaituztela liluratzen gezurrekin, hitzez eta egitez?

-Bat nator.

-Beraz, Homerosen gauza asko goratu arren, ez diogu onartuko Zeusek Agamemnoni<sup>41</sup> bidaliriko ametsarena, ezta Aiskhylosena Thetisek dioenean Apollonek, bere (b) ezteietan abesturik bere zorioneko ondorengoak ederrestu zituela:

"Eta gaitzik gabeko bizitza urtetsua ere, eta jainkoentzat gure zorian maitagarriari buruz guztiak esanik, paian-kantua hasi zuen, ni pozturik

eta nik Pheiboren goitar ahoan gezurrik zegoenik  
ez nuen uste, igarkizun trebetasunaren sorlekuan;  
bera, abesten ari zena, oturuntzan zegoen berbera,  
honakoak esan zizkidana, hauxe berau gertatu da  
nire semearen erale.<sup>42</sup>"

(c) Jainkoei buruz inork honakoak esaten dituenean haserre gorrian jarriko gara, eta ez diogu koruan partaidetzarik emango, eta ez dugu irakasleek gazteen hezkuntzari buruz erabil ditzaten utziko, nahi badute zaintzaileak jainkozale eta jainkozko bihur daitezen, gizonak ahal duen neurri handienera.

-Guztiz, esan zuen, eredu hauekin bat nator eta legetzat ere izango nituzke.

### III

386. I. - Honelakoxeak dira bada dirudienez, esan nuen, jainkoei buruz umetatik entzun behar dituzten eta ez dituztenak, jainkoei eta bere gurasoei ere itzal izango dietenek, eta elkarrenganako adiskidetasuna gauza gutxitzat eduki behar ez dutenek.

-Benetan, uste dut, esan zuen, argi agertu zaigula.

-Eta zer gehiago, adoretu izatekotan? Ausaz, heriotzari beldurrik txikienik izan ez diezaioten, ez ote dizkiegu hauek bezalakoxeak esan behar? Ala (b) honako beldurra bere barruan daukana adoretu izan litekeenik uste al duzu?

-Zeusarren, esan zuen, nik neuk ez.

-Eta zer? Haidesen sinestea daukanak eta beldurgarri dela uste duenak galduko ote dio beldurra heriotzari, eta gudaldietan nahiago ote du heriotza hondamendia eta morroitzia baino?

-Ezelan ere ez.

-Beharrezko da bada, dirudienez, honako mitoei buruz ihardunean dabiltzanak jagon ditzagun eta erregutzea ere ez ditzatela hain erraz Haideseko gauzak laido, gora ditzatela baino, ezen, ez dute egiairik (c) esaten, ez onik egiten gudari izatera doazenei.

-Beharrezko da, benetan, esan zuen.

-Baztertu egingo ditugu beraz, esan nuen, bertso honetatik hasirik antzeko guztiak:

"Nahiago nuke alor-mutil izanik bizibide asko ez lukeen  
beste gizon maizter baten zerbitzuan jarriko banintz,  
hildako gorpu guztien errege izan baino.<sup>1</sup>"

Edota: (d)

"Eta, hilkorrei eta hilezkorrei ager lekiekeen  
bizileku izugarri eta ilunari izua diote jainkoek ere.<sup>2</sup>"

Baita ere:

"Ai ene, Haideseko bizilekuetan badiraute, bada, arimak eta iduriak, baina euretan inolako adimenik ez dago.<sup>3</sup>"

Edota:

"Berari bakarrik dagokio zentzumena, hega-biraka  
mamuak inguruan dabilzkiola.<sup>4</sup>"

Baita ere:

"Eta arima, soin-ataletatik ihes eginik, Haidesera abiatu zen, bere atsekabearen negarrez, adorea eta gaztetasuna galdurik.<sup>5</sup>"

387. Edota:

"Eta arima lurpean, kearen antzera,  
ezereztu zen txilioka.<sup>6</sup>"

Baita ere:

"Eta saguzarrak leze done sakonean hegazka intziriz dabil-  
tzan bezala, baten bat horman dauden mordotik jaustean  
eta berriro elkarrekin lotzen diren bezala,

halaxe haiek ere alde egin zuten batera txilioka.<sup>7</sup>"

(b) Hauek eta honako guztiak baztertzen baditugu Homeros eta gainerako poetei eskatuko diegu ez daitezela haserretu, ez gehientsuentzat entzuteko poetikoak eta atsegingarriak ez direlako, zenbat eta poetikoago izan hainbat eta gutxiago entzun behar dituztela ume zein adinekoek baino, zeintzuei aske izatea eta heriotzari baino morroitzari beldur gehiago izatea komeni zaien.

-Zalantza barik.

II. - Horregatik, gauza hauei buruzko beste beldurgarritzko eta izugarritzko izen guztiak ere baztertu beharko dira "Kokytosa" eta "Styxa" ere (c) eta "lurpekoak" eta "animak"

eta taiu honetako beste gainerakoak, [uste denez,] entzun orduko guztiei ileak zutik jarri baitzaizkie. Eta, agian, beste zerbaitetarako on dira. Gu ordea, hiriko zaintzaileei buruz, honako ikararen eraginez, behar baino sentiberago eta ahulago bihurtuko ote zaizkigun beldur gara.

-Benetan, esan zuen, bidezko dugu beldur izatea.

-Kendu egingo ditugu, beraz?

-Bai.

-Eta hauen osterantzeko eredu baten arabera kontatu eta asmatu ere egin beharko ote dira?

-Argi dago.

-Eta aienak eta negar-zotinak ere kenduko ote ditugu (d) izen oneko gizonengandik?

-Beharrezko da, esan zuen, lehengoak kendu ditugunez gero.

-Azter ezazu, bada, esan nuen, zuzen kentzen ditugun ala ez. Esaten dugu, bada, zentzuzko gizon batek ez duela uste izango bere lagun den beste zentzuzko gizon batentzat hiltzea beldurgarri denik.

-Esaten dugu, bai.

-Ez da, beraz, sumindu ahalko hark izugarrizko zer bait jasan izan duelakoan.

-Ez horixe.

-Baina, hauxe ere esaten dugu, honako gizona dela gehien bere gisa ondo bizitzeko lain, eta besteengandik nabarmentzen dela (e) inoren beharrian gutxien daukalako.

-Egia da, esan zuen.

-Honentzat, beraz, ez da hain mingarria izango semea, zein anaia, zein aberastasunak, zein antzeko beste gauzaren bat galtzea.

-Ez dateke hain mingarria, noski.

-Eta honako ezbeharren bat hel balekio bera da gutxien saminduko dena, eta ahal denik eta eroapen handienarekin eramango duena.

-Bene-benetan.

-Zuzen jokatuko dugu, beraz, gizon entzutetsuengandik antsiak kendu eta andrekoengan, baina ez onenengan, eta baita 388. gizon maltzur guztiengan ere jar bagenitza, hiri-zaintzarako hezten ditugula esaten ditugunak, haiek egiten dituzten gauza berdinak egitean gogaikarri izan dakizkigun.

-Zuzen, esan zuen.

-Berriro, bada, eskatuko diegu Homeros eta beste poetei ez dezatela jainkosa-seme den Akhilleus aurkez:

"Behin albora etzanik, behin aratinik, edo behin ahozpez, eta gero zutik jarririk, hara-hona urduri dabilela itsas antzuaren hondar gainean<sup>8</sup>" (b) ezta "esku biekin errautsa harturik burutik behera botatzen<sup>9</sup>" ezta hark egin zituen hainbesteko negar eta antsiz. Ezta jainkoen senitarte hurreko den Priamos erreguka eta:

"Sats artean lorrinka,

bakoitzari bere izenaz deitzen.<sup>10</sup>"

Baina ondino askoz gehiago eskatuko diegu ez ditzatela azal jainkoak negar-zotinka eta esanez:

(c) "Ai ene errukarri, ai ene zorigaiztoko heroe-ama<sup>11</sup>"

Eta jainkoei buruz honakoak esan ezin badira, inondik inora ere ez dadila ausart jainkorik handiena hainbesteko bidegabekeriaz antzezten esanez:



"Ai ene! maite dudan gizona hiri inguruan jazarria  
dakusat neure begiez eta samindurik daukat bihotza.<sup>12</sup>"

Edota:

"Ai ene! hau zoria neurea! Sarpedon, gizonik maiteena,  
Patroklos Menoitarraren esku galdu beharra.<sup>13</sup>"

III. Zeren, ene Adeimantos adiskide, gure gazteak honakoak zinezkotzat entzun balitzate, ezduin bezala txantxetan hartu beharrean, gizakume izanik, azken batean zail izan lekieke ezduintzat hartzea, eta eurei ere honakoak esatea edo egitea burura balekie ez gaitzestea; alderantziz, ezeren lotsa barik eta inongo sendotasun handi barik antsiz eta negarrez egongo lirateke ezbehar txikienaren aurrean.

-(e) Egia biribilenak, esan zuen, diozuz.

-Benetan ez da honelakorik behar, lehentxeago arrazoiak iragarri digunaren arabera; men egin behar zaio, beste arrazoi hobe batez limurtzen ez gaituzten bitartean.

-Ez da behar, ez.

-Barrezale izatea ere ez da komenigarri. Ezen, norbaitek barre-zantzo zakarrari ematen dionean, gehienetan horrelakoak aldakuntza ere zakarra bilatzen du.

-Hala uste dut, esan zuen.

-Beraz, inork barreak menperaturiko duintasunezko gizonik 389. sor baleza, ez da onartuko, eta askoz gutxiago jainkoren bat izan baledi.

-Askoz gutxiago, bada, esan zuen.

-Ezelan ere ez ditugu onartuko jainkoei buruzko Homerosen honakoak ere:

"Eta amaibako barrea sortu zen zorioneko jainko artean,

Hephaistos hats-estuka jauregi artetik zebilela ikustean.<sup>14</sup>"

Zure esanaren arabera ez da onargarria.

-Zure nahia bada, esan zuen, jarri niregan hori ere. Benetan, bada, (b) ez da onargarri eta.

-Benetan, egia ere aintzakotzat jarri behar da gauza askoren gainetik. Ezen, oraintsu esaten genuena zuzen badago, eta izatez alde batetik jainkoentzat gezurra ezertarako ez bada, eta bestetik, sendagai bezala, gizonentzat onuragarri, argi dago horrelako hori sendagileei utzi behar zaiela eta gizabanakoak ez duela ukitu behar.

-Argi dago, esan zuen.

-Beste inori ezean, hiriko agintariei dagokie iruzur egitea, arerio zein hirikideei buruz, hiriaren onerako, honelakorik beste inori ez dagokio. Baina, (c) gizabanako batek agintariak iruzurtzen baditu, huts berdinean edo larriagoa dela esango dugu gaixoak sendagileari zein ikasleak bere soin-egoerari buruz soin-irakasleari egia ez esatea baino, edo itsasontzi eta marinelei buruz, norbera zein edozein marinelkide nola dagoen lemazainari egia ez esatea baino.

-Egia biribila, esan zuen.

-Eta hirian inor harrapa baleza gezurretan, (d):

"Ogibidedunen artean

azti, zein gaitzen sendagile, zein zurgin izan <sup>15</sup>"

zigortu egingo du, hirian, itsasontzi batean bezala, hain galgarri eta hondagarri den ekandua sartzearen.

-Benetan esanari ekintza badarraio, esan zuen.

-Eta zer? Gure gazteek ez ote dute behar neurritasunik?

-Nola ez, bada?

-Eta hiritarrei buruz, neurritasuna ez ote da bada gehienbat, agintarien menpeko izatea eta euren buruen jabe izatea (e) edari zein haragi-grina, zein aho-zurikeriei buruz?

-Hala deritzat.

-Honakoak eta, Homerosen bidez, Diomedesek esaten dituen lakoak ondo daudela esango dugula uste dut:

"To, hago ixil eta nire esaneko izan hadi. <sup>16</sup>"

Eta jarraitzen dieten hauexek ere:

"Arnas kementsuaz zihoazen Akhaiarrak

ixil, buruzagien beldurretan. <sup>17</sup>"

Eta hauen antzeko beste guztiak.

-Ederto.

-Eta honako hauek, zer?

"Txakur-begi eta orein-bihotz mozkor hori. <sup>18</sup>"

390. Eta jarraian datozenak, edo ezein gizakume arruntak, hitz lauez edo bertsoz, lotsarik gabe agintariei buruz esan ditzakeen beste guztiak ondo ote daude?

-Ondo ez.

-Benetan, gazteen neurritasunerako ez dut uste horrelakorik entzutea egoki denik; atseginen bat ematen badie harrigarri izan ez arren. Ala zer deritzazu?

-Horrelaxe dela, esan zuen.

IV. - Eta zer? Gizonik argiena aurkeztu behar ote da bere ustez gauzarik ederrena dela,

"Ondoan mahaiak gainezka daudenean

(b) ogi eta haragiz, eta kupeletik ardoa atera eta

ardoainak ekarri eta edontzietan isurtzen duenean <sup>19</sup>"

dioenean?

Bere buruaren jabe izateko honakoak entzutea gazte batentzat egoki denik uste al duzu?

"Zoritxarrik larriena eta lastimagarriena gosez hiltzea da. <sup>20</sup>"-la

Edo Zeusena, gainerako jainko eta gizonak lo zeudelarik eta bera bakarrik iratzaririk <sup>21</sup> asmatu zituenak bat-batean nola ahaztu zituen (c) haragi-grinen eraginez, eta Hera ikustean <sup>22</sup> haren gelara joan nahi ez izateraino, lurrean bertan harekin

etzateko baino hain bere senetik aterata, eta ez zela hain grinaturik izan ezta "guraso maiteen atzetik-ara<sup>23</sup>" lehen aldiz elkar batu zirenean ere esaten ziola? Edota hauen antzeko beste arazo batzuegatik Hephaistosek Ares eta Aphroditeren atxilotzearena<sup>24</sup>?

-Ez, Zeusarren, esan zuen, ez dut uste egoki denik.

-Baina, (d) alderantziz, esan nuen, edozein arazoren aurrean gizon iaioek hitzez eta egitez agertzen duten sendotasuna, ausaz, aurkeztzen badute, ikustekoa eta entzutekoa izango da, baita honako hau ere:

"Eta bular-joka haserre egiten zion bere bihotzari esanez: Eutsi, bada, bihotz; inoiz jasan izan duzu txakurkeria handiagorik<sup>25</sup>"

-Osotero, bada, esan zuen.

-Ez zaie utzi behar gizonei salkor eta diruzale izan daitezen ere.

-(e) Ezelan ere ez.

-Abestu ere ez zaie egin behar:

"Jainko eta errege agurgarriak ere, opariek makurtzen dituzte.<sup>26</sup>"

Ezta ez da goratu behar ere Akhilleusen hezitzailea Phoinix, on baitzeritzan opariak harturikoan Akhaiarren laguntzan joateari, baina hartu ezik ez zezala haserrea bazter onua eman zionean<sup>27</sup>; ezta ez dugu onartuko ere ez esango Akhileus bera Agamemnonen opariak hartzeko beste<sup>28</sup>, edota ordainaren truke izan ezean gorpua itzuli nahi ez izateko beste hain diruzale denik<sup>29</sup>. 391.

-Ez dago zuzen, benetan, esan zuen, honakorik goratzea.

-Eta benetan, esan nuen, Homeros beragatik ez naiz esatera ausartzen gauza guzti hauek Akhilleusi buruz kontatzea zilegi ez denik, edo beste inork esaten dituenak sinestea edota gainera Apolloni buruz esatea:

"Kaltetu ninduzun, zaurizale, jainkorik kaltegarrien horrek, zigortuko zintuzket, benetan, horretarako indarrik banu.<sup>30</sup>"

(b) Eta nola jainko zen ibaiaren aurka ezesaneko agertu zen, eta baita nola gertu zegoen haren aurka borrokan egiteko<sup>31</sup> ere, eta gainera, beste ibai Sperkheiosi eskainiriko bere adatsari buruz esan zuen "Nire adatsa opatuko nioke Patroklos heroeari", ordurako gorpu zenari "eramateko<sup>32</sup>"; ez da sinetsi behar honelakorik egin zuenik. Eta Patroklosen hilobi inguruan zehar Hektor narras eramaneke<sup>33</sup>, eta su-meta gainetan eginiko atxilotuen hilketarena<sup>34</sup>, eta ez dugu esango honako guztiak esatea egia esatea denik, ezta ez dugu onartuko ere (c) gureei sinestarazi diezaieten Akhilleus<sup>35</sup>, jainkosa baten eta Zeusen hirugarren belaunaldiko den zentzuzko Peleusen seme izanik eta Kheiron jakintsuenak hezirikoa izanik, honenbesteko artegatasun nahastez beterik zegoenik, beragan elkarren aurkako ziren bi gaixotasun hauek edukitzeko beste, diruzalekeriarenganako andurkeria eta gainera jainkoen eta gizonen ganako harropuzkeria.

-Zuzen diozu, esan zuen.

V. - Horrelakorik, bada, esan nuen, ez dezagun sinets, ezta ez dezagun utz esaten Theseus Poseidonen semea eta Zeusen Perithous (d) oldartu zirela hain beldurgarritzko bahiketak egitera<sup>36</sup>, ezta beste inongo jainko-seme zein heroe gaur egunean gezurrez beraiez esaten dituzten lako hoben eta dongekeriak egitera ausartu zirenik. Behar ditzagun, bada, poetak egite hauek haienak ez direla, edo jainko-seme ez direla aitortzera, eta gauza biak batera ez ditzatela esan, ez daitezela ere ibil gure gazteak limurtzen txarkeria jainkoek sortu balute bezala, eta heroeak ez direla ezertan hobe gizonak baino<sup>37</sup>; ezen gauza hauek, lehentxeago (e) esaten genuen bezala, donge eta gezur dira; ezelan ere jainkoengandik ezer txarrik sortzea ezinezko zela onartu genuen eta.

-Nola ez, bada?

-Eta, gainera, entzuten dituztenentzat benetan kaltegarri dira. Gaiztoa izanik ere, bere buruarekin edonor barkabera izango baita, sinetsirik, gauza berberak egiten dituztela eta egin ere egin zituztela:

"Idaios mendi-gailur gorenean aiterri-Zeusen  
aldarea daukate Zeusen hurreko  
jainkoen ondorengoek"

Eta,

"Zeintzuei ondino jainko-odola ez zaien agortu<sup>38</sup>"

Horregatik mitook baztertu behar dira, gure gazteei gaiztakerienganako 392. jaidura handia sor ez diezaien.

-Oso ondo, bada, esan zuen.

-Zer beste gai-mota geratzen ote zaigu ondino aztertzeke, esan behar direnak edo ez direnak bereizteko? Jainkoei zein iratxoei zein heroei zein Haidesekoei buruz nola hitzegin behar den esanik dago eta.

-Halaxe da, bada.

-Beraz, gizonen buruzkoa dateke geratzen dena?

-Argi dago.

-Hori, bada, ene adiskide, une honetan eratzea ezinezko gertatzen zaigu.

-Zergatik?

-Nire ustez, gizonen buruz poetek eta kontugileek guztiz oker diotela (b) esan behar dugulako, anitz bidegabe izan arren zoriotsu direla eta zuzenak zoritxarreko, eta onuragarriago dela, ezkutuan geratzen bada, bidegabekeria egitea, eta zuzentasuna inoren ona eta norberetzat hondamendia dela diotenean. Alde batetik, honakoak esatea debekatuko da, eta bestetik, osterantzekoak abestea eta kontatzea aginduko da. Ala ez al deritzazu?

-Ondotxo ere badakit, esan zuen.

-Beraz, zuzen hitzegin dudala onartzen baduzu, aspalditik bila gabiltzanak ere onartu dituzula ez ote dizut esango?

-Zuzen, esan zuen, asmatu duzu.

-(c) Orduan bat etorriko ote gara, bada, honelakoak esan behar direla gizonen buruz, zuzentasuna zer den eta daukanarentzat onuragarri den aurki dezakegunean, halakoa denik uste arren edo ez arren?

-Bene-benetan, esan zuen.

VI. - Azkena izan bedi, bada, gaien buruz. Eta honen ondoren, nire ustez, aztertu behar dena zein eratara esan da, eta guztiz argi agertuko zaizkigu esan behar direnak eta nola esan behar diren.

-Eta Adeimantosek: Diozun hori, esan zuen, ez dut ulertzen.

-Baina benetan, (d) esan nuen, beharrezkoa da; honegaz, beharbada, hobeto sartuko zaizu: Mitogile eta poetek esaten dituzten guztiak, ez ote dira suertatzen, bada, izaniko, diren eta datozen gauzen azalpen antzeko bat?

-Zer besterik, bada, esan zuen?

-Eta hori ez ote dute egiten, ausaz, zuzeneko kontakizun hutsez, edo antziduriko gertatzen denekoaz, edo bietakoaz?

-Hori ere, esan zuen, ondino argiago ulertu beharrean nauzu.

-Hara nolako irakasle barregarri eta ilun-itxura dudan! Hitzegiteko gai ez direnen antzera, gauzak osotasunean (e) azaldu beharrean, alde bat bakarrik harturik, ahaleginduko naiz, bere bidez, nahi dudana argi ikus dezazun. Baina esadazu: jakingo dituzu, agian, Iliasek lehen bertsoak zeintzuetan poetak dioten Khrysesek Agamemnoni eskatu ziola bere alaba askatzeko eta nola haserretu zen, eta, hark berea lortu ez zuenean, 393. nola jainkoari erregutu zion akhaiarren mendekua har zezan?

-Nik bai.

-Orduan badakizu bertso hauek arteino...

"Eta akhaiar guztiei erregutu zien

batez ere, herri-zuzendari, Atreiosen bi semeek<sup>39</sup>"

... poeta bera dela hitzegiten duena eta ez dabilela gure ustea nahasi nahirik, besteren batek hitzegiten duelakoan, berak baino. Eta ondoren (b) bera Khryses balitz bezala ahalegintzen da, guk bete-betean uste izan dezagun ez dela Homeros hitzegiten duena, agure zen bereterra baino. Eta gutxi gorabehera berdintsu egiten du beste kontakizun guztietan Ilioneo zein Ithakako zein Odysseia osoko gertakizunei buruz.

-Guztiz horrelaxe da, esan zuen.

-Orduan ez ote dira, bada, kontakizun bakoitzean dioen esaldien adinako, tarteka jarritakoak?

-Nola ez, bada?

-Baina beste norbait balitz bezala (c) esaldi bat dioenean, ez ote dugu, ausaz, esango orduan ahalik eta gehien, aurretik hitzegingo duela iragarri zigunaren hizkerarik antzekoena egiten duela?

-Esango dugu, eta zer, bada?

-Orduan, bada, ahotsez edo itxuraz inor inorekin berdintzen denean, ez ote du berdindu denaren antza hartzen?

-Zer besterik, bada?

-Honelakoan, dirudienez, poeta honek eta besteek ere, kontakizunak antz-bidez egiten dituzte.

-Guztiz, bada.

-Eta, poetak, benetan, inoren iduripean bere burua gordeko ez balu, bere poesia edo kontakizun guztia antz-bide barik sortuko litzateke; (d) eta hau ere ulertzen ez duzula esan ez diezadazun, hau nola gerta litekeen neronek esango dizut. Homerosen esan balu Khryses alabaren ordaina eramanez heldu zela Akhaiarreiei eta, batez ere, erregei erreguka<sup>40</sup> eta gero Khryses lakoxea bihurtu barik mintzatuko balitz, Homeros bezala baizik, jakingo zenuke horretan ez dagoela antz-biderik, kontakizun hutsa baino. Gutxi gorabehera honelaxe izango litzateke, poeta ez naizenez ez dizut bertsotan egingo: "Bereterra heldurik, jainkoei erregutu zien alde batetik (e) haiek Troia harturik, onik atera zezatela, eta bestetik, ordaina harturik eta jainkoaren itzal izanik bere alaba askatu zezatela. Eta honakoak esan zituenean, gehienek bere begirunea erakutsi zioten eta baiezkota eman ere, baina Agamemnon ozpindu zen bertantxe alde egiteko eta berriro ez etortzeko agindurik, jainko-makila eta xingolak nahiko izan ez zekizkion, eta bere alaba askatu baino lehen, Argosen, esan zuen, zahartuko zela berarekin, eta alde egiteko eskatu zion eta ez zirikatzeke ere, onez etxera 394. heltzekotan. Eta agurea beldurtu zen entzutean eta alde egin zuen ixilik, baina gudaltegitik urrunduz zenean errege ugari egin zizkion Apolloni, jainkoaren izengoiti guztiez dei eginik eta gogarazirik eta eskatuz, inoiz bera atsegingarri izan bazitzaion eliza-eraikitzetan edo opari-gai sakratuen eskaintzetan, guzti horren ordean, bere geziz Akhaiarretan mendeka zitzala bere negarrak.<sup>41</sup>" Honelaxe, esan nuen, ene lagun hori, antz-bide barik (b) sortzen da kontakizun hutsa.

-Ulertzen dut, esan zuen.

VII. - Jakin ezazu, bada, esan nuen, kontakizun honen osterantzekorik ere, inork esaldien artetik poetarenak kenduz aldizko esaldiak uzten dituenean, agertzen dela.

-Hori ere ulertzen dut, esan zuen; horrelakoak tragedien inguruan gertatzen baitira.

-Guztiz zuzen, esan nuen, asmatu duzu, eta uste dut, honezkero, argi duzula baita ere, lehentxeago argi erakusteko gai ez nintzena, oso-osoan antz-bidez (c) egiten den poesia edo kontakizun mota bat dagoela, tragedia eta komedia hain zuzen, zuk diozunez, eta beste bat -gehienbat, beharbada, ditiranboetan aurki dezakezu- poeta beraren azalpenen bidez egiten dena, eta hirugarren bat epopeietan eta beste poesia askotan era bi hauen bidez egiten dena, ulertzen badidazu.

-Orain ulertu dut, esan zuen, lehen esan nahi zenuena.

-Baina gogora ezazu hori baino lehen esaten genuena, jarririk dagoela honezkero zer esan behar den, baina nola esan behar den ondino aztertzeke dugula.

-Gogoratzen naiz, bada.

-Hauxe zen, bada, hain zuzen, nioena (d) beharrezko zela akordu batera heltzea ea kontakizunak antz-bidez egin diezazkiguten utziko diegun poetei, edo batzuetan antz-bidez eta besteetan ez, eta zeintzuk era bakoitzetik, edo ezelan ere ez dezatela antzez.

-Susmoa daukat, esan zuen, hirian tragediarik edo komediarik onartuko dugun ala ez aztertzeraz zoazela.

-Agian bai, esan nuen, edo beharbada hauek baino gauza garrantzitsuagoak; nik neuk ere, bada, ez dakit ondino, haizeak bezala, autuak eramaten gaituen lekura joan behar dugula baino.

-Benetan ondo diozu, esan zuen.

-(e) Hau ere, bada, ene Adeimantos, kontutan eduki ezazu, ausaz, gure zaintzaileek antzezle izan behar duten ala ez; hau ere ez ote da egokitzen lehenago esaten genituenekin, bakoitza eginkizun bakar batean ari izan daitekeela ondo, eta ez askotan ari denean, baina askotan aritzen saia baledi, aintzagabekoa izateraino huts egingo duela denetan?

-Eta nola ez da egokituko, bada?

-Ez ote da, beraz, antzezteari buruz ere arrazoi bera, gauza bakar bat baino antzezteko gai ez denez, ezingo duela bakar batek gauza asko antzeztu?

-Ezelan ere ez.

-Nekez, bada, 395. aritu ahal izango da aldi berean arrazoizko eginkizun baliotsuetan, eta nekez gauza asko antzeztuko ditu eta antzezle izango, komedia eta tragedia lako hain hurreko diruditen antzezte biak era berean ondo antzezteko gai ez diren gizaki berberak. Ala lehentxeago ez al zenien bie antzerki deitzen?

-Nik neuk bai, eta benetan egia diozu, gizaki berberak ezin duelako horrelakorik egin.

-Bertso-kontariak (rapsodoek) ere ezin daitezke era berean antzezle izan.

-Egia da.

-Baina, komedietan eta tragedietan antzezleak (b) ez dira berak, guzti hauek antzerki diren arren. Ala ez?

-Antzerkiak, bai.

-Eta gehiago oraindik, ene Adeimantos, uste dut hauetan baino zati txikiagoetan zatitzen dela gizonaren izaera, eta ez dela gai gauza asko ondo antzezteko, ezta antzerkiek itxura berdintzen dituzten haiexek gauzak berak egiteko ere.

-Egiarik handiena da, esan zuen.

VIII. - Beraz, lehenengo arrazoiari eusten badiogu, gure zaintzaileek, beste ogibide guztiak alde batera utzirik, hiriko askatasunaren langile (c) egin-eginekoak izan behar dute, eta ez diote ezeri ekin behar dagokienari baino, eta ez dute besterik egin ez antzeztu behar. Eta antzeztekotan, ume-umetatik hasirik, eurei dagozkienak antzez ditzatela, gauza adoretuak, zentzuzkoak, sakratuak, askatasunari buruzkoak, eta hauen

antzeko guztiak; eta gauza doilorrik ez beste lotsagarritzorik egiterik ez antzezterik ez dakiela zilegi izan, antzeztea bide dela izatea ere atsegin izan ez dakien. Ala ez ote zara ohartu (d) antezteak, gaztetatik luzaroan iraunez gero, ekanduan eta izaeran ere sartzen direla, eta baita gorputz, ahots eta adimen barruan ere?

-Eta nola gainera! esan zuen.

-Ez diegu utziko, beraz, esan nuen, haietaz arduratzen garela diogun haiei eta gizon on izatera heldu behar dutenei, gizonezko izanik, andrezko gazte zein atsoturik antzezen, edo senarrari laido egiten dionik, edo harroturik jainkoen aurka haserretzen denik, zoriontsu dela usterik, edota zoritxarretan eta atsekabeetan ere (e) eta negar-zotinetan dagoenik antzezen. Eta



askoz gehiago debekatuko diegu gaixo zein maitemindu zein erditzeaz dagoenik antzeztea.

-Zeharo, bada, esan zuen.

-Ezta mirabe zein morroirik, eurei dagozkien zereginetan ari direnean.

-Hori ere ez.

-Ezta, uste denez, gizon maltzur edo beldurtiak lehentxeago esaten genituen osterantzekoak egiten dituztenak: Esan gaiztokoak, elkarri irainka dabilzanak, eta lizunkeria esanzaleak, mozkortuak edo 396. mozkortu bakoak, eta hauen lako beste guztiak, hitzez eta egitez bere buruen zein besteen aurka huts egiten dutenak; eta nire ustez, ez dira ohitu behar zoroen antzeko izaten, ez esanetan ez egiteetan. Gizon-emakume zoro eta gaiztoak ezagutzea beharrezko izan arren, ez dute haiena den ezer egin ez antzeztu behar.

-Guztiz egia, esan zuen.

-Eta zer? Esan nuen, arotz edo beste artisaren bat, edo untziko arraunlariak, edo hauekin lehiatzen direnak, edo hauei buruzko beste zerbait (b) antzeztu beharko ote da?

-Eta nola, esan zuen, egingo dute bada, honakoei begiratzen ere uzten ez bazaie?

-Eta zer? Zaldiak irrintzaka, zezenak urrumaka, errekek mar-marka eta itsasoa orroaka, edota hodei-hotsak eta gainerako antzeko guztiak antzeztuko ote dituzte?

-Debekatu zaie bada, esan zuen, zoratzea eta baita zoroenak egitea ere.

-Esaten dituzunak, bada, ulertzen badituzte, benetan guztiz on denak (c) zerbait esan behar duenean erabiliko duen esate eta kontakizun-mota bat dago, eta honen osterantzeko mota desberdin bat, izaeraz eta egitez haren osterantzeko denak beti erabiltzen duena.

-Zeintzuk dira, bada, esan zuen, mota hauek?

-Nik uste dut, esan nuen, neurriko gizon bat bere kontakizunean gizon on batek hitzegiten edo zerbait egiten duen pasarte batera heltzen denean, huraxe balitz bezala esatea gurako duela, eta antz-bide horretan ez dela lotsatuko, antzeztua benetan ona bada eta ziur eta zentzuz (d) badagi; baina askoz gutxiago nahiko du gaixoez edo maiteminez azpiratua edo mozkorreaz edo beste honako arazoren batekin dagoena antzeztu; eta berarekiko duina ez den bat sor badakio, benetan ez du nahiko bera baino gutxiago dena antzeztu, edo gain-gainetik egingo du, gauza onen bat egitera badoa, baina lotsatu egingo da, alde batetik honakorik antzezten ohituta ez dagoelako eta bestetik, higuigarri duelako antzeztea eta gogoz nardatzen dituen gizon txarragoen ereduetara bera egokitu beharra, ume-jolasaren arauetaz denean izan ezik.

-Bidezko da, esan zuen.

IX. - Ez ote da baliatuko, bada, oraintsu Homerosen poemei buruz aritzen ginen lako kontakizunez, eta bere esaera ez ote da izango era bietakoez nahasturikoa, antz-bidez-

koa eta beste kontaerazkoa; eta antz-bidezkoa ez ote da esaldi luze baten zati txiki bat? Ala oker ote nago?

-Bai zera, esan zuen, beharrezkoa da horrelako kontu-kontalari batek horrelako eredu erabiltzea.

-Horrelakoa ez dena, esan nuen, 397. zenbat eta gauzezago izan, ez ote da hainbat eta gertuago edozer gauza kontatzeko eta edozer antzeztera gogoz ahalegintzeko heinean beretzat ez dagoela ezer ezduin, eta askoren aurrean ere lehentxeago esaten genituenak, hodei-hotsak, haize-txistuak, txingor-hotsak, ardatz eta txirrintol-txirrinak, turuten, txistu eta txirulen eta ereskin guztien soinuak, eta baita txakur, ardi eta hegaztien zaratak ere antzezteko; eta bere esaldi guztia (b) ez ote dago antz-bidezko soinu eta keinuz beterik, kontakizunezkoa zati txiki bat delarik?

-Beharrezko da bada, esan zuen, hori ere.

-Hauexek dira, bada, esan nuen, aipatzen nituen esaera-eredu biak.

-Halaxe da bada, esan zuen.

-Ez ote da egia hauetariko bata aldaketa txikiak dituela eta esaerari harmonia eta erritmo egokia emanikoan, ondo esan gura duenak, eredu honetatik asko aldendu barik, harmonia bakar honetan -aldaketak txikiak baitira,- eta haren antzeko ia erritmo (c) berean egitea gertatzen zaiola?

-Bene-benetan, bada, esan zuen, horrelaxe da.

-Eta beste ereduari buruz zer? Ez ote ditu behar osterantzeko harmonia eta erritmo guztiak, egokitasunez esaterik nahi bada, era guztietako aldaketak dituelako?

-Benetan, zalantzarik gabe, horrelaxe da.

-Ez ote dira, bada, poetak eta kontalariak honelako esaera-eredu batean edo bestean edo bietatik nahasturikoan suertatzen?

-Beharrezko da, esan zuen.

-(d) Zer egingo dugu, bada? esan nuen. Ausaz, eredu guzti hauek onartuko ditugu hirian, nahasigabeetako bata, ala nahasirikoa onartuko dugu?

-Nireak aurrera egin baleza, esan zuen, onaren antz-

-bide soila.

-Baina, ene Adeimantos, nahasturiko hori ere atsegingarri da, eta umeentzat eta hezitzaileentzat askozaz atsegingarriena da zuk aukera duzunaren osterantzekoa, baita jenderik gehienarentzat ere.

-Atsegingarriena, bada.

-Baina, esan nuen, horrelakoa egokitu ezina dela esango baldin baduzu gure hiri-eraketan, (e) gure artean gauza bitan edo askotan ari den gizonik ez dagoelako, bakoitza gauza bakar batean ari da eta.

-Ezin da egokitu, ez.

-Ez ote da, bada, horregatik hiri honetan bakarrik aurki genezakeela oinetakogilea oinetakogile, eta ez lemazain eta gainera oinetakogintzan, eta nekazaria nekazari, eta ez epaile eta gainera nekazaritzan, eta gudaria gudari, eta ez merkatari eta gainera gudaritzan, eta guztiak honelaxe?

-Egia da, esan zuen.

-Dirudienez, bada, jakintzaz edotariko ahalmenez 398. eta edozer antzezteko gai den gizon bat hirira hel balekigu, bera eta bere poemak aurkeztu nahirik, ahozpeztarririk, zerutar bat edo gizon harrigarri eta atsegingarri bat bailitzan, gur genezake; bestalde, hirian gure artean bera bezalako gizonik ez dagoela eta egotea ere ez dela zilegi esan geniezaioke; eta burutik behera mirra isuriaz eta artilez koroaturik, beste hiri baterantz itzularaz genezake; gu geu, gure onerako, gudariak hezteari ekin genionean legetzat jarri genituen hasierako eredu haien baitan, gizon jatorraren esaeraz hitzegin eta antzez ziezagukeen poeta (b) eta mito-kontalari latzago eta gogaikarriago batez balia gintezke.

-Bai horixe, esan zuen, gudan balego horrelaxe egingo genukeela.

-Orain, bada, esan nuen nik, ene lagun hori, badirudi guztiz zehatz amaitu ditugula musika-alorreko hitz eta mitoei buruzko arazoak, esan behar direnei eta nola esan behar direnei buruz hitzegin delako.

-Niri ere horrelaxe iduritzen zait, esan zuen.

X. - Ez ote zaigu (c) honen ondoren, esan nuen, eresi eta doinuaren izaerari buruzkoa geratzen?

-Argi dago.

-Ez ote du bada hauei buruz, esanikoekin egoki daitezen nahi badugu, nolakoak izan behar duten esateko dauzkagunak edonork igerriko?

Eta Glaukonek, barrezka, esan zuen: -Ni, bada, ene Sokrates, hauen guztion artean aurkituko ote naizen arriskuan nago, une honetan, susmatu arren, esan behar duguna igertzeko gai ez naizelako.

-Edozelan ere, zalantza barik, esan nuen, lehenengo hau esateko (d) bazara gai, doinua hiru gauzez, hitzez, harmoniaz eta erritmoaz osatzen dela.

-Hori bai, esan zuen.

-Ez ote da bada egia edozein doinu-hitz ez dela, zalantza barik, ezertan bereizten abesten ez den hitzetik, eta oraintsu iragartzen genuen lako eredu berdin horretan esan behar direla?

-Egia da, esan zuen.

-Beharrezko da baita ere, harmoniak eta erritmoak hitzari darraizkion.

-Eta nola ez?

-Baina bestalde esaten genuen negarrik ez antsirik hitzetan ez zirela ezertan behar.

-Ez, bada.

-Zeintzuk dira, bada, (e) negar-harmoniak? Esazkidazu musikari zarenez gero.

-Lydiar nahastua, esan zuen, lydiar euskorra eta antzeko batzuk.

-Ez ote ditugu, bada, honakoak kendu behar? On izan behar duten andrezkoentzat ere ezertarako ez badira, gizonezkoentzat ere ez.

-Halaxe da, benetan.

-Baina bestalde, zaintzaileentzat ez dago ezer lotsagarriagorik mozorkeria, bigunkeria eta nagikeria baino.

-Nola ez, bada?

-Harmonietatik, bada, zeintzuk dira leunak eta gomit-

-egunetarako egokiak?

-Joniar erakoak, esan zuen, eta lydiar erako batzuk ere lasaiak deituak dira.

-399. Honakorik jarriko ote da, bada, ene lagun hori, guda-gizonen aurrean?

-Ezelan ere ez, esan zuen, baina badirudi aipatu barik utzi dituzula doriar eta phrygiar erakoak.

-Harmoniak, esan nuen nik, ez ditut ezagutzen, baina utz ezazu, guduketan adoretsu ekiten dionaren zarata eta ahotsak antzez litzazkeen harmonia, edo edozein ekintza neketsutan nabarmentzen delarik, eta baita galtzaile irtenik ere, edo zauritu izatera edo hiltzera doalarik, edo honelako beste ezbehar batean (b) eroririk, egoera guzti hauetan egoki eta irmo bere zoriari aurre egiten dionarenak. Eta alderantzizko beste harmonia hori ere utz ezazu, bakealdiko eta nekebako edo gogozko ekintzan dagoelarik antzez lituzkeena, zerbaitetan inor limurtzen edo erregutzen ari delarik, jainkoa bada erreguz eta gizonezkoa baldin bada irakaspenez eta onuz, edo alderantzizkoa, beste batek erregutua edo irakatsia edo limurtua delarik, eta ekintza guzti hauetatik nahi duena lorturik, harropuztu barik, zentzudun eta neurriko agertzen delarik gauza guzti hauetan, eta etorkizuna ere (c) abegi onez onartzen duelarik. Gizaki atsekabetuen edo zorientzuen, zentzudunen edo adoretzuen ahotsak ondoen antzez lituzketen nekezko eta gogozko harmonia bi hauexek utz itzazu.

-Baina, esan zuen, ez duzu oraintxe nik esaten nituenak baino besterik uztea eskatzen.

-Beraz, esan nuen, eresietan eta doinuetan ez dugu hari askoko zein harmonia guztizko ereskinik beharko.

-Ez dut uste, esan zuen.

-Beraz, ez triangelugilerik ez harpagilerik, ezta hari edo harmonia askodun beste (d) edozein ereskingilerik ere ez dugu mantenduko.

-Ez dugu uste.

-Eta zer? Onartuko ote da hirian txirulagilerik edo txirularirik? Ez ote da, bada, txirula doinurik gehien daukana, eta harmonia guztizko ereskinak ez ote dira txirularen antzeko suertatzen?

-Argi dago, esan zuen.

-Hirian baliagarri, esan nuen, lira eta zitara baino ez zaizkizu geratzen eta baserrietan, berriz, artzainek syringoren<sup>42</sup> bat izan dezatela.

-Arrazoiak, gutxienez, esan zuen, hori erakusten digu.

-Eta ez dugu, benetan, (e) ezer berririk egingo, ene lagun hori, Apollon eta bere ereskinak Marsyas eta bere ereskinak baino nahiago baditugu.

-Zeusarren, esan zuen, ez deritzat.

-Txakurragatik! esan nuen, konturatu barik, lehen nasaia deitzen genion hiria berriro garbitzen gabiltza.

-Zentzuzko garelako, esan zuen.

XI. - Ea, bada, geratzen dena ere garbi dezagun. Harmonien ondotik datorkigun arazoa erritmoei buruzkoa dateke, ez euretariko bihurri eta era guztietako oindunen atzetik joatearren, taiuzko eta adorezko bizitza baterako erritmoak zeintzuk diren jakiteko baino; jakinikoan 400. oina eta doinua ere honakoaren hitzari jarraitzera behartzearren, eta ez hitza oinari eta doinuari. Erritmo horiek zeintzuk izan litezkeen erakustea zure zeregina da, harmoniei buruz izan zen bezala.

-Baina, Zeusarren, esan zuen, ez daukat esaterik, zeren ikusia dudanez, harmonia guztien sorburu diren tonuetan lau era dauden bezala, erritmo-oinen tolesduretan hiru daudela esan dezaket; baina ez daukat esaterik bakoitza zer bizitza-motako antzezpen den.

-Baina, (b) gauza guzti hauek, esan nuen, Damonen laguntzaz erabakiko ditugu, zeintzuk diren txikikeria eta neurrigabekeria, edo zorakeria eta beste keriak antzezten dituzten oinak, eta zeintzuk diren osterantzekoentzat utzi behar diren erritmoak. Uste dut hitzegiten entzun niola, ez guztiz argi, berak enoplios deitzen zion konposatu bati buruz, eta bereziki daktilo eta heroios bati buruz, ez dakit nola tolesten zuen goitik eta behetik berdinduz, labur zein luze eginaz, eta, uste dudanez, iambos deitzen zion bati, eta beste bati trokeo, luzera eta laburrera (c) eransten zien. Eta uste dut ez zituela hark gutxiago gaitzesten edo gora-

tzen haietariko batzuen oin-abialdiak erritmoak eurak baino; edo beharbada bitzuo buruzko zerbait, baina ez daukat esaterik. Gauza guzti hauek bada, nioenez, Damonek azter ditzala, guk eztabaidatzea ihardun luzea litzateke eta. Ala baietz uste al duzu?

-Zeusarren, nik neuk ez.

-Baina esan ote zenezake, hori, egokitasunari edo desegokitasunari buruzko hori, erritmo onari edo txarrari darraionik ?

-Eta nola ez?

-Baina, alde batetik, erritmo ona, benetan (d) antzeko bihurturik, esaera ederrari darraio, eta bestetik, erritmo txarra osterantzekoari, eta harmonia ona eta txarra ere berdintsu, lehen esaten genuen bezala, baldin erritmoa eta harmonia hitzari badarraizkio, eta ez hitzak haiei.

-Horrelaxe da, esan zuen, horiek hitzari jarraitu behar diote.

-Eta esaerak, esan nuen, eta hitzak, zer? Ez ote darraizkio arimaren izaerari?

-Nola ez, bada?

-Eta beste gauza guztiak, esaerari?

-Bai.

-Beraz, esaera eta taiuketa ona, eta egokitasuna eta erritmo ona ere, (e) soiltasunari darraizkio, baina [soiltasun] eufemismoz ez diogu ergelkeriari deitzen, benetan izaera on eta ederrez jantzitako burubideari baino.

-Guztiz da horrelaxe, esan zuen.

-Eta gazteek, eurei dagokiena egin nahi badute, ez ote diote honelakoari jarraitu behar alde guztietatik?

-Jarraitu behar diote, bai.

-Edozelan ere, horrelakoez beterik dira margolaritza 401. eta bere antzeko ogibide guztiak, beterik baita ere, ehungintza, brodagintza, etxegintza eta, zalantza barik, beste edozein tresnagintza, eta, baita ere, soinen izaera eta beste landareena, guzti horietan egokitasun zein desegokitasunik izan litekeelako. Eta alde batetik desegokitasuna, erritmo txarra eta harmonia txarra, gaitz esatearen eta izaera gaiztoaren neba-

-arrebak dira, eta osterantzekoak osterantzekoarena, hau da, zentzuzkoaren eta izaera onaren neba-arreba eta itxura berdineko.

-(b) Guztiz, bada, esan zuen.

XII. - Ez ote ditugu, bada, poetak jagon ez ezik, behartu ere egin behar euren poemetan ekandu oneko iduriak sar ditzaten, edo bestela ez ditzatela egin gure artean, eta gainerako artisauak ere ez ote ditugu jagon behar, eta ez ote diegu galerazi behar sartzea honako ekandu txarrik eta neurrigabekeriarik eta doilorkeriarik eta gauza itsusirik, egiten dituzten bizi-idurietan, zein etxe-eraikuntzetan, zein bere ogibideko beste edozelango eginkizunetan, edota horretarako gai ez denari ez ote zaio debekatu behar gure artean ezertxo ere egitea, gure zaintzaileak haz ez daitezen txarkeriaren iduri artean, belar txar artean bezala (c) egunero, apur-apurka, leku askotatik hartu eta janez ohartu barik euren ariman txarkeria handi bat batu ez dezaten? Eta alderantziz, ez ote dira bilatu behar berezkotasunez ederraren eta egokitasunaren izaera-urratsei jarraitzeko gai diren artisau haiek, gazteak leku osasuntsu batean bizi balira bezala gauza guztiez balia daitezen, eta euren begi-belarrietara, eginkizun ederren bitartez, zorioneko leku batetik bezala, arnasa batek eramaniko osasuna hel dakien, eta ume-umetatik, (d) ohartu barik, gauza berdinetarantz eta baita ere zentzu ederraren maitasunerantz eta batasunerantz eraman ditzan?

-Guztiz, benetan, esan zuen, gauzarik ederrena litzatekeela horrelaxe haztea.

-Ez ote da, bada, esan nuen, ene Glaukon, gauza hauengatik musika-hazkuntzaren nagusitasuna, arima barreneraino gehien sartu eta berari sendoen datxezkionak erritmoa eta harmonia direlako, ondo hazia dagokeenari egokitasuna eman eta egokia eginez, eta

ez dagoenari, alderantziz? Eta ez ote da baita ere, han behar den bezala hazia dena, zalantza barik, bazterturiko gauzez eta txarto egindakoez eta izaera txarrekoetz argien ohar litekeelako, eta, arrazoiz gogabeturik, alde batetik gauza onak goretsiz eta onetsiz eta bere ariman onartuz, berauekin janaritu eta on-eder bihur daitekeelako, 402. eta bestetik oraindik gazte, zentzura iritsi baino lehen, gauza lotsagarriak gaitzetsi eta gorrota litzakeelako, eta batez ere honela hazia izan denak zentzura iritsirik, honi, lehendikako ezaupidez abegi ona egin liezaiokeelako?

-Niri gutxienez iduritzen zait esan zuen, gauza guzti hauen arabera hazkuntza musikan datzala.

-Lehen, esan nuen, letrei buruz, bere osagai den-denak, gutxi batzuk izan arren eta agertzen diren era guztietan, txikirik ez handirik, (b) ikasteko gauza ez bailitzan, baztertu gabe ezagutu ezean nahiko trebe izaten ez ginenez, aitzitik, alde guztietan ezagutzen ahalegin biziz saiatzen ginela baino, horrelaxe egin baino lehen letradun izatera helduko ez ginelakoan...

-Egia da.

-Ausaz, letren irudiak ezagutu ahal izango ote ditugu, uretan zein ispiluetan agertu, aurrez letrak berak ezagutzen ez baditugu, trebetasun eta ariketa berdineko izanik?

-Guztiz horrelaxe da, bada.

-Orduan, bada, Jainkoengatik, ez ote da berdin esaten dudan hau, musikari izatera ez garela helduko, ez gu, ez hezi behar ditugula esaten ditugun (c) zaintzaileak, lehenago neurritasunaren, adorearen, esku-zabaltasunaren eta gogo-handitasunaren eta hauen senide diren guztien eta alderantzizkoen izaerak, nonnahi agertu, ezagutzen ez ditugun bitartean, eta eurak berak zein bere irudiak daudenengan somatzen ez baditugu, gauza gutxitzat izan barik, ez txikietan ez handietan, trebetasun eta ariketa berdinekoak direla uste izango dugula baino?

-Guztiz beharrezko da, esan zuen.



-Hori ez ote da beraz, esan nuen, (d) norbaiten arima baitan ekandu ederrak izatea gerta baledi eta bere izaeran ekandu haiekin, itxura bereko direlarik, pareka litezkeenak, ikusi ahal duenarentzat ikuskizunik ederrena?

-Bene-benetan.

-Eta gauzarik ederrena ez ote da maitagarriena?

-Eta nola ez?

-Benetan, bada, musikari denak gehien hauek bezalako gizonak maite izan litzake, eta (asymphonoo) eragaitza datekeena ez duke maite.

-Ezta ere, esan zuen, arimari buruzko zerbaitetan huts egin balezate; baina, aldiz, gorputzari buruzko zerbaitetan huts egin balezate jasan litzake begitarte egin nahi izateraino.

-Ulertzen dut, esan nuen, (e) horrelako maiteak dituzulako edo izan dituzulako, eta zurekin bat nator. Baina honi ere erantzun iezadazu: Ezer elkarren artekorik ba ote dute zentzutasunak eta gehiegizko maitekeriak?

-Nola baina, esan zuen, bere senetik ateratzen badu, eta ez oinazeak berak baino gutxiago?

-Baina gainerako bertutearekin?

-403. Ezelan ere ez.

-Eta zer? Neurrigabekeria eta nasaikeriarekin?

-Beste ezerekin baino gehiago.

-Esan ote dezakezu atsegin handiago eta biziagorik haragiari buruzkoa baino?

-Ez daukat ez, esan zuen, eta ez dago gauza zorarazleagorik.

-Eta benetako maitasuna, neurritik eta edertasunetik sortu dena, ez ote da zentzuz eta begirunez maitatzea?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ausaz, zorakeria eta bere senide den neurribakokeria benetako maitasunaren pareko jarri beharko ote dira?

-Ez dira pareko jarri behar.

-Ez ote da, bada, pareko jarri behar (b) esaniko atsegin hau, eta zerikusirik izan beharko ote du horrek benetako maitasunarekin maitale eta maitatuen artean?

-Ez horixe, bada, Zeusarren, esan zuen, ene Sokrates, ez da pareko jarri behar.

-Horrela, bada, dirudienez, eraikitzen ari garen hirian legetzat jarriko duzu, haur-maitaleak, maitea horretara etsirik balego, seme bat bezala maitatu, elkarrekin bizi eta ukitu ere behar duela, gauza ederren kausaz, eta arduratu daitekeen horri buruzko gainerako gauzetan aritu behar duela, inork, inolaz ere, hauek baino handiagoetara heldu dela (c) uste izan ez dezan, bestela trakets eta baldar-gaitzespena jasan beharko du.

-Horrelaxe, esan zuen.

-Ausaz, bada, esan nuen, ez ote duzu uste zuk ere musikari buruzko autu hau amaierara heldu zaigula? Gutxienez, amaitu behar zen lekuan amaitu da, eta beharrezko da, besteak beste, musikak edertasunaren maitasunerantzako bidean amaiera izatea.

-Bat nator, esan zuen.

XIII.-Musikan egin ondoren, bada, gimnastikan hezi behar dira gazteak.

-Nola, bada?

-Beharrezko da, bada, horretan ere, gaztetatik bizitzan zehar zeharo hezi izatea. Eta nola nire ustez, honelaxe; baina zuk ere azter ezazu. Nik ez dut uste gorputzak, bikaina izan arren ere, bere eraginez arima on bihurtzen duenik, alderantziz, arima onak bere bertutez gorputza ahalik eta onen egiten duela baino. Eta zuk zer deritzazu?

-Nik ere, esan zuen, horrelaxe.

-Orduan arima zaintzeari nahiko ardura jarri ondoren, arimari berari gorputzari buruzko zereginak zehatz aztertzeari utziko bagenio eta guk (e) autu honetan larregi ez

luzatzearren zereginok zein eratakoak izan behar duten aurreratuko bagenu, ez ote genuke zuzen jokatu?

-Guztiz, bada.

-Esaten genuen, bada, beharrezko zuela hordikeriatik urruntzea, ez dagoelako beharbada, ezer desegokiagorik non dagoen ere ez dakien zaintzaile mozkorra baino.

-Barregarria litzateke benetan, esan zuen, zaintzaileak zaintzaile baten beharra izatea.

-Eta zer, bada, janariei buruz? Gizonok borrokarik handienerako atleta izan behar dute, ala ez?

-Bai.

-Orduan, bada, atleta hauen bizimodua ez ote zaie egoki izango 404. gazteoi ere?

-Beharbada.

-Baina, esan nuen, bizimodu hori zerbait lo eragingarri da, eta osasunarentzat arriskugarri; ala ez ote duzu ikusi atletok bizitza guztian lo dirautela eta jarririko bizimodutik apur bat aldentzen direnean zeharo eta larri gaixotzen direla?

-Badakusat, bai.

-Ariketa-modu egokiago baten premian daude, esan nuen, gudu-atleta hauek, zeintzuek txakurren antzera erne izan behar duten eta ahal denik eta zorrotzen ikusi eta entzun, eta euren gudaldietan sarritan (b) ur, edozein janari, eguzki edo eguraldi txar askoren aldaketak izan arren osasunari buruz ez dute sentibera izan behar.

-Horrelaxe iduritzen zait.

-Ez ote da, bada, gimnastikarik onena lehentxeago aipatzen genuen musikaren senide litzatekeena?

-Nola diozu?

-Zalantza barik, gimnasia lau eta eroso bat, batez ere, guduketari buruz ari direnei dagokiena.

-Zelakoa, bada?

-Homerosengan ere, esan nuen, ezagut litezke honakoak. Badakizu gudaldietan daudenean heroei jateko arrainik ere ez diela ematen, hori (c) Helesponton, itsaso ondoan egon arren, ezta haragi egosirik, gudariak errazen eskura lezaken haragi errea baino, zehatz esateko, edonori errazago zaio edonon su egitea hara-horra lapikoekin ibiltzea baino.

-Askoz errazago.

-Eta, uste dudanez, Homerosen ez du inoiz gozokirik ere aipatzen. Hau ez ote da, bada, edozein atletak dakiena, gorputza ondo izan nahi duenak gauza guzti hauek alde batera utzi behar dituela?

-Benetan ondotoxo dakite, esan zuen, eta utzi ere egiten dituzte.

-Eta antza duzunez, ene lagun hori, (d) Syrakosiako jateko modua eta Sikeliako jaki ugariak ez dituzu ontzat hartuko, benetan, esanikoak ondo daudela iduritzen bazaizu behintzat.

-Ez dut uste.

-Gaitzetsiko duzu baita ere, gorputzaldi ona eduki behar duten gizonen korintiar neska-lagun bat izatea.

-Osotoro.

-Eta ustez atsegingarri diren Attikako gozokiak?

-Beharrezko.

-Uste dut zuzen jokatu genukeela janariok eta bizimodu hau ere, harmonia guztietan eta erritmo (e) guztietan eginiko melodia eta eresiarekin parekatuko bagenitu.

-Nola ez, bada?

-Ugaritasunak ez ote zuen sortzen, bada, han nasaikeria eta hemen gaixotasuna, eta musikaren lautasunak neurritasuna arimetan, eta gimnasiaren lautasunak osasuna gorputzetan?

-Egiarik handiena diozu, esan zuen.

-Hiri baten nasaikeria eta gaixotasunak 405. ugaritzen direnean ez ote dira auzitegi eta gaixotegi anitz zabaltzen, eta ez ote dira zuzenbidetza eta sendakuntza goi-mailan jartzen, gizon aske asko ere hauekin biziro arduratzen direlarik?

-Nola ez da izango, bada?

XIV. - Ausaz, hiri bateko hezkuntza oker eta lotsagarria azaltzeko eredu hoberik hartu ahal ote dezakezu sendagile eta epaile trebeen premian, ez gizaki arrunt eta eskulanez bizi direnak bakarrik, baita askatasunezko heziketan hezi direla eta harropuzten direnak ere izatea baino? Ala ez (b) duzu uste lotsagarri denik eta heziketa ezaren ezaupiderik nabarmenena, zuzenbidea besteengandik eskuratu beharra bakoitza horretarako gai ez delako, haiek norberaren jaun eta ebazle balira bezala bihurtzen direlarik?

-Benetan, bada, esan zuen, gauzarik lotsagarriena da.

-Ala ez al duzu uste, esan nuen, beste hau hori baino lotsagarriago denik, inork bizitzarik gehiena auzitegieta salatua izanik eta salatuz alferrik galtzen duenean ez ezik, baita horrezaz harropuztera ere bere nardakeriaz erakarria denean, zein gai den bidegabekeria egiteko (c) eta zein trebe jira-bira guztiak eta bide guztiak urraturik, zaputx edo ziri eginez, zigorra ez hartzeraino ihes egiteko, eta guzti hau gauza txiki eta ezertarako ez den batengatik, jakin barik zenbat ederrago eta hobe den beretzat bizitza patxadaz tolestea erdi lotan dagoen epaile baten premian izan baino?

-Ez, hura ez da, esan zuen, haxe baino lotsagarriago.

-Eta, esan nuen, zauriren batzuegatik edo aldiko gaixotasun batzuen erasoengatik ez bada, nagikeriagatik eta aipatzen genuen bezalako bizimoduagatik baino, sendakuntzaren beharra izatea, (d) zingira bat bezala jarioz eta haizez beterik, Asklepiar zuhurak gaixotasun hauei "haize-min" eta "jario" izenak jartzera behartzea, ez al duzu uste lotsagarri denik?

-Bai horixe, esan zuen; eta benetan gaixotasun horien izenok berri eta baragarri direla!

-Nire ustez, esan nuen, Asklepiosen garaian ez zegoen horrelako izenik, eta eritzi horretara heldu naiz, haren semeek Troian egon zirelarik (e) zauriturik zegoen Eurypylosi garagar-irinez eta gaztai birrinduz 406. nahasturiko Pramneiako ardoa, dirudienez edari isiogarri bat dena, edatera ematen zion andrezkoari haserre egin ez ziotelako, ezta zaintzen zegoen Patroklos berari ere ezer esan ez ziotelako.

-Benetan, esan zuen, egoera horretan dagoenarentzat edari baragarria.

-Ez, esan nuen, gaur egun gaixotasun-heziketa deitzen den sendakuntza-mota hau Asklepiadarren artean, diotenez, Herodikosen garaia baino lehen ez zela erabiltzen gogoratzen baduzu. Eta Herodikos bera gaixotu zenean, gimnasia-irakasle zelarik, gimnastika eta sendakuntza nahasturik hasi zen lehenengo (b) eta gehien bere burua larritzen, eta gero beste asko.

-Nola, bada, esan zuen.

-Bere buruari, esan nuen, heriotza luze bat emanik zeren, nire ustez, bere burua sendatzeko gai ez zenez, sendatu ezineko bere gaixotasunari ondo-ondotik jarraitu baitzion, eta bere bizitza guztian bere burua zaintzen baino beste zeregin barik bizi zen, ohizko bizimodutik aldenduko ote zen larriturik, eta bere jakituriari esker apur-apurka hiltzen zela, zahar egiteraino heldu zen.

-Bai, irabazi ederra, esan zuen, atera zuela bere trebetasunetik!

-Bidezko da, bada, esan nuen, (c) horrelakorik gertatzea ez dakienari Asklepiosek ez ziela bere ondorengoei utzi sendakuntza-mota hau, ez ezjakintasunagatik edota ikusibakoa zelako, ondo zuzenduriko edozein hiritan bakoitzari bete beharreko lanbide bat ezarri zegoela zekielako baino, eta bere burua zaintzen bizitza guztia gaixorik inor ezin zela egon zekielako baino. Eta barregarri da ogibidedunei buruz denean bakarrik gu horrezaz konturatzea, eta ez aberatsei eta itxuraz zoriontsu direnei buruz denean.

-Nola? esan zuen.

XV. - Zurgin batek, esan nuen, (d) gaixotzen denean, gaixotasuna errebeska jaurtikitzeko sendagileari sendagairen bat eskatzen dio edateko, edo gaixotasunetik, behetik garbituz, edo erredura batez, edo ebakuntza batez libra dezala. Eta inork buru inguruan artilezko txanoak eta hauen antzekoak jarritz sendabide luze bat agin badiezaio, berehala esan lekiok ez daukala gaixorik egoteko astirik, eta ez duela merezi era horretan bizitzerik, bere gogo guztia gaixotasunari begira jarri, eta berari jarritako betebeharra alde batera utzirik. Eta gero, sendagilea pikutara bidaliz, (e) ohizko bizimoduari jarraituz bere gaitzetik sendatzen bada, bere gauzak egiten biziko da, eta bere gorputza gaixotasuna jasateko gai ez bada, hilik, arazoetatik askatuko da.

-Benetan, esan zuen, badirudi horrelako gizon bati dagokiola horrelaxe sendakuntzaz baliatzea.

-Hori, esan nuen, ez ote da, agian, betebeharrak bat zeukalako, 407. eta bete ezean bizitzeak ez zeukalako beretzat baliorik?

-Argi dago, esan zuen.

-Baina aberatsak, diogunez, ez dauka aginduriko betebeharririk, eta beharturik ez dagoenari ez zaio bizitza eraman ezina egiten.

-Gutxienez, hala esaten da.

-Ez ote diozu, bada, esan nuen, Phokylidesi entzun nola dioen bizibidea daukanak bertutea lantzen ihardun behar duela?

-Benetan uste dut, esan zuen, bizibideak izan aurretik ere ihardun behar duela.

-Ezer ez diezaiogun tematu, esan nuen, aitzitik, geure buruari erakuts diezaiogun ea aberatsak lan horren ardura izan behar duen, eta ez badu (b) bizitza bizi ezinezko egiten zaion, edo zurgintzari eta beste ogibideei euren ardurei ekiteko eragozpen den gaixotasun-zaintze horrek ezertan eragozten duen Phokylidesen onua.

-Bai, Zeusarren, esan zuen, eragozten du, eta, beharbada, gimnasia baino urrunago doan gehiegizko gorputz-zaintze horrek, beste edozerk baino gehiago, ezen etxerako zein gudurako zein herri-arazoetarako ere, hirian oso-osoko eragozpen da.

-Eta handiena ondino, edozein ikasketa, gogoeta, zein barruko azterketatarako (c) arerio da, buruko minen eta zorabioen beldur izanik beti, usterik errua filosofiatik datorrela, dagoenik dagoen leku guztietan eragozpen da bertutean aritzeko eta trebe izateko, gorputzari buruzko ardurok sekula amaituko ez direlakoan, beti gaixorik eta larriturik dagoela ustearazten duelako.

-Berezkoa da hori benetan, esan zuen.

-Ez ote dugu esaterik Asklepiosek ere, gauza hauek zekizkielako, berezkoagatik eta euren bizimoduagatik gorputzak osasuntsu dituztenei, gaixotasun jakin bat bere baitan daukatenean, (d) hauexei bakarrik eta euren izaeragatik ematen diela sendakuntza, eta sendagaiak eta ebakuntzaz sendatzen dituela, eta ohizko bizimodua egiteko agintzen diela, hiri-arazoei kalterik izan ez dezaten, eta, alderantziz, barrutik guztiz gaixoturik dauden gorputzak sendatzen ez dela saiatzen, gutxi-gutxika garbigarri eta edangaiak emanez gizakumeari bizitza luze eta latza gauzatuz, eta bidezko denez, era honetakoak diren beste ondorengoak sortaraziz, aitzitik, ez ote du uste jarritako eginkizuna egiten bizi ezin dena, (e) ez dela sendatu behar, beretzat zein hiriarentzat mesedegarri ez delako?

-Politikari galanta zen, esan zuen, diozun Asklepios hori.

-Argi dago, esan nuen, horrelakoxea zela. Ez ote duzu ikusten haren semeak Troian ere zeinen bikain nabarmendu ziren gudurako, 408. eta sendakuntzan ere nik diodan bezala aritu zirela? Ala Menelaosi Pandarosek eginiko zauritik ez ote duzu gogoratzen:

"Odola hurrupatu zioten eta gainetik sendagai bigungarriak isuri zizkioten, <sup>43</sup>" eta ondoren ez ziotela edateko edo jateko ezer gehiago agindu Eurypylos berari baino, uste izanik, sendatzeko sendagaiak nahiko izango zirela, zauritu baino lehen gizon osasuntsuak eta taiuzko bizimodukoak (b) zirelako, une hartan edangai huraxe edaten suertatu baziren ere. Uste zuten berez gaixo eta neurribako zena bizirik irauteak ez ziela mesederik egiten ez euren buruei ez besteei, eta ez zela halakoetan sendakuntza-trebetasuna erabili behar, ezta ez zirela sendatu behar ere, Midas bera baino aberatsago balira ere.

-Bai benetan guztiz iaioak zirela, esan zuen, aipatzen dituzun Asklepiosen semeok!

XVI. - Nabarmen da, esan nuen. Baina horregatik, tragedia-egileek eta Pindarosek, gure eritzitik aldendurik, Asklepios Apollonen semea diru-orde limurtu zela (c) hiltorian zegoen gizon aberats bat sendatzera eta horregatik suntsitua izan zela diote. Baina guk, aurretik esan dugunaren arabera, ez diegu sinetsiko, ez bata ez bestea, eta ez dugu, ostera, "jainkoaren seme baldin bazen ez zela diru-gose lukurra, eta lukurra baldin bazen ez zela jainkoaren seme" baino esango.

-Benetan, oso ondo daude gauzok, esan zuen. Baina beste honi buruz zer diozu, ene Sokrates? Ez ote da, ausaz, beharrezko hirian sendagile onak izatea? Eta hauek hainbat eta gizakume osasuntsu (d) eta gaixo gehien esku artean izan dituztenak izan litezke, eta berdintsu, zalantza barik, epaile onak izaera guztietako gizakumeekin harremanak izan dituztenak izango dira.

-Bai horixe, esan nuen, onak direla diot. Baina nire ustez horrelakoak zeintzuk diren ba ote dakizu?

-Esaten badidazu..., esan zuen.

-Ahaleginduko naiz, esan nuen, esaldi beraz gauza berdina galdetu ez duzun arren.

-Nola? Esan zuen.

-Sendagilerik hoberenak, esan nuen, umetatik trebetasun hori gehien eskuraturik, ahalik eta gorputz gehien eta gaixoenekin harremanak izan dituztenak izango dira, (e) eta osasun guztiz ona izan barik guztitariko gaixotasunez gaixo egon direnak. Ezen, ez dut uste gorputzarekin gorputzik sendatzen dutenik -bestela, ezinezko litzaieke inoiz txarto egoterik zein gaixotzerik- arimarekin baino; eta arima txarra bihurtzen bazaie, edo txarra bada, ezinezko izango dute ezer ondo zaintzerik.

-Zuzen dago, esan zuen.

-Eta epaileak, bada, ene lagun hori, zalantzarik gabe, arima arimaren bidez zuzentzen du, eta 409. honi ez zaio utzi behar gaztetatik arima gaiztoen artean hazten, eta harremanak izaten, eta beragan bidegabekeria guztiak eginez igaro behar izaten, bere buruz, besteen bidegabekeria zuhur aztertzearen, gorputzaren arabera gaixotasunak zehazten diren bezala. Alderantziz, beharrezko da, gazte dela ekandu txarretatik ejjakin eta garbi gertatzea, guztiz ona izanik gauza zuzenak garbi bereiz ditzan nahi bada; horregatik, gizakume onak gazte direlarik isurbako agertzen dira, eta bidegabeengatik erraz iruzurtzekoak, (b) eurengan gaiztoen berdineko jokaera-eredurik ez daukatelako.

-Horrelaxe, bada, esan zuen, zalantza barik gertatzen zaie.

-Horregatik, esan nuen, gaztea barik adinekoa izan behar du epaile onak, berandu batean bidegabekeria zer datekeen jakitera heldu dena, ez beregan arima barruan daukala konturatu dena, bestearen bidegabekeria eta besteen arimetan denbora luzean ikertu ondoren gaiztakeria nola sortzen den jakitera heltzen dena, ikastearen bidez, ez berak beretik (c) harturikoaren bidez.

-Benetan, iaio-iaioa dela dirudi, esan zuen, epaile horrek.

-Eta ona, zinez, esan nuen, zuk eskatzen zenuena. Arima ona daukana ona delako, eta bestea, trebe eta susmakor, hamaika bidegabekeria eginikoa, eta edozer egiteko gai dena, eta bere burua zuzentzat daukana, besteekin harremanetan jartzen denoro trebe eta bekaizti agertzen da, bere barrenean dauden ereduak ikusten dituelako; baina bera baino hobe eta adin handiagoko batengana hurreratzen denoro, zalantza barik, tentelago (d) agertzen da, garaiz kanpoko mesfidantzaz eta izaera osasuntsua zer den ez dakiela, horren eredurik barruan ez daukalako. Eta onekin baino gaiztoekin sarriago aurkitzen delako, beretzat eta besteentzat tentelago baino zuzurrago dela uste izatea suertatzen da.

-Guztiz, bada, esan zuen, hori egia da.

XVII. - Ez da bilatu behar, beraz, esan nuen, horrelakoarengan epaile on eta jakintsurik, lehenengo bestearengan baino. Alde batetik, gaiztakeriak ezin lezake inoiz bere burua

eta bertutea ezagutu, bestetik, aldiz, bertutea, berez eta hezkuntza luze baten bidez, era berean, bere buruaren (e) eta gaiztakeriaren ezagumenera helduko da. Nire eritziz hauxe izango da jakintsua, ez gaiztoa.

-Ni ere, esan zuen, eritzi berdineko nauzu.

-Orduan, ez ote duzu jarriko esaten genuen lako sendakuntza bat ere, honelakoxe epaizaritzarekin batera zure hiritarren artean gorpuz 410. eta arima ederrekoak zain ditzaten, eta bestelakoak, gorputzez honakoak ez direnei hiltzen utz diezaieten eta arimaz gaizto jaio eta senda ezinekoak beraiek hil ditzaten?

-Gutxienez, gauzarik hoberena dirudi horrelako gaitzak jota daudenentzat eta hiriarentzat ere.

-Eta argi dago, ordea, esan nuen, neurritasuna sortzen zuela genioen musika lau hartaz baliatuz, gazteak epaikitzen jo beharretik libratuko zaizkizula.

-Zergatik ez? esan zuen.

-Ausaz, gauza hauen arabera, (b) lorrats beretik musikariak gimnasiari jarraituz gero, gura balu, ez ote du lortuko ezertarako sendakuntzaren premiarik behar ez izateraino beste, ezinbestekoan izan ezik?

-Hala deritzat.

-Eta gimnasia eta ariketa-lanak, indar hutsari baino gehiago, bere izaeraren kementasunari begira eta areagotzearen, egingo ditu, eta ez beste atletek egiten duten bezala, janariak eta ariketa-lanak erabiltzen dituztela indarra lortzearen bakarrik.

-Guztiz zuzen diozu, esan zuen.

-Ez ote da, bada, esan nuen, ene Glaukon, musikarekin eta gimnastikarekin (c) heztearri jarri zutenek ez zutela jarri, batzuek uste duten bezala, bata gorputza zaintzeko eta bestea arima zaintzeko?

-Zer bestetarako, bada? esan zuen.

-Baliteke, esan nuen, gehienbat biak arima zaintzearen jartzea.

-Nola, bada?

-Ez ote zara konturatu, esan nuen, bizitza guztian, musika ukitu gabe, gimnastikan ari direnek, nolako jokaera duten? Eta nolakoa alderantzizkoan ari diren guztiek?

-Zeri buruz, esan zuen, (d) diozu?

-Ankerkeria eta gogorkeriari buruz, eta, bestalde bigunkeria eta gozotasunari buruz, esan nuen.

-Nik ere uste dut, esan zuen, gimnastika hutsean ari izan direnak behar baino ankerrago gertatzen direla eta, alderantziz, musikan bakarrik aritutakoak itxurazko litzaiekeen baino bigunago egiten direla.

-Bai horixe, esan nuen, kementasun anker hori, benetan, berezkotasunetik sor liteke, baina zuzen haziz gero zangartasun gerta liteke, eta behar den baino handiago egiten bada, bidezko denez, gogorkeria eta lazkeria bihurtu liteke.

-Halaxe uste dut, esan zuen.

-Eta, zer? Gozotasuna (e) ez ote da filosofo-izaera bat, eta gehiegi gozotasunean jarriz gero ez ote da behar den baino bigunago egiten, eta zuzen heziz gero gozo eta neurriko?

-Hala da.

-Eta benetan esaten dugu hiri-zaintzaileek euren izaeran gauza biok eduki behar dituztela.

-Beharrezkoa da, bai.

-Beraz, ez ote da beharrezkoa gauza biok elkarren harmonian izatea?

-Nola ez, bada?

-Eta harmonia hori daukan arima 411. ez ote da neurrikoa eta zangarra?

-Guztiz, bada.

-Eta harmonia bakoa ez ote da doilor eta latz?

-Eta nolakoa gainera!

XVIII. - Beraz, inor musikaz liluratzen denean eta txonil batetik bezala belarrietatik oraintsu aipatzen genituen harmonia gozo, bigun eta negartiak arimaz jabe daitezen uzten duenean, eta txioka, eta pozez abesturik bizitza osoa igaro baleza, horrek, hasieran ezer kemenik badu, burdina bezala (b) bigunduko du, eta latz eta gogor izatetik baliagarri bihurtu, eta nahikoa izanik, utzi beharrean, liluramen horretan geratzen bada, ondoren, berehala, kemena urtu eta isuriko du guztiz hondatzeraino, eta arimako zainak ebaki balitu bezala "gudari ahul"<sup>44</sup> bihurtuko da.

-Guztiz, bada, esan zuen.



-Baina, benetan, esan nuen, lehenengotik kemen bako izaeraren bat har baleza egoera horretara arin helduko da; aldiz, izaera kementsua har baleza, bere kemena ahul eginik, aldabera bihurtuko da, eta gutxikeria batengatik (c) laster haserrekor edo lur jota, eta kementsu orde zakar eta triperre bihurtuko da, gogo txarrez beterik.

-Benetan, bada.

-Eta zer gertatuko da ahalegin guztiekin gimnastikari ekin badiezaio, eta bere buruari guztiz bizimodu ona eman badiezaio, musikan eta filosofian esku hartu barik? Ez ote da hasiera baten gorputz ona daukalakoan harrokeriaz eta kemenez goraino beteko, eta lehen baino zangarrago bihurtuko?

-Bai horixe, benetan.

-Eta besterik ezer egin ez badeza eta Mousakin ere bat ere traturik izan ez, (d) zer? Inongo ikasketarik zein ikerketarik ez dastatzean, eta inolako autu zein musikan parterik

hartu ez izatean, ariman gera lekiokkeen jakin-mina ez ote zaio ahulduko, gogortuko eta itsutuko, bere zentzuetatik zerk suspertu, eragin, edo zerk garbitu ez daukalako?

-Bai, esan zuen.

-Honakoa, ene ustez, jakintzaren eta musen arerio egingo da, eta ez da inoiz arrazoiaren bidez inor erakartzen saiatuko; eta edozer eskuratzeko, piztiak bezala, indarrez eta gogorkeriaz ahaleginduko da, eta ezjakintasunean eta zentzugabekerian biziko da, inolako erritmo eta jas barik.

-Guztiz, esan zuen, horrelaxe da.

-Gizakumeak izaera bikoitza daukalako, dirudienez, esango nuke nik, jainkoren batek gizonei beste trebetasun bi horiek, musika eta gimnastika, eman ez zizkiela gehigarri bezala ezik, ez gorputzarentzat ez arimarentzat eman, estutuz eta lasaituz elkarren arteko harmoniara 412. heltzeraino, kementsu eta filosofo izateko baizik.

-Nik ere hala uste dut, esan zuen.

-Hoberen musikarekin gimnastika nahasi, eta neurritasun handienarekin ariman jartzen duenari, horri, esan geniezaioke zuzenen egin-egineko eta harmonia handieneko musikaririk musikariena dela, doinu-hariak elkarrekin gozatzen dituenari baino askoz gehiago.

-Bidezko da, benetan, esan zuen, ene Sokrates.

-Beraz, gure hirian ere, ene Glaukon, ez ote da beti honelako buruzagiren baten beharrik izango hiri-eraketak iraun dezan?

-(b) Beharko da, bai horixe, eta horrelakoa gehien.

XIX. - Hauexek dirateke, bada, hezkuntza eta hazkuntzaren ereduak. Zertarako aritu behar ote da inor hiritarren dantzei, mota guztietako ehizei, edo gimnasia eta zaldi-lehiaketek buruz? Ia argi dagoena zera da, gauza guzti hauek esaniko ereduetara egokitu behar direla, eta hori lortzea ez dela inola ere zaila.

-Berdin, esan zuen, ez da gauza gaitza izango.

-Bego, esan nuen, zer geratzen ote zaigu honen ondoren ebazteko? Agian, hiritarren artetik zeintzuek agindu behar duten eta zeintzuk agindupean egon?

-(c) Zergatik ez, bada?

-Ez ote dago argi, zaharragoek izan behar dutela agintari, eta gazteagoek agindupeko?

-Argi dago.

-Eta eurentatik hoberenak izan behar dutela?

-Hori ere argi dago.

-Eta nekazaririk hoberenak ez ote dira gertatzen nekazaritzarako trebeen?

-Bai.

-Eta orain, agintariak zaintzaileen artetik hoberenak izan behar dutenez gero, ez ote dira hoberen hirizaintzan?

-Bai.

-Eta horretarako, ez ote dira behar gizaseme zentzudun, ahaldun, eta gainera hiriaren arduradun direnak ere?

-(d) Halaxe da.

-Eta inor ez da ezertaz gehiago arduratzen maitagarri suertatzen zaionaz baino.

-Ezinbesteko da.

-Eta, zalantza barik, gehien maite dena norberak bere buruarentzat komenigarritzat daukana da, eta [ahalik eta gehien] hura ondo badoa beretzat ere ondo doala uste duena da, eta ez badoa, alderantzizkoa.

-Halaxe da, esan zuen.

-Hautatu beharko dira, beraz, zaintzaileen artetik, bizitza guztian zehar aztertuz hoberentzat dauzkagunak, eta hiriarentzat komenigarri dela uste dutena gogo osoz egingo dutenak, eta, ez dena, ezelan ere egiterik nahi izango ez dutenak.

-Horiek dira, bada, egokienak.

-Nik uste dut, bada, euren adin guztietan jagon behar ditugula, ea eritzi hori zaintzeko gai diren, eta atzipetu izan arren, eta behartu izan arren edo hiriarentzat hoberena litzatekeena egin behar deneko uste hori, ahazturik alde batera uzten duten.

-Zeri diotsazu, esan zuen, alde batera uztea?

-Esango dizut, esan nuen. Eritzi bat, adimenetik, nahi izanik edo nahi gabe alden daitekeela uste dut; nahirik, gezurrezkoa 413. dela ohartzean, eta nahi barik guztiz egiazkoa denean.

-Nahiezkoari buruzko hori, esan zuen, ulertzen dut, nahi bakoari buruzkoa, berriz, argi diezadazun behar dut.

-Eta zer? zuk ere ez ote duzu uste, esan nuen, eurak nahi barik gauza onak kentzen dizkietela gizonei, eta euren nahiez txarrak? Ala egiari buruz iruzurtua izatea ez ote da gauza txar bat, eta egia esatea gauza on bat? Ala gauzak diren lakoak direla uste izatea ez ote duzu uste egia edukitzea dela?

-Ondo diozu, esan zuen; nik ere uste dut borondatez kontra kentzen dizkietela gizonei egiazko eritziak.

-Ez ote zaie (b) hori gertatzen lapurtu zein atzipetu zein behartzen dituztenean?

-Oraingoan ere, esan zuen, ez dut ulertzen.

-Tragedia-hizkuntzan, esan nuen, ari naizela dirudi. Lapurtuak direla, atzipetutakoei eta ahaztu direnei esaten diet, zeren hauei denborak eta haiei hitzak ebatsirik ahaztarazi egiten baitiete. Ulertzen duzu orain?

-Bai.

-Behartuak direla, samin edo oinazeren batek eritiziz aldarazten dituenak, esaten dut.

-Hori ere ulertu dut, esan zuen, eta zuzen diozu.

-Eta atzipetuak, bada, (c) uste dut zuk ere esan zenezakeela, atsegintasun batek erakarririk, edo beldurren batek eraginik eritiziz aldatzen direnak direla.

-Badirudi, bada, iruzur egiten duen edozerk atzipetu ere egiten duela.

XX. - Beraz, oraintsu esaten nuena bilatu behar da, zeintzuk diren eurengan dagoen eritziaren zaintzailerik hoberenak, hau da: hiriarentzat beti hoberena dela uste dutena, horixe egin behar dela. Jagon behar ditugu, bada, ume-umetatik eritzi hau ahaztarazi edo iruzurtuak izateko arriskuan gehien jarriko dituen zeregin batzuk aginduaz; eta oroimena daukana eta iruzurgaitzena (d) aukeratu eta bestelakoa baztertu egingo dugu, ala zer?

-Bai.

-Eta gainera, neke, oinaze eta temak ezarri behar zaizkie, era berdinean dabiltzan zaindu behar delako.

-Ederto, esan zuen.

-Eta, esan nuen, hirugarren motako atzipen-lehiaketa bat ere jarri beharko da, eta aztertu ere, -moxalak zarata eta abarrots artera eramaten diren bezala izukorrak diren jakiteko, horrelaxe, gazte direlarik, hezi behar dira beldurgarri diren edozein gauzatan, eta berriro itzuli behar dira atseginetara, (c) urrea sutan baino askoz hobeto soiltzeko- ea gauza guztietan iruzurgaitza eta itxuratsu agertzen den, bere buruaren eta ikasi zuen musikaren zaintzaile on izanik, eta gauza guztietan erritmo eta harmonia oneko aurkezten den, benetan den lakoa izanik, bere buruarentzat eta hiriarentzat ere gizonik komenigarriena datekeen. Eta behin eta beti, umetan, gaztetan eta gizonetan neurtu izan eta garbi gertatzen dena, 414. jarri behar da hiriko agintari eta zaintzaile, eta bizi dela ere, dedu izan behar zaio, eta hiltzen delarik omenik handienak hiletetan eta beste oroitarrietan ere egin behar zaizkio. Eta honakoa ez dena, baztertu egin behar da. Honako zerbait, esan nuen, iduritzen zait dela, ene Glaukon, agintarien eta zaintzaileen hautaketa eta izendatzea, zehaztasun handirik gabe, bat-batean esatearren.

-Gutxi gorabehera, esan zuen, niri ere horrelaxe iduritzen zait.

-Ausaz, bada, ez ote da benetan gauzarik zuzenena hauei egin-eginekoko zaintzaile deitzea, (b) kanpoko arerioek kalterik egin ahal izan ez dezaten, eta barruko adiskideek kalte egiterik nahi izan ez dezaten, eta orain arte zaintzaile deitzen genien gazteei, laguntzaile eta agintarien aginduen eragile?

-Hala uste dut, esan zuen.

XXI. - Zer asmakizunez, esan nuen, balia gintezke, lehentxeago esaten genuen bezala, esan beharreko gertatzen diren gezur jator horietako bat esanez, (c) batez ere agintariak eurak, eta, hauek ezean gainerako hiria etsi dezagun?

-Zein, bada?

-Ez da ezer berririk, esan nuen, phoinikiar zerbait baino, aspaldian sarritan gertatua, poetek esaten eta sinestarazten duten bezala; gure artean, ordea, gertatu ez dena eta ez dakit gertatuko litzatekeenik, aitzitik, sinestarazteko sinesmen handia behar da.

-Badirudi, esan zuen, hitzegiten ez zarela ausartzen.

-Esaten dizudanean, esan nuen, idurituko zaizu badudala arrazoirik asko ez ausartzeko.

-Esan, bada, esan zuen, eta ez zaitezela beldur izan.

-(d) Banoa, bada, baina ez dakit zer ausardi eta zer hitz erabiliaz hitzegingo dudan, eta nola ahaleginduko naizen lehenengo agintariak eurak eta gudariak limurtzeko, eta gero gainerako hiria ere, nola ematen genizkien hazkuntza eta hezkuntza guztiz ametsetan bezala ematen genizkiela, eta hartzen zituztela; eta bene-benetan, ordea, bai eurak, bai beren iskilu eta gainerako tresneria lurpean zeudela osotzen, eta hazten; (e) eta erabat osatuak izan zirenean, lurrak, ama izanik, erne egin zituela; orain, bada, bizi diren lurraldea, inork eraso baleza, ama eta inude bailitzan aintzat hartu eta gorde behar dutela eta beste hiritar guztiak jatorri bereko senide bailiran hartu.

-Ez zinen ez, esan zuen, lehen, arrazoi barik lotsatzen, gezur hori esaterakoan.

-Guztiz, esan nuen, 415. bidezkoa zen. Baina, era berean, entzun ezazu mitoaren gainerakoa: "Hirian zaudeten guztiok, beraz, anaiak zarete" hala esango diegu mitoari jarraikiz; "baina jainkoak, zuetarik aginterako gai ziren guztiei, eratu zituenean, sorrera-unean urrea sartu zien, eta horregatik estimagarrienak dira, eta laguntzaile guztiei zilarra, eta nekazari eta beste ogibidedunei burdina eta brontzea. Denok senide zaretenez, gehienetan zeuen antzekoak sor zenitzakete, gertatzen da ordea inoiz urrezkotik (b) zilarrezkoa sortzea, eta zilarrezkotik urrezko ondorengoa, eta beste guztietan ere horrelaxe, bata bestearengandik. Eta jainkoak lehenengo eta gehien agintariei agintzen die, zaintzaile on izan behar duten gauza guztietatik ez dutela ezer ardura handiagoarekin zainduko ondorengoa baino, euren arimetan nolakoa daukaten gauza hauen nahastea baino, eta semea brontzezkoa edo burdinazkoa gerta baledi, edozelan ere (c) ez dela errukituko, eta bere izaeraren arabera balioa emanaz, ogibidedunen artera edo nekazarien artera bidaliko duela,

eta, alderantziz, hauengandik baten bat urrezko edo zilarrezko sor baledi, bere balioa neurturik, lehenengoak hiri-zaintzara eta bigarrenak laguntzaile izatera jasoko dituztela; egiazko iragarkizunaren arabera, hiria zilarrezko eta brontzezko zaintzaile batek zain dezanean bertan hondatuko da eta". Modurik ba ote duzu, bada, mito hau sinets dezaten?

-Ezela ere, esan zuen, gaur eguneko gizonek ez lukete sinetsiko, hauen semeek eta bere ondorengoek eta geroko beste gizonek sinetsiko luketen bezala.

-Baina hau, esan nuen, nahikoa litzateke berdin hiria eta elkar ere hobeto zaintzeko; gutxi gorabehera ulertzen dut diozuna.

XXII. Mito hau, bada, doala ospeak eraman lezakeen edonoraino. Eta guk, iskiluz jantzi eta gero, eraman ditzagun lurkumeok buruzagien gidaritzapean. Heldurik, gualtegia jartzeko hiriko lekurik egokiena zein den ikus dezatela, nondik ondoen azpiratuko dituzten hiri barrukoak inork legee (e) men egiterik nahi ez badu eta kanpotikakoak nola urrundu, areriores bat otsoa artaldearen aurka bezala baletor. Eta gualtegia jarrikoan eta behar direnei opariak eskainirikoan, etzanlekuak ere prestatuko dira, ala zer?

-Bai horixe, esan zuen.

-Eta gualtegiok, bada, negutik eta udatik ere babesteko beste egoki ez ote dira izango?

-Nola ez, bada? Uste dut, esan zuen, etxeei buruz ari zarela.

-Bai, esan nuen, gudari-etxeei buruz, ez merkatarientzakoei buruz.

-416. Zertan, esan nuen, diozu hau bestetik aldentzen dela?

-Ahaleginduko natzaizu, esan nuen, azaltzen. Artzain batentzat ez dago ezer arriskutsuagorik eta lotsagarriagorik, artaldean laguntzaile izan behar duen txakurra, nasaikeripean edo gosepean edo beste edozein ekandu txarrarenpean, ardiei kalte egin eta txakurraren ordeztuaren antza izatera jartzeraino hezteko baino.

-Ikaragarria, esan zuen, litzateke bai, nola ez?

-Ez ote da era guztietara zaindu behar, (b) gure laguntzaileok ere, hiritarren aurka gauza bera egin ez dezaten, eta ahalmena eskuratzen duten bezain laster, laguntzaile egoki izan beharrean, despota basatien antza izan ez dezaten?

-Zaindu beharra dago, esan zuen.

-Ez ote genuke ardurarik handiena jarri behar, benetan, ondo heziketa egon daitezen?

-Badaude baina, esan zuen.

-Eta nik esan nuen: ziur egoteko hori ez da nahiko, ene Glaukon, oraintsu esaten genuena bai; beharrezko dutelako benetako (c) hezkuntza bat izatea, dena delakoa, eurekin eta zaindu behar dituztenekin otzanak izan daitezen nahi bada.

-Zuzen diozu, benetan, esan zuen.

-Horregatik, zentzurik duen edonork esan lezake, hezkuntza honen arabera, etxeak eta hauen antzeko beste ondasunak ere gertatu behar zaizkiela, zaintzaile onak bezala izateko eta beste (d) hirikideei kalte egitera bultzatuak ez izateko oztoporik izan ez dezaten.

-Benetan, zuzen esango lukeela.

-Honakoxeak izan ez daitezen nahi badugu, ikus ezazu, bada, esan nuen, era honetako bizimodua eta etxea izan behar dutela: lehenengo, ondasunik bat bera ere bererik ez dute izango, ezinbestekoa ezik; gero, nahi lukeen edonor sartuko ez den inolako egoitzarik zein garairik ez dute izango. Eta beharrezko diren gauzei buruz, gudarako atleta neurritsu eta adoretsu izateko behar dituen bestekoak jarriko dira (e) beste hirikideengandik hartzeko, zaintzaile-ordain bezala, behar dituen heinean, urte guztian zehar gehiegi izan ez dezaten eta ez gutxiegi. Eta gudaldian batera bizi balira bezala, elkarrekin batera jango dute. Urre eta zilarrari buruz esango zaie zerukoa daukatela arimetan jainkoak betiko jarria, eta ez dutela ezertarako behar giza urrerik, eta ez dela zilegi, hura izanik, hilezkor honekin nahasturik, eurengan dagoen urre garbia zikintzea, hilketa asko gertatu direlako, gehienbat, 417. txanpon-itxura daukan honen inguruan. Hirian, eurei bakarrik urrerik zein zilarrik erabiltzerik zein ukitzerik, edo urrezko sabaipetan sartzerik, edota jantzietan eramaterik, urrezko edo zilarrezko edalon

tzietatik edaterik debekatuko zaie; eta horrelaxe jokaturik, salba litezke eta salba lezakete hiria. Baina lur, etxe edo diruak eskuratzen badituzte, zaintzaile izan beharrean etxagun eta nekazari bihurtuko dira, beste hirikide guztien lagun izan beharrean, (b) despota gorrotagarri; eta bizitza osoa igaroko dute gorrotatuz eta gorrotatuak izanik, zelatan egonik eta zelatatuak izanik, eta sarriago eta askoz gehiago barruko arerioei beldur izanik kanpokoei baino, eurak eta gainerako hiria ere arineketan gertu-gertuko hondamendira doalarik. Gauza guzti hauengatik, esan nuen, zaintzaileak etxez eta beste gauza guztiez hornitu behar direla esaten dugu, eta jarri ere esanikoak jarriko ditugu legetzat, ala zer?

-Horrelaxe bete-betean, esan zuen Glaukonek.



#### IV

419. I. Eta Adeimantosek hitza harturik: -Zer, bada, esan zuen, ene Sokrates, ihardets diezaiokezu, inork esan badiezazu, euren erruz hain zuzen ere, ez dituzula gizon hauek bat ere zoriontsu egiten, zinez hiria euren izanik hiritik ez dutelako ezelako onik eskuratzen, gainerakoek egiten duten bezala labore-lurrak eskuratuz eta etxe eder-zabalak eraikiz eta honakoei dagozkien hornidurak erdietsirik, eta bakoitzak bere eskaintzak jainkoei eskainirik, eta arrotzak bere etxean hartuz, eta gainera, oraintsu aipatzen zenituen urre eta zilar eta zoriontsu izateko uste diren gauza guztiak eskuraturik? Beste barik hark esan lezake, 420. hirian sari-ordeko laguntzaile bezala daudela dirudiela, zaindu baino besterik egiten ez dutelarik.

-Bai, esan nuen, eta guzti hori, benetan, janari truke, eta janarien gainetik inolako saririk hartu gabe, gainerakoek hartzen duten bezala, eta ez zaie, bada, zilegi izango, nahi izan arren ere, hiritik irtetzea, ezta ema-lagunik ordaintzea, ezta zoriontsu direla uste direnek eralkitzen duten gauzetan, nahi izan arren, eralkitzea. Gauza hauek eta antzeko beste asko salaketatik landa utzi dituzu.

-Izan daitezela, bada, esan zuen, hauexek ere salagai.

-Zer, bada, (b) erantzungo dugun, diozu?

- Bai.

-Bide berari, esan nuen, jarraituaz aurkituko dugu, nire ustez, erantzun behar dena. Esango dugu, ezen, ez datekeela bat ere harrigarri hauek ere, horrelaxe, zoriontsuenak badira; ez dugu, bada, hiria eraiki horri begiraturik, bakar batzuk zorionean bizi daitezen, ahal denik eta gehien hiri guztia zoriontsu izan dadin baino; izan ere uste genuen, gehien, hiri honetan aurki zitekeela zuzentasuna, eta alderantziz, txartoen bizi zen hirian bidegabekeria, eta horrezaz konturaturik, (c) aspalditik bila gabiltzana ebatzi genezakeela. Orain, bada, gure ustez, hiri zoriontsu bat moldatzen ari gara, ez gutxi batzuk bereizirik eta horrelako batzuetan zoriona jarriarik, hiri osoan baino. Geroago osterantzeko hiria aztertuko dugu. Berdin litzateke, bada, baldin giza irudi bat margotzen gabiltzan bitartean, inor baletor gaitzesten esanez irudiaren alderik ederrenari ez diogula margorik ederrena jartzen -begiak gauzarik ederrena izan arren purpurazko tindura gorriz ez daudela margoturik, beltzez baino- zentzu zuzeneko agertuko ginateke (d) erantzungo bagenio esanez: "Ene gizon harrigarri hori, ez dezazula uste izan hain dotore begiak, begi-itxura ez izateko bestean, margotu behar ditugunik, ezta beste edozein alde; aitzitik ikus ezazu ea alde bakoitzari dagokiona emanaz, bere osotasunean eder egiten dugun baino. Eta batez ere ez gaitzazu behartu orain zaintzaileei, zaintzaile barik beste edozer bihurtuko dituen bezalako zoriona ematera. Ezen, jakin badakigu (e) nekazariak oinetarainoko jantzi leunez jantzirik

eta urrez inguraturik, bere nahiaren arabera lurra lan dezatela eskatzen; baita keramikagileak ere sutondoan eskumalderantz etzanik, edan eta oparo aseturik, tornua alde batera utzirik, nahi hainbat keramika egin dezaten; badakigu era berean, beste guztiak ere zoriontsu egiten, hiri guztia zoriontsu izan dadin. Baina ez iezaguzu horrelakorik gogora, ezen, zure esanera jar bagaitzazu, nekazaria ez da nekazari izango, 421. ez keramikagilea keramikagile, eta beste inork ere, hiria sortu zenetarikoen antzik ez du izango bat ere. Beste guztiak, bada, ardura gutxiago ematen dute, zeren, oinetako-konpontzaileak txar bihurtzen badira edo alferrik galtzen badira, ez direna itxuratu arren, horrek ez dio hiriari bat ere kalterik ekartzen, baina legeen eta hiriaren zaintzaileak benetakoak ez badira, itxurazkoak baino, ikusten duzu hiria nola goitik behera hondatzen duten, eta bestalde, nola eurak bakarrik ondo biziara eta zoriontsu egiteko aukera daukaten." Benetan zaintzaileak benetakoak egiten baditugu, ezelan ere (b) ez dira hiriaren kaltegile izango; eta nekazariei buruz, ez hirian bezala, jai handi batean gonbidatu zoriontsu bailiran baino ari dena, hiriaren barik beste edozertaz ari liteke solasean. Aztertu behar da, beraz, zaintzaileak horretara begira jarri behar ditugun, eurentzat zorionik handiena sor dadin, ala hori berori begiraturik hiri osoarentzat horretaraino hel dadin begiratu behar den, eta laguntzaile eta zaintzaile hauek behartu behar diren horrelaxe (c) egitera eta sinestera, behargin on bezala bakoitzaren lana bete dezaten, eta beste guztiak berdin; eta horrela hiri guz-

tia batera handi eginik eta ondo bizirik, izaerak bakoitzari ematen dionaren arabera zorionetik hartzea ahal izan dadin.

II. - Uste dut, bada, esan zuen, ederto diozula.

-Ausaz, esan nuen, ez ote duzu uste zuzen nagoenik horren senide den hau diodanean?

-Zer batez ere?

-Azter itzazu esango dizkizudan gauzok, bere aldetik gainerako beharginak (d) alferrik galduko dituzten, behargin txar bihurtzeraino.

-Zeintzuk dira, bada, eurok?

-Aberastasuna, esan nuen, eta lazeria gorria.

-Nola, bada?

-Honelaxe: uste duzu aberasten den buztingileak bere ogibideaz arduratzea nahiko duenik?

-Ezelan ere ez.

-Ez ote da zen baino nagiago eta arduragabekoago egingo?

-Askoz gehiago, benetan.

-Orduan buztingile traketsago bihurtuko da?

-Baita, esan zuen, askoz ere.

-Eta areago oraindik, bere lazeria gorria bide dela bere ogibiderako tresnak edo beste edozer eskuratzerik ez badauka gauzak txartoago (e) egingo ditu eta bere ogibidea irakats diezaiekeenei, seme edo beste edozeini, ogibidedun txar izaten irakatsiko die.

-Eta nola ez?

-Gauza biongatik, bada, lazeriagatik eta aberastasunagatik, alde batetik ogibide-lanak txartoago egiten dira, eta bestetik ogibidedunak eurak ere txarrago bihurtzen dira.

-Argi dago.

-Gauza bi, dirudienez, aurkitu ditugu, era guztietara zaintzaileek zaindu behar dituztenak, ohartu barik ezelan ere hirian sar ez dakizkien.

-Zeintzuk dira, bada, horiek?

-Aberastasuna, esan nuen, eta beharrian gorria: 422. batak bigunkeria, nagikeria eta berri-zalekeria sortzen dituelako, eta besteak berri-zalekeriaz gain, andurkeria eta maltzurkeria.

-Guztiz horrelaxe da, esan zuen; baina hau ere, gutxienez, ene Sokrates, azter ezazu, nola gure hiri hau gudu egiteko gai izango den ondasunik ez badauka, batez ere beste hiri handi eta aberats baten aurka gudu egitera beharturik balego.

-Argi dago, esan nuen, zailago izango dela hiri bakar baten aurka denean, eta haietariko biren aurka denean, (b) errazago.

-Nola diozu? esan zuen.

-Lehenengo bada, era batera edo bestera, esan nuen, gudu egin behar badadi, ez ote dira borrokatuko aberats diren batzuen aurka eurak gudurako atleta batzuk direlarik?

-Hori bai, esan zuen.

-Zer, bada, esan nuen, ene Adeimantos? Ez ote duzu uste errazago borrokatuko denik ahalik eta ondoen gertaturik dagoen ukabilkari bakar bat ukabilkari ez diren gizon aberats eta gizen biren aurka?

-Beharbada ez, esan zuen, biekin batera egin behar badeza.

-Eta ihes joanik ondora heltzen zaion bakoitzean (c) berriro ere aurre eginik, haietariko bakoitzari eraso baliezaio ere ez, eta hori sarritan itotzeko lain eguzki berotan egin baleza ere ez? Honako batek ez ote luke, bada, benetan, halako bat baino gehiago azpiratu ahal izango?

-Zalantzarik gabe, esan zuen, ez litzateke gauza harrigarririk suertatuko.

-Baina zuk ez al duzu uste aberatsek buruzko ezagupidez eta ihardunbidez gehiago dakitela ukabilketari buruz, guduketari buruz baino?

-Nik neuk bai, esan zuen.

-Bidezko denez, beraz, gure atletek, eurak baino bi edo hiru aldiz gehiago direnen aurka errazago gudukatuko dute.

-Bat nator zurekin, esan zuen, zuzen diozula uste dut eta.

-(d) Eta zer gertatuko litzateke beste haietariko hiri batera ordezkaritza bat bidalirik, egia denez, esango balezate: "Urrerik zein zilarrik guk ez dugu ezertarako behar, zilegi ere ez dugu eta; zuek, bada, gurekin batera borrokaturik besteen urre-zilarrek har itzazue"? Honakoak entzutean uste duzu inork nahiago izango lukeela txakur gogor eta zail batzuen aurka borrokatu, txakurrekin bat eginik ardi gizen eta gurien aurka baino?

-Ez dut uste. Baina, esan zuen, hiri bakar batean, besteen ondasunak batu balitez, begira ezazu arriskurik ez dakarren (e) aberastasunik ez daukanarentzat.

-Aingeru bat zara, esan nuen, guk antolatzen dugun lakoari baino beste edozeini hiri izenaz deitzea egoki dela uste duzulako.

-Baina zergatik, bada? esan zuen.

-Besteei, esan nuen, izen handiago bat jarri behar zaielako, halako bakoitza, ez bat, hiri asko direlako baino, jokalarienaren antzera<sup>1</sup>. Dena delakoa bi bai behintzat, eta elkarren arerio, bata ezer ez daukatenena eta bestea aberatsena; eta hauetariko 423. bakoitzean beste hiri asko gehiago, zeintzuk bat balira bezala hartzen badituzu erabat huts egingo duzu, baina asko balira bezala hartzen badituzu, batzuen ondasunak, indarrak eta eurak berak beste batzuei emanaz, aldeko ugari irabaziko duzu, eta arerio gutxi. Eta zure hiri hori neurritasunez gobernatzen den bitartean, lehen jarri zen bezala, handiena izango da, eta ez diot hori bere izen onagatik, benetan izango delako baino, mila bat gudari baino izan ez baditza ere; zail izango duzu, bada, horrelako hiri handi bat aurkitzea, (b) zein helladarren artean zein barbaroen artean, hiri askok askotan handiago direla itxuratu arren. Ala besterik uste al duzu?

-Ez, Zeusarren, esan zuen.

III. - Beraz, esan nuen, hauxe dateke gure agintarientzat mugarik hoberena zeinen arabera hiria hazi behar den, eta neurri horren arabera lurraldea mugatu behar den, beste guztiak alde batera utzirik.

-Zein da, esan zuen, muga hori?

-Hauxe dela uste dut, esan nuen: bat izatekotan hiriari nahi lukeen beste hazten uztea, horraino bakarrik haztea, hortik aurrera, ez.

-Oso ondo, (c) benetan, esan zuen.

-Beraz hau beste agindu hau ere jarriko diegu zaintzaileei: era guztietara begira dezatela hiria txikia izan ez dadin, ezta handi denaren antzik ere izan ez dezan, nahiko eta bat den zerbait baino.

- Benetan zalantzarik gabe, esan zuen, hara nolako agindu erraza jartzen diegun.
- Benetan hori baino, esan nuen, ondino errazago da lehenago gogoratzen genuen beste hau, zaintzaileengandik gauza ez den ondorengoren bat sor baledi beste hiritarren artera nola bidali behar zen eta besteengandik, oster, (d) gauza den bat sortuz gero zaintzaileengana bidali behar zela esaten genuenean. Horregatik argi utzi nahi zen beste hiritarrei buruz nor bere izaeraren arabera lan bakar batean jarri behar zela, bakoitza bereari bakarrik ekitean bat izan dadin, ez asko, eta horrelaxe hiri guztia ere bat izan dadin eta ez asko.
- Agindu hau, esan zuen, bestea baino txikiagoa da.
- Hauek, esan nuen, ene Adeimantos on hori, edozeinek uste izan lezakeen bezala, uste izango dute agindu ugari eta handiak jartzen dizkiegula (e) baina guztiok errazak dira esateraren arabera bakar handi haxe zain badezate: nahikoa dena hobe dela handia baino<sup>2</sup>.
- Zer da hori? esan zuen.
- Hezkuntza, esan nuen, eta hazkuntza; izan ere gizonak ondo hezirik badaude neurridun izan bide dira eta errazago ikusiko dituzte gauza guzti hauek eta orain alde batera uzten ditugun beste guztiak, eta emazte hartze, ezkontza, eta ume-izateari buruzko arazo guzti hauek 424. esateraren arabera ahalik eta gehien batabestearenak lagunen arteko egin behar direla.
- Gauzarik zuzenena gerta liteke hori, esan zuen.
- Areago ondino, esan nuen, hirigintza (politeia) behingo batean zuzen abia baledi handiagotuz doa, biribilkia handitzen den bezala, zeren hazkuntza eta hezkuntza ondo mantentzen badira izaera onak ekartzen baititu, eta izaera horiek bere aldetik horrelako hezkuntzaren eragina izanik, bere aurrekoak baino hobe egiten dira zein gainerako gauzetan zein umegintzan, (b) beste abereengan gertatzen den bezala.
- Berezko da, benetan, esan zuen.
- Labur esatearren, bada, hiri-arduradunek horren arduraz iraun beharko dute, eurak konturatu barik, alferrik galdu ez dadin eta gauza guztien gainetik haxe zainduko dute, gimnastikari eta musikari buruz ezarritakoaz landa ez dela berrikuntzarik egin behar, ahalik eta gehien zaindu baino, beldur izanik inork esango balu:
- "Gizonek nahiago izaten dute abeslarietatik berrien sortzen den abestia.<sup>3</sup>"
- Inork ez dezala uste izan poeta abesti berriei buruz ari denik, abesteko era berri bati buruz baino, eta hori ez dezala inork gora, horrelakorik ez delako goratu ez onartu behar; ezen, gauza guztiak arriskuan jarriko genituzkeelakoan, kontu izan behar dugu musika eraberritzeaz, izan ere musika-erak ez dira inola ere aldatzen politikazko legerik handienak aldatu barik, Damonek dioen eta nik uste dudana bezala.
- Jar nazazu, esan zuen Adeimantosek, ni ere uste hori daukatenean artean.

IV. - (d) Dirudienez, esan nuen, zaintzaileei musikaren inguruan jarri beharko zaie zaindegia.

-Zalantza barik, esan zuen, lege-haustea irazirik, errazago ezkutatzen den horretan.

-Bai, esan nuen, ezelako kalterik egingo ez lukeen jolas batean bezala.

-Egin ere ez du egiten besterik, esan zuen, ekanduetan eta bizimoduetan apur-apurka barruratu eta geldiro-geldiro azpitik sartu baino; eta haietatik, handi eginik, gizonen arteko harremanetara irtetzen da, eta harremanetatik legeen eta jaurgoen aurka doa (e) lotsagabekeria handienarekin, ene Sokrates, bakoitzaren bizitzan eta herri-bizitzan dena hondaturik iraultzeraino.

-Bego, esan nuen, baina hori horrelaxe ote da?

-Hala uste dut, esan zuen.

-Beraz, hasieratik esaten genuena, ez ote dute gure umeek gehiago araturiko joko batean berehala esku hartu behar, ezen, jokoa bera eta umeak eurak ere araupean jarri ezik, eurentatik 425. gizonezko zuzen eta iaierik haztea ezinezko litzatekeelako?

-Eta nola ez, bada? esan zuen.

-Umeak bada, behar den bezala jolasean hasiz, musikaren bitartez arau zuzena barruratzen dutenean, lehengokoaren alderantziz, honek leku guztietara laguntzen die eta hazi egiten ditu, zerbait hirian lehendik jausirik balego berriro zutik jarriarik.

-Egia, benetan, esan zuen.

-Eta orduan, esan nuen, ustez txikienak diren legeak ere, euren aurrekoak hondatu zituzten guztiak, aurkitzera helduko dira.

-Zeintzuk?

-Honelakoxeak: adinekoen aurrean gazteei (b) dagokien ixiltasuna, etzalekua uztea, eta haien aurrean itzalez zutik jartzea, gurasoen ardura izatea, ilea mozteko, janzteko, eta oinetakoak ipintzeko era, eta gorputzari dagokion zainketa osoa eta hauen antzeko beste gauza guztiak. Ala ez al duzu uste?

-Nik, bai.

-Uste dut gauza guzti hauek arautzea lelokeria dela: inon ez bide da gertatzen, eta hitzez edo idatziz jarri arren ere ez lezake iraun.

-Nola, bada?

-Guztiz gerta litekeena da, esan nuen, ene Adeimantos, inor hezkuntzaren bidetik abia baledi (c) ondotik letorkiona bere antzeko izatea; ala antzekoak ez ote dio beti antzekoari dei egiten?

-Zer, bada?

-Eta amaitzeko, hortik on edo osterantzeko zerbait egin-egineko eta sendo sortuko dela esan dezakegula uste dut.

-Zergatik ez? esan zuen.

-Ni, bada, esan nuen, arrazoi horiengatik ez nintzateke ahaleginduko honez gero gauza guzti horiek arauz jartzen.

-Arrazoi duzu, benetan, esan zuen.

-Eta zer, Jainkoengatik, esan nuen, merkatu-arazoei buruz, agora-merkatuan elkarrekin egiten dituzten tratuei buruz, eta, (d) nahi baduzu, ogibidedunekin egiten direnei buruz, eta laidoei, irainei, auzien zozketei, eta epaileen hautatzeari buruz, eta merkatuetan edo portuetan zergaren batzuk jaso edo jartzearen premiari buruz, edota merkatu, hiri eta portukoetako zenbait gauzei buruz, edo antzeko beste gauza guztiei buruz ausartuko ote gara horietaz arautzen bat jartzen?

-Ez da, bada, egoki, esan zuen, egin-egineko gizon iaioei aginduak ematea, gehientsuek, legez jarri behar liratekeenak, (e) eurek erraz aurkituko dituzte eta.

-Bai, ene lagun hori, esan nuen, lehen aipatu genituen legeak gordetzea benetan jainkoak eman badiezaie.

-Eta horrela ez bada, esan zuen, bizitza osoa igaroko dute beti horrelako lege asko jartzen eta zuzentzen, gauzarik hoberena erdietsiko dutela uste izanik.

-Horiek, esan nuen, gaixoak bezala biziko direla diozu, euren nasaikeriagatik sendabide kaltegarritik irteterik nahi ez dutela.

-Bete-betea.

-Benetan 426. baragarri biziko direla horiek; izan ere, sendaketaz eta beti inork gomenda diezazkiekeen sendagaiez sendatuko direlakoan, gaixotasuna nahastea eta handiagotzea baino besterik ez dute lortzen.



-Horixe da bete-betean, esan zuen, horrelako gaixoei gertatzen zaiena.

-Eta zer? Euren hau ere ez ote da barregarri; egia esaten diena arerio handientzat izatea, hau da, mozkorrez, haragikeriaz (b) eta nagikeriaz aseturik egoteari lehenago uzten ez dionari ez sendagaiak, ez erredurak, ez ebakuntzak, ez sorginkeriak, ez ametzarriak, edo honelako beste ezer ez zaiola onuragarri izango?

-Ez da bat ere barregarri, esan zuen, zuzen hitzegiten duenarekin haserretzea barregarri ez delako.

-Dirudienez, esan nuen, ez duzu gizon horien goresle-

-antzik.

-Ez horixe, Zeusarren.

V. - Ezta hiri osoak, oraintsu esaten genuen bezala, berdin egin baleza, ez duzu goratuko; ala ez al duzu uste haiek bezala berdin egiten dutenik txarto eraturik (c) dauden hiri guztiek hiriko eratze-legetik ezer ez aldatzeko hiritarrei agintzen dietenean, horrelakorik egin dezakeena heriotzaz zigortua izango delako, eta, oster, horrela eraturik daudenei eder egin eta ahozpe jarriarik men egin bide diena, eta haien gurariak aurrez jakinik betetzen trebe datekeena, ez ote da hori berori gizon ontzat edukiko, eta arazo garrantzitsuetan jakintsutzat eta haiek goratua?

-Uste dut, bada, berdin egiten dutela eta ezelan ere ez dut goratzen hori.

-(d) Eta zer esan genezake hiri hauek sendatu nahi di-

tuztenei buruz, eta horretan ahalegintzen direnei buruz? Ez ote zaituzte harritzen haien adoreak eta jaidurak?

-Ni bai, esan zuen, haiek atzipetuak direnak eta gehiengoak goratzen dituelako, benetan politikari onak direla uste duten guztiak izan ezik.

-Nola diozu? Ez ote diezu barkatuko, esan nuen, horrelako gizonei? Ala uste al duzu izan litekeenik neurtzen ez dakien gizon batek bera lako beste askok lau besabete luze dela esaten diotenean, ez duela hori (e) bere buruari buruz sinetsi ahal izango?

-Hori ez, oster, esan zuen.

-Ez zaitez haserretu, bada, agian gizon horiek barregarrienak dira eta; lehentxeago aipatzen genituenei buruz arauak jartzen eta zuzentzen ari dira, usterik beti, tratuetan oker egindakoei eta oraintsu esaten nituen gauza guztiei amaiera aurkituko dietela, benetan Hydrari buru mozten bezala dabiltzala jakin gabe.

-Bai horixe, 427. esan zuen, ez dute besterik egiten.

-Nik, beraz, esan nuen, uste nuen benetako legegileak ez zuela aritu behar era horretako arauari zein eratze-legeari buruz, ez gaizki eraturiko hirian ez ondo eraturikoan, lehenengo hartan alferreko eta ezertarako ez direlako legeak, eta beste honetan edonork aurki litzakeelako, eta berez aurreko bizimodutik datozelako.

-(b) Zer dateke, bada, esan zuen, lege jartzeari buruz esateko geratzen zaiguna?

-Eta nik esan nuen: guri, bada, ezer ez; Apolloni, bada, Delphoetakoari dagokio legerik handienak, ederrenak eta garrantzitsuenak jartzea.

-Zeintzuk? esan zuen.

-Elizak eraikitzeak, erre-opariak, eta jainkoei, iratxoei, eta heroei buruzko beste ardurak; hildakoen hilobiak eta han daudenak aldeko izatearren egin behar zaizkien guztiak. Eta gauza guzti hauei buruz ezer ez dakigulako, hiria (c) eraikitzean beste inori ez diogu sinetsiko, zentzurik badugu behintzat, eta ez dugu erabiliko beste gidaririk gurasoena baino; ezen hauxe da, zalantzarik gabe, aberri-jainko, gauza guzti hauei buruz gizon guztien gidaria, lurraren [erdian] zil gainean jarririk gidatzen duena.

-Ederto benetan, esan zuen, hitzegin duzu. Bai, horrelaxe egin behar da.

VI. - Honezkero, bada, esan nuen, (d) eraikitzat izan dezazula hiria, Aristonen seme horrek, eta honen ondoren hiri horretan hau ere azter ezazu, edonondik behar adinako argia eskuraturik, eta dei iezaiozu zure anaiari, Polemarkhosi eta besteei ere, ea ikusten dugun non arraio dagokeen zuzentasuna, eta non bidegabekeria, eta zertan bata bestetik bereizten diren, eta zoriontsu izan nahi duenak biotatik zein bereganatu behar duen, nahiz jainko guztien zein gizonen aurrean ezkutuan geratu.

-Ez diozu ezer, esan zuen Glaukonek: zeuk bilatuko zenuela agindu zenuen eta, (e) zuzentasunari indarraren adinean era guztietara laguntzarik ez ematea zilegi ez omen zaizulako.

-Egia gogoratzen didazu, esan nuen, eta benetan horrelaxe jokatu behar da, baina beharrezko da zuek ere niri laguntzea.

-Horrelaxe, bada, esan zuen, egingo dugu.

-Itxaroten dut, bada, esan nuen, hori honelaxe aurkitzea: uste dut gure hiria, zuzen eraikia badago behintzat, erabat ona dela.

-Beharrezko, esan zuen.

-Argi dago, beraz, zuhurra, adoretdua, neurrikoa eta zuzena dela.

-Argi dago.

-Beraz, hiri horretan horietarikorik ezer aurkitzen duguna aurkitu, gainerakoa 428. aurkitu ez duguna izango da, ezta?

-Zer, bada?

-Laukoitzak diren edozein gauzetan bezala, lauho horretan bakar baten bila bagenbiltza, bakar hori ezaguturikoan, aski genduke, baina aurrez beste hirurak ezagut bagenitza, hortik beretik bilatzen ari garena ezagun izan liteke, argi dagoelako ez dela besterik geratzen, hurrexe baino.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Orduan, ari garenari buruz ere, lauhoitza izatea suertatzen denez gero, era berean bilatu behar ote da?

-Argi dago.

-Uste dut baita ere, horretan lehenengo nabaritzen dena (b) zuhurtasuna dela, eta zerbait bitxi agertzen da bere inguruan.

-Zer? esan zuen.

-Uste dut esaten genuen hiria benetan zuhurra dela, onu oneko delako, ezta?

-Bai.

-Eta horixe bera, hain zuzen ere, onu ona, jakintza mota bat dela argi dago, onu onak ez baitira ezjakintzatik sortzen jakintzatik baino.

-Argi dago.

-Eta hiri batean mota guztietako jakintza asko daude.

-Nola ez, bada?

-Agian, harginen jakintzaren arabera esan behar ote da hiri bat zuhur (c) eta onu oneko denik?

-Ezela ere ez horren arabera, hargintzan trebe dela baino, esan zuen.

-Ez da esan behar ere hiri bat zuhur denik zuzeko altzariak egiteko jakintzaren arabera, hoberenak egitea erabaki arren.

-Ez horixe.

-Zer bada? Brontzez ari direnen arabera, ala hauen antzeko besteren baten arabera?

-Honelako inolakoren arabera ere ez, esan zuen.

-Ezta lurretik fruituak sortzeko trebetasunaren arabera ere, nekazaritzan trebe dela baino.

-Hala uste dut.

-Zer bada? esan nuen, oraintsu guk eraturiko hirian ba ote dago hirikide batzuegan jakintzaren bat zeinen arabera hiriak erabakiak hartzen dituen, ez (d) hiriko gauza batzuei buruz bakarrik, hiri osoari buruz baino, era horretan bere buruarekin eta gainerako hiriekin harremanik hoberenak izan ditzan ahalegindurik?

-Badago, bai.

-Zein da, esan nuen, eta norengan dago?

-Hori, esan zuen, zaintza-trebetasuna da, eta oraintsu egin-eginekoko zaintzaileak deitzen genien agintariengan dago.

-Eta jakintza horren arabera nola deituko diozu hiriari?

-Onu oneko, esan zuen, eta benetan zuhur.

-Eta bietatik, bada, hirian, esan nuen, zeintzuk uste duzu gehiago izango ditugula, brontzegileak (e) ala benetako zaintzaile hauek?

-Brontzegileak askoz gehiago, esan zuen.

-Ez lirateke orduan, esan nuen, zaintzaile hauek askoz gutxiago izango, daukaten jakintzaren arabera izendatzen dituzten beste guztiak baino?

-Askoz gutxiago, benetan.

-Izaeraren arabera eratu izan den hiri guztia zuhur dateke, beraz, bertan gutxien den giza sailaren bidez eta jakintza horregatik aurrelari eta agintari denaren bidez. Eta dirudienez, jakintza guztietatik zuhurtasuna deitu behar zaion horretatik 429. esku hartzea dagokion eta sortze urrikoen den giza saila hauxe da.

-Egiarik handienak, esan zuen, diozuz.

-Laurotatik, bada, bat aurkitu dugu, nola ez jakin arren, hiriko zein lekutan kokatzen den ere aurkitu dugu.

-Niri bada, bederen, esan zuen, behar adina aurkitu dugula iduritzen zait.

VII. - Adorea bera, bada, hiriko zein lekutan kokaturik dagoen, eta zeinen bidez hiriari adoretzu deitu behar zaion ezagutzea ez da guztiz zaila.

-Nola, bada?

-Nork, bada, esan nuen (b) esan lezake hiria doilor zein adoretzu denik, beste edozeri begiraturik, haren alde borroka egiten eta gudura doan aldeari begiratzuz baino?

-Inork ez, esan zuen, beste edozeri begiratuko balio.

-Ez dut uste, esan nuen, hiriko gainerakoak doilor zein adoretzu izan arren gai izan litezkeenik hiria era bateko edo besteko egiteko.

-Ez horixe.

-Eta hiriak, bada, bere baitako alde batean du adorea, alde horretan eta bere bidez halako ahalmena dauka, non, gauza guztien gainetik, beldur izan behar zaien gauzei (c) buruzko eritzia zaindu eta gauzok beti berdinak, legegileak hezkuntzan jarri zituen lakoxeak direla mantenduko duen. Ala ez ote diozu horri adore esaten?

-Diozuna, esan zuen, ez dut guztiz ulertu; esan ezazu berriro.

-Diot, esan nuen, adorea jagote bat dela.

-Zer jagote?

-Hezkuntzaren bidez eta legearen arabera zeintzuk eta nolakoak diren beldur izan behar zitzaien gauzei buruz jarririko eritzia jagotea. Eta jagote bat zela esaten nuen gauza guztien gainetik, baztertu barik, atsekabeetan zein (d) atsegin-aldietan zein nahikerietan zein izu-aldietan dagoenak jagongo duelako. Eta gogoko baduzu, nire ustez zeren antza daukan azaldu nahi dizut.

-Gogoko dut, bai.

-Badakizu, bada, esan nuen, tindatzaileek purpura margoa hartzeraino artilea tindatu nahi dutenean, lehenengo, hainbat margoren artetik mota bakarra, zuriena, aukeratzen dutela, gero aurrez gertatzen dute, ez gertaketa urriz, ahalik eta distiratasunik handiena har dezan kontu izanik, eta horrelaxe tindatzen dute. Eta (e) horrela tindatzen dena tindu galdu ezin bihurtzen da, eta garbikariez zein garbikeririk gabe ikuzteak ezin dio kendu bere distira. Horrelaxe tindatzen ez diren artileak, beste margo bateko artilea tindatu delako edo aurrez gertatu izan ez delako, nolakoak suertatzen diren badakizu.

-Badakit, esan zuen, nabarturik eta barregarri geratzen direla.

-Konturatu zaitez, esan nuen, guk ere, ahalaren arabera, berdin egiten dugula gudariak aukeratzen ditugunean, eta musikan eta gimnastikan hezten 430. ditugunean. Ez dezazula uste izan, legeei ondoen men eginik, tindura antzeko bat har dezaten baino besterik egiten dugunik, euren izaeraren bitartez eta harturiko hezkuntza egokiaren bitartez beldur izan behar zaien gauzei eta gainetiko gauzei buruzko eritzia kendu ezineko bihur dakien, eta, honetarako xaboi eta lixiba oro baino ikaragarriago den

atseginak eta garbiketan beste garbikari oro baino indartsuago diren (b) atsekabearen, beldurraren eta nahikeriaren garbikariek beren tindura ken ez diezaieten. Honelako indarrari, bada, eta gauza guztien gainetik beldur izan behar

zaien eta ez zaien gauzei buruzko eritzi zuzenaren eta bidezkoaren jagoteari deitzen diot nik adore, eta horrelakotzat daukat, zuk besterik esaten ez baduzu.

-Ez, ez diot ezer, esan zuen. Uste dut hezkuntzarik gabe sortzen den gauza hauei buruzko eritzi zuzenari, piztietatik eta joputzatik datorrenari, ez diozula guztiz bidezko erizten, eta adoreari adore ez den beste zerbait deitzen diozula.

-(c) Egiarik handienak diozuz, esan nuen.

-Onartzen dut, bada, hori adorea dela.

-Onar ezazu baita ere, esan nuen, adorea benetan hiriko gauza bat dela eta zuzen egingo zenuke, eta horri buruz ekiterik nahi bazenu beste batean ekingo diogu, oraingoan ez genbiltzan horren bila zuzentasunaren bila baino eta. Uste dut, bada, nahiko dela horren bila egin duguna.

-Ondo diozu, esan zuen.

VIII. - Gauza bi dira, bada, esan nuen, (d) hirian ondino aztertu beharreko geratzen zaizkigunak: neurritasuna eta ikerketa guztia egiten duguneko zuzentasuna.

-Gustiz horrelaxe da.

-Nola, bada, aurki genezake zuzentasuna aurrerantzean neurritasunari buruz ez ekitekotan?

-Nik, bada, esan zuen, ez dakit eta nahi ere ez nuke nahi zuzentasuna lehenago ager dadin, ondino neurritasuna ez dugu aztertu eta; baina niri atsegin egiterik nahi baduzu hura baino lehen hau azter ezazu.

-Nahi dut, bai, (e) benetan, esan nuen, bestela ez nintzateke zuzena izango.

-Aztertu, bada, esan zuen.

-Aztertu beharko da, esan nuen. Hemendik ikusten denez, aurrerago azterturikoak baino sinfonia eta harmonia moduko baten antz handiago dauka.

-Nola?

-Neurritasuna, esan nuen, egokiera bat da, atseginkeria batzuen eta nahikerien barne-jabetasuna, diotenez, baina ez dakit zein zentzutan esaten duten buruaren jabe izan behar dela, eta horrelako beste hainbat gauza haren lorratz bezala direla esaten da. Ala zer?

-Ezer baino gehiago, esan zuen.

-Ez ote da, bada, barregarri "norberaren jabe" izate hori? Zalantza barik, norbera bere buruaren jabe datekeena menpeko ere izango datekeelako, eta menpeko izanik, jabe; 431. esaldi guzti hauetan gizaki bakar bati buruz ari dira eta.

-Eta nola ez?

-Baina, esan nuen, iduritzen zait esaera horrek esan nahi duela gizon berberaren ariman zerbait hobe den gauza bat eta txarrago den beste bat dagoela, eta berez hobe den horrek txarragoa menpera dezanean, horri "buruaren jabe izatea" esaten diotela -benetan goragarria dena- baina, hazkuntza txarragatik edo laguntasun txar batengatik, txarrago den ugariak urriago den hobe menpera dezanean, hori nardakeriatzat gaitzetsi, (b) eta horretan dagoenari norberaren menpe dagoela eta neurrigabea dela esaten zaiolakoan nago.

-Hala dirudi, esan zuen.

-Begira ezazu, bada, esan nuen, gure hiri berri horretarantz, eta bertan gauza biotatik bat aurkituko duzu: eta hari buruz esango duzu zuzen dela bere buruaren jabe dela esatea, baldin hobeak txarragoaren gainetik agintzeari, neurriko izatea eta bere buruaren jabe izatea deitu behar bazaio.

-Begira nabil, esan zuen, eta egia diozu.

-Benetan, bada, guztitariko nahikeria, atseginkeria eta (c) ardura asko, gehienbat, ume, andrazko, etxeko, eta, ezertarako ez badira ere, aske direla esaten zaien gehientsuengan aurki litezke.

-Guztiz horrelaxe da.

-Eta gurari lau eta neurrikoak, aldiz, zentzuz eta eritzi zuzenez eta arrazoiz eramaten direnak, gutxi batzuetan, izaera hoberenekoengan eta ondoen hezitakoengan aurki daitezke.

-Egia, esan zuen.

-Ez ote dituzu, bada, gauza berak hiri barruan ere ikusten, gehiengoa eta (d) ezertarako ez direnen nahikeriak gutxiengo eta gaiago direnen nahikeriez eta adimenez menperaturik daudela?

-Nik neuk bai.



IX. - Hiriren bati, atseginkeriak eta nahikeriak menperatu dituela eta bere buruaren jabe dela esan behar bazaio, gureari esan behar zaio.

-Osotoro, esan zuen.

-Eta gauza guzti hauen arabera, ez ote zaio, baita ere neurriko deitu behar?

-Gehien, esan zuen.

-Eta beste edozein hiritan agindu behar duenari buruz, agintari zein agindupeko (e) eritzi berdinekoak badira, gurean ere berdin egongo da eritzi hori. Ala ez duzu uste?

-Bete-betea, esan zuen.

-Eta hori horrelaxe gertatzen denean, neurritasuna era biotako zein hiritarren artean aurkitzen dela esango ote zenuke? Agintarien, ala agindupekoen artean?

-Bietan nonbait, esan zuen.

-Ikusten duzu, esan nuen, oraintsu zein egoki asmatzen genuen, neurritasunak harmonia moduko zerbaiten antza zeukala?

-Zergatik, bada?

-Adorea eta zuhurtasuna, hiriaren alde batean egonik, bata hiri osoa 432. zuhur eta besteak adoretu egiten duen arren, neurritasunak ez baitu hala egiten; aitzitik, beste barik, hiri guztian barreiatzen dela baino, ahulenak zein indartsuenak zein tartekoak doinu berean abes dezaten lorturik, euren adimen edo indarragatik edo diren kopuru edo aberastasunengatik edo beste hauen antzeko zerbaitagatik mugatzen badituzu ere; arrazoi guztiarekin esan genezake, bada, neurritasuna gogo-aidetasun haxe dela: izaeraren arabera beheragoko denaren eta goragoko denaren arteko sinfonia, biotatik, hirian (b) eta hirikide bakoitzarengan zeinek agindu behar duen.

-Oso-osoan, esan zuen, berdin deritzat.

-Bego, esan nuen; beraz, dirudienez, hiru gauza ikusi ditugu hirian; baina zein izan liteke geratzen zaigun era, zeinen bidez hiriak bertutea eskura lezakeen? Argi dago hori zuzentasuna dela.

-Argi dago.

-Beraz, ene Glaukon, orain guk ehiztari batzuk bezala, sasi-multzoa inguratu behar dugu, zentzu guztia jarriarik, eginik ikustezin bihur ez dadin; hainbatean hor dagoela (c) argi dago eta. Begiratu, bada, eta zorrotz, nik baino lehen ikusten baduzu erakuts diezadazun.

-Ahal banu, esan zuen. Baina nitaz egokiago baliatuko zara, nik jarraiturik, zuk erakutsitakoak ikus ahal baditizat.

-Zatoz nire ondotik, esan nuen, ait eginik.

-Horrelaxe egingo dut baina zuk zuzen nazazu, bederen, esan zuen.

-Benetan, esan nuen, leku zakar eta itzaltsua dela dirudi, izan ere iluna eta ikusgaitza da. Baina berdin da, joan behar dugu eta.

-(d) Goazen, bada, esan zuen.

-Eta begiraturik esan nuen: ene bada, Glaukon! Badirudi lorratzen bat badugula, eta ez dut uste ezelan ere ihes egingo digunik.

-Berri ona diozuna, esan zuen.

-Benetan, esan nuen, hara nolako tentelkeria gertatu zaigun.

-Zein, bada?

-Aspalditik, zorioneko hori, dirudienez hasieratik, gure oin aurretik bilin-bolaka zebilen eta ez genuen bera ikusten, barregarrienak bihurtzen ginelarik; eskuetan zerbait izanik eskuarteko horren bila batzuetan dabilzanen antzera, (e) guk ere horrelaxe ez genion berari begiratzen, nonbait urrunera baino, eta horregatik, beharbada, ezkutatzen zitzaigun.

-Nola diozu? esan zuen.

-Honelaxe, esan nuen. Uste dudanez aspalditik zuzentasunari buruz hitzegiten eta entzuten egon arren ez genuen ulertzen nolabait ere hari buruz ari ginela.

-Hitzaurre luzea, esan zuen, entzuteko irrikan dagoenarentzat.

X. - Baina, esan nuen, entzun iezadazu, bada, 433. zerbait esaten dudanez. Hiri eraikitzen ari ginenean, hasieratik, gauza guztien gainetik egin behar zela jartzen genuena edo antzeko gauza bat da nire ustez zuzentasuna. Eta gogoratzen bazara, zalantza barik jartzen genuen eta esan ere sarritan, hiriarri buruzko arazoetan bakoitzak gauza bati bakarrik ekin behar ziola, izaeraz hoberen ekiteko gai datekeen alorrean.

-Esaten genuen, bai.

-Baita nork berari dagokiona bakarrik egitea eta gauza askotan eskurik ez sartzea zela zuzentasuna, eta hori beste askori ere entzun genion, eta (b) guk geuk ere sarri esan genuen.

-Esan genuen, bai.

-Beraz, bada, esan nuen, ene adiskide, badirudi bakoitzak berea bakarrik egite hori, moduren batean, zuzentasuna izatea gertatu dela. Eta nondik susmatu dudanez badakizu?

-Ez, baina esan ezazu, esan zuen.

-Nire ustez, esan nuen, hirian aztertu genituenetatik, neurritasun, adoretasun eta zentzutasunetik, hau zen aztertzekeo geratzen zena, esaniko guzti hauei sortzerainoko ahalmena eman ziena, eta sortu eta gero, bertan iraun dezan arte jagoten dituen. Esaten genuen baita ere, (c) hiru gauza hauek aurkiturikoan geratzen zena zuzentasuna izango zela.

-Eta behar ere, esan zuen.

-Baina, esan nuen, bertan daudeneko hauetatik zeinek gure hiri on egiten duen ebatzi behar bagenu, erabaki zaila dateke, ausaz, agintari eta agindupekoen arteko eritzi-berdintasuna, ala zeri beldur izan behar zaion eta zeri ez gudarietan dagoen bidezko eritziaren zaintze hori den, ala agintariengan dagoen zentzutasuna eta erretasuna, ala bera (d) gehien on bihurtzen duena, ume, andrazko, jopu, aske, ogibidedun, agintari eta agindupekoengan, bakoitzak dagokionari buruz bakarrik aritzea eta ez gauza askori ala barruratzea den.

-Zaila da, esan zuen. Eta nola ez?

-Hiriaren bertuteari buruz, bada, dirudienek, bakoitzak berea egitearen ahalmen hori, zuzentasuna beraren, neurritasun eta adoretaren pareko da.

-Gehienbat, esan zuen.

-Orduan, hiriaren bertuteari buruz, (e) horien pareko zuzentasuna jar al zenezake?

-Guztiz, bada.

-Honi ere begiratu iezaiozu berdin uste duzun: hirian auziak epaitzea agintariei aginduko al diezu?

-Nola ez?

-Eta epaitzerakoan ardura handiagorik izango ote dute, inork inorena izan ez dezan, eta inori berea ken ez diezaion horretaz baino?

-Ez, horretaz baino.

-Zuzen delakoan?

-Bai.

-Eta bakoitzak berea izate eta egite horri zuzentasuna dela 434. esan ote liezaioke?

-Halaxe da.

-Begira ezazu, bada, nirekin bat zatozen: hargin batek oinetako-konpontzaile baten zereginei ekiteak edo oinetako-konpontzailea harginarenetan aritzeak edo bata-bestearen tresna eta eskubideak elkarri hartzeak edo bata bion zereginak egiteak, beste gauza guztiak aldaturik, hiriari kalte handirik egin liezaiokeenik uste al duzu?

-Handirik ez, esan zuen.

-Baina, uste dut, berez merkataritzarako den ogibidedunen bat edo beste, (b) aberastasunak, jendeak, indarrak edo antzeko zerbaitek bultzaturik, gudari-sailera edo guda-sailekoren bat, horretarako duin ez izanik, onulari eta zaintzaile-sailera igarotzen saia baledi, eta elkarri tresna eta eskubideak alda balitzate, edo bakar bat era berean beste guztienak egiten hasten denean, orduan, uste dut, eta zuk ere berdin uste zenezake, gauza guztion aldaera hori eta esku sartze hori hiriaren hondamendia dela.

-Guztiz, bada.

-Beraz hiru sail hauen arteko esku sartzea eta aldatzea (c) kalterik handiena da hiriarentzat eta arrazoi guztiarekin gaiztakeriarik handiena dela esan liteke.

-Bene-benetan, bada.

-Eta hiriarentzat berarentzat den gaiztakeria handienari ez ote diozu bidegabekeria deituko?

-Eta nola ez, bada?

XI. - Horixe da, bada, bidegabekeria. Eta alderantziz esan genezake: merkataria, laguntzaile eta zaintzaileari dagokien berezko egitekoa, bakoitzak berea hirian egiten duenean, bestearen alderantziz, ez ote liteke hori zuzentasuna izan, eta ez ote lezake hiria zuzena egin?

-Ez dut (d) uste besterik denik, hauxe baino, esan zuen.

-Ondino, esan nuen, ez dezagula guztiz ziur esan; iduri hori gizon bakoitzarenganatuz, han ere zuzentasuna dela aitor badezagu, berehala onartuko dugu-zer gehiago, bada, esan genezake?- Baina horrela ez bada, beste hau aztertuko dugu. Amaitu dezagun oraingoz asmatu genuen ikerketa: zuzentasuna daukatenen arteko izaki handiago batengan ahaleginduko bagina zuzentasuna ikusten, errazago litzateke gero gizon bakar batengan nolakoa dagoen ikustea. Eta (e) izaki hori hiria zela iduritu zitzaigun, eta horrelaxe ahal genuenik eta hoberen eraiki genuen, ondo jakinik benetan hiri on batean egon zitekeela zuzentasuna. Bertan agertu zitzaiguna eraman dezagun berriro gizon bakar horrengana, eta bat baletor ederto izango da; baina bakar horrengan besterik ager baledi, berriro hirira itzulirik egiaztatuko dugu, 435. eta bata bestearekin ikusirik eta elkar igurtzirik, su-abarretatik bezala zuzentasuna biztea lor genezake eta ikusgai bihurtuaz guregan dagoen ziurtatuko dugu.

-Bidezko denez diozu, esan zuen, eta horrelaxe jokatu behar da.

-Agian, esan nuen, gauza bati buruz, handiago edo txikiago izan arren, inork beste baten moduko berdina dela esan baleza, berdin deitzen den horretan desberdin ala berdin izatea suertatzen ote da?

-Berdina, esan zuen.

-Gizon zuzena ere eta hiri zuzena (b) ez dira zuzentasunari buruzko iduri horren arabera desberdin izango, berdin baino.

-Berdin, esan zuen.

-Benetan, bada, hiria zuzena zela iduritu zitzaigun horretan zeuden jatorrizko hiru sailok bakoitzak bereari ekiten ziotenean, eta gainera, jatorrizko sail hauen beste izaerak eta jaidurak direla eta, neurridun, adoretsu eta zuhur iduritu ere.

-Egia, esan zuen.

-Beraz, ene adiskide, bere ariman hauetariko mota hauek berak (c) dauzkan gizabanakoari, haien izaera bereko badira, hiriari dagokion izen beraz deitzea zuzen dela uste izango dugu.

-Guztiz beharrezko, esan zuen.

-Gainera, esan nuen, ene harrigarri hori, arimari buruzko zalantza tentel batekin aurrez aurre topo egin dugu: hiru mota hauek beregan dauzkan ala ez.

-Ez deritzat, esan zuen, guztiz tentela denik; izan ere, ene Sokrates, agian, egia da gauza ederrak gaitz direla dioen esaera.

-Hala dirudi, esan nuen; jakin ezazu eta ondo, ene Glaukon, (d) nire eritziz, autu hauetan darabilzkigun bezalako metodo edo ibilbide hauekin, hori ondo jakitea sekula ez dugula lortuko; horra daraman bidea luzeago eta handiago da, baina, beharbada, aurrez esaniko eta azterturikoentzat behar adinakoa.

-Onargarria, beraz? esan zuen. Niretzat, bada, oraingo honetan nahikoa dateke.

-Niretzat ere, esan nuen, guztiz nahikoa izango da.

-Horregatik, esan zuen, ez zaitezela ahuldu eta ekin aztertzen.

-Ez ote dugu, bada, (e) guztiz beharrezkoa, benetan, gutariko bakoitzarengan, hirian dauden mota eta jaidura berak daudela aitortzea? Benetan hiriari beste inondik ez zaizkio sortzen eta. Barregarri liteke baldin inork hiriei kementasuna, Thrakian eta Skythian eta ia iparralde osoan bezala, kementsu-ospea duten gizabanakoetatik ez datorkiela uste baleza; eta berdin gehienbat, gure lurraldeari egotzi liezaiokeen jakinminaz edo, 436. eta ez gutxiago, phoinikiarrei eta aigyptiarrei buruzko diruzaletasunaz norbaitek hori bera esan baleza ere.

-Gehienbat, esan zuen.

-Hori, bada, horrelaxe da, esan nuen, eta ez da zail jakiten.

-Ez horixe.

XII. - Eta zail dena, gauza guztiak horrelako bakar baten bidez ala, eurak hiru izanik, gauza bakoitza haietariko bakoitzaren bidez egiten dugun jakitea da; zail da jakitea ea halako baten bitartez ikasten dugun gudan dagoen beste baten bidez haserretzen, eta hirugarren horrekin jateari, ernaltzeari edo hauen senitarteko diren guztiei buruzko nahikeriak (b) nahi izaten ditugun, ala horrelako gauza bakoitza, egiten hasten garenean, arima osoarekin egiten dugun. Honako hauexek bai behar den bezala arrazoiz mugatzeko zail izango direla.

-Nik ere berdin deritzat, esan zuen.

-Horrelaxe, bada, euren artean berdinak diren ala ez ebazteko ekingo diogu.

-Nola?

-Argi dago gauza berak, aldi eta alde berean eta berarekiko, ez dituela alderantzizkoak ez egin eta ez jasan ahal izango. Eurretan hori gertatzen dela aurki badezagu jakingo dugu (c) ez zela bat, asko baino.

-Bego.

-Diodana aztertu, bada.

-Esan, bada, esan zuen.

-Ahalezko ote da, bada, esan nuen, gauza berbera, une berean, eta atal berean geldi egotea eta ibiltzea?

-Ezelan ere ez.

-Zehatzago aitortu dezagun ondino, aurrerantzean eztabaidan jar ez gaitezen. Inork esan baleza gizon bat geldi dagoelarik, baina eskuak eta burua darabiltzala, era berean geldi dagoela eta ibili dabilela, ez dut uste horrela esatea ontzat har genezakeenik, haren alde bata (d) egonean dagoela eta bestea badabilela baino. Ez ote da horrelaxe?

-Horrelaxe.

-Orduan, honakoxeak baino barregarri handiagoak ganoraz esan balitza, adibidez, zibak, zorrozgunea leku berean ezarririk jirabira dabiltzanean, geldi-geldi egoten direla eta alde berean ibili egiten direla, edo gauza bera gertatzen dela beste edozerekin ere, iraulika egon arren bere ardatzetik aldentzen ez delako, ez geniezaioke onar ez baitira geldirik egoten, ezta ibiltzen beren aldi eta alde berean; (e) aitzitik, esan genezake horrelakoetan marra edo erro zuzen bat eta itzulinguru biribil bat baino ez dagola, - inorantz ez baitira saihesten- eta ez dutela zirkinik egiten euren itzulinguru biribilean baino, eta bere erro zuzen hori eskumaldera edo ezkerrera, aurrerantz edo atzerantz saihesten denean, jirabiraka dabiltzan bitartean, orduan, ezelan ere ez daudela geldi.

-Benetan zuzen, esan zuen.

-Esaniko hauetatik ezerk ez gaitu harrituko, ezta areago etsiko ere, 437. inoiz ezerk, gauza bera izanik aldi eta alde berean eta berarekiko, alderantzizkoak jasan, izan edo egin litzazkeenaz.

-Benetan, niri ere ez, esan zuen.

-Baina beharbada, esan nuen, eztabaida hau luzatu beharrik izan ez dezagun, guzti hauen aurka eginez eta egia ez dela esanez, arazoa horrelaxe dela jar dezagun eta egin dezagun aurrera, akorduan jarririk, gauza horiek inoiz, era horrertaz beste ager badaitez, hortik datorkigun guztia baztertua izango dela.

-Horrelaxe egin behar da.

XIII. - Ausaz, bada, (b) esan nuen, baietz eta ezetz esatea, edo zerbait erdietsi nahi izatea eta ezezte, edo norberagana erakartzea eta alderatzea, aurkako direnen artean jarriko zenituzke gauza guzti hauek, ekintzak zein jasapenak badira ere? Hainbatean hor ez dago ezer bereizgarririk.

-Aurkako direnen artean, esan zuen.

-Zer, bada? esan nuen, egarria eta gosea, eta batez ere nahikeriak eta areago, gogo izatea eta nahi izatea ez ote zenituzke gauza guzti hauek oraintsu esaniko (c) moten ondoan jarriko? Ez ote duzu esango zerbaiten gogoz dagoenaren arima, benetan, nahi dezakeen gauza horren atzetik doala beti, edo lortu nahi dezakeen hori beragana erakartzen duela, edo, areago, zerbait eskura diezaioten nahi izaten duen bakoitzean, norbaitek galdetuko balio bezala, lortzeko guraria biztuz, bere buruari baietza ematen diola?

-Nik bai.

-Eta zer? Nahi ez izatea edo zaleturik ez egotea edo gogorik ez izatea, ez ote dugu ezestearen eta beragandik urruntzearen edo haien aurkako diren gauza guztien ondoan jarriko?

-Nola (d) ez, bada?

-Gauzak honelaxe izanik, ez ote dugu esango nahikerien artean mota berezi bat dagoenik, eta euren artean nabarmenen agertzen direnei, batari egarri eta besteari gose deitzen diegula?

-Esango dugu, esan zuen.

-Ez ote da bata edariaren nahikeria, eta janariena bestea?

-Bai.

-Ausaz, bada, egarria egarri bezala izan ote liteke ariman aipatu dugun nahikeria baino gehiago; adibidez, egarria, edari bero ala hotzarena, asko ala gutxirena, edo, esate baterako, edari-mota batena da? Edo egarriari berotasun zenbait gaineratzen bazaio ez ote lekarke horrek edari (e) hotzaren nahikeria, eta hoztasuna gehitzen bazaio edari beroarena? Eta bere bizitasunagatik egarria handi ager baledi, edari ugariren nahikeria sortuko da, eta txiki ager baledi, edari gutxirena? Egardia bera beste ezerena izan ote daiteke berez dagokion edari berarena baino, gosea ere janariaren nahikari den bezala?

-Horrelaxe da, esan zuen, nahikeria bakoitza berez dagokionarena da; halakoarena edo horrelakoarena izatea, berriz, gehigarri.

-438. Ez gaitzala, bada, esan nuen, inork aztoratu gertu ez gaudelako, esanez, inork ez duela edaririk nahi izaten, edari ona baino, ezta janaririk, janari ona baino, benetan, denok gauza onak nahi izaten ditugulako. Egardia, bada, nahikeria bat bada, gauza on batena dateke, edariarena zein beste edozerena, eta gaineko nahikeriak, berdin.

-Beharbada, esan zuen, horrelakoak diozenak zer edo zer esaten duela uste izango du.

-Halere, esan nuen, zerbaitena izatea dagokion orori, (b) ene ustez, halakoari halakoarena dagokio, bakoitzari, ordea, bakoitzarena berarena bakarrik.

-Ez dut ulertu, esan zuen.

-Ez ote duzu ulertu, esan nuen, handiagoa, zerbaiten arabera dela handiago?

-Guztiz, benetan.

-Orduan, txikiago denaren arabera?

-Bai.

-Eta benetan, askoz handiago dena, askoz txikiago denaren arabera. Ala zer?

-Bai.

-Agian, bada, txikiago zenaren arabera lehen handiago zena, etorkizunean ere, handiago izango ote da, txikiago izango denaren arabera?

-Zer besterik, bada? esan zuen.

-Ez ote da baita ere honelaxe, gehiago dena, gutxiago denaren arabera, (c) eta bikoitza dena erdia denaren arabera, eta honelako gauza guztiak: astunagoa arinagoarekiko, eta bizkorragoa geldiagoarekiko, eta baita beroa hotzarekiko, eta hauen antzeko beste guztiak ere ez al dira horrela?

-Guztiz, bada.

-Eta zer, jakintzei buruz? Ez ote da gauza bera? Jakintza bera, bere ikaskizunaren beraren jakintza da, edo aritu behar duenekoaren jakintza; jakintza era batekoa edo bestekoa da, era bateko edo besteko ikaskizunaren arabera. Adibidez diot: (d) ez ote da bada, etxeak egiteko jakintza sortu zenean, beste jakintzen artetik aldendu zela etxegintza izena izateraino?

-Nola, bada?

-Ez ote da den lakoxea, beste guztien artetik berezia delako?

-Bai.



-Ez ote zen, bada, bera halako bat izatera heldu, halako batena izatea zegokiola? Eta beste trebetasun eta jakintzaz ez ote da berdin?

-Horrelaxe da.

-XIV. Onartzazu, bada, esan nuen, hauxe zela lehen nik esan nahi nuena, oraingoan ulertu baduzu behintzat: zerbaitena izatea dagokion orori, den bera izatea berari bakarrik dagokio, halako bat izatea, berriz, (e) halako batena denari. Baina ez dut esaten halakoak diratekeena gauzok ere direnik, adibidez, osasun eta gaixotasunei buruzko jakintza osasuntsu eta gaixo denik edo gauza txar eta onei buruzkoa, jakintza txar eta ona denik; bestalde, ez zen jakintza bilakatu, bere gaia jakintza bera zelako, halako batena zelako baino, eta halako hori, osasuntsu eta gaixo izatearena zenez, halako zientzia izatera iritsi zen bera ere; eta horrek egiten du soilik jakintza deitu ez izatea, gehitu zaion zerbait horren arabera sendakuntza-jakintza deitua izatea baino.

-Ulertu dut, esan zuen, eta horrelaxe dela deritzat.

-Eta egarria bera, den horrengatik berarengatik, esan nuen, ez 439. ote duzu jarriko berez zerbaitenak direnen artean? Izan ere egarria...

-Niretzat, esan zuen, edariarena da benetan.

-Ausaz, edaria nolakoa den, egarria ere ez al da halakoa? Egarria bera, ordea, ez edari askorena, ez gutxiarena, ez onarena, ez txarrarena, hitz batean erraiteko, ezta halako batena ere, aitzitik, ez ote da berez edariaren beraren egarria bakarrik?

-Guztiz horrelaxe da.

-Egarri denaren arimak, beraz, egarri den bakoitzean ez du besterik nahi izaten edatea baino, horretara (b) jotzen du eta edarirantz abiatzen da.

-Argi dago.

-Orduan, inoiz ezerk haren egarriari atzera egiten badio, ez ote dago egarri den eta piztia bezala edatera bultzatzen duen harengan beste zerbait? Zeren esaten genuenez, ezerk ezin du aldi berean eta zeregin berberari buruz osterantzekorik egin.

-Ezinezko da.

-Adibidez, uste dut, gezilariari edo uztailariari buruz ez dagoela zuzen bere eskuak era berean uztaia aldentzen eta erakartzen dutela esatea, esku bata aldentzen eta besteak erakartzen duela baino.

-(c) Guztiz horrelaxe da, esan zuen.

-Esan ote genezake badela inor egarri izan arren edaterik nahi ez duenik?

-Bai horixe, esan zuen, asko eta sarri.

-Zer bada, esan nuen, esan daiteke horiei buruz? Ez ote dago euren arimetan ezer alde batetik edatera bultzatzen dituen eta bestetik eragozten diena, hau desberdin eta bultzagilea baino indartsuago delarik?

-Hala deritzat, esan zuen.

-Eta eragozle den hau, sortzen denean, ez ote da adimenetik (d) sortzen, eta eraman eta eragiten dieten besteak ez ote datozkie jaidura eta gaixotasunetatik?

-Badirudi.

-Arrazoiz, bada, esan nuen, uste izango dugu gauzok bi eta elkarren aurkako direla, alde batetik, arrazoitzearen bide denari arimaren adimena deituz, eta, bestetik, zaletasunaren, gosearen, egarriaren eta gaineratik nahikerien bide; eta hainbat betekada eta atseginen kide direnei adimengabetasuna eta nahikeriatasuna.

-Bai, baina beharrezko dateke, (e) esan zuen, horrelaxe uste izatea.

-Mugaturik jar ditzagun, bada, esan nuen, arima barruan dauden mota bi hauek; eta kemena eta kementsu egiten gaituen hori ausaz hirugarren motaren bat ote da, ala haietako bata edo bestearen izaerakoa?

-Berdin, esan zuen, batarena, nahikeriarena.

-Bestalde, badut, esan nuen, horretaz sinesmenik, behinola horrelako zerbait entzun ondoren: Nola Leontios, Aglaionen semea, Peiraieusetik, ipar-harresiko kanpoko aldetik gorantz zihoala, borreroaren ondoan hildako batzuk etzanik zeudela ohartu zenean, batetik ikustea irrikatzen omen zuen eta aldi berean, gogogabeturik, atzera egiten, bere burua borrokatu eta gordetzen zuen bitartean; 440. nahikeriaz bada, azkenean menperatua izan zenean, begiak zabal-zabal eginik, arineketan gorpuen ondora joanaz, hala esan omen zuen: "Ikusazue, ene zorigaiztokook, eta ase zaitezte ikuskizun eder horrekin."

-Nik ere, esan zuen, entzuna neukan.

-Gertakizun honek, bada, adierazten du batzuetan kementasunak nahikerien aurka borrokatzen duela, haietarik gauza desberdin bat balitz bezala.

-Adierazten du, bai, esan zuen.

XV. - Ez ote gara konturatzen, esan nuen, beste sarri askotan ere, nahikeriek inor arrazoiaren aurka behartzen dutenean, (b) bere buruari laido egiten dioela hark, eta bere barruan behartzen duenarekin haserretzen dela, eta arerio biren arteko borrokan bezala halakoaren kemena arrazoiaren aldeko bihurtzen dela? Ez dut uste esan zenezakeenik zuregan zein beste inorengan inoiz ikusi duzunik, horrelakorik gertatuz gero, arrazoiak zerbait ez dela egin behar agintzen duenean kemena nahikerien alde jartzen.

-Ez, Zeusarren, esan zuen.

-Zer, esan nuen, (c) gertatzen ote da inork bidegabekeria egiten duela uste duenean? Zenbat eta jatorragoa datekeen, ez ote da hainbat gutxiago haserretu ahal, gosea, hotza edo beste honelakoak jasan arren, gauza hauek jartzen dizkionarekin, zuzen jokatzen duela uste duelako, eta esaten dudanez, ez al da egia bere kemenak ez duela haren aurka jaikitzerik nahi?

-Egia, esan zuen.

-Eta zer inork bidegabekeria jasaten duela uste duenean? Ez ote du bere barruan kementasunak irakiten, ez ote da haserretzen eta borrokatzen zuzena dela uste duenaren alde, eta gosea zein hotza zein beste honelakoak (d) jasan arren ez ote daramatza garaitu arte eroapenez, eta ez al da egia ez dela asmo zuzenetan eurak bete arte edo hondatu arte edo baretu arte geratzen, arrazoiak atzera egiteko dei egiten dionean, artzainak txakurrari egiten dion bezala?

-Bete-betea, esan zuen, esaten duzunak horren antza daukala; benetan txakurrak bezala, gure hirian laguntzaileak jarri genituen artzain bezala diren hiriko agintarien menpe.

-Ederto, esan nuen, ulertu duzu esan nahi nuena, baina horrez gain beste hau ere gogotan hartuko ote duzu?

-(e) Zein, bada?

-Kemenari buruz orain arte agertzen zaigunaren osterantzekoa. Lehen uste genuen kemena bera nahikeriazko zerbait zela, baina orain beharrezkoago dugu aitortzea arimako eztabaida-borrokaldean berak, gehienbat, arrazoiaren alde jartzen dituela iskiluak.

-Guztiz, esan zuen.

-Arrazoiak besterik ote da, ala arrazoiaren motaren bat, hiru beharrean ariman bi bakarrik izateraino, hau da, adimena eta nahikeria? Ala hirian hiru izaera, 441. merkataritzakoa, laguntzakoa, kontseilaritzakoa batzen zirenez, horrelaxe, ez ote da ariman ere hirugarrena kemena izango, adimenaren berezko laguntzaile, hazkuntza txar baten bidez gal ez baledi?

-Beharrezko da, esan zuen, hirugarren hori.

-Bai, esan nuen, adimenetik desberdin dela ager baledi, nahikeriatik besterik zela agertu zen bezala.

-Ez da zail, esan zuen, ikusten; benetan edozeinek ikus lezake hori umeetan ere, jaio berritan kemenez beterik daudela, eta adimenari buruz iduritzen zait (b) batzuek ez dutela sekula lortzen eta gehienek berandu batean.

-Bai, Zeusarren, benetan ederto diozu. Diozuna edozeinek ikus lezake, piztietan ere horrelaxe delako. Horrez gainera gorago esaten genuen Homerosena lekuko izango da:

"Eta bular-joka haserre egiten zion bere bihotzari esanez..."

Hor Homerosen argi azaldu zituen gauza desberdin bezala, batak besteari haserre egiten: (c) hobeari eta txarragoari buruz pentsatzen duena, pentsatu gabe sumintzen denaren aurka.

-Osotoro, esan zuen, zuzen diozu.

XVI. - Gauza guzti hauetarik, bada, esan nuen, onik irten gara, eragozpenak izan arren, eta egokiro bat egin dugu hirian aurkitzen diren izaera berberak guretariko bakoitzaren arima barruan eta kopuru berdinean daudela.

-Halaxe da.

-Ez ote da orain beharrezko gizakia ere, hiria zen bezala, eta arrazoi beraz zuhur izatea?

-Nola ez?

-Eta gizakia adoretu den bezala eta arrazoi beragatik, ez ote da beharrezko baita hiria ere berdin (d) adoretu izatea, eta berdin bata eta besteak bertuteari buruz dauzkaten beste gauza guztietan?

-Beharrezko.

-Uste dut, ene Glaukon, baita ere, hiria zuzena zen era berdinean gizona ere zuzena dela esango dugula.

-Hori ere, guztiz beharrezko.

-Baina inolaz ere ez genuen ahaztu, hartan hiru izaera izanik, bakoitza bakoitzari dagozkion gauzetan aritzen zelako hiria zuzena zela.

-Ez dut uste ahaztu genuenik, esan zuen.

-Guk ere gogoan izan behar dugu, beraz, gutariko bakoitza zuzen izango dela eta dagozkiona egingo duela, bere barnean daudenetako bakoitzak bereak (c) egin baditza.

-Bai horixe, esan zuen, gogoratu behar da.

-Ez ote dagokio ausaz adimenaren izaerari agintea zuhur delako eta arima guztiko ardura daukalako, eta bere esaneko eta gudukide izatea kemenezko beste izaerari?

-Gustiz, bada.

-Eta esaten genuenez, ez ote da musika eta gimnasiaren nahaste horrek, biok akorduz jartzen dituen, bata teinkatuz eta hitz 442. ederrez eta irakaspenez elikatuz, eta bestea, onu bidez sosegatuz eta harmoniaren eta erritmoaren bitartez baketuz?

-Bene-benetan, bada, esan zuen.

-Eta horrela, horrelaxe hazi eta benetan euren gauzetan ikasi eta hezi izanik, nahikeriazko izaera hori -bakoitzaren arimarik gehiena daukana eta berez ase ezina dena- gaindituko dute; zaindu egin behar da gorputz atsegina omen delakoaz bete-bete egin ondoren, hazi eta indartsu bihurturik, berari dagozkionetan ekin beharrean, izaera berari ez dagozkionak bere morroitzapean (b) eta agintepean jartzen saia ez dadin, eta gainerako guztien bizitza osoa nahas ez dezan.

-Gustiz, bada, esan zuen.

-Ez ote dira, bada, esan nuen, haiexek biak arima osoa eta gorputza ere, kanpoko arerioetarik zain litzaketenak, bata erabakiak hartuz eta besteak agintariari jarraituz borrokan eginez eta, adoretu, haren erabakiak beteaz?

-Horrelaxe da.

-Eta uste dut, atal hori dela eta, adoretu deitzen diogula bakoitzari (c) haren kemenezkoak, ezbehar eta atseginen artetik, beldurgarri denari eta ez denari buruzko arrazoiaren agindua gorde dezakeenean.

-Zuzen benetan, esan zuen.

-Eta zuhurra, berriz, harengan nagusitasuna izan eta hiruren arteko batasun osoari eta bakoitzari komeni zaionaren jakintza beragan izanik, gauzok agintzen dituen osagai txiki hura dela eta.

-Guztiz, bada.

-Eta zer? Ez ote diogu neurriko deituko euren (d) arteko maitasun eta akorduagatik aginteduna eta agindupeko biak adimenak agindu behar duela bat datozenean eta honen aurka jaikitzen ez direnean?

-Neurritasuna, zalantza barik, esan zuen, ez da besterik horixe baino, hirian zein gizabanakoagan ere.

-Eta sarritan esan dugun arrazoi horregatik ere, zuzena izango da.

-Guztiz beharrezko.

-Zer, bada? esan nuen, ez ote zaigu zuzentasuna ilunduko, hirian agertzen zenekotik zerbait desberdin dela uste izateraino?

-Nik ez dut uste, esan zuen.

-Arazo honetan, bada, esan nuen, erabat (e) ziur izateko, ondino gure ariman zalantzarik balego, gauza arrunt batzuk gaineratzea baino ez dugu.

-Zeintzuk, bada?

-Honako hau adibidez: akorduan jarri behar bageneza hiriari buruz eta sortzez eta hazkuntzaz honek antzeko duen gizonari buruz, ea pentsupean urrea edo zilarra hartzen duen horrek lapur dezakeela dirudien; nork uste duzu pentsa dezakeela hori egin dezakeenik horrelakoak ez direnek baino?

-443. Inork ez, esan zuen.

-Ez ote legoke gizon hori eliz hustuketa, lapurketa, eta saldukerietatik ixilpeko zein azaleko, lagunaren zein hirien aurkako ekintzetatik at?

-At.

-Eta ezelan ere ez ote litzateke, zin eta beste akorduei buruz hitz-usteleko?

-Nola izan liteke, bada?

-Ezkontza-lohitzeak, gurasoenganako arduragabekeriak eta jainkoenganako nardakeriak honi ez beste, edonori egoki izango zaizkio.

-Edonori, zinez, esan zuen.

-Ez ote da, bada, guzti (b) horren zergatia, agintzeari zein agindua izateari buruz, haren osagai bakoitza berari dagokionean ari dela?

-Horixe, bada, eta ez besterik.

-Bila ote zabiltza ondino zuzentasuna honako gizon eta hiriak sortzen dituen indarraz beste zerbait delakoan?

-Zeusarren, esan zuen, ni neu ez.

XVII. - Azkeneraino bete izan zaigu amesten genuena, hau baikenioen: hiria eraikitzen hasi orduko, jainkoren baten laguntzaz zuzentasunaren hastapen (c) edo irudiren batera iritsiko ote ginen susmatzen genuela.

-Bete-betea, bada.

-Bagenuen benetan, ene Glaukon, -eta mesedegarri ere izan dugu- zuzentasunaren iduri antzeko bat, zera, izaeraz oinetakogile denak zuzen duela oinetakogintzan aritzea eta ez beste ezertan, eta eraikitzailea, eraikintzan eta gainerakoak ere, berdin.

-Badirudi.

-Eta benetan, dirudienez, zuzentasuna horrelako zerbait zen, baina ez gizakiaren (d) gauzei buruzko kanpoko eginkizuna, barrukoa baino, benetan, bere buruari eta bere baitan dauden gauzei buruzkoa baino; gizonak bere barruko izaki bakoitzari, ez bestearenak egiten, ez arimako beste izakien zereginetan eskurik sartzen uzten ez diona, benetan bere arazoak zuzen tolesten, bere buruaren jabe egiten eta moldatzen, bere

buruagaz lagun egiten, bere izaera hirukoitza harmonian jartzen eta, beste barik, harmoniaren hiru mugak, goikoa behekoa eta erdikoa (e) eta tartekoa besterik bada, batean jartzen diren bezala, gauza guztiok elkar loturik eta guztietan askotarik bat eginaz neurridun eta harmoniadun egiten duena baino; honezkero, ezertan jokatzekotan, honelaxe jokatzeko du, aberastasunak eskuratzen zein gorputza zaintzen zein hiri-arazoetan zein banakako harremanetan; eta gauza guztietan jarrera hau gorde eta indartzen duen ekintza zu-

zentzat eta edertzat ere dauka ustez eta esanez; eta zuhurtasuntzat, berriz, ekintza honen gidari den jakintza, eta bidegabetzat 444. jarrera hori beti honda dezakeena, eta ezjakintasuntzat gidari den ustea.

-Guztiz, esan zuen, ene Sokrates, egia diozu.

-Bego, esan nuen; ez dut uste gezur handirik esandakoaren itxura geneukanik, gizon zuzena eta hiri zuzena eta eurretan suertatzen den zuzentasuna aurkitu genuela esaten genuenean.

-Ez, bada, Zeusarren, esan zuen.

-Esan genezake, beraz?

-Esan genezake.

XVIII. - Hala izan bedi, esan nuen; honen ondoren bidegabekeria aztertu behar dela uste dut.

-Argi dago.

-Hori ez ote da, bada, derrigorrez, hiru izakien (b) arteko matxinada bat, eta ekintza askotan eta besteenetan eskusartze bat, eta arima osoaren aurka atal baten matxinada bat, honengan agintzearren, nahiz eta ez dagokion, aitzitik, izatez batari menpeko izatea eta besteari, agintaritzako izakia denez, ez menpeko izatea dagokion? Uste dut honakoak esango ditugula eta baita ere izaki hauek nahastea eta galtzea, bidegabekeria, neurrigabekeria, doilorkeria eta ezjakintza bat dela, eta oro har, egin-egineko txarkeria.

-Horrelaxe dira, bada, (c) esan zuen.

-Ez ote da, esan nuen, bidegabekeriak egitea eta bidegabe izatea, eta alderantziz, gauza zuzenak egitea, gauza guztiok honezkero guztiz nabari suertatzen direla, bidegabekeria eta zuzentasuna ere argi agertzen badira?

-Nola, bada?

-Ez direlako, esan nuen, gauza osasungarri eta gaixogarrietarik ezertan bereizgarri suertatzen, azkenekook gorputzean eta besteak ariman bereizgarri suertatzen ez diren bezala.

-Zergatik? esan zuen.

-Osasungarriak osasuna dakarrelako eta gaixogarriak, gaixotasuna.

-Bai.

-Alde batetik gauza zuzenak egiteak ez ote dakar zuzentasuna, eta bestetik bidegabekeriak egiteak (d) bidegabekeria?

-Beharrezko.

-Eta osasuna ekartzea gorputzean dauden gauzak izaeraren arabera batzuk agintean eta besteak agindupen jartzea da, eta gaixotasuna izaeraren aurka elkar agindu eta azpiratzea?

-Horrelaxe da, esan zuen.

-Bertutea, bada, dirudienez, osasun antzeko zerbait dateke, arimako edertasun eta jarrera on bat; eta txarkeria, aldiz, gaixotasun, itsuskeria eta makaltasun bat.

-Halaxe da.

-Ez ote du, bada, ekandu onak bertutea lortzera eramaten eta ekandu itsusiak, txarkeriara?

-Beharrezko.

XIX. - Dirudienez, orain aztertzeko geratzen zaiguna zera da: ea gauza zuzenak egitea eta 445. gauza ederretan ahalegintzea eta zuzen izatea, horrelakoa izanik gorderik geratu arren edo ez arren, onuragarri den, ala, zigorrik ordaindu ez arren edo zigortuaz hobe bihurtzerik behar izan ez arren, bidegabekeria egitea eta bidegabe izatea.

-Baina, esan zuen, ene Sokrates, honezkero azterketa hori barregarri dela iduritzen zait, alde batetik gorputzaren izaera hondatuz gero bizitza ezinezko dela uste badugu, janari eta edari guztiak zein aberastasun eta aginte guztiak izan arren, eta bestetik bizi litekeenik bizi gareneko izaera berori nahastu eta (b) hondatuz gero, inork nahi lukeena eginez, txarkeriatik eta bidegabekeriatik aldentzera eragiten diona, eta zuzentasuna eta bertutea eskuratzen daramana baino izan ezik, bata eta bestea, esaten genuenez, horrelakoxeak direla agertzen bazaizkigu.

-Bai, barregarri da, esan nuen. Baina, berdin, gauza horiek horrelaxe direla argitasun handienarekin ikus litekeen leku honetara heldu garenez gero, ez da komeni etsitzerik.



- Ezelan ere ez, Zeusarren, ezergatik ere ez da etsi behar.
- Begiratu orain, (c) esan nuen, ikus dezazun, nire ustez txarkeriak zenbat ikuspegi dituen, ikusgarrienak behintzat.
- Jarraitzen dizut, esan zuen, esaterik baino ez duzu.
- Ederto, esan nuen, autu honetan honaino igo garenez gero, talaia batetik bezala agertzen zait bertutearen ikuspegia bakarra dela, eta txarkeriarenak aldiz, amaigabeak, hauetan gogoragarrienak guztietara lau izan arren.
- Nola diozu? esan zuen.
- Zenbat eta, esan nuen, jaurgio-era berezi diren, hainbat arima-era suertatzen da.
- Zenbat, (d) bada?
- Bost jaurgio-era batetik, esan nuen, eta bost arima-era bestetik.
- Esan zeintzuk, esan zuen.
- Diot, esan nuen, bat, guk azaldu dugun jaurgio-era datekeela, deitu, aldiz, izen birekin dei lekioke: agintarien artetik gizon bakar bat nabarmentzen denean, erresuma dei lekioke, asko direnean, aristokratia.
- Egia, esan zuen.
- Hori, bada, esan nuen, bakarra dela diot; (e) ez askok, ez batek, ez bailezake alda aipatzea merezi duen hiri-legerik, azaldu dugun hazkuntzaz eta hezkuntzaz baliatuz.
- Ez litzateke bidezko izango, esan zuen.

449. - I. Honelako hiri eta hiri-eratzeari deitzen diot zinez on eta zuzen, eta baita honako gizon honi ere; eta hau zuzen badago, gainerako hiri-eratzeta eta gizabanakoen arimaizaerari buruzko eraketak txarrak eta okerrak dira, bere txarkeriok lau erakoak direlarik.

-Zeintzuk dira, bada, eurak? esan zuen.

-Eta banan-banan esatera nindoanean nola nire ustez eurretatik bakoitza (b) zetorren, Polemarkhosek -Adeimantos baino urruntxeago ezarririk zegoen eta- eskua luzaturik eta sorbalda ondotik, haren gaineko soinekoari goiko aldetik oraturik, beregana erakarri zuen eta bera aurreratuz eta makurturik esan zionetik, hauxe baino besterik ez genion entzun: Utziko dugu, bada, esan zuen, ala zer egingo dugu?

-Ezta gutxiagorik ere esan zuen Adeimantosek, oraingoan ahots ozenez.

-Eta nik, zer da gehienbat, esan nuen, uzten ez duzuen?

-Zu zeu, esan zuen.

-(c) Zergatik, batez ere? esan nuen.

-Nagitzen ari zareneko antza ematen diguzu, eta arazoa ez azaltzearren, eztabaidaren ikuspegi oso bat, eta ez txikiena, lapurtzen diguzu, eta ezkutuan geratuko dela uste izan duzu, beste barik, emazte eta umeei buruz, lagunuen gauzak elkarrenak<sup>1</sup> direla, denentzat garbi dagoela esanaz.

-Ez ote dago bada zuzen, esan nuen, ene Adeimantos?

-Bai, esan zuen. Baina zuzen hori, gainerako gauzak bezala, eztabaidaren beharrean dago, hori zein eratako elkargoa den, era askotakoa izan liteke eta. Diozun erako hori ez dezazula bazter. Guri dagokigunez, aspalditik (d) zain gaude, usterik, beharbada zuk ume-edukitzeari buruz zerbaite aipatuko duzula, nola ekarriko diren, eta ekarri eta gero hazi, eta andre eta umeei buruz diozun elkargo guzti horrezaz; uste baitugu horretan ezer handi ez ezik, dena doala politeia alor horretan ondo edo txarto gertatzea. Orain, bada, beste hiri-eraketa bati eskua jarri diozunez, gauza hauek behar diren beste jorratu barik, entzun duzuna ebatzi izan dugu, zuri 450. ez uztea hauek guztiok besteak bezala azal diezazkiguzun arte.

-Ni ere, bada, jar nazazue, esan zuen Glaukonek, ebatzi horren kide.

-Ez ahaztu, esan zuen Thrasymakhosek, eta ohartu, ene Sokrates, hau guztion erabakia dela.

II. - Nola, esan nuen, aritu zareten ni harrapatzearren! Berriro, hasieran bezala, zenbat eztabaida eragiten duzuen hiri-eraketari buruz. Honez gero amaitu nuelakoan pozik nengoen ni eta lasai, orduan esan zenaren arabera ontzat harturik, arazoa alde batera utzi zenutelakoan. Orain (b) eskatzen dituzuenekin ez dakizue nolako eztabaida galanta eragiten duzuen. Hori ikusirik orduan nik alde batera utzi nuen gogait handirik ekar ez ziezagun.

-Zer, bada? esan zuen Thrasymakhosek, hauek eztabaidak entzutera beharrean urretzera<sup>2</sup> etorri direla hona uste ote duzu?

-Bai, esan nuen, baina neurritz, zinez.

-Baina, ene Sokrates, esan zuen Glaukonek, benetan zentzudunarentzat honako eztabaidak entzuteko neurria, bizi osoa dateke. Utzi alde batera gure arazoa eta zu, itaunduko dizkizugun gauzei buruz, ezelan ere ez zaitezela asper uste duzuna esaten; azal diezazkizun zein (c) izango den gure zaintzaileen<sup>3</sup> artean ume eta emazteei buruzko erkidegoa, eta ume direneko hazkuntza zein izango den, eta nolakoa jaiotzatik hezkuntza bitartean arduratsuen dirudien hazkuntza. Ahalegindu zaitez, bada, nolakoa izan behar duen esaten.

-Ez da erraz azaltzen, zorioneko hori, esan nuen, lehen azaltzen genituenak baino sinesgaiztasun ugariago dauzkalako oraingoan. Zeren ahalezko bezala dela esan baledi ez litzateke sinetsiko, eta benetan gerta baledi (d) gauzarik hoberena datekeenik ez

litzateke sinetsiko eta. Horregatik, bada, gogait-apur bat egiten dit horietan esku-sartzeak, ene lagun maite hori, nire esana amets bat dela uste izan ez dadin.

-Ez zaitez larri, esan zuen, entzungo dizutenak ez direlako ez ezjakin, ez sinesgogor, ez gogo-txarreko.

-Eta nik esan nuen: Ene hoberen hori, ni zirikatzearren hitzegiten ote duzu?

-Bai horixe, esan zuen.

-Guztiz, bada, esan nuen, alderantzizkoa dagizu; zure guraria ederto legoke (e) esaten ditudanak badakizkidala sinetsiko banu; ziur eta arrisku barik hitzegingo du gauza handien eta maiteenei buruz zentzuzkoen eta lagunen artean egia dakienak; baina sinesgaitz dena eta era berean, nik dagidanez, arrazoi bila dabilena, arriskugarri eta zalantzarik izango da, ez barregarri izatera 451. arriskutzen delako, -umekeria baita hori-, gutxien huts egin behar den gauzetan, egiari buruz huts eginez, ez neu bakarrik, lagunak berak ere nirekin arrastatuz jausiko naizelako baino. Eta esatera noanagatik, ene Glaukon, barkamena eskatzen diot Adrasteiari<sup>4</sup>, uste dudalako erru arinagoa izango dela gura barik inor hiltzea, ekandu eder, on eta zuzenei buruz iruzur egitea baino. Hobe da, beraz, arrisku hori arerioen artean arriskatzea, lagunen artean baino. Ez dator ondo, beraz, (b) ni zirikatzea.

Eta Glaukonek barrezka esan zuen: - Baina, ene Sokrates, zure hitzez ezer txarrik jasan badezagu barkatzen dizugu hiltzearena bezala, eta garbi zarela eta ez diguzula iruzurrik egiten diogu. Hitzegizu, bada, zalantzarik gabe.

-Benetan, bada, esan nuen, legearen arabera barkatua izaten dena, han garbi geratzen da; bidezko da, beraz, han bezala, hemen ere gertatzea.

-Horrexegatik, esan zuen, hitzegizu, bada.

-Beharrezko da, bada, esan nuen, orain oster a berriro esatea, (c) lehen, agian, banan-banan esan behar zena; eta agian ondo legoke honelaxe, gizonezkoen arazoa guztiz

osoturikoan, andrazkoena jorratzea, batez ere hainbeste lehiatzen zaretenez gero. III. Azaldu genituen bezalako izaera eta hezkuntzako gizonak, nire ustez, ez daukate semeai eta andreei buruz bidezko beste jabetzarik zein harremanik, hasieran abiatu ginen abiadatik joatea baino. Eztabaida hartan, era batera edo bestera, ahalegindu ginen gizonezkoak artalde-zaintzaile bezala jartzen.

-Bai.

-Jarrai dezagun, (d) bada, sorrera eta hazkuntza berdina ematen, eta azter dezagun ondo datorkigun, ala ez.

-Nola? esan zuen.

-Honelaxe: uste ote dugu txakur zaintzaileen emeek arrek bezala, zaintzen eta ehizan eta beste zeregin guztiak elkarrekin egin behar dituztenik, ala hauek txakurkumeen erditze eta hazitzeak eragotzirik, gai ez direlakoan, etxe barruan geratu, eta besteek lan eta artaldei buruzko ardura guztia izan behar dutela?

-Dena elkarrekin, esan zuen. Batzuk ahulago eta besteak indartsuago bezala (e) erabiltzen ditugula izan ezik.

-Eta edozein abere erabil ote liteke gauza beratan, hazkuntza eta hezkuntza berdina ematen ez badiozu?

-Ezinezko da.

-Beraz, andrazkoak eta gizonezkoak gauza berdinetan erabiltzen baditugu, beharrezko izango da irakaspen berdinak ere ematea.

-452. Bai.

-Gizonezkoei musika eta gimnastika eman zitzaaien.

-Bai.

-Andrazkoei ere eman beharko zaie horiekiko trebetasuna, eta baita guduari buruzkoa ere, eta zeregin berdinetan erabili beharko dira.

-Esaten dituzunen arabera, bidezko da, esan zuen.

-Beharbada, esan nuen, ezohizko bezala, orain esaten ditugun gauza asko barregarri ager litezke diogun eran egiten badira.

-Bai horixe, esan zuen.

-Zer da, esan nuen, barregarrien ikusten duzuna? Ez ote dago argi, andreak biluzik gizonekin batera (b) palestra edo lehia-tokietan gimnasia egiten ikustea dela, gazteak ez ezik atso zaharrak ere, agureak bezala gimnasioetan, zimur-zimur egon arren eta ikusteko atsegingarri izan ez arren gimnasia egitea nahi izaten dutelarik?

-Zeusarren, esan zuen, benetan barregarri eman lezake, oraingo aldi honetan behintzat.

-Beraz, esan nuen, hizketan abiatu garenez gero, ez diogu beldurrik izan behar barrezaleen irriei, esan litezkeen gehienak eta handienak badira ere, gertaturiko aldakuntzari buruz, gimnastikari (c) zein musikari eta batez ere, iskiluak erabiltzeari eta zaldi gainean ibiltzeari buruz.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Alderantziz, hitzegiten hasi garenez gero, legearen arazorik zaileneraino zuzenean joan behar da, eta horrelako barrezaleei erregutu, utz diezaiotela eurenak egiteari, eta benetan hitzezin eta gogora dezatela, orain asko ez dela, lotsagarri eta barregarri iduritzen zitzaiela helladarrei, orain barbaro gehienei iduritzen zaiena, gizonak biluzik ikustea, eta Kretarrak lehenengo gimnasioak erabiltzen hasi zirenean, (d) eta gero Lakedaimoniarrek, zilegi zitzaaien orduko adar-jotzaileei gauza guztietaz komediak egitea. Ala ez al duzu uste?

-Nik neuk, bai.

-Baina argi ikusi zutenean hobe zela biluztea halako gauza guztiak ezkutatzea baino, uste dut, begientzat barregarri zena ezereztu zitzaiela, arrazoiak hobe zena erakutsi zielako; eta horrek erakutsi zuen zoroa dela, txarkeriaz beste barregarririk badela uste duena, edo barre eragiten ari dena [barregarri bezala] kintenkeria eta gaiztakeria baino ez den beste edozein ikuskizunari begiratzen diona, edo, alderantziz, [eder bezala] ona ez den beste zerbituetan begia jarriarik, ongiaz arduratzen ez dena.

-Guztiz horrelaxe da, esan zuen.

IV. - Ez ote da, bada, gauza horiei buruz hauxe lehenengo aitortu behar dena, ahalezko diren ala ez, eta ez ote da eztabaidarik ontzat eman behar, txantxetan zein benetan, giza alabak 453. izaeraz giza semeen eginkizun guztiak egiteko gai diren, ala

bat bera ere ez, ala eginkizun batzuk bai eta beste batzuk ez, eta guduarena biotatik nori dagokion eztabaidan jarri nahi duenarekin? Bidezkoa denez, eta ondoen amaitzeko, ez ote litzateke bada, hauxe hasierarik hoberena?

-Bene-benetan, esan zuen.

-Nahi duzu, bada, esan nuen, besteen ordeztu, gure artean eztabaida dezagun, beste arrazoiaren argudioak hiri hutsean setiatuak izan ez daitezten?

-(b) Ezerk ez du eragozten, esan zuen.

-Esan dezagun, bada, euren ordeztu: "Ene Sokrates eta Glaukon, ez duzue inoren beharrik aurkakoarena egiteko, zeuok hasieran, eraiki duzuen hiria eraikitzen hasi zinetenean, bat etorri zineten<sup>5</sup> bakoitzak izaeraren arabera gauza bakar batean bakarrik aritu behar zuela."

-Bat etorri ginela uste dut; nola ez, bada?

- "Andrazkoaren eta gizonezkoaren izaerak ez ote dute alde handirik?"

-Nola ez du alderik izango, bada?

- "Ez ote da, bada, beharrezko bakoitzari bere (c) izaeraren arabera agindu behar zaizkiola zereginak?"

-Zer, bada?

- "Nola ez duzue huts egiten, bada, berriro osterantzekoak etengabe badiozue: gizonak zein emakumeak gauza berdina egin behar dituztela, izaera guztiz desberdin izan arren?" Ba ote duzu, ene lagun horrek, horren aurka esateko ezer?

-Bat-batean, esan zuen, ez da guztiz erraz; baina eskatuko dizut, eta eskatu ere egiten dizut, azal dezazula guran dagoen dena delako arrazoia.

-Hauexek ziren, esan nuen, ene Glaukon, eta hauen antzeko beste asko, (d) lehen, aurrez ikusiz, eta, andreak eta umeak izateko eta hazteko legeari buruz aritzeko, ni beldurrez eta zalantzan jartzen nindutenak.

-Ez Zeusarren, esan zuen, ez dirudi gauza erraza denik.

-Ez, benetan, esan nuen, alderantziz baizik: inor urtegi txiki batean zein itsasorik handienaren erdian jaus badadi, benetan berdina eta ez gutxiago, igeri egiten duen bezala da hori.

-Horrelaxe da.

-Beraz, guk ere, igeri egin behar dugu eta ahalegindu eztabaida honetatik onik irteteko, benetan izurderen batek, edo norabiderik gabeko salbatzailearen batek hartuko gintuelakoan itxaron izanik.

-(e) Badirudi.

-Ea, bada, esan nuen, inondik irteerarik aurkitzen dugun. Bat gentozen izaera bakoitzari eginkizun desberdina doakiola, eta andrearen eta gizonaren izaera desberdina dela; eta orain, aldiz, esaten dugu izaera desberdinek gauza berak egin behar dituztela. Hauexek salatzen ote dizkiguzue?

-Bete-betea, esan zuen.

-Zein handia, esan nuen, ene Glaukon, 454. kontraesanaren erabide-indarra!

-Zergatik, bada?

-Zeren, esan nuen, uste dut, asko euren gogoz kontra jausten direla horretan, usterik, ez direla liskarretan sartzen eztabaidan baino, esaten dena ikuspegiaren arabera bereiziz aztertzei gai ez direlako, hitzari jarraituz baino, esanikoari aurre egitearren, elkarrekin eztabaidan aritu beharrean, liskarrez ari dira eta.

-Halaxe da, benetan, esan zuen, horixe da askori gertatzen zaiona, baina oraingo honetan gureganantz ere luzatzen ote da hori?

-Bete-betea, (b) esan zuen, arriskuan gaude gura barik kontraesanean jausteko.

-Nola?

-Hitzari bakarrik jarraitzen diogulako; zeharo sendo eta liskar bidez, izaera berdina ez daukanak zeregin berdinei ez diela ekin behar diogulako; eta ezelan ere ez genuen aztertu nolakoa zen bata bestearekiko ikuspegia, eta zein eremuren arabera mugatzen genuen izaera desberdinari zeregin desberdinak eta berdinekoei berdinak jartzen genizkienean.

-Bene-benetan, esan zuen, ez genituen aztertu.

-(c) Beraz, esan nuen, badirudi geure buruari dagokiola, burusoilak eta iletsuak izaera berdina ala osterantzekoa duten itauntzea, eta aurkakoa denaz bat gatzkeenean, burusoilak oinetakogintzan ari badira, iletsuei debekatzea, eta osterak, iletsuak ari badira, besteak.

-Benetan barregarria litzateke, esan zuen.

-Eta, esan nuen, ez ote da barregarri izango beste ezergatik, orduan zeharo bataren eta bestearen izaera garbi jarri ez genuelako, zeregin berak luzatzeari buruz desberdintasunaren



eta berdintasunaren ikuspegi hura baizik (d) kontutan hartzen genuelako baino? Esaten genuen, bada, sendagileak bezala sendagile-sena daukanak izaera berdina daukala, ala ez duzu uste?

-Bai horixe.

-Eta sendagileak eta zurginak, desberdina?

-Zeharo.

V. - Orduan, esan nuen, alde batetik, edozein trebetasunean edo beste zereginen batean gizonezkoen eta emakumezkoen sexua, bereiz ager baledi, bakoitzari bere hori eman behar zaiola esango dugu, baina, bestetik, emea ernatzen, eta arra ernaltzen bakarrik bereizten badira, esaten ari garenari buruz, ezelan ere (e) ez dugu esango andrea eta gizona desberdin direla egiaztatu denik; alderantziz, gure zaintzaileek eta euren emazteek zeregin berdinetan aritu behar dutela uste izango dugu.

-Zuzen legoke, esan zuen.

-Honen ondoren, aurre egiten digunari ez ote diogu eskatuko erakuts diezagula 455. zein trebetasunerako edo hiri-eraketarako zein zereginetarako andrazkoaren eta gizonezkoaren izaera berdina ez den, desberdina baino?

-Bidezkoa, benetan.

-Ausaz, bada, zuk oraintsu esaten zenuen bezala<sup>6</sup>, beste norbaitek ere esan lezake, alde batetik, ez dela erraz

bat-batean erantzun egoki bat ematea, eta, bestetik, arazoa aztertuz gero, ez dela bat ere zaila.

-Esan lezake, bai.

-Nahi duzu, bada, honako hauek kontraesaten dizkigunari<sup>7</sup> guri jarraitzea eska diezaiogun, guk (b) hiri-eratzeari buruz andrazkoari dagokion eginkizunik ez dagoela azal badezagu ere?

-Bete-betea.

- "Ea, bada," esango diogu, "erantzun: Ez ote zenuen zerorrek esaten, bada, batzuk ondo egoki direla zerbaiti buruz, eta beste batzuk ez, halakoak gauzak erraz ikasten dituelako eta besteak zailtasunez? Hura, irakaspen labur batekin ikasi zituenak baino askoz gehiago aurkitzeko lain izan liteke, eta besteak, irakaspen eta ariketa askoren ondoren ikasi zituenak ere ez litzake gorde? Eta batari gorputzeko indarrak ere, adimenaren alde egoki (c) baliatzen zaizkio, eta besteari alderantziz? Hauetaz beste arrazoietan mugatzen al zenuen eginkizun bakoitzarekiko egokitasuna eta desegokitasuna?"

-Inork ez du esango, esan zuen, beste batzuk direnik.

-Ezagutzen ote duzu, bada, giza ariketarik, gauza guzti hauetan gizonezkoen sexua andrazkoenetik bereizten ez denik? Ala luzatu beharko ote dugu ehungintza, opilgintza edo sukalgintza aipatzen, non andrazkoen sexua zerbait dela dirudien, (d) eta ezer baino barregarriago litzateken bere gutxiagotasuna?

-Egia diozu, esan zuen, labur esatearren, gauza guztietan askoz gehiago da bata bestea baino. Gauza askotan, oster, andra asko gizon asko baino hobe dira, baina gehienbat zuk diozunez da.

-Beraz, ene adiskide hori, hiri-eraketaren zereginetan ez dago bat ere, berez, andrazkoarena andrazko bezala, zein gizonezkoarena gizonezko bezala denik, bizidun biotan izaerak berdintsu banaturik daudela baino, eta izaeraz andrazkoak zeregin guztietan partaide dira, eta guztietan (e) baita ere gizonak; denetan, ordea, andrazkoa gizonezkoa baino ahulago da.

-Guztiz, bada.

-Gauza guztiak, bada, gizonezkoei agindu behar ote dizkiegu eta andrazkoei bat bera ere ez?

-Eta, nola?

-Esango dugunez, uste dut, izatez, badela andrazkorik sendakuntzarako gai denik eta ez denik, eta musikarako gai denik eta osterantzekorik.

-Nola, bada?

-Eta gimnastikarako, edo gudurako, 456. eta guduzale edo gimnasiazale ez?

-Baietz, uste dut.

-Eta, zer? Jakinzalerik eta jakintza-arerio denik? Eta kementsurik eta kemen bakorik?

-Bada, bai.

-Beraz, andrazkorik bada zaintzaile izateko gai denik eta ez denik. Ala ez ote genituen izaera hauexen arabera zaintzaile izateko gizonezkoak aukeratu<sup>8</sup>?

-Izaera hauetako, bai.

-Beraz, andrazkoak eta gizonezkoak hiri-zaintzarako izaera berdina daukate, harena ahulago eta honena indartsuago dela izan ezik.

-Hala dirudi.

VI. - Beraz, aukeraturiko honelako andreak, (b) aukeratu behar dira halako gizonekin bizi eta elkarrekin zaintzaile izateko, izaeraz gai eta elkarren kide baitira.

-Guztiz, benetan.

-Ez ote zaizkie, bada, izaera berdinei zeregin berdinak eman behar?

-Berdinak.

-Itzuli bat eginik, bada, lehenengoetara itzuli gara: bat etorri ginen ez zela izaeraren aurkakoa, zaintzaileen emazteei musika eta gimnastika ematea.

-Oso-osoan, bada.

-Ez genituen, bada, (c) ezinezko, ezta gurari antzeko legeak jartzen<sup>9</sup>, legea izaeraren arabera jarri genuelako. Baina, dirudienez, gaur egunekoa da batez ere, izaeraren aurkako gertatzen dena.

-Badirudi.

-Ez ote zen gure ikerketa, esaten genituenak ahalezko eta gauzarik hoberenak ziren jakiteko<sup>10</sup>?

-Hala zen, bai.

-Aitortzen da, bada, ahalezko direla?

-Bai.

-Eta honen ondoren, hoberen direla aitortu behar da?

-Argi dago.

-Andrea, zaintzaile izatekotan, bada, gizonezkoentzat hezkuntza bat eta andrazkoentzat beste bat egingo ote dugu, izaera berdina daukatenez gero, batez ere? (d)

-Ez.

-Eta honi buruz, zein da zure eritzia?

-Zeri buruz?

-Batzuk hobe eta beste batzuk txarrago direlako zure usteari buruz, ala denak berdinak direla uste duzu?

-Ezelan ere ez.

-Uste al duzu, azaldu dugun hezkuntzaz eraiki dugun hirian, gure zaintzaileak, oinetakogintzan hezitako oinetakogileak baino hiritar hobeak egin ditugunik?

-Zer gauza barregarria itauntzen duzun, esan zuen.

-Badakit, esan nuen, eta zer? Ez ote dira bada, (e) hauexek beste hiritar guztien artean hoberenak?

-Askoz, benetan.

-Eta, zer? Eta andrazko hauexek ez dira izango andrazkoen artean hoberenak?

-Hori ere bai, esan zuen.

-Ba ote dago hiri batentzat ezer hoberik ahalik eta andre eta gizon hoberenak izatea baino?

-Ez dago.

-Eta hori musikak eta gimnastikak lortuko al dute, guk 457. esaten genuen eran eginez?

-Eta nola ez?

-Jartzen genuen legea, beraz, ez zen ahalezko bakarrik, hiriarentzat hoberena baino.

-Halaxe.

-Zaintzaileen andreei, bada, beharrezkoa zaie biluztea, soineko orde, bertutea hartuko baitute jantzizat eta guduan eta baita hiriar buruzko beste zaintza lanetan ere esku hartu beharko dute, eta besterik ez dute egingo. Zeregin horietatik arinenak gizonei barik andrazkoei eman behar zaizkie, euren sexua (b) ahulagoa delako. Eta gauza hoberenengatik biluzten diren andra biluziei barre egiten dien gizonezkoak, barrearen [jakintza-]"emaitza ezea biltzen duelarik", ez bide daki, ez zeri barre egiten dion, ez zer egiten duen ere. Ederto esaten da, eta esan ere egingo da hauxe, onuragarri dena eder dela, eta kaltegarria itsusi.

-Guztiz, bada, horrelaxe da.

VII. - Esan ote diezaiokegu horri, bada, olatu bati bezala ihes egin diogula, andrazkoen legeaz aritzean, gure zaintzaile ar eta emeek zereginak elkarrekin bete behar zituztela jartzen genuenean (c) zeharo hondoratuak izan ez garelako, gainera, ahalezko eta onuragarri denaz arrazoa bera bere buruarekin bat zetorrelako ere bai?

- Bai horixe, esan zuen, ez zen makala ihes egin diozun olatua!
- Benetan, esan nuen, ez duzu esango handia denik ondoren datorrena ikusten duzunean.
- Esan, bada, ikus dezadan, esan zuen.
- Horretatik, esan nuen, eta aurrerago esanikoetatik uste dut jarraian datorrela lege hau.

-Zein?

-Gizon guzti hauek, andre guztiok elkarrenak dituztela, eta, inor ez dela inorekin bereziki biziko; gainera, umeak ere elkarrenak izango dira, eta aitak ez du bere umea ezagutuko, ezta umeak bere aita ere.

-Horrek, esan zuen, besteak baino mesfidantza gehiago sortuko du, batez ere ahalezko eta onuragarri denari buruz.

-Ez dut uste, esan nuen, onuragarriari buruz andreak eta umeak ere, ahal bada elkarrenak izatea dela hoberena eztabaida daitekeenik; ahalezko balitz; nire ustez zalantzarik gehien sortuko duena ahalezko den ala ez ebatzea da.

-(e) Gauza bioi buruz ere, esan zuen, asko eztabaida liteke.

-Arrazoi-multzo bat, esan nuen, diozu; eta nik batari ihes egiten niolakoan nengoen, onuragarri deneko arrazoa zuk onartu bazenu, geratzen zitzaidana ahalezko zen ala ez izango zen eta.

-Baina, esan zuen, ihes egiterakoan ez zara ezkutuan gorde, eta gauza bioi buruz azaldu beharko duzu arrazoa.

-Onartu beharko da, beraz, esan nuen, zigorra. Gutxienez egidazu mesede hau: utz iezadazu 458. betekadatxo bat egiten, adimen nagikoek bakarrik dabiltzanean bere buruari emateko ohitura daukatenez. Honelakoek nahi dutena nolakoa izango den bilatu aurretik, ahalezko den ala ez pentsatzen ez nekatzearren, arazo hori alde batera utziz, nahi duten hori edukitzat jarririk, gainerako gauzak atontzen dituzte, eta pozten dira, gertaturikoan egingo dituzten gauzak banan-banan azalduz, eta gainera nagia zen arima are nagiago eginaz. Honezkero, (b) bada, ni ere nagitu naiz, eta gauza haiek nola ahalezko izan daitezkeen atzeratu eta gero aztertu nahi dut; aitzitik orain, ahalezko bailiran, gauzak gertatzean agintariak nola atonduko dituzten aztertuko dut, uzten badidazu, eta nola ez datekeen ezer onuragarriagorik hiriarentzat eta zaintzaileentzat hori egitea baino. Hauexek dira, uzten badidazu, zurekin batera lehenengo aztertuko ditudanak; besteak, geroago.

-Uzten dizut, bada, esan zuen, eta aztertu.

-Uste dut, bada, esan nuen, agintariok izen horren duin (c) izango badira, eta bere zaintzaileak berdin, hauek, agintzen diren gauzak egitea nahi izango dutela, haiek, berriz, agintzea, eurek ere alde batetik legeei men eginik, eta bestetik haiei agindu diezazkiegun gauza guztiak imitatuz.

-Bidezko da, esan zuen.

-Zuk, esan nuen, euren legelari horrek, gizonak aukeratu zenituen antzera, andrak ere aukeratuko dituzu, eta haien esku jarriko dituzu, ahalik eta izaera berdinenekoen arabera. Etxeak eta janariak elkarrenak izanik, eta honako gauzarik inork beretzat ezin eduki izanik, batera egongo dira (d) eta nahasturik gimnasioetan eta gainerako bizimoduan, berezko ezinbestez, uste dut elkarren artean lotzera eramanak izango direla. Ala ez ote duzu uste esaten ditudanak ezinbestekoak direnik?

-Ez benetan geometriazko ezinbesteez, erotiko edo maitezkoen baizik; baliteke "jendetza handia" era-

kartzeko eta menderatzeko, hauek haiek baino zorrotzago izatea.

VIII. - Bai horixe, esan nuen. Baina hauen ondoren, ene Glaukon, zoriontsu diren hiri (e) batean edozein eratan elkarren artean lotzea edo antzeko gauzak egitea ez da dohatsua, ezta agintariak ere ez dute utziko.

-Ez, ez da bidezkoa, esan zuen.

-Hori dela eta, argi dago ahalik eta ezkontza sakratuenak jarriko ditugula, eta onuragarrienak dirateke sakratuak.

-Guztiz, bada.

-459. Eta nola izango dira, bada, onuragarrienak? Esadazu hau, ene Glaukon: etxean ehiza-txakur eta arrazako hegazti-pila bat daukazula dakusat. Zeusarren, ez ote zara ezer arduratzen euren ernaltze eta kumegintzaz?

-Nola? esan zuen.

-Hasteko, bada, arraza onekoak izan arren, ez ote daude euren artean batez ere hoberen direnik?

-Badaude.

-Ausaz, bada, berdin saiatzen ote zara denetarik kumeak sortzen, ala hoberenetarik?

-Hoberenetarik.

-(b) Eta zer? Gazteenetarik, zaharrenetarik ala batez ere adin beteenean daudenetarik ?

-Adin beteenean daudenetarik.

-Eta era honetan kumeak sor ez badaitez, zure hegazti eta txakurren arrazak txarrera joko duenik uste ote dezakezu?

-Nik neuk bai, esan zuen.

-Eta zer uste duzu, esan nuen, zaldi eta beste abereei buruz? Ala besterik ote da?

-Baragarria dateke, zinez, esan zuen.

-Ene bada, esan nuen, ene lagun maite hori! Hara nolako erpin-erpinetako agintarien beharra dugun, gizonen arrazan berdin gertatzen bada.

-(c) Baina izan ere halaxe da, esan zuen. Baina zergatik diozu?

-Sendagai asko, esan nuen, erabili beharko dutelako; gorputzentzat sendagaiak behar ez direnean, sendabide bati lotzea nahi denean sendagile arrunt bat [izatea] nahikoa dela uste izaten dugu; baina sendagarririk behar dadinean badakigu sendagile iaioago bat behar dela.

-Egia da, baina zeri buruz diozu hori?

-Honexeri buruz, esan nuen: badaiteke gure agintariak (d) agindupekoen onerako makina bat gezur eta iruzur erabili

behar izatea. Eta esaten genuen<sup>11</sup> horrelako gauza guztiak sendagai bezala zirela baliagarri.

-Zuzen, benetan, esan zuen.

-Badirudi hori ezkontzetan eta ume-egiteetan bidezko izatea, eta ez erarik txikienean.

-Nola, bada?

-Aitortu izan ditugunengatik, bada, beharrezko da hoberenak hoberenekin lotzea ahalbait sarrien, eta alderantziz, balio gutxienekoak balio gutxienekoekin, eta haien umeak haztea, eta hauenak ez, artaldea ahalbait hoberen izatea nahi bada; eta gauza guzti hauek ezkutuan geratu behar dute, agintarientzat izan ezik, zaintzaile-taldea ahal den baretsuena izango bada.

-Egiarik handiena, esan zuen.

-Beraz, bada, jai batzuk jarri behar dira, zeintzuetan erre-opariak egin eta andrazko eta gizonezko ezkongaiak batuko ditugun, eta gure poetek eresiak egingo dituzten 460. egingo

diren ezkontzetarako. Ezkontzen kopurua agintarien esku utziko dugu, guduen, gaixotasunen eta antzeko gauza guztien kontua izanik, ahalik eta gehien zain dezaten hiritarren kopurua, ahal dela, hiria ez handi ez txiki egin ez dadin.

-Zuzen, esan zuen.

-Sexu-elkarketa bakoitzean zozketa zuhur batzuk asmatu beharko dira, balio gabeko hark bere zoriari errua bota diezaion eta ez agintariei.

-Bai horixe, esan zuen.

IX. - Eta (b) guduan edo beste edozertan nabarmentzen diren gazteei sariak eta gainerako ordainak eman behar zaizkie, eta baita andreekin etzateko askatasun gehiago ere, era berean aitzaki hori dela eta, umerik gehien honelakoetatik jaio daitezen.

-Zuzen.

-Beraz, umeak jaiotzen direnean, horretarako jarririk dauden arduradunek, gizonezko zein andrazko zein biotakoek



izan, hartuko dituzte -arduradunok, era batera edo bestera, berdin andrazko zein gizonezko dira eta.-

-Bai.

-(c) Uste dut, alde batetik on diren hauen umeak harturik barnetegi batera eramango dituztela, inude batzuen ondoan biziko diren hiriko leku berezi batera. Eta balio eskasekoen umeak eta besteenetatik elbarriren bat sor baledi, behar denez, leku ezkutu eta ezjakin batean ezkutatuko dituzte.

-Zaintzaileen arraza, esan zuen, garbia izan dadin nahi bada.

-Ez ote dira bada eurok arduratuko hazkuntzaz, ama batzuk esne-aldian barnetegi horretara eramanez, eta ahalegin guztiak eginez batek ere (d) bere umea ezagut ez dezan, eta ama hauek behar besteko esnerik ez balute ez ote dira berauetaz arduratuko neurriko denboraldi batean titia eman diezaieten, eta gaubeilak eta beste lorrak ez ote dizkiete inudeei eta sein-zainei utziko?

-Nolako ume-egite erraza, esan zuen, zaintzaileen emazteentzat, diozun hori!

-Hala dagokio, esan nuen; baina banan-banan aurrez jarri genuenari jarrai diezaiogun. Esaten genuen, bada, adin beteenekoetarik behar zirela umeak sortu.

-Egia.

-(e) Ez ote zatoz bat horretarako denborarik egokiena andrazkoentzat hogei urte dela eta hogeita hamar gizonezkoentzat?

-Zein eratakoak dira hauek? esan zuen.

-Andrazkoak, esan nuen, hogei urtetik berrogei urteraino umeak ekar ditzala hiriarentzat, eta gizonezkoak "garrik biziena bareturikoan" hortik aurrera berrogeita bost urteraino sor ditzala hirirako.

-Izan ere, biontzat, 461. esan nuen, gorputzerako eta adimenerako adinik beteena horixe da.

-Beraz, hauek baino zaharrago zein gazteagorik elkarrentzako umegintzan sar badadi, hutsegite hori donge eta bidegabe dela esango dugu; hirian horrelakoaren semea ezkutuan sor badadi, ezkontza bakoitzean bereter-bereterresak eta hiri osoak onenatarik beti hobeak eta onuragarrienetik onuragarriagoak sor ditzaten egiten dituzten eskaintza eta erregupean ez litzatekeelako sortua izango, ilunpeko eta izugarrizko sorkuntza neurribage batean baino.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta benetan, esan nuen, lege berdina izango da ernaltzeko adinean daudenetatik, agintariak esku hartu barik, adinean dagoen andraren bat ukitu dezakeen edonorentzat. Eta hiriari ekar diezaiokeen semea, sasiko, legez kontrako eta donausle dela esango dugu.

-Guztiz zuzen, esan zuen.

-Eta uste dut, umeak izateko adina igarotzen zaienean andrazkoei eta gizonezkoei nahi dezaketenekin lotzen utziko diegula, alabarekin (c) amarekin edo alabaren alabarekin eta amaren aurrekoekin izan ezik, eta andrazkoei bere semearekin eta aitarekin edo hauen ondorengo zein aurrekoekin izan ezik; eta guzti hauek kontu handiz arduratzeko agindurik, sor daitekeen umeki batek berak ere argirik ikus ez dezan eta eragotzi ezin badadi, hauxe jarri behar dela: honako umekiak ez duela hazkuntzarik izango.

-Benetan ederto daude, esan zuen, diozuzenak, baina orain esaten zenituen (d) aita-alabek nola ezagutuko dute elkar?

-Ezelan ere ez, esan nuen. Baina bakoitza ezkondu zeneko egunetik hamargarren hilabetearen ostean edo zazpigarrenaren ondoren jaio daitezkeen ume-mutiko guztiei seme deituko die eta neskatoei alaba, eta haiek berari aita; eta horrelaxe ume hauen semeei loba, eta haiek, bestalde, eurei aitita eta amama, eta euren aitak eta amak sortzen zuten denbora berean jaiorikoak, neba-arrebak; horregatik, oraintsu esaten genuen bezala, ez dute elkar ukituko. Legeak elkar lotzen neba-

-arrebei utziko die, zozketan irtenez gero eta Pythiak baieztatu balez.

-Oso zuzen, esan zuen.

X. - Hauxe, bada, ene Glaukon, izango da zure hiriko zaintzaileen artean andre eta umeei buruzko elkargoa. Baina honen ondoren baieztatu behar da, arrazoiaren arabera, gainerako hiri-eratzearekin bat datorren, eta askozaz hoberena den. Ala nola egingo dugu?

-462. Horrelaxe, Zeusarren, esan zuen.

-Ez ote da, bada, akordu baterako hasiera bat, guk geure buruari itauntzea hiri bat eratzeko zein daukagun onik handiena bezala esateko, legeak egiterakoan legelariak helburutzat izan behar duena, eta zein den kalterik handiena, eta gero oraintsu azaltzen genituenak onaren lorratzera egokitzen diren eta kaltearenera ez diren, aztertzea?

-Ezer baino hobeto, esan zuen.

-Ba ote daukagu, bada, hiriarentzat kalte handiagorik, puskatu eta, bat egin beharrean, askotu egin dezakeen (b) hura baino? Ala gauza hoberik, elkartzen duena eta bat egiten duen huraxe baino?

-Ez daukagu, ez.

-Elkartzen duena, ez ote da, bada, atsegin eta atsekabeen partaidetza, ahalik eta hirikide gehienak, gertatzen zaizkien gauza eta ezbeharretan berdintsu pozten eta atsekabetzen direnean?

-Osotoro, bada, esan zuen.

-Eta banatzen duena ez ote da honelako gauzak nork bere egitea, hiriari eta hirian daudenei gertatzen zaizkien atsekabe (c) berdinen aurrean batzuek sumin handia hartzen dutenean eta beste batzuek pozaldi handia?

-Eta nola ez?

-Eta ez ote da horren antzekorik gertatzen, "nirea" eta "nirea ez" lako hitzak, eta berdin inoren gauzei buruz, aho batez hirian esaten ez direnean?

-Gutziz, bada.

- "Nirea" eta "nirea ez" aho batez eta gauza berari buruz jenderik gehienak esaten ditueneko hiria, ez ote da berau ondoen zuzendurik dagoena?

-Askozaz, benetan.

-Eta gizon bakar baten antzik gehien daukan hiria ere bai? Adibidez, gutako batek atzamarra kolpatzen duenean, gorputzean arimara zabalduz, buruzagi honen ordenu bakarrera (d) jarria dagoen elkargo osoak sentitzen du harengan, eta atal bat gaixorik egon arren, elkargo osoak batera hartzen du min, eta horrelaxe esaten dugu gizona atzamarreko minez dagoela. Berdin esan ote daiteke gizonaren beste edozein atali buruz, zauritzen denean hartzen duen eta sendatzen deneko poztasunari buruz?

-Berdin, esan zuen; baina itauntzen duzun horri buruz, honelakoarengandik gertuen, ondoen zuzendurik dagoen hiria bizi da.

-Uste dut, hiritarretako bati zer edo zer txarrik edo onik gertatzen zaionean, horrelakoa den hiriak, gehienbat, esango duela (e) beragan hartzen duela gizon hori, eta oso-osorik berarekin batera poztuko edo suminduko da.

-Beharrezko da, esan zuen, ondo zuzendua bada.

XI. - Ordua dateke, esan nuen, gure hirira berriro itzultzeko eta bertan, arrazoiaren arabera aitortu ditugunak aztertzeko, gehien bera halakoa den, ala besteren bat gehiago.

-Behar da bai, zalantza barik, esan zuen.

-Eta zer? Ba ote da 463. beste hirietan agintaririk eta herritarrik, honetan dagoen bezala?

-Bada, bai.

-Eta denek elkarri hirikide deituko ote diote?

-Nola ez, bada?

-Hirikidez gainera beste hirietako kideek nola deitzen diete agintariei?

-Hiri gehienetan jaun, eta demokrazian daudenek izen beraz, agintari.

-Eta gure hiriko hirikideek zer? Hirikidez gain, agintariak zer direla esango dute?

-Zaindari (b) eta laguntzaile.

-Eta hauek nola deituko diete hirikideei?

-Sari- eta mantenu-emaile.

-Eta beste hirietako agintariak nola deitzen diete hiritarrei?

-Jopu, esan zuen.

-Eta agintariak elkarri zer?

-Agintekide.

-Eta gureak zer?

-Zaintzakide.

-Ba al duzu esaterik beste hirietako agintarien artean inork agintekide bati buruz etxeko esaterik duen, eta beste bati buruz arrotz?

-Benetan, askotxo ere.

-Eta etxekoa berea balitz bezala ote dauka, eta halaxe adierazten ote du (c) eta kanpoko berea ez den bezala?

-Horrelaxe.

-Eta zure zaintzaileen artean zer? Ba ote da euren artean inor bere zaintzakide bat etxekotzat izan eta deitu beharrean, kanpoko deituko dionik?

-Ezelan ere ez, esan zuen; edonorekin topo egin dezakeela ere, anai-arrebekin, edo aita-amarekin, edo seme-alabekin, edo hauen ondorengo edo aurrekoren batekin topo egin duen bezala uste izango baitu.

-Ederto diozu, esan nuen. Baina ondino haxe ere esan iezadazu: ausaz, etxeko, izenez bakarrik deitzea aginduko diezu, ala izen horren arabera egin behar diren gauza guztiak, (d) hots, gurasoei buruz legeak agintzen dituen guztiak ere egin ditzatela; gurasoenganako begirunea eta ardura, eta gurasoen esaneko izan behar dutela, bestela jainkoengandik zein gizonengandik ez dutela hoberik izango, donge eta bidegabe litzatekeelako gauza guzti hauek egin beharrean, besterik egin balezate? Hiritar guztien aldetik esan hauek ala beste batzuk behin eta berriz entzunarazi behar dira umeen belarri inguruetan, aurkez dakizkiekeen gurasoei eta beste ahaideei buruz?

-(e) Hauexek, esan zuen. Barregarri litzateke egiteetan barik, etxeko izen horiek, hitzez bakarrik esan balitez.

-Hiri guztietatik gehien, honetan esango da aho batez, gizaki bakar baten zori on edo txarrari buruz, oraintsu esaten genuen esana "nire arazoa ondo doa" edo "nire arazoa txarto doa".

-Egiarik handiena, esan zuen.

-Ez ote genuen esaten, uste 464. eta esate honi atsegin eta atsekabeen partaidetzak jarraitzen diola?

-Eta esan ere, zuzen esaten genuen.

-Gure hiritarrek ez ote dute batez ere elkar hartuko "nirea" deituriko horretan? Eta horrelaxe horren partaidetza izanik, ez ote dute atsegin eta atsekabeen elkargorik handiena izango?

-Askozaz, benetan.

-Eta horren oinarria ez ote da ausaz, beste eratzearen gainetik, andre eta umei buruzko zaintzaileen elkargoa izango?

-Askoz gehiago, esan zuen.

XII. - Benetan, baina, aitortu genuen haxe zela hiriarentzat onik handiena, (b) ongi eratutako hiria, aldiko atsekabe eta atseaginei buruz bere atalarekin bat egiten duen gorputzarekin parekatuz.

-Aitortu ere, esan zuen, benetan zuzen aitortu genuen.

-Beraz, hiriko onik handienaren oinarri, laguntzaileen ume eta andreekiko erkidegoa agertu zaigu.

-Bai horixe, esan zuen.

-Baita aurretik aitortzen genituenak ere<sup>12</sup>: Esaten genuen, bada, ez dutela eduki behar bererik, etxerik, ez lurrik, ez ondasunik, (c) zaintza-saritzat, besteengandik mantenua harturik, guztiek gastukide izan behar dutela baino, benetako zaintzaile izan nahi badute.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta esaten ari naizenez, lehen esanikoek eta oraingoek ere, ez ote dute gehiago lagunduko benetako zaintzaile izan daitezen, eta ez ote du lortuko haiek gauza berari ordezkari "nirea" deituz, ahal dezakeena besteetatik at bereganatzearen, batetik bere etxera, eta besteak berea den beste etxe batera (d) arrastatuz, andreak eta umeak, atseginak eta atsekabeak, denenak izan arren, nor bere eginaz, hiri ez puskatzea, aitzitik, etxeko gauzei buruz uste bateratu batekin eta helburu berera zuzenduz, atsekabeak eta atseginak, ahalik eta gehien, sentipen bera izatea?

-Beharrezko da, bada, esan zuen.

-Eta zer? Elkarren arteko auzi zein salaketak ez ote dira eurengandik aldentzeko, hitz batean esatearren, bererik gorputza baino ez dutelako ezer izan behar, gainerako gauza guztiak elkarrenak baino? Ez ote datorkie hortik, ondasunengatik, umeengatik edo ahaideengatik gizonek izaten dituzten (e) liskarrak ez izatea?

-Guztiz derrigorrezko da, esan zuen, aldentzeko geratzea.

-Arrazoiz ere ez dateke euren artean indarkeria zein irainei buruzko auzirik. Eder eta zuzen dela esango dugu adin berekoek elkarri laguntzea, arduraz gorputza zaintzeko betebeharra jartzen badiegu.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta honako lege hau ere zuzen 465. dago, esan nuen. Inor inorekin haserre baledi, honengan haserre guztia asetzean, gutxiago jo beharko du liskar handiagoetara.

-Bene-benetan.

-Zaharragoari, bada, ezarriko zaio gazteago diren guztien agintea eta zuzentzea.

-Argi dago.

-Eta baita ere, agintariak agindu ezik, gazteagoa ez dela inoiz lehiatuko, berezko denez, zaharragoari erasorik egiten, ezta jotzen; eta ez dut uste beste ezelango eran laidotuko duenik, eragozteko, nahiko zaintzaile baitira (b) beldurra eta lotsa; alde batetik, lotsak, guraso bailiran, jotzea eragotziko diolako, eta bestetik, beldurrak, erasotuari, batzuek seme bezala, beste batzuek anai bezala, eta beste batzuek guraso bezala lagunduko diotelakoan.

-Halaxe gertatzen da, esan zuen.

-Leku guztietan, bada, gizonek elkarrentzako bakea legeetatik zuzenduko ote dute?

-Eta handia, benetan.

-Euren arteko haserreak amaiturikoan, hiriko besteek hauen aurka edo euren artean okerrik izan dezakeen inolako beldurrik ez da izango.

-Ez horixe.

-Benetan, bada, (c) egoki ere ez da eta, nagi naiz libre diratekeen haien kalterik txikiak aipatzen: behartsu izanik aberatsekiko lausenguak, ezinbestean etxekoen mantenuagatik, umeen heziketan eta diru-arazoetan izan ohi diren ezinak eta minak, batzuetan zorretan hartuz, besteetan zorra ukatuz, besteetan, berriz, eskuratu ondoren bere gobernuaren emakumeen eta zerbitzarien baitan jarriaz, eta, ene adiskide, argi dauden eta bilauak diren eta esatea (d) merezi ez duten gauza hauek denak eta gisa honetakoak jasan ohi dituzte.

XIII. - Itsu batentzat ere, esan zuen, argi dago hori.

-Gauza guzti horiez aske izango dira, olimpia-garaileek bizi duten bizitzarik zoriontsuena baino zoriontsuagoa biziko baitute.

-Nola?

-Haiek, hauek eskuratzen duten baino zorion-atal txikiago bat daukatelako, hauen garaipena ederragoa delako eta beteagoa herritik hartzen duten bizibidea. Lortzen duten garaipena hiri osoaren salbamena da, eta eurak eta euren semeek bizitzeko behar den bizibide eta gainerako guztiak jadesten dituzte, eta ondino bizi direla euren hiritik omenak ere hartzen dituzte (e) eta hiltzen direlarik ohorezko hilobia.

-Nolako gauzen ederrak! esan zuen.

-Ez ote zara gogoratzen, bada, esan nuen, aurreko eztabaidetan ez dakit noren arrazoiak erasotzen zigula ez genituela 466. zaintzaileak zoriontsu egiten, hirikideen gauza guztiak eduki ahal izanik, eduki, ezer eduki ez zezaketelako<sup>13</sup>? Eta guk, abagunea aurkezten bazen, berriro aztertuko genuela, eta garai hartan zaintzaileak zaintzaile, eta hiria ahal genuen zoriontsuen egiten ari ginela, ez genbiltzala, ordea, bertako

giza talde bakarrari begira zoriontsu egiten, nola erantzun genuen?

-Gogoratzen naiz, esan zuen.

-Zer bada? Laguntzaileon bizitza olimpia-garaileena baino askoz ederrago eta hobe orain agertzen zaigunez gero, ausaz, ezertan (b) agertzen ote zaigu oinetakogileen edo beste edozein ogibidedun edo nekazariren arabera?

-Ez dut uste, esan zuen.

-Zer arraio, orduan esaten nuena<sup>14</sup> zuzen da orain ere esatea; zaintzailea, hain zuzen ere, zaintzaile ez izanez, eta bizitza neurritsu, sendo eta, guk diogun bezala, hoberena dena aski ez duela, honela zoriontsu izaten saiatzen bada; bestalde, zoriontasunari buruzko ume-eritziak hiriko gauza guztiak (c) indarrez bereganatzera bultzatzen badu, Hesiodosek erdikina osoa baino gehiago zela<sup>15</sup> esan zuenean, jakintsu zela konturatuko da.

-Nire onuaz baliatzen bada, bizimodu hartan geratuko da.

-Bat ote zatoz nirekin, ausaz, esan nuen, umeen hezkuntza eta beste hirikideen zaintzari buruz azaldua dugun gizonen andreekiko erkidegoaz, hots, hauek hirian egonik, zein gudura joanik, zaintza-lana eta ehiza ere txakurren antzera, gizonekin batera egin behar dutela, eta (d) gauza guztietan, ahal deneraino, gauza denak elkarrenak izan behar dituztela, eta horrelaxe eginik gauzarik hoberenak egingo

dituztela, eta ez izaerazko ar-emeen arteko elkargoaren aurka jokatzuz?

-Bat nator zurekin bai, esan zuen.

XIV. - Ez ote da, bada, esan nuen, aztertzeke geratzen ea beste bizidunen artean bezala gizakien artean ere elkargorik gertatu ahal den eta nolakoa ahal den?

-Nik esatera nindoana, esan zuen, aurreratu zara esaten.

-Uste dut, (e) esan nuen, gudu-arazoei buruz argi dagoela zein eratan borrokan egin behar duten.

-Nola? Esan zuen.

-Elkarrekin borroka egingo dute, eta haziriko ume guztiak gudura eramango dituzte, beste ogibidedunak bezala, hazirikoan egin beharko dituztenak ikus ditzaten. Eta ikusteaz gain, guduari buruzko gauza guztietan zerbitzatu eta 467. lagundu, eta aita-ameei men egin beharko diete. Ala ez ote zara ohartu, trebetasunen alorrean, nola keramikagileen umeak epe luze batez zerbitzari izanik, ikusten ari diren, keramika-lanetan hasi baino lehen?

-Bai horixe.

-Ala hauek arduratsuago heziko ote dituzte, zaintzaileek, dagozkien ariketa eta ikustearloan bereak baino?

-Benetan, esan zuen, barregarri dateke.

-Gainera, benetan, bizidun orok borroka hobeto egiten du (b) sortu dituztenak aurrean badaude.

-Halaxe da. Baina, ene Sokrates, erori direnean, guduan ohi denez, ez da txikia, beren buruaz gainera beren umeak ere hondatu eta gainerako hiria berreskuratua ezin izateko duten arriskua.

-Egia diozu, esan nuen. Baina, aldeztu aurretik, arriskuan ez jartzeko prestatu behar dela uste al duzu?

-Ezela ere ez.

-Eta zer? Inoiz arriskuan jarri behar bada, ez ote da, hobeto irtetekotan?

-Argi dago.

-(c) Baina, hiritar guda-gizon izango diren umeek guduari buruzko gauzak ikusteak ala ez, gutxi axola duela eta ez duela merezi uste al duzu?

-Ez, esaten duzunaren arabera, badago alderik, bai.

-Beraz, haxe lortu beharko da: umeak gudu-ikusle egitea eta euren ziurtasuna bermatzea eta ondo egongo da, ala ez?

-Bai.

-Ez ote da beharrezko, bada, esan nuen, ezer baino lehen, euren gurasoek, gizaki diren heinean, gaitasun gabeak ez ezik, guduketetan zeintzuk diren arriskugarri (d) eta zeintzuk ez, jakitun izatea ?

-Bidezko da, esan zuen.

-Beraz, batzuetara eramango dituzte eta beste batzuetatik aldenduko.

-Zuzen.

-Eta ez dizkiete agintaritzat, esan nuen, gai ez direnak jarriko, jakintzaz eta adinez zuzendari jantziak eta umeak zuzentzeko bestekoak baino.

-Egoki da.

-Baina esango dugu baita ere, gauza asko gertatzen direla ustez kontra ere.

-Bai horixe.

-Horregatik, ene adiskide, umetatik beharko dute hegorik, behar datekeenean, hegaz eginik alde egin dezaten.

-(e) Nola diozu? esan zuen.

-Zaldi gainean, esan nuen, gazte-gaztetatik ibili beharko dute, eta zaldi gainean ibiltzen ikasi ondoren, zaldiz eramango dira gudua ikustera, ez zaldi kementsu eta borrokalarien



gainean, bizkorren eta hezienen gainean baino. Horrelaxe egokien eta ziurren ikusiko dute euren eginkizuna, eta, inoiz behar balitz, gidari zaharragoi jarraituz salbo izango dira.

-Uste dut, esan zuen, 468. zuzen diozula.

-Eta zer gehiago, esan nuen, guduaren inguruko beste gauzei buruz? Nola uste duzu aritu beharko dutela gudariak elkarren artean eta arerioei buruz? Ausaz, zuzen agertzen ote zait, ala ez?

-Esazu zer datekeen, esan zuen.

-Gudarien artetik bada, esan nuen, bere erreskada utzi, edo iskiluak jaurtikirik, edo horrelakorik egin dezana ez ote da artisau edo nekazari bihurtu behar bere gaiztakeria dela eta?

-Zeharo, benetan.

-Eta bizirik arerioen eskuetan jausten dena, ez ote da atzipetu dutenen saritzat emango, bere harrapakinez nahi luketena (b) egin dezaten?

-Bete-betea.

-Eta adorez eta izen onez nabarmentzen dena ez ote duzu uste koroatu izan behar denik guduan bertan bere guda-lagun gazte eta ume bakoitzez? Ala ez?

-Nik neuk, bai.

-Eta zer? Bostekorik ere eman behar zaienik?

-Hori ere bai.

-Hau, bada, esan nuen, ez dut uste onartuko duzunik.

-Zer?

-Bakoitzari musu eman, eta bakoitzarengandik musu hartzea.

-Ezer baino gehiago, esan zuen. Eta lege horri benetan gehituko nioke, gudu horretan (c) dauden bitartean, mun egin nahi liokeen inori ukatzerik zilegi ez izatea, ar zein emezko baten batekin maitemindurik balego garaitzapen-sariak jasotzeko kementsuago izan dadin.

-Ederto, esan nuen, eta honezkero esanik dago, benetan bikain agertzen denari besteei baino ezkontza ugariago atonduko zaiola, eta honelakoetatik besteetatik baino aukera gehiago egingo dela, honelakoarengandik ahalik eta ume gehien sor dadin.

-Esan genuen bai, esan zuen.

XV. - Baita Homerosen arabera ere, bidezko da gazteen artetik adoretuak diren honelako guztiei ohore egitea. Zeren (d) Homerosek berak guduan ohoretu gertatu zen Aiasi buruz esan baitzuen: "Solomo handi batzuez saritua izan zela"<sup>16</sup> sari egoki bezala gudari gazte eta adoretu batentzat, zeinen bidez ohoratu izanaz batera indarra ere gehitzeko.

-Guztiz zuzen, esan zuen.

-Honakoetan, bada, benetan, men egingo diogu Homerosi. Eta guk ere oparietan eta antzeko guztietan, adoretuak, adoretu ager daitezkeen neurrian, eresiekin eta orain aipatzen genituenekin ohoratuko ditugu; eta, ohoratzeaz batera, gizon eta andre ausartak egin ditzagun, "jarleku, (e) haragi eta edalontzi beteekin ere"<sup>17</sup>, ohoratuko ditugu.

-Oso ederto diozu, esan zuen.

-Bego. Eta guduan hiltzen direnen artetik ohorez hil datekeenari ez ote diogu, lehenengo eta behin, urrezko jatorrizkoa<sup>18</sup> dela esango?

-Ezer baino gehiago, benetan.

-Ez ote diogu Hesiodosi sinetsiko jatorri hauetakoak hiltzen direnean nola:

469. "Lurreko daimon santu, ahaltsu, gaitzen jagole eta hilezko izanik gizon hilkorren zaintzaile bihurtzen diren"<sup>19</sup>?

-Sinetsiko diogu, bada.

-Ez ote dugu jainkoarengandik jakingo nola eta nolako bereiztasunaz hilobiratu behar diren daimon jainkotiarrok eta iragartzen digunaren arabera egingo?

-Zer besterik dagikegu?

-Eta gainerako aldi guztian daimon bezala agurtuko ditugu eta haien (b) hilobiak gurtuko? Eta gauza berak jarriko ote ditugu bizitzan bereziki adoretatzat har daitezkeen guztietatik norbait zaharrez edo beste era batez hil dadinean?

-Bidezko da, esan zuen.

-Eta zer? Arerioei buruz nola jokatu ote dute gure gudariek?

-Zeri buruz, bada?

-Hasteko, bada, jopu egiteari buruz, zuzen dela uste al duzu helladarrek helladar hiriak jopu egitea, ala, alderantziz, beste inori ahal dela hori egiten ez uztea, eta (c) barbaroengandiko joputzatik babesturik, helladar jatorriari begirune izaten ohitzea?

-Ezer baino gehiago begirunez hartzea da beharren, esan zuen.

-Eta guk geuk ere ez dugula helladar jopurik eskuratu behar, eta onu bera luzatu behar zaiela gainerako helladarrei?

-Bete-betea, esan zuen. Horrela, bada, berengandik aldendu eta barbaroen aurka bihurtu litezke.

-Eta zer? Eta garaile irtenikoan, esan nuen, iskiluak ezik, hildakoei ezer erantztea ondo al dago? Ez ote da hori koldarrentzat borrokan ari zaienaren aurka (d) ez joateko aitzakia, hildako baten gainean makurtzen direnean behar-beharrezko zerbait egiten ari direlakoan, eta ez ote dira honezkero gudaroste asko hondatu harrapaketa hori dela eta?

-Bai horixe.

-Ez ote du doilor eta lukur itxuratuko gorpu bat erantzteak, eta andrekeriazko burubide kaxkarra hildako baten gorpuari arerio deitzeak, areriotasuna ezereztu denean eta borrokan egiten zuen hori baizik geratu ez denean? Ala uste ote duzu hori egiten dutenek txakurrena baino besterik egiten dutenik, jaurtikitzen dizkieten harriekin amorratzen direnean, jaurtikitzen dizkienari ukiturik ere egin barik?

-Gutxiagorik ez, esan zuen.

-Bertan behera utzi beharko ote dira, bada, gorpu-erantzteak eta hilen gorpuak eramateko debekuak?

-Zeusarren, utzi behar dira bai, esan zuen.

XVI. - Eta ez ditugu iskiluak elizetara eramango han jartzeko bezala, eta gutxiago helladarrenak, gainerako helladarren begiruneaz ezertan arduratzen bagara; 470. alderantziz, etxekoen iskiluak elizetara eramatea lohikeria bat ez ote datekeen beldur izango gara, jainkoak besterik esan ez baleza.

-Gutiz zuzen, esan zuen.

-Eta zer helladar lurra hondatzeari eta etxe-erretzeari buruz? Nola jokatu zaizkizu zure gudariek arerioei buruz?

-Atseginez entzungo nuke, esan zuen, zure eritzia erakutsiko bazenit.

-Nik, bada, esan nuen, ez dela egin behar (b) deritzat ez bata ez bestea, urteko uzta bakarrik kendu behar zaiela baino. Eta nahi duzu zergatia esan dizudan?

-Bai, benetan.

-Uste dut nik, gudu eta matxinada, izen biok dioten bezala, izan ere gauza bi direla, gauza desberdin biri buruz erabiltzen direlako; bietatik bata etxeko eta senitarteko arazoei buruz dela diot, eta bestea inoreneko eta kanpokoei buruzkoa. Etxeko liskarrari matxinada deitu zaio eta bestekoenari gudu.

-Benetan, ezer ez diozu behar ez denik, esan zuen.

-Begira, bada, ea hau ere (c) esatekoa den, behar denekoa den: izan ere, helladar jatorria, bada, beretzat etxeko eta senide dela diot, eta barbaro-jatorriarentzat arrotz eta kanpoko.

-Ederto, benetan, esan zuen.

-Esango dugu, beraz, helladarrek barbaroen aurka eta barbaroek helladarren aurka borrokatuz gudua egin behar dutela, eta izaeraz ere arerio direla, eta areriotasun honi gudu deitu behar zaiola; baina helladarrek helladarrei berdin egiten dietenean izaeraz lagun direla eta horrela jokatzeari Hellada gaixotzen eta zatikatzen dela, (d) eta liskar horri matxinada deitu behar zaiola.

-Ni neu, bada, esan zuen, bat nator horrelaxe deitzeaz.

-Azter ezazu, bada, esan nuen, aitortu dugun matxinada horretan, honakorik gertatu eta hiria zati dadinean, batak besteari lurak hondatzen eta etxeak erretzen badizkio, zeinen kaltegarri dirudien matxinada horrek, eta nola ez bata, ez bestea, ez diren hiri-maitale; bestela ez lirateke ausartuko bere hazitzaile eta ama hondatzen; aitzitik, neurritsuagoa dela dirudi

garaileak garaituei (e) uzta kentzea, eta adiskidetuko direla, eta ez dutela beti borrokan egingo gogoratzea.

-Badirudi uste hau, esan zuen, askoz gizabidetsuago dela bestea baino.

-Eta gainera, zer? esan nuen, ez ote da, bada, helladar izango, eraikiko duzun hiria?

-Benetan izan behar du, esan zuen.

-Eta hiritarrak, bada, ez ote dira on eta gizabidetsu izango?

-Zalantzarik gabe.

-Eta Hellada maitale ez? Eta ez ote dute Hellada etxekotzat izango eta gainerako helladarrek bezala erligio bera izango?

-Bai, zalantzarik gabe.

-Helladarren arteko eskatima, 471. eurak etxeko izanik, ez ote dute matxinadatzat edukiko, gudu deitu barik?

-Bai.

-Eta ez ote dute jokatu adiskidetuko diren bezala?

-Guztiz, bada.

-Bihozberatasunez, bada, zuzenduko dituzte, ez joputzaz edo heriotzaz zigortuaz, arerio barik benetako zuzentzaile izanik.

-Horrelaxe, esan zuen.

-Beraz, helladar direlarik, ez dute Hellada hondatuko, ezta etxeak erreko, ezta ez dute uste izango ere hiri bakoitzean denak, gizon, emakume zein umeak arerio direnik, gutxi batzuk baino, beti (b) liskar-sortzaileak. Eta guztiongatik ez dute nahi izango euren lurra hondatzerik, gehienak adiskide direlako, ezta etxeak erretzerik ere; eta eskatima honaxeraino egingo dute, errugabekoen nekeengatik errudunei ordaina ordainarazteraino bakarrik.

-Aitortzen dut, bada, honelaxe jokatu behar dutela gure hiritarrek euren aurkakoeikin; eta barbaroen aurka, berriz gaur egunean helladarrek elkarri egiten dioten bezala.

-Jarriko ote diegu zaintzaileei legetzat (c) lurrik ez hondatzea eta etxerik ez erretzea?

-Jarriko diegu, bai, esan zuen, eta lehengoak adinean hauek ere ontzat izango ditugu. XVII. Baina uste dut, ene Sokrates, honakoak esaten inork uzten badizu ez zarela inoiz gogoratuko, guzti hauek esatearren, alde batera utzi zenituenaz: honako hirigintzarik izan ahal den, eta zein eratan ahal den. Benetan izan baledi, sor litekeen hiri horretan on litezkeen gauza guztiak egon litezke, eta zuk bazterrean utzi dituzunak ere neuk aipatzen ditut: senide, guraso eta semetzat elkar ezagutuz eta deituz, elkar gutxien bazter lezaketenez, arerioen aurka ondoen borroka litezke; (d) gainera andrazkoek ere hauekin batera borrokan egin balezate euren iladan zein atzekoetan jarriarik, arerioei beldurra sortzearren, eta inoiz euren laguntza behar baledi, badakit guzti honengatik azpiratu ezinak izan litezkeela, eta badakusat benetan zenbat on izan lezaketen etxean, orain esan barik alde batera utzi direnak. Baina nik, (e) hirigintza hau sor baledi, gauza hauek

denak eta beste mila ere ahal direla aitortzen dizudanez, ez ezazu hartaz gehiago hitzegin, eta ahalegin gaitezen honezkero elkarri sinestarazten, ahal dela eta nola ahal den, eta gainerakoak utz ditzagun alde batera.

-472. Benetan, esan nuen, nire arrazoiari bat-batean halako goitik beherako eraso bat egin diozu eta inguruka ibili naizen honi ere ez diozu barkatu, baina, beharbada, ez dakizu ozta-ozta olatu biei ihes egin diedan honetan, orain, hirugarren olaturik handiena eta zailena gainbehera dakarkidazula, baina ikusi eta entzungo duzunaren ondoren, benetako aitzakitzat izango duzu honela, eritzikontrako (paradogiazko) burubidea ematen eta aztertzen saiatzeko arrazoiz nintzela nagi eta beldur.

-Zenbat eta, esan zuen, honako gehiago esan dezazun, gutxiago utziko dizugu (b) hirigintza hau nola gauza daitekeen esan gabe utz dezazun. Esan, bada, eta ez dezazula astirik gal.

-Orduan, esan nuen, lehenengo hauxe gogoratu behar da, honaino heldu ginela zuzentasuna eta bidegabekaria zer ziren aztertzerakoan.

-Behar da, baina hori zer da? esan zuen.

-Ezer ez; baina zuzentasuna nolakoa den aurki badezagu, ez ote dugu uste izango gizon zuzenak ere ez duela harengandik alderik txikienik izan behar, oso-osoan zuzentasuna den lakoxea (c) izan behar duela baino? Ala ahalik eta zuzentasunetik hurren

izan dadin eta besteak baino partaidetza handiagoa izan dezan nahikotzat izango ote dugu?

-Horrelaxe, esan zuen, nahiko izango dugu.

-Eredu bat izatearren, bada, esan nuen, zuzentasuna bera nolakoa zen, eta egin-egineko gizon zuzena, sor baledi, nolakoa izan litekeen aztertzen genuen, baita bidegabekeria eta gizonik bidegabeena ere, eurei begiraturik, beren zoriontasun eta osterantzekoari buruz nolakoak izan litezkeen agertzen zaizkigun arabera, guri geuri buruz ere aitortzera behartuak izan gaitezen, haien (d) antzekoen datekeenak, haien zoririk antzekoena izango duela, baina ez horregatik, horrelakoak egotea ahal dela erakuts dezagun baino.

-Esaten duzun hori, esan zuen, egia da.

-Uste ote duzu pintatzaile bat txarragoa dela, egon litekeen gizonik ederrenaren iduria margotuz, eta gai den guztia margo horretan jarriaz, honako gizonik egon ahal litekeenik erakuts ezin baleza?

-Zeusarren! Nik ez, esan zuen.

-Zer, bada? Guk ere ez ote dugu esango hiri on baten eredu bat hitzez (e) egiten ari ginela?

-Bai horixe.

-Honako hiri bat esaten zen bezala izan litekeenik erakutsi ezin badugu, horregatik gure bidezko arrazoia zerbait gutxiago denik uste al duzu?

-Ez horixe, esan zuen.

-Hauxe da, bada, egia, esan nuen; baina zuri eder egitearren, nola eta zeren arabera guztiz ahalezko litekeen erakutsi beharbada, nirekin bat etorri behar duzu frogari buruzko gauza beretan.

-Zeintzuk?

-Ahal ote da, bada, esaten den eran ezer 473. egin, ala ez ote da berezko, egite hori egiatik, esana baino urrunago izatea, besterik uste izan arren? Horrelaxe dela aitortzen duzu, ala ez?

-Aitortzen dut, esan zuen.

-Ez nazazu behartu, gauzak esaten dugunaren arabera egitean ere guztiz berdin gertatzen direla azal dezadan; baina esan dugunetik hurren hiria egiteko era aurkitzeko gai bagara, esaguzu aurkitua dugula zuk agintzen dituzun gauza hauek ere nola ahalezko diren. (b) Ala ez ote duzu nahikoa izango gauzok lortzea? Nik neuk nahikoa izan nezake.

-Nik ere, esan zuen.

XVIII. - Honen ondoren, dirudienez, ahalegindu beharko dugu bilatzen eta argi uzten ere, gaur egunean hirietan txarto zer egiten den, esanikoaren arabera zuzenduak ez izateko, eta zein gauzarik txikiena aldaturik, hiria era honetako hirigintza-erara hel litekeen; gehienbat, gauza bat edo bi, edo ahal denik eta gauzarik gutxien eta garrantzi txikienetarikoa aldatu behar da.

-Bete-betea, (c) bada, esan zuen.

-Gauza bat bakarrik, bada, esan nuen, aldaturik, uste dut dena alda litekeela erakuts genezakeela; ez da bera gauza txikia, ezta erraza, ahalezko izan arren.

-Zein? esan zuen.

-Iduritzen zaigun, olaturik handienari buruz noa, esan nuen, baina hala ere, barrezka hasten den olatuaren antzera, gehiagoko barik, barregarrikerian eta izen txarrean urperatu izan arren, esan behar da. Azter ezazu esatera noana.

-Esan, esan zuen.

-Edo, esan nuen, filosofoak hirietan (d) errege izan ez badaitez, edo gaur egunean errege eta erregegai deituak zuzen eta egoki filosofo bihur ez badaitez, eta ahalmen politikoa eta filosofia batera ez baletoz, eta gaur egun biotatik batera aparte doan hamaikatxo izaera gerarazia izan ez badadi, ene adiskide Glaukon, hirien kalteak ez du azkenik izango eta uste dut gizadiarenak ere ez, eta hori baino lehen, hitzez oraintsu azaldu dugun hirigintza hau ez da inoiz egia bihurtuko (c) ahal daitekeen neurrian, ezta eguzkiaren argirik ere ez du ikusterik izango. Hauxe da aspaldion esateko beldurra ezarten didana, zerbait guztiz eritziaren aurka esana izango dela ikusiz; izan ere zail da ikustea inongo beste hiri batek gizaki bakoitzari zein herriari zorionik ekar liezaiokeenik.

-Eta berak esan zuen: Ene Sokrates, hara nolako esaldia eta arrazoia jaurtiki dituzun! Esan duzunaz pentsa ezazu, oraingoan zure gainera ez gutxi eta ez badaezpadakoak datozkizula, jantziak erantziz bezala, 474. biluzik, bakoitzari eskura datorkion iskilua harturik harrigarriak egiteko gertu; arrazoiekin baztertzen

ez badituzu eta ihes egiten, benetan isekak jasan ondoren, ordaina eman beharko duzu.

-Ez ote zaitut, bada, zu, esan nuen, horren eragile?

-Egin ere, benetan, ondotoxoa egin dut, esan zuen. Baina ez zaitut salduko, ahal dudan neurrian babestuko zaitut. Eta izan ere ahal izango dut borondate onez eta zuri onu emanez, eta, beharbada, beste inork baino egokiago (b) erantzungo dizut. Nolako laguntzailea duzun kontutuan izanik, ahalegin zaitez sinesmen gabekoei zuk diozun lakoa dela erakusten.

-Saiatu beharko da, esan nuen, zuk ere horrelako laguntasun handia aurkezten didazunez gero. Beharrezko da, bada, iduritzen zait, esaten dituzunei ihes egitera bagoaz, argi uztea zeintzuk diren agindu behar dutela esaten ausartzen garen filosofoak, argi geratu direnean, edozein ere defendatu ahal izan dadin erakutsirik, batzuei izaeraz dagokiela filosofiaz aritzea eta hiria zuzentzea, (c) eta besteei ez dagokiela zuzendariari jarraitzea baino.

-Ordua dateke, esan zuen, argi uzteko.

-Ea, bada, jarrai iezadazu horretan, ezertan egoki zuzentzeko gai izan bagaitez.

-Goazen, esan zuen.

-Beharrezko ote duzu gogoratzea, esan nuen, ala gogoratuko al zara, inork zerbait maite duela esan dezagunean, zuzen esatekotan, ez duela zerbait horren alde bat bai eta bestea ez maitatuz azaldu behar, den osoa maitatuz baino?

XIX. - Dirudienez, esan zuen, beharrezko da gogoratzea, ni ez (d) naiz guztiz gogoratzen eta.

-Diozuzenak, ene Glaukon, beste bati dagokio esatea; maitezale bati, ordea, ez dagokio ahaztea, sasoi betera heldu diren guztiek maite duten gaztea eta maitabera, honen koaitaren eta laztanaren duin direla eritziz, era batera edo bestera horzkatu eta mugiarazi egiten duela; ala ez ote duzue horrela egiten zuen politekin? Bata sudur-motza delako poxpolin deituaz txalotzen duzue, bestea sudur-luze bada erregearena daukala diozue, eta erdizkoa daukanari neurrikoen daukala, (e) eta beltzaranak adoretzu iduri dituzue, eta zurbilak jainkoen seme direla. Uste ote duzu, bada, ezti-kolore izena bera beste inoren asmakizuna denik, sasoiaren legokeen maitearen zurbiltasuna atseginkor eramanez txeratsu mintzatzen den maitalearena baino? Eta hitz batean esateko, aitzaki guztiak jartzen dituzue 475. eta doinu guztiak erabiltzen, loraldian dagoen bat bera ere gal ez dezazuen.

-Esan nahi baduzu, esan zuen, nire bidez maiteminduek horrelaxe egiten dutela, bat nator arrazoiaren arauetz.

-Eta zer? esan nuen, ez ote dituzu ikusten ardozaleak ere gauza berdin-berdinak egiten? Edozein aitzakipean, edozein ardo atsegin dutela?

-Bai horixe.

-Benetan uste dut baita ere, deduzaleak ere ikusten dituzula gudu-buruzagi izan ezin badira, gudu-sail bateko heren-buru egiten direla eta gizaki handikiez eta gorenez (b) omenduak ez badira, txikiagoez eta arruntagoez omenduak izatea nahi izaten dutela, egin-eginean dedu-gosez direlako.

-Oso-osoan, bada.



-Erantzun honi, bada, baietz edo ezetz: Inor zerbaiten zale dela diogunean, gauza horren osotasunarena dela esango dugu, ala alde batarena bai eta bestearena ez?

-Gauza osoarena, esan zuen.

-Ez ote dugu esango filosofoa jakiturizale denik, ez jakituriaren alde batarena edo bestearena, osoarena baino?

-Egia.

-Orduan, ikasketei buruz (c) gogotxarreko denari, gazte bada areago, eta onuragarri den eta ez denari buruz ondino eritzirik ez daukanari ez diogu esango ikasizale edo filosofo denik; berdin jatekoari buruz jangar litzatekeenari ez diogu esango gose denik, ez eta janaririk nahi duenik, edo janarizale denik, jangar dela baino.

-Esan ere, zuzen esango genuke.

-Baina atseginez ikaskizun oro dastatu nahi duenari, eta pozez ikastera doanari, eta inoiz asetzen ez denari, bidezko izango da filosofo dela esatea. Ala zer?

-Eta Glaukonek esan zuen: Horrelakoak ugari eta baragarri (d) izango dituzu. Uste dut, ikusizale guztiak direla horrelakoak, ikusteaz pozten direnean; halaber entzunzaleak dira filosofoen artean jartzeko eragabekoenak: hauek honelako hitzaldi eta eztabaidetara ez lirateke borondatez etorriko, aitzitik, euren belarriak alogeraturik bezala, edonondik dionysiar koro guztiak entzutearren dabilta, zein hirietakorik zein auzoetakorik, bat ere utzi gabe. Guzti hauei eta an-

tzeko beste ikasle (e) batzuei, eta bada-ezpadako ogibidekoei filosofo deituko diegu?

-Ezelan ere ez, esan nuen, filosofo antzeko baino.

XX. - Zeintzuk diozu, bada, esan zuen, egiazko filosofo direla?

-Egiaren ikusizaleak, esan nuen.

-Hori ere, benetan zuzen dago, baina nola diozu hori?

-Ez da, benetan, erraza izango, esan nuen, beste bati azaltzea, baina uste dut zu bezalako batek aitortuko didala honako hau.

-Zer gauza?

-Gauza itsusia ederraren osterantzeko denez gero, gauza desberdin bi 476. direla.

-Eta nola ez?

-Bi direnez gero, ez ote da bakoitza gauza bat?

-Hori ere bai.

-Arrazoi bera izango da, beraz, zuzentasun eta bidegabekeriari buruz, on eta txarrari buruz, eta beste burutasun guztiei buruz, bakoitza gauza bat dela, baina ekintzez, gorputzez eta euren arteko nahastez, bakoitza itxura askotakoa agertzen dela.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Horregatik, bada, esan nuen, berezi behar ditut, alde batetik, oraintsu aipatu dituzun ikusizaleak, trebetasunzaleak, eta ekintzazaleak, eta bestetik, zalantzarik gabe, (b) eztabaidagai izan direnak, zuzen filosofo dei geniezaiekeen bakarrak.

-Nola diozu? esan zuen.

-Entzunzaleek, bada, esan nuen, eta ikusizaleek doinu, margo eta iduri ederrak eta hauekin eginik dauden gauza guztiak atsegin izaten dituztela, baina euren adimena, edertasunaren beraren izaera ikusteko eta atsegin izateko ez dela gai.

-Horrelaxe da, bada, esan zuen.

-Ez ote dirateke, bada, (c) gutxi batzuk bakarrik zuzenean edertasunerantz jo eta bere-berean ikusteko gai direnak?

-Bai horixe.

-Gauza ederrak onarturik edertasuna bera onartzen ez duena, eta inork bera ezagutzera eramanez ezagutzeko gai ez dena, ametsetan ala iratzarrik bizi dela uste duzu? Begira: nahiz ametsetan nahiz iratzarrik, amets egitea ez al da hau: antzekoa, antza duenaren antzekotzat hartu ordez, berberatzat hartzea baino?

-Zalantzarik gabe nik esango nuke, esan zuen, horrelakoa ametsetan dagoela.

-Eta zer? Hauen alderantziz, edertasuna bera badela uste duena, eta bai hura eta bai haren partaide dena ikusteko gai dena, (d) eta partaide haren gandik eta hura partaidearen gandik bereizten duena, iratzarrik ala ametsetan bizi dela uste duzu?

-Iratzarrik, bai horixe, esan zuen.

-Ez ote dugu, bada, zuzen esango bataren adimena ezagutzen duenaren ezagumena bezalakoa dela, eta bestearena erizten duenaren eritzia bezalakoa?

-Oso-osoan.

-Eta, erizten duela baina ez duela ezagutzen diogun hori gurekin haserretu, eta, egiazki esan ez dugulakoan, eztabaidan jar baledi, zer? Zer egingo dugu zerbait baretzeko (e) eta bere senean ez dagoela agertu gabe, emeki esteko?

-Behar duzu, bada, benetan, esan zuen.

-Ea, bada, begira zer esango diogun: nahi duzu honelaxe beragandik jakin dezagun esanik, ezer badaki ez garela berarekin bekaiztuko, alderantziz, atseginaz ikusiko genukeela zerbait dakien bat? "Esaguzu, bada, hauxe: ezagutzen duenak zerbait ezagutzen du, ala ezer ez?" Haren ordez erantzun diezazu zuk.

-Zerbait badakiela, esan zuen, erantzungo dizut.

-Ausaz, denik ala ez denik?

-Denik. Nola, bada, 477. ezagut ote lezake ez denik?

-Ziurtzat izango ote dugu edozein ikuspegitik, erabat dena, erabat ezaugarri dela, eta ez dena ezelan ere ezaugarri ez dela?

-Gutziz ziurtzat.

-Bego. Denik eta ez denekorik ezer badago, ez ote legoke argi eta garbi, denaren eta ezelan ere ez denaren erdian kokaturik dagoela?

-Erdian, bai.

-Denari buruz ezagumenik bada eta ez denari buruz, ezinbestean, ezezagutza, erdiko den horri buruz ere zerbait bilatu beharko da, ezjakintzaren eta jakintzaren (b) tarteko, horrelakorik izatea suerta baledi.

-Gutziz, bada.

-Ez ote diogu, ausaz, horri eritzi deituko?

-Nola ez, bada?

-Ausaz, jakintzaren ahalmen desberdina dauka, ala berdina?

-Osterantzekoa.

-Beraz, eritzia gauza bati buruz jartzen da, eta beste gauza bati buruz jakintza, bakoitza bere ahalmenaren arabera.

-Horrelaxe.

-Ez ote da, bada, berez jakintza, denari buruz jartzen, izatez dena zer den ezagutzearen? Baina, uste dut, lehenago, hemen batez ere, beharrezko dela gauza bat bereiztea.

-Nola?

XXI. - Esango dugu ahalmenak, zeintzuen bitartez ahal ditugunak eta ahal daitekeen (c) beste gauza oro ere ahal baitugu, diren arteko gauzen mota bat direla; adibidez ikusmena eta entzumena ahalmen direla diot, ulertzen baduzu esan nahi dudana iduria.

-Ulertzen dut, bai, esan zuen.

-Entzun iezadazu, bada, hauei buruz uste dudana: Beste gauza askotan, hauetara begiratzuz nire baitan bata bestearengandik bereizten dudana bezala, ahalmenean nik ez dut ikusten ez margorik, ez iduririk ez antzeko gauzarik. Ahalmenean, (d) zertarako den eta zer egiten duen hari bakarrik begiratzen diot, eta horrelaxe bakoitzari bere ahalmenaren arabera deituko diot, eta gauza berdinari buruz jarriarik dagoenari eta gauza berdina dagienari izen berdinez deituko diot, eta gauza desberdin bati buruz jarriarik dagoenari gauza desberdin bat egiteko, izen desberdinez. Eta zuk zer? Nola dagizu?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Goazen berriro, esan nuen, hoberen hori! Jakintza ahalmen bat dela diozu, ala zein izakitan jartzen duzu?

-Horretantxe, (e) esan zuen, benetan, ahalmen guztietan indartsuena bezala.

-Eta zer? Eritzia ahalmen bezala edukiko dugu, ala beste izaera baterantz eramango dugu?

-Ezelan ere ez, esan zuen. Eritziarekin ezin dugulako eritzi, eritzia dena baino besterik.

-Baina lehentxeago aitortu duzu, jakintza eta eritzia ez zirela bat.

-Nola, bada, esan zuen, bere senean dagoen batek berdin bezala inoiz jar litzake huts egina eta ez huts egina?

-Ederto, esan nuen, eta argi da gauza desberdintzat aitortzen zaizkigula jakintza 478. eta eritzia.

-Desberdin.

-Bakoitza jarriarik ote dago gauza desberdin batera eta bakoitzak bere ahalmena ote dauka?

-Beharrezko da.

-Jakintza, izatez denari buruz jarriarik ote dago, dena nolakoa den ezagutzearen?

-Bai.

-Eta eritzia, erizteko esango dugu?

-Bai.

-Eritziak jakintzak ezagutzen duen gauza bera ezagutzen ote du? Ezaugarria eta eritzigarria gauza bera ote dira? Ala ezinezkoa ote da?

-Ezinezkoa, esan zuen, aitortu ditugun arabera; ahalmen bakoitza gauza desberdin bati buruz jarriarik badago, eritzia eta jakintza, (b) desberdinak izan arren, biak izan ahalmen dira, esaten genuenez; hortik, bada, jakingarria eta eritzigarria ezin dira bat izan.

-Izatez dena, jakingarri bada, eritzigarria ez ote dateke denekotik gauza desberdin bat?

-Desberdina.

-Eritzirik ba ote da ez denari buruz? Ala ezinezkoa ote da ez denari buruz eriztea? Azter ezazu: erizten duenak ez ote darama zerbaiti buruz eritzirik? Ala ahalezko ote da ezer eritzi barik eriztea?

-Ezinezkoa.

-Eta erizten duenak ez ote du zerbaiti buruz erizten?

-Bai.

-Ez denari ez ote lekioker zuzenago (c) "zerbait" barik "ezereza" esatea?

-Guztiz, benetan.

-Ez denari ez ote diogu, ezinbestean, ezjakintasuna deitzen eta denari, jakintza?

-Zuzen, esan zuen.

-Ausaz, denari buruz eta ez denari buruz ez ote da erizten?

-Ez.

-Eritzia ez ote dateke izan ez ezjakintza, ez jakintza?

-Ez dirudi.

-Ausaz, eritzia, hauetarik landa ote dago, argitasunez jakintza gaindituz eta iluntasunez ezjakintasuna?

-Ez bata ez bestea.

-Ausaz, bada, esan nuen, ez ote duzu uste eritzia jakintza baino ilunago denik eta ezjakintasuna baino argiago?

-Benetan askoz gehiago, esan zuen.

-Bion artean (d) jartzen ote da?

-Bai.

-Eritzia, ausaz, bion tartekoa dateke?

-Zalantzarik gabe.

-Ez ote genuen lehenago esaten, denik eta era berean ez denik ager baledi, hori, argi eta garbi zenaren eta erabat ez zenaren artean jartzen zela, eta ez jakintza ezta ezjakintza ere horri buruz ez zela izango, ezjakintza eta jakintzaren tarteko agertuko zen zerbait baino?

-Zuzen.

-Hauen tarteko ez ote da, bada, agertzen eritzi deitzen diogun hori?

-Agertzen da, bai.

XXII. - Aurkitzeko geratzen zaiguna, dirudienez, denaren eta ez denaren, bion partaide den huraxe (e) da, eta zuzenean argi eta garbi ezin diogu deitu, ez bata ez bestea, ager baledi, bidez deitu ahal diezaiozun eritzigarria dela, gorenko gauzei gorenkoen, eta erdiko gauzei erdikoen izena itzuliaz. Ala ez ote da horrelaxe?

-Horrelaxe.

-Guzti hau jarria izanik, esango dut, esan eta erantzun diezadala 479. edertasunik ez dagoela, ezta edertasunaren iduri bat bera ere, eta beti berean irauten duenik ere ez dagoela, gauza eder asko baino, uste duen gizon on hark; edertasuna bat dela, eta zuzentasuna bat, eta gainerakoak berdin direla inork esatea jasan ezin duen ikuskizunzale hark. "Esango diogu, hoberen hori, gauza eder asko hauen artean, ausaz,

ez ote da ezer itsusirik agertuko? Eta zuzen diren gauzen artean bidegabe ez denik? Eta dohatsu direnen artean, dongo ez denik?"

-Ez, esan zuen, beharrezko dela baino gauzak, nola edo hala, eder (b) eta itsusi ere agertzea, eta itauntzen dituzun beste gauza guztiak berdin.

-Eta bikoitz agertzen zaizkigun gauzei buruz, zer? Gutxiago agertzen ote dira erdikiak bikoitzak baino?

-Ez.

-Eta gauza handiei, bada, eta txikiei, arinei eta astunei, ausaz, gutxiago deituko al zaie ematen dizkiegun izenez, ala osterantzekoez deituko zaie?

-Ez, esan zuen, aitzitik, bakoitzak bietan esku hartuko du beti.

-Eta bera dela esan daitekeen gauza askotatikako bakoitz hori gehiago ote da izan, ala ez ote da?

-Gauza hauek, esan zuen, oturuntzetan erabiltzen dituzten zentzubikoiztasunen antza daukate; baita (c) irenduari eta saguzarrarenganako jaurtiketari buruzko ume-igarkizunarena ere, bertan hark zerez eta zerez gain jaurtikitzen duen igerriz. Gauza hauek ere zentzubiko dira, ezin delako ziurtasunez uste izan, diren ala ez diren, gauza biak diren ala bata ere ez den.

-Ba ote duzu, esan nuen, eurakin gauza hoberik egiteko edo leku hoberik jartzeko, denaren eta ez denaren artean jartzea baino? Ez dira agertzen, bada, ez dena baino ilunago, are gehiago ez izateko, ezta (d) den hori baino argiago ere, gehiago izateko.

-Egiarik handiena, esan zuen.

-Aurkitu dugu, bada, dirudienez, ederrari buruzko eta gainetiko gauzei buruzko gehien sinesteak, ez denaren eta argi eta garbi denaren bitartean dabilzala iraulika.

-Aurkitu dugu, bai.

-Benetan, aurrez aitortzen genuen, horrelakorik ager baledi, eritzigarria deitu behar geniola, baina ez jakingarria, eta erdizka dabilen hori erdiko ahalmen horrekin eskuratu behar dela.

-Aitortu genuen.

-Gauza eder asko ikusirik (e) edertasuna bera ikusten ez duenak, eta horretara daramanari jarraitu ezin badiote, eta gauza zuzen asko ikusiarren, zuzentasuna bera ikusten ez badute, eta gainerakoetan berdin, esango dugu gauza guzti hauei buruz erizten dutela, eta erizten dutenari buruz, ez dutela ezer ezagutzen.

-Beharrezko da, esan zuen.

-Eta zer, bestalde, gauza bakoitza eta beti bere-berean delarik ikusten duenari buruz? Ez ote dugu esango ezagutu egiten dutela, baina ez erizten?

-Hauek ere esan behar.

-Ez ote dugu esango hauek ezagutzen dituzten gauzak eta besteek 480. erizten dituztenak besarkatzen eta maitatzen dituztela? Ala ez ote dugu gogoratzen esaten genuela honakoek doinu eta margo eta antzeko gauzen maitale eta ikusizale zirela eta ez zutela jasaten edertasuna bera denik ere?

-Gogoratzen dugu.

-Huts egingo ote dugu filosofo baino gehiago, eritzizale deitzen badiegu? Ez ote dira ausaz gurekin haserretuko horrelaxe dei bageniezaie?

-Ez, esanera jar badakizkit, esan zuen, ez delako zilegi egiarekin haserretzea.

-Eta den gauza bakoitzari lotzen direnei, eritzizale ordez ez ote zaie filosofo deitu behar?

-Guztiz, bada.

## VI

484. I. - Nekez bada ere, ene Glaukon, esan nuen, hitzaldi luze bat egin ondoren, hona hemen nola agertu zaizkigun giza eredu bi horietatik, zeintzuk diren benetan filosofo eta zeintzuk ez.

-Beharbada, esan zuen, ez zen erraz izango laburrago baten bidez.

-Ez dirudi, esan nuen; nik uste dut, bada, ondino argiago agertuko zela horri buruz baino ihardun behar izan ez bagenu, eta ez gainerako gauza guztiei buruz, bizitza zuzen eta bidegabearen artean zer alde dagoen (b) arakatzearren.

-Eta zer dugu, bada, esan zuen, honen ondoren?

-Zer besterik, esan nuen, hurrengo baino? Beti berean irauten duena eskuratzeko gai dena filosofoa denez gero, eta gauza desberdin askotan hara-horra ibiltzen direnak filosofo ez direnez gero, biotatik, bada, zein ote da hiriko nagusi izan behar duena?

-Zer esanik, bada, esan zuen, adieraz ote genezake hori era neurritsuan?

-Biotatik, esan nuen, hiriko lege eta ohiturak zaintzeko lain diren haiek, (c) jarri behar direla zaintzaile bezala.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta, esan nuen, hauxe ere ez ote dago argi, zerbait zaindu behar duenak itsu ala ikusmen zorrotzeko izan behar duen?

-Eta, esan zuen, nola ez da argi izango?

-Itsuengandik alderik agertzen ote dute izate bakoitzaren benetako ezagumenik ez daukatenez eta ariman eredu argirik ez daukatenez, eta egiazkoenari begiraturik, margolariak egiten duen antzera, bertara beti itzulirik, ahalik eta zorrotzen ikusirik, edertasunari, zuzentasunari eta ontasunari buruzko arauak, horrelaxe (d) jarri behar direnean, bertan jartzeko, eta jarrikoan, zainduz, gordetzeko gai ez direnek?

-Ez, Zeusarren, esan zuen, ez dago alde handirik.

-Zeintzuk jarriko ditugu zaintzaile bezala, hauexek ala haiek baino esperientzia gutxiago ez daukaten eta bertutean ezertan gutxiago ez diren, izate bakoitzaren ezagutza daukatenak?

-Zentzubakoa litzateke, bada, esan zuen, gainerako gauzetan gutxiago ez izanik halakoak aukeratzea, arrazoi horren arabera, beharbada, gauzarik garrantzitsuenan gehiago lirateke eta.

-485. Ez ote dugu esango, bada, zein eratan honako hauek halakoak eta honakoak eduki ahal izango dituzten?

-Guztiz, bada.

-Eztabaida hau hasi genuenean esaten genuen bezala<sup>1</sup>, lehendabizi euren izaera ezagutu behar da, eta izaera horri buruz behar den bestean bat bagentoz, uste dut bat etorri gintezkeela baita ere honako gauza hauek izan ditzaketela, eta hiriko buruzagi ez duela izan behar beste inork hauexek baino.

-Nola?

II. - Filosofoen izaerari buruz, bada, aitor dezagun hauxe: betikoa den eta sorrerak eta hondamenak aldarazten ez duen izate hura erakuts liezaiekeen ikaskizuna maitatzen dutela beti. (b)

-Aitor dezagun.

-Eta gainera, esan nuen, gogoz ez dutela haren osoko alderik, txikirik zein handirik, balioudunik zein baliogabekorik galtzen, aurrerago omenzale eta maiteminduei buruz aritzen ginen bezala.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Honen ondoren, bada, hau ere azter ezazu, honakoak (c) izan behar dutela esaten genituenok, horrez gain euren izaeran beste hau ere izatea beharrezko duten.

-Zer, bada?

-Egiaren zaletasuna, eta gogoz ezelan ere gezurrik ez onartzea<sup>2</sup>, gezurrari gorroto eta egia maite izatea baino.

-Benetan bidezko da, esan zuen.

-Ez da, ene adiskide, bidezko bakarrik, guztiz beharrezko baino, izaeraz maitemindua denak maitearen senide eta etxeko den guztia maite izatea.

-Zuzen, esan zuen.

-Aurki ote zenezake jakintzarentzat ezer bereagorik egia baino?

-Eta nola? esan zuen.

-Ahalezko ote da, bada, filosofoak eta (d) gezurzaleak izaera bera izatea?

-Ezelan ere ez.

-Benetan egiazale denak, gaztetatik, ahal denik gehien egia ororen atzetik ibili behar du.

-Osotoro benetan.

-Jakín badakigu baita ere, nahikeriek gauza baterantz indartsu jotzen dutenean, gainerako gauzentzat ahulago bihurtzen direla, urlasterrak haraxe egingo balu bezala.

-Nola, bada?

-Jakintzarantz eta antzeko gauza guztietarantz dagienak, uste dut, den-denekoxeko arimako atseginerantz dagikeela, eta gorputzarenak bazter ditzakeela, itxurazko barik benetan filosofo (e) bada.

-Gustiz beharrezko.

-Honako gizona, bada, neurriko izango da, eta ez ezelan ere diruzale; honakoari inori baino gutxiago dagokio eralketa ugariz aberastasunak lortzearen arduratzen deneko ardurarik izatea.

-Horrelaxe da.

-Filosofo-izaera zein den eta ez den bereiztera 486. zoazenean, hauxe ere aztertu behar da.

-Zer, bada?

-Ez bekizu gorderik gera bilaukerian esku hartzen duen izaerarik, jainkozko eta gizakizko osotasun eta guztitasunerantz jo behar duen arimarentzat buru-kaxkarkeria baino osterantzekoagorik ez baitago.

-Egiarik handiena.

-Eta bere adimenez denbora eta izate osoaren goi-ezagutza eta ikuskizuna erdiesten duenak, uste ote duzu giza bizitza gauza handitzat edukiko duenik ?

-Ezinezko, esan zuen.

-Beldurgarritzat (b) izango ote du hark heriotza?

-Ezelan ere ez.

-Beraz, izaera doilor eta bilauekoak, dirudienez, ez dauka benetako filosofian partaidetzarik.

-Ez dut uste.

-Zer, bada? Diruzale, bilau, harro eta doilor ez den gizaki eratsuak basati eta bidegabe bihurtzeko erarik bai ote du?

-Ez du.

-Arima bat filosofo den ala ez aztertzerakoan, horixe aztertuko duzu, gaztetatik zuzen eta eroso, ala uxu eta basati den.

-Gustiz, bada.

-Hauxe ere (c) ez dut uste alde batera utziko duzunik.

-Zer?

-Ikasteko on ala traketsa den. Ala uste ote duzu, behar beste inor, inoiz nekez egiten duenarekin eta ia ezer aurreratzen ez duenarekin, zaletuko denik?

-Ezinezko litzateke.

-Eta guztiz ahazkor izanik, ikasiriko ezer gordetzeko gai ez balitz, zer? Jakintzaz huts ez izateko gai izan ote liteke?

-Eta nola?

-Eta etekin barik ihardun badadi, ez ote duzu uste, nahitanahiez, bere burua eta bere lanbidea ere gorrotatzen amaituko duenik?

-Nola (d) ez, bada?

-Beraz, ahazkor den arimarik ez dezagun inoiz jar batez ere filosofo direnen artean, aitzitik beharrezko dugu oroimentsua bilatzea.

-Zeharo, bada.

-Harmonia bako izaera itsusiari buruz ez dut uste esan genezakeenik neurribakokeriara baino eraman ahal gaituenik.

-Zergatik, bada?

-Egia zeinen senide dela uste duzu, neurribakokeriarena ala neurritasunarena?

-Neurritasunarena.

-Bila dezagun, bada, beste gauzez gainera, izaeraz neurriko eta atsegina den eta (e) gauza bakoitza denaren ideiara erraz eramana izan litekeen adimen bat.

-Eta nola ez?

-Zer, bada? Ausaz ez ote duzu uste izango azaldu ditugun guztiak beharrezko ez direnik eta bata bestearekin ez datozenik, behar den bezala eta azkeneraino izatearen ezagutze horretara doan arimarentzat?

-Guztiz beharrezko, bada, 487. esan zuen.

-Nola gaitzets ote zenezake, bada, behar den bezala, inork inoiz bizi ezin lezakeen honako bizi izateko era, berez oroimentsu, ikastun on, burubide zabaleko, atsegin, egiaren, zuzentasunaren, adoreaen eta neurritasunaren maitale eta senide izan ezik?

-Horrelakoa, esan zuen, Momosek<sup>3</sup> berak ere ez lezake gaitzets.

-Eta, esan nuen, hezkuntzaz eta adinez egin-eginekora helduriko hauexei bakarrik ez ote zenieke hiria luzatuko?

III. - Eta Adeimantosek esan zuen: Ene Sokrates, esan dituzunei buruz (b) inork ez liezazuke aurka egin. Baina hauxe da, bada, orain esaten dituzunak entzuten dituztenei beti gertatzen zaiena: itauntzeko eta erantzuteko gaitasun ezagatik, eztabaidaren arabera, itaun bakoitzean apur bat desbideratuak izanik autuaren azkenerako, apurrok batuz, gezur handi bat egin, eta hasieran agertzen zitzairen osterantzekoa agertzen zaiela uste dute; eta dama-jokoan trebe ez direnek trebe direnez inguraturik eta nora jo ez dakitela amaitzen duten bezala; berek ere, horrelaxe inguraturik amaitzen dutela uste dute (c) zotzezkoaren ordezt hitzezkoa den beste dama-joko honetan zer esanik gabe, horrekin egiak ezer irabazi ez arren. Aurrean daukagunari begira diot. Izan ere, norbaitek esan liezazuke zure itaunari ez daukala hitzez banan-banan erantzuterik oraingo honetan; egitez, bada, ikusten da filosofiarantz abiatzen diren guztiek ez dutela alde batera uzten, gaztaroan hezi izatearren (d) bakarrik ez dutelako hartu, luzaroago iharduteko baino, hauetariko gehienak, guztiz arriskugarri egiten direla ez esatearren, baragarri bihurtzen direla esan liezazuke, eta itxura egokiena daukatenak, zuk goratzen duzun bizimodu horretatik igaroz batera, hirientzat alferrik galtzen direla.

Eta nik hori entzutean esan nuen: - Horrelakoak esaten dituztenek gezurrik esaten dutenik uste al duzu?



-Ez dakit, esan zuen, baina atseginez entzungo nuke zuk uste duzuna.

-(e) Egia dioen ustea dudala entzungo duzu, bada.

-Nola, bada, esan zuen, esan daiteke zuzen, hirietako kalteak ez direla amaituko alferreko direla aitortu ditugun filosofoak agintean jartzen ez diren bitartean?

-Itaun horri, esan nuen, adibide bat esanez erantzun behar zaio.

-Benetan uste dudanez, esan zuen, adibidez erantzuteko ohiturarik ez duzulakoan!

IV. - Bego, esan nuen. Azaltzeko hain gaitza den arazo batera jaurtikitzen nauzula eta, adar jotzen zabilta? Entzun ezazu, bada, adibide hau, ondino hobeto ikus dezazun 488. zein trakets naizen adibideak jartzen. Izan ere hain txarra da gizaki iaioenek hirietatik jasotzen duten harrera, ezen, ez dago beste inor horren bestekorik jasan duenik; horregatik arazoa azaltzeko eta haien alde egiteko gauza asko bildu behar da, margolariak aker-oreinak eta antzekoak margotzeko gauza asko nahasten duten bezala. Itsasontzi gehienetan edo bakarren batean honako zerbait gertatzen dela gogoan har ezazu: bada ontzian, gorputzez denak baino (b) handiago eta indartsuago izanik, gor eta lauso samarra eta itsasoan ibiltzeari buruzko ezaupideak beste horrenbestekoak dauzkan itsasontzi jabe bat; eta lemazaintza eskuratzearen marinelak elkarren aurka matxinaturik, bakoitzak berak eraman behar

duela usterik, trebetasun hori ikasi bakoak izan arren eta zein irakasle izan zuten eta zenbat denboratan ikasten ari izan ziren erakutsi ahal izan ez arren, alderantziz baino, ez dela ikastekoa esanez, gertu daudelarik (c) zati-zati egiteko ikastekoa dela dioena; eta horrelakoek ontziaren jabea bera inguratzen dute, lema eurei eman diezaien eskatuz eta ahalegin guztiak eginez, eta etsi izan beharrean beste batzuei ontzi-jabeak jaramon gehiago egin baliezaie, honakoak hilik edo ontzitik jaurtikirik eta bidezko jabea, urrilo-belarrez zein ardoz mozkorturik zein beste zerbaitez harrapaturik, ontziaz jabetzen dira bertan dauden gauzak eskuraturik; eta horrelakoak, egin ohi duten bezala, jan-edanetan itsasoz dabilta, eta horrelakoetan, itsasgizon deitzen diete eta lemazain eta aditu bezala goratzen, (d) etsipenaren bidez zein indarrez aginteaz jabetzen laguntzeko gertu dagoenari eta alferrekotzat daukate horrelakorik egiten ez duena; eta benetako lemazainari buruz, benetan ontziko nagusi izan behar badu, eguraldiaz, urtaroz, zeruaz, izarrez eta haizeez eta bere trebetasunari dagozkion beste gauza guztiez arduratu behar duenik ez dute ulertzen, eta ontzia nola zuzendu behar duen, batzuek (e) nahi izan arren edo ez arren, ez dute uste trebetasun zein ohitura hori, bat-batean lemazaintza, eskura litekeenik. Itsasontzietan honako gauzak gertatzen direlarik, ez ote duzu uste benetako lemazain bati zeru-begirale, berritsu eta

ezgai deituko ez diotenik 489. era horretan atonduriko ontzietan itsasoratzen direnek?

-Bai horixe, esan zuen Adeimantosek.

-Ez dut uste, esan nuen, adibide hau zehatzago aztertu beharko duzunik, hirietan egiazko filosofoekin daukaten jarreraren antzeko dela igertzeko, esaten dudana ulertzen duzula baino.

-Bai horixe, esan zuen.

-Lehenengo, bada, iduri honekin, hirietan filosofoak omenduak ez direla eta, harritzen zenari erakuts iezaiozu eta ahalegindu zaitez sinestarazten askoz harrigarriago litzatekeela (b) omenduak izango balira.

-Erakutsiko diot, bai, esan zuen.

-Erakuts iezaiozu baita ere, egia diozula gehientzat filosoforik zentzuzkoenak alferreko direla; baina eska iezaiozu alferreko izate hori haiekin baliatzen ez direnei lepora diezaiela, eta ez zentzuzko direnei. Izan ere, izatez ez dagokio lemazainari marinelei berak agin diezaien eskatzea, ezta jakintsuak aberatsen ateetara joatea, horrelako bitxikeriarik esaten duenak gezurra diola baino; eta egia berez hauxe da: gaixorik dagoenak, aberats zein behartsu, sendagileen ateetara (c) jo behar duela, eta agindu izatearen beharra daukan guztiak agintzeko gai denaren ateetara, eta ez agintariak agindupekoei agintaritza eskatzea, ez horretan zerbait benetako onurarik balego, behintzat. Baina ez duzu hutsik egingo, orain agintean dauden politikoak lehen aipatzen genituen marinelekin, eta haiek,

alferreko eta berritsu deitzen zituztenak, benetako lemazainekin parekatzen badituzu.

-Zeharo zuzen dago, esan zuen.

-Horregatik bada eta horrelakoetan, ez da gauza erraza osterantzeko bizimodua bizi dutenek, (d) bizimodurik ederrena aintzakotzat hartzea; bestalde filosofiari egiten zaion erasorik askozaz handiena eta gogorrena filosofian bizi direla diotenek aldetik dator; horiei buruz ari zen aipatzen zenuen filosofiaren salatzailea, filosofiarantz doazen gehienak maltzur batzuk direla esanik, eta zentzuzkoenak alferreko batzuk, eta ni bat nentorren egia esaten zenuela. Ala, zer?

-Bai.

V. - Ez ote dugu, bada, zentzuzkoen baliogabetasunaren oinarria azaldu?

-Bai horixe.

-Eta honen ondoren nahi duzu gehienek txar izatearen beharrezkotasuna azal dezagun, eta ahal bageneza, hori ere ez dela filosofiaren errua (d) argi jartzen saia gaitezen?

-Guztiz, bada.

-Entzun dezagun, bada, eta esan ere esan dezagun, gogoan izanik, nondik eta non azaldu genuen, egin-eginekoko gizaki bat izateko, 490. nahitanahiez, nolako berezko izaera eduki behar zen. Eta uste izaten zen, gogoan baduzu<sup>4</sup>, beragan lehenengoa egia zela, eta gauza guztien gainetik eta gauza guztietan egia jarraitu behar ziola, edo bestela benetako filosofiarekin zerikusirik ez zeukan gezurtia zela.

-Hauxe zen, bai, esan zena.

-Ez ote da, bada, hauxe gaur egun filosofiari buruz uste den eritziaren guztiz aurka dagoen eritzi bat?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ez ote dugu, bada hori neurritsuago aldeztuko, esanez, benetako jakinzalea izatearen bila lehiatzeko izaeraz sortua datekeela, eta ez dela geratzen ustez bakarrik deneko (b) gauza bakoitzean, aurrera egiten duela baino, etsi izan barik eta maite duenari ukorik egin barik, izatea daukan gauza bakoitzaren izaera erdietsi arte, eta bere arimari dagokion -kidetasunez dagokio izan ere- alde horrekin eskuratzen duela, eta alde horren bitartez benetako izatearekin hurreratzen eta batzen dela adimena, eta egia ernaldurik benetako ezagumena, bizitza eta hezkuntza lortzen dituenen, orduantxe amaitzen zaizkiola erdiminak eta lehenago ez?

-Ez dago aldezte neurritsuagorik, esan zuen.

-Zer, bada? Horrelakoari, gezurra maite izatea ala guztiz osterantzeko dena, gorroto izatea ote dagokio?

-(c) Gorroto izatea, esan zuen.

-Egia zuzendari izanik, ez dut uste inoiz esango dugunik txarkeria-andana batek jarraituko dionik.

-Nola, bada?

-Neurritasunak lagun diezaiokeen izaera osasuntsu eta bidezkoak jarraituko diola baino.

-Zuzen, esan zuen.

-Zergatik, bada, jarri behar da berriro hasieratik lerro-lerro filosofo-izaeraren gainerako beharrezko berezitasunak? Ausaz gogoratuko duzu halakoei dagokiela adorea, zabaltasuna, ikasteko erraztasuna, eta oroimena. Baina gaineratu zenidanez, esaten genituenekin bat etortzera edonor behartua zegoen, (d) baina arrazoi hauek baztertuz, gure hizpidetako izakiei begiratzuz gero, esan dezake, hauetako batzuk, alferreko eta gehienak era guztietako gaiztakerietan gaizto ikusten zituela; eta salaketa maltzur hori aztertzean, gai honetara heldu gara: gehienok zergatik ote diren gaizto; eta horregatik berriro gogoratu behar izan dugu eta ezinbestez mugatu, benetako filosofiaren izaera.

-Halaxe da, (e) esan zuen.

VI. - Aztertu behar direnak, bada, esan nuen, izaera horren hondatze-erak dira, nola askori izaera hori hondatzen zaien eta nola gutxi batzuk diren hondamendi horri ihes egiten diotenak, hauei, bada, ez zaie gaizto deitzen, alferreko baino. Ondoren, izaera horren imitatzailerak diren 491. eta haren eginkizunean jartzen diren hondamenak aztertuko ditugu: ea zer eratako arima-izaerek ezarri zioten filosofoari, eurentzako lain eta duina ez den zereginera itzuliz, era askotara huts egin eta, zuk diozun edonolako ospe orokorra.

-Eta zeintzuk dira, bada, esan zuen, aipatzen dituzun hondamenok?

-Gai banaiz, esan nuen, ahaleginduko natzaizu azaltzen. Uste dut, bada, honetan bat gatzela, honako izaera bat, eta egin-egineko filosofo (b) bihurtzeko eskatzen genituen gauza guztiak dauzkana, urri eta gizon gutxiengan sortzen dela. Ala ez al duzu uste?

-Benetan.

-Azter ezazu, bada, zenbat eta zein handiak diren gutxi horien hondamendiak.

-Zeintzuk dira, bada?

-Gauza guztietatik entzuteko harrigarrien dena zera da, izaeran goraipatzen genituen ondasunetako bakoitzak, honen jabe den arima hondatu eta filosofiatik urruntzen duela; hau da, adoreak, neurritasunak eta azaltzen genituen guztiak.

-Benetan baragarria entzuteko, esan zuen.

-Eta gainera hauek ez ezik, esan nuen, (c) ondasun izena daukaten guztiek ere hondatzen eta filosofiatik urruntzen dute, edertasunak, aberastasunak, gorputzeko indarrak, hirian eragin handia daukan senidetzak eta antzeko guztiak. Honezkero esaten dudanaren aztarrena hartu duzu.

-Hartu dut bai, baina diozuna atseginez zehatzago jakin nahi nuke.

-Har ezazu, bada, zuzenean arazoa bere osotasunean eta argi agertuko zaizu, eta eurei buruz aurrerago esanikoari ez diozu baragarri eritziko.

-Zer da, bada, agintzen didazuna?

-Badakigu, esan nuen, lurreko landare zein abereen edozein (d) haziri buruz, bakoitzari doakion hazkuntza, eguraldia edo lekua suertatzen ez bazaio, zenbat eta indartsuago litzatekeen hainbat eta doazkionen premia gorriagoan aurkitzen dela, edozelan ere gauza txarra onaren osterantzekoagoa delako, on ez denarena baino.

-Eta nola ez?

-Arrazoizko dela uste dut, izaera iaioago batek ez dagokion hazkuntza badu, izaera eskasekoa baino txarrago bihurtzea.

-Hala da, bai.

-Ez ote dugu, bada, esan nuen, ene Adeimantos, (e) berdin esango, arimarik hoberenak heziketa txarra badaukate, askoz txarrago egiten direla? Ala uste ote duzu hobetik handienak eta gaiztakeriarik gaiztoena, gaztetatik hezkuntzarekin hondaturiko izaera batetik barik, arima eskas batetik sortzen direnik, eta izaera makal bat, on handi zein txarkeria handien eragingarri inoiz izango denik?

-Ez, esan zuen, horrelaxe baino.

-Uste dut, jartzen genuen 492. filosofo-izaera batek hezkuntza egoki bat topa badeza, derrigorrez, bertute guztien garapena lor dezakeela, baina izaera hori behar ez den leku batean erein, erne eta haz baledi, guztiz alderantzizkora helduko da gainera, jainkoren baten laguntza suertatzen ez bazaio behintzat. Ala zuk ere, gehienek bezala, uste ote duzu badirela sofistek hondaturiko gazte batzuk, eta kontutan izateko lain hondatzen dituzten bakarkako sofista batzuk, uste izan beharrean honako gauzak esaten dituztenak, eurak, direla (b) sofistarik handienak, gazteak zein zarrak, gizonezkoak zein andrazkoak nahi dituzten lakoak izan daitezen osotoro hezten eta egiten dakitelako?

-Noiz, bada? esan zuen.

-Batzarretan, esan nuen, auzitegietan, teatro-antzokietan zein gudaltegietan edo beste elkarren arteko batzarren batean, aldra handietan jarriarik, zarata handien bitartez esan eta egiten ohi diren gauzak, batzuk gaitzesten eta beste batzuk goratzen dituztenean gertatzen da, batean eta bestean gehiegikeriaz, zarataka eta txaloka; (c) euren zaratez gain, daudeneko harri eta tokiak berak ere, orro eginik, gaitzespeneko zein gorespenezko astrapala bikoizten dute. Horrelako gune batean, bada, gazte batek, esan ohi den bezala, nolako bihotza edukiko duela uste duzu? Edota nolako hezkuntzak gogor egin dezake bakarka, honelako gaitzespen edo gorespenak hondaturik, urlasterrak bere bidean eramanez, gal ez dadin, eta txar edo on esaten dituzten gauzei berdin esan ez diezaien, eta eurak egiten dituztenak (d) egin ez ditzan, eta euren antzeko izan ez dadin?

-Hori ezinbestekoa da, esan zuen, Sokrates.

VII. - Halere, esan nuen, ondino ez dugu hitzegin ezinbestekoenari buruz.

-Zein da? esan zuen.

-Hezitzaile eta sofista horiek hitzez inor eurenganatzeko gai ez direnean, egitez erabiltzen dutena. Ala ez ote dakizu esanera ez datorrena, eskubideak moztuz, isunez eta heriotz hondamenez ere zigortzen dutenik?

-Bai horixe, esan zuen, osotoro.

-Zein beste sofistak edo zein arrazoi berezik uste ote duzu irabazle irtengo dela, horrelakoari (e) aurre eginez gero?

-Bat ere ez, uste dut, esan zuen.

-Ez horixe, esan nuen; ahalegintzea ere zorakeria handia litzateke, zeren ez dago, ez da izan, eta ez da izango, bertuteari dagokionez bestelako izaerarik, ezta horien aurkako hezkuntza batean hezikorik, ene adiskide; giza izaerari buruz nabil, elezaharraren arabera, jainkozkoa alde batera utzi behar delako. Beharrezko da ondo jakitea honako erakunde politiko batean 493. agian ezer salbatu eta behar den bezala egin bada, ez duzula oker esango, jainkoak hala nahiz salbatu dela badiozu.

-Ez deritzat beste era batera denik.

-Esanikoak ez ezik, ondino hau ere sinetsi behar duzu.

-Zer, bada?

-Lan-lehiakidetzat dituzten eta sofista deitzen dieten norbanako lansaridunetatik bakoitzak ez du erakusten beste eritzirik, elkaturik dagoenean jendeak erizten duena baino, eta horri jakituria deitzen diote. Hori, piztia handi eta indartsu baten hazitzaileak piztia horrek zein jaidura eta nahikeria dauzkan ikastea bezala (b) da: nondik hurreratu eta ukitu behar zaion, eta noiz haserrean eta barean dagoen eta zergatik, eta zein arrazoiengatik egiten duen, egin ohi duen orro bakoitza, eta besteen zaratatetik zeintzuek leuntzen eta amorratzen duten ikastea bezala da; gauza guzti horiek tratuz eta azterbide luze batez ikasirik, horri jakintza deitu baliezaio eta trebetasun antzeko bat tolesturik irakasten has baledi benetan jakin barik uste eta nahikeria horietan zer dagoen ederrik zein itsusirik, onik zein txarrik, zuzenik zein bidegaberik, (c) gauza

guzti horiei piztia tzarraren arabera dei baliezaie, piztiak atsegin duenari on eta ernegatzen duenari txar deituaz, eta horiei buruz beste arrazoirik izan ez badeza, eta ezinbesteko den gauza bati zuzen eta eder dei baliezaio, ezinbestekoaren eta onaren izaerek benetan zenbateko aldea daukaten ikusi ezinik, besteri erakusteko gai izan ez baledi, Zeusarren, horrelakoa dena, ez ote duzu uste hezitzaile baragarria izan bide denik?

-Nik neuk bai, esan zuen.

-Uste ote duzu, bada, horrek alderik daukanik, edotariko jendetzaren batzarretan, (d) margolaritzari, musikari zein politikari buruzko jaidura eta atseginak ikasia izatea, jakintza dela uste duenarekin? Zeren, horrelakoengana poesia bat, edo beste lanen bat, edo hiriarentzako zerbitzuren bat erakustera inor joan baledi<sup>5</sup>, behar den baino gehiago jende hori bere jauntzat harturik, Diomedesen premia deritzanak behartuko luke haiek txalotzen dituzten gauzak egitera. Entzun ote diozu inori inoiz barregarri ez den arrazoiren bat ematen, benetan gauza hauek on eta eder direla egiaztatzerakoan?

-Benetan, uste dut, esan zuen, (e) entzun ere ez dudala egingo.

VIII. - Gauza guzti hauek, bada, gogoan izanik, ez dakizula beste hauxe<sup>6</sup> ahaztu. Ba ote dago biderik 494. gauza eder asko barik edertasuna bera, eta izate bakoitz asko barik izatea bera dagoela jendetza arruntak onar eta sinets dezan?

-Txikienik ere ez, esan zuen.



-Beraz, esan nuen, jendetza arrunta filosofo izatea ezinezko da.

-Ezinezko.

-Ezinbesteko baita ere, jendetza horrek filosofian ari direnak gaitzestea.

-Ezinbesteko.

-Baita jendetza horrekin harremanak dituenak eta honi atsegin ematea irrikatzen duten norbanako guztiek ere.

-Argi dago.

-Guzti horietarik filosofo-izaera batentzat zein salbabide ikusten dugu, bere zereginen jarraiturik azkeneraino hel dadin? Lehengoak gogoan izanik pentsa ezazu. (b) Aitortua dugu, bada, izaera horrenak, ikasteko erraztasuna, oroimena, adorea eta zabaltasuna direla.

-Bai.

-Horrelakoa, ez ote da, bada, umetatik guztien artean lehenengoa izango, batez ere, gorputzez arimaren antzera garatzen bada?

-Nola ez da izango, bada? esan zuen.

-Eta adineko izatera heltzen denean, uste dut, bere etxekoek eta hirikideek euren arazoetarako, horretaz baliatzea nahi izango dutela.

-Eta nola ez, bada?

-Ahozpe jarriko zaizkio (c) erregutu eta goretsiaz, harengandik izango dute indarra aurrez eskuratu eta zurikatuz.

-Gehienbat, bada, esan zuen, horrelaxe gertatzen da.

-Horrelakoetan, bada, esan nuen, zer uste duzu egingo duela, batez ere, hiri handi batekoa izatea suerta balekio eta aberats, eta jatorri oneko, eta gainera itxura oneko eta tantai izan baledi? Ez ote da puztuko ezinezko itxaropenez, usterik, helladarrak eta barbaroak ere zuzentzeko (d) gai izango dela eta horrezaz "goietaraino" igoko dela, zentzu bako "irabaziz" eta "uste hutsez" beterik?

-Bai horixe.

-Eta horrelaxe dagoen bati emeki hurreraturik inork egia esan balezaio, zentzurik ez daukala eta zentzuaren premian dagoela, eta lortzearren ahalegin guztiak egin ezik ezin dela eskuratu, ausaz, hainbat txarkerien artean jaramon egitea erraz izango duela uste al duzu?

-Benetan, asko behar da, esan zuen.

-Eta bere izaera onak eraginik eta hur dagoelako arrazoi hauek ulertzen dituenak (e) filosofiaren alde makurtzen bada eta erakarria bada, zer uste dugu egingo dutela haren zerbitzuak eta adiskidetasuna galtzen dituztela uste dutenek? Ez ote du haren inguruan edozer gauza egingo, eta edozer hitz esango etsi izan ez dadin, eta esten duenaren inguruan etsi ahal izan ez dezan, nahiz bakarka azpikeriaz jokatzuz, nahiz agerian auzitara eramanez?

-495. Guztiz beharrezko da, esan zuen.

-Ba ote dago biderik honako hau filosofo egin dadin?

-Ez asko.

IX. - Ez ote duzu ikusten, bada, esan nuen, ez genuela oker esaten<sup>7</sup> nola filosofo-izaeraren alderdiak berak, okerreko hezkuntza batean sortzen zirenean, nola edo hala, bere eginbidearen desbideratzaile zirela, eta baita ondasuntzat esaniko aberastasun eta antzeko gertatzen diren gauza guztiak ere?

-Ez zen oker esan, esan zuen, zuzen baino.

-Hauxe da, bada, ene harrigarrien hori, esaten genuenez<sup>8</sup>, urri sortzen den izaera ederra galtzea, eta hainbatekoa eta honelakoxea (b) bizimodu bikainerako, bere hondamena. Eta horrelako gizonen artetik sortzen dira hiriei eta hiritarrei kalterik handienak egiten dizkietenak, eta baita onik handienak ere, horretara erakarriak izatea suertatzen badira; baina izaera eskaseko inork ez bakoitzari ez hiriari inoiz ez dio ezer handirik egiten.

-Egiarik handienak diozuz, esan zuen.

-Hauek, bada, alde batetik, gehien dagokien arren, (c) horrelaxe alde eginik, filosofia bakarrik eta osotu barik uzten dute, eta horrelakoek egoki ez duten eta benetako ez den bizitza daramate, eta bestetik filosofia berari, seniderik ez daukan umezurtzari bezala, ezduin batzuk gainera etorririk izen ona kentzen diote eta irainak leporatzen, izan ere, honela iraintzen dutela diozu filosofia bere gaitzesleek, honekin dabiltzanek, batzuek deus ez eta gehienek gaitz ugari merezi dutela esaten dutenean.

-Benetan, bada, esan zuen, hauexek dira esaten direnak.

-Eta, esan nuen, benetan arrazoiz esan ere; zeren beste gizontxo batzuek arlo hau hutsik baina ospez eta itxurez (d) beterik geratzen dela ikusirik, espetxeetatik elizetarantz pozarren ihes egiten dutenen antzera, hauek ere euren ogibidean iaioen suertatu daitezkeenak euren ogibidetik filosofiara aldatzen dira. Alabaina, egoera horretan egon arren, filosofiari, beste trebetasunen aldean, ospe handiagoa geratzen zaio; beren izaera garatu gabeko asko, ospe horren bila doaz; baina beren gorputzak lanbideko lanez edo hondatuak dituzte; (e) berdin arimak ere, eskulanez zartatuak eta gastatuak suertatzen zaizkie... Ala ez ote da ezinbestekoa?

-Bai horixe, esan zuen.

-Uste ote duzu, bada, esan nuen, horren itxurak ezertan alderik daukanik bere kateetatik askatu berri den eta bainuan garbiturik, jantzi berri bat jantzirik eta ezkongai baten antzera prestaturik, bere nagusiaren alabarekin, hura behartsu eta bakarrik dagoelako, ezkontzera doan dirua eginiko brontzegile burusoil txiki batek daukanarekin?

-Ez dago 496. alde handirik, esan zuen.

-Nolakoa izango ote da, bada, berez honakoen ondorengoa? Ez ote da sasikoa eta baita bilaua ere izango?

-Nahitaez.

-Zer, bada? Hezkuntzarako duin ez direnak filosofiarengana hurreraturik, duintasunik gabe datxazkiotenean, nola-

ko gogoetak eta eritziak ernalduko dituztela esan genezake? Entzumenarentzat ez ote dira benetan sofismak, batak ere ez daukalako jatorririk ezer, eta adimenaren arabera ezer [duin] denik?

-Oso-osoan, bada, esan zuen.

X. - Guztiz gutxi batzuk bakarrik geratzen dira, esan nuen, ene Adeimantos, filosofiarekin harremanak izateko duin (b) direnen artean, edo, gehienbat, ihesak bazterreratu duen jatorri oneko eta ondo hazitako izaeraren bat, erbestean egonik nork hondatu izan ez duelako, bere izaera berean iraun duenen bat, edo hiri txiki batean sortzen delarik, bere hiriko arazoak gutxietsiz hauen gaindik begira dezakeen arima handi bat; eta baita arrazoiz beste edozein trebetasun gaitzesten dutelako filosofiari hel liezaioketen izaera oneko gutxi batzuk ere. Litekeena da, baita ere, gure adiskide Theagesen galga, galerazteko lain izatea. Izan ere, Theagesek filosofiatik (c) aldentzeko bide guztiak izan arren, gorputzaren gaixoa zaindu beharrak galerazten dizkio hiriarekiko eginkizunak. Eta nire daimon ezaugarriari buruz hitzegiteak ez du merezi, beharbada, niri baino lehenago inori edo bakanen bati bakarrik agertu zaiolako. Eta urri horien artekoak direnak eta filosofiaren ondasuna zein gozo eta zorionekoa den dastatu eta gehiengoaren zorakeria argi ikusten dutenek baita ere ikusten dute, hitz batean esatearren, hiriko arazoetan inork ez duela ezer zuzenik egiten, eta zuzentasunaren alde borrokatzeko (d) norbera hondatu barik lagunik ez duela; alderantziz,

honelakoa, piztien artera jausten den gizonaren antzera, haiekin batera bidegabekeriarik egin nahi ez eta, bakarra izanik, haien basakerietatik babesteko ez da gai; eta hiriaren alde edo lagunaren alde zer edo zertan mesedegarri izateko norberarentzat zein besteentzat probetxurik ez lekarkeen heriotza batez hila izan baino lehen -gauza guzti hauek gogoan harturik, geldi egoten da, bere gauzetan arituz, ekaitza denean, haizeak daraman hauts eta euritik babestearren horma baten abaroan jartzen denaren antzera; eta gainerakoak bidegabekeriak beteak daudela ikusirik, pozik geratzen da bidegabekeriatik (e) eta egite dongoetatik garbi izanik hemengo bizitza bizi baleza, eta bizitza honetatik pozarren eta baretsu, itxaropen ederrez irten badadi.

-Benetan, esan zuen, ez dira horiek, alde egiterakoan lor litzakeen gauza txikiak 497.

-Benetan, handienak ere ez, esan nuen, politeia egokia suertatu ez zaiolako; izan ere, egoki baten handiago egingo da, eta norbanakoen arazoekin batera elkarrenak konponduko. XI. Zergatik, bada, salakuntza izunez filosofia salatzen duten eta horren bidegabetasunari buruz, uste dut, zuk, ondino besterik esateko ez baduzu behintzat, neurritz hitzegin dela.

-Horri buruz, esan zuen, ez daukat ezer esatekorik; baina egungo hiri-eraketetatik zein dela diozu filosofiarekin egokien datorrena?

-Bat ere ez, (b) esan nuen; eta hauxe da, hain zuzen, salatzen dudana: gaur egunean hiri-eraketa bat bat bera ere ez dagoela filosofo-izaerari doakionik: horregatik izaerok hondatzen dira eta aldatu ere. Lur arrotz batean ereiten den atzerri-hazia, berehala azpiraturik, galtzen eta bertako hazien antza hartzen doanez, berdin, honako izaera batek orain ezin dio bere ahalmenari eutsi; aitzitik, beste izaera desberdin bihurtzen da. Baina bera guztiz ahaltsua izanik hiri-eraketa ere (c) guztiz ahaltsua aurki baleza, orduan erakutsi lezake benetan bere izaera jainkozkoa dela, eta gainerakoaren izaera eta bizimodu guztiak, gizatiarrak. Argi dago honen ondoren hirigintza hori zein den itaunduko duzula.

-Ez duzu igerri, esan zuen. Ez nindoan hori galdetzerik, hiri eraikitzen ari ginenean azaldu genuena ala besteren bat ez ote zen baino.

-Besteak beste, huraxe, esan nuen. Lehenago ere gauza bera esan zen, hiri batean beti behar zela (d) zerorrek legelari bezala jarri ohi zenuen erako irizpidea duen bat.

-Esan zen, bai, esan zuen.

-Baina, esan nuen, ez zen nahiko argi geratu, hain zuzen ere, zuek, erantzunez, haren egiaztapena zein luze eta zail zen azaldu zenidatenaren beldurrez; gainera geratzen dena ere ez da guztiz erraza azaltzeko.

-Zein?

-Hiriak zein eratan filosofian esku hartu behar duen, hiri bera honda ez dadin, zeren handi diren gauza guztiak arriskutsu dira, eta, esaten den bezala, gauza ederrak, benetan zailak.

-Halere, (e) egiaztapenak izan beza amaiera, arazo hau argi gera dadin.

-Nahi ez izateak, esan nuen, ez dit eragotziko, ahal ez izateak baino. Bertan zaude eta, benetan ikusiko duzu nire apeta. Begira ezazu zein kementsu eta ausarti esango dudan, oraingoan ere, hiriak orain daraman alderantzizko bizimodu bat eramaten saiatzea beharrezko duela.

-Nola?

-Orain, bada, esan nuen, saiatzen direnak, umetatik irten berri 498. diren mutiko batzuk dira; bat-batean etxeko gobernu eta diru irabazteari lotuz, filosoforik handienak egin direlakoan, filosofiaren gunerik gaitzenean -arrazoitzearenari diotsat gaitzena- alde batera uzten dute. Hortik aurrera, filosofiaz aritzen diren beste batzuk ere deiturik, entzuterik nahi izaten badute, gauza handi bat egin dutelakoan daude, horretan aritu behar izatea betegarritzat bakarrik daukatelako. Zahartzarora heldurikoan, gutxi batzuk

izan ezik, itzali egiten dira, Herakleitosen eguzkia baino (b) askoz gehiago, berriro ez direlako bizten.

-Eta zer egin behar da? esan zuen.

-Guztiz alderantzizkoa. Gaztetxo eta ume diren bitartean, mutikotako hezkuntz eta filosofian aritu behar dute; eta gorputzak, hazten eta gizontzen diren une horretan ondo zaindu behar dituzte, filosofiaren laguntzaile bihurtzeko. Arima garatzen hasten deneko adinera heldurikoan, honen gimnasia areagotu egin behar da; eta indarra amaitzen denean, politikazko (c) eta guduari buruzko arazoetatik landa geratzen direnean, orduan, aske alha daitezela, eta ez dezatela besterik ezer egin, betegarri bezala ez bada, zoriontsu bizi eta, hil eta gero, han, bizi izan duten erako zoria lortu nahi dutenek.

XII. - Uste dut, esan zuen, benetan apetatsu hitzegiten duzula, ene Sokrates. Halere uste dut, entzuten daudenen artetik askok ondino apetatsuago aurre egingo dizula, ezelan ere ez baitu men egingo, Thrasymakhosetik hasirik.

-Ez gaitzazula, esan nuen, Thrasymakhos eta biok haserraraz, (d) lehen arerio ez ginen arren, oraintsu adiskide izatera iritsi baikara. Ez dugu nekerik baztertuko berau edo besteok etsi izan arte, edo bizitza hartara berriro heldurik, horrelako solasaldietan suerta daitezkeenerako zerbait onuragarri egin arte.

-Bai, benetan, esan zuen, epe laburrerako hitzegin duzula!

-Epe hori, bada, ez da ezer, esan nuen, benetan, betikotasunaren aurrean. Bestalde, ez nau ezer harritzen esanikoak jendea ez badu esten; izan ere, orain esanikoa gertatu denik inoiz ez dute ikusi, bai, oster, sarriago zuhurkeriaz elkarren artean parekaturik esan ditugun esaldien antzekoak, (e) baina esaldiok ez dira berez sortuak, orain jalgi zaizkigunak bezala. Baina hitzez eta egitez, ahal den neurririk handienez, bertutearekin parekaturik eta berdindurik, honelako beste hiri batean agintzen duen gizonik asko ez ezik bat bera ere, ez dute egundo 499. ikusi. Ala baietz uste al duzu?

-Ezelan ere ez.

-Eta, bestalde, ene zorioneko hori, gehiengo horiek ez dira, benetan, behar adinean, autu eder eta askatasunezkoetan entzule izan, zeintzuetan, bada, jakitearen eragin hutsez, era guztietan, egiaren bila ibiltzen den, eta, auzitegietan eta

harreman arruntetan ospe eta liskarrera baino beste inora ez daramatzan dotorekeriak eta temak urrunetik bakarrik agurtzen diren.

-Ez dira izan, ez, horrelako autuetan, esan zuen.

-Gauza horiengatik, (b) bada, esan nuen, eta orduan aurrez ikusten genituelako, beldur izan arren, egiak beharturik, esaten genuen ez zela sortuko sekula hiririk zein hiri-eratzetik zein benetan egin-egineko gizonik, gutxieneko diren filosofo horiek, orain ez txar baina bai alferrikako deritzatenok, eurak nahi ala ez, zoriak derrigorrez hiriaz arduratzera eta hiria hauen esaneko izatera bultza ditzan arte, edota goi-arnas batek, (c) egungo jaun edo erregekumeei, nahiz beraiei, egiazko filosofiarenganako benetako maitasuna jauts dakien arte. Nik, ordea, ezin esan, arrazoiz, bietakoren bat ala biak ezinezko direnik. Horrela balitz, gure lepotik barre egitea bidezko litzatekeelako, alferreko nahiak esaten bagenbiltza bezala. Ala ez ote litzateke horrelaxe?

-Horrelaxe, bai.

-Beraz, derrigorrezko beharrian batek azken aldiko denboraldi iraganean filosofo gorenak hiriaz arduratzera bultzatu baditu edo gaur egun urruneko eta gure ikusmenak ikusi ezin duen (d) atzerriko lekuren batera bultzatzen edo aurrerantzean bultzatuko baditu, horregatik prest gaude, arrazoiz, sendo baieztatzeko, esan dugun lako hiri-eratzeko bat izan dela, badela, eta, benetan, izan ere izango dela, filosofiaren

Mousa bera hiriko nagusi izatera heltzen den bakoitzean. Ez da, bada, hori ezinezko gertatzea, eta guk ere ez dugu esango ezinezko denik, zaila dela aitortu arren.

-Nik ere, esan zuen, berdin deritzat.

-Baina, aldiz, esan nuen, ez ote didazu esango hori ez dela gehiengoaren ustea?

-Agian bai, esan zuen.

-Ene zorioneko hori, esan nuen, (e) ez dezazula gehiengo hori horrela sala; aldatuko da eritziz inork, gehiengoarekin tematu beharrean, onuz eta jakiteko zaletasunaren aurkako gezur astunetik askatuz, erakusten badio zeintzuk diren diozuzan filosofoak, eta, lehen egin den bezala, zein den euren izaera eta baita 500. euren betebeharra azaltzen badio, eurak uste dutenei buruz ari zarela uste izan ez dezaten. Ala gauzak horrelaxe ikusi eta gero, beste eritzi bat jaso eta beste era batera erantzungo dutela esango al duzu? Uste ote duzu, bada, bekaizti ez den eta baretsu den inor haserre ez denarekin haserretuko denik eta bekaizti ez denarekin bekaiztuko denik? Nik, bada, zuri aurrea harturik, diot, nire ustez, gutxi batzuetan sor litekeela horrelako izaera zakarrik, baina ez gehiengoan.

-Zalantzarik gabe, esan zuen, nik ere berdin uste dut.

-(b) Orduan, hau ere ez ote duzu uste izango, filosofiaren aurkako gehiengoaren egoera horren errudunak kanpotik, behar ez den bezala, oldarrez datozenak eta elkarri laido eginez izaera



gorrotagarrizkoak eta euren esaldietan beti gizakiei buruz baino ari ez direnak direla, filosofiari gutxien doakiona eginez?

-Gutziz benetan, esan zuen.

XIII. - Ez dauka, bada, ene Adeimantos, benetako izateari buruz adimena jarririk daukanak gizakien (c) ekintzak ikustera jaisteko astirik, ezta eurekin tematuz, bekaizkeriaz eta borondate txarrez betetzeko ere, bere ikuskizuneko gauzak, eraturik eta beti bere-berean daudela ikusirik, elkarren artean bidegabekeriarik egin eta jasan barik, den-denak egoki eta arrazoiaren arabera edukiz, gauza horiek antzezteko eta, ahal denik eta gehien, gauza horien antza hartzeko baino. Ala uste duzu, gauza batekin miresmenezko harremana daukan edozeinentzat gauza hori antzeztea baino beste biderik dagoenik?

-Ezinezko da, esan zuen.

-Filosofoa, bada, jainkozko eta eran-erango eratasunarekin harremanak dituelako, ahal den neurrian, eratsu eta (d) jainkozko gizon bat egiten da, gauza guztietan gezurrezko salaketa ugari egon arren.

-Oso-osoan, bada.

-Ezerk, bada, esan nuen, behartzen badu gizakien izaera hura, bai bakarka eta bai jendaurrean han ikusten dituenak giza ohituretan ezartzen ahalegintzera, eta ez bere burua moldatzen bakarrik, uste ote duzu, ausaz, bera neurritasunaren, zuzentasunaren eta herriko bertute guztien eragile txarra izango denik?

-Txikerrenean ere ez, benetan, esan zuen.

-Baina, jendea ohartuko balitz horri buruz egia diogula, (e) haserretuko ote da filosofoekin, eta ez ote digu sinetsiko hiria ez dela beste era batera zoriontsu izango, bere eraketa, margolari hauek baliatzen diren jainkozko ereduaren arabera egin ezean esaten diogunean?

-Ez da haserretuko, ez, esan zuen, baldin ohar badadi; baina zer 501. marrazki-mota da diozuna?

-Oholtxo bat hartzen den bezala, esan nuen, hiria eta gizakien izaera harturik, lehenengo garbitu beharko dute, guztiz gauza erraza ez bada ere; baina badakizu horretan berehala besteengandik bereiziko direla, garbi hartzen ez duten bitartean edo eurak garbitzen ez duten bitartean, ez dutelako nahi izango gizabanakoari zein hiriari ukiturik ere egiterik, ezta legerik marrazterik ere.

-Eta zuzen legoke, benetan, esan zuen.

-Ez ote duzu uste, honen ondoren hirigintzaren egitamua zirriborrotuko dutenik?

-Zer, bada?

-Gero, (b) uste dut, alde batetik, batera eta bestera sarri-sarri, berezko zuzentasun, edertasuna, neurritasun eta hauen antzeko guztiei begiraturik arituko direla, eta, bestetik, ekanduetatik gizonengan jarriko dituztenak bildurik eta nahasirik, Homerosen ere, gizonengan aurkitzen zuenean deitzen zion jainkozko eta jainko-iduriko giza iduria eredutzat harturik, egingo dutela.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta uste dut, bada, baita ere, alde batetik ezabatzen eta bestetik berriro margotzen (c) arituko direla, ahal den neurri handienera, jainkoen begiko giza izaera bat egin arte.

-Eta zalantza barik, esan zuen, margorik ederrena litzateke hori.

-Ez ote ditugu, bada, esan nuen, gure aurka etortzeko gertu zeudela zenion haiek nola edo hala etsiko lehenago euren aurrean goratzen genuen hiri-eratzeen margolaria haxe berau dela; eta berari hiriak luzatzen genizkiolako haserretzen zirenok ez ote zaizkigu arean baretuko gauza bera esaten orain entzunez gero?

-Askoz gehiago, benetan, esan zuen, zentzuzko badira.

-Zer (d) izango ote dute tematzeko? Filosofoak ez direla, ausaz, izatearen eta egiaren maitale?

-Baragarria litzateke hori, esan zuen.

-Ala azaltzen genuen bere izaera ez dela gorenekoaren kide ?

-Hori ere ez.

-Zer, bada? Iharduera egokiak izanez gero, ez dela beste edozein baino egin-egineko izaera on eta filosofikoagoa suertatuko? Ala guk baztertzen genituen haiek gehiago direla esango du?

-Ez horixe, benetan. (e)

-Ez ote dira, bada, ondino gehiago amorratuko, hiriaren zein hiritarren kalteen azkena ez dela izango, ezta adimenez iduritu dugun hiri-eraketa hori ere ez dela egitez lortuko filosofo-arraza horrek hiriko buruzagitza izan dezan arte diogunean?

-Gutxiago, beharbada, esan zuen.

-Ez ote duzu, bada, nahiago gutxiago esan beharrean, guztiz baretzera eta estera heldu direla esan dezagun, 502. besterik ezean, lotsaz aitor dezaten?

-Gutiz, bada, esan zuen.

XIV. - Hauek, bada, esan nuen, honez gero etsirik daude horretan. Eta horri buruz, errege edo agintarien ondorengoak filosofo-izaerarik suertatzea ezinezko dela inork tematzeko ote du?

-Inork ere ez, esan zuen.

-Eta inork esan ote lezake honakoak, ezinbestez, okertu behar dutenik? Okertzetik libratzea zaila dela guk geuk ere onartu genuen. Baina iraganeko denboraldi osoan (b) inoiz halakoetatik bat bera ere libratu ez denaz tematzeko ba ote dago inor?

-Eta nola?

-Baina, esan nuen, hiria etsi izanik badauka, nahikoa da bat bakar bat izatea, orain sinesten ez diren gauza guztiak egin-eginean burutzeko.

-Nahiko da, bai.

-Lehen azalduriko, esan nuen, lege eta bizimoldeak jartzeko agintariren bat badago, hiritarrek men egin nahi izatea ez da ezinezkoa.

-Ezelan ere, ez.

-Baina guk uste ditugun gauzak besteak berdin uste izatea ezertan harrigarri eta ezinezko ote litzateke?

-Nik neuk, behintzat, ez dut uste, (c) esan zuen.

-Lehenbiziko esanetan, uste dudanez, nahiko argi azaldu genuen, gure burubidea, ahalezkoa bazen, izan ere, hoberena zela.

-Nahiko argi geratu zen, bai.

-Orain, bada, dirudienez, bat gatoz legegintzari buruz esan ditugunak lor badaitez, gauzarik hoberenak direla, eta lorgaitzak izan arren inola ere ez direla ezinezkoak.

-Bat gatoz, bai, esan zuen.

XV. - Nekez bederen, arazo honen azkenera heldu garenez gero, ondoren esan beharreko geratzen zaizkigunak, zein (d) eratan, zein irakaspenen bidez eta zein ihardueraz gizonok egingo zaizkigun hiri-eratzearen babesle, eta eginkizun bakoitzean zein adin bereziz arituko diren esatea da.

-Esan behar da, bai, esan zuen.

-Zuhur izatea, esan nuen, ez zitzaidan ezertarako izan, andra edukitzeari, ume izateari eta agintari jartzeari buruzko zailtasuna lehen saihestu nuenean, egia bete-betean zein gorrotagarri eta zaila den jakin nekielako. Izan ere, orain areagotu egin zait hauetaz aritu beharra. (e) Andra eta umeei buruzko arazoa, bada, amaiturik geratu zen, agintariei buruzkoari, aldiz, hasieratik bezala berriro ekin beharra dago. Eta esaten genuen, gogoratzen baduzu<sup>9</sup>, atseginetan eta nekeetan ere probatu izan ondoren, benetako hiri-

maitale 503. agertzea beharrezko zela, baita agindu horretatik neke, beldur edo beste edozein arazoren batengatik ez zirela atzeratzen agertzea ere; edo horretarako gai ez zena baztertu egin behar zela genioen, eta sutan probaturiko urrea bezala guztiz garbi irteten zena jarri behar zela agintari, eta bizirik ez ezik hilik ere, ohoreak eta garaipen-sariak ere eman behar zi-

tzaizkiola. Honakoak ziren esanik utzi nituenak, baina arrazoia gorderik geratu zen (b) orain aurrean daukaguna astintzen beldur nintzelako.

-Egia da guztiz, diozuna, esan zuen. Gogoratzen dut, bai.

-Nagi nintzen, bada, esan nuen, ene adiskide, orain esatera arriskatu naizenak esateko. Baina honezkero, hauxe ere esatera arriskatu behar da: zaintzaile iaioenak bezala filosofoak jarri behar direla.

-Esan bedi, bai, esan zuen.

-Gogora ezazu, bada, horrelako zein gizon gutxi izango duzun: izan ere, hauetan beharrezkotzat jotzen genuen izaerari bagagozkio, honen zatiak gutxitan batuko dira jatorriz pertsona beregan; aitzitik, gehienak banatuak sortzen dira.

-(c) Nola diozu? esan zuen.

-Badakizu ikasteko erraztasuna, oroimena, bizkortasuna, zorrozatasuna eta antzekoak izaten dituzten gizonek, era berean ez dutela izaten arima sendo eta zabal bat, neurritasunez, lasaitasunez eta eroso bizi ahal izateko beste, alderantziz baino, honakoak, bere egonezinez edonora eramanak izatea suerta litekeela, eta bat ere ziurtasun barik aurkitzen direla.

-Egia diozu, esan zuen.

-Bestalde, bada, baliamentuz fidagarriago izan litezkeen (d) izaera ziur eta aldagaitzek eta gudaldian beldur izan arren ikararik ere egiten ez dutenek, berdin jokatzeko dute ikasketen aurrean ere, geldo eta ikasle txar dira, sor balira bezala, eta aharrausika, loguraz beterik geratzen dira honelako lanen bat egin behar duten bakoitzean.

-Halaxe da, esan zuen.

-Eta guk benetan esaten genuen<sup>10</sup>, bada, neurri on-eder baten gauza bietatik eduki behar zutela, edo bestela ez zitzaizela eman behar gorengo hezkuntzarik, ez ohorerik, ez aginterik.

-Zuzen, esan zuen.

-Ez ote duzu uste horrelako izaera bat urri izango denik?

-Eta nola ez?

-Probatu egin behar dira, bada, orduan aipatu genituen<sup>11</sup> neke, beldur eta atseginen bidez; eta oraingoan lehen esan barik utzi genuena ere esan behar dugu, ikasketa askotan saiatu behar dutela, ikasketa askotan eragin behar zaiela, bakoitzaren izaera, ikasketa handienak jasateko gai izango den, ala 504. beste gauzetan ohi direnak bezala, atzera egiten duen ikusiz.

-Egoki da, benetan, esan zuen, era horretan aztertzea; baina zeintzuk direla diozu ikasketa handienak?

XVI. - Gogoratuko duzu, beharbada, esan nuen, nola arimako hiru aldeak bereizi ondoren, zuzentasunari, neurritasunari, adorea eta jakintzari buruzko bakoitzaren izaera zein datekeen iragarri genuela<sup>12</sup>.

-Gogoratuko ez banu, esan zuen, ez litzaidake bidezkoa izango ondino geratzen dena entzutea.

-Eta gauza hauek baino lehenago esanikoa?

-(b) Zein gauza, bada?

-Gutxi gorabehera esaten genuen<sup>13</sup> gauza hauek ahalik eta hoberen ikusteko zeharkako beste bide luzeago bat zegoela eta bide hori egiten zuenari argi agertuko zitzaizkiola, baina badira aurrerago esanikoetatik datozen proba-bide batzuk haiekin lotzeko bestekoak. Eta zuek esan zenuten nahikoa zenutela, eta, horrelaxe, orduan esan zirenak, nire ustez, zehaztasun barik geratu ziren, baina gogoko zenuten, zuek esango duzue.

-Niretzat neurri betekoa zen, esan zuen, eta dirudienez besteentzat ere.

-(c) Baina, ene adiskide, esan nuen, gutxi bada ere, egiatik aldentzen den honako gauza hauen neurria ez da sekula neurri betea izango, neurri betea ez dena ezeren neurri ez delako. Batzuetan batzuek honez gero nahiko dela uste dute, eta gehiago ez dela ezer aztertu behar.

-Bai horixe, esan zuen, askori errazkeriagatik horixe gertatzen zaio.

-Benetan horrelakorik gutxien doakiona, esan nuen, hiri eta legeen zaintzaileari da.

-Berezko da, esan zuen.

-Bide luzeagoa, bada, ene lagun, esan nuen, egitea (d) horrexeri dagokio, eta ikasten ez du izan behar neke gutxiago gimnastikan baino; edo bestela, oraintsu esaten genuena, ez duela sekula egin-egineraino edukiko handiena den eta gehien doakion jakintza.

-Ez ote ziren, bada, haiexek, esan zuen, gauzarik handienak, ala ondino ba ote dago ezer handiagorik zuzentasuna eta azaldu genituenak baino?

-Badago, bai, handiagorik, esan nuen, eta ez da nahiko, orain arte bezala, gauza horien zirriborroa ikustea; arazoa, bere osotasunean ikusi arte baino ez dela etsi behar. Ala ez ote litzateke barregarri balio gutxiko beste gauzetan (e) ahalegin guztiak egitea, ahalik eta zehatzen eta garbien ager daitezen, eta gauza handienei buruz ez direla zehaztasun handienaren adinako uste izatea?

-Bai horixe, esan zuen, [uste bikaina horixe.] Baina uste duzu, bada, esan zuen, inork joaten utziko dizula jakite handi hori zer den eta zeri buruz dela diozun itaundu barik?

-Ezelan ere ez, esan nuen, baina zuk zeuk ere itaun iezadazu. Sarri entzun izan duzun arren, orain, edo ez duzu gogoratzen, edo, bestalde, ni harrapatzeko oztopoak 505. jarri-asmotan ari zara. Bigarren hau gehiago uste dut. Sarritan entzun didazu, benetan, jakintza-gairik nagusiena onaren ideia dela, eta beroni gehitzen zaizkionean zuzentasuna eta gainerakoak, baliagarri eta onuragarri bihurtzen direla. Badakizu, gutxi gorabehera, orain ere horixe esatera noana, eta gainera hori ez dugula behar den bezala ezagutzen; eta ezagutzen ez badugu, eta hau izan ezik beste gauza guztiak ahalik eta ondoen ezagutu arren, jakin dakizu hortik ez dugula ezer, ona eduki ezean ezer (b) edukiko ez bagenu bezala. Ala ona ez badaukazu, gauza guztiak edukitzeak ezertarako onurarik daukanik uste al duzu? Ala ona ezik beste gauza guztiak ezagutzea, ezer eder eta onik ezagutzea denik?

-Zeusarren, esan zuen, nik neuk ez.

XVII. - Baina jakin, hau ere badakizu, gehiengoak ontzat atsegina daukala, eta jantziago direnek, ezaguera.

-Nola ez?

-Eta baita ere, ene adiskide, uste horretakoak ez direla gai zein ezaguera-mota den azaltzeko, azkenean onaren ezaguera dela esatera behartuak izaten direla baino.

-Eta zein barregarri den hori, esan zuen.

-Nola ez da izango, bada, esan nuen, (c) ona ez dugula ezagutzen irain egin ondoren, ezagutzen dutenei bezala hitzegiten badigute berriro? Esaten dute, bai, hori onaren ezagutza dela, onaren izena ahoskatzen duten bakoitzean, esaten dutena ulertzen dugun lakoan.

-Egiarik handienak diozuz, esan zuen.

-Eta on bezala atsegina mugatzen dutenak zer? Ez ote dira besteak baino txikerrago ez den oker batean jausten? Ala ez ote daude hauek ere beharturik atsegin gaiztoak ere badaudela aitortzera?

-Zalantzarik gabe.

-Gauza berak on eta txar direla aitortzea (d) gertatzen zaiela uste dut. Ala zer?

-Zer bada?

-Ez ote dago, bada, argi gauza hauei buruz zalantza handi eta ugari dagoela?

-Nola ez, bada?

-Eta zer? Ez ote dago argi hau ere, gauza zuzentzat eta edertzat askok ustezkoa hartzen dutela izan ez arren, eta halere, horixe egitea, lortzea eta ustea nahi izaten dutela, eta bestalde, gauza onei buruz inori ez zaiola nahikoa, ustezko gauzak lortzea benetan direnak bilatzen dituztela baino, eta orduan guztiak itxura gaitzesten dutela?

-Bai horixe, esan zuen.

-Alde batetik, arima orok bilatzen duenaz, (e) eta beronengatik edozer egiten duenaz, zerbait dela igerririk, eta, bestetik, noraezean dagoelako eta gauza hori zer izan datekeen behar den beste ulertzen ez duelako, ezta, gainerako gauzez bezala, horrezaz baliatuko denik sinetsi ezin duelako, horregatik gauza hoietaz eduki zezakeen onura ere galtzen duelarik, horrelako eta horrenbesteko gauza bati buruz 506.esan ote dezakegu gauza guztiak bere esku jarri behar dizkiegun hirian hoberen diren haiek ere ilunpean egon behar dutenik?

Hiriko gizona: horixe zen Platonek, beste edozein grekok bezala, oinarritz, aukeratu zuen ego Lehenagoko batasun dudagabe hura hautsia zen jadanik. Baina desakordiorik eta ordena berriaren ald borrokatik haren ikuskera berezia eratu zen: alde batetik, gizakia edo arima, barne-politeia balitz bez bestetik, hiria, arima hedatu gisa; arima eta hiria, egitura beraren egokitzapen bateratu moduan, nahi aurka zegoen ingurugiroan, bi-biak eidos-era zuzenduak, beronen figurarik gorenean: “Ongiaren idei: alegia”.

P. Friedländer, Platon

Elkarriketa luze eta sinesgaitza

Platonek Politeia (Greko) deituriko lana elkarriketa luze eta bizi eran agertzen zaigu, Sokrates protagonista izanez, berau, halaber, kontatzailea delarik. Izan ere, Sokrates bera dugu iluntze ba Pireotik Atenasko bidean zihoala, hiri idealaren egituraketaz eginiko ustezko elkarriketa hori gogorat duena, berori irakurleari kontatuz.

Maiz esana da politeia grezierazko hitz hau itzulgaitza dela. Ohiko itzulpena, “Errepublika” ale latinezko respublica berbatik datorkigu, baina ez da batere zehatza. Grezierazko hitzaren semantika arloari “hiri-eraketa” hobeki legokioke, hor “hiritartasuna” adiera ere sartua egonez. “Estatu” hiri bestalde, berriegia denez gero, anakronikoa genuke, bere balio hertsian. Garai hartako greko guz antzera, Platonek Estatua polis baten itxuran zerabilen gogoan, hau da, hiri autonomo eta burujabet Edonola ere, izenburua motz gelditzen da, lanaren gai-aberastasuna kontuan hartzen badugu. Sokrates goiargituaren bitartez, Platonek teoria psikologiko bat, soziologia bat eta ontologia bat eskaintzen dizkigu eta jakitearen teoria eta pedagogi proposamen bat ere bai, gizakiari eta beronen xedeari buru panoramika horrekin lotuak. Platondar idearium oso horren eledun moduan, Sokrates, galdera berri etengabe gidaturik, gai batetik bestera joaten da, beti ere hizketa bizi, atsegin eta sigi-sagakoa erabiliz.

Hasieran guztientzako justiziaren mesedegarritasunaz Trasimakos oldartsuaren aurka izandako eztabaidatik, bidezko hiri egokiaren antolakuntzaren proiektura pasatzen da, horren gizarte-egiturak garatu arimaren egitura hirukoitza islatzen duelarik; geroago, jakitearen teoria eskaintzen digu, eta, hor arabera, filosofiaren eta hiritar mota ezberdinen hezkuntza egokia adierazten da; ondoren, gobernu-egituraren ezberdinen eta berorien endekatze historikoen analisia zirriborratzen du, elkarriketa, azkenean hezkuntza egiazko eta komenigarriari buruzko gogoeta berriekin amaitzeko, berriz ere, poesiak, epikak eta dramatikak hiritarren hezkuntzan izandako eragin tradizionala gaitzetsiz, eta, mito distiratsu bidez, pertsona bakoitzak bere geroa hautatzean duen erantzukizuna nabarmenarazten da.

Lehen begiratuan, harrigarri gertatzen zaigu elkarriketa honen luzera. Idazlana hamar liburutan banatuta dago. Jatorriz, papirozko hamar bat erroilu inguru bete behar zituzkeen, orain ehundaka orri bilakatuak. Antzinaroko irakurleari hedadura horrek are harridura handiagoa sortaraziko ziokeen, aurrerik beste edozein lanena gainditzen zuelako, Homeroren poemak barne, eta, zer esanik ez, antzeko sofista batzuek moldatuak zituzten tratatuak ere bai. Elkarriketa izateko, gehiegizko luzera hori dena ez eze, sinetsa ere bada. Izan ere, zenbat ordu iraun zezakeen horrelako berriketak? Sokratesen Trasimakosen arteko eztabaida arratsa etortzean hasi bazen, ondoko solasaldiek gau osoa baino gehi beharko zuketena.

Platon, zer esanik ez, ez zen xehetasuntxo horiez askorik arduratzen. Susma daitekeenez, ibilaldi luze denbora eta lekuaren aipamena I liburuari zegokiokeen, berau agian bakarrean argitaratzeko, eta gutxienez, elkarriketa labur gisa pentsatua izanez, geroago neurrigabeki luzatu bazuen ere. Testu luze eta beraren gai-aberastasuna, eta elkarriketa luze eta etengabe-itxuran zuen sinetsa kontuan harturik, kuriosoa da, ondoren, Platonek elkarriketa-era hori ez baztertzea. Aurreko zenit elkarriketatik beste solaskide batzuek izandako funtzio dramatikoan ez bezala, hemen Adeimantosek Glaukonek Sokratesi eragiten diote bere solasaldia aurrera eraman dezan, baina ez darabilte hare egiazko eztabaidarik. Edonola ere, bera aitzinera segitzera bultzatzen dute, eta honelako edo halakuspegiak osatzera ere bai. Ikasle zintzo eta suharrak ziren aldetik, maisuen irakaspenak luze eta argi zailenak argi diezazkien irrikaz azaltzen dira beti ere.

Honen kokapena Platonen obra osoaren artean

Guztiz adierazgarria da, hortaz, Platonek bere ideiak hain modu luzean azaltzerakoan, oraingo Sokrates berri honen bidez elkarriketa-itxura hori gordetzea, bere hasierako elkarriketa haletako pertsona eszeptiko hura ez bezalakoa. Aurrekoa, noski, Sokrates historikoagandik askoz ere hurbilago zegokio Politeia-koa aldiz, Platonen tesiak eta proiektuak kanporatzen dituen maskara bat besterik ez da, egilak bai bere bizitza eta bai bere filosofia ere asebetenik zituenean.



Hasierako elkarrizketatik, “sokratikoak” edo “aporetikoak” deituetatik, Politeia honetaraino, hark filosofo gaiak etengabe gehitzen ikusi ditugu, eta testuak, halaber, bai hedaduraz eta bai sakontasun kritikoaz ere handituz joan dira.

“Protagoras”-etik “Gorgias”-era, “Phaidon”-etik “Oturuntza”-ra, Platon bere elkarrizketak arazo berriei aberastu aritu zen eta bere Sokrates pentsalari nabaritzat itxuratzen jardun zuen, garai hartako guztia baino handiagoz. Eta hori haren zalantza eta aditu-ezjakintasunagatik ez eze, zeukan kontzeptu hornikuntza eta metafisika-antsiagatik ere bai.

Hezkuntzaz, politikaz, arimaren hilezintasunaz eta filosofoa gidatzen duen edertasun- eta ontasun egarriaz elkarrizketa miragarri horiek egin ondoan datorkigu, beraz, Politeia, eta oraingoan, baina ikuspegi batetik, problema horietan berriro sakontzen hasten da, jadanik ideien teoria osorik garatuz izanez, bai eta esperientzia pertsonala ere, ahantzi behar ez duguna berau. Platon behin eta berri Siziliara joana zen, eta bere esku-hartzean porrotaren mingostasuna sentitua zuen jada. Besta Akademia fundatua zeukan, eta filosofoek, beren aurreko ikasketa dialektikoetarako epeak zeharkatu ondoan, egiari goitik so egiteko behar duten adinera heldua zen jadanik. Testu luze hori idatzi berrogeita hamar urte baino gehiago zituen, hor bere helduaroko ideiak azalduz.

Politeia-k ez du luzeran lehiakiderik haren hil ondoko lanaz besterik, Legeak deritzonaz alegia, hantxe liburuaz osatua berau. Platon zaharrak, laurogei urte inguru zituenean, berriz ekingo dio hiri hoberenari antolaketari. Zahartzaroan idazlan erabat luze hori idazteak aski garbi darakuskigu nola kezkatzen ziren oraindik problema berberak, Baina lan bien arteko kontrastasuna argigarria da erabat. Bere osotasun intelektualaren unean, berrogeita hamar urte beteak zituenean, Platonek bere proiektu iraultzaile, ideal eta utopikoa eskaintzen bazuen, idealez fidatzen zen Sokrates ironiko hark aurkeztua, zahartzaroko lanean aldiz Legeak deritzon, filosofoa prest ageri zaigu bere eskakizunak murrizteko, hor errealitatearekin nolabaiteko akordioa eginez. Era txiki kontsekuentean, azken lan honetan Sokrates ez da jadanik agertzen eta, berez, hiri idealaren hasierako proiektuaren garbitasun eta argitasunaren ondoan, <sup>1</sup>deúteros plan besterik ez da.

Baina Politeia-k platondar filosofo modura gailurra jotzen du, egiaren eta justiziaren bila akuilatu gaztarorik politikarantz bideratuta, bere garaiko eta hiriko gorabeherak errealitatean herri-arazotarako gogoak kendu bazioten ere, Zazpigarren gutunaren pasarte sonatuan<sup>2</sup> aitortzen digunez. Bide hori zoriontsuaren gaia, filosofoak, guztien mesederako, gobernatu behar duen hiria, beste gai askorekin elkaturik dago. Munduaren eta gizakiaren halako kontzeptzioari lotua da, itxuren aurrean, benetaz izateari, errealitatearen ezagutzaren definizioari eta etika berriari, errakuntza tragiko eta baina koherenteaz, Sokrates ironikoa hiltzera kondenatu zuen demokrazia hura guztiz ez bezalakoa zein atxikia. Hori dela eta, Platonek, bere ideiak azaltzeko, espazio zabala behar du, eta aurkezten duen proiektua teoria bat da, politikoa ez eze, etikoa, pedagogikoa, eta ontologikoa ere bai. Begien bistan duen proiektu utopikoa dela, paradigma moduan eskainia, alde askotatik Atenasko demokraziaren errealitatearekin kontrajarria, eta, beraz erabat iraultzailea. Platon baina, politikari teorikoa zen. Akademian babestua nostalgiak Sokrates ahantzezina berpiztarazten zuena. Haren histori soslai baino harantzago joanez, idealaren teoria eratzen duen Sokrates horrek, bere politika Ideien teoria eta arimaren egituraren oinarriak du, baina halere Platonen beraren maskara besterik ez da, berau bere filosofiaren goren maila zegoenean.

Eta literatur artean gailurrean ere bai, Platonek (K.a. 428-347) bere elkarrizketa luze 370 urte ingurukoa amaitu bide zuen, “Phaidon” eta “Oturuntza” baino urte batzuk geroago eta “Phaidros” idatzi baina

<sup>1</sup>“Bigarren itsasketa”. Marinelen esaera horrek, Platonek erabiliak, itsas zeharkaldi geldo eta segurua adierazten du, arraunez eginga, bidaia hoberik, belazkorik, ezin egin daitekeenean burutua.

<sup>2</sup> VII Gutuna, 325 E eta hurrengoak.

lehentxeago, eta hor, berriz ere, arima hirukoitzaren teoria mito eder baten bidez adierazi zuen. ] horrexetan erabili zuen bere idaztankerarik bikainena, ironia, dramatismoa, dialektika eta be asmatu-ko mitoak tartekatuz, zalutasun eta etorri handiko hizkuntzaz batera.

Segur aski urte asko eman zituen lan hau prestatzen. Inoiz bi hamarkada aipatu izan dira, baina ez erreza puntu hau zehaztea. Argi dago Politeia-ren 1. liburuan ageri dena berez aparteko elkarrizketa i zitekeela, idazlanaren gainerako atalak baino lehenago idatzia, eta geroago beraren osotasunari jo hitzaurre bikain gisa. Bai bere egituragatik eta bai bere tankeragatik ere, lehenengo liburu hori elkarrizketak Sokrates antagonistaren izenaz ohitura jarraikiz, Trasimakos dei genezakeenak, lehen ald elkarrizketa laburren antz handia du. Berez, Lakes edo Lisis ez bezala, ez da elkarrizketa aporetik ondorio argi eta biribila bilatu. Justiziaren aldeko bere eztabaidan Trasimakos suharra Sokratesen p garbiro eta erabat errebatiturik gelditzen da. Trasimakos egiazko pertsonai izan zen, garaiko sofista idazlea, eta Platonek bere grina osoan erretratatu zuen. Berak “Gorgias”-eneko Kallikles dakark gogora, eta horrek haren ondoan idatzi zukeela pentsarazten digu. Trasimakos agertokitik desagertu ari hurrengo hizketan ere justiziaren bila ibiltze horren zantzoa nabari da, bai eta gobernari eta gobernat arteko elkartasuna ere, horrexen aipamen batzuk garbiro azalduz.

Analisi arina eginda, gure Politeia-ren egituran bost atal edo multzo tematiko bereiz genitzake. E dugunez, lehenengo liburu hori –hiriko justiziaz ari dena-- osotasunaren aitzinsolastzat har daite Hurrengo hiru liburuek (II, III, eta IV) hiri idealaren zirriborroa aurkeztzen dute. Ondoren filo izaerazko hiru liburu datoz, arimari, ideien teoriari eta ezaguerari buruzkoak. VIII eta IX libur konstituzio ezberdinez eta berorien ondorioez ari dira, eta hor politika-erregimen bakoitzari dagoz gizabanako motak ukitzen ditu. Hamargarren liburuan hezkuntzaren gaira eta poesiaren arriskue itzultzen da berriz ere, eta amaitzeko, arimaren hilezintasunari buruzko mito zoragarria eskaintzen gizakiak bere geroa hautatzean duen erantzukizuna azaltzen duelarik<sup>3</sup>.

Agian bost atal horiek aurretiko plan bati dagozkioke, erdiko tokian arimari, ezaguerari eta filosofo polisaren gobernari gisa, duketen zereginari buruzko azalpenik filosofikoena geldituz, eta litekeena atal hori besteak baino geroxeago landua izatea, inoiz susmatu izan denez. Irakurleak baina, ez du i nabaritzen aurretiko ezein eskemaren zurruntasunik, eta eztabaidari adi dago, elkarrizketa hori egia Sokratesen eta Glaukonen arteko solasaldi bizi eta suharra balitz bezala. Platonek trebetasun miresga darabil hor, eta badaki edozein tratatu edo doktrina-erakuspenen lehortasuna gainditzen. Elkarrizket barne sustrai sendoak oso ongi ezkutaturik dautza, solasaldiaren jario atsegin aparteko horren azpian.

“Gorgias” eta “Phaidon” bezala, gure elkarrizketa hau ere mito eskatologiko batez amaitzen da (be aipatu berri ditugun elkarrizketa horietan ageri denaren aldakia besterik ez dena). Arimak Bizi Betaldean ukanen duen ordainaz mintzo da mitoa, hor portaera pertsonalaren justizia eta injustizia be den bezala saritua edo gaztigatua izanen delarik. Eren mito horrek –horrelaxe baiteritzo, beste mu horretara bidaiatu zuen lekukoaren izenagatik-- oso ongi ixten du elkarrizketa, justizia dela Trasimakosekin hasi zena. Gizarteaz gainera, gizabanakoak eta arimak berak ere mesede hartzen c bidezko eta jakintsu izateagatik; eta gutariko bakoitzak erantzun behar du mundutar erromesaldi honi darabilen bizimoduagatik.

Paradigma eta utopia. Arima eta hiria

Bidezko hiriaren platondar proiektua zorionari eta gizakiak kosmosean dukeen lekuari buru kontzepzio filosofikoari dagokio. Ez du noski, berehalakoan aplikatzeko diseinatu, eta horrexegatik ez batere erraza bera zirkunstantzia historiko konkretu batetan ezartzea. Beste filosofo batzuen projekt

---

<sup>3</sup> Arimak Bestaldeko Mundura eginiko bidaiaren mito horri buruz, Platonek “Gorgias” eta “Phaidon” obretan eskaintzen duenaz, ikus *Mitos, viajes, héroes*-en idatzi nuen iruzkina, Madril, 1981, 43-61 orr.

bezala, haren garaiko eta lekuko problemei erantzuteko sortu zen, baina halere ez du orduko sistema krisi eta gaitzak, erremediatzeko irtenbide pragmatikorik eskaintzen. Aitzitik, hiritar gizartearen erroi eraldaketa proposatzen digu. Platonek Atenasko demokraziaren beherakada mingostasun sakonaz azaldu zuen. Haren esperientziak Peloponesoko Gerraren azken urteak, demagogiaren gehiegikeriak, ondorio krisialdiak, Hogeita hamar Tiranoen tirania, herri-epaitegiak Sokrates hiltzera kondenatzea, eta hurrengo urteetako gizarte-ezinegona hartzen ditu. Eta hori guztiori hiri demokratiko hartan gertatzen zen, interesengatiko gatazkek aberatsak eta behartsuak gero eta aurkago jartzen zituen lekuan, Periklo urrezko aroko ideal handi haiek pixkanaka hitz huts bilakatzen ari zirenean.

Kili-kolozko demokrazia jauskor horren aurrean, Platonek polis berriaren teoria marrazten du, berrak etikaren eta gizakiaz duen ikuskeraren neurritan. Proiektu idealista eta utopikoa da, jakina, eredu teorikoa gobernari ikasi batek Estatu bidezko eta zoriontsua antolatzeko paradigmaz har ezakeena. Filosofoak bere barruan eraiki eta arautzat hartzen duen hiriak da, berori kanpoan burutzea, agian, ezinezkoa gogor daitekeen arren (ikus. 472 eta 592 a). Horren bidetik, IX liburuen amaieran, 592 a, Glaukonek Sokratesi hauxe dio: [filosofoak, seguraski] “ez du benetan politikan aritu nahi izango” eta beronek hori erantzuten dio: “Ez, txakurratilik...bere barruan daukan hirian arituko da batez ere; baina ez, ordea, hiri sorterrikoan, jainkoen zorteren bat ez baletorkio behintzat.”.

Eta Sokratesek hauxe gehitzen du: “Baina..., beharbada, baliteke [hiri horren] ereduren bat zeruan izaiteko ikusi nahi duenarentzat eta ikusirik bere baitan hura eraiki nahi duenarentzat. Berdin da non dagoen zerbait non egongo den [filosofoa hiri] bakar honetako arazoetan eta ez beste inorenean ari liteke eta”. Eta garaiko demokraziaren kritikaz gogor gisa aritzean, Sokratesek esandako hitz hauen bitartez Platon jarri jarri etsiaren zantzoa susma dezakegu. Berak bere bizitza osoan Atenasko politikan esku hartzearekin egin zion, haren desbideratzea ikustean zorabioak sentitzen baitzituen –VII Gutunean aipatzen zuene bere teori lanetarako Akademiara erretiratu. Behin besterik ez zen lanbide horretan aritu, tirano baten kontseilari gisa, Siziliara egindako bidaietan, baina ahalegin ilusionatu horiek azkenean porrot egin zuten.

Filosofoak ez du historiak dakarkionarekin itunik egin nahi, horrela hiri hobetik moldatzeko. Horren Aristoteles saiaturik zen, eta bere Politika-ren II. liburuan Platonen idealismo politikoaren kritika gogorrena aurkeztu zuen. E. Cassirer-ek izanda, Platon ez da saiaturik Estatu hobe bat erakusten, “Ez da ideala baizik”, berau funtsean erabat bestelakoa izanez. Oinarri honen arabera, Atenasko demokraziaren eraldatzeko edozein ahalegin praktikoa ezoso baztertu behar zuen. Kontua ez zen konstituzioa adabatu edo konponketaz ontezea, eredu ideala sortzea baizik, betiereko prototipoa<sup>4</sup>.

Alde horretatik, Platon pentsalari politiko handia dugu. Ez zuen polis hura berrantolatu nahi, baizik filosofi premien ikuspegitik polisa bera berreraiki. Horregatik, W. Jaeger-ek seinatu duenez, bera ez da administrazioaren edo legegintzaren zuzenbideaz arduratzen oraingo zentzuan, ez eta hiriarren historiaren ekonomia baldintzapenez ere. Aldiz, Estatuaren egitura organikoa giza arimaren egokitzeaz kezkatzen eta bere eredu hiritarren etikari eta paideiari (“hezkuntza” edo hobeki esan, “barne-eraketa”-ri) lotu die. Horrela, bere ideal utopikoaren arabera hiriak asmatzen du.

Platon, hortaz, utopia politikoaren asmatzailea da. Berez, utopia hitza Thomas Morok sortu bazuen proiektu utopikoaren oinarritzko lehen oso garbi ageri dira Politeia-n ere. Horiexengatik, hain zuzen erabateko eragina izan du berak harez gero pentsaera politikoaren tradizio osoan. Jakina, filosofoak programa idealistaz moldaturiko utopia du berea. Ordenaren utopia, alegia, eta ez askatasunaren edo berdintasunarena. Lerro komunistak eta sozialistak dituen utopia, hiritarren arteko elkartasuna funtsean oinarria duena, baina, aldi berean, gizartearen eredu aski zurrin eta hierarkizatuaz antolatzea proposatzen duena, bizilagunak hiri klasetan banatuz. Banaketa horrek, gainera, orduko demokraziarekiko konnotazioak ditu.

<sup>4</sup> Cf. E. Cassirer, *El mito del Estado*, gazt., itzulp. Mexiko, 1947 (berrarg.) 83 orr. Ikus “Platonen Errepublikari” eskainiko kapitulu osoa 73-93 orr.

arkaikoak zeuzkan, baina hor hierarkia eta gizarte-mailak hiritarren adimen-balioan oinarriturik zeuden eta ez odolean, senitartean edo aberastasunean. Gizarte-kidegoaren banaketa hirukoitz horrek b. funtzionala zuen, guztien justizia eta zoriona lortzea helburu.

Zer esanik ez, Platon “gizarte irekiaren etsaia” zen, gaur egungo demokrazia liberalaren berori ager den bezala, eta Atenasko demokrazia ere orduan izan zitekeen bezala. Balio absolutuetarako orientatu zerabiltzan ezagueraren teoria eta etikarekin batera, Platonek erlatibismo eta liberalismo moral politikoak oro gaitzetsi behar zituen. Liberalismo balioen ikuspegi erlatibistatik azaltzen da, Protagora eta beste sofista batzuek esana zuten bezala –eta moralaren subjektibotasunean sinestetik, bero ezagueratik eta gizakien (edo, gutxienez, hiritarren) arteko berdintasunaren fedetik abiatuz. Plato aurreuste horiek baztertzeko dituen. Haren iritziz, Atenasko demokrazia balioen nahaste-borrastean eta tal desbideraketa dorpean abiatua zen, eta horrek bidezko Estatutik urruntzen zuen, horretan bakoitzak b. izaeraz dagokion postua beteko bailuke, hau da, bere arimaren eta hezkuntzaren nolakotasunaren arau. Batzuk filosofoak izateko jaioak lirateke, beste batzuk gerlariak eta zaintzaileak izateko, eta beste batz lan egiteko, zein bere gaitasunaren arabera.

Estatuaren ontzi metaforikoan, bista Ideietan jarriarik eta Ongiaren ideia nagusiak gidaturik, filosof ibilaldiaren arrunta markatzen dute, eta era bakar honetara helduko da ontzia, zoriontsu eta ordenat portura. Ordena ona justiziaren oinarria da, eta gizartearen funtzionamendu bidezkoa eudaimon darama, hau da, guztien zorionera.

Hiru estamentutan banatzeak –geroagoko “klase sozialen” kontzeptura hurbiltzen den zentzuan-- ez hiritarren arteko kohesioari kalterik egiten, aitzitik, hiritar elkartasuna indartzen du, lankideta harmonikoak taldearen zorionaren oinarria ezartzen duenez gero. Hiria, Platonen ustez, ongi jarria i liteke nork bere leku naturala bete eta dagokion funtzioa egin lezanean. Filosofoei gobernua legokio. Hezkuntza ken ezinezko atala da erregimen ilustratu horren jardueran. Baina filosofoak ere bere bu sakrifikatu beharko luke hiriko arazoak gidatzeko, beste zeregin batzuk, teorikoagoak, hala r kontenplazioan adi egotea, metafisika, eta agian mistika, etengabeko tentazioak izan arren.

Platonek hiria goi mailako gunetzat dakusa, eta hor gizakiak bere zoriona burutu beharra dau. Estatuaren eraketaren eta giza Arimarenaren artean halako egokitasuna aurkitzen du. Hiru estame horiei psikearen hiru osagai edo elementu oinarritzakoak dagozkie, eta bataren edo bestearen nagusigoa azken buruan, hiritar gizartean banakoaren postua erabakitzen duena. Hiritarren ariman “adimena” “arrazoimena” –nous eta logistikoa-- , “oldarra, suhertasuna edo kemena” –thymós edo nahime-- “irrikak, grinak edo nahikeriak” –epithymíai-- nagusi azaltzen diren neurrian, bakoitza filosofo, zaintz edo ekoizle izateko hezi beharko da. (Aski harrigarria da, derragun bidenabar, elkarrizketan Glauko Sokratesen proposamen iraultzaile hori zein erraz onartzen duen ikustea, Atenasko demokrata proposamen hori postulatu izugarri bitxi eta eztabaidagarri iruditzen beharko zitzaiokeen eta.) Platonek eze, ordena utopikoaren gainerako pentsalari gehienek ere, maiz eskema hertsiegietara jotzen dute. Hiri: ordena ona, hemen arimaren ordena onari dagokio, eta alderantziz ere bai<sup>5</sup>.

Iraultza- eta erreakzio-ezaugarriak

Platonen kontzepzioan erabateko egokitzapena ageri da gizabanakoaren egitura psikologikoaren hiriaren gizarte-egituraren artean. Polisak eta psikeak osaera analogoa eta hirukoitza daukate. Hei

---

<sup>5</sup> Utopien ezaugarriak eta pentsamendu utopikoaren mendealdeko tradizioaz, cf. F. E. Manuel, ed, *Utopia and Utopian Thought*, Boston, 1965; J. Servier, *Historie de l'utopie*, Paris 1967; G. Lapouge, *Utopie et civilisations*, Paris, 1978; H. Gnüg, *Der utopische Roman*, München, 1983. Mundu guztiak aitortzen du Platonen tradizio honetan izandako aitzindaritzak. Arima eta hiriaren arteko paralelismoaz, ikus T.J. Andersson-en *Polis and Psyche*, Stockholm, 1971.

proposatzen zaigun hiritar antolaketa, nolabait W.K.C. Guthrie-k dioenez, “gizabanakoaren espiritu: alegoria da, psikearen geroarena”. Horregatik, eskema politiko horretan gizabanako bakoitzak izendatu dauka bere leku berezia.

Egituraketa horretan gizabanakoek askatasun murriztua dute, guztiak osotasunean dagokie funtzioz aurkitzen baitira. Estatu idealean –“Estatuaren idealizazioa” besterik ez dena– filosofoek boterea eskatu dute, gerlari-zaintzaileak hiriaren kanpo- eta barne-defentsaz arduratzen dira, eta langileek obeditu eta guztietako ekoizpen-zereginetan dihardute. Zaintzaileen, filosofoen eta gerlarien artean –lehen estamentuetan-- jabego pribatua eta familia aboliturik daude. Komunismo honekin Platonek handinaz eta gutizia erroto kendu nahi ditu, horiek gaitz txarrenen iturriak direlakoan. Emakumeak eta haur komunak izanen dira, birsorkuntzari dagokionez filosofoek askazi ona sortzeko neurri zehatzak hartu dituzten arren. Jabegorik eta familiarik gabe, zaintzaileen berenkoitasuna eta gero eta aberatsagizateko antsia desagertu egingo lirateke.

Beren hezkuntza luzearen ondoan, filosofoak ideien paradigma idealak mirestera helduko dira, Ongiaren Ideia ere bai, gainerako guztiak argitzen dituen Eguzki baten antzekoa berau. Behin esentziala ikusi ondoren, beren begiak gobernu-zereginetara itzuliko dituzte, Haitzuloaren mitiko gizon askatu egiazko errealitateaz ohartu eta gero, bere lagunak, ilunpeko munduan kateaturik daudenak, argitu itzuli behar duen bezala. Gobernariak, arte eta tekniketako maisuen antzera, jakite gorago horri oinarritzen dute beren manua, boterea agintez eta zuhurtziaz erabiliz. Horrela, agian teoria abstraktuagaz aritzeko, esku artetik kendu nahi luketen funtzioa betetzen dute gizartearen mesederako.

Populazioaren masa handiari gizarte hiru estamentutan banatzea azaltzen saiatzeko, Platonek mito asanberrira jotzen du, Sokratesek “gezurrezko kontu jator” eta “feniziar ipuina” deitzen duena. Fikzio kontakizun horren arabera, III liburuan, 414 eta hurrengoak, Lurretik gizakiak jokabide natural ezberdiz sortu omen ziren: batzuek beren barruan zerbait urrezkorik zuten, beste batzuek zilarrezkorik eta beste brontzezkorik. Honelako manipulazio trebeaz, Hesiodok giza arrazei buruz aipaturiko gaia berrartzen baina poeta epikoa arraza horien elkarren ondoko segidaz mintzo zen bitartean, Platonek gizarte eta berean elkartzen ditu izaera ezberdineko gizaki horiek guztiok.

Bere kontakizunerako, Platonek darabilen hitz grekoa *pseûdos* da, “gezurraz” gainera, “fikzioa” adierazten duena. Aro berriko iruzkintzaile batzuk eskandalizatu egin dira, filosofoa, bere teoriaren zehaztearen, horrelako trikimailuez baliatzen zelako. Baina mito hori, ad hoc asmatua gainera, deopel errealitatearen ikuspen argiagoa eskaintzeko besterik ez darabil, pedagogi baliabidetzat, alegia: horre hiritarren adimen-ezberdintasuna azaldu nahi du, filosofoak begien bistako ondasuntzat daukana.

Populazioa hiru klasetan, batzuen eta besteen berezitasunaren komenientzian, oinarritzen da. Zalantza gabe, lanaren banaketa horrek bai aurrerapen teknikoari eta bai profesionalen hezkuntzari ere mesegiten die. Baina batzuen eta besteen arteko arima-ezberdintasunak onarturik ere, gehiegizkoa guda daiteke halako kasta-erregimena ezartzea, hor gizabanakoak bizitza osorako hertsiki sartuz. H bestalde, G. Dumézil-ek behialako indoeuropar gizarte zaharrerako postulatu zuenaren antzeko da, arkaiko hartan apaizek omen zuten funtzioa Platonenean, aldiz, filosofoek bete arren. Filosofoak zaintzaileak goren mailako funtzionario nagusi modukoak ditugu, eta gerlariak lanbideko mil profesionalen nolabaiteko aitzindariak, orduko Grezian aski berrikuntza deitoragarria zatekeen xehetasunen batetan Espartan aurretikoren bat aurkitu badiote ere. Protogorasek, hiritar guztiak *aidós* dikaiosyne-an, hots, zentzu moral eta justiziari zegokionez, berdinak zirelakoan, izen berberori darau elkarriketa platonikoan politikari aplikaturiko profesionalismoa gaitzetsia bazuen, oraingo honi Platonek, ihardespenaz, halako gizarte-hierarkia kontrajartzen du, egia ezagutzeko mailan oinarritu. Gehiengoaren iritzian sinesgarritasunaren garantia dakusan eta “gizona gauza guztien neurria” dela

duen teoria demokratikoaren aurka, Platonek ideien egiazko ezagutzen jartzen du boterea, eta horretarako dira heltzen filosofo saiatuak besterik.

Filosofoek errege eta erregeek filosofo izan behar dutela dioen esaldia ulertzeko, bestalde, komeni da Heidegger-en oharra gogoan izatea: “Esaldi horrek ez du esan nahi : Estatuaren zereginak filosofo irakasleek gidatu behar dituzte, beste haxe baizik: elkarrekiko bizitza osatzen eta zehazten dituzten funtsezko harremanak egiazko jakiturian oinarritu behar dira”. Alabaina, norbera idealista eta platonista ez baldin bada, dudatzekoa da politikan egiazko jakituria, zentzu hertsian, episteme bat, ba ote den. Noski, boterea nahi zuelako, bidezko ordenaren nostalgiatik baizik, baina edonola ere, Platon gehiengoaren uste zalantzarik gaitzesten du, berori, jakintza sendoa ez baina iritzi hutso oinarriturik dagoelako. A. Heller-ek ohartarazi duenez, “Platon bere garaiko gizartearen aurka jarri moralki; izan ere, mesprezatu ere egiten zuen hura, gaizto eta zoritzarreko baitzeritzon. Baina gaitz horrek izaera gnoseologiko eta ontologikoa du; gaitziritziriko mundu hori itxuran gelditzen zen, eta egorrotatua uste hutsaltzat hartzen<sup>6</sup>”.

Politikaria deritzon bere elkarriketan berriro ere ukituko zuen arazo hau, hots, adituek gobernu arduratu behar ote duten. Eta Legeak deritzon, gauza bera, baina oraingo honetan, etsigo errealtatearekin ituna egitera makurtzen zen eta, hortaz, idealismo hertsia azpimarratu gabe, halere, elkartasuna proposatzen zuen, gobernu eta hezkuntza ohiko hiritarren gainean lege beneragarri jarri. Baina bai Politikaria eta bai Legeak ere urrundu egiten dira haren Politeia-n hain arazo diseinaturiko utopiatik.

Politika-proiektu honi kritika asko egin zaizkio antz ikuspegitik. Hor agertzen den hiria ez da burujakin ez eta berdinean ere, eta gizabanakoaren zoria beti ere osotasunaren menpean aurkitzen da. A horretatik, aski kontrast azaltzen da Atenasko demokraziarekiko, han hiritar guztiek legearen aurre zuten berdintasuna eta libreki mintzatzeko askatasuna ezaugarri nabariak baitziren, sistema horrek botere herriaren eskutik uzten zuenez gero. Hortaz, sistema aristokratikoa proposatzean, badirudi Platon atzera egiten duela, kanpoko itxuraz bederen. Halere, bere proposamen horretan badira oin arrazionalista batzuk, eta, harrigarri irudi dakigukeen arren, zenbaitzuen oso gaur egungoak ditugu.

Lehenengo eta behin, azpimarra dezagun hiritarren arteko banaketa hori batzuen eta besteen arteko onarturiko entelegi-egberdintasunean oinarritzen dela, jatorriz naturatik heldua eta geroago hezkuntza hobetua. Beraz, adimena eta buru-lantzea dira gizarte-ordena horretan nori bere lekua ematen dioten. Ez senideek ez aberastasunak eskaini dezakete hori pribilegiarik batere. Bestalde, horrela ezarri komunismo horrek baztertu egiten du gobernariaren aberasteko eta handinahiak izateko gogoia.

Bigarrenik, Platonek emakumei gizonen eskubide eta betebeharrak berberak aitortzen dizkie, bitz berdintasun intelektuala onartuz. Hori dela eta, Estatu utopiko horretan emakumeek ere hezkuntza uztelakete, eta gobernuan postuak bete ere bai. Neurri hau egiaz iraultzailea izan zen, Atenas demokrazi hartan andrazkoak menperaturik eta isilarazirik baitzeuden, politikatik aparte eta goi hezkuntza baztertuak<sup>7</sup>.

Hirugarrenez, bereziki kontuan hartu behar dugu hor hezkuntzari, Estatuak, hau da, polisak, bere gaitz hartzeko duenari, ematen zaion garrantzia. Halere, Platon zaintzaileen hezkuntzaz (filosofoen gerlarienaz) arduratzen dela aurkaipa daiteke, langileenez ia-ia hitzik egiteke; baina ez da ahanzi bel

<sup>6</sup> A. Heller, *Aristóteles y el mundo antiguo*, gazt. itzulp., Barcelona 1983, 110 or.

<sup>7</sup> Emakumeek politikan esku har dezaketela eta botere-karguetara hel zitezkeelako ideia, *Politeia* baino urte batzuk lehenago, jadanik Aristofanesek absurdutat karikaturizatua zuen bere “*Lysistrata*” eta “*Andre biltzarkideak*” idazlanetan, hor, gainera, emakume-komunitasunari buruzko burlak agertuz.

beti ere onenak hautatzea duela helburu, eta etengabeko eta aurreranzko paideia horren bitartez, hiritar –gizon zein emakume-- beren adimena eta jakituria goren punturaino hobe ditzaketela.

Politika eta hezkuntza. Poeten aurkako kritika

Baliteke Platonen garaikide batzuek paideiari politikarekiko, eskainiriko garrantzia harrigarritzat jotzea. Seguraski hor egiazko ezaugarri sokratiko bat ageri zaigu (eta sofista batzuk ere horrekin bat etor zitezkeen). Hiria bidezkoa eta hobeia izan zedin, komeni zen hiritarrak hezi eta beren kultura goratzea. Hau premisa ilustratua da, Periklesek berak berrets zezakeena. Platonen aburuz, polisa eraldatzeko proiektu orok aurrenik bertako kideen eraldaketa behar zuen. Politeia-n paideiazko programa arrazional oso eta ongi kontrolatua ezartzen da, hezkuntza hori hiritarren etorkizunerako erabakigarria izanik, bai politikazko jardueran eta bai haien pertsona-mailako osamaitzean ere<sup>8</sup>.

Interesgarria da Aristoteles bera ere, platondar proposamenen kritikari eta zentsuratzaile zorrotza izanda, hezkuntzaz biziki arduratu izan zela ikustea, beroni hiriaren ordena onerako ezinbestekoa iritziz, horretarako, ikuspegi tradizionalagoetatik abiatu zen arren. Bere Politika-n, Aristotelesek, hezkuntzak eta politikak elkar osa-eragiten dutela eta, nolabait, politeiaren nolakoak bertako hiritarren izateko modua islatzen duelako ideia platonikoa onesten zuen, eta bere bi azken liburuetan hezkuntzaz eta hiritar etikaz ere mintzo zen.

Antzinako grekoek ez zekusaten arlo publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa gure garaiko begi berberekin<sup>9</sup>. Atenasko demokrazian Estatuaren funtzioa, egiteko hezkuntza publikoaren berme gisa, ez zegoen ongi finkaturik. Baina demokrazia horren barruko bizimodua, haren jaialdi, teatro-antzezkiak, batzarreak eta era askotako bilkurak, berez, hezkuntza iturriak izaten ziren (Protagoraren azpimarratzen denez). Platon, ordea, hiritarren bizitza mugatzen duen hezkuntza osoa polisak kontrola eta ordena zezala programatzean, urrunago joango zen. Hezkuntza hori, bestalde, etikoa da espirituala da, paideia askoz ere zorrotzagoa, aurreko beste edozein Estaturena baino.

Estatu berriaren eta hiritarren ardatza hezkuntza zela behin eta berriro ohartarazte horrek platondar proiektu osoa blaitzen du. Atal batzuetan –VI liburuan batik bat-- paideia zaharberritu honen ikuspegi batzuk azaltzen diren arren, Platonek hezkuntza tradizionalari kritika gogorrak, batez ere, II eta X liburuetan egiten dio, poesia epikoan eta dramatikoan oinarritzen zenari. Homeroren eta tragikoen irakatsien aurka, Platonek urriki gabeko zentsura eragiten du, aski harrigarria gainera. Esan dugunez, zentsura hori II liburua azkenean eta X.aren hasieran azaltzen da; hau da, I liburua (Trasimakos) hitzaurre-izaeraz eta azken mitoaren hitzatze-balioaz ohartzen bagara, badirudi Homerori eta poesia tragikoari zuzenduriko eraso horiek, hau da, Greziako poeta entzutetsuen eta “herriarrenei” eta “greziar hiriaren hezitzaile zirenei” jaurtikiek, tratatu hau polis berriaz ireki eta paideia idealaz itxi egiten dutela. Platonen epaia, bestalde, biribil-biribila da: bai Homero eta bai dramaturgoak ere hiritik kanporatu behar direla.

---

<sup>8</sup> Cf. E. Stenzel eta W. Jaeger-en liburuak, bibliografi oharretan aipatuak.

<sup>9</sup> Cf. C. Meier, *Die Entstehung des Politischen bei den Griechen*, Frankfurt, 1980 (Ing. Itzulp. *The Greek Discovery of Politics*, Cambridge-Mass., Londres, 1990).

Platon eta poeten arteko etsaigo hau esangura handikoa da. Horri buruz iruzkin ongi hausnartua egin beharra dagoke, ez baita anekdota mailako borroka hutsa, bi pentsaeraren arteko gatazka egiazkoa baizik. Hortaz, berorren testuinguru historiko eta oihartzun intelektuala bereziki azpimarratu behar da.

Hasteko, begien bistan dago Platonek poesiarako sentiberatasun handia zuela. Dramaturgo ona izan zitekeen, Sokratesek, filosofiara erakarri ez balu. Sinesgarria da guztiz, Sokrates aurkitu eta gero, bere gaztaroko poema eta idazlan dramatikoak oro erre zituela kontatzen duen pasadizoa. Bestalde, Platonek poetak maiz eta zehaztasun handiz aipatzen ditu, Homero bereziki. Antologia Palatina-n jasoriko poema labur batzuk berari eransten zaizkio, eta litekeena da hark benetan idatziak izatea. Edonola ere, Platonen talentu dramatikoa bere elkarrizketa hoberenetan agertzen zaigu nabariarik. “Phaidon”, “Oturuntza” eta “Phaidros” eta beste batzuk poesiaz eta dramatismoz asebieterik daude erabat.

Edonola ere, bere Politeia-n poesiari egiten dion ukoa ez dator sentiberatasun- edo estetika-kontuetatik. Irizpide moral eta pedagogikoetan oinarritua da. Poetak, Platonen ustez, ez dira, arrazoi batzuegatik, gazteentzako hezitzaile egokienak. Ez dute, beraz, filosofoen lehiakide izan behar. Haiek behin eta berriro kontatzen zituzten mitoak gezurrezkoak eta eskandalagarriak ziren; haien obrek errealitateaz hedarazten zuten ikuspegia itxurazkoa zen eta bigarren mailako errealitatea irudikatzean –mimesian-- oinarriturik zegoen. Beraz, filosofoak ziren, ideien mundua ikusia zutelako, hain zuzen, benetako egia eta morala irakats zitzaketen bakarrak.

Platonen zentsurak arrazoi batzuetatik sortuak dira:

1.- Poetek hedaturiko mitologia eskandalagarria da. Aurreko beste pentsalari batzuek, Xenofanesez eta sofistek adibidez, jadanik egindako kritika da, Homero eta beronen jarraitzaileak aurka jaurtikia. Poetek jainkoez kontatzen zutena ez zettorren garaiko balio moralekin bat. Eta komeni zen hiritarrek jainkotasunaz zuten ideia tamalgarria ikuspegi arin eta harrigarri horietatik garbitzea.

2.- Poetek gezurrezko mundu bat imitatu edo antzeztu besterik ez zuten egiten. Berez eta oinarritz kopia akasduna den errealitateaz egiten zuten mimesi horrekin, hortaz, jendea benetakotasunetik are urrunago zeramaten, eta beren erakarpenez hura egiazko jakintzatik desbideratzen.

3.- Filosofiaren irakaskuntzak, edo, are hobeki, paideia arrazionalista, kritiko eta dialektikoak, aldean eskakizun didaktiko eta intelektualak zekartzan, koherentziazkoak eta kontzeptuen jakintzezkoak, eta horiek poeten eta, batez ere, Homeroren, hitz prestigiotsuetan oinarritzen zen memoria bidezko irakaskuntza errepikakorren aurka zeuden. Jadanik Sokratesen “Ion” elkarrizketa laburrean argi islatzen da, Homeroren bertsoek osatzen duten “ahozko entziklopedia” horretan finkaturiko rapsodaren eta Sokrates kritikariaren arteko eztabaida.

Ageri denez, bi pentsaera historikoen arteko elkar jotzea dugu aurrean. Alde batetik, ohiko heziketa, poesi ondarea buruz ikastean oinarritua; eta bestalde, jakituria kritikoa eraiki nahia, zehaztasun eta objektibotasunaren bila ari zena, zentzuen eta estetikaren erakarkeriatik kanpoan. Tradizio poetikoaren ekarpenari, beraz, egiaren bilaketa kontrajartzen zitzaion, dialektika eta behatze zientifikoaren bidez.



Platon eta Homeroren arteko gatazkaren ikuspegi hori E.A. Havelock-ek nabarmenarazi du ongienik, berak Platonez eta Homerok bilduriko ahozko tradizioaz eginiko ikerlanean<sup>10</sup>. Beroni jarraikiz, hor, alde batetik, ahozko kulturari loturiko pedagogi tradizioaren eta, bestetik, idazkeran eta beronen zehaztasunetan oinarrituriko forma mentis berriaren arteko borroka ikus dezakegu. Poetek landu eta hedaturiko pentsaera mitikoaren aurrean, funtsean memoriari eta dramatizazioari atxikia, ikerkera berria azaltzen zaigu, gogoetan eta kritikan, zehaztasunean eta objektibotasunean oinarritua. Ikuskera horrek mitoak gaitzetsi eta, munduari buruzko jakituriaz, Homeroren emaitza baztertzen du. Berau, bistan da, idazkerari loturik dator eta hortxe du oinarria. Interesgarria da Platonek asmaketa misterioitsu honen abantailez eta desabantailez zenbat aldiz pentsatu duen gogoratzea<sup>11</sup>. Egia da, edonola ere, alde honetan, sofistak Platonen aitzindariak izan zirela, eta beregan jardunbide kritikoa osoa gailurrera heldu zen arren, izan zuen, halere, aurretikorik.

Platoni esker, Havelockek ederki ikusi duenez, jakintza kritiko, abstraktua eta gogoetazkoa, teknikoa eta sistematikoa, behin betiko gelditu zen nagusi Grezian, K.a. IV mendera arte bizirik iraun zuen ahozko zibilizazioaren gainetik. Alfabetoa VIII mendean hedatu bazen ere, ahozko tradizio horren biziraupena oso nabaria da greziar kulturen mende batzuk geroago ere, lehen azaldu denez, eta azken urteotan arlo hau biziki ikertu izan da<sup>12</sup>.

Platonen idazlanean aurkitzen diren gaiak hain ugari eta garrantzi handikoak direnez gero, ezin ken dezaket burutik ez ote dudan hainbat gauza aipatzeke utzi, Politeia-ren sarrera hau idaztean. Baina aitzinsolasak irakurleak lanaren aurrean kokatu eta mamizko gai batzuk aurkeztea du helburu, testua, labur beharrez, bere testuinguru historikoarekin nolabait lotzeko.

Ez legoke gaizki Politeia filosofi pentsaeraren tradizioan eraginik handienetakoa izan duen idazlana izan dela gogoratzea. Ez da soilik, lehentxoago adierazi dugunez, politika-pentsaerazko lana, filosofiaren panoramika osoa inguratzen duen utopia ere bada, aparteko literatur idaztanka miresgarriaz mamitua. Platonen proiektu politiko eta sozial honek anitz kritika erakarri ditu, baina berak eredu gisa proposatu zuen, eta ez berehalakoan aplikatzeko sistema moduan. Agian komeni daiteke horrelako utopia egiaz eraikitzeaz pentsatzea, gure barruan besterik ez bada ere. Edonola ere, pentsalari politiko gutxik ukan dute atenastar zaharraren irudimena. Duda egin daiteke proiektu honek ez ote duen traditzen haren maisuaren eszeptizismoa, Platon nostalgikoak protagonistatzat eta bere sistema eta ideologiaren eledun gisa aurkezten duena.

Idazlan hau hemen, gaur, eta itzulpen berrian irakurtzea esperientzia intelektual gogoangarria da oraindik. Ezein laburpenek ezin gorde dezake bere baitan lan osoaren

---

<sup>10</sup> E.A. Havelock, *Preface to Plato*, Cambridge-Mass, 1963. (Italierazko itzulpenaren izenburuak *Cultura orale e civiltà della scrittura. Da Omero a Platone*, Roma-Bari, 1973, hobeki adierazten du idazlanaren mamia.)

<sup>11</sup> Cf. E. Lledó, *El surco del tiempo. Meditaciones sobre el mito platónico de la escritura y de la memoria*. Barcelona, 1992.

<sup>12</sup> Greziar munduaz J. Goody-k egindako lan oso orokorreaz eta W. Ong-ek antropologi ikuspegiaz argitaratuez gainera. ikus M. Detienne-k bilduriko ikerketak (ed.) in *Les savoirs de l'écriture, En Grèce ancienne*, Lille, 1983, eta E.A. Havelock, *The Muses learn to write*, Yale University Press, 1987. Homeroz ahozko poetatzat harturik, asko idatzi da; ikus F.J. González, *A través de Homero. La cultura oral en la Grecia antigua*, Santiago de Compostela, 1991

gai eta ñabarduren aberastasun oparoa. Eta kontua ez da halako errezeta politiko edo moral batzuk, besterik gabe, jasotzea, utopia horri buruzko gogoetan aitzinatzea baizik. Bidezko eta zorioneko hiri hori eraikitzea, hor guztiek, elkartasunean eta adimenaren ahaleginaz, zoriona erdiets dezaten, helburu ona eta apustu ederra da, eta xede horretara iristeko formulaz bat etorri ez arren ere, Platonek, gutxienez, erronka horri zintzotasun osoz eta irudimen handiz jakin zion aurre egiten.

Carlos García Gual

-Txikerrenean ere ez, esan zuen.

-Uste dut beraz, esan nuen, nondik onak diren jakiten ez diren gauza zuzen eta ederrek, ez dutela izango behar den adinako zaintzailerik hori ez dakienarengan. Eta igertzen dut behar den heinean inork ez dituela ezagutuko, lehenago ona zer den ez badaki.

-Ederto igertzen duzu, esan zuen.

-Ez ote dugu izango egin-egineko (b) hiri-eratzeko bat gauza hauek dakizkien honako zaintzaile batek zain badeza?

XVIII. - Beharrezko da, esan zuen. Baina zuk zeuk, bada, ene Sokrates, ona zer dela diozu, jakintza, atsegina, ala osterantzeko zerbait?

-Hau gizona! esan nuen. Aspalditik guztiz argi zegoen ez zitzaizula aski izango horri buruzko besteen eritzia.

-Ez dut uste, esan zuen, ene Sokrates, bidezko denik ere, alde batetik besteen usteak esatea, eta bestetik bereak ez esatea, honako gauzei buruz hainbeste denboran ari izan denak.

-Zer, bada? esan nuen, (c) eta uste ote duzu bidezko denik ez dakien gauza bati buruz hitzegitea, baleki bezala?

-Ezelan ere ez, benetan, esan zuen, ez baleki bezala, uste dituenak eritzi bezala esan nahi izatea baino.

-Zer, bada? esan nuen; ez ote zara konturatu jakintza bako eritzi guztiak lotsagarri bezala direnik? Euretarik ederrenak itsu dira. Ala uste ote duzu ezagutu gabe egiaren eritzia dutenak, bide zuzenetik doazen itsuengandik bereizten direnik?

-Bat ere ez, esan zuen.

-Nahi ote duzu, bada, lotsagarritzko gauza itsu eta bihurriak ikusi, besteengandik (d) argiak eta ederrak ikusi ahal izanik?

-Zeusaren, ene Sokrates, esan zuen Glaukonek, ez dezazula ihes egin azkeneraino heldu zarelakoan. Guretzat nahiko da, zuzentasunari, neurritasunari eta beste gauzei buruzkoak azaldu zenizkigun bezala onari buruzkoa ere berdina azaltzen badiguzu.

-Niretzat ere, esan nuen, ene lagun hori, guztiz nahikoa izango da, eta nola! Baina ez nadila ezgai izan, eta nire ahalegin baldarrez, ez nadila barregarri izateko arriskuan jar. Baina, ene zorionekook, ona bera berez zer den utz dezagun (e) oraingoz alde batera, - orain daukagun abiada honekin horri buruz uste dudanera heltzea gehiegi dela iduritzen zait eta- nahiago dut, aldiz, onaren seme dirudien eta harekin antzik handiena daukanari buruz hitzegitea, zuen gogoko bada, eta ez bada, alde batera utziko dut.

-Hitzegizu, esan zuen, zorra beste batean ordainduko diguzu aitaren azalpena eginez eta.

-Nahi nuke bai, esan nuen, 507. osorik ordaindu ahal izango banu eta zuek jaso ahal izango bazenute, baina ez etekinak bakarrik orain bezala. Abegi onez onar dezazuela, bada, on denaren bere etekin eta seme den hauxe. Arduratu zaitezte, bada, nahi ez arren iruzur egin ez diezazuedan, etekinaren kontu ustela emanaz.

-Arduratuko gara, bai, esan zuen, ahal dugun neurrian, baina hitzegizu, arren.

-Noski, esan nuen, zuekin akordu batera heldu eta lehen esanikoak eta beste askotan ere esan izan zirenak zuen gogora ekarri ondoren.

-Zeintzuk? (b) esan zuen.

-Autuan esan eta mugatu genuen bazirela gauza eder asko eta gauza on asko, eta berdin beste gauza bakoitzetik.

-Esan genuen, bai.

-Esaten genuen baita ere, bazela ederra bera eta ona bera, eta berdin orduan askotariko bezala jartzen genituen gauza guztiei buruz; bestalde, gauza bakoitzaren ideia bakarraren arabera izate bakar bat jarririk, bakoitzari "dena" deitzen diogu.

-Halaxe da.

-Askotariko gauzei buruz, bada, esaten dugu ikusgai direla eta ez pentsagai, eta ideiei buruz, aldiz, pentsagai, (c) eta ez ikusgai.

-Bete-betea, bada.

-Gure baitako zerez ikusten dugu ikusten dena?

-Ikusmenaz, esan zuen.

-Ez ote dugu, bada, esan nuen, entzuten diren gauzak entzumenaz entzuten, eta sentitzen den oro, beste zentzuez?

-Zer, bada?

-Ez ote duzu, bada, esan nuen, kontutan izan zentzuen egileak zein beteago egin zuen ikusteko eta ikusia izateko ahalmena?

-Ez asko, esan zuen.

-Begira iezaiozu, bada, honi. Ba ote dute entzumenak eta hotsak, batak entzun dezan eta bestea entzun dadin beste ezer behar dutenik, (d) hirugarren gauzaren bat, eduki ezik, ez batak entzun, eta ez bestea entzuna izango ez dena?

-Ezer ez, esan zuen.

-Benetan uste dut, esan nuen, beste askok, bat berak ere ez esatearren, ez duela horrelakorik ezer behar. Ala ba ote duzu zuk baten bat esateko?

-Nik neuk ez, esan zuen.

-Ez ote zara konturatu ikusmen ahalmenak eta ikusi izatekoak behar dutela?

-Nola?

-Begietan ikusmena izanik ere, eta ikusmena daukanak ikusmenez baliatu nahi izan arren eta margoa izan arren gauza berezi horretarako sortzen den hirugarren mota, hori agertzen ez bada, (e) jakin dakizu ikusmenak ez duela ezer ikusiko, eta margoak ere ez direla ikusgai izango.

-Zeri buruz, bada, esan zuen, diozu hori?

-Zuk argia deitzen diozunari buruz, esan nuen.

-Egia diozu, esan zuen.

-Ez da ez neurri txikian estimagarriago, ikusteko zentzua eta ikusia izateko ahalmena 508. uztartzen dituen uztartia, beste ahalmenak elkarrekin uztartzen dituen baina, argia gauza desestimagarri bat ez bada behintzat.

-Benetan, esan zuen, asko behar du desestimagarria izateko.

XIX. - Zeruko jainkoen artetik, bada, zein jar ote zenezake gauza horren jabe, zeinen argiak ahalik eta ondoen ikusteko gai egiten gaituen, eta baita ikusgaiak ere ahalik eta ondoen ikusi ahal izan daitezen egiten duen?

-Zuk, esan zuen, eta gainerakoek ere jartzen duten berbera, argi dago eguzkiari buruz itauntzen ari zarela eta.

-Ez ote da, bada, ikusmena horrelaxe jainko horrentzat sortu?

-Nola?

-Eguzkia ez da ikusmena, ez bera, ez begi deitzen diogun (b) bere sorleku hori ere.

-Ez, bada.

-Baina, uste dut benetan, zentzuen organoetatik eguzkiaren antzik handiena daukana dela.

-Askozaz benetan.

-Eta daukan ahalmena ez ote dauka harengandik isurika bezala jaso?

-Gutziz, bada.

-Bera ikusmena izan ez arren ez ote da, bada, eguzkia haren iturburu eta hark ikusia?

-Horrelaxe da, esan zuen.

-Esan dezakezu, bada, esan nuen, horixe dela onaren semetzat neukana, onak bere antzeko (c) sortu zuena, eta hura, hain zuzen, eremu adigarrian adimenarentzat eta adituentzat sortu den bezala, hau eremu ikusgarrian ikusmenarentzat eta ikusten diren gauzentzat sortu dela.

-Nola? esan zuen. Azal iezadazu gehitxoago ondino.

-Begiei buruz, ez ote dakizu, esan nuen, egunaren argia gauzen margoetara jausten delarik, inork jada gauzotara bere begiak itzuli orde, gaueko argiak argitutakoetara itzul baditza, lauso eta itsuen antzeko agertzen direla, ikusmen garbirik ez balute bezala?

-Bai horixe, esan zuen.

-Baina, aldiz, eguzkiak (d) argituriko begiak direnean, uste dut, argi ikusiko dutela, eta nabari izango da horiexek ikusmena daukatela.

-Zer, bada?

-Beraz, arimari buruz ere adi ezazu hauxe: izateak eta egiak argitzen duten horretan arimak oinarritzen denean, gauza hori aditu eta ezagutu egiten du, eta adimendun bezala agertzen da; baina iluntasunez nahasturikoan, sortu eta hondatu egiten den horretan, oinarritzen denean, uste hutsean bakarrik dago, lauso da, eta goitik behera ustea aldatzen ibiltzen da, eta zalantzarik gabe, adimenik ere ez daukala dirudi.

-Badirudi, bai.

-Esan ezazu, (e) bada, ezagututako gauzei egia ukanarazten eta ezagutzaileei ezagutzeko ahalmena ematen diena onaren ideia dela; onaren ideia, adimenak ezagutzen duenez, jakintzaren eta egiaren iturburu izanik, eta ezagumena eta egia gauza biok hain eder badira ere, hura ederrago den zerbait dela pentsatzen baduzu, zuzen pentsatuko duzu. Eta jakintza eta egiari buruz han argia eta 509. ikusmena eguzkiaren antzeko zirela sinestea zuzen zen bezala, eta eguzki zirela uste izatea ez, hemen ere berdin: zuzen da gauza biok onaren antzeko direla uste izatea, ez, ordea, zuzen, hauetako biak on direla uste izatea, onaren edukia are balio handiagokotzat izan behar dela baino.

-Hara nolako edertasun berdingabea diozun, esan zuen, jakintza eta egiaren sorburua izanik edertasunez biak garaitzen baditu. Ez dut uste ezelan ere esango duzunik hori atsegina izango denik.

-Hitzegin ezazu begirunez, esan nuen. Honelaxe begira iezaiozu ondino gehiago iduriari.

-(b) Nola?

-Ene ustez, esango duzu, eguzkiak ikusten diren gauzei ikusiak izateko ahalmena ez ezik, sorrera, haziera eta hazkurria ere ematen dizkiela, bera sorrera ez bada ere.

-Nola, bada?

-Esan dezakezu, baita ere, ezagutuak diren gauzei ezagutza ez ezik, izatea eta izana ere onarengandik gaineratzen zaizkiela; ona, ordea, ez da izana, duintasunez eta ahalmenez harengandik ondino gorago dagoena baino.

XX. - (c) Eta Glaukonek barre franko eginik esan zuen: Ene Apollon, hara nolako nagusitasun zoragarria!

-Erruduna zeu zara, esan nuen, horri buruz uste dudana esatera behartu nauzulako.

-Eta ezelan ere, esan zuen, ez zaitezela geratu, besterik ezean, eguzkiari buruzko iduri hori, arean, azal iezaguzula baino, ezer esateko geratzen bazaizu, behintzat.

-Bai horixe, esan nuen, gauza-pilo galanta geratzen zait benetan.

-Esan barik ez dezazula, bada, txikerrenik ere utz.

-Uste dut, bada, esan nuen, askotxo ere utziko ditudala, baina, era berean, une honetan ahal ditudan guztiak ez ditut gogoz esan barik utziko.

-Ez horixe, esan zuen.

-(d) Gogora ezazu, bada, esaten genuenez, bi direla eta bata jatorri eta eremu adigarrian, eta besteak aldiz, ikusgarriarenean agintzen duela; eta ez diot zeruan, izenarekin sofistarena egiten nabilenik uste ez dezazun. Ez ote dauzkazu, bada, alde bi hauek, ikusmenarena eta adimenarena?

-Baditut, bai.

-Egizu, bada, bi zati desberdinetan banaturiko lerro bat hartzen duzula; eta zati bakoitza, ikusmenaren jatorrizkoa eta adimenekoa zatitu berriro lehengo neurriaren arabera, eta banaturik izango dituzu bakoitzaren argitasun edo iluntasunaren arabera ikusgai-eremuan lehenengo zati bata, (e) iduriaren zatia. Eta iduri deitzen diet lehenengo 510. itzalezkoei eta gero urazaletan agertzen direnei eta edozein gorputz lehor, labaindu eta distiratsuetan daudenei eta antzeko guztiei, ulertzen baduzu.

-Ulertzen dut, bai.

-Beste zatian, bada, jar ezazu honek iduriarazten zuena, gure inguruan dauden animaliak, landare guztiak, eta egin bide den gauza oro.

-Jartzen ditut, esan zuen.

-Baita ere, esan nuen, onar ote zenezake, eritzizkoa eta ezagumenezkoa, egiaren eta osterantzekoaren arabera berezi ohi diren bezala, iduria eta idurieratua ere bereizten direnik?

-Nik neuk bai, (b) esan zuen, eta gogoz gainera.

-Azter ezazu, bada, eremu adigarriaren zati hori ere nola zatitu behar den.

-Nola?

-Honela, arima, lehen idurieratutakoaz baliatuz, adimeneko lehen zatia bilatzera behartzen da; hipotesietatik abiatuz, ez doa hastapenera, ondoriora baizik; aldiz, bigarren zatia, metodo gisa, hipotesitik abiatuz eta hari buruzko iduririk gabe, hipotesirik gabeko hastapenera helduz, bilatzen du.

-Esaten dituzunok, esan zuen, ez ditut behar beste ulertu.

-Berriro esango ditut, esan nuen. (c) Errazago ulertuko duzu aurretik hauek esanikoan. Uste dut jakin badakizula geometriari buruz, zein zenbakiei, zein antzeko gauzei buruz ari direnek jarritzat ematen dituztela zenbaki bakoitia eta bikoitia eta iduriak eta hiru motako angeluak eta hauen senitarteko beste gauza batzuk metodo bakoitzaren arabera; gauza hauek, hipotesizat harturik, ezagututzat ematen dituzte, eta hauei buruz ez dute uste arrazoirik eman behar dutenik ez euren buruei ez besteenei, edonorentzat argi baleude bezala, eta horietarik hasirik (d) eta gainerako gauzen gainetik

igaro ondoren, ikertzero abiatu zireneko horri buruz aho batez amaitzen dutela.

-Hori, bada, esan zuen, badakit, eta ondo jakin ere.

-Eta ez ote dakizu, bada, ikusgai diren iduriez ere baliatzen direnik, eta hauei buruz egiten dituztela gogoetak, baina ez dutela hori egiten iduri horiek kontutan izanik, idurieratuak diren gauzak baino. Lau angeludun laukiari berari buruz, eta bere diametroari buruz ari direla, baina ez eurak marraztutakoari buruz; eta beste gauzei buruz berdine egiten dutela, (e) eta itzalak eta uretako isladak idurikatutako gauzak aldi berean iduri bezala erabiliz, inork, 511. adimenaren bidez izan ezik, ikustezinak dituen gauza haiek bere-berean ikusten saiatzen direla?

-Egia diozu, esan zuen.

XXI. - Horrelako iduriari, bada, esaten nion<sup>14</sup> nik adigarri zela, eta bera aztertzerakoan arima hipotesiez baliatzera beharturik zela, eta hipotesiak baino gorago igaro ezin zenez, ez zela abiatzen hastapenera, eta behekoek idurikatzen zituzten gauza berak erabiltzen zituela iduritzat, hauek haien arabera nabaritzat edukiz eta goretsiz.

-Ulertzen dut, esan zuen, (b) geometria eta honen senide diren trebetasunetan egiten denari buruz diozula.

-Jakín ezazu, bada, bigarren zatia, nik adigarriarena deitzen diodana, berak berez dialektikaren ahalmenez arrazoiak lortzen duena dela, eta ez dituela oinarritzat hipotesiak erabiltzen, benetako hipotesiak bezala baino, abiapuntu eta abiada bezala, hipotetiko ez den gauza guztien hastapenera igoz; hori lorturik, berriro hastapenari datxezkionak atxekiz, ondorioz ondorio, arrazoa azkenera helduko da, inolako zentzuz inola baliatu gabe; (c) alderantziz, ideiak berez direnez erabiliaz ideietarantz doa, ideian bertan amaiturik.

-Ulertu dut, esan zuen, baina ez behar beste -dionun zeregina handia dela uste dut eta,- dena den, garbi utzi nahi duzu dialektika-jakintzak sortzen duen izatearen eta adigarriaren ikuskizuna, artisautza deiturikoez sortzen dena baino argiagoa dela; hauentzat hipotesiak hastapen direlako; halere, ikusleak gauzok ikustera behartuak daude, ez zentzuen bidez, adimenaren bidez baizik; (d) eta uste duzu hastapenera igo ordez hipotesietatik begiratzeagatik, hauei buruz ez dutela ezaguerarik, hastapenaren baitan adigarri badira ere. Geometri gizon eta antzekoen ariketari uste dut

gogamen deitzen diozula eta ez jakintza, gogapena eritziaren eta jakintzaren arteko zerbait delako.

-Guztiz egoki, esan nuen, ulertu duzu. Jar ieazazkidazu lau lerro-zati horien gainean ariman sortu diren lau agerkari hauexek: adimena gorengo zatian, (e) gogamena bigarreanean, hirugarrenari sinesmena jar iezaiozu, eta azkenekoari idurimena, eta egiaren partaidetza daukaten heinean daukatela argitasuna ere kontutan izanik, era itzazu hauek arrazoiaren arabera.

-Ulertzen dut, esan zuen, eta bat nator, eta eratu ere zuk diozun bezala eratzen ditut.



## VII

514. I. - Honen ondoren, bada, esan nuen, heziera eta hezigabetasunari buruz pareka ezazu gure izaera honelako egoerarekin<sup>1</sup>. Ikus itzazu, bada, gizon batzuk, luzera guztian argirantz sarrera zabal bat zabalik daukan lurpeko leize-egoitza batean baleude bezala, umetatik bertan daudelarik, bernetatik eta samatik loturik, beti leku berean, eta (b) aurrera baino begiratu ezinik, eta, lokarriak direla eta, euren buruak ezin itzulirik; bestalde gizon hauen atzealdetik urrunean eta goitik suargi bat bizturik, eta bide bat goialdean suaren eta atxilotuen artean; ikusazu baita ere bide horren luzeran eginiko harresitxo bat, titiriteroek jendearen aurrean jartzen duten estalkiaren antzekoa, zeinen gainetik gauza harrigarriak erakusten dituzten.

-Badakusat, esan zuen.

-Harresi horren luzeran, ikus itzazu, bada, gizon batzuk, harresia gainditzen duten edotariko tresnak eramaten, (c) eta baita giza iduri batzuk ere 515. eta harrizko edo zurezko animalia batzuk eta eginiko guztitariko gauzak ere; eta berezko denez,

garraiarari hauen artean batzuk hizketan joango dira eta beste batzuk ixilik.

-Hara nolako ikuskizun eta atxilotu baragarriak aipatzen dituzun, esan zuen.

-Gure antz-antzekoak dira, esan nuen. Lehenengo eta behin, uste ote duzu honako hauek eurei buruz edo besteei buruz ezer ikusi dutenik suak aurrean daukaten leize-hormara jaurtikitzen dizkien itzalak baino besterik?

-Nola, esan zuen, buruak geldi edukitzera behartuak izan badira (b) bizitza osoan?

-Eta eramaten dituzten gauzei buruz, zer? Ez ote da gauza bera gertatuko?

-Zer, bada?

-Eta euren artean hitzegiteko gai balira ez al duzu uste agertzen zaizkien gauzei buruz dihardutela uste izango dutenik?

-Beharrezko.

-Eta espetxe horrek aurreko hormatik oihartzun egingo balu, zer? Eta igarotzen direnen artetik inork hitzegin lezakeen bakoitzean, uste duzu agertzen zaizkien itzalak baino bestek hitzegiten diela uste izango dutenik?

-Nik neuk ez, Zeusarren, esan zuen.

-Era guztietara, beraz, esan nuen, (c) honako hauek ez dute egiaztat ezer izango, eginiko gauzen itzalak baino.

-Guztiz beharrezko, esan zuen.

-Azter ezazu, bada, esan nuen, zer gerta litekeen euren lokarrietatik askatu eta zorakeriatik senda balitez eta euren izaerari dagokionez, honako gauza hauek gerta balekizkie: honako atxilotu bat askatu izan ledinean, eta bat-batean zutitzera, burua itzultzera, ibiltzera, eta argirantz begiratzera behartu izan ledinean, eta gauza guzti hauek egitean min har lezanean, eta distirengatik, lehen itzalez ikusten zituen gauzak ikus ezin litzanean, (d) zer uste duzu erantzun lezakeela horrek inork esan balezaio lehen huskeriak bakarrik ikusten zituela, eta orain, izatearen askoz hurrago dagoelako eta izate benetakoagoaren aurrez aurre dagoelako hobeto ikusten duela, eta areago, igarotzen diren gauzen artetik bakoitza erakutsirik zer den erantzutera behar baleza? Ez al duzu uste zurtz eginik egon litekeenik eta lehen ikusten zituen gauzak orain erakusten zaizkionak baino egiazkoagoak zirela uste izan lezakeenik?

-Askoz gehiago, benetan, esan zuen.

II. - Eta argi berbererantz begiratzera behartua (e) izan baledi, ez ote lezake begietako oinazetik izan eta ihes egin ikus litzakeen gauzetara itzuliz, eta ez ote lezake uste izan benetan gauza hauek argiago direla erakusten zaizkionak baino?

-Horrelaxe da, esan zuen.

-Eta, esan nuen, inork indarrez handik atera baleza irteera latz eta erripatsu horretan zehar, eta eguzkiaren argitara narraz eraman arte utz ez baleza, ez ote duzu uste, ausaz, mindu eta na-

rraz eramana izateagatik haserre litekeenik, eta argitara 516. heldurikoan, begiak argiz bete-beterik dauzkalako ez datekeela gai orain egiazko direla dioguzan gauzen artetik bat bera ere ikusteko?

-Ez, ez litzateke gai izango, esan zuen, bat-batean, behintzat.

-Uste dut, bada, ohitu beharko lukeela goiko gauzak ikusiko baditu. Hasteko, errazen itzalak ikusiko lituzke, hauen ondoren urazaletan gizonen eta gainerakoen iduriak, eta azkenik gauza berberak zuzenean. Hauen ondotik, errazago ikusiko lituzke gauez zeruan dauden gauzak eta zerua bera, izarren eta ilargiaren (b) argirantz begiraturik, egunez eguzkia eta eguzkiaren bidez ikusten direnak baino.

-Eta nola ez, bada?

-Eta azkenean, bada, uste dut eguzkia bera, baina ez uretan edo beste edozein lekutan haren iduria, eguzkia bera baino, den-denekoan eta bere eremuan ikusi ahal lukeela eta den-den lakoxean begira ahal liokeela.

-Beharrezko, esan zuen.

-Ondoren eguzkiari buruz ebatziko luke eguzkia bera dela urtaroak eta urteak ere jartzen dituen, eta ikusgai-eremuan dauden gauza guztien gain agintzen duena, eta era batera edo bestera, eurak ikusten dituzten gauza (c) guztien iturburu.

-Argi dago, esan zuen, uste haietatik besteetara joango litzatekeela.

-Zer, bada? Lehengo bere etxeaz eta hango jakintzaz eta bere gartzela-kideez gogoratzen denean, ez ote duzu uste, alde batetik, zoriontsu izango dela izan duen aldakuntzaz, eta bestetik, haien erruki izango dela?

-Bai horixe.

-Eta atxilotuen artean, agertzen diren gauzak zorrotzen ikusten dituenarentzat eta zeintzuk ziren lehen igarotzen direnak eta (d) zeintzuk ondoren edo batera ondoen gogoratzen denarentzat, eta ikuskizun horietan oinarriturik gertatuko dena iragartzeko ahalmen handiena daukanarentzat, bata bestearekiko ohore eta goraipamenik balitz, uste duzu haien bekaitzik izango lukeenik, ala Homerosena gertatuko litzaiokeela, edozein modutan nahiago izango lukeela "nekazari-mutil izanik lan egitea ondasun gabeko beste gizon batentzat<sup>2</sup>" eta areago beste edozer jasatea, gauza guzti haiek eriztearen ordezt, eta era hartan bizi izatearen ordezt?

-Horrelaxe, (e) uste dut nik neuk ere, edozer jasatea onartuko lukeela era hartan bizi izan baino.

-Hauxe ere izan dezazula gogoan, esan nuen: honako hau berriro jaitsirik lehengo leku berean jar baledi, ez ote lekiok begiak itzalez bete, bat-batean eguzkitatik helduaz?

-Bai horixe, esan zuen.

-Eta berriro itzal haiexez eritziak emanez beti atxiloturik egon direnekin lehiatu behar balu, ondino lauso dela, 517. begiak egokitu aurretik, eta egokitze-epe hori ez litzateke guztiz laburra izango, ez ote litzateke barregarri bihurtuko eta berari buruz ez ote litzateke esango, gora igo delako, han begiak guztiz hondatu dituela, eta gora igotzearren ez duela merezi

ahalegintzea ere? Eta askatzera eta gora eramatera ahaleginduko litzatekeena, euren eskuetan hartu ahal balezate eta hil, ez ote lukete hilko?

-Zalantzarik gabe, esan zuen.

III. - Iduri hau, bada, esan nuen, ene adiskide Glaukon, oso-osoan aurrerago (b) esan direnen ondoan jarri behar da; alde batetik, ikusmenaren bidez agertzen dena espetxeko egoitzarekin parekatu behar da, eta bestetik, bertan dagoen suaren argia eguzkiaren indarrarekin. Eta gora igotze hori, eta goian dauden gauzen ikuste hori, arimaren adimen-eremurako igoeratzat hartzen baduzu, ez diozu hutsik egingo benetan nire itxaropenari, horixe entzun nahi duzunez gero. Agian, jainkotasunak daki egiazko suertatzen den. Hauxe da, bada, nire eritzia: adimenaren eremuan azkenen eta nekez ikusten dena onaren ideia da, eta ikusirikoan, (c) ondorenez atara behar da, bera dela zuzentasun eta edertasun guztien iturburua gauza guztietan; ikusmen-eremuan, argia eta argiaren jabea sortu duena; adimen-eremuan bera da nagusia, egia eta ezaguera ematen duena; eta ikusi ere berau ikusi behar du, zentzuz aritzea nahi duenak bere baitan edo herriaren aurrean.

-Nik neuk ere, esan zuen, berdin uste dut, benetan, ahal dudan neurrian.

-Ea, bada, esan nuen, hau ere onar ezazu, eta ez zaitez harritu eremu horretara heldurikoan gizonen arazoetan aritzerik nahi ez izateaz; aitzitik, euren arimak, beti goian bizitzearren, egonezinik daude; izan ere (d) bidezkoa da, agian,

horrelaxe izatea, esanikoaren iduriaz hori bat badator, behintzat.

-Bidezko da, bada, esan zuen.

-Zer, bada? Uste ote duzu hau ezer harrigarri denik, esan nuen, inor jainkozko ikuskizunetatik gizonen txarkerietara heltzen bada, eragabe gertatzea eta, oraindik lauso denez, eta bertako iluntasunera behar den bezala ohitu baino lehen, auzitegietan, zein beste edozein lekutan, zuzentasunaren itzalei eta itzalen iduriei buruz lehiatzera, eta honi buruz zuzentasuna bera inoiz ikusi ez dutenek (e) gauza hauek nola ulertzen dituzten tematzera beharturik aurkitzen delako, guztiz barregarri azaltzea?

-Ezelan ere ez da harrigarri, esan zuen.

-Baina benetan zentzurik lukeen edonork 518. esan nuen, gogoratu behar luke era bi direla, eta eragin bikoitzetik sortzen direla begien itsutasunak, argitik itzalera eta itzaletatik argira aldatzean. Eta gauza berbera arimari gertatzen zaiola ohartzen denean, inoiz baten bat itsuturik ezer ikusi ezinik ikus baleza, ez luke zentzu barik barrerik egingo, aztertu baino, ea bizitza argiago batetik etorririk ohitura ezagatik itsutu den, edo ezjakintasun handiago batetik argiago batera (b) igarorik argiagoaren distirez bete den, eta horrelaxe, bata bere zoriz eta bizitzaz zoriontsu dela uste izango du, eta bestearen erruki izango da; eta, barre egin gura balio, bere barrea ez litzateke izango goiko argitik datorrenari egingo liokeena bezain gaitzesgarri.

-Neurri-neurrian diozu, esan zuen.

IV. - Beharrezko da, beraz, esan nuen, gauza hauei buruzkoa egia bada guk hauxe kontutan izatea: hezkuntza ez dela batzuek aldarrikatuz dioten lakoa. Esan ere badiote ariman jakintzarik ez daukanari eurak jartzen diotela, begiitsu batzuei ikusmena jarriko baliote bezala.

-Esaten dute, bai, esan zuen.

-Benetan oraingo eztabaida honek, esan nuen, erakusten du bakoitzak ariman daukan ahalmen horrexek eta bakoitzak ulergailutzat duen tresna horrek, begia, gorputz osoz ezik, itzaletik argirantz itzuli ezin den bezala berdin itzuli behar dutela arima osoz, sorrera duen izakitik alde eginik, izaterantz eta izatearen alderik argienerantz ere begiratzeko gai bihurtu arte. Eta izate hori (d) on dela diogu. Ala zer?

-Bai.

-Baliteke, bada, esan nuen, tresna horren biraketarako trebetasunen bat, eraren bat izatea, errazen eta eraginkortasun handienarekin itzul dadin, ez baina ikusmena emateko, ikusmena izanik, zuzen itzulirik ez daukana eta behar den lekura begiratzen ez duena zuzentzen saia dadin baino.

-Badirudi, bai, esan zuen.

-Baina gainerako bertuteak, arimarenak deritzanak, baliteke gorputzarenen antzeko izatea, -benetan hasiera batean eduki izan ez arren geroago (e) ekanduen eta ariketen bidez lortu ahal dituelako- ezagumenekoa, aldiz, dirudienez, gauza oro baino zerbait jainkozkoagoa suertatzen da, bere ahalmena

sekula galtzen ez duelako, eta itzultzen den tokiaren arabera baliagarri eta onuragarri, edo aldiz, alferreko 519. eta kaltegarri egiten da. Ala ez ote zara ohartu gaizto baina zuhur esaten zaien arimatxoak zein zorrotz begiratzen duen eta nolako sarkortasunez ikusten dituen begiak hartara itzultzen ditueneko gauzak, eta ikusmen txarra ez duelako eta gaiztakeriari zerbitzatzera beharturik dagoelako zenbat eta zorrotzago begiratzen duen nola hainbat eta gaiztakeria gehiago egiten duen?

-Zeharo, bada, esan zuen.

-Honako hau, bada, esan nuen, honako izaera daukana umetatik laster inausia izan balitz eta ebaki izan balitzazkio sortzearekin senide diren berun-birlatxoek modukoak (b) sabelkeria eta antzeko atsegin eta zalekerien bitartez erantsirik dauzkanak eta beheko gauzei [buruz] arimaren begirada makurrarazten dutenak, hauetatik aldenduz, egia direnetara itzuliko balitz, honelako giza arimatxoak berak ere, ahalik eta zorrotzen ikusiko luke egia, orain itzulirik dagoeneko gauzak ikusten dituen bezala.

-Bidezkoa da, esan zuen.

-Eta zer? Ez ote da bidezkoa, esan nuen, eta esan ditugunetatik beharrezko ere, hezi izan ez direnak, eta egia ezagutzen ez dutenak sekula ez direla egoki izango hiria zuzentzeko, (c) ezta azkeneraino heziketan irauten uzten zaizkienak ere, batzuek bere bizitzan helburu bat bera ere ez daukatelako, zeini begira egin beharko lituzketen, bere baitan edo herriaren aurrean, euren eginbeharrak, eta besteek ez dutelako

nahi izango borondatez egiterik, ondino bizi direla zorionekoen uhartera eramanak izan direla uste dutelako?

-Egia da, esan zuen.

-Gure eginkizuna, bada, esan nuen, hiri-eraikitzaileona, izaerarik ederrenekoak, aurrerago handiena dela esaten genuen ikaskizuna lortzera behartzea da, ona ikus dezaten (d) eta igoera huraxe egin; eta, igotakoan, nahiko ikusi ondoren, orain zilegi zaiena ez bokie zilegi izan.

-Zer, bada?

-Han, esan nuen, geratzea, eta atxilotu haien ondora berriro jaisterik, eta haien neke-  
lanetan zein ohoreetan, txarragoak zein hobeak izan, parte hartzerik nahi ez izatea.

-Baina, esan zuen, kalte egingo ote diegu eta bizitza okerrago bat eman, hobia izan ahal dutenean?

V. - Ahaztu duzu, (e) esan nuen, berriro, ene adiskide, hori ez doakiola legeari, gizabanako batzuek aparteko zorion berezi bat izatea hirian, hiri osoa zoriontsu izan dadin ahalegintzen dela baino, hirikideak harmonian jartzen ditu erakarpenez edo indarrez, eta bakoitzak erkideagoari 520. egin liezazkioken emaitzak elkarren artean banaraziz, eta legeak berak honelako gizonak hirian sortuz, ez bakoitza nahi duen lekura bihur dadin, hiriaren batasuna lortzeko eurez baliatzeko baino.

-Benetan, bai, esan zuen, ahaztu nintzen.

-Ikusazu, bada, esan nuen, ene Glaukon, ez goazela gure artean dauden filosofoei bidegabekeriarik egitera, gauza zuzenak esango dizkiegula baino, gainerako gizabanakoez arduratzera eta zaintzera behartu izan daitezten; zeren, esango diegu bidezkoa dela beste hirietan sortzen diren beraien antzekoak (b) euren hirietako arduratan eskurik ez hartzea, euren kabuz sortzen direlako hiri bakoitzeko eramoldeetatik at, eta bidezko da, bere hazkuntza inori zor izan barik sortu duena, hazkuntza horren eralketa-zorrak ordaintzen ez arduratzea. Zuek, aldiz, guk sortu zaituztegu zuentzat eta gainerako hiriarentzat, erlauntzetan bezala zuzendari eta errege, haiek baino hobeto eta egin-eginago hezi izanik, (c) gauza bietan esku hartzeko gaiago ere izan zaitezten. Bakoitzak, bada, txandaka, besteen egoitzara jaitsi behar duzue, eta itzalak ikusten ohitu behar duzue. Eta ohiturikoan, bertakoak baino hamaika aldiz hobeto ikusiko dituzue eta ezagutuko iduri bakoitza zer den eta zeinena den ere, gauza eder, zuzen eta on direnei buruz egia ikusi duzuelako. Eta horrelaxe, gurea eta zuena ere den hiri hau iratzarrik biziko da eta ez ametsetan, orain gehienak bizi diren bezala, huskeriengatik elkarrekin borrokan dabilzananen erruz, eta (d) gauza on handi bat balitz bezala agintea izatearren lehiatzen direnen erruz. Baina, beharbada, egia hau da: hirian aginduko dutenak agintezale txikienak direnean, hiri huraxe ezinbestean, hoberen eta baketsuen biziko dela, eta osterantzeko agintariak dauzkana osterantzean biziko dela.

-Guztiz, bada, esan zuen.

-Uste al duzu, bada, gure hazkuntzapekook gauza hauek entzutean ez digutela men egingo, eta ez dutela nahi



izango, txandaka, besteen nekeetan esku hartzerik, gehien den gainerako denbora elkarrekin garbitasunezko mundu batean biziz?

-Ezinezko da men ez egitea, esan zuen; gauza zuzenak (e) gizon zuzenei aginduko dizkiegulako. Hauetariko gizon bakoitza joango da, gehienbat, agintaritzara ezinbesteko gauza baterantz doanaren antzera, gaur egun hiri bakoitzean agintzen dutenen osterantzean.

-Halaxe da, bai, esan nuen, ene lagun hori; alde batetik, agintzea baino bizimodu hobeago bat aurkitu ahal bazenie agindu 521. behar dutenei, ondo zuzenduriko hiri bat izan ahal zenezake, benetako aberatsek hiri bakar hartantxe aginduko dutelako, ez urrezko aberastasunez, zoriontsu izateko aberats eduki behar den bizitza on eta zentzuzkoaz baino; eta bestetik, behartsu eta norberaren ondasun-gose, herriko gauzetara badoaz, uste izanik hortik eskuratu behar direla ondasunak, ez da ahal izango; izan ere, agintea borroka-gai bihurtzen denean, honelako borrokak, etxe barrukoa izanik, eurak eta gainerako hiria ere hondatu egiten ditu.

-Egiarik handiena, esan zuen,

-Ba ote duzu, (b) esan nuen, politikako agintea gutxi esten duen beste bizimoduren bat, benetako filosofoena izan ezik?

-Ez, Zeusarren, esan zuen.

-Benetan, agintera ez dute joan behar agintearen maitale izanik, bestela maite-lehiakideek eraso egingo diete.

-Eta nola ez?

-Beste zeintzuk, bada, behartuko dituzu hiria zaintzera joan daitezen, hiria hoberen zuzentzen deneko gauzei buruz zuhurrenak ez ezik beste ohore eta politikariak baino bizitza hobea dituenak baino?

-Beste inor ez, esan zuen.

VI. - (c) Nahi duzu, bada, honako hauek zein eratan egingo diren ikus dezagun eta nola argirantz jaso litezkeen, esaten denez, Haidesetik jainkoenganaino norbaitzuk igo ziren bezala?

-Nola ez dut nahi izango, bada? esan zuen.

-Hau, bada, dirudienez, ez dateke teila-zati baten jaurtiketa-jokoa, gaueko egun batetik benetako egunera arimaren itzultzea baino, benetako filosofia dela diogun izateranzko igoera bat baino.

-Guztiz, bada.

-Ez ote da, bada, aztertu behar ikasketen artetik zeinek daukan horrelako (d) ahalmena?

-Nola ez, bada?

-Zein dateke, bada, ene Glaukon, sorrera daukan gauza batetik izateraino arima eraman lezakeen ikaskizuna? Esanez batera hauxe gogoratu zait: ez ote genuen esaten<sup>3</sup>, bada, hauek gazte zirelarik gudu-atleta batzuk izan behar zutela?

-Esaten genuen, bai.

-Bilatzen ari garen ikasketak, beraz, gauza harez gain hauxe ere eduki behar du.

-Zer?

-Ez dadila gudarientzat alferreko izan.

-Behar du bai, esan zuen, ahal bada.

-Gimnastikan, (e) bada, eta musikan hezten genituen lehenengo<sup>4</sup>.

-Halaxe zen, esan zuen.

-Era batera edo bestera, bada, gimnastikak, sortzea eta amaiera daukan gauzari buruz ekiten dio, gorputzaren haziera eta hondatzearen arduradun delako.

-Badirudi.

-Hau ez dateke, bada, bilatzen dugun ikasketa.

-522. Ez horixe.

-Ausaz, lehenago azaltzen genuen lako musika ote da?

-Gogoratzen baduzu<sup>5</sup>, esan zuen, musika ez zen baina gimnastikaren osakide bat baino, ekanduen bidez zaintzaileak hezten zituena, harmoniaren arabera harmonia on bat ematen ziena, baina ez jakintza bera, eta erritmoaren bidez erritmo egokia jartzen ziena, eta kontakizunetan, ipuinezko zein benetakoak izan, esan zuen, hauen antzeko beste zerbait zeukana. Baina ez zeukan (b) zuk orain bilatzen zenuen bezalako ikasketara eramanezakeenik bat bera ere.

-Zehaztasunik handienarekin, esan nuen, gogoratu didazu; benetan ez zeukan ez honako ezer. Baina, ene jaunkozko Glaukon, zer dateke horrelako hori? Zeren, ogibide guztiak baldarrak iduritu zitzaizkigun<sup>6</sup>.

-Eta nola ez? Zer beste ikasketarik geratzen zaigu, bada, musikatik, gimnasiatik eta ogibideetatik landa?

-Ea, bada! esan nuen, hauetatik izan ezik hartzerik ez badugu, gauza guztiei buruz zuzentzen deneko bat har dezagun.

-Zein?

-(c) Ogibide, pentsamolde eta jakintza guztiek erabiltzen duteneko oro harreko hori, hasieran edonork ikasi behar duena.

-Zein? esan zuen.

-Hain arrunta den hau, esan nuen: bata, bia eta hirua ezagutzea. Labur esatearren aritmetika eta kalkulua deitzen diot horri. Ala ez ote da horrelaxe gertatzen edozein ogibide eta jakintza beharturik dagoela horien partaide izatera?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ez ote dago, esan nuen, gudu-trebetasuna bera ere beharturik?

-Guztiz beharturik, esan zuen.

-Zalantzarik gabe, esan nuen, (d) Agamemnon gudal-burua guztiz barregarri, behin eta berriro, agertzen du Palamedesek tragedietan. Ala ez ote zara konturatu nola dioen, aritmetika aurkitu ondoren, Ilionen gudarosteari sailak berak jarri zizkiola, eta itsasontziak ere berak zenbatu zituela, eta gainerako guztiak ere, lehenago ezer zenbatu izan ez balitz bezala, eta Agamemnonek, dirudienez, zenbat oin zituen ez bazekien bezala zenbatzen ere ez zekielako? Dena dela, nolako gudal-buru zela uste duzu berau?

-Nik baragarri bat, esan zuen, hori egia balitz.

VII. - Ez ote dugu, (e) esan nuen, gudu-gizon batentzat ezinbesteko beste ikasketa bat bezala kalkulatu eta zenbatu ahal izatea jarriko?

-Benetan, beste ezer baino gehiago, eratze-arazoetan aditua izan nahi duen edonork, areago oraindik gizon ere izan nahi badu.

-Ikasketa honi buruz bada, esan nuen, uste ote duzu nik uste dudana?

-Zer?

-Baliteke, berez ezagumenera eramaten duen 523. eta bila gabiltzanekoren bat izatea, baina ez du inork zuzen erabiltzen izaterantz erakartzeko zeharo gai izan arren.

-Nola diozu? esan zuen.

-Ahaleginduko naiz, esan nuen, benetan iduritzen zaidana agertzen. Ikus itzazu nirekin batera nire baitan bereizten ditudanak esaten dugun lekura eramateko gai diren ala ez, eta baietz edo ezetz erantzun, hori nik uste dudana bezala den, argiago ikus dezagun.

-Erakutsi, esan zuen.

-Horra, bada, esan nuen, ikusi nahi baduzu, zentzumenetan badira gai batzuk adimenari aztertzeri dei egiten ez diotenak, (b) zentzumenen bidez nahiko bereizten direlako, beste batzuk aldiz, aztertzeri guztiz dei egiten diotenak zentzumenak ez duelako ezer baliagarriarik egiten.

-Argi dago, esan zuen, urrunetik ikusten diren gauzei buruz eta itzalez margoztutakoei buruz ari zarela.

-Ez duzu guztiz ulertu, esan nuen, esaten dudana.

-Zer diozu, bada? esan zuen.

-Alde batetik, esan nuen, dei egiten ez diotenak, une berean alderantzizko (c) zentzumenera zuzentzen ez diren guztiak dira, eta bestetik, zuzentzen direnak dei egiten dioten artean jartzen ditut, zeren zentzumenak ez du argi erakusten gauza bat horrelakoa ala alderantzizkoa gehiago den, hurretik zein urrunetik somatu. Esaten dudana hau era honetan argiago ulertuko duzu: esan dezakegu hauek hiru atzamar direla, txikiena, bigarrena eta erdikoa.

-Guztiz benetan, esan zuen.

-Kontu egizu, bada, hurretik ikusten direlakoan ari naizela, baina azter ezazu eurei buruz diodan hauxe.

-Zer?

-Atzamar bakoitza berdin agertzen dela atzamar bezala, (d) eta horretan ez dago alderik erdian zein alde batean ikusi, zuri zein beltz, lodi zein mehe, zein antzeko edozein eratan, zeren egoera guzti hauetan gehiengoan arima ez dago beharturik atzamarra zer den adimenari itauntzera; ikusmenak, bada, ezelan ere ez dio hari adierazi era berean atzamarra atzamarraren alderantzizkoa denik.

-Ez, bada, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, bidezkoa da honakoa adimenaren dei-egile eta (e) iratzartzaile ez izatea.

-Bidezkoa da.

-Eta zer, bada? Atzamarrak handi ala txiki izateari buruz ikusmenak ez ote du nahiko ikusten, eta ezer ardura ote dio edozein aldetan, erdian zein beste alde batean egoteak? Eta ukimenak beste hainbeste, loditasunari eta mehetasunari, zein biguntasunari eta gogortasunari buruz? Eta gainerako zentzumenek ez ote dituzte, ausaz, honako gauzak era kaxkarrean adierazten? Ala zentzumen bakoitzak era honetan ote dagi, lehenik 524. gogortasunaren ardura daukan zentzumena biguntasunaren ardura ere hartzera behartuz eta adimenari nola gauza bera gogor eta bigun somatzen duen berri emanaz?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Horrelakoetan, esan nuen, ez ote da, bada, ezinbesteko, arima zalantzan egotea zentzumen horrek gogor bezala zer ulertzen duenari buruz, era berean gauza bera biguna ere badela dioenez gero, eta arinaren eta astunaren ardura daukanak zer ulertzen ote duen arinari eta astunari buruz, astuna arintzat eta arina astuntzat jotzen baditu?

-(b) Benetan, esan zuen, berri horiek arimarentzat baragarri direla eta azterketa bat behar dute.

-Bidezkoa da, beraz, esan nuen, honelakoetan lehenik, kalkuluari eta adimenari dei eginik, arima, emandako berri bakoitza bat ala bi diren aztertzen saiatzea.

-Eta nola ez?

-Bi direla agertzen bada, ez ote da bakoitza bat bezala eta desberdin bezala agertzen?

-Bai.

-Bakoitza bat bada eta biak batera bi, benetan banandutzat ezagutuko ditu, banandurik ez baleude, ez lituzke benetan bi-tzat ezagutuko (c) bat-tzat baino.

-Zuzen.

-Eta ikusmenak ere, handia eta txikia ikusten zituela diogu, baina ez banandurik, nahasturik baino. Ala zer?

-Bai.

-Eta nahaste hori argitzearren adimena behartua izan da handia eta txikia ikustera, ez nahasturik, banandurik baino, ez ikusmenak egiten duen bezala, alderantziz baino.

-Egia.

-Ez ote da, bada, hortik, nondik batez ere, hasten garen handitasuna eta txikitasuna zer den itauntzen?

-Bete-betea, bada.

-Eta horrelaxe, bada, batari adigai deitu genion eta ikusgai besteari.

-(d) Guztiz zuzen, esan zuen.

VIII. - Horixe da, bada, lehentxeago esan nahi nuena, gauza batzuk adimenaren zirikatzaile direla, eta beste batzuk ez; zirikatzaile bezala kontrakoekin batera zentzumenera datozenak mugatzen nituen, eta adimenaren ez zirikatzaile bezala bestelakoak.

-Oraingoan, bada, ulertzen dut, eta berdin uste dut.

-Zer, bada? Bietatik zeinetakoa uste duzu dela zenbakia eta bata?

-Ez dut asmatzen, esan zuen.

-Esan direnetatik, esan nuen, iger ezazu. Bata, den-denekoxe nahiko argi ikusten bada, edo beste edozein zentzumenek bereganatzen badu, (e) ez litzateke izaterantz erakartzeko tresna bat, atzamarrari buruz ari ginenean esaten genuen bezala; baina berarekin batera kontrakoa ere beti ikusten bada, bata kontrako hori baino gehiago denik ez agertzeraino, orduan, ebazle baten premia izan liteke, eta horretan arima zalantzan jartzea beharturik legoke eta bere baitan adimena erabilirik bilatzera eta itauntzera bata bera zer den, eta horrelaxe, 525. batari buruzko ikaskizun hori, izatearen ikuskizunerantz eramaten eta zuzentzen duenetakoa dateke.

-Baina hori, esan zuen, benetan eta batez ere, bataren ikuskizunarekin gertatzen da, zeren, gauza bera, bat bezala eta amaibako askotza bezala ere ikusten dugu.

-Batari, esan nuen, hori gertatzen bazaio, ez ote zaie berdin gertatuko beste zenbaki guztiei?

-Nola ez, bada?

-Baina logistika osoa eta aritmetika osoa zenbakiari buruz da.

-Bai horixe.

-Eta benetan egiantzako zuzentzaile (b) agertzen dira.

-Egundoko, bada.

-Dirudienez, bilatzen ari garenetariko ikaskizunak dira agian; izan ere, alde batetik beharrezko zaio gudariari gudaroste-eraketarako gauzok ikas ditzan, eta, bestetik, filosofoari ere bai, sorrera gaineraturik, izatea atxiki ahal izan dezan, edo ez da inoiz kalkulatzailerantz helduko.

-Halaxe da, esan zuen.

-Benetan gure zaintzailea gudari eta filosofo suertatzen da.

-Zer, bada?

-Komenigarri dateke bada, ene Glaukon, ikaskizun hau legetzat jartzea, eta hiriko arazorik handienetan esku hartzera doazenak erakartzea, logistika-bidean (c) abia daitezen, eta eskura dezaten, ez ganora barik, zenbakien izaeraren ikuskizunera adimen beraz heldu izan arte baino, ez salerostearren merkatari eta dendariak ari diren bezala, gudu-arazoetan erabiltzeko baino, eta arima bera sorrera-eremutik egiantz eta izaterantz errazago itzul dadin baino.

-Guztiz ederto diozu, esan zuen.

-Benetan, esan nuen, oraintxe konturatu naiz, kalkuluei buruzko (d) ikasketaz hitzegin denean zein zorrotz den, eta era askotan, zein onuragarri dugun nahi dugunaren arabera jakintza eskuratzeko eta ez saleroskerietan ibiltzeko inor honetan ari baledi.

-Zergatik, bada? esan zuen.

-Hain zuzen, oraintxe aipatzen genuenagatik: arima guztiz goruntz zuzentzen du eta zenbaki berberei buruz arrazoitzen behartzen du, inork ikusgai edo ukigarri diren gorputz-zenbakiak aurkeztuz eztabaida baliezaio, inola ere amore eman gabe. Jakin ere badakizu honakoetan trebe direnek (e) nola, inor eztabaidan bata bera zatikatzen saia baledi barre egiten dioten, eta nola ez dioten amore ematen, alderantziz baino; aitzitik, zuk puska bazeneza eurek bidertu egiten dute, bata, bataren ordeztu, zati askotan ager ez dadin saiatur.

-Egiarik handienak diozuz, esan zuen.

-Zer uste duzu, bada, ene Glaukon, 526. inork itaun baliezaie: "Gizon harrigarriok, zein zenbakiri buruz ari zarete

eztabaidatzen, zeintzuetan bata zuek uste duzuen bezalakoa den, hau da, denak eta bakoitza guztiz berdin, eta txikienean ere, alderik izan barik eta eurretan zati bat bera ere izan barik?" Zer uste duzu erantzungo dutela?

-Nik neuk, hauxe: adituak bakarrik izan daitezkeenei buruz hitzegiten ari zirela, eta ezelan ere beste era batean ezin dela eskuratu.

-Ikusten duzu, bada, esan nuen, ene adiskide, dirudienez, nola benetan beharrezko dugun ikasketa hau, argi dagoelako (b) arima, egia bera lortzearren, adimena bera erabiltzera behartzen duela.

-Zalantzarik gabe, bada, esan zuen, benetan horixe egiten du.

-Eta, zer? Ez ote zara ondino konturatu nola berez kalkulatzailerik direnek ikasketa guztietarako, zehatz esatearren, zein bizkor diren, eta geldoek berriz ikasketa horretan hezten eta aritzen direnean, beste onurarik ezean, besteak beste, denak bizkorrago bihurtzea erdiesten duten?

-Halaxe da, esan zuen.

-Eta benetan, (c) uste dudanez, ikasten eta aritzen denarentzat honexek baino neke gehiago daukanik, ez zenezake erraz aurki.

-Ez horixe.

-Gauza guzti hauengatik ez da ikasketa hau utzi behar; aitzitik, izaera bikainenetakoak honetan hezi behar direla baino.

-Bat nator, esan zuen.

IX. - Beraz, esan nuen, lehenengotzat berau jar dezagun, eta beroni jarraitzen dion bigarrena azter dezagun, ea ausaz, komenigarri dugun.

-Zein? Geometria diozu? esan zuen.

-Berbera, esan nuen.

-Argi dago, esan zuen, komenigarri dela guduko arazoei buruz (d) zuzentzen deneko horretan, zeren guda-tegiak non jartzeari eta tokiak hartzeari buruz, zein gudarosteak batu eta kokatzeari buruz, eta beste gudu-lan guztietan guda-dian zein ibilaldietan gudarosteek egiten dituztenei buruz nork bere buruarekin aldea izan lezake geometria izan edo ez.

-Baina, esan nuen, gauza guzti horietarako geometriaren eta kalkularen zati txiki bat nahiko dateke. Bere zatirik handiena eta aurreratua da, osteraz, aztertu behar duguna, (e) ea esaten genuenera zuzentzen den, onaren ideia errazago ikustea eragiten duen. Eta, esaten genuenez, horretara zuzentzen dira izatearen gauzarik zoriontsuena dagoen leku horretara arima itzularazten duten guztiak, zein, edozein modutan, arimak ikustea behar duen.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Beraz, alde batetik, komenigarri izango da, izatea ikustera behartzen badu, eta bestetik, ez da izango sorrera-eremua ikustera behartzen badu.

-Benetan esaten dugu, bada.

-Benetan, bada, esan nuen, 527. ez digu hauxe tematuko, gutxi baino ez bada ere, geometrian aditua den inork, jakintza honekin guztiz alderantzizkoa gertatzen dela horretan aritzen direnek esaten dutenetik.

-Nola? esan zuen.

-Beharbada, guztiz barregarri eta beharturik diote, zeren egiten ari balira bezala hitzegiten dute, eta euren arrazoi guztiak egitearen arabera jartzen dituzte eta esaten dute "laukitu" eta "garatu" eta "gaineratu" ere, eta antzeko izenak jarriaz, baina horregatik, ikaskizun guzti hau (b) jakintzaren arabera lantzen dena da.

-Oso-osoan, bada, esan zuen.

-Ondino hauxe ere ez ote da aitortu behar?

-Zein?

-Beti denari buruzko jakintza bat dela, eta ez inoiz sorrera eta azkena daukanari buruzkoa.

-Eztabaida ezina da hori, esan zuen, geometria beti denari buruzko jakintza bat delako.

-Beraz, ene jator hori, egiantz erakartzeko arimaren tresna bat dateke, eta filosofoaren adimenaren eragile gora zuzentzeko, gaur egun, behar ez den bezala, beheko gauzetara zuzentzen duguna.

-Horelaxe gehienbat, esan zuen.

-Horrelaxe gehienbat, bada, esan nuen, (c) zure hiri ederrean daudenei agindu behar zaie ezelan ere ez daitezela geometriatik aldendu, bere eraginak ez direlako txikiak.

-Zeintzuk? esan zuen.

-Ez guduari buruz, esan nuen, zuk esanikoak bakarrik, edertoen ikastearren, baita beste ikasketei dagozkienak ere, badakigu erabat guztiz desberdin dela geometrian aritu izan dena eta ez dena.

-Erabat, bada, Zeusarren, esan zuen.

-Hau jarriko ote dugu, bada, gazteen bigarren ikasketatzat?

-Jarriko dugu, esan zuen.

X. - Eta zer? (d) Hirugarrena astronomia jarriko dugu? Ala ez deritzazu?

-Nik bai gutxienez, esan zuen, zeren hileko zein urteko aroak hobeto igertzeko gai izatea ez doakio nekazaritzari eta itsasoratzeari bakarrik estrategia berari ere badoakio, eta ez gutxiago.

-Zein begiko zaren! esan nuen; alferrikako ikasketak agintzen dituenaren itxura egiten ote duzun, jendeari beldurra diozula ematen baituzu. Ez da ezelan ere baztergarri, sinesteko gaitz izan arren, bakoitzaren arimako organoa, beste zereginetan ibiliz, (e) hondaturik eta itsuturik egon ondoren, ikasketa honen bidez garbitu eta biztu egiten dela berriro, zaintzeko, hamar mila begi baino estimagarriago izanik; izan ere, egia bere bidez baino ez da ikusten. Zuk bezala berdin uste dutenentzat, bada, zoragarri hitzegiten duzula dirudizu, baina hori inoiz ikusi ez duten guztiek, bidezkoa denez, uste izango dute ez duzula ezer esaten, ikasketa horietan ez dutelako aipatzeko lain gainerako irabazirik ikusten. Hemendik aurrera, bada, ikusazu zeinen aurrean hitzegiten duzun; ala 528. ez bataren ez bestearen aurrean egiten duzun, arrazoiak, gehienbat, zeure buruari jarriaz baizik, inoren bekaitz izan barik, inork haietatik irabaziren bat atera ahal baleza.

-Horixe, esan zuen, aukeratzen dut; neure bururako gehienbat hitzegitea, itauntzea eta erantzutea ere.

-Atzerantz egizu esan nuen, geometriaren atzetik datorrenari ez diogulako oraingoan zuzen oratu.

-Nola oratu behar diogu, bada?

-Azaleraren ondotik, esan nuen, ondino itzulika dabilen lehorkiari heldu diogu, hura den-denekoan hartu baino lehen. (b) Eta zuzen jokatzeari, bigarren garapenaren ondoren hirugarrena hartzea da. Eta hori, beharbada, kuboaren garapenari eta sakonera daukaten gauzei buruzkoa da.

-Halaxe da, esan zuen; baina, ene Sokrates, benetan uste dut gauza horiek ez direla ondino aurkitu.

-Bikoitza da, esan nuen, horren arrazoia: alde batetik, hiri batek berak ere gauzok ez dituela aintzakotzat hartzen, zailak izanik nekez ikertzen direlako, eta bestetik, bilatzen ari direnek zuzendari bat behar dutela, bera gabe ez bailitzateke aurki, eta lehenengo eta behin, zuzendari hori izatea zail da, eta bigarrenik, bera izan arren, gaur egunean gertatzen denez, ez liokete men egingo ikerketa horretan gai direnek euren harrokeriaz. (c) Baina hiri osoak ikerketok aintzakotzat hartuz, zain balitza, men egin dezakete horiek, eta etengabe eta tinko ikertuak izanik garbi ager liteke nolakoak diren. Gaur egunean ere, gehiengoaren aldetik ikasgaiok aintzakotzat hartu izan ez arren eta

oztopatu arren eta zeren arabera diren baliagarri ikertzaileek eurak ere jakin ez arren, arazo guztion gainetik, nahitanahiez, bere dotoretasuna dela eta, garatu egiten dira eta ez da ezer (d) harrigarri hauek agerian agertzea.

-Benetan, bada, esan zuen, dotore dira, alde handiarekin gainera. Baina lehentxeago esaten zenituenak esaniezazki



dazu argiago, zeren, gutxi gorabehera, azalerari buruzko ariketa, geometria ezartzen zenuen.

-Bai, esan nuen.

-Eta gero, esan zuen, bere atzetik laugarren, astronomia jartzen zenuen, azkenean atzera egin zenuen arren.

-Gauza guztiak, esan nuen, arin azaltzen ahalegintzean, are geldiago nabil; izan ere hurrengo zetorrena, sakontasunaren garapenari buruzko ikasbidea izanik, ikerketarako barregarria zenez, alde batera utzi nuen, eta geometriaren ondoren astronomiari buruz hitzegiten nuen, bera sakontasuneko (e) itzulua delarik.

-Zuzen diozu, esan zuen.

-Jar dezagun bada, esan nuen, astronomia laugarren ikasketa bezala, orain baztertzen duguna beti hor izango baita, hiriak heldu nahi baliezaio.

-Bidezkoa da esan zuen, baina lehentxeago, ene Sokrates, astronomiari buruzko gorapena gehiegikeriaz egitearren zentzatu nauczenez, oraingoan zuk egiten duzun eran goratuko dut, 529. uste dut eta, denontzat argi dagoela astronomiak gora begiratzera behartzen duela arima, eta hemengo gauzetatik hangoetara zuzentzen duela.

-Beharbada, esan nuen, denontzat argi izango da niretzat izan ezik; nik ez dut uste horrela denik eta.

-Nola, baina? esan zuen.

-Egun filosofiara igotzen direnek bezala erabiliz gero, zeharo behera begiratzen duela.

-Nola diozu? esan zuen.

-Ez deritzat, esan nuen, goiko gauzei buruzko ikasketa hori zure baitan zitalki hartzen duzunik, zeren gerta dakizuke (b) inor, aratinik dagoela sabaiko apaindurak ikustean zerbaitez ohar baleza, zuk uste izatea begiez barik adimenez ikusten ari dela. Beharbada, zeu zara zuzen uste duzuna, eta nik tentel bezala. Baina nik ezin dut gainera sinetsi arimari gora begiratzera eragiten dion beste ikasketarik dagoenik, izateari eta ikustezinari buruzkoa izan daitekeena baino. Eta inor, aratinik aho zabalik gora begira, zein ahozpeztan aho hertsirik behera begira, zentzugarri diren gauzetatik zerbait ezagutzen saia baledi, sekula ez duela ezagutuko diot -horrelako gauzetarik bat bera ere jakingai ez delako- eta bere arimak ez duela gora begiratu (c) behera baino, arat-uger lehorrean zein itsasoan ikas baleza ere.

XI. - Merezia daukat, esan zuen, eta zuzen zartatu nauzu, baina, gaur egun ikasten denekoaz gain, nola esaten zenuen astronomia ikasi behar zela, esaten dugunaren arabera ikasketa onuragarri izan dadin?

-Era honetan, esan nuen: zeruan dauden apaindura horiek, ikus-eremuan apainduak daudenez, ederrenak direla dirudi, eta baita (d) bere antzekoen artean egin-eginekoenak ere, baina benetakoen ondoan gabetasun handia dute, ezen, higidurak, bata bestearekiko egiten dituztenak eta eurentan dauden gauzak ere eragiten dituztenak, benetako zenbakiaren eta benetako iduri guztien araberrako bere baitako azkartasuna eta gelditasuna, arrazoiaren eta adimenaren bidez jadedsten dira, eta ez ikusmenaren bidez. Ala besterik uste al duzu?

-Ezelan ere ez, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, apainduriko zeru horrezaz, eredu bezala, baliatu behar dugu gauza haiek ezagutzearren, inork Daidalosek edo (e) beste artisau edo margolari batek zoragarri

margoturiko eta landuriko marrazki batzuk aurkitu balitu bezala. Geometrian aditua den edonork uste lezake, bada, horrelakoak ikusirik, egitez benetan ederrenak direla, baita barregarri dela ere eurretan arduraz ikertzea berdintasunari buruz zein bikoiztasunari 530. zein beste edozein simetriari buruz egia aurkitzearen.

-Nola ez da izango barregarri? esan zuen.

-Benetan, bada, esan nuen, ez al duzu uste berdin gertatuko zaionik benetako astronomoari izarren higidurak ikusterakoan? Zeruan eta bertan dauden honelako eginak, bere artisauak, egitura zitzakeen erarik ederrenean egituratu zituela uste izango du. Baina, gauaren egunari buruzko simetria, hauen hilari buruzkoa, hilaren urtearekikoa, haiekiko eta elkarrekiko gainerako izarrena, (b) gauza guztiok, gorpuzdun eta ikusgai izanik, beti era berean gertatzen direla uste duena eta era guztietan horien egia lortzearen ari dena, ez ote du zure eritziz baragarritzat joko?

-Baietz uste dut, esan zuen, zuri orain entzutean behintzat.

-Beraz, esan nuen, problemekin baliatuz, geometria bezala astronomia ere berdin jorratuko dugu, eta zeruan daudenak alde batera utziko ditugu, (c) benetan astronomiaz jabeturik, berez ariman dagoen adimenezko hori alfer izatetik baliagarri bihurtu nahi badugu.

-Benetan, agintzen duzun lana, esan zuen, askoz handiago da orain astronomian ari direnek egiten dutena baino.

-Eta benetan uste dut, esan nuen, beste gauza batzuk ere era berean aginduko ditugula, legelari bezala ezer baliagarri izango bagara. XII. Ba ote duzu egoki diren ikasketetatik baten bat gogoratzeko?

-Ez daukat ez, esan zuen, oraingo honetan behintzat.

-Higidurak, uste dudanez, esan nuen, ez dauka ikuspegi bakar bat, asko baino. Ikuspegi denak beharbada, (d) jakintsu datekeen batek esango lituzke, guri agertzen zaizkigunak bi baino izan ez arren.

-Zeintzuk, bada?

-Astronomiaz gain, esan nuen, beroni dagokiona.

-Zein?

-Badirudi, esan nuen, begiak astronomiarako jarriak diren bezala, era berean belarriak ere harmoniazko higidurarako jarriak izan direla, eta jakintza bi hauexek elkarren senide direla, Pythagorikoek esan, eta gu ere, ene Glaukon, bat gatozenez. Ala nola egingo dugu?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, alor hau galanta denez, (e) haiei buruz zer dioten eurei itaunduko diegu, eta horrez gain beste gauzaren bat ere beharbada; guk, ordea, gauza guzti hauei buruz, geure eritziari eutsiko diogu.

-Zeini?

-Hazi behar ditugun gizabanakoek, gauza horiei buruzko egin-egineko izango ez den ikasketarik edo guztiek heldu behar duten lekuraino helduko ez denik ez dezaten has, astronomiari buruz lehentxeago esaten genuen bezala. Ala ez ote dakizu harmoniari buruz ere beste 531. hainbeste egiten dutenik? Izan ere, entzuten dituzten akorde eta soinuaren elkarrekiko neurketak egin ondoren, astronomoen antzera alferrik nekatzen dira.

-Bai jainkoengatik! esan zuen, eta zein barregarri diren, soinualdi batzuk aipatuz eta auzokoen hotsa harrapatu nahiz bezala belarriak zuzenduz, batzuek, tartean hots bat entzuten dutela oraindik eta hau dela diote neurketarako soinualdirik txikiena; besteek, berriz, lehengo hotsen antzekoa dela diote, bitzuek belarriak (b) adimena baino aurrerago jarritz.

-Zu, esan nuen, larakoetan bihurrituz, korda-hariak lorratzen eta torturatzen dituzten zorioneko horiez ari zara. Baina iduri hau luzeago egin ez dadin, nola korda-hariak plektroaz astintzen dituzten eta salatzen eta eurak ukatzen eta errebelatzen diren azalduz, alde batera utziko dut, eta gizon horiei buruz ez naizela ari diot, harmoniari buruz itauntzera gindoazela esaten genuen haiexei buruz baino. Izan ere, astronomiari buruz (c) ari direnek bezala egiten dute, entzuten diren akordeetan zenbaki bila dabilta eta; baina ez dira problemetaraino igotzen, akordetan zenbakiak zeintzuk diren eta zeintzuk ez ikertzeko, eta zergatik zenbaki bakoitza den, den lakoxea.

-Egundokoa da, esan zuen, aipatzen duzun eginkizuna.

-Baina, benetan, esan nuen, baliagarri ederraren eta onaren bilaketarako, beste gauza baten bila dabilenarentzat alferreko izan arren.

-Bidezkoa da, benetan, esan zuen.

XIII. - Eta benetan, uste dut, esan nuen, azaldu ditugun gauza guzti hauei buruzko metodoa, (d) gauzok elkarren artean daukaten elkargo eta senidetasunaren ezagumenara heltzeko, eta elkarren artean dagoen etxekotasunaz jabetzeko gai izan baledi, berak ekarriko digula erdietsi nahi ditugun helburuetakoren bat, eta gure lana ez dela alferreko izango, bestela bai.

-Nik ere berdin iragartzen dut, esan zuen. Baina, ene Sokrates, egundoko lana da aipatzen duzuna.

-Atariko lanari buruz, esan nuen, ala zeini buruz ari zara? Ala ez ote dakizu gauza guzti hauek ikasi behar dugun doinuaren atari baino ez direnik? Ez dut uste gauza hauetan (e) aditu direnak zuk benetan dialektikotzat dauzkazunik.

-Ez Zeusarren, esan zuen, aurrezurre topo egin ditudan gutxi batzuk izan ezik.

-Baina, esan nuen, arrazoirik emateko zein eskatzeko gai ez den [inork] inoiz jakingo ote du, jakin behar dela diogunetik ezer?

-Alderantziz, hori ere ez, esan zuen.

-532. Ez ote da, bada, hauxe, esan nuen, ene Glaukon, dialektikak burutzen duen doinua? Hau adigarri den arren, ikusmenak iduriarazten du; berari buruz esaten genuen<sup>7</sup> lehenen animaliak, gero izarrak eurak, eta azkenik eguzkia bera ikusten ahalegintzen zela. Berdin gertatzen da inolako zentzumenik gabe, adimen hutsez gauza bakoitza berez deneko horretara abiatzearen inor dialektikaren bidez ahalegintzen denean, eta berez ona den hori (b) adimenaren laguntzaz erdietsi arteino geratzen ez denean adimenaren azkeneraino heltzen da, besteak lehen ikusmenaren azkeneraino heltzen ziren bezala.

-Osoto bada, esan zuen.

-Zer bada? Ez ote diozu bide horri dialektika deitzen?

-Zer besterik, bada?

-Eta benetan, esan nuen, kateetatik askatzea eta itzaletatik idurietara eta argirantz itzultzea, eta lurpetik eguzkitara igotzea, eta han, eguzkitan, urazaletan nabarmentzen diren jainkozko iduri eta izakien itzalerantz begiratu ahal izan arren, animalietarantz eta landareetarantz eta eguzkiaren argirantzko begiratu ezina; (c) bestalde, eguzkitzat hartzen zen antzeko beste argiz isladaturiko idurien itzalerantzko begiratu ezina... Hauxe da azalduriko jakintzen lan guzti honek daukan ahalmena, arimako alderik ederrena benetako diren izakien artean, ederrenaren ikuskizuneraino igotzea, lehen gorputzeko alderik argiena, somagarri (d) eta ikusgai-eremuko gauzarik argienaren ikuskizunera zuzentzen zuen bezala.

-Nik neuk, bada esan zuen, horrelaxe onartzen dut. Alde batetik, onartzeko benetan guztiz gaitz dela deritzadan arren, bestetik, era berean, zail da ez onartzea ere. Eta berdin -orain bakarrik entzuteko gauzak ez direnez, eta berriro sarritan itzuli behar izango denez gero- gauza hauek orain esan den bezala direla jarririk, jo dezagun doinu berberera eta joka dezagun

sarrerari buruz egin dugunaren antzera. Esaiguzu, bada, zein eratakoa den dialektikaren ahalmena, eta (e) zenbat motatan banatzen den, eta zeintzuk diren bere bideak; izan ere, hauek, dirudienez, heldurikoan bideko atsedena eta ibilaldiaren amaiera izan litekeenara gida gintzakete.

-Ezelan ere, esan nuen, ene adiskide Glaukon, ez zara gai izango 533. jarraitzeko -nire borondate onak benetan ezertan hutsik egin ez arren- honezkero ikus zenezake ez aipatzen dugun iduria, egia bera baino, hots, niri agertzen zaidana; benetan egia den ala ez, ez du merezi tematzerik; baina honelako zerbait ikusi behar dela, sendo eustekoa da. Ala zer?

-Nola ez?

-Ez ote da, bada, dialektika ahalmena, azaldu ditugun gauzetan jakitun denari erakutsi liezaiokeen bakarra, eta besterik ezer ez dela horretarako gai?

-Hori ere, esan zuen, eusteko lain da.

-Gutxienik hauxe, esan nuen, inork (b) ez digu tematuko esaten badugu, gauza guztien gainetik izaki bakoitza zer den zehatz atzematen ahalegintzen den beste metodorik ez dagoela. Beste trebetasun guztiek, bada, gizonen eritziez eta irrikez ari dira, edo gauzen sorrerei eta asmatutako gauzei buruz, edo oso-osoan jarriak izan dira sortzen eta asmatzen diren gauzen ardura izateko. Eta izatearen ulermen zerbait atzematen zutela aipatzen genituen gainerakoek, geometria eta beroni (c) darraizkionek, badakusagu izateari buruz nola

amets dagiten; iratzarririk, ordea, ezinezkoa zaie ikustea, hipotesiez baliatu arren, bere-berean uzten dituzten bitartean, hauen arrazoirik eman ezin dutelako. Izan ere, hasierako arrazoa zer den ez dakienak, eta erdiko zein arrazoitatik amaiera lotzen den ez dakienak, zer bide du honelako arrazoikidetasunak zientzia bihur dadin?

-Bat bera ere ez, esan zuen.

XIV. - Beraz, esan nuen, dialektika-metodoa da era horretan, hipotesiak baztertuz, hastapenera berera doana, bertan bermatzeko, (d) eta zeharo izugarritzko lokatz batean murgildurik dagoen arimaren begia, geldiro-geldiro, jasotzen eta gora daramana, lagungarri eta eramangarri bezala aipaturiko trebetasunez baliaturik. Trebetasunei usadioz sarritan jakintza deitu diegun arren, eritzi izena baino argiago eta jakintza baino ilunago den beste izen baten premian aurkitzen dira, -lehenago, beharbada gogoeta jarri genion izentzat,- baina, uste dudanez, tema ez da izenari buruzkoa, guk bezala hain ikerketa handia (e) esku artean daukatenentzat.

-Ez horixe, esan zuen.

-Aitzitik, ariman gauzen izaera erakuts lezakeen izena aipatzea <nahiko izango ote da?

-Nahiko izango da.>

-Nahiko izango da, beraz, esan nuen, lehen bezala, lehenengo arloari jakintza deitzea eta bigarrenari gogoeta, 534. hirugarrenari sinesmena, eta idurimena laugarrenari, eta azkeneko bi hauei batera, eritzia, eta lehenengoko biei, adimena. Eritziak sorrerari buruz dihardu, adimenak aldiz, izateari buruz. Eta izatea sorrerarekiko den bezala, berdin da adimena ere eritziarekiko, jakintza sinesmenarekiko eta gogoeta idurimenarekiko. Eta gauza hauei buruz jarri dugun arrazoikidetasuna, eta bi aldetan banatzea, hau da, eritziaren aldea eta adimenarena, utz ditzagun, ene Glaukon, atzean utzi dugun eztabaida baino askoz handiago batek ingura ez gaitzan.

-(b) Ni neu ere, bada, esan zuen, beste gauza hauei buruz bat nator, jarraitu ahal dizudan heinean.

-Eta gauza bakoitzaren izatearen arrazoia jadesten duenari dialektiko deitzen ote diozu? Eta hori lortzen ez duenari buruz ez ote duzu esango, bere buruari zein beste inori, horren arrazoia emateko gai ez den heinean daukala horren ezagumena?

-Nola esan liteke, bada, esan zuen, besterik?

-Beraz onari buruz ere, berdin gertatzen da. Onaren ideia, beste gauza guztietatik bereizirik, arrazoiaren bidez mugatzeko lain ez datekeena, eta (c) gudu-eraso batean bezala, arrazoi-bideak eritziaren arabera barik izatearen arabera oinarritzen ahalegindurik arazo guztietatik onez irtenik arrazoia galtzeke guztietatik igarotzeko lain ez datekeena, honako bati buruz ez ote duzu esango ez duela ez ona bera ezagutzen, ezta ezelango beste onik ere, eta, ausaz, onaren iduriren

bat lortzen badu ere, ez duela jakintzaren bidez lortzen, eritziaren bidez baino, eta hemengo bizitza ametsetan eta lo igarotzen duela, eta ez dela iratzarririko Haidesera (d) joanik oso-osoko loa egin baino lehen?

-Bai, Zeusarren, esan zuen, zalantza barik esango ditudala gauzok.

-Baina orain hitzez hazten eta hezten dituzun zure semeok inoiz benetan hezi bazenitza, ez dut uste utz liezaiekezunik, lerro-neurtezinen antzeko arrazoi bakoak badira behintzat, ez agintari, ez hiriko gauza handien jabe izaten.

-Ez horixe, esan zuen.

-Ez ote diezu aginduko, itauntzeko eta erantzuteko trebeen egingo dituen hazkuntza honetatik batez ere hartzen ahalegin daitezela?

-Aginduko diet bai, (e) esan zuen, zure laguntzaz.

-Ez ote duzu uste, agian, esan nuen, goi-goian ikasketen gailurtzat jarririk daukagula dialektika eta ezin litekeela eskubidez bera baino gorago beste ikasketarik jar, eta honezkero amaiera heldu dela 535. ikasketen inguruko arazoei buruz?

-Nik neuk bai.

XV. - Orain geratzen zaizuna, esan nuen, ikasketa hauek nori eta zein eratan emango dizkiozun banatzea da.

-Argi dago, esan zuen.

-Gogoratzen duzu, esan nuen, egin genuen agintarien hautaketa<sup>8</sup> eta zeintzuk hautatu genituen?

-Nola ez, bada? esan zuen.

-Beraz, kontutan izan ezazu, gainerako gauzengatik ere, izaera haiexek aukeratu behar direla; izan ere sendoenak eta adoretuenak eta, ahal den neurrian, itxura hoberenekoak berezi behar dira; eta gainera jatorri oneko (b) eta izaera sendokoak ez ezik, izaeraz hezkuntza honi dagozkion baldintzak dituztenak ere bilatu behar dira.

-Zeintzuk agintzen dituzu, bada?

-Ene zorioneko hori, esan nuen, beharrezko da eurengan ikasketetarako zorrozatasuna izatea eta ikasteko nekerik ez izatea, zeren arimak askoz gehiago kikiltzen dira ikasketa zailetan gimnastika ariketetan baino; izan ere, arimek neke hau, gorputzarekin baterakoa ez baina beren baitakoa dutenez, bereago egiten baitaie.

-Egia da, esan zuen.

-Bilatu behar da, bada, oroimen handikoa, aspergaitza, eta (c) edozelango nekezalea. Ala nola uste duzu inork, gorputzeko nekeez gain, honelako ikasketa eta ariketa bat jasan nahi izango lukeela?

-Inork ere ez, esan zuen, guztiz izate oneko ez badadi, behintzat.

-Gutxienez, esan nuen, gaur egun filosofiari gainbehera etorri zaizkion akats eta dedu galtzea, gauza hauen bidez heldu zaizkio, lehen esaten genuenez<sup>9</sup>, ondoratzen zaizkionak ez direlako bere lain, zeren ez litzaizkioke sasikumeak ondora behar, jatorrak baino.

-Nola? esan zuen.

-Hasteko, bada, esan nuen, hurreratzen zaionak ez du nekezaletasunari buruz (d) herren izan behar, batetik erdi zale, eta bestetik erdi arerio. Eta hori gertatzen da inor gimnastikazale, ehizazale, eta gorputzaren bidez egiten diren nekeen zale denean, eta ikasteko, zein entzuteko, zein aztertzeke zaletasunik ez daukanean, eta guztiotan nekearen arerio denean. Herren da baita ere, alderantzizkoen nekezale dena.

-Egiarik handienak diozuz, esan zuen.

-Egiari buruz, esan nuen, ez ote dugu berdin elbarri bezala jarriko (e) alde batetik, nahizko gezurrari gorroto izan eta nekez jasaten duena eta besteen gezurrez guztiz haserretzen dena, eta bestetik, nahi gabeko gezurra neke barik onartzen duena eta ohartu



gabekoan harrapatua izaten denean haserretzen ez dena, alderantziz baino, txerrikia bezala atseginez ezjakintasunean zikintzen dena?

-Guztiz, bada, 536. esan zuen.

-Neurritasunari buruz ere, esan nuen, eta adoreari eta bihotz-handitasunari eta bertutearen edozein alderi buruz ere, ez da gutxiago zaindu behar sasikoa eta jatorra, zeren inork, gizabanako zein hiri, honakoak bereizten ez dakienean, eta bertute horien arabera norbaitez baliatu beharra suertatzen bazaio, batari lagun bezala eta besteari agintari bezala, ezjakinean lehena herrenaz eta bigarrena sasikoaz baliatuko dira.

-Bai horixe, esan zuen, horrelaxe gertatzen da.

-Guk geuk ere, esan nuen, ardura handiz zaindu behar ditugu (b) gauza guztiok; arduraz hezi ditzakegunak eta honako ikasketa eta ariketa handietan jartzen ditugunak gorputzez ondo taiutu eta zentzuzko badira, justiziak berak ere ez digu haserrerik

egingo, eta hiria eta hiri-eratzeari zainduko ditugu; baina horretan ari direnak alderantzizko badira, guztiz osterantzekoa egingo dugu, eta filosofiaren gainera ondino barregarrikeria handiagoa isuriko dugu.

-Benetan lotsagarri izango litzatekeela, esan zuen.

-Zeharo bada, esan nuen; baina uste dut niri neuri ere gauza barregarriren bat gertatzen zaidala oraingo honetan.

-Zer? esan zuen.

-Ahaztu egin zait, esan nuen, (c) jolasean genbiltzala eta beroegi hitzegiten ari izan naizela, zeren, hitzeginez batera, filosofiari begiratu diot, eta hain bidegabe iraindurik dagoela ikusirik, uste dut haserretu egin naizela, eta suturik bezala, errudunen aurka arduratsuegi esan ditudala esan ditudanak.

-Ez Zeusarren, esan zuen, agian ez, nire antzera entzun duenarentzat.

-Baina bai hitzegiten nagoen honentzat, esan nuen; baina ez dezagun hau ahantz, hasierako hautaketan adinekoak hautatu bagenituen, oraingo honetan ezinezkoa dela; ez zaio, bada, Soloni (d) sinetsi behar, zahartuaz batera edozeinek gauza asko ikasi ahal dituela dioenean, aitzitik, arineketan baino gutxiago lezake, zeren lan handi eta ugari guztiak gazteentzat dira.

-Beharrezko, esan zuen.

XVI. - Beraz, dialektikan baino lehenago hezi izan behar diren zenbaki, geometri eta aurre-heziketa oro ume izanik jarri behar zaie, baina irakaskuntzari ez diogu derrigorrez ikasi behar denaren itxura jarriko.

-Zergatik?

-Zeren, esan nuen, aske den gizabanakoak ez du joputzaren bidez ikasketa bat bera ere (e) ikasi behar. Gorputzarekin, bada, egiten diren lanak, beharturik egin arren, ez dute horregatik gorputza txarrago bihurtzen; ariman, aldiz, ez da derrigorrezko ezelango ikasketarik geratzen.

-Egia, esan zuen.

-Ez dezazula bada, esan nuen, hoberen horrek, umeen ikasketetan indarririk erabil, haz dakizkizula jolasean balebiltz bezala, 537. bakoitza zertarako jaio den hobeto ikusi ahal izan dezazun.

-Zuzen da, esan zuen, diozuna.

-Ez ote duzu, bada, gogoratzen, esan nuen, nola esaten genuen<sup>10</sup> umeak ikusle bezala, gudura ere joan behar zutela zaldi gainetan, eta arriskurik ez zegokeen heinean, hurreratu egin behar zutela, eta orakumeek bezala odola dastatu ere?

-Gogoratzen dut, bai, esan zuen.

-Eta, esan nuen, honako neke guztietan, ikasketetan eta arriskueta beti erosoan dabilela erakusten duena, talde berezi batean onartu behar da.

-(b) Zein adinetan? esan zuen.

-Beharrezko gimnasiaren ikasketa-aldia amaitzen den bezain laster, esan nuen; zeren aldi horretan, bi edo hiru urtekoa izan arren, ezinezko den besterik egiterik; izan ere, nekea eta logurea ikasketen arerio dira. Eta gimnasiagintzan nor nor den azaltzea da ezaugarri bat, eta berau ez txikiere ere.

-Nola ez, bada? esan zuen.

-Eta aldi honen ondoren, esan nuen, hogeitaz urtekoen artetik aukeratuek, besteek baino ohore handiagoak izango dituzte, eta (c) umetan hezkuntzaren bidez nahasirik izan dituzten ikasketak, elkar josirik eman behar zaizkie, beste ikasgaien eta izatearen izaerarekiko elkarkidetasuna ikuspegi baterantz emanaz.

-Zalantzarik gabe, esan zuen, hau da sortzen denengan sendoa geratzen den ikasketa bakarra.

-Eta baita ere benetan, esan nuen, argibiderik handiena dialektikazko izaera daukanarentzat eta ez daukanarentzat, zeren oro harreko ikuskizuna daukana da dialektiko eta ez daukana, ez.

-Uste berekoa nauzu, esan zuen.

-Beharrezkoa izango duzu, beraz, esan nuen, gauzok aztertzea, (d) euren artean nortzuk izan daitezkeen batez ere honelakoak: ikasketetan, guduan eta beste eginbeharretan iraupenkorrak; hogeita hamar urtetara hel daitezkenean, lehen aukeratuetatik berriz aukeratuz, ohore handiagoetara zuzendu behar dituzu, eta, dialektikaren indarrez probatuz, ikusmenik eta beste zentzurik gabe, egiarekin batera izatera berera iristeko gai nor den ikusi. Eginkizun honetan, ene lagun hori, arreta handia jarri behar da.

-Batez ere, zergatik? esan zuen.

-Ez ote zara konturatzen, bada, (e) esan nuen, gaur egun dialektikari buruz sorturiko okerra zein handia den?

-Zein oker? esan zuen.

-Era batera edo bestera, esan nuen, bidegabekeriaz gainezka dagoela.

-Bai horixe, esan zuen.

-Harrigarritzat ote duzu, esan nuen, gertatzen zaiena, eta ez ote diezu barkatzen?

-Nola, batez ere? esan zuen.

-Hori, esan nuen, aberastasun ugari artean, senitarte zabal eta handi batean, eta lausengatzaile askoren artean hazirikoaren seme-orde baten antzeko da, eta, gizon eginik, ordea, esaniko gurasoen seme ez dela konturatzen da 538. eta ezin ditu egiazko sortzaileak aurkitu. Igerri ote zenezake horrelakoak nolako jarrera izango lukeen lausengatzaileei eta ustezko gurasoei buruz iruzurraren berri ez daukan bitartean, eta, aldiz, jakinaren gainean legokeen aldian? Ala nik igertzen dudana entzun nahi duzu?

-Nahi dut, bai, esan zuen.

XVII. - Somatzen dut, bada, esan nuen, dedu gehiago izango liekeela aitari eta (b) amari eta beste ustezko senideei lausengatzaileei baino, eta ezeren premian egon daitezen nekezago jasango lukeela, eta egitez eta hitzez zuzenago izango litzaiekeela, eta gehienetan haien esanekoago izango litzatekeela lausengatzaileen esaneko baino egiaren ezjakinean legokeen aldi hartan.

-Bidezkoa da, esan zuen.

-Baina egiaz konturatzen denean, somatzen dut haienganako dedu eta ardura epelduko litzatekeela eta lausengatzaileenganakoa areagotu, eta lehen baino (c) bereziago men egingo liekeela, eta harrezkero lausengatzaileen arabera biziko litzatekeela, agerri-agerian eurekin bizi izanik, eta izaera guztiz onekoa ez balitz behintzat, ez litzateke ezertan arduratuko aitaz zein gainerako ustezko etxekoez.

-Zalantzarik gabe, esan zuen, diozun guztia horrelaxe gertatuko litzateke; baina nola dagokie iduri hori arrazonamendutan dihardutenei?

-Honelaxe: umetatik baditugu, bada, zuzentasunari eta edertasunari buruzko agindu batzuk, zeintzuetan, gurasoen agindupean bezala, men eginez eta dedu izanez hazi izan garen.

-Bai, halaxe da.

-Horregatik, badira baita (d) atseginak izanik, gure arima lausengatu eta eurengana erakartzen gaituzten alderantzizko beste jokaera batzuk ere; baina ez dituzte, ordea, inola ere neurritsu direnak bereganatzen; alderantziz, arbasoengandikakoak aintzat hartu eta haien esaneko dira.

-Halaxe da.

-Zer, bada? esan nuen. Horrelakoa denari zuzendurik zer da ederra galdetuz galdera egin dakiokeenean, eta legelariari entzun diona erantzun ondoren, arrazoia gezurta badakio, eta sarri eta era askotan gezurtatu izanik eritziz alda badadi usterik ederrari buruzkoa (e) ez dela ez ederrago ez itsusiago, eta zuzentasunari eta onari buruz eta dedurik gehien izan dituen gauzei buruz ere, beste hainbeste gertatzen dela uste izan badeza, ondoren gauza hauei buruzko deduaz eta men egiteaz zer uste duzu egingo duela?

-Beharrezko da, esan zuen, berdin dedu ez izatea, eta men ez egitea.

-Lehen bezala, bada, esan nuen, dedutzat eta beretzat ez dituenean, eta egia aurkitzen ez duen bitartean, ba ote du, lausengu egiten dionaz beste bizitzarik 539. hartzerik?

-Ez dago, esan zuen.

-Uste dut, bada, lege-gordetzaile izatetik lege-hausle izatera heldu denaren itxura izango duela.

-Beharrezko.

-Ez ote da, bada, bidezkoa, esan nuen, era horretan arrazonamendutan ari direnei gertatzen zaiena; arestian esaten nuenez, ezaguera handia merezi dutela?

-Bai errukia ere, esan zuen.

-Zure hogeita hamar urteko gizabanakoei buruz honako errukirik behar izan ez dadin, ez ote dute arretarik handienarekin arrazonamenduetan ari izan behar?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ez ote da, agian, ardura garrantzitsu bat (b) gazte diren bitartean horietatik dasta ez dezaten? Ez dut uste ikusi barik geratu zaizunik nola mutikoez lehenengo aldiz arrazonamenduetatik dastatzen dutenean, jolasean bezala, kontraesanera jotzen duten beti; eta eurei gezurtatzen dietenen antzera, hauek ere besteei gezurtatzen dieten, beti hurrean dituztenak, orakumeek bezala, narraz eraman eta birrintzen pozten direlarik.

-Egundokoan, bada, esan zuen.

-Beraz jende asko gezurtatu ondoren, eta askok gezurtatuak izan ondoren berehalako batean (c) arin jausten dira lehen sinesten zituzten gauzetatik deus ere ez sinestera; eta hori dela bide, besteen aurrean euren buruak eta filosofiari dagokion guztia itsusten dute.

-Egiarik handiena, esan zuen.

-Baina adinekoak, aldiz, esan nuen, horrelako zorakerian esku hartzerik ez lezake nahi izan; nahiago izango du, eztabaidatu eta egia aztertu nahi duenaren antzeko izan, ume-jokoaren atseginez jolasean eta kontraesanean dabilena baino, eta bera neurritsuago izango da eta lanbidea ere dedugabeago izan ordez, deduzkoago bihurtuko du.

-Zuzen, esan zuen.

-Ez ote da, bada, honen aurretik esan den guztia bada-

ezpadan esan dela, zera, izaera zuzen eta zindokoei filosofian parte izatea emango zaiela, eta ez orain egiten den bezala beragana etortzea suertatzen den edozein ganorabakori?

-Gutziz, bada, esan zuen.

XVIII. - Nahiko izango ote da, bada, besterik ezer egin barik, etengabe eta sendo dialektika-jorran irautea, gorputzari buruzko ariketei dagokien baino bi aldiz urte gehiagoz arituz?

-(e) Zenbat urte diozu, esan zuen, sei ala lau?

-Ez du ardurarik, esan nuen; jar ezazu bost. Zeren ondoren berriro behartu beharko dituzu leze hartara jaistera, eta behartuak izango dira guduari buruzko eta gazteei dagokien arazo guztiez jabetzera, ezelan ere, esperientziaz besteak baino atzerago gera ez daitezen. Eta arazo guzti hauetan ere neurtuak izan behar dute, edozein norabidetara 540. erakarriak izan arren, ea irmo dirauten ala ezertan aldatzen diren.

-Eta, esan zuen, horretarako zenbat denbora jartzen duzu?

-Hamabost urte, esan nuen. Eta hogeita hamar urteetara heldurikoan marra gainditzen dutenak eta egite eta jakintza guztietan osotoro nabarmentzen direnak azkeneraino eraman behar dira eta behartu ere, arimako begia zabaldurik, gauza guztiei argi egiten dien argirantz begiratzera, eta ona bera ikusirik eta hau eredutzat erabiliz, hiriaren, gizabanakoaren eta euren buruen (b) agintari izango dira geratzen zaien gainerako bizitzan, bakoitza bere txandan; denborarik gehiena filosofian eman arren, bakoitzaren txanda heltzen denean, ondino gehiago arduratuko dira politikazko arazoez, eta bakoitzak hiriaren onerako aginduko du, ez egiten dutena gauza edertzat daukatelako, ezinbestekotzat baino; eta horrelaxe eurak izan diren bezala beste batzuk hezik eta bere ordezkari hiri-zaintzaile uzten dituztenean zorionekoen uharteetara bizitzera joango dira, eta hiriak herriaren aurrean, Pythiak igerle-hitzez baietsi baleza, jainkoei bezala, bestela gizon zoriontsu eta jainkozko bezala, oroitarri eta eskaintzak (c) egingo dizkiete.

-Bai, osotoro eder direla, ene Sokrates, esan zuen, giza idurigile bezala egin dituzun agintariok!

-Eta andrazko agintariak ere bai, esan nuen, ene Glaukon. Ez dezazula uste izan gizonezkoei buruz gehiago ari izan naizenik, neurri beteko izaera izan dezakeen edozein andrazkoei buruz baino.

-Zuzen, esan zuen; esaten genuenez<sup>11</sup> benetan gauza guztiak gizonekin batera elkarren arteko izango badira.

-Zer (d) bada? esan nuen, ez ote zatozte bat hiriari eta hiri-eratzeari buruz esan ditugunak ez direla ezelan ere amets huts, eta zail izan arren egin litezkeenak direla, baina ez beste era batean, esan den eran bakarrik baino, hau da, egin litezkeenak direla, benetako filosofoek, nola asko ala bat, hiriko agintari

izatera helduz, egungo ohoreak, morroitzapeko eta deus merezi ez dutenak direla uste izanik, arbuiagarri izan ditzaketenean egin litezkeenak direla, bestalde gauza guztien gainetik zuzena dena eta honi darraizkion ohoreak (e) eskuratuz, eta zuzentasuna gauzarik bikainen eta beharrezkotzat hartuz eta bera zerbitzatuz eta gehituz, beren hiria era lezaketenean?

-Nola? esan zuen.

-Hirian, esan nuen, hamar urteko baino zaharrago suerta litezkeen guztiak 541. baserrietara bidaliko dituzte, eta hauen umeak hartuz, gurasoen egungo ekanduetatik landa haziko dituzte, lehen azaldu ditugun bezalako bere ekandu eta legeen arabera. Ez ote da hauxe erarik bizkorrena eta errazena, esaten genuen hiri eta hiri-eratzea jarriaz, hiria zoriontsu egiteko eta eratze hori sortzen deneko herriak onik handienak lortzeko?

-Askozaz, benetan, esan zuen. (b) Uste dut, ene Sokrates, inoiz sor baledi, nola sor litekeen ondo hitzegin duzula.

-Ez ote dugu, bada, esan nuen, nahiko hitzegin hiri horri buruz eta bere antzeko den gizaseme horri buruz? Argi dago baita ere, gutxi gorabehera, gizaki horrek nolakoa izan behar duen esango duguna.

-Argi dago, esan zuen. Eta uste dut itauntzen duzunari amaiera heldu zaiola.

## VIII

543. I. - Bego. Benetan, ene Glaukon gauza guzti hauek onartuak izan dira: gorengo jaurgoa nahi den hirian andrazko, seme-alaba eta hezkuntza guztia ere erkidegoan izan behar dela, eta gudu zein bake-aldiko zereginak ere berdin erkidegoan, eta euren artean filosofian eta gudurako bikainen izatera heltzen direnak izango direla errege.

-Onartuak izan dira bai, esan zuen.

-Hauexetan ere (b) bat etorri ginen<sup>1</sup>, agintariak izendaturikoan, gudariak aurretik esan genuen bezalako egoitzetara eramango dituztela bizitzera, alde batetik inork bererik ez dezala ezer izan, eta bestetik erkidegoan izan ditzatela gauza guztiak. Eta egoitza hauez gain nolako ondasunak izango dituztenaz ere bat etorri ginen, gogoratzen bazara.

-Gogoratzen naiz bai, esan zuen, uste izan genuela, gaur egun gainerakoek dauzkaten gauzetatik ez zutela ezer izan behar, eta, gudu-atleta<sup>2</sup> eta zaintzaile gisa, zaintza-saritzat (c) gainerakoengandik jasoko zutela eginkizun horietarako urteko mantenua, eta hauek beren buruaz eta gainerako hiriaz arduratu behar zutela<sup>3</sup>.

-Zuzen diozu, esan nuen; baina, ea bada! horrekin amaitu dugunez gero gogora dezagun honantzakoan non aldendu garen, berriro lehengo bide beretik joan gaitezen.

-Ez da gauza zaila, esan zuen; hiriaz, bada, ia hitzegina bazenu bezala<sup>4</sup>, mintzatzen zinen<sup>5</sup>, orain bezala, orduan adierazten zenuen erako hiri eta honen antzeko hiritarra (d) onak zirela esanaz, oraindik ere jatorrago ziren hiri eta hiritarrik aipa zenezakeen arren. Baina 544. hau ona bazen, gainerako hiriak txarrak zirela esaten zenuen. Gogoratzen naizenez gainerako hiri-eratzeei buruz lau itxuratako zeudela esan zenuen<sup>6</sup> eta arrazoiaren arabera merezigarri litzatekeela aintzakotzat hartzea eta euren hutsak eta haien antzeko gizonak ere aztertzea, guztiok ikusirik eta gizonik hoberena eta gaiztoena zein den onarturik aztertu ahal izan dezagun hoberena zoriontsuen den eta gaiztoena zoritxarrekoen, ala beste era batera den. Eta itauntzen ari nintzanean<sup>7</sup> zeintzuk ziren esaten zenituen lau hiri-eratzeak, (b) une hartantxe, tartean sartu ziren Polemarkhos eta Adeimantos ere, eta horrelaxe bada, hitza zuk harturik honaino ekarri zaitu.

-Guztiz zuzen gogorarazi didazu, esan nuen.

-Berriro, bada, borrokalari baten antzera, utz iezadazu orakarri bera eta gauza berdina itauntzen dizudanean ahalegin zaitez lehen esatera zindoazenak esaten.

-Ahal baneza, esan nuen.

-Gurariz beterik nago, bada, esan zuen, diozuzen lau hiri-eratzeok zeintzuk diren entzuteko.



-(c) Ez da zail entzuten, esan nuen, zeren aipatzen ditudanek izenak dituzte, gehiengoak goraipatzen duena, Kretarra eta Lakoniarra da; bigarrenkoa, eta bigarren goraipatua, oligarkia deiturikoa da, huts askoz beterik dagoen hiri-eratzeari; honen atzetik, horretatik desberdina den demokratia dator, eta laugarrena tirania "jatorra", guztietatik aldendurik hiriko gaitzik handiena dena. Ala, ba ote duzu beste (d) hiri-eratzeari motaren bat ezertan nabarmen itxuratzen denik? Zeren salerosgai diren dinastia eta erresumak eta antzeko hiri-eratzeari hauen tarteko dira era batera edo bestera; eta edonork aurki litzake ez gutxiago barbaroen inguruan helladarren inguruan baino.

-Zalantzarik gabe, asko dira bai, eta baragarriak aipatzen direnak, esan zuen.

II. - Ba al dakizu, esan nuen, beharrezko dela hiri-eratzeari adina giza izaera-mota izatea?

Ala hiri-eratzeari arte edo harrietatik<sup>8</sup> sortzen direla uste ote duzu, eta ez hirietan egoten diren gizabanakoen izaeretatik, (e) zeintzuek makurtzen diren arabera gainerako guztia erakartzen duten?

-Nik neuk, esan zuen, ezelan ere ez dut uste beste inondik datozenik hortik baino.

-Beraz, hiri-eratzeari bost motatako badira, gizabanakoen arima-eraketak ere bost dirateke.

-Zer, bada?

-Orain arte aristokratiaren antzeko dena azaldu dugu, eta ona eta zuzena dela diogunean zuzen diogu.

-545. Azaldu genuen, bai.

-Eta ez ote ditugu, ausaz, honen ondoren maila beheragoko diren izaerak jorratu behar, Lakonian jarririk dagoen hiri-eratzearen araberako garaipenzalea eta ohorezalea, eta gero oligarkikoa, demokratikoa eta tiranikoa ere, bidegabeena zein den ikusirikoa zuzenenarekin pareka dezagun, eta zorioneko eta zoritxarreko izateari buruz, zuzentasun hutsak eta bidegabekeria hutsak zer eragin duten, bete-betean ikus dezagun? Ez ote diogu horrela, Thrasymakhosi sinetsirik, bidegabekeriari jarraituko, (b) edota arestian agertu den arrazoiari sinetsirik, zuzentasunari?

-Bete-betean, bada, esan zuen, horrelaxe jokatu behar da.

-Eta, gizabanakoetan egitea baino argiago zelako, lehenengotan izaerak hiri-eratzetean aztertzen hasi ginen bezala<sup>9</sup>, ez ote dugu, ausaz, oraingoan ere berdin aztertu behar lehenengo garaipenzale den hiri-eratzeari, -berari deitzeko beste izenik ez dudanez, timokratia eta timarkia deitu behar zaio- eta ondoren ez ote dugu aztertuko bere antzeko den gizasemea, eta gero oligarkia eta (c) oligarki gizona, eta bere txandan demokratiarantz begiraturik ez ote dugu demokrati gizona aztertuko, eta laugarrenez tiraniapean dagoen hirira joan eta ikusirik, berriro tirani arimarantz begiraturik ez ote gara ahaleginduko aurrean jarri dugun ikerketa honi buruz epaile egoki izaten?

-Zalantzarik gabe, benetan, esan zuen, azterketa zein epaiketa, arrazoiaren arabera, horrelaxe egin beharko litzateke.

III. - Ea bada! esan nuen, nola aristokratiatik timokratia sor litekeen ahalegindu gaitezen esaten. Ala ez ote dago argi, bada, (d) hiri-eratzeko oro agintea daukanaren aldeak aldatzen duela, beronen baitan liskarra sortzen denean; alde hori, ordea, txikiena izanik ere, eritzi berdineko bada, ezinezkoa dela hura astindua izatea?

-Halaxe da, esan zuen.

-Eta nola, bada, esan nuen, ene Glaukon, astindua izango da gure hiria eta nondik sortuko da laguntzaileen eta agintarien arteko, eta bakoitzaren arteko liskarra? Ala nahi ote duzu Mousei eska diezaiegun, Homerosek<sup>10</sup> bezala, esan diezagutela "nola lehen aldiz" liskarra "agertu zen", eta ez ote dugu esango Mousok eurok (e) tragedietan bezala seriotasun-itxuraz hitzeginez, hizkera jaso batean ari direnean, gurekin umeekin bezala jolastu eta barre baino ez dutela egiten?

-Nola?

-Hona hemen nola: 546. benetan zail da guk jarri dugun bezalako hiri bat astindua izatea; baina sorrera daukan guztiak hondamena daukanez gero, honelako egiturak ere ez du beti irauten; aitzitik, hondatu egingo da. Eta hauxe da hondamena<sup>11</sup>: arimako eta gorputzeko ernaroa eta antzuaroa lurreko landareei ez ezik, lurgaineko bizidun guztiei ere etortzen zaie, izaki bakoitzari bere aldietako itzul-birak, itzuliaren itzuliz, lotzen zaizkionean, bizitza laburrekoentzat itzul-bira laburrak direlarik, eta alderantzizkoentzat alderantzizko direlarik. Eta hiriko zuzendari izateko hezi zenituzten zeuen endako horiek (b) jakintsu izan arren inola ere ez dituzte zentzuarekiko arrazoib-

dez hobeki erabidetuko ernaroak eta antzuarok; alderantziz, ihes egingo diete, eta umeak behar ez denean izango dituzte. Jainkozko izakiarentzat bada igaroaldi bat egin-egineko zenbaki batek mugatzen duena, eta gizakiarentzat ere bada lehenengo zenbaki bat, non gehikuntzak gorantzakoak eta beherantzakoak diren, hiru gune edo bitarte eta lau muga dituelarik, berdindu eta desberdinu, gehitu eta gutxitu egiten dituen, gauza guztiak bata bestearekiko ezagututzat eta (c) akorduan jarritzat agertzen dituen; hauen epitrito-oinak bostekoarekin loturik, hiru aldiz gehiagotuz, harmonia bi dakartza: lehendabizikoa karratura igorik ehun bider, eta bestea, berriz, luzera berdinekoa alde batetik eta luzanga, akordatutako bostekoaren diametrotik ehun zenbaki dituen, bakoitza bateko baten faltan, eta akordatu gabeko diametrotik bateko biren faltan, eta hirukoitzaren hirugarrenetik heineko ehun. Hona hemen sortze hoberenen eta txarrenen jabe den geometriazko zenbakia; eta zuek gauza hauek ezagutzen ez dituzuenek, (d) zuen zaintzaileek ezkongai diren neska-mutilak ezkontzen dituztenean sasoiz landa, haien umeak ez dira hazkuntza eta zorte oneko izango. Euren artetik hoberenak aukeratuko dituzte agintariek, eta duin izango ez direnez, gurasoen aginte-arduretara heldurik, zaintzaile izan arren, lehenengo gure ardurarik ez izaten hasiko dira, eta behar den baino gutxiagotzat edukiko dituzte musikaren inguruko arazoak eta gero gimnastikaren ingurukoak, eta hortik baldarrago bihurtuko dira zuen gazteok. Eta gauza guzti hauengatik, zuen artean Hesiodosek

dioenaren arabera dauden 547.urrezko, zilarrezko, brontzezko eta burdinazko endak<sup>12</sup> bereizteari begira, oso zaintzaile on ez direnak jarriko (e) dituzte agintzen. Eta burdinazkoa zilarrezkoarekin nahasturikoan eta brontzezkoa urrezkoarekin, harmonia gabeko arauez kanpoko egoera bat sortuko da, eta sorturikoan, sor daitekeen lekuan gudua eta areriokeria dakar beti. "Enda honi" buruz<sup>13</sup> esan beharra dago, nonnahi sortu, liskarra egongo dela beti.

-Benetan zuzen erantzun dutela esango dugu, esan zuen.

-Eta beharrezko, esan nuen, benetan Mousak dira eta.

-Eta honen ondoren, (b) esan zuen, zer diote Mousek?

-Liskarra sorturikoan, esan nuen, enda bakoitzak bere aldetik jo zuen; alde batetik burdinazkoak eta brontzezkoak irabazietarantz, lurraldeak, etxeak, urrea eta zilarra eskuratzeraz, eta bestetik urrezkoak eta zilarrezkoak, berez behartsu izan ez arren, aberats baino, bertuterantz eta antzinako erakuntzara zuzentzen zituzten arimak. Euren artean indarkeriak eta erasoak sortu zirenean, bat egin zuten lurra eta etxeak erdibanatuz nork bere egiteko, (c) eta lehen askatasunkide eta sostengatzaile bezala zainduak zirenak, orain jopu, auzo eta

etxe-morroitzat hartuz, guduaz eta hauen zainketaz arduratzen hasteko.

-Uste dut, bai, esan zuen, aldaketa hori hortik datorrela.

-Ez ote da, bada, esan nuen, hiri-eratze hori aristokratia eta oligarkiaren artean legokeen bat?

-Oso-osoan, bada.

IV. - Honelaxe, bada, aldatuko da: aldaturikoan, ordea, nola eratuko ote da? Ala ez ote dago argi (d) gauza batzuetan aurreko hiri-eratzearen antzeko izango dela eta beste gauza batzuetan oligarkiaren antzeko, bion tartekoa delako, baina bere-bereko duen zerbait bereizgarri izango duela?

-Horrelaxe da, esan zuen.

-Eta agintariei dedu izaten, eta nekazaritzari, eskulanei eta beste irabazi-bideei, hiriko zaindari bezala dieten gorrotoan, eta lagunarteko jatorduak eratzen, eta gimnastikako eta guduko ariketetan ardura izaten, ez ote dira gauza guzti hauean aurreragoko hiri-eratzearen antzeko izango?

-Bai.

-Eta jakintsuak aginteetarara eramateko beldur izateari buruz, (e) horrelako gizon tolesgabe eta sendorik ez daukatelako nahastu batzuk baino, eta bakerako baino gudurako berez iaioago diren izaera sutsuetara eta motelagoetara makurtzea, 548. eta gauza guzti hauei buruz iruzurrak eta katramilak nahiago

izatea eta denbora guztia gudurako gertu igarotzea, ez ote ditu berak, berezko bezala honako gauza asko?

-Bai.

-Eta oligarkietan egoten direnen antzera, honako gizonak aberastasunzale izango dira, eta ezkutuzko urre-zilar gurtzaile sutsu, eta eskuraturiko altxorak eta altxortegiak izango dituzte, non jarriarik ezkutatuko dituzten, eta hesiz inguraturiko etxebizitzak ere izango dituzte, bakoitzaren benetako habia, non (b) andrazkoekin zein nahi lezaketen beste edozeinekin dirua barra-barra eralkiko duten.

-Egiarik handienak, esan zuen.

-Beraz, irabazien aurreztaile izango dira, dedutzat izanik, ezkutuan bereganatzen dituztenen antzera; eta beren irrikaz besterenen eralkitzaile direnez, atseginen ezkutuko atzemaile dira, umeez gurasoei ohi dieten antzera, legeari ihes eginik; erakarketaren ordeztindakeria erabiliz heziak izan baitira, eta arrazoibidea eta filosofia daukan benetako Mousaz ahaztu, (c) eta, gimnastika, musika baino aintzakoago hartu.

-Guztiz, bada, esan zuen, aipatzen duzun hiri-eratzeko hori on eta txarraren nahaste bat da.

-Nahaste bat bai, esan nuen, baina bere alde kementsua gailentzen delako, bada honengan gauza bat guztiz nabarmena, norgehiagoka eta ohorezaletasuna.

-Zalantzarik gabe, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, hauxe dateke hiri-eratzeko horren sorrera eta izaera hitz-zirriborroz egin: marrazki hori guztiz osatu ez dudana arren, (d) aski baita gizonik zuzenena eta bidegabeena ikustarazteko; bestalde, azken gabeko lana da, bat bera ere utzi gabe, hiri-eratzeko eta izaera guztiak azaltzea.

-Arrazoizko da, esan zuen.

V. - Zein ote da, bada, hiri-eratzeko honen araberrako gizona? Nola sortu eta nolakoa izango ote da?

-Uste dut bada, esan zuen Adeimantosek, norgehiagoka-zaletasunean behintzat gizon hori hainbatean Glaukonen hurreko izango dela.

-(e) Berdin, esan nuen, horrelaxe izango da, baina ez dut uste esango ditudanen araberrako izango denik.

-Zeinen araberrako?

-Harroago izan behar du, esan nuen, eta Mousengandik zerbait urrunduagoa Mousen lagun izan arren, eta entzunzale izango da hitzegiteko zale ezelan ez bada ere; morroientzat 549. gizon latza dateke horrelakoa, eta nahiko ondo heziriko gizonaren antzera ez ditu aintzakotzat izango; gizon askeekin, aldiz, leuna izango da, zeharo agintarien esaneko, agintezale eta ohorezale; ez da hitzegiteko daukan trebetasunagatik ez antzeko ezergatik aginterako lain izango, gudu-ekintzengatik eta guduari buruzko gauzengatik baino; horrelako gizasemea gimnastikazale eta ehizazalea izango da.

-Hauxe da, bai, esan zuen, hiri-eratzeko horri doakion izaera.

-Eta horrelako gizon batek, esan nuen, ez ote lituzke aberastasunak gaitzetsiko gazte den bitartean (b) eta zaharrago egiten den heinean beti maiteago, diruzale-izaera daukanaren antzera eta bertutearekiko garbi ez datekeenaren antzera, zaintzaileerik hoberenak alde egin diolako?

-Zeinek? esan zuen Adeimantosek.

-Musikarekin nahasirik dagoen arrazonamenduak, esan nuen: sortzen denarengan bizitza zehar eginik, bertutearen babesle den bakarrak.

-Ederto diozu, esan zuen.

-Izan ere horrelakoxea da, esan nuen, timokratiazko gaztea, horrelako hiriari doakiona.

-Osotoro, bada.

-Eta hona hemen, esan nuen, (c) nola sortzen den horrelakoa: gertatu ohi da batzuetan txarto zuzenduriko hiri batean bizi den aita on baten seme gazte bat delarik aitak

ohoreei, aginteei, eta antzeko gauza guztiei ihes egitea, eta horrelako zereginik ez izatearren beretik galdu nahiago izatea.

-Nola sortzen da, baina? esan zuen.

-Lehenengo, esan nuen, senarra agintarien artekoa (d) ez delako, eta horregatik gainerako andreen artean gutxiagotzat daukatelako bere ama samindurik dagoela entzutean, gero, amak ikusirik bere senarra ez dela aberastasunez bat ere arduratzen, eta auziak jarri arren eta laidotua izan arren ez dela auzitegietan ez ixilean ez agerian arduratzen, eta gauza guzti hauek ardura barik jasaten dituela, eta bere gogoa baino ez duela egiten konturatzen denean, eta emaztearenganako dedu gehiagorik ez gutxiagorik ez duela agertzen, gauza guzti hauengatik samindurik, semeari bere aita ez dela gizon eta arduragabekoa dela esaten dionean, eta honakoetan andrazkoek eten barik esan nahi izaten dituzten lako hainbat entzuten dituenean.

-Bai horixe, esan zuen Adeimantosek, horrelako gauza asko doazkie andrazkoei.

-Badakizu, bada, esan nuen, batzuetan horrelakoen etxe-morroiek ere, lagun direla iduritu arren, ixilean horrelakoak esaten dituztela umeen aurrean, eta ikus balezate inor aitari zor dionik edo beste bidegabekeriaren bat eginik ez duela honek estu hartzen, eskatzen dio gizon egiten denean horrelako guztietan 550. mendeku hartzeko, eta aita baino gizonago izateko. Eta kanpora irteten denean antzeko beste gauza batzuk entzuten ditu eta ikusten, hirian bakoitza bere arazoetan bakarrik ari direnei tentel deitzen dietela, eta ez dutela izen handirik izaten, eta alderantziz, eurenetan aritzen ez direnak ohoratu eta goratu egiten dituztela. Orduan, bada, gazte horrek honako hauek entzun eta ikustean, eta hein berean aitaren hitzak entzutean eta aitaren jokaerak gaineratikoenekin alderatuz ikustean, egoera bi hauez erakarria izaten da; alde batetik bere aitarenak (b) arimako alde zentzuduna hezatu eta garatzen dio, eta besteenak aldiz, alde grinatsua eta kementsua; eta gizon txarraren izaerarik ez daukanez besteen laguntasun okerraren eragina baino, indar bi horiez erakarria izanez bion erdibidean jartzen da, eta bere buruaren jabegoa norgehiagoka eta kementasunaren erdibide den horren esku uzten du, eta gizon harroputz eta ohorezale bihurtzen da.



-Uste dut, esan zuen, artaz azaldu duzula horrelakoaren sorrera.

-Badugu, beraz, (c) esan nuen, bigarren hiri-eratzeara eta bigarren gizonezkoa.

-Badugu bai, esan zuen.

VI. - Ez ote dugu, bada honen ondoren hitzegingo Aiskhylosen "beste hiri baten aurrean kokaturik dagoen beste gizon bati"<sup>14</sup> buruz, edo hobeto, ez ote dugu lehenengo gure hipotesiaren arabera, hiriari buruz hitzegingo?

-Bai horixe, esan zuen.

-Eta uste dudanez, azaldu dugun hiri-eratzearen ondoren datorrena, oligarkia dateke.

-Eta zein eratzeri, esan zuen, deitzen diozu oligarkia?

-Ondasunetan, esan nuen, oinarritzen den hiri-eratzeari, non aberatsek agintzen duten, eta behartsuarentzat aginterik (d) ez dagoen.

-Ulertzen dut, esan zuen.

-Lehenengo ez ote da esan behar nola timarkiatik oligarkiara aldatzen den?

-Bai.

-Benetan, esan nuen, itsuarentzat ere argi dago nola aldatzen den.

-Nola?

-Hiri-eratzeari hau, esan nuen, bakoitzak aberastasunez beterik zeukan altxortegi harexek hondatzen du. Hasteko, bada, eralketa-moduak aurkitzen dituzte, eta horretarako legeak ere hausten dituzte ezesaneko bihurturik (e) eurak eta euren emazteak.

-Hori bidezkoa da, esan zuen.

-Gero, uste dut, bata besteari begiraturik, bekaizkerian ere eroriko dela eta gehiengoak berdin egingo duela.

-Bidezkoa da.

-Hortik aurrera, esan nuen, aberastasunetara abiatuko dira, eta aberastasunari zenbat eta dedu gehiago dioten, hainbat gutxiago izango diote bertuteari. Ala ez ote da bertutea aberastasunetik hainbat urruntzen bakoitza azta-ontzi banatan jarriarik, bata beti bestearen alderantzizko aldera eror daitekeenaren neurrian?

-Bai horixe, esan zuen.

-Hirian, aberastasuna eta aberatsak gauza handitzat dituztenean, 551. bertutea eta gizon zuzenak gutxiagotzat dituzte.

-Argi dago.

-Estimaten dena jorratzen da beti, eta ez dena baztertzen.

-Horrelaxe da.

-Eta handizale eta ohorezale ziren gizonak, lukurrero eta diruzale bihurtzen dira azkenean, eta alde batetik aberatsak goratzen, ederresten eta aginteetara eramaten dituzte, eta bestetik behartsua oinperatzen.

-Guztiz, bada.

-Beraz, orduan lege bat jartzen dute oligarkiako hiri-eratzearen mugari bezala (b) ondasun-kopuru bat jarriarik, handiagoa oligarkia handiago den lekuan, eta txikiago bat ahulago den lekuan, erabakitako adina ez lukeen inork aginterik ez duela eskuratuko aldarrikaturik; eta hori, edo iskiluen indarren bidez, edo horren ordean horrelako hiri-eratzeara beldurraren bidez jarriarik lortzen dute. Ala ez ote da horrela?

-Horrelaxe da, zalantzarik gabe.

-Hauxe da, bada, gehienetan egiten den hiri-eratzeara.

-Bai, esan zuen, baina zein da hiri-eratzeari horren izaera? Eta zeintzuk dira zeuzkala (c) esaten genituen hutsak<sup>15</sup>?

VII. - Lehenengo, bada, esan nuen, bere-berea duen mugapen berezi hori da. Azter ezazu bada, inork ondasunen arabera itsasontzietako lemazainak berdin aukera balitza, eta behartsuari lemazain hobeak datekeen arren utz ez baliezaio...

-Itsasbide txarra, esan zuen, egingo luketela.

-Ez ote da, bada, beste edozein [edo baten baten] agintean berdintsu gertatzen?

-Baietz uste dut.

-Hiriarenekoan izan ezik? esan nuen, ala hiriarenekoari buruz ere bai?

-Benetan askoz gehiago, esan zuen, hiriko agintaritza guztiz zailena eta handiena den heinean.

-Horrelakoxea da oligarkiak izango lukeen akatsetatik bat. (d)

-Hala dirudi.

-Eta zer? Berau, ausaz, honako hau baino txikiago ote da?

-Zein baino?

-Honako hiria bat izan ordez bi izan beharra, bata behartsuena eta bestea aberatsena, leku berean bizi izanik beti elkarren arteko azpijokoan.

-Ez da ez, Zeusarren, ezer txikiago, esan zuen.

-Ezta, ez da benetan gauza ederra, beharbada gudu bat egiteko gauza ez izatea, arerioei baino (e) beldur gehiago dioten aldra armatuaz baliatzera beharturik daudelako, edo baliatzen ez badira, gudu horretan benetan oligarka bezala borrokatzera beharturik daudelako; eta era berean diruzaleak direlako diru-laguntza eskaintzerik nahi ez izatea.

-Ez da ez, gauza ederra.

-Eta zer? Aspaldi, honako hiri-eratzean gizakume berberak era berean gauza askotan, nekazaritzan, irabazpideetan, 552. eta gudu-arazoetan aritzea gaitzesten genuena zuzen dagoela uste ote dugu?

-Ezela ere ez.

-Begara, bada, honako kalte guztien artean hauxe ez den honek lehenengo hartzen duenik handiena.

-Zein?

-Zilegi izatea batek bere gauza guztiak sal ditzan eta honenak beste batek eros ditzan, eta saldu dituenak, ez merkataria, ez artisau, ez zaldun eta ez hoplita, behartsu eta ezer ez deituriko baino, hiriko inolako sailean eskuhartu gabe, hirian bizi dadin.

-Bai, lehenengoa da, esan zuen.

-(b) Honakorik ezela ere ez da debekatzen oligarkiapean dauden hirietan, bestela ez lirateke batzuk guztiz aberats eta beste batzuk guztiz behartsu izango.

-Zuzen.

-Hauxe ere ikus ezazu: esaten genituenen arabera, ausaz, onuragarriago ote zen hiriarentzat, horrelakoak aberats izanik aberastasunak hondatzen zituztenean? Ala agintarien artekoa zela itxuratu arren ez zen benetan ez agintari, ez zerbitzari, etxalde ondasunen hondatzaile baino?

-Halaxe, esan zuen; bazirudien, baina ez zen besterik (c) hondatzaile bat baino.

-Nahi duzu, bada, esan nuen, honi buruz esan dezagun abaraskan erlamandoa sortzen den antzera, erlauntzako gaitz, honakoa ere berdina bere etxean erlamando bezala sortuko dela, hiriko gaitz?

-Guztiz, bada, esan zuen, ene Sokrates.

-Ez ote zituen, bada, ene Adeimantos, jainkoak batzuk, ezten gabeko erlamando guztiak, hegadun egin, eta beste batzuk oinezko, eta hauen artean batzuk ezten gabekoak eta beste batzuk ikaragarriko eztendunak? Eta ezten gabekoen artean zahartzaroan ez ote dute behartsu izanik amaitzen, (d) eta eztendunen artean gaizkile izena daukaten guztiak?

-Guztiz egia, esan zuen.

-Argi dago, beraz, esan nuen, behartsuak ikus ditzakezun hirian, horrelako leku batean lapurrak ere ostendurik egongo direla, eta baita sakel-moztaile, eliza-zulatzaile eta antzeko kalte guztien egileak ere.

-Argi dago, esan zuen.

-Zer bada? Ez ote dituzu, bada, oligarkiapean dauden hirietan behartsuak ikusten?

-Agintariak izan ezik, esan zuen, ia gehienak behartsu dira.

-Ez ote dugu uste izango, bada, esan nuen, (e) horrelako hirietan ezteuden gaizkile asko izango direla, zeintzuek agintariak indarraren bidez menderatzen saiatuko diren?

-Uste izango dugu, bai, esan zuen.

-Ez ote dugu esango, bada, horrelakoak hezkuntza ezagatik, hazkuntza eta hiri-eratzetxarragatik bertan sortuko direla?

-Esango dugu, bai.

-Horrelakoa dateke, bada, benetan oligarkiapeko hiria, eta horrelako kalteak izango ditu, eta gehiago ere beharbada.

-Beharbada bai, esan zuen.

-Utz dezagun, bada, alde batera, 553. esan nuen, oligarkia izena duen eta aberastasunen arabera agintariak dituen hiri-eratzetxau, eta ondoren azter dezagun bere antzeko gizona nola sortzen den, eta sorturikoan nolakoa den.

-Zeharo, bada, esan zuen.

VIII. - Ez ote da, bada, batez ere timokratiko izatetik oligarkiko izatera honelaxe aldatzen?

-Nola?

-Timokrata baten seme izanik lehenengo bere aita aintzakotzat hartzen du eta haren lorratzetatik jarraitzen, gero, bat-batean, (b) haitz baten kontra bezala hiriarekin topo egiten, eta haren gauzak eta burua ere hondatzen, edota gudarosteko nagusi edo beste aginte handiko izan ondoren auzitegitara eramana izanik eta salatari faltsuz kaltetu izanik, hilik edo atzerriraturik, edo dedu barik eta ondasun guztiak galdurik ikusten du.

-Bidezkoa da benetan, esan zuen.

-Eta benetan, ene adiskide hori, gauza guzti hauek ikusirik eta sufriturik, eta bere ondasun guztiak galdurik, beldurrez, ene ustez, berehala buruz behera bere arimako tronotik (c) jaurtikitzen ditu handinahi eta kementasun hura; eta beharrianak lotsarazirik, irabazpideetara itzulirik, lanaren bidez gutxi-gutxika eta aurrezte urriz aurrezturik diruak egiten ditu. Ez ote duzu uste, bada, horrelako gizakumeak trono horretan orduan lukurreria eta diruzalekeria jarraziko dituela, eta tiaraz, idunekoz eta ezpataz jantzirik bere barnean erregeen errege egingo dituela?

-Nik neuk bai, esan zuen.

-Ene ustez, bederen, bere alde arrazoitsua eta kementsua (d) lurrean, haren azpian, alde banatan morroi bezala eseraraziz, batari deus ez dio ez pentsatzen, ez aztertzen utziko, diru gutxienetik gehien nola atera baizik; ezta besteari ere deus besterik miresten ez dedu izaten, aberastasuna eta aberatsak ezik, ezta beste edozertan ahalegintzen ere dirubidean eta horretara eraman dezakeenaz baizik.

-Ez dago, esan zuen, besterik ezer hain bizkor eta indartsu gazte bat handizale izatetik diruzale izatera bihurtuko duenik.

-(e) Ez ote da, bada, hauxe, esan nuen, gizon oligarkikoa?

-Gutxienez, bere aldaketa oligarkia sortzen den hiri-eratzetik egiten den gizonaren antz-antzekoa da.

-Azter dezagun, bada, antzekoa datekeen.

-554. Azter dezagun.

IX. - Lehenik, bada, ez ote liteke antzeko izan, aberastasunak egitea gauzarik handientzat daukalako?

-Nola ez, bada?

-Eta baita beste nahikeriak alferreko bezala menpean harturik, bere grina premiazkoenak ase, eta beste gasturik egin gabe, aurreztaile eta langile izateagatik ere.

-Guztiz, bada.

-Benetan gizon zekena da, esan nuen, edozein gauzatatik irabazia ateratzen duen gizon altxor-biltzaile bat, -gehiengoak ere (b) goستن duenatarikoa- ala ez ote dateke hauxe horrelako hiri-eratzearen antzeko?

-Nik neuk behintzat halaxe deritzat, esan zuen. Gutxienik hiri horrentzat eta horrelako gizonarentzat aberastasunak dira gauzarik estimagarrienak.

-Ez dut uste, esan nuen, horrelakoa sekula hezkuntzaz arduratu denik.

-Ez dut uste, esan zuen, bestela ez zukeen itsu bat gehien estimatzen duen koru-zuzendari jarriko.

-Ederto, esan nuen, beste hau ere azter ezazu: ez ote dugu esango heziketa ezagatik erlamandoaren grinak sortu zaizkiola barnean, batzuk behartsuari dagozkionak, (c) eta besteak gaizkileari, eta beste ardura bat daukalako indarraren bidez menderatzen dituela?

-Bai horixe, esan zuen.

-Ez ote dakizu, bada, esan nuen, nora begiratu behar duzun euren gaiztakeriak ikusteko?

-Nora? esan zuen.

-Umezurtzen tutoretzetara edo antzeko edonora, batez ere, gaiztakeria egiteko askatasun handi bat badatorkie.

-Egia.

-Esanikoarekin ez ote dago, bada, argi, honakoak zuzenaren antza daukalako izen ona duen beste tratuetan bere buruko egoki-itxurako indar batekin barruan daramatzen gainerako (d) nahikeriak menderatzen dituela, baina ez dituela gauza txar bat direlako limurtzen, ezta ez dituela baretzen arrazoiaren bidez, derrigorrez eta beldurrez gainerako bere ondasunei buruz ikaratan dagoelako baino?

-Oso-osoan, esan zuen.

-Eta, Zeusarren, esan nuen, ene adiskide, horrelako gehienengan aurkituko dituzu, besteenetik gastatu behar denean dituztela barnean erlamandoari dagozkion nahikeriak.

-Horrelaxe da izan, batez ere, esan zuen.

-Horrelakoa ez dateke, bada, bere buruarekin baketan, bat izan beharrean bikoitza baino izango ez denez, gehienetan (e) nahikerietatik, nahiera onak txarren gainetik irabazle irten litezke.

-Halaxe da.

-Horregatik, bada, uste dut, asko baino itxuratsuago datekeela honako gizona; baina urrun alde egingo dio adostasun eta egokiera oneko arimaren benetako bertuteak.

-Halaxe uste dut.

-Eta benetan, lukurrero bat delako 555. edonorentzat arerio eskasa izango da hirian garaipen bat edo eder direnen arteko beste ohoreren bat lortzeko, ez baitu nahi izango dirua gastatu horrelako lehiaketetan ohorea lortzearren, grina garestia iratzartzea eta

lehiaketetan laguntzeko eskatzea beldur izanik; eta oligarkikoen erara gutxi batzuekin lehiaturik, gehienetan garaitua izaten da, aberats dirauen arren.

-Bai horixe, esan zuen.

-Zalantzan jarriko ote dugu ondino, esan nuen, oligarkipean dagoen hiri baten antza daukanaren arabera, horrelako gizon lukurro eta merkatari bat (b) hiriko buruzagi jarri behar ez denik?

-Ezelan ere ez.

X. - Dirudienez, bada, honen ondoren demokratia aztertu behar da, zein eratan sortzen den, eta sorturikoan nolako izaera daukan, bere antzeko gizonaren izaera ezaguturikoan epaitzeko eran jar dezagun.

-Gutxienez, esan zuen, bide berdinetik ibiliko ginateke.

-Ez ote da, bada, esan nuen, oligarkiatik demokratiarako aldaketa era honetantxe egiten: ase ezinezko irrika horretatik ahal denik eta aberatsen izan behar dela ontzat jarri dutelako?

-Nola bada?

-(c) Hiri horretako agintariak ondasun asko dauzkatelako agintari direla uste dudanez, ez dute nahi izaten, ondasunak gastatzea eta hondatzea debekatzen duen legearen kontra oztoporik jarri, gazteen artetik neurrigabeko izan litezkeen guztiei, honelakoen ondasunak erosirik eta irabazian dirua maileguan emanaz, ondino aberatsago eta ohoretsuago bihurtzearren.

-Ezer baino gehiago, benetan.

-Honezkero ez ote dago, bada, argi hiri honetan hiritarrek ezinezko izango dutela era berean aberastasuna estimatu eta behar besteko neurritasuna lortu, (d) batarekin ala bestearekin arduragabetzea derrigorrezko dela baino?

-Nahiko argi dago, bai, esan zuen.

-Eta oligarkietan, bada, ardurarik izaten ez dutelako, eta nasai izaten uzten delako, batzuetan jatorri txarreko ez direnak behartsu izatera behartzen dituzte.

-Bene-benetan.

-Eta uste dut egonean daudela hirian eztendun eta guztiz armaturiko gizaki hauek, batzuk diru-zorretan, eta beste batzuk ohorea galdurik, eta beste batzuk biak, euren ondasunak eskuratu dituztenen eta gainerako hirikideen aurka amorraturik eta azpijokoan, iraultza nahian.

-(e) Halaxe da.

-Dirugileak, aldiz, makur-makur eginik dabilta ikusten ez dituztenen itxurak egiten; gainerako hiritarren artetik, beren esku har lezaketan edonor, diru-eztena sarturik, zauritu egiten dute, eta kapitala baino askozaz handiago den etekina irabaziaz 556. hirian erlamando eta behartsu-altra bat sortzen dute.

-Nola, esan zuen, ez da izango bada, aldra bat?

-Eta benetan, esan nuen, ez dute nahi izaten kalte horren sua itzaltzerik lehen esanikoaz, hau da, nork bereaz nahi duena egitea debekatuz, ezta beste honekin, arazoak askatuko lituzkeen lege berri bat jarriaz.

-Zein lege?

-Bestearen ondotik bigarren dena eta hiritarrak bertuteaz arduratzera behartuko lituzkeena; zeren, borondatez egiten diren traturik (b) gehienak bakoitzaren arriskupean egitea aginduko balitz<sup>16</sup>, alde batetik ez lirateke hirian hain lotsagabe aberastuko, eta bestetik ez lirateke azaldu ditugun bezalako hainbeste kalte sortuko.

-Gutiz benetan, esan zuen.

-Orain, ordea, esan nuen, alde batetik honelako gauza guzti hauengatik agintariak egoera honetan daukate agindupekoak, eta bestetik ez ote dituzte eurak eta euren

gazteak lizun, eta gorputz eta arimaz nagi, eta atseginen aurrean irmo egoteko bigun, eta atsekabeak jasanezin bihurtzen?

-Zer, bada?

-Eta eurak ez ote dira irabaziez izan ezik beste guztiez arduragabetzen, eta bertuteaz behartsuak baino gehiago arduratzen?

-Ez, bada.

-Honako egoeran daudelarik, agintari eta agindupekoak elkartzen direnean ibilaldi batean edo beste elkar-une batean, edo lehiaketa-aldi bat edo gudaldi bat denean elkarrekin itsasoratzen direnean edo gudu egiterakoan, edo arrisku berdi-

netan (d) elkar ikusten dutenean eta aberatsek ezelan ere behartsuak gutxiesten ez dituztenean, aldiz, sarritan behartsu, mehe eta eguzkiak erretako gizon batek gudaldian itzalpean haziriko eta kaltegarritzko gizen asko daukanarekin lerrotzen denean, eta arnasestuka eta arazoz beterik ikusten duenean, ez ote duzu uste horrek uste izango duenik behartsuen doilorkeriagatik horrelakoak aberasten direla, eta bata besteari esango ez diotenik eurenean elkartzen direnean "Gureak ditugu gizonok, (e) ezertako ez dira eta"?

-Ondotxo dakit, bada, esan zuen, horrelaxe egingo dutela.

-Osasun gutxiko gorputz batek gaixotzeko kanpotik eragin txiki bat baino behar ez duenez, eta batzuetan kanpoko eragin barik berez gaixotzen denez, ez ote da, bada, hiria ere haren egoera berdinean, aitzaki txiki batengatik, batzuek kanpotik, oligarkiapean dagoen hiritik eta besteek demokratiapean dagoenetik laguntza ekarriz gaixo jartzen, eta bere barruan borroka sortzen, eta batzuetan ez ote da matxinada sortzen kanpokoari eragin barik?

-557. Zalantzarik gabe.

-Demokratia, bada, nire ustez, sortzen da behartsuek garaile irtenikoan arerioen artetik batzuk hil eta beste batzuk atzerrira bidaltzen dituztenean eta gainerakoei hiri-eratze eta aginteak berdintasunean banatzen dizkietenean; eta gehienetan horrelakoetan zotz eginaz sortzen dira aginteak.

-Hauxe da, bada, esan zuen, demokratiaren eratzea, batzuetan iskiluen bidez sortzen da, eta beste batzuetan beldurrez, besteek alde egiten dutelako.

XI. - Zein eratan, bada, esan nuen, gobernatzen ote dira hauek? Eta bestalde, nolakoa ote da honako (b) hiri-eratze hau? Zeren argi dago, bada, bere antzeko gizonak gizon demokratiko baten itxura erakutsiko duela.

-Argi dago, esan zuen.

-Ez ote dira, bada, lehengo eta behin, gizon aske batzuk izango, eta ez ote da hiria askatasunez eta zabaltasunez beterik bihurtuko, eta bertan bakoitzak nahi duena egiteko ez ote du eskubiderik izango?

-Esan ere, benetan, hala esaten da, esan zuen.

-Eta, benetan, eskubidea dagoen leku batean argi dago halakoan bakoitzak bere bizimodua antolatu nahi lukeen erara antolatuko duela, nork bere gogara.

-Argi dago.

-Ene ustez horrelako hiri-eratze batean (c) era guztietako gizakiak izan litezke gehien.

-Eta nola ez, bada?

-Eta baliteke, esan nuen, hiri-eratzeen artean ederrena hauxe izatea; guztitariko margoez brodaturiko soingaineko baten antzera, berdin honek ere, izaera guztiez brodaturikoa izanez, ederrena lidurike. Eta beharbada, esan nuen, askok, umeez eta andrazkoek gauza koloretsuak ikustean bezala, hiri-eratze ederrentzat izango lukete hauxe.

-Bai horixe, esan zuen.

-Izan ere, ene zorioneko hori, esan nuen, benetan (d) bada bertan hiri-eraketa aztertze biderik.

-Zergatik?

-Eskubidea dela bide, era guztietako hiri-eratzeak dauzkalako; eta baliteke hiri bat eratu nahi duenari, guk oraintsu egiten genuen bezala, beharrezko izatea demokratiazko hiri batera joanik, atsegin dakioken hirikera huraxe aukeratzea, hiri-eratzeen azokara heldu balitz bezala, eta horrelaxe aukeraturikoan bizi izatea.

-Beharbada, esan zuen, ez litzateke eredu faltan izango. (e)

-Eta, esan nuen, hiri horretan agintzeko gai izan daitekeenarentzat bere agintea ezelan ere beharrezko ez izatea, ezta agindupeko izatea nahi ez duenarentzat, ezta borrokara joatea gainerakoek egiten duten bitartean, ezta bakean egotea ere, bakerik nahi ez baduzu, besteak bakean daudelarik, ezta, aldi berean, legeren batek agintari eta epaile izatea galeraz badietzazu, gutxiago agintzea eta epaitzea ere, zuk hala baderitzazu, 558. ez ote da bizimodu hori itxura batean zoragarri eta atsegingarri?

-Bere horretan, esan zuen, agian bai.

-Eta zer? Ez ote da dotorea zenbait zigorturen arteko lasaitasuna? Ala ez ote duzu inoiz ikusi horrelako hiri-eratzean heriotzaz edo atzerriaz zigortu izanikoek ez dutela horregatik handik alde egiten, eta hiri erditik ibiltzen direla eta edonondik dabiltzala heroe bezala, inork, ardura gabe, ikusten ez dituelakoan?

-Asko benetan, esan zuen.



-Eta zer, beren bihozberatasun eta (b) ezelako zekenkeriarik eza? Baina, zer, hiria eratzen genuenean baldintza garrantzitsu bezala, hau da, guztiz izaera bikaina izan ezean inor ezin zitekeela gizon ona izan, umetatik gauza ederrekin jolastu eta honelako gauzetan aritu gabe esaten genuenenganako<sup>17</sup> duten erdeinua? Ez al da egia, gauza guztiok zeharo oinperatuz bezala, politikan aritzeko edozeinek daraman bizimoduaz ez dela deus arduratzen, jendeak (c) abegi ona diola esatea bakarrik gogoko izaten baino?

-Benetan izaera jatorrekoa da, esan zuen.

-Demokratiak, bada, honakoak eta hauen senide diren gainerakoak ere izan litzake, eta dirudienez, hiri-eratze atsegingarri, anarkiko eta margo ugariduna dateke, berdinak zein desberdinak direnei halako berdintasun bat modu berdinean banatuz.

-Gustiz gauza jakinak diozuz, esan zuen.

XII. - Ikus ezazu, bada, hori nolakoa den bere-berean, ala lehenengo begiratu behar ote da, hiri-eratzeari buruz egin genuen bezala, zein eratan sortzen den?

-Bai, esan zuen.

-Ez ote da, bada, ausaz, honelaxe? Uste dudanez, ez ote da, bada, lukurrero eta oligarkiako (d) gizon haren semerik sortuko, aitaren menpe, haren ekanduetan hazi izan denik?

-Nola ez, bada?

-Hau ere, indarrez, beregan dituen atsegin-nahikeria guztien artean, gastua dakarrenen jabe izanez, ez, ordea, irabazirik dakarren atseginkerien jabe izanez, ez baiteritzate beharrezko.

-Argi dago, esan zuen.

-Nahi al duzu, esan nuen, ilunetan ibil ez gaitezen, lehenengo, irrikak muga ditzagun, zeintzuk diren beharrezko eta zeintzuk ez?

-Nahi dut, bai, esan zuen.

-Ez ote liezaieke, zuzen, beharrezko deitu alde batera uzteko gai ez ginatekeenei eta aseturikoan onuragarri ditugun guztiei? Zeren beharrezko da gure izaerak mota biotakook nahi izatea, ala ez?

-Bai horixe.

-Zuzen, bada, 559. esango dugu eurei buruz, hori beharrezko dela.

-Zuzen.

-Eta zer? Gaztetatik saiatuz gero benetan baztertu ahal litezkeenak eta dauzkanari ezer onik egiten ez diotenak alderantziz baino, guzti hauei buruz behar ez direnak direla esan bageneza, ez ote genuke, ausaz, zuzen esango?

-Zuzen, bai.

-Ez ote dugu hartuko, bada, bietatik direneko ereduren bat, izaeratik ezagut ditzagun?

-Beharrezko da, bada.

-Ez ote dateke, bada, (b) beharrezko osasunerako eta ondo egoteko ogia bera eta ogitartekoa ere neurri batean jatea?

-Hala uste dut.

-Ogia jatea beharrezko da benetan arrazoi birengatik: onuragarri delako, eta bizia gera litekeelako.

-Bai.

-Eta ogitartekoa, hainbatean, ondo egoteko onuragarriren bat dakarrelako.

-Gustiz, bada.

-Eta hauek baino urrunago doan nahikeria, eta gehienak, gaztetatik eutsi eta heziz gero baztertu ahal litekeen gainerako janarien nahikeria, eta gorputzarentzat eta arimarentzat zentzumenerako eta neurritasunerako kaltegarri dena? (c) Ez ote liezaioke, ausaz, zuzen esan, ez dela beharrezko?

-Gustiz zuzen, bada.

-Ez ote dugu esango, bada, hauek gastu-eragingarri direnik, eta haiek irabazgarri, gauzak egiteko baliagarri direlako?

-Zer, bada?

-Berdin esango ote dugu maitasun-atseginei eta gainerakoei buruz?

-Berdin.

-Eta oraintsu erlamando deitzen genionari,<sup>18</sup> ez ote genion esaten honako atseginkeriez eta nahikeriez beterik eta beharrezko ez zirenez menderaturik zegoenari, eta beharrezkoen azpian zegoenari lukurrero (d) eta oligarkiko?

-Zer bestela?

XIII. - Esan dezagun, bada, berriro, esan nuen, oligarkiako gizonetik demokratiazkoa nola sortzen den. Uste dut, gehienetan, honelaxe sortzen dela.

-Nola?

-Gaztetan, oraintsu esaten genuen eran bizi izanik<sup>19</sup>, heziketa barik eta lukurrerian, erlamandoen ezia dastatzen duenean, eta piztia sutsu eta beldurgarriokin batera bizi denean, zeintzuek margo eta era guztietariko atseginak atontzeko gai diren, uste izan dezazula, bada, orduantxe dela oligakhiko izatetik demokratikorantzko aldaketaren (e) hasiera.

-Guztiz ezinbestean, esan zuen.

-Hiria, bere barruko alderdi baten alde eta bera lako kanpoko laguntzak etortzean, aldatzen zenez<sup>20</sup>, ez ote da, ausaz, berdin gaztea ere aldatzen, hainbatean, barruan dauzkan nahikeria-mota baten laguntzan kanpotik nahikeria haien senide eta berdina dena datorkionean?

-Oso-osoan, bada.

-Eta, uste dudanez, beregan daukan oligarkiazko alde horri borrokakideren bat badatorkio aitaren aldetik edo gainerako etxeoengandik 560. onu ematen eta agerika egiten, orduan sortzen da haregan matxinada eta kontramatxinada eta bere buruaren aurkako borroka.

-Zer bada?

-Eta batzuetan, bada, ene ustez, demokratiazko bere aldeak amore ematen dio oligarkikoari eta irriken artetik batzuk suntsitu egiten dira, eta beste batzuk kanpora jaurtikitzen, gaztearen ariman halako lotsa bat sortu delako, eta hau zuzendu egiten da berriro.

-Halaxe gertatzen da, bada, batzuetan, esan zuen.

-Eta bestalde, uste dut, jaurtikiak izan diren nahikerien senide eta ezkutuan gorde izan diren batzuk ugaritu eta

indartu egiten direla aitaren hazkuntzaren ezjakintasunagatik. (b)

-Zinez, esan zuen, horrela gertatu ohi da.

-Zalantzarik gabe eramaten dute gaztea lehengo lagun berdinetara, eta ezkutuan elkar baturik oinordeko ugari sortzen dute.

-Zer bada?

-Eta uste dudanez, gaztearen arimako goi-gotorlekua eskuratuz amaitzen dute, konturaturik ikasbidez, ekandu ederrez eta benetako arrazoiz hutsik dagoela, zeintzuk, jainkoek (c) maite dituzten gizonen adimenetan zantzaile eta begiralerik bikainenak diren.

-Guztiz benetan ere, esan zuen.

-Eta gezurrezko arrazoi eta eritzi harroputzek, ene ustez, besteen aurka jauzi eginik halakoaren leku bera eskuratzen dute.

-Zalantzarik gabe, esan zuen.

-Eta, berriro Loto-jale<sup>21</sup> haiengana helduz, ez ote du, ausaz, bertan ageri-agerian bere egoitza jartzen, eta etxekoengandik bere arimako alde aurreztaileari laguntzaren bat baletorkio, haiek arrazoi harroputz haiek ez ote dizkiote bere barneko errege-gotorlekuaren ateak ixten, eta gudalkidetzari (d) sarrera galerazten, eta eurak baino zaharrago diren gizabanakoen arrazoiak baztertzen eta borrokan eurak garaile irteten, eta lotsa, lelokeria deiturik, ohoregabeko atzerriratu bat bezala kanporatzen, eta neurritasuna, doilorkeria dela esanez, irainka jaurtikitzen, eta gastuen zuhurtasuna eta eratasuna, basakeria eta zekenkeria bailiran sinestaraziz, grina ugari eta alferrekoen laguntzaz erbesteratzen?

-Bete-betea, benetan.

-Eta arrazoi haiek atxiloturiko (e) eta misterio handietan sarrerazitako gaztearen arima husturik eta garbiturik, ondoren, bertan sartzen diote harrokeria, anarkia, lasakeria eta lotsagabekeria aldra distiratsu eta koroatu handi bat, zurikeriaz eta txeraz hitzeginez, harrokeriari heziketa on deiturik eta anarkiari askatasun, lasakeriari gogo-zabaltasun eta lotsagabekeriari gizontasun deituaz. 561. Ez ote da, ausaz, honelaxe, esan nuen, nola gazte delarik aldatzen den beharrezko dituen gurarien hazkuntzatik, beharrezko eta probetxuzko ez dituen atseginen askatasun eta laxapenera?

-Benetan argi dago, esan zuen.

-Honen ondoren nire ustez, honakoa, beharrezko zein ezbeharrezko hainbat atseginetan bere dirua, lana eta denbora ere gastaturik bizi da. Baina zorte oneko izan badadi eta bere zoramenean harago joan ez badadi, zaharrago izatera heldurikoan, (b) astrapaladarik handiena gainditurikoan, kanpora jaurtiki izanikoen talde bat onartuko du, eta beragan etorririkoei ez die bere burua guztiz emango, atseginkeriak berdintasun batean jartzen dihardu, eta asetu datekeneraino, zortez bezala aldamenean jausten zaionari, eta gero berriro beste bati eskaintzen dio bere buruaren aginpidea, bat bera ere gaitzetsi gabe, berdin mantenduz baino.

-Guztiz, bada.

-Eta, esan nuen, inork esan baleza atsegin batzuk (c) eder eta onen artekoak direla, eta beste batzuk okerren artekoak, eta lehenengoak landu eta eskuratu behar direla eta bigarrenak eutsi eta menderatu, benetako arrazoirik ez du onartzen, ezta ez dio bere gazteluan sartzen uzten, alderantziz baino, gauza guzti hauetan burua eraginez bere ezetza agertzen du, eta guztiak berdin direla eta berdin estimatu behar direla dio.

-Horrela dagoenak, esan zuen, osotoro berdin dagi.

-Beraz, esan nuen, honelaxe ematen ditu egunak, aurrean jartzen zaion nahikeriari irrika ederretsiz: batean mozkorturik eta xirula jotzen, eta bestean ura edaten eta argaltzen, (d) behin gimnasia egiten, eta beste behin nagi eta ezeren ardura barik egoten da, eta aldiz, filosofian aritzen delakoan. Sarritan politikari ekiten dio, eta, oldarturik, suerta liezaiokeena esan eta egin ere egiten du; eta inoiz gudari batzueganako irrika sor balekio, horretara eramana izaten da, eta gauza bera merkatarienganakoa izanez gero. Eta bere bizitzan ez dago ez erabiderik ez gizalegerik, aldiz, gozo, aske, eta zorioneko bere bizitzari deiturik, horretan dirau gauza guztien gainetik.

-Guztiz, (e) esan zuen, gizon berdintasunzale baten bizitza zeharkatu duzu.

-Eta benetan uste dut, esan nuen, gizonezko hau guztitariko izaera ugariz beterik dagoela, eta gizon polit eta margo askotakoa dela berau: hiri harexen antzeko<sup>22</sup>. Gizonezko eta andrezko askok bere bizitzaren bekaitz izan leza-

kete, beregan hiri-eratzte eta izaeraren eredu guztiz ugariak baititu.

-Horixe da, bai, esan zuen.

-Zer bada? Demokratiaren arabera, 562. gizon honi demokratiko zuzen deitzen diogula jar ote genezake?

-Jarria izan bedi, esan zuen.

XIV. - Hiri-eratzterik ederrenaz, esan nuen, eta gizonik ederrenaz aritzea dateke geratzen zaiguna, tiraniaz eta tiranoaz.

-Guztiz benetan, esan zuen.

-Ea, bada, ene lagun maite, zein eratan sortzen ote da tirania? Ezen, ia argi dago demokratiatik aldatzen dela.

-Argi dago.

-Ez ote da, ausaz, era berdinean oligarkiatik demokratia sortzen eta demokratiatik ere, (b) tirania?

-Nola?

-Oligarkiaren egiturabidetzat aurrez onartu genuen hori, aberastasuna zen, ezta?

-Bai.

-Aberastasunaren ase ezinak, bada, eta irabaztearren gainerako gauza guztien ardura ezak hondatu zuen oligarkia<sup>23</sup>.

-Egia, esan zuen.

-Ez ote da, bada, ausaz, demokratiak ontzat mugatzen duenaren ase ezinak bera ere ezereztzen duena?

-Zer mugatzen duela diozu?

-Askatasuna, esan nuen; ziur asko demokratiapean dagoen hiri batean entzun zenezake haxe, (c) gauzarik ederrena askatasuna dela, eta horregatik, ez duela merezi bizitzea horrelako hiri batean baino, berez aske den gizasemeak.

-Erabiltzen da, bai, esan zuen, esatera hori, eta sarritan.

-Baina, esan nuen, eta oraintxe esatera nindoana, askatasun ase ezinak eta gainerako gauzen ardura ezak ez ote du, ausaz, hiri-eratzte honen aldatu beharra egiten, eta tiraniaren premia prestatzen?

-Nola? esan zuen.

-Ene ustez, demokratiapean dagoen hiri bat askatasun-egarri delarik aurrean ardo-emaile txarrak izatea suerta dakiokenean, (d) eta behar den baino gehiago nahastu gabeko ardo hutsez mozortzen denean, agintariak guztiz bigunak ez badira behintzat, eta askatasun gehiago eman ez badiezaio, gaizkile eta oligarkiko direla salaturik zigortzen dituela.

-Horixe egiten dute, bai, esan zuen.

-Eta agintariei men egiten dietenak, esan nuen, iraintzen ditu gogozko jopu balira bezala eta ezer ez diren bezala, eta agintariak agindupekoen antzeko direnean eta agintarien antzeko agindupekoak, ixilean zein agerian, gorai patzen ditu eta dedu izaten die. Ez ote da, bada, ausaz, ezinbestekoa horrelako (e) hiri batean askatasunaren arazoa edonora zabaltzea?

-Nola ez, bada?

-Eta, esan nuen, ene adiskide, anarkia bakoitzaren etxeetan sartu eta azkenean abereetaraino isuriko da.

-Nola, esan zuen, ulertu behar dugu hori?

-Honela, esan nuen; alde batetik, aita semea bezalakoa izaten ohitzea eta umeei beldur die, eta bestetik semeak aitari eta gurasoei, aske izatearren, ez die ez dedurik ez beldurrik; eta metekoa 563. hirikoarekin eta hirikoa metekoarekin berdintzen da, eta atzerritarra beste hainbeste.

-Halaxe gertatzen da, bai, esan zuen.

-Hauek, esan nuen, eta beste txikikeria batzuk ere gertatzen dira. Horrelako hiri batean irakasleak ikasleei beldur izaten die eta zurikatu egiten ditu, eta ikasleek gutxitzat dauzkate irakasleak eta sein-zainak ere berdin; eta gehienbatean gazteak zaharren pare jartzen dira, eta hitzez eta egitez haien lehian, eta agureak, gazteei amore eginez, umore onez eta esaera barregarritz (b) betetzen dira, gazteak idurieratuz, gorrotagarri eta despotiko-itxura ez izatearren.

-Bete-betea, bada, esan zuen.

-Eta, benetan, esan nuen, ene adiskide, honelako hirian, jendeak duen askatasunaren azkena, diruz erosiak izan diren gizonezko zein andrazkoek, erosleek baino askatasun gutxiago ez dutenean gertatzen da. Bestalde, andre-gizonen artean zenbaterainoko berdintasuna eta askatasuna dagoen esatea ia ahaztu egin zaigu.

-Ez ote dugu, bada, esan zuen, Aiskhylosen arabera (c) "orain ahora datorkiguna"<sup>24</sup> esango"?

-Bai horixe, esan nuen, eta nik neuk haxe diot: inork, ikusi barik, ezin lezake sinets hiri horretan beste inon baino zenbat askeago diren gizakien menpe dauden abereak; esaeraren arabera, bada, txakurreak, gehiago gabe, euren etxandreak bezalakoxeak bihurtzen dira, eta zaldi eta astoak ere, askatasun eta harrokeria guztiarekin ibiltzen ohitzen dira, eta bideetan aurki lezaketan edonori, bere bidetik bazterrera ez badadi, eraso egiten diote beti, eta gainerako gauza guztiak ere berdin (d) betetzen dira askatasunez.

-Benetan, esan zuen, nire ametsa bera esaten ari zara, ezen, landara noanean sarritan berdin gertatzen zait eta.

-Eta, esan nuen, gauza guztion azken bilduma bezala, ez ote zara konturatu nola herritarren arima, inork edozein lotura jar liezaionean, haserretzeraino eta matxinatzeraino biguntzen den? Beharbada, badakizu idatziriko zein idatzi gabeko legeez arduragabe izaten amaitzen dutela, inondik inora ezelako jaberik (e) ez izatearren.

-Eta jakin ere, esan zuen, nola dakidan!

XV. - Haxe da, bada, beraz, esan nuen, ene adiskide, nire ustez tirania sortzen deneko hasiera polit eta ausarta.

-Ausarta, benetan, esan zuen; baina zer da ondoren datorrena?

-Oligarkian, esan nuen, sorturik, bera hondatu zuen gaixotasun berberak, honetantxe ere dagoen askatasunagatik, handiago eta indartsuago bihurturik, demokratia jopu bihurtzen du. Eta, benetan, edozer gauzarekiko gehiegikeriak, alderantzizko aldaketa-erantzunera jotzen du, urtarotetan, zein 564. landareetan, zein gorputzetan, eta ez gutxiago hiri-eratzetan ere.

-Bidezkoa da, esan zuen.

-Badirudi gehiegizko askatasuna ez dela gehiegizko joputzara baino aldatzen, gizabanakoarentzat zein hiriarentzat.

-Bidezkoa da.

-Bidezkoa da, beraz, esan nuen, tirania beste hiri-eratzetik ez jartzea demokratiatik baino; joputzarik handiena eta basatiena, uste dut, askatasun handienetik datorrela.

-Arrazoia duzu, esan zuen.

-Baina ez dut uste, esan nuen, hori itauntzen duzunik, oligarkian (b) sortzen den gaixotasuna eta demokratian hiria joputzan jartzen duena zein den baino.

-Egia diozu, esan zuen.

-Giza kasta basati eta gastatzaile hartaz ari nintzen, bada, esan nuen: hauetako bata, adoretsuena, gidari zen; bestea, koldarrena, jarraitzaile. Hauek erlamandoekin parekatzen genituen; batzuk eztendunak ziren; besteak, aldiz, eztengabeak.

-Eta zuzen benetan, esan zuen.

-Kasta bikoitz honek, bada, esan nuen, edozein hiri-eratzetan sortzen denez, gorroak eta behazunak gorputzean ohi dutenez, zalaparta dakar; (c) hauei, sendagile onak eta hiriko legegileak, aldeztu aurretik, erlazain zuhurrak baino gutxiago ez diete aurre hartu behar, batez ere, sor ez daitezen, eta, sor balitez, ahalik lasterren euren abaraskekin batera moztuak izan daitezken.

-Bai, Zeusarren, esan zuen, guztiz benetan, bada,

-Era horretan, bada, esan nuen, har dezagun nahi duguna argiago ikus dezagun.

-Nola?

-Egon ere horrela dagoenez, demokratiapen dagoen hiria bana dezagun burutapenez hiru sailetan. Bertan askatasunaren eraginez sortzen den bata, (d) ez da txikiago oligarkian sortzen dena baino.

-Halaxe da.

-Baina han baino hemen benetan garrantzago da.

-Nola?

-Han, oligarkian aintzat ez dutelako eta aginteetatik urrun daukatelako ezjakin eta errime gabeko da, baina demokratian bera da bertan agintzen duena, gutxi batzuk izan ezik, eta bere alderik garrantzua da hitzegiten eta ekintzan dabilena, eta besteak haren maila inguruan jarriko zarata batean dihardu, eta ez du jasaten besterik (e) dioena; beraz, gauza guztiak horrelako gizonek zuzentzen dituzte horrelako hiri-eratzetan, gutxi batzuk izan ezik.

-Bai horixe, esan zuen.

-Bada besterik gehiengoagandik beti nabarmentzen dena.

-Zein?

-Denak, beharbada, aberasten ibili arren, izaeraz eratsuenak egiten dira gehienetan aberatsen.

-Bidezkoa.

-Hortik, uste dut, erlamandoek ezirik gehien eta errazen ateratzen dutela.

-Gutxi daukatenengandik, bada, esan zuen, nola atera lezake inork?

-Ene ustez, honelako aberatsei, erlamando-belar deitzen diete.

-Horrelakoren bat, esan zuen.

XVI. - Eta herria dateke 565. hirugarren saila, bere eskulanez bizi diren guztiak, politikatik urrun daudenak, gauza askorik ez daukatenak. Demokratian sail ugariena eta indartsuena da batzarrean elkartzen dena.

-Halaxe da izan, esan zuen, baina sarritan ez du nahi izaten hori egiterik ezti-apurren bat jaso ezik.

-Beraz, esan nuen, buruzagiek beti jasotzen dute ahal duten neurrian, aberatsei kenduz herriari banatzeko, gehienarekin eurak geratu arren.

-Horrelaxe hartzen du, bai, (b) esan zuen.

-Eta kenketa jasan izan dutenak beharturik daude neure ustez, herriaren aurrean hitzeginez eta ahal duten guztia eginez euren buruak babestera.

-Nola ez, bada?

-Eta iraultzarik egiterik nahi ez duten arren, gainerakoek herriaren aurka azpijokoan balebiltza bezala eta oligarkiko batzuk direla salatzen dituzte.

-Zer, bada?

-Beraz, azkenean, herria ikusten dutenean, ez bere borondatez, ezjakinean eta iruzur-egileez iruzurtua baizik (c) kalte egitera doakiela, orduantxe, nahi edo nahi ez, benetan oligarkiko bihurtzen dira, ez gogoz, erlamando haiexek gaitz hori eztenaz sartzen dietelako baino.

-Oso-osoan, bada.

-Eta elkarren arteko salaketa, auzi, eta borrokak sortzen dira.

-Bai horixe.

-Ez ote du, bada, herriak beti bakar bat bereziki bere buruzagitzarako jartzen, hazten eta handi egiten?

-Ohi du, bai.

-Zalantzarik gabe, bada, esan nuen, (d) hauxe dago argi, tirano bat sortzen denean, buruzagitzaeren errotik eta ez beste inondik ez dela ernetzen.

-Guztiz argi dago.

-Zein da, bada, buruzagitzaatik tirano izaterainoko aldaketaren hasiera? Ala ez ote dago argi buruzagia, elezahar edo mitoan Arkadiako Zeus Lykaiarraren eleizakoari buruz esaten dena egiten hasten denean hasten dela?

-Zer? esan zuen.

-Nola zalantzarik gabe, giza erraiak gainerako beste oparienekin batera txikiturik dastatzen dituenak derrigorrezko duen (e) otso bihurtzea; ala ez duzu entzun kontakizun hori?

-Nik neuk, bai.

-Ez ote da, bada, berdin herriko buruzagiak, jendetza guztiz bere esanera harturik, bere senideen odolari barkatzen ez dionean, alderantziz baino: bidegabekeriaz salatuz, sarri gertatzen denez, auzitegietara eramanez, gizonaren bizia desagerraraziz, eta bere mihi eta aho dongeaz senideen heriotza dastatuz, odolez lohitzen denean, eta erbesteratzen eta hiltzen dituenean 566. eta zorren barkamena eta lurren banaketa iragarten duenean, honen ondoren, ez ote da honelakoarentzat derrigorrezko zoria, bere burua arerioen esku galtzea, edo tirano bihurtzea, edo gizon izatetik otso bihurtzea?

-Guztiz derrigorrezkoa, esan zuen.

-Horrelakoxea, bada, esan nuen, bihurtzen da aberastasunak dauzkatenen aurka matxinatzen dena.

-Horrelakoxea.

-Ausaz, bada, atzerriratua izanik eta arerioak nahi ez arren datorrenean, ez ote da egin-egineko tirano eginik etortzen?

-Argi dago.

-Eta kanpora botatzeko, edo hiria bere aurka jarriarik, (b) hiltzeko gai ez balira, azpijokoan ibiliko dira ezkutuan heriotza zakarrez hiltzearren.

-Gutxienez, hala gertatzen da, esan zuen.

-Horrelakoan, horrelako egoerara heldu diren guztiek tiranoen eskabide ospetsua aurkitzen dute: herriari, bere laguntzailea salbo izan dakien, bizkar-zain batzuk eskatzea.



-Bai horixe, esan zuen.

-Eta uste dut eman ere eman egiten dizkiotela harengatik beldur izanez, euren buruak, aldiz, ziur somatu arren.

-Bai horixe. (c)

-Beraz hori ikusten duenean aberastasunak dauzkan gizonak, eta aberastasunengatik herri-gorrotatzaile dela leporatzen diotenean, orduan, bada, hori, ene lagun, Kroisosi eginiko iragarpenaren arabera,

Hermon harritsuan zehar ihesi doa, aurre egin

barik, ezta ez du lotsarik koldar izaten<sup>25</sup>.

-Izan ere, esan zuen, ez lezake lotsarik izan bigarren aldiz.

-Uste dut, esan nuen, harrapatua bada, heriotzaratua izango dela.

-Derrigor.

-Eta argi dago baita ere, buruzagi horixe bera ez dela "handitasunaren handiz" (d) zerraldo geratzen<sup>26</sup>, beste asko goitik behera jaurtikirik, herriko organ jartzen dela baino, buruzagitzatik tirano izaten amaiturik.

-Eta nola ez da izango, bada? esan zuen.

XVII. - Azalduko al dugu, bada, esan nuen, gizonaren eta honelako gizakia sor daitekeen hiriaren zoriona?

-Bai horixe, esan zuen, azal dezagun.

-Ez ote du hark, ausaz, lehenengotan eta lehenengo egunetan aurkitzea suerta lekizkiokkeen guztiei irribarre egiten eta agurtzen, eta ez ote du tirano (e) dela ere ukatzen, eta bakarka eta jendaurrean gauza asko agintzen, zorretatik askatzen, eta hiriari eta bere inguruan dabiltzanei lurrak banatzen, eta denentzat abegi oneko eta otzan denaren itxurak egiten?

-Beharrezko, esan zuen.

-Eta benetan, ene ustez, kanpoko arerioei buruz, batzuk adiskidetzen dituenen eta besteak suntsitzen, eta haien aldetik bakea egiten denean, berehala gudu batzuk eragiten ditu beti, herria zuzendari baten premian izan dadin.

-Bidezkoa da, benetan,

-567. Eta zergak ordainduz behartsu bihurturik egunerokoaren beharrean egon daitezen eta bere aurka azpijanean gutxiago ibil daitezen, ez ote?

-Argi dago.

-Eta nire ustez, batzuk izaera askedunak izanik ez diotela agintzen utziko benetan susma baleza, ez ote lezake horrelakoak suntsitzeko aitzakirik izan, arerioen esku jarriaz? Ez ote dago guzti hauengatik tiranoa gudu eragiteko beharrezkian?

-Derrigor.

-Eta gauza hauek eginik, ez ote da, benetan, gorrotagarriago egiten (b) hiriarentzat?

-Nola ez, bada?

-Eta goian jartzen lagundu dioten batzuek eta boterean dauden batzuek ez ote dute, bada, askatasun guztiarekin hitzegingo bere aurrean eta euren artean, gertatzen diren gauzak gaitzetsiz, adoretuen izatea suerta litezkeenek, behintzat?

-Bidezkoa da, benetan.

-Eta tiranoak, agindu behar badu, lagunak zein arerioen artean ganorako bat bera ere ez uzteraino, denak aldentu beharko ditu.

-Argi dago.

-Zorrotz ikusi beharko du nor den adoretu, nor bihotz handiko, (c) zein zentzudun, eta zein aberats; eta hain zorioneko da, non, nahitanahiez, hiria garbitzerainoko azpijokoz, guztion arerio bihurtzea beharrezko izango duen.

-Garbiketa ederra, benetan, esan zuen.

-Bai, esan nuen, osagileek gorputzekin egiten dutenaren osterantzekoa: hauek txarrena kendurik onena uzten dute, besteak, aldiz, alderantziz.

-Eta dirudienez, beharrezko du, aginduko badu.

XVIII. - Gorrotatzen badute ere, esan nuen, jende bilauaren artean bizitzera, edota ez bizitzera behartzen duen zorioneko halabeharrean kateaturik dago. (d)

-Horrelakoxean, esan zuen.

-Eta, horrelako gauzak eginik, hiritarrentzat zenbat eta gorrotagarriago egiten den, ez ote du, ausaz, hainbat eta zaintzaile armatu gehiago eta leialago behar izango?

-Nola ez, bada?

-Zeintzuk ote dira, bada, leialok? Nondik ekarriko ote ditu?

-Berez, esan zuen, hegaz etorriko zaizkio, soldatarik ematen badie.

-Txakurratik! Uste dut, esan nuen, atzerriko eta edonondik datozen erlamandoez ari zarela. (e)

-Egia uste duzu, esan zuen.

-Zer, bada? Bertakorik ez ote lezake nahi?

-Nola?

-Bere zaintzaileetariko egitearren, hiritarrei jopuak kendu eta askatuz.

-Zalantzarik gabe, esan zuen, hauexek ditu leialen.

-Hara nolako gauza zorionekoa tiranoei buruz diozun, esan nuen, lagun bezala eta 568. gizon leial bezala honelakoekin baliatu behar badu, lehenengo haiek galduz.

-Benetan baina, esan zuen, honelakoekin baliatzen da.

-Eta, esan nuen, hauek lagun hauek ederresten ote dute, eta hiritar berri hauek berarekin ote ditu, zentzudunek gorrotatzen eta ihes egiten dioten bitartean?

-Eta nola ez dira izango, bada?

-Ez da uste, ez, arrazoirik gabe, esan nuen, tragedia guztiz jakintsu dela, eta horretan, batez ere, Euripides nabarmentzen dela.

-Zergatik, bada?

-Adimen zuhurrarena den hau ere esatera aurreratu baitzen, nola "tiranoak jakintsu" (b) diren "jakintsuen artean bizi direlako"; eta argi dago, harekin bizi ziren jakintsuak horiek zirela esaten zuela.

-Eta, esan zuen, bai berak eta gainerako poetek ere, benetan jainkoen pareko<sup>27</sup> ederresten dute tirania, eta beste gauza asko esaten dute.

-Horregatik, esan nuen, tragedi poetak jakintsu direnez, guri eta hurreko politika daramaten beste guztiei barkatuko digute gure hiri-eratzeari tirania goresten dutelako onartzen ez baditugu.

-Nik uste dut, esan zuen, barkatuko digutela, (c) euren artean zentzuzko diren guztiek, behintzat.

-Benetan, ene ustez, beste hiri-inguruetara joanik, jendetzak bildu eta ahots eder, ozen eta liluragarriak alokatu ondoren, tiranietara eta demokratietara bultzatzen dituzte gobernuak.

-Zeharo benetan.

-Eta gainera, eurengandik saria hartzen dute eta ohoretuak izaten dira, batez ere, berezko denez, tiranoen aldetik lehenengo, eta gero demokratiaren aldetik; eta zenbat eta gorago igotzen diren hiria eratzeke aldapan, hainbat eta gehiago agortzen zaie (d) ohorea, arnasestuka ibili ezinik dagoenaren antzera.

-Guztiz, bada.

XIX. - Baina oraingo honetan, bada, esan nuen, bidetik aldendu gara. Esan dezagun, lehengora etorritik, tiranoaren gudaroste eder, ugari, koloretsu, eta inoiz bera ez dena nondik mantenduko duen.

-Argi dago, esan zuen, hirian ondasun sakraturik egon badadi, hauek eralkiko dituela, eta saldurikoez nahiko datekeenean zerga txikiagoak ordaintzera behartuko duela hiria.

-(e) Eta zer horrelakorik falta dakiokenean?

-Argi dago, esan zuen, aitarenetatik mantenduko direla bera, bere mahaikideak, lagunak eta hetairak ere.

-Ulertzen dut, esan nuen, tiranoa sortu duen herriak, bera eta bere lagunak mantenduko dituela.

-Guztiz beharrezko du, esan zuen.

-Nola diozu? esan nuen. Herriak haserretu eta esan baleza ez dela bidezko, bere lora-loran dagoen gaztea aita mantentzea, alderantziz, semeak aita mantendu behar duela baino, ezta ez zuela sortu 569. eta dagoen lekuan jarri, handi eginikoan, berak, haren zerbitzarien zerbitzari bihurturik, semea eta honen zerbitzariak, gainerako tropelarekin batera mantentzeko, aldiz, haren buruzagitzapean, aberatsengandik eta hirian eder eta on deritzanengandik aske izateko baino, eta oraingoan semeari eta bere lagunei hiritik alde egiteko agindu baliezaie, aita etxetik semea eta bere mahaikide gogaikarriak jaurtikitzen dituen antzera?

-Orduan, Zeusarren, esan zuen, herriak benetan jakingo du (b) berak nolako izanik, nolako kumea sortu, maite, eta garatu duen, eta nola ahulago izanik indartsuago batzuk kanporatu nahi dituen.

-Nola diozu? esan nuen. Ausartuko ote da tiranoa aitari gogor egiten, eta, menera ez baletor, jotzen?

-Bai, esan zuen, iskiluak kendu eta gero.

-Tiranoari, esan nuen, guraso-hiltzaile eta zahar-mantentzaile gaizto esaten diozu, eta, dirudienez, jadanik hau tirania litzakeenaz adostasuna dago eta, esaten denez, herria, gizon askeen joputzaren ketik ihes egin arren, jopuen indarpeko sutara (c) jausiko litzateke, lehengo askatasun handi eta desegoki haren ordeztu, jopuen joputza gogorrez eta garrantzez jantziberritzen delarik.

-Bai horixe, esan zuen, horrelaxe gertatzen dira gauzak.

-Zer bada? esan nuen. Ez ote gintezke neurritik irten, tirania nola demokratiatik sortzen den eta sorturikoan nolakoa den nahiko ondo azaldu dugula esan bageneza?

-Oso ondo azaldu da, esan zuen.

## IX

571. I. - Gizon tiranikoa bera, bada, esan nuen, aztertzea geratzen zaigu; nola demokratikotik aldatzen den, sorturikoan nolakoa den, eta zein eratan bizi den, zoritxarreko ala zoriontsu.

-Bai, horixe geratzen zaigu ondino, esan zuen.

-Ba al dakizu, bada, esan nuen, zerk irrikatzen nauen oraindik?

-Zerk?

-Grinei buruzko arazoa; grinak nolakoak eta zenbat diren ez dut uste behar beste aztertu dugunik; eta hori egin ezik, (b) egiten ari garen azterketa ilunago geratuko da.

-Ez ote gaude bada, esan zuen, ondino garaiz?

-Bai horixe; begira nahikerietan benetan ikusi nahi dudana, haxe da eta. Uste dut beharrezko ez diren atsegin eta grinaren artetik batzuk legez kontrakoak direla; eta baliteke, alde batetik, edozeinengan sortzea, baina bestetik legeen eta arrazoiaren bidez grina hobeagoez menderatzen badira gizon batzuegandik zeharo aldentzen dira, edo indargeturik, gutxi batzuk baino ez dira geratzen; beste gizon batzuegan, aldiz, indartsuago eta (c) ugariago egiten dira.

-Eta zeintzuk dira, bada, esan zuen, aipatzen dituzunok?

-Ametsaren inguruan, esan nuen, iratzartzen direnak: alde batetik arimako beste alde arrazoitsu, baketsu eta gainerako gain agintzen duena lo dagoenean, eta bestetik, arimako alde basati eta ankerra, janariz edo edariz goraino aseturik jauzika hasten denean, eta ametsa kanpora jaurtikiaz alde egin eta bere joerak asetzearen bila dabilenean. Eta jakin badakizu, egoera horretan edozer egiten ausartzen dela, lotsakizun eta zentzutasun guztietatik askaturik eta urrundurik balego bezala; inolako zalantzarik ez dauka, uste badu, bere amarekin (d) zein beste edozein gizonezko, jainkozko, zein aberezkorekin etzatera ahalegintzeko<sup>1</sup>, edozeinen odolarekin zikintzeko, inolako janariri uko ez egiteko; hitz batean, inolako zorakeria zein lotsagabekeria atzean ez uzteko.

-Egiarik handienak, esan zuen, diozuz.

-Baina, neure ustez, inor bere buruarekin osasuntsu eta neurriko denean eta bere alde arrazoitsua bere baitan iratzarririk eta hitz eta burutapen ederrez elikaturik lotara doanean, eta bera berekiko gogoetara heldu ondoren, bere irrikazko aldea (e) utzi duenean, ez beharrik ez aserik, lo egin dezan, eta bere alde 572. hoberena, pozturik edo goibeldurik, artega jar ez dadin, aitzitik, izan diren, diren eta izango direnetatik ezagutzen ez duena, soilik, bera den bere hutsean aztertu eta ulertu nahi izan dezan; eta bere alde kementsua berdin bareturik eta inoren kontrako haserrearekin bere gogo urduri jarri gabe, aitzitik, alde biok

baketurik, lo dagikeenean, eta hirugarrena, non zentzumena sortzen den, zuzpurturik horrelaxe atsedean hartzen duenean, badakizu jakin, egoera horretan lortzen dela hobekien egia, eta orduan agertzen direla (b) gutxien, bidegabeko bezala, amets-  
-ikuskitunak.

-Zeharo, bada, esan zuen, berdin uste dut.

-Baina, gauza hauek azaltzean gehiegi aldendu gara; hauxe da jakin nahi izan duguna, nola bakoitzaren barruan zerbait beldurgarri, basati, eta legez kontrakoa den nahikeri mota bat dagoen, eta guztiz neurriko uste ditugun gizakiengan ere, eta hori, bada, ametsetan argi agertzen dela. Begira ezazu, bada, zerbait diodan uste duzun eta bat zatozen.

-Bai, bat nator.

II. - Gogora ezazu, bada, gizon demokratikoa nolakoa zela esaten genuen<sup>2</sup>. (c) Nonbait jaio ondoren, diru-grinak bakarrik estimatzen eta beharrezko ez zirenak, jolaserako eta apainkeriarako baino sortzen ez zirenak, gaitzesten zituen aita aurreztaile batek hazi zuen umetatik. Ala zer?

-Bai.

-Eta gizon zuhurragekin eta lehentxeago azaltzen genituen grinez beterikoekin elkaturik, eta lasaikeriara eta haien izaera guztietara oldarturik, aitaren lukurreria gorrotatzen du; baina bera hondatzen dutenek baino izaera hobea izanik, alde biotatik erakarria izanik, (d) izaera bien artean geratzen da, eta neurriz, bada, uste duenez, biotatik dastaturik, narrasa eta le-

gez kontrako ez den bizitza darama, oligarkiko izatetik demokratiko<sup>3</sup> bihurturik.

-Horixe zen eta izan ere da, esan zuen, horrelakoari buruzko eritzia.

-Dagizula, bada, esan nuen, honezkero honako hau zaharturik, bere semea ere, bere garaian haren ekanduetan hazia dela.

-Badagit.

-Egizu, bada, bere aitari gertaturiko gauza berdin haiexek berari ere gertatzen zaizkiola, eta eramaleek guztizko askatasun deitzen dioten edonolako lasaikeriara eramana dela, (e) eta bere aitak eta gainerako etxeok erdian dauden nahikeriei laguntzen dietela, eta besteek, aldiz, osterantzekoei. Suposa ezazu, bestalde, beldurgarritzko azti eta tiranogileok gaztea ez dutela bestela menderatuko uste izatean, alferrak diren eta prestaturiko gauzen banatzaile 573. diren grinen buruzagi, hegadun erlamando<sup>4</sup> tzar arteziaz halako maitemin bat ezarten diotela barnean... ala zer besterik dela uste duzu honakoen maitemina?

-Nik neuk ezer ez, esan zuen, horixe baino.

-Beraz, gainerako grinak haren inguruan burrunba batean ibilirik, usain gozoz, gantzuz, koroez, ardoz, eta horrelako lagunarteetan nasai dabiltzan atseginez beterik, erlamandoa ezin gehiago handi egiten eta hazten dutenean, eta irrikamenaren eztena sartzen diotenean, orduan, zorakerian babestu eta sutu



egiten da, (b) eta arimako buruzagi jartzen da, eta beregan onuragarritzat uste direnetariko eritzi edo oraindik eratsu diren nahikera batzuk aurki balitza, hil eta beragandik kanpora jaurtikitzen ditu, neurritasunetik garbitu eta ekarririko zorakeriaz gainezka egin arteino.

-Bete-betea, esan zuen, gizon tiranikoaren sorrera azaldu duzu.

-Ez ote diote, bada horregatik, esan nuen, aspalditik Eros-i tirano deitzen?

-Baliteke, esan zuen.

-Mozkortiak ere ez ote du, bada, esan nuen, ene adiskide, tiranoaren jaiduraren bat? (c)

-Badauka, bai.

-Eta baita gizon zoroa eta artekatua ere ahalegintzen da eta uste du gizonetan ez ezik jainkoetan ere agintzeko gai dela.

-Bai horixe, esan zuen.

-Gizona, bada, esan nuen, egin-eginekoko tirano bihurtzen da, ene harrigarri hori, bere izaeragatik, bizimoduengatik, edo biongatik, mozkorti, maitemindu eta gozagaitz egiten denean.

-Oso-osoan, bada.

III. - Honako gizon hau ere, dirudienek, bada, horrelaxe sortzen da; baina nola bizi ote da?

-Ume-jokoetan bezala, esan zuen, hori ere (d) zeuk esan beharko didazu.

-Banoa bada, esatera, esan nuen. Horren ondoren, ene ustez, jaiak, oturuntzak, ospakizunak, hetairak, eta antzeko guztiak etorriko dira, halakoen barruan Eros tiranoak egoitza jarriarik, arimako alde guztiak gobernatuz.

-Derrigorrez, esan zuen.

-Ez ote dira, bada, egunero eta gauero grina ugari eta beldurgarriak<sup>5</sup> garatzen, gauza asko eskatuz?

-Ugari, benetan.

-Eta eduki litezkeen etekinak berehalako batean eraltzen dira.

-Eta nola ez?

-Eta honen ondoren (e) maileguak eskatzea dator eta ondasunen hondamena.

-Zer, bada?

-Eta ezer geratzen ez denean, ez ote da, ausaz, derrigorrezko, habia batean bezala dauden grina elkarganatu eta guztiz babestuak txilioka hastea; eta halako gizonen, gainerako grinen eztenkadek bezala eta bereziki lantzari babesleen gisako beste grina guztien zuzendari den Erosek erasoturik, miztoa zorroztea eta iruzurrez 574. edo indarrez<sup>6</sup> ken dakiokenik nork zer duen begiratzea?

-Zalantzarik gabe, esan zuen.

-Beharrezko gertatzen da bada, edonondik gauzak eskuratzea edo larrialdi eta neke handiak jasatea.

-Beharrezko.

-Ez ote da, bada, ausaz, beragan sortu berri diren atseginak aintzinakoak baino gehiago izanik hauei bereak kentzen dizkieten bezala, honako gizakume hau ere, gazteago den arren, aita eta ama baino gehiago izanik, bere partea honda baleza, gurasoena beretzat banatuz, hauei berdin kenduko diela?

-Zer bestela? esan zuen.

-Eta utz ez badiezaiote, ez ote liteke, ausaz, (b) ahalegin, gurasoei iruzur eginik, ebasten?

-Era guztietara.

-Eta ezin baleza, ondoren, ez ote liezaieke indarrez ken?

-Baietz uste dut, esan zuen.

-Eta agure-atsoak, ene harrigarri hori, eutsi eta aurre egin baliezaiote, atzera egin ote lezake eta tiranoei dagokiena egin gabe utzi?

-Nik neuk, esan zuen, horrelakoaren gurasoei buruz ez nuke uste handirik izango.

-Baina, ene Adeimantos, Zeusarren, uste al duzu horrelakoak oraintsuko neskalagun eta beharrezko ez duen hetaira batengatik, bere aspaldiko lagun (c) eta beharrezko amari, edo azken orduko gaztelagun lirain eta beharrezko ez duen batengatik, bere sasoia joan zaion eta beharrezko duen aita nagusiari eta lagunik zaharren duenari, zigorkadak eman liezaizkiokeenik, eta, etxe berera eraman balitza, hauek haien menpe morroi jar litzakeenik?

-Bai, Zeusarren, esan zuen.

-Zorion ederra dirudi benetan seme tiraniko bat izateak, esan nuen.

-Bai, benetan, esan zuen.

-Zer, bada? Honelakoari aitaren eta amaren (d) ondasunik gera ez dakiokeenean, eta beragan atseginen erle-multzoa are gehiago bil dakiokeenean, ez ote da lehengo, edozeinen etxeko horman eskuak jartzen hasiko, edo gauean berandu dabilen baten jantzian, eta ondoren ez ote da elizaren bat garbitzen hasiko? Eta arazo guzti hauetan, aspalditik, umetatik gauza ederrei eta lotsagarriei buruz zuzentzat zeuzkan eritziak, oraintsu joputzatik askatu berri izan direnek, Erosen babesle izanik, honen laguntzaz menperatuko dituzte. Eritzi haiek, oraindik berak, legeen eta aitaren pean, bere burua demokratiaz gobernaturik zeukala, lotako amets banatuak ziren. (e) Baina, Erosek tiraniapean jarri orduko, ametsetan gutxitan bezalakoa da beti, iratzarririk dagoenean: ez du heriotza beldugarri bat bera ere egin gabe uzten, ez janaririk jan gabe, ezta gaiztakeriarik egin gabe ere 575. Aitzitik, Eros beragan anarkia eta legegabezia osoan tiranikoki biziaz, agintari bakar izanik, tiranoak hiria ohi duen bezala darama berau daukana ausardi orotara, honen bidez bera eta bere inguruko zarata elika ditzan: zenbait, kanpotik, lagunarte txarretik datorren zarata da, beste zenbait, barrendik, bere baitako joerek askatua<sup>7</sup> eta aske utzia. Ala ez ote da hauxe honelakoaren bizitza?

-Hauxe, bada, esan zuen.

-Eta horrelakoak, esan nuen, hirian gutxi izan badaitez, (b) eta gainerako hirikideak neurritsu, hiritik at eginik beste tirano baten babesle izango dira, edo, guduren bat izan badadi, sari truke zerbitzatuko dute; bestalde, bake eta la-

saialdi batean gerta badaitez, haren hirian kaltetxo<sup>8</sup> ugari egingo dute.

-Zeintzuk dira, bada, diozuzen kalteok?

-Adibidez, lapurretan, horma-zulatzen, sakel-mozten, jantzi-ebasten, elizak garbitzen, eta gizonak morroi egiten dihardute. Batzuetan, salaketa ustelak egiten arituko dira hitzegiteko gai izan badaitez, eta lekukotza faltsuak jartzen, eta azpitik erosten ere.

-Benetan, esan zuen, kalte kaxkarrak dira azaltzen dituzunak, (c) horrelako gizonak gutxi batzuk baino izan ez badaitez.

-Izan ere, esan nuen, txikia handiaren arabera da txiki, eta gauza guzti hauek, esaten denez, arean ere ez dira ezer tiranoaren parean, hiriko kalte eta zoritxarraren arabera. Baina hirian horrelakoak ugari direnean, eta beste batzuek ere jarraitzen dietenean, eta euren gehiengoaz konturatzen direnean, orduan, eurak dira, hiriaren zentzugabekeriaren laguntzaz, euren artetik bere arima<sup>9</sup> barnean tiranorik handiena eta (d) eginena izan bide duen hura, tirano egiten dutenak.

-Berez, benetan, esan zuen, tiranikoen datake hori.

-Eta ongi, borondatez amore eman badezate; baina hiriak utz ez baleza, lehen gurasoak zigortzen zituen bezala, berdin, berriro, ahal badeza, aberria zigortuko du, lagun berriak erakarriz eta hauen azpian joputzan eduki eta mantenduko ditu antzinako laguna den amaerria eta Kretarrek dioten aitaerria. Hauxe dateke, bada, honako gizonaren grinaren azkena.

-(e) Horixe bete-betean, benetan, esan zuen.

-Ez ote dira, bada, honako hauek bere bakarrean honelakoxeak agintera heldu baino lehen: lehenengo eta behin, berarekin batu litezkeen guztiak, alegia, bere zurikatzaile izanik, edozein gauzetan zerbitzatzeko gertu daudela, edo eurak berak harenetik zer baiten premian baleude 576. haren oinetan ahozpeztarrik bere etxetiar bailiran edozein itxura egiten ausartzen direla, eta lorturikoan, ordea, arrotz agertuz?

-Zalantzarik gabe.

-Beraz, bizitza osoa inoren lagun izan barik daramate, beti nor baiten despota izanik, edo inoren jopu, izaera tiranikoa inoiz egiazko askatasuna eta laguntasuna dastatu gabekoa delako.

-Zeharo, bada.

-Horrelakoei ez ote diegu zuzen fidagaitza deitzen?

-Nola ez, bada?

-Eta benetan, izaten ahal diren bidegabeenak ere, baldin lehen zuzentasuna zer zenari buruz (b) bat gentozena zuzena bada, behintzat.

-Benetan, bada, zuzena zen, esan zuen.

-Egin dezagun bada, esan nuen, gizon gaiztoenari buruzko laburpena. Eta hori, nolabait ere, iratzarrik, ametsetan azaldu genuen bezalakoa izan daitekeena da.

-Bete-betean, bada.

-Eta horrelakoa sortzen da, beraz, izaera tiranikoa izanik berak bakarrik agindu baleza, eta zenbat eta luzaroago tiranian iraun, hainbat eta gehiago da horrelakoa.

-Derrigorrez, esan zuen Glaukonek hitzaren txanda harturik.

IV. - Eta gaiztoen bezala ager datekeena, esan nuen, ez ote da, ausaz, zoritxarrekoen ere (c) agertuko? Eta denborarik luzeenean eta zorrotzen tiraniaz agindu dezakeena, ez ote da benetan, horixe berau zoritxarrekoen eta denbora luzeagoan gertatuko? Gehiengoak eritzi ugari ditu arazo honi buruz.

-Derrigorrezko da, esan zuen, gauza hauek, gutxienez, horrelaxe izatea.

-Ez ote da egia baita ere, esan nuen, tiraniapean dagoen hiriari buruz, gizon tiranikoa antzeko dela, eta demokratikoa demokratiapean dagoen hiriaren antzeko, eta gainerakoak berdin?

-Zer, bada?

-Bertute eta zorionari buruz hiri hiriarekiko den bezala, ez ote da, bada, berdin gizona gizonarekiko?

-(d) Nola ez, bada?

-Eta bertutearen arabera zer da tiraniapean dagoen hiri, hasieran azaldu genuen bezalako erregez zuzenduriko hiriaren parean?

-Guztiz alderantzizko da, esan zuen: hau hoberena, bestea gaiztoena.

-Ez dut itaunduko, esan nuen, bietatik zein diozun, argi dago eta; baina zorientasunari eta zoritxarriari buruz berdin dela, ala besterik uste al duzu? Ez gaitezen, bada, harritu tiranoari bakarrik, edo bere inguruan izan litezkeen gutxi batzuei begiratur. Aitzitik, beharrezko denez, hiri osoan sartuz aztertu behar da. Hiri guztian barneratur (e) eta guztia ikusiz, honela ager dezakegu gure eritzia.

-Zuzena da, bada, esan zuen, ohartzen duzuna; eta edozeinentzat argi dago, ez dagoela hiri zoritxarrekoagorik tiraniapean dagoena baino, eta zorionekoagorik erregez zuzendua baino.

-Eta, esan nuen, gizonei buruz ere, ohar berdina jarri ditudanean 577. ez ote nengoke ausaz zuzen, hauetaz eritzia eman lezakeena, gizaeran murgildurik, bere adimenez gauzak bereizteko gai den hura dela uste baneza, eta ez dela gai ume batek egiten duenaren antzera, kanpotik begiratur, kanpokoen aurrean tiranoak erabiltzen duen handi-mandikeriaz harriturik geratzen dena, behar hainbat bereizten duena baino? Uste

baneza, bada, guk guztiok horrelakoari entzun behar diogula, erizteko gai den horri eta tiranoaren etxe berean bizi izan denari, eta etxeko arazoetan aldamenean izan duenari, nolakoa den etxeko bakoitzarekin, (b) non tragedietako apaingarri barik biluzen ikusi ahal izaten den, eta areago herriko arazoetan, eta gauza guzti hauek ikusi dituenari ez ote genioke eskatuko esan diezagula tiranoaren zoriona eta zoritxarra gainerakoengana alderatuz nolakoa den?

-Guztiz zuzen, esan zuen, gauza hauez ere ohar bazenitza.

-Nahi al duzu, bada, itxura egin dezagun gu geu garela erizteko gai, honezkero horrelakoarekin suertatu garenez gero, itauntzen dizkiogunak erantzuteko norbait izan dezagun?

-Bai horixe.

V. - Ea, bada, esan nuen, azter ezazu arazoa nirekin batera era honetan. (c) Hiriak eta gizonak daukaten antza gogoan harturik, horrelaxe banan-banan txandaka azterturik, azal itzazu bakoitzari gertatzen zaizkion guztiak.

-Zeintzuk? esan zuen.

-Lehenengo, bada, esan nuen, hiriari buruz ekitearren, tiraniapean dagoenari nola deitzen diozu, aske ala jopu?

-Izan litekeenik eta jopurik handiena, esan zuen.

-Horregatik, benetan jaun eta gizakume askeak ere ikusten dituzu bertan.

-Ikusten ditut, bai, esan zuen, baina horrelako gutxi; esate baterako bere alderik gehiena, oro har, jopu da, ohore barik eta lastimagarri.

-Gizakumea, esan nuen, hiriaren antzeko (d) bada, ez ote da derrigorrezko ere harengan ganora ber-bera izatea, eta bere arima joputzaz eta txikikeriaz gainezka egotea, eta bere alderik bikainena joputzapean izatea, eta txikiena, eskasen eta zoroen dena, agintean jartzea?

-Derrigorrezko, esan zuen.

-Zer, bada? Horrelako arima nolakoa dela esango duzu, jopu ala aske?

-Zalantzarik gabe, jopu.

-Joputzapean eta tiraniapean dagoen hiriak ez ote du, bada, ezelan ere nahi duena egiten?

-Gutxiagorik ere ez, benetan.

-Beraz, tiraniapean dagoen (e) arimak ere oro har esatearren ez du ezelan ere nahi dezakeena egingo, eztenaren indarkeriaz beti kinatu izanik, artegatasunez eta damuz beterik egongo dela baino.

-Nola ez, bada?

-Nolakoa izango ote da derrigorrez tiraniapean dagoen hiria, aberatsa ala behartsua?

-Behartsua.

-Beraz, tiraniazko arima ere, 578. derrigorrez, behartsu eta ase ezina izango da beti.

-Horrelaxe, esan zuen.

-Zer, bada? Ez ote da, ausaz, beharrezko horrelako hiri eta gizakumea beldurrez beterik izatea?

-Guztiz, benetan.

-Eta uste al duzu beste inorengan kexu, antsi, negar, eta oinaze gehiago aurkituko duzunik?

-Ezelan ere ez.

-Eta uste ote zenezake horrelako gauzak beste edozeinengan gehiago izan daitezkeenik nahikeriaz eta grinaz zoraturiko tiraniko horretan baino?

-Nola dateke, bada? esan zuen.

-Uste dut, bada, gauza guzti hauek eta (b) antzeko beste batzuk begiraturik eritzi duzula hirietatik zorigaiztokoen hauxe dela...

-Ez ote dago, bada, zuzen? esan zuen.

-Bai horixe, esan nuen; baina gauza berberei begiraturik zer esan ote zenezake aldiz gizon tiranikoari buruz?

-Beste guztiak baino, esan zuen, askozaz zorigaiztokoen dela.

-Hori, esan nuen, ezelan ere ez diozu zuzen.

-Nola? esan zuen.

-Uste dut, esan nuen, horrelako hori ez dela ezelan ere gehien.

-Zein, bada?

-Beharbada, hori baino beste hau ondino zorigaiztokoago dela uste izango duzu.

-Zein?

-Tiranikoa izanik, (c) esan nuen, gizaki arruntaren bizimodua eraman ez dezakeena; alderantziz, zoriren batek tirano bihurtzeraino zorte txarreko egin bide duena.

-Esanikoetarik, esan zuen, egia diozula igertzen dut.

-Bai, esan nuen, baina honelako gauzak ez dira uste izan behar, era honetako arrazoiz zeharo azertu baino. Izan ere, gure azterketa gauzarik handienari buruz baita: bizitza onari eta txarrari buruz, hain zuzen.

-Guztiz zuzen, esan zuen.

-Begira, bada, ezer diodan. Izan ere, hari buruz azterketa egiterakoan (d) ezaupidea hauetatik hartu behar dela uste dut.

-Zeintzuetatik?

-Hirian guztiz aberats eta jopu asko dauzkan gizabanako bakoitzetik, hauexek dira eta, askoren gain agintean, benetan tiranoen antza daukatenak, agindupekoen kopurua berdina izan ez arren.

-Kopurua ez da berdina, ez.

-Badakizu, bada, honakoak beldur barik bizi direla, eta ez dietela etxekoei beldurrik izaten?

-Zeren beldur dirateke, bada?

-Ezeren ez, esan nuen; baina arrazoia ezagutzen al duzu?

-Bai, hiri osoak horrelako gizabanako bakoitzari laguntza ematen diolako.

-Zuzen (e) diozu, esan nuen. Zer bada? Jainkoren batek berrogeita hamar jopu edo gehiago dauzkan gizon bat, eta bera, bere emazte, eta umeak hiritik harturik gizon aske direnetatik inork laguntzarik eskain ez diezaiokeen eremu batean, gainerako ondasunekin eta zerbitzariekin jar balitza, zer nolako beldurra uste duzu sor liezaiokeela bere buruari, ume eta emazteari buruz, zerbitzarien esku suntsituak izan ote litezkeen?

-Nik neuk, guztitarikoa, uste dut, esan zuen.

-Ez ote legoke 579. honezkero bere jopuetatik batzuk lausengu egitera eta gauza asko agintzera, eta beharizanik gabe askatzera behartua, eta bera ez ote litzateke bere zerbitzarien zurikatzaila bezala agertuko?

-Guztiz beharrezko du, esan zuen, horrelaxe egitea, edo suntsitua izatea.

-Zer gertatuko litzateke, bada, esan nuen, haren inguruan jainko horrek, inork inoren gain agintea jasan ez ezik horrelakoren bat harrapatuz gero zigorrik astunenez astinduko lukeen beste auzokide asko jar balitza?

-Uste dut, esan zuen, ondino (b) guztiz egoera txarrago batean aurkituko litzatekeela inguru guztian arerio baino ez direnez zelaturik dagoelako.

-Ez ote dago, bada, gizon tiranikoa horrelako espetxe batean atxiloturik, izaeraz azaldu dugun bezalakoa izanik edozelango beldur guztiez eta grinez beterik? Eta ez ote da bere arima, benetan berrizale izan arren, kanpora irtetea eta aske direnek nahi izaten dituzten gauza guztiak ikustea hirian debekaturik

daukan bakarra? Eta ez ote da bizi (c) andrazko baten antzera etxean ezkutaturik, eta kanpora irten eta ezer onik ikus lezaketen gainerako hirikideei bekaitz izanik?

-Oso-osoan, bada, esan zuen.

VI. - Beraz, oraintsu zuk zorigaiztokoan eritzi diozun eta bere burua txarto gobernatzen duen gizon tiranikoak kalte hauetatik hainbat uzta gehiago jasoko du; ez bide da, izan ere, gizakume arrunta bezala bizi, aitzitik, halabehar batek tirano izatera eta, bere buruaren jabe izan gabe, besteen buru izaten saiatzera behartzen du, norbait gaixo eta indar gabe, bere etxean geratu beharrean, beste batzuen aurka lehiatzen (d) eta borroka egiten bizitza igarotzera beharturik balego bezala.

-Guztiz berdina da, esan zuen, eta egiaz handienak diozuz, ene Sokrates.

-Ez ote da egia, bada, esan nuen, ene Glaukon, bere zortea zeharo zorigaiztokoa dela, eta tiranian diharduena, zuk zorigaitzen bizi zela zenion baino zorigaitzago bizi dela?

-Zeharo benetan, esan zuen.

-Zalantzarik gabe egiaz, eta sinetsi ez arren, tiranoa da benetan lausengu eta joputza (e) handienen benetako jopua, gizabanako gaiztoenen zurikatzaile, ezelan ere grinak asetzen ez dituen; aitzitik, gauza gehien faltan izaten da; eta norbait bere arima osoa ikusteko gai izan badadi, benetan behartsu agertzen da, eta bere bizitza osoan beldurrez beterik, dardarez eta oinazez gainezka, jaiduraz agintzen dueneko hiriaren antzeko bada. Eta, izan ere, antzeko da, ezta?

-Bai horixe, esan zuen.

-580. Beraz, gauza hauez gain, gizon horri lehenago esaten genituenak gaineratuko dizkiogu oraindik: derrigorrezkoa duela, alegia, bere agintea dela eta, bekaizti, hitz-jale, bidegabe, lagungabeko, donge, txarkeria guztiaren babesle eta mantentzaile ere izatea, eta oraindik lehen baino handiago bihurtzea, eta gauza guzti hauengatik zorigaiztokoena izatea, eta bere lagun hurkoak ere horrelakoxeak egitea.

-Ez dago, esan zuen, bere senean dagoenik inor aurka egingo dizunik.

-Ea, bada, esan nuen, (b) aho batez hautaturiko epaileak ebazten duen bezala, zuk ere orain berdin ebatz ezazu, zure eritziz zein den zorionean lehenengo eta zein bigarren, eta zein beste hurren hurrengo, bost direlarik: errege den gizona, timokratikoa, oligarkikoa, demokratikoa, tiranikoa.

-Baina, esan zuen, ebatzia erraza da, koruak bezala sartu ahala epaitzen ditut bertutean zein gaiztakerian, zorionean zein osterantzekoan ere.

-Sari-ordeko aldarrikatzaile bat hartuko ote dugu, bada, esan nuen, ala neronek aldarrikatuko ote dut Aristonen semeak eman duen epaia, alde batetik bikainena eta zuzenena, (c) dela zoriontsuen, eta hau, bere buruaren errege izanik, erregeen erregea dela, eta bestetik, gaiztoena eta bidegabeena dela zorigaiztokoen eta hori, zortez, bere buruaren tiranorik tiranoena izanik, hiriaren tiranorik handiena dela?

-Aldarrika ezazu, esan zuen.



-Ez ote dut aldarrikatuko gainera, esan nuen, horrelakoxeak direla gizon guztientzat zein jainko guztientzat ezkutuan geratu arren edo ez arren?

-Gehi ezazu, esan zuen.

VII. - Bego, bada, esan nuen, haxe dateke argibide bat guretzat, (d) eta ezertarako balio badeza hona hemen bigarren bat.

-Zein da berau?

-Hiria, esan nuen, hiru alderen arabera banatzen denez gero, berdin hirutan gizabanako bakoitzaren arima ere, eta, deritzadanez, beste argibide bat ere izango da.

-Zein da argibide hori?

-Haxe: aldeok hiru izanik, atseginak ere hiru agertzen zaizkit, bakoitzak bere-berean duen atsegin bana izanik, eta grinak eta aginteak berdin.

-Nola diozu? esan zuen.

-Gure esanaren arabera, bazen alde bat gizonak hartaz ezagutzen zuena, beste bat hartaz kementzen zena, eta bazen hirugarren bat ere, itxura asko zeuzkalako ez geneukan izen (e) egokirik emateko; beragan zeukan handiena eta indartsuena izentzat jarri genion. Eta horri irrikamenarena deitu genion, jateari eta edateari, haragikeriei eta horrelakoei darraizkien beste guztiei buruz daukan jaidura biziagatik; eta diruzaletasuna ere deitu genion, diruen bidez, gehienbat, betetzen direlako 581. horrelako nahikeriak.

-Eta zuzen deitu ere, benetan, esan zuen.

-Eta bere atsegina eta zaletasuna irabazia dela esan begeneza, ez ote ginateke hitz horrekin leku garrantzitsu batean oinarrituko, arimako alde horri buruz ari ginatekeenean argi izan dakigun, eta ez ote genioke zuzen deitzen diruzale eta irabazizale berorri deiturik?

-Niri gutxienez zuzen iduritzen zait esan zuen.

-Zer bada? Ez ote dugu, bada, esaten alde kementsua agintera, garaipenera, eta beti ohoratu izatera zeharo abiatzen eta oldartzen dela?

-(b) Bai horixe.

-Eta garaipenzale eta ohorezale dei bageneza, ala ez ote legoke egoki?

-Egokien, bada.

-Ezagutzen duguneko alde horrezaz edonorentzat argi dago, egia den-denekoxean ezagutzearren jartzen dela beti, eta ez dagoela gutxiago gogoko duenik aberastasunak eta ospea baino.

-Zeharo, benetan.

-Jakinzale eta filosofo deituz, bere izaeraren arabera dei al geniezaioke?

-Nola ez, bada?

-Ez ote da gertatzen, bada, esan nuen, batzuetan honek agintzen duela arimetan (c) eta beste batzuetan beste haiexek?

-Horrelaxe, esan zuen.

-Horregatik esaten ote dugu, bada, lehen hiru giza motak, filosofoa, garaipenzalea, eta lukurreroa direla?

-Egin-eginean, benetan.

-Eta, horrelako gizon bakoitzarengan hiru atsegin-mota?

-Oso-osoan, benetan.

-Ez ote dakizu, bada, esan nuen, horrelako hiru gizonezkoei txandaka bizimodu hauetatik zein den gozatsuena itauntzea nahi bazenio bakoitzak berea gehien goratuko duela? Eta diruzaleak irabaztearen (d) ondoan ohoratu izatearen atseginak ez duela ezer balio, edo jakitearenak, hauetako ezerk dirurik sortzen ez badu?

-Egia, esan zuen.

-Eta ohorezaleak zer? esan nuen. Ez ote du uste bada, aberastasunetatik datorren atsegina zerbait nazkagarritzko dela eta jakitetik datorrena ke eta huskeria, jakiteak osperik ez dakarrelako?

-Halaxe da, esan zuen.

-Eta filosofoari buruz, esan nuen, zer pentsatzen duela uste dezakegu gainerako atseginetaz, egia den bezala ezagutzeak (e) eta beti horrelako zerbaitetan ikasten egoteak duen atseginaren aldean? Ez ote du pentsatzen guztiz urrun daudela atseginetik? Ez ote diete benetan derrigorrezko deituko ez dituelako behar, derrigorrez izan ezik?

-Hori, esan zuen, ondo jakin behar da.

VIII. - Giza mota bakoitzaren atseginak, bada, esan nuen, eta bizitza bera ere eztabaidagai direnez gero, ez ederrago edo lotsagarriago, ezta txarrago edo hobe diren, zein den gozoago eta oinaze gabekoago baino, 582. nola genekike jakin gizabanako hauetatik nork dioen benetako egia?

-Nik neuk, esan zuen, ez daukat asko esatekorik.

-Begira honelaxe, bada: nori dagokio epaitzea ongi epaitu behar dena? Ez ote, esperientziari, adimenari, eta arrazoiari? Ala hauek baino irizpide hoberik egon ote liteke?

-Nola, bada? esan zuen.

-Begira bada: gizonezkook hiru direlarik zein dateke aipatu ditugun atsegin guztiei buruz esperientzia gehiago duena? Egia bera nolakoa den jakiteko, uste al duzu ohorezalea ausaz esperientzia gehiagodun denik (b) jakitearen atseginean, irabaziaren atseginean filosofoa baino?

-Alde handia dago, esan zuen, honek umetatik hasirik beste atseginetatik dastatzea beharrezko izan du eta; lukurreroari, aldiz, diren gauzak izatez nola diren ikastean, hortikako atsegina zein gozo den dastatzea, eta horretan trebe bihurtzea ez zaio derrigorrezko; areago, ez du erraz izango ahalegindu arren ere.

-Alde handia dauka beraz, esan nuen, filosofoak irabazizalearen ondoan atsegin bion esperientzian.

-Handia, (c) bada.

-Eta ohorezalearen parean, zer? Ausaz, esperientzia handiagoko ote da ohoretu izatearen atseginari buruz, bestea arrazoitzearenari buruz baino?

-Baina, esan nuen, bakoitzak hartarako jaidura duen hura burutuz gero, ohoreak guztiei darraizkie -aberatsa askok ohoratzen du, eta berdin gizon adoretu eta jakintsua ere-hala ezen, denok dira ohoratua izatek nolako atsegina datorren esperientzia dutenak; baina izatearen ikuskizuna nolako atsegina den ezin du beste inork dastatu filosofoak izan ezik.

-Esperientziaren arabera (d) beraz, esan nuen, gizon horietatik hobekien epaitzen duena haxe da.

-Askozaz, benetan.

-Eta adimenaren laguntzaz esperientziadun bakarra izatea gertatuko da.

-Zer, bada?

-Epaiketarako den tresna hori ez dagokio irabazizaleari, ez eta ohorezaleari, filosofoari baino.

-Zein?

-Esaten genuen bada, hainbatean, arrazoiaren bidez epaitu behar zela, ala zer?

-Bai.

-Eta batez ere, arrazoiak filosofoaren tresna dira.

-Eta nola ez?

-Beraz, epaitu behar dena aberastasunarekin eta irabaziarekin hobekien epaituko balitz, derrigorrezkoa litzateke irabazizaleak onetsia (e) eta gaitzetsia egirik handienak izatea.

-Askozaz, benetan.

-Baina ohorearekin, garaipenarekin, eta adoretarekin balitz, ez ote lirateke ohorezaleak eta garaipenzaleak esanikoak?

-Argi dago.

-Baina esperientziaz, adimenez, eta arrazoiz egiten bada?

-Ezinbestekoa da, esan zuen, filosofoak, eta arrazoizaleak onartua egirik handiena izatea.

-Atseginak hiru izanik, 583. jakintzaren sorgailu dugun arimako alde horrena ez ote dateke atseginena, eta alde honek beragan agintzen duen gutarikoarena ez ote da bizitzarik atseginena?

-Nola ez da izango, bada? esan zuen. Zalantzarik gabe, zentzudunak, goresle nagusi izanik, bere bizitza goersten du.

-Eta epaile horrek, esan nuen, bigarren mailako bizitza eta atsegina zein dela esango du?

-Argi dago, guduzalearena eta ohorezalearena, irabazizalearena baino hurrago dituelako.

-Dirudienez, irabazizalearena azkenena da.

-Zer, bada? esan zuen.

IX. - Hauexek bada, (b) zalantzarik gabe, elkarren ondoko froga biak dirateke, eta bietan gizon zuzenak bidegabea garaitu du. Hirugarren argibidea olinpikoki, Zeus Salbatzaile Olympiarrarentzat izan bedi; badakusazu besteen atsegina zentzudunarena izan ezik, ez dela guztiz benetakoa, ezta atsegin hutsa, zerbait nabar baino, jakintsu bati entzun niola uste dudanez; benetan horixe dateke atsekaberik handiena eta egin-eginekoena.

-Askozaz, baina nola diozu?

-Horrelaxe aurkituko dut, esan nuen: nik galdetuz (c) batera zuk erantzunez.

-Itaundu, bada, esan zuen.

-Esadazu, esan nuen, oinazea atseginaren osterantzekoa dela ez ote dugu esaten?

-Bai, horixe.

-Ez ote dago baita beste zerbait ere, atseginez zein atsekabez egotea ez denik?

-Badago, bai.

-Bion artean eurei buruz dagoen barealdi antzeko bat? Ala ez dela horrela, diozu?

-Horrelaxe da, esan zuen.

-Ez ote duzu, ausaz, gogoratzen, esan nuen, gaixorik daudenek gaixorik dauden bitartean diotena?

-Zer?

-Ez dagoela ezer atseginagorik osasuna izatea baino, atseginen denik gaixotu aurretik (d) konturatu ez arren.

-Gogoratzen dut, bai.

-Ez ote diozu entzuten baita ere, oinazeren bat daukanari esaten ez dagoela ezer atseginagorik oinazea gelditzea baino?

-Entzuten dut, bai.

-Eta uste dut badakizula baita ere, gizonek honako beste egoera askotan aurkitzen direnean, hauen artean, oinazetan daudenean, gauzarik atseginena bezala, minik ez izatea eta minetako barealdia goستن dutela, eta ez atseginetan izatea.

-Baliteke orduan barealdi hori atsegin eta guragarri gertatzea.

-Eta inor atseginean dagoelarik, esan nuen, amaitzen zaionean (e) atsegin-barealdi hori mingarritzat izango du.

-Berdin bai, esan zuen.

-Beraz, bion artean dagoela oraintsu aipatzen genuen barealdia, beharbada, gauza biak izango da: oinazea eta atsegina.

-Badirudi.

-Eta ez bata ez bestea ez bada, ahalezko ote da biak izatea<sup>10</sup>?

-Ez dut uste.

-Gainera, benetan, ariman atsegina eta oinazea gertatzen direnean, biak higidura baten antzeko dira, ala ez?

-Bai.

-584. Eta oinaze zein atsegin ez dena, ez ote da bada barealdia, eta lehentxeago ez ote zen bion tarteko agertzen?

-Agertzen zen, bai.

-Oinazerik ez izatea atsegin dela ustea, eta atseginean ez izatea mingarri dela nola egon litezke zuzen?

-Ezelan ere ez.

-Ez da beraz horrelaxe, esan nuen, antza duela baino; barealdiak oinazearen ondoan atsegin dirudi, eta atseginaren ondoan oinaze; eta atseginaren egiari buruz, ez dago itxura horietan ezer zentzuzkorik, sorginkeriaren bat baino.

-Gutxienez, esan zuen, hala erakusten du arrazoiak.

-Begira bada atseginei, esan nuen, (b) ez oinazeetatik datozenei, gehiago uste ez dezazun atsegina oinazerik eza, eta oinazea atseginik eza, oraingo honetan hori horrelaxe denik.

-Nola, bada, esan zuen, eta nolakoaz ari zara?

-Asko, bada, eta ugari dira, esan nuen, eta gehienbat aurkituko dituzu usaimenen inguruko atseginak kontutan hartu nahi badituzu: bat-batean sortzen dira horiek ikaragarritzko bizitasunez, aurrez oinazerik izan barik, eta pausatzen direnean ere ez dute oinazerik uzten.

-Gutziz egia, esan zuen.

-Ez dugu sinetsiko, bada, (c) oinazearen alde egitea atsegin hutsa denik, ezta atseginarena oinaze.

-Ez, bada.

-Baina, zalantzarik gabe, esan nuen, gorputzaren bidez ariman zabaldu eta atsegin deiturikoak, ia gehienak eta handienak horien itxurako dira, oinazeetatik aldegitte batzuk.

-Badira, bai.

-Eta itxaropenetik sortzen diren gertakizunekiko susmo on eta mingarriak ez ote dira bada heldu baino lehen era berdineko izango?

-Era berdineko, bai.

X. - Ba al dakizu, bada, esan nuen, nolakoak diren atseginok (d) eta zeren antzik gehien daukaten?

-Zerena? esan zuen.

-Uste al duzu, esan nuen, izaeran zerbait dagoenik goiko, beheko, eta erdiko denik?

-Nik neuk, bai.

-Uste al duzu, bada, behetik inor erdiraino eramana izanez gero, gora eramana dela baino besterik uste izango duenik? Eta erdi horretan egonik eta nondik eramana izan den ikusirik, ez ote du uste izango goian dagoela, benetako goia ikusi barik daukalako?

-Zeusarren, esan zuen, nik ez dut uste horrelakoak besterik eritz lezakeenik.

-Baina, esan nuen, berriro behera ekarria izan baledi, (e) ez ote lezake uste izan, eta arrazoiz uste izan ere, behera ekarria dela?

-Nola ez, bada?

-Gauza guzti hauek ez ote litzaizkioke gertatuko, benetan, goiko, erdiko, eta beheko izatearen ezagutzarik ez daukalako?

-Argi dago.

-Harritu ote zintezke, bada, egia ezagutzen ez dutenek beste gauza askori buruz ere zentzuzko eritzirik ez badaukate, eta atseginari eta oinazeari buruz eta hauen tarteko diren gauzei buruz halako egoeran badaude, non, alde batetik, oinazera eramana direnean egia 585. uste duten eta benetan oinazetzen diren, eta bestetik, oinazetik erdiko egoera horretara eramaten dituztenean, asetasunera eta atseginera heldu direla bizi uste duten, eta margo zuria ez ezagutzearren beltzaren osterantzeko urdina ikusten dutenen antzera, atsegina ezagutzen ez dutelako, oinaze eza oinazearen osterantzekotzat harturik, era berean engainatzen diren?

-Ez, Zeusarren, esan zuen, ez nintzateke harrituko, askoz gehiago, horrelaxe ez balitz.

-Begira bada honaxe, esan nuen. Gosea, egarria, eta antzeko gauzak ez ote dira bada, gorputzari buruzko (b) hutsune antzeko batzuk?

-Zer, bada?

-Eta ezjakintasuna eta zentzubakotasuna ez ote dira, ausaz, arimari buruzko hutsune batzuk?

-Horixe, benetan.

-Eta janaria hartzen duenak eta adimena lortzen duenak ez ote litzake hutsok bete?

-Nola ez, bada?

-Zein da egiazkoago betetasuna, izate gutxiago daukanarena, ala gehiago daukanarena?

-Argi dago, izate gehiago daukanarena dela.

-Eta biotako zein motak uste duzu duela izate hutsetik gehiago: adibidez, gariaren, edariaren, ogitartekoaren, eta gainerako elikadurarenak, ala benetako eritziaren, jakintzaren, adimenaren, (c) eta hitz batean, bertute ororenak? Ebatz ezazu hemen ere: zein uste duzu gehiago dela, beti izaera berean, ezhilkortasunean, eta egian dagoena, eta bera horrelakoxea izan eta horrelakoxean sortzen dena, ala beti desberdintasunean eta hilkortasunean dagoena, eta bera horrelaxe izan eta horrelakoxean sortzen dena?

-Alde handia dauka, esan zuen, beti izaera berean dagoenak.

-Beti desberdin denaren izateak, izatean partaidetza handiagoa ote du jakintzak baino?

-Ezela ere ez.

-Zer, bada? Egiaren partaidetzan?

-Hori ere ez.

-Eta egiaren partaidetza txikiagoa daukanak, ez ote dauka txikiago baita izatean ere?

-Beharrezko.

-Oro har, (d) zainketa-moten artetik, ez ote dauka egiaren eta izatearen partaidetza txikiagoa gorputzari buruzko zainketak arimari buruzkoak baino?

-Askozaz, benetan.

-Eta arimaren aldetik ez al duzu gauza bera uste gorputzari buruz?

-Nik bai.

-Benetako gauzekin gehiago beterik dagoena, eta bera gehiago dena, ez ote da izatez beteago, gutxiago direnekin beterik dagoena baino, eta bera gutxiago dena baino?

-Nola ez, bada?

-Beraz, izaerari doazkion gauzekin betetzea atsegin bada, benetan eta gauza benetakoagoekin gehiago betetzen denak, (e) atsegin benetakoa eta egiazkoagoa izan lezake egiazko atseginetik, eta gutxiago diren gauzetan partaidetza daukanak gutxiago bete liteke benetan eta sendo, eta atsegin fidagaitzago eta egia gutxiagokoan izan lezake parte.

-Gutziz beharrezko, esan zuen.

-Beraz, zentzu eta bertute gabeak jan-edanetan 586. eta antzekoetan beti dabiltzanak, dirudienez, beherantz eta berriro erdirantz eramanak izaten dira, eta horregatik huts eginez doaz bizitzan barrena, eta hori gainditzen ez dutelako ez dute sekula benetako goi horretara begiratu, ezta helduko, ezta benetan izatearekin asetuko; ez dute dastatuko atsegin sendorik eta garbirik, abereen antzera beti beherantz begiraturik, eta lurrerantz eta mahaietarantz makurturik, alez aseturik eta elkarrekin etzanik egongo dira; eta (b) gauza horietatik gehien izatearren, ostikoka eta adarka egiten diote elkarri burdinazko adarrez, eta iskiluez elkar hiltzen dute bere ase ezinez, benetako gauzekin euren benetako izatea eta ontzia betetzen ez dituztelako.

-Egin-eginean, esan zuen Glaukonek, ene Sokrates, gizonik gehien bizitza igerri duzu.

-Ez ote da, bada, ausaz, ezinbesteko, atseginak atsekabeekin nahasturik egotea, benetako atseginaren iduri eta itzaldura izanik, elkarren ondoan izateak biziki bata bestea emateraino koloregabatu (c) dituelako; eta zentzugabeetan elkarren arteko zalekeria biziak sortu eta borrokagai bihurtzea, Stesikhorosek, Heleneren iduriari buruz Troian zeudenen aldetik egia ez ezagutzearren, borrokagai bihurtu zela dioen bezala?

-Gutziz beharrezko da, esan zuen, hori horrelako zerbait izatea.

XI. - Eta zer? Alde kementsuari buruz, ez ote da derrigorrezko beste hainbeste gertatzea, inork gauza bera burutu dezanean bekaitzez ohore-zalekeriaren bidez, edo indarkeriaz garaipen-zalekeriaren bidez, edo grinaz gogaldi txarraren bidez, ohore, (d) garaipen, eta grinaren atzetik, arrazoirik eta zentzurik gabe, joanaz?

-Derrigorrezko da, esan zuen, hori buruz horrelako gauzak izatea.

-Zer, bada? esan nuen. Ausart ote gaitezke esaten, irabazpen-zaletasun eta garaipen-zaletasunari buruz dauden irrika guztien artean ere, jakintzari eta arrazoiari jarraituz eta hauen laguntzaz atseginen atzetik joanaz, zentzuak aurkez ditzazkeen atseginak beregana ditzaketen irriek eskuratuko dituztela atseginik egiazkoenak, egiazkoak eskuratzeko gai diren neurrian egiaren jarraitzaile baitira, eta baldin bakoitzarentzat hoberena dena egokiena (e) bada, baita atseginik egokienak ere?

-Egokiena, bai, benetan, esan zuen.

-Beraz, arima osoa filosofo aldeari badarraio, eta bere barruan matxinadarik ez badago, arimako alde bakoitzari suertatzen zaio doazkion gainerako gauzetan aritzea, eta zuzentasunean izatea, eta gainera, bakoitzak bereak dituen atseginekin, hoberenekin, eta ahal den neurrian, 587. egiazkoenekin gozatzea.

-Egin-eginean, bada.

-Baina beste alderen bat nagusitzen denean, honi, bere buruari dagokion atsegina ez aurkitzea, eta gainerakoak egiazkoa ez den atsegin arrotzari jarrai dakizkion behartzea gertatzen zaio.

-Horrelaxe, esan zuen.

-Filosofiatik eta arrazoitik urrunen daudenak, ez ote dira gehien horrelako gauzak egin litzaketenak?

-Askozaz, benetan.

-Eta arrazoitik gehien aldentzen dena, ez ote da legetik eta erabidetik ere gehien urruntzen dena?

-Argi dago.

-Eta gehien urrundurik agertu zirenak (b) ez ote ziren amodiozko eta tiraniazko nahikeriak?

-Askozaz, benetan.

-Eta gutxien, erregezkoak eta era ederrezkoak?

-Bai.

-Uste dut bada, tiranikoa dela dagokion benetako atseginetik gehien aldentzen dena; bestea, aldiz, gutxien.

-Beharrezko.

-Eta, esan nuen, tiranikoaren bizitza garratzena izango da, eta erregearena atseginena.

-Gutziz beharrezko.

-Ba al dakizu, bada, esan nuen, zenbat garratzago bizi den tiranoa erregea baino?

-Esan badezazu, esan zuen.

-Dirudienez hiru motatako atseginak izanik, bata legezko eta bi sasikoak, tiranoa sasikoak baino harago joaten baita, (c) legetik eta arrazoitik ihes eginaz, jopu eta zerbitzari diren atsegin batzuen artean bizi da, eta bera zenbatez gutxiago den esaten ez da erraz, agian honelaxe izan ezik.

-Nola? esan zuen.

-Gizon oligarkikotik tiranoa hirugarren lekuan jarria zegoen, gutxi gorabehera, euren artean demokratikoa zegoen eta.

-Bai.

-Aurrerago esan dena egia bada, egiari dagokionez, ez ote da atseginaren hirugarren itxurarekin bizi, oligarkikotik hasirik?

-Horrelaxe, bai.

-Eta oligarkikoa erregezkotik, aldiz, hirugarrena da benetan, (d) batera jar bagenitza aristokratiazkoa eta erregezkoa.

-Hirugarrena, bai.

-Beraz, esan nuen, tiranoa, zenbakitan, hirukoitzaren hirukoitza dago aldendua benetako atseginetik.

-Badirudi.

-Beraz, esan nuen, dirudienez, atsegin tiranikoaren itxura luzeraren arabera zenbaki karratu bat dateke.

-Egin-eginean, benetan.

-Eta zenbaki hori, berreduraren arabera, are ber hiru gehiturik, garbi geratzen da zenbaterainoko alde aldentzen den.

-Argi dago, esan zuen, kalkulatzailearentzat.

-Beraz alderantziz inork benetako atseginetan tiranotik erregea zenbat aldendurik aurkitzen den esan behar badu, biderketa osoturikoan aurkituko du zazpiehun eta hogeita bederatzi bider gozoago bizi dela, eta tiranoa larriago neurri berean.

-Egundokoa da, esan zuen, baieztatu duzun gizon zuzen eta 588. bidegabe bion aldeari buruzko zenbakia, atseginari eta atsekabeari alderatuz.

-Zenbaki hori halere esan nuen, benetan egiazkoa da eta euren bizitzetara egokitzen dena, egunak eta gauak, hilak eta urteak bizitza horietara egokitzen badira, behintzat.

-Egokitzen dira, bai, esan zuen.

-Gizon on eta zuzenak atseaginean horrenbestean garaitzen badu gaiztoa eta bidegabea, zenbat harrigarriroago garaituko ote du bizitza egokian, edertasunean eta bertutean?

-Harrigarriro, bada, Zeusarren, esan zuen.

XII. - Bego, bada, esan nuen. Autu honetan honaino (b) heldu garenez gero, honaino ekarri gaituzten lehen esandakoei oratu diezaiegun berriro. Hau zen gutxi gorabehera esan zena<sup>11</sup>: osoki bidegabe denari komeni zaiola bidegabekeriak egitea, zuzen bezala agertzen bada. Ala ez zen horrelaxe esan?

-Bai, horrelaxe, bada.

-Orain, bada, esan nuen, hori dioenarekin hitzegin dezagun, bidegabekeria egiteak eta zuzen jokatzekak bakoitzak daukan eraginari buruz bat etorri ginenez gero.

-Nola? esan zuen.

-Arrazoiaren bidez, arimaren iduri bat moldatuz haiek gauza haiek ziotsanak zer zioen ikus dezan.

-Nolakoa? esan zuen. (c)

-Antzinan sortu zirela kontatu dutenetako horien antzeko bat, esan nuen: Khimaiarena, edo Skyllerena, edota Kerberosena. Eta, izaki bakarrean elkarturik, iduri askodun beste asko ere sortu zela diote.

-Badiote, bai, esan zuen.

-Molda ezazu bada, nabardura eta buru askodun piztiaren iduri bat, bere inguruan piztia apal eta basatien buruak dauzkana, eta aldatzeko eta bere-beretik gauza guzti hauek ateratzeko lain dena.

-Moldatzaile trebe baten lana da hori, esan zuen; (d) baina arrazoia argizaria eta antzekoak baino moldagaiago denez gero, eman bedi moldatutzat.

-Moldatu orain beste lehoi-iduri bat eta gizonezkoaren beste bat. Lehendabizikoa askoz handiagoa izan bedi, eta txikiagoa bigarrena.

-Errazago da hori, esan zuen; moldaturik duzu.

-Hiru direnok bada, lot itzazu batean orain nola edo hala elkarrekin bat egin dezaten.

-Loturik daude, esan zuen.

-Kanpotik iduri bat molda iezaiezu, gizonezko batena, barrukoa ikusi ezin duenari kanpoko azala baino (e) bizidun bakar bat ager dakion: gizona.

-Moldaturik dago, esan zuen.

-Horrelako gizonari bidegabekeriak egitea onuragarri zaiola eta zuzen jokatzek ez zaiola komeni dioenari esan diezaiegun ez duela besterik esaten: hari ez zaiola besterik komeni guztitariko piztia hori oparo zaindurik, lehoi hori eta bere ingurukoak indartsu egitea baino, eta hauek baten batek eraman lezakeen lekura arrastatua izan arte gizona gosez hil 589. eta ahultzea, eta bata bestearekin ez ohitzea, ezta lagunik egitea ere; alderantziz, haginka elkarri egin diezaioten eta borrokan elkar irents dezaten uztea komeni zaiola.

-Bete-betea, bada, esan zuen, horixe esan lezake bidegabekeria gorensten duenak.

-Baina, aldiz, zuzentasuna onuragarri dela dioenak ez ote lezake esan gauzok egin eta esan behar direnik, zeinaren bidez gizonetik indartsuen (b) barruko gizona izango den eta bera bere buru askodun piztiaren arduradun, nekazarien antzera bere alde leunak elikatuz eta heziz eta alde basatiak garatzen eragotziz, lehoiaren<sup>12</sup> izaera lagun eginaz, eta hazi ere, denak elkartasunean zainduz, elkarren artean eta berarekin ere lagun bihurtuz haziko dituen?



-Bene-benetan horixe dio, aldiz, zuzentasuna ederresten duenak.

-Era guztietara, zuzentasuna goresten duenak egia esan dezake, (c) eta bidegabekeria goresten duenak gezurra; atseginari, zein eritzi onari, zein onurari begiratz gero zuzentasunaren goresleak egia dio, eta gaitzesleak ezer ez zentzuzkorik; zer gaitzesten duenaren ideiarik ere ez dauka.

-Ez dut uste, esan zuen, ezelako ideiarik daukanik.

-Etsi dezagun bada, gozo-gozo, -ez du gogoz huts egin eta- itaundurik: "Ene zorioneko hori, ez ote genezake esan ekandu ederrak eta okerrak sortzearen arrazoiak hauek direnik: alde batetik, ekandu ederrek (d) gizonaren agintepean, hobeto esanik beharbada, bere jainkozkako alde horren menpe jartzen dutela bere izaeraren alde basatia, eta bestetik, ekandu okerrekin bere alde basatipean jopu egiten dutela bere alde gozatsua?" Bat etorriko da, ala zer?

-Bai, esan zuen, esanera jar badakit.

- "Arrazoi honen arabera, esan nuen, komeni ote zaio inori bidegabekeriaz urrerik eskuratzea honako zerbait gertatzen bazaio, hots, dirua eskuratuaz batera bere alderik bikainena alderik okerrenaren jopu egiten badu? Edota, (e) dirua hartuz, semea edo alaba, gizon basati eta gaiztoengana bidaliz, jopu egingo balitu, honengatik asko har baleza ere, ez litzaioke onuragarri izango; baina, errukirik gabe, bere alderik jainkozkoena alderik dongeen eta odoltsuenen jopu egiten badu, ez ote da, ausaz, zorigaiztoko, eta 590. ez al du

dirua Eriphylek<sup>13</sup> senarraren bizi truke idunekoa jaso zuenean baino hondamen handiagorako eskuratzen?

-Askozaz, bada, esan zuen Glaukonek; haren ordezkari erantzuten dizut.

XIII. - Ez ote duzu uste baita ere, arrazoi berdinegatik aintzinatik neurrigabekeria gaitzetsia izan dela, horrelakoan, behar den baino gehiago, ikaragarritzko, handi eta itxura askotako piztia haxe askatzen delako?

-Argi dago, esan zuen.

-Harrokeria eta betoskeria ez ote dira gaitzesten (b) alde lehoiezko eta haserretsua garatzen eta neurri barik hedatzen denean?

-Zeharo, bada.

-Eta apainkeria eta bigunkeria ez ote dira gaitzesten, bere nasaikeria eta utzitasunagatik, harengatik koldarkeria sortzen dutenean?

-Zer, bada?

-Eta zurikeria eta bilaukeria ere ez, inork kemenaren alde piztia zalapartariaren azpian jartzen duenean, eta ondasunengatik eta haren ase ezinagatik beheratua delarik, gaztetatik lehoi ordezkari tximino izaten ohitzen duenean?

-(c) Bai horixe, esan zuen.

-Eta zergatik uste duzu artisautzak eta eskulanak lotsa dakartela? Ala bere alderik bikainena izatez ahula delako beste zerbaitengatik esango ote dugu, ezen, orduan ez baita beregan dauden piztiak menderatzeko gai, alderantziz, haiek zaindu egiten baititu eta lausengatzen bakarrik ikasten baitu?

-Badirudi, esan zuen.

-Orduan, horrelako gizona, gizon hobereana zuzentzen duenaren antzekoak gobernatua izan dadin, ez al genezake esan beregan jainkozko agintea daukan gizon hoberean honen (d) jopu izan behar duela, ez, Thrasymakhosek agindupekoei buruz uste zuenez, jopua bere kaltetan menderatua izan behar duela uste dugulako, edonorentzat jainkozko eta zentzuzko izakiaren menpe izatea hobe delako baino, batez ere hau bere barruan izanik edota kanpotik buru duelarik, ahal den neurrian, guztiok berdinean eta lagun izan gaitezen berorren zuzendaritzapean?

-Benetan, zuzen, esan zuen.

-Eta argi dago benetan, esan nuen, legeak ere (e) gauza bera nahi duela, hirikide guztien laguntzaile delako. Eta umeenganako aginteak, hauek aske ez izatea nahi du, beren artean hirikoaren antzeko gobernua eratu eta hauen alderik hobereana gure alderik hobereanarekin landuz, 591. gisa bereko zaintzaile eta agintari bat jar diezaiogun arte. Eta orduan, bada, utziko ditugu aske.

-Argi dago, bai, esan zuen.

-Nola eta zein arrazoiaren arabera esango dugu, bada, ene Glaukon, bidegabekeria egitea, edo bizitza galdu bat bizi izatea, edo ezer lotsagarritzko egitea mesedegarri dela, guzti hauetatik aberastasun gehiago edo beste ahalmenen bat lortu arren, gaiztoago izango bada?

-Inola ere ez, esan zuen.

-Eta nola esan liteke onuragarri denik bidegabeta ezkutuan geratzea eta zigorrik ez jasotzea? Ala ezkututzen dena (b) ez ote da ondino gaiztoago bihurtzen, eta ezkututzen ez denak eta zigorra jasotzen duenak, ez ote du alde batetik, bere alde basatia baretzen eta gozatzen, eta bestetik, bere alde gozatsua askatzen, eta arima guztia izaera hobe baterantz jarri, izaera baliotsuago bat hartzen, neurritasuna eta zuzentasuna zentzuaren laguntzaz eskuraturik, gorputzak osasunaren laguntzaz hartzen duen indarra eta edertasuna baino, guzti hauek arima gorputza<sup>14</sup> baino baliotsuago delako?

-Bete-bete, bada, esan zuen.

-Zentzua daukana, benetan, (c) ez ote da biziko horretan bere ahalegin guztiak egiten, batez ere, bere arima horrelakoa egiten duten ikaskizunak preziatuz eta gainerakoak mesprezatuz?

-Argi dago, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, gorputzaren egoerari zein hazkuntzari buruz, ez bakarrik ez da, atsegin basati eta zentzugabekora itzulirik, bertan elikatuz biziko, are osasunari berari ere ez dio begiratuko, ezta zainduko indartsu, zein osasuntsu, zein eder izan dadin, eurentatik zentzudun izatea ez badatorkio, (d) alderantziz, garbi dago beti gorputzeko harmonia arimako<sup>15</sup> sinfoniaren arabera taiutuko duela.

-Guztiz horrelaxe, bada, esan zuen, benetan benetako musikari izatekotan.

-Ez ote du, bada, ondasunen eskuraketan dagoen ordenua eta sinfonia ere era berean taiutuko? Eta zoriontzat gehiengoak uste duenaz izutu gabe, azkengabe gehituko ote du ondasun-kopurua, azkengabeko kalteak eskuratuz?

-Ez dut uste, esan zuen.

-Aitzitik, beragan dagoen eratzeari begiratuz, esan nuen, (e) eta ogasunen ugaritasunagatik edo urritasunagatik han daukanetik ezer alda ez dakion zainduz, horrelaxe gobernatu behitu zein eralkiko ditu ondasunak daukanaren arabera, gai datekeen neurrian.

-Egin-eginean, bada, esan zuen.

-Baita ohoreei ere era berean begiratuz, 592. hobia bihurtuko duela uste duenetan gogoz esku hartuko du eta hauek dastatuko; aldiz, daukan izaera laxa diezaioketenetatik ihes egingo du, bakarka eta jendaurrean ere.

-Beraz, esan zuen, ez du benetan, politikan aritzerik nahi izango, horretaz ardura baledi.

-Ez txakurragatik! esan nuen; bere barruan daukan hirian arituko da batez ere; ez, bada, benetan, aberrikoan, jaunkoako zorteren bat ez baletorkio behintzat.

-Ulertzen dut, esan zuen, eratzen genbiltzan hirian diozula, gure arrazoietan jarriarik dagoenekoan, hiri hori (b) ez dut uste inongo lurrean dagoenik eta.

-Baina, esan nuen, beharbada, baliteke zeruan ereduren bat izatea ikusi nahi duenarentzat eta ikusirik berean eraiki nahi duenarentzat. Berdin da non dagoen, zein non egongo den; bakar honetako arazoetan eta ez beste inorenean ari liteke eta.

-Bidezkoa da, benetan, esan zuen.

X

595. I. - Hiri horri buruz, esan nuen, beste gauza asko ere baditut gogoan, eraikitzen genuen hiria beste guztiak baino hobea dela uste izateko, eta, batez ere, poesiar<sup>1</sup> buruz aritzerakoan diot.

-Zer? esan zuen.

-Imitakor den poesiarik ezelan ere ez dela onartu behar; oraingo honetan iduritzen zaidanez, (b) beste ezer baino gehiago eta argiago agertzen zait ez dela onargarri, banan-banan arimaren izaera bakoitza aztertu eta gero.

-Nola diozu?

-Zeuen aurrean esatearren, bada, -tragedi poeten, zein beste poeta imitatzaile guztien aurrean ez nauzue salatuko eta- badirudi horrelako guztiak hondagarri direla entzuten dituen adimenarentzat, zortez diren bezalakoak ezagutzeko ukendurik ez daukaten guztientzat.

-Zer uste izanik, bada, esan zuen, diozu hori?

-Esan beharko dut, esan nuen, benetan umetatik Homerosenganako daukadan maitasun eta adeitasun batek esatea galerazten didan arren, zeren, badirudi, bada, (c) bera dela honako tragiko eder guztion lehenengo irakasle eta zuzendari. Benetan, egiaren aurka gizonik ohoratu behar ez denez, esateko daukadana esan behar dut.

-Zeharo, bada, esan zuen.

-Entzun bada, edota hobeto, erantzun ezazu.

-Itaundu.

-Imitatzea oro har zer den esan ote zenezake? Neronek ere ez dut guztiz ondo ulertzen zer izan gura duen eta.

-Edonola, esan zuen, nik ulertuko dudalakoan!

-Ez da baragarri, esan nuen, sarri ikusmen motelagokoek 596. zorrotzagokoek baino bizkorrago ikusten dutelako.

-Halaxe da, bai, esan zuen, baina zu aurrean egonik ez ninteke ezertxo esaten hasteko ere gai izan, zerbait agertzen bazait; halere, zeuk ikusi.

-Ohizko metodoarekin oraintxe bertan aztertzen has gaitzen nahi al duzu? Ohituak ginen, bada, zinez, asko ziren gauza-multzo bakoitzari ideia bat jartzen zeintzuei izen bera jartzen genien; ala ez al duzu ulertzen?

-Ulertzen dut, bai.

-Oraingoan ere, asko direnen artetik jar dezagun nahi duzuna; adibidez, nahi baduzu, badira izan oherik (b) eta mahairik asko.

-Eta nola ez?

-Baina altzari hauei buruzko ideiak benetan, bi dira: bata, ohearen ideia, eta mahaiarena bestea.

-Bai.

-Ez ote genuen esaten, bada, artisauak altzari bakoitzaren ideari begiraturik egiten zituela guk erabiltzen ditugun oheak bata, eta besteak mahaiak, eta gainerakoak berdin? Beraz, artisauen artetik batek ere ez du benetan ideia bera egiten; (c) egin ere nola egin lezake, bada?

-Ezelan ere ez.

-Baina begira zein izen jartzen diozun artisau horri.

-Zeini?

-Esku-langile bakoitzak egiten dituen guztiak berak bakarrik egiten dituenari.

-Izugarritzkoa eta gizon harrigarriren bat da aipatzen duzun hori.

-Ez dezazula ondino ezer esan, laster hobeto egingo duzu eta; zeren, artisau hori ez da gauza guztiak egiteko gai soilik, baizik eta lurretik ernetzen diren beste gauza guztiak ere egiten ditu eta bizidun guztiak eta besteen artean bere burua ere egiten du, eta horrez

gainera lurra, zerua, jainkoak, eta zeruan eta lurpean, Haidesen, dagoen guztia ere egiten du.

-Gizon guztiz harrigarri, (d) eta jakintsua da aipatzen duzuna, esan zuen.

-Ez al duzu sinesten? esan nuen. Esadazu: ez al duzu uste horrelako artisaunik inola ere izan daitekeenik, ala gauza guztien egilea izan ote liteke era batera bai, eta bestera ez? Ala ez ote zara konturatzen, era batean, zu zeu ere gai izan zintezkeela gauza guztiak egiteko?

-Baina, esan zuen, zein era da hori?

-Ez da gaitz, esan nuen; aitzitik, era askotara eta bizkor egin liteke, guztiz bizkor. Nonbait ispilu bat harturik edonora inguratu nahi baduzu berehalako batean eguzkia (e) egingo duzu eta zeruan daudenak ere, berehala lurra, zu zeu ere eta beste bizidunak, altzairu, landare eta oraintsu esaten genituen guztiak ere.

-Bai, esan zuen, itxurazkoak, baina ez benetan egiazkoak.

-Ederto, esan nuen, eta egoki zatoz etorri nire arrazoiria; honako artisauen artean margolaria ere aurkitzen dela uste dut eta; ala zer?

-Nola ez, bada?

-Baina uste dut honek egiten dituenak ez direla egiazkoak esango duzula; halere, moduren batean margolariak ere ohea egiten du; ala ez?

-Bai, esan zuen, baina itxurazkoa, benetan.

II. - Eta ohegileak zer? Ez ote zenuen, bada, lehentxeago 597. esaten ez duela benetako ohea dela diogun ideia bera egiten, edozein oheren bat baino?

-Esaten nuen, bai.

-Ez dena egiten badu, ez dezake benetakorik egin, antzeko eta benetako ez den beste zerbait baino; eta ohegileak edo beste artisauen batek egiten duena guztiz benetakoa dela inork esan baleza, ez ote da, bada, egia ez esateko arriskuan jartzen?

-Ez, ziurrenik, esan zuen, honako arrazoietan aritzen direnek leritzeketenez.

-Ez gaitezen, bada, ezelan ere harritu egiaren aurrean hori ere ilun samar (b) suertatzen bada.

-Ez, bada.

-Nahi al duzu, bada, esan nuen, hauexetatik hasirik imitatzaile hau zer den azter dezagun?

-Nahi baduzu, esan zuen.

-Beraz, mahaiok hiru motatakoak dira: bata izaeran dagoena, neure ustez, jainkoak<sup>2</sup> egina dela esan dezakeguna; ala nork bestela?

-Inork ez, uste dut.

-Eta beste bat zurginak egina.

-Bai, esan zuen.

-Eta beste bat margolariak egina; ala zer?

-Bego.

-Beraz, margolaria, ohegilea, eta jainkoa, hiru hauexek dira hiru motatako oheen maisu.

-Bai, hiru.

-Jainkoak, bada, edo (c) nahi izan ez zuelako, edo beharrizan batek bat baino ohe gehiago izadian ez egitea agindu ziolako, izatez den ohe bakarra egin zuen; baina honako bi edo gehiago ez zituen jainkoak egin; sortu ere ezin daitezke sor.

-Nola, bada? esan zuen.

-Zeren, esan nuen, bi bakarrik egingo balitu ere, berriro bakar bat agertuko litzateke. Bi haiexek honengandikako ideia izango lukete, eta izatez den ohea huraxe litzateke eta ez beste biak.

-Zuzen, esan zuen.

-Eta, uste dut, jainkoak hori zekielako, benetako ohearen benetako egile izatea nahi zuelako, (d) eta ez beste edozein oheren egile, izaeraz bakar hori egin zuela.

-Badirudi.

-Nahi al duzu, bada, horri izaera-egile edo antzeko zerbait dei diezaiogun?

-Bidezko da, gutxienez, esan zuen, benetan izaerazko ohe hori eta gainerako guztiak egin dituelako.

-Eta zurgina zer? Ez ote da ohegile?

-Bai.

-Eta margolaria ere, ez ote da horren artisau eta egile ere?

-Ezelan ere ez.

-Oheari buruz zer dela esango duzu?

-Horri, esan zuen, (e) uste dut nik egokiago litzaiokeela haiek artisau diren horren imitatzailerik deitzea.

-Bego, esan nuen; izaeratik hasirik, hirugarren motako egileari, ausaz, imitatzailerik deitzen diozu?

-Bete-betea, bada, esan zuen.

-Horixe bera bada, izango da baita tragediagile ere, imitatzailerik delako, erregetik edo egiatik hasirik hirugarrena, eta beste imitatzailerik guztiak berdin.

-Baliteke.

-Imitatzailerik buruz, bada, bat egin dugu, baina esadazu 598. margolariari buruz: izadian dagoen gauza bakoitza imitatzen saiatzen dela uste al duzu, ala artisauek egiten dituzten gauzak?

-Artisauenak, esan zuen.

-Benetakoak, ausaz, ala itxurazkoak? Hori ere zehatz ezazu oraindik.

-Nola diozu? esan zuen.

-Honelaxe. Aldamenetik, edo aurrez aurre, edo beste edonondik begiratzen badiozu oheak ba ote du bere izatearekiko alderik, aldamenetik edo aurrez aurre edo beste edonondik begiratzen badiozu, ala ez du inolakorik, beste baten antza baino? Eta gainerakoak berdin?

-Horrelaxe dirudi, esan zuen, baina ez du alderik.

-Begiratu, bada, beste honi: (b) margolaritza gauza bakoitzari buruz ari denean, zeri buruz ari da: den-den bezala izatea imitatzen, ala itxurazkoa itxura duen bezala; itxuraren ala egiaren imitatzeari ote da?

-Itxurarena, esan zuen.

-Beraz, zalantzarik gabe, imitatzeari urrun dago egiatik, eta dirudienez, horregatik egiten ditu gauza guztiak: gauza bakoitzetik apur bat baino ukitzen ez duelako. Eta hori itxura baino ez da. Eta esaten dugun bezala, margolariak inoren trebetasuna ulertu gabe margotuko digu oinetakogile bat, zurgin bat, eta gainerako artisauak. Baina, halere, margolari ona izan baledi zurgin bat margoturik, eta urrunetik erakutsirik berdin ume zein zentzugabeko gizonak iruzur litzake, benetako zurgina delakoan.

-Eta nola ez?

-Baina uste dut, ene adiskide, gauza guzti hauei buruz, honelaxe uste izan behar dela. Inor baletorkigu iragartzen, halabeharrez, ogibide guztiei buruz eta bakoitzak dakizkien gainerako gauzei buruz, beste inork baino hobeto dena (d) dakien gizonezko bat aurkitu duela, horrelakoari erantzun behar zaio gizon tentela dela, eta antza duenez, berritsu eta imitatzailerik batek iruzur egin diola, dena ezagutzen duela uste izateraino; bera, jakintza, ezjakintza, eta imitatzeari bereizteko gai ez delako.



-Egi egiak, esan zuen.

III. - Beraz, esan nuen, honen ondoren tragedia eta honek zuzendari duen Homeros aztertu behar dira, norbaitzuegandik entzun izan baitugu ogibide guztiak, (e) bertuteari eta gaiztakeriari buruz giza arazo guztiak, eta jainkotasunarenak ere badakizkiela. Poeta onak, bada, egin dezakeena ondo egingo badu, jakinen gainean egitea beharrezko du, edo, bestela, ez da egiteko gai izango. Aztertu behar da, beraz, ea hauek imitatzailerorietan suertaturik iruzurtuak izan diren, eta euren egintzak ikusirik 599. ez diren ohartzen izatek hiru aldiz aldendurik daudela, eta erraz direla egiten egia ezagutzen ez duenarentzat, -itxurak egiten dituztelako, baina ez benetako gauzak-, edota ea ezer dioten, eta benetan poeta onak gehiengoak ondo hitzegiten dutela uste dueneko arazoak dakizkiten.

-Egin-eginean, bada, esan zuen, sakon aztertu behar da.

-Uste al duzu, bada, inork, imitatu izango den gauza eta itxura, gauza biok egin ahal balitza, ahaleginez bere burua itxurak egitera bultzatuz lezakeenik, eta bere bizitzako gauzarik (b) ederrentzat hori jar lezakeenik?

-Nik neuk ez.

-Alderantziz, ene ustez, imitatuak diren gauzetan benetan jakitun balitz, askoz gehiago lehiatuko litzateke eurak berak egiten itxurak egiten baino, eta bere buruaren oroigarri, egintza ugari eta ederrak uzten saiatuko litzateke, eta nahiago izango luke bera ederretsi izatea, ederresle izatea baino.

-Halaxe uste dut, esan zuen. Izan ere, ez dituzte era berdinean ohorea eta onura.

-Homerosi edo poeten artetik beste inori, ez diezaiogun arrazoirik eska gainerako gauzei buruz (c) itaundurik, euretatik inor sendagile den, ala sendagile-esaeren imitatzaille baino ez den, eta zeintzuk diren antzinako zein oraingo poetek sendatu zituztela esaten dituzten sendaturikoak, Asklepios bezala, edo sendakuntzan zein ikasle utzi zituzten, hark oinordekoak utzi zituen bezala, ezta ez diezaiogun galde beste ogibideei buruz ere. Alderantziz, alde batera utz ditzagun. Baina Homeros kontatzen saiatzen den gauza handi eta ederrei buruz, guduketei buruz, gudaldi, hiri-zaindaritzari, eta, (d) giza hezkuntzari buruz, zalantzarik gabe, bidezko da, jakitun jar gaitezen, berari itauntzea: "Homeros adiskide, bertuteari buruz, egiatik hasirik hirugarren gunean ez bazaude, imitatzaille bezala mugatzen genuen itxuragile ez bazara, aitzitik, bigarren gunean bazaude, eta zein bizimoduek hobeago edo gaiztoago, bakarka edo jendaurrean, gizonak bihurtzen dituen ezagutzeko gai bazina, esaguzu zein hirik zure bitartez bere zuzendaritza hobetu duen, Lykourgosen bidez Lakedaimoniak egin zuen bezala. Zuri zein hirik ezartzen dizu legelari ona izan zinela eta eurentzat onuragarri? Italiak eta Sikeliak Kharondas jartzen dute, eta guk Solon; zu zeinek?" Izango ote du inor esateko?

-Ez dut uste, esan zuen Glaukonek, Homeroszaleek eurak ere ez diote horrelakorik eta.

-Baina zein gudu gogoratzen da Homerosen 600. aldian zuzen egin zenik bere agintez edo onuz?

-Bat bera ere ez.

-Ala, Thales milesiarrari eta Anakharsios Skythiarrari buruz ohi den bezala, aipatzen al dira hari buruz trebakuntzan nahiz beste egintzatan jakintsuari doazkion moduko asmakizun burutsu eta ugari?

-Ezelan ere ez, honelakorik ezer.

-Baina herri-arazoetan ez bada, bere baitako arazoetan, Homeros bizi zela, bere gizabideagatik maite zuen inorentzat hezkuntz zuzendari izan zenik esaten ote da, eta ondorengoei bizibide homeriko bat (b) utzi ote zien, bereziki horregatik maitatua izan zen Pythagoras beraren antzera eta oraindik gaur ere bere ondorengoak, bizimodu pitagorarra goitizena emanez, nolabait besteen artean argi nabari diren bezala?

-Horrelakorik ere, esan zuen, ez da ezer esaten. Izan ere, baliteke, ene Sokrates, Kreophylos, Homerosen laguna, ondino barregarriago agertzea bere hezkuntzagatik izenagatik baino, Homerosi buruz esaten dena egia bada; esaten da, bada, ondino bizi zela, nola hark zabartasun (c) handi batean zeukan.

IV. - Esaten da, bai, esan nuen. Baina, ene Glaukon, Homeros benetan gizonak hezteko eta hobe bihurtzeko gai izan balitz eta imitatu ordeztu gauzok ezagutzeko gauza izan, uste al duzu ez zituzkeela lagun asko egingo, eta haiek ez zioketela dedurik izango eta maitatuko? Alderantziz, Protagoras Abderarra

eta Keioseko Prodikos, eta beste asko, beren garaikoei adierazteko gai dira, bakarka (d) elkartuz, hauen hazkuntzaren zuzentzaile berak izan ezik, ez direla ez euren etxerik ez hiririk eratzeko gauza izango; eta jakintza hori dela eta, beren lagunek burugainetan ez beste eramateraino maite dituzte. Aldiz, bere garaikoek utziko ote zioten Homeroseri, bertuteari buruz gizonei onuragarri izan balitzaie, edota Hesiodoseri, hara-hona rapsodiak kantatzen ibiltzen, eta urreari baino gehiago ez ote zitzaizkien atxikiko, eta ez ote zieten beren etxetan egonaraziko, (e) edota esanera ez jarritz gero, ez ote ziren, noranahi joanik ere, haien ikasle izango, behar hainbateko hezieraz jabetu arteino?

-Bete-betea uste dut, esan zuen, egia diozula, ene Sokrates.

-Ez ote genezake jar Homerosengandik hasirik, poeta guztiak bertutearen iduri-imitatzaile direla, eta egiten dituzten gainerako guztietan berdin, eta egiaraino ez direla heltzen, aldiz, oraintsu aipatzen genuen margolaria<sup>3</sup> bezalakoa dela, oinetagile-itxura daukan 601. antzeko bat margotzen duena, oinetakogintzan ulertzen ez duenak baino gutxiago ulertzen duela, eta margoetatik eta kanpoko itxuretatik baino ez duela ikusten?

-Oso-osoan.

-Uste dut berdin esango dugula, poetak ez dakiela besterik, imitatzen baino: ogibide bakoitzeko margoak margotzen ditu izenak eta hitzak erabiliaz, zein oinetakogintzari buruz

ezer esan baledi hitz neurtuz, erritmoz, zein harmoniaz, hitzetatik baino erizten ez duten bere antzeko batzuek guztiz ondo diotela uste izateraino, zein (b) estrategiari buruz, zein beste edozein gauzari buruz: berez halako liluramen handia daukate gauzok. Poeten gauzak musika-margoetatik biluztu ondoren, diren lakoak esanez gero, uste dut badakizula nolakoak agertzen diren, zalantzarik gabe ikusiko zenituen eta.

-Nik neuk bai, esan zuen.

-Ez ote daukate, bada, eder izan ez arren, sasoiko aurpegien antzik bere sasoia joan dakienean ikusi ahal izaten direnez?

-Bete-betea, esan zuen.

-Ea, bada, begiratu honi: esaten dugu, itxura baten egileak, imitatzaileak, ez duela izatetik ezer ulertzen itxuratik baino; (c) ala zer?

-Bai.

-Ez dezagun, bada erdi esanean utz, behar beste aztertu baino.

-Esan, esan zuen.

-Margolaria gida-uhalak eta aho-galga bat margotzeko lain dela esan genezake?

-Bai.

-Baina egiten dituen, uhalgilea eta arotza izango dira?

-Osotero.

-Ba ote daki, ausaz, margolariak gida-uhalak eta aho-galga nolakoak izan behar duten? Edota, ez margogileak, ez arotzak, ez uhalgileak daki, hauek erabiltzen dakien zaldunak bakarrik baino?

-Guztiz egia.

-Ez ote dugu esango ausaz gauza guztiei buruz berdin denik?

-Nola?

-(d) Gauza bakoitzari buruz hiru trebetasun hauexek daudela: erabiltzekoa, egitekoa, eta imitatzekoa?

-Bai.

-Bai tresna, bai bizidun eta bai egintza bakoitzaren bertutea, edertasuna eta osotasuna, ez ote dago beste inon bakoitza hartarako egin eta sortua izan zen erabilpenean baino?

-Horrelaxe da.

-Guztiz beharrezko du, bada, honako gauza bakoitza erabili behar duenak guztiz aditua izatea, eta dagokion erabilpenean zer onik eta zer txarrik egiten duen egileari iragartzea: xirulariak xirulagileari jotzeko erabili behar dituen (e) xirulei buruz nolakoak egin behar dituen iragarri, eta hauek agindua betetzen duten era berean.

-Eta nola ez?

-Ez ote du, bada, alde batetik, adituak xirula onaren eta txarraren berri ematen, eta bestetik besteak sinetsirik<sup>4</sup> egingo?

-Bai.

-Tresna beraren egileak, beraz, sineste zuzena izango du edertasunari zein desagokitasunari buruz, dakienarekin egonik, dakienarengandik entzutera 602. beharturik dagoelako, erabili behar duenak, aldiz, jakintza behar du.

-Bai horixe.

-Eta imitatzaileak, margotu ditzakeenei buruz, izango ote du, eder eta oso diren ala ez, erabilpenetikako jakintzarik, edo, adituarekiko duen ezinbesteko harremanagatik eta nola margotu behar den agintzen dionagatik irizpide zuzenik?

-Bata ere ez.

-Beraz, imitatzaileak imitatzen dituen gauzei buruz, edertasunean zein desagokitasunean ez du jakingo, ezta eritzi zuzenik izango.

-Ez dirudi.

-Dotore dateke bere eginkizunean imitatzailea, egin ditzakeenen jakintzari buruz.

-Ez guztiz dotore.

-Baina, (b) berdin imitatzen jarriko da gauza bakoitzari buruz txarra ala ona den jakin barik; baina dirudienez, gehiengoari eta ezer ez dakienari ederra iduritzen zaiona, horixe imitatuko du.

-Zer besterik, bada?

-Benetan dirudienez, nahiko argi dago gauza hauei buruz bat egin dugula: imitatzailerak arrazoizkorik ezer ez dakiela imitatzen dituen gauzetan, imitatzea ez dela benetazko gauza bat, umekeria bat baino, eta poesia tragikoan, bertso ianbikoan zein epikoan<sup>5</sup> aritzen diren guztiak imitatzailerak direla, gehien izan litezkeen antzera.

-Egin-eginean, bada.

V. - (c) Zeusarren, esan nuen, imitatze hori ez ote da, bada, egiatik hasirik hirugarren gunean dagoen zerbait? Ala zer?

-Bai.

-Eta daukan ahalmen hori gizonaren zein aldetan ote darabil?

-Zeri buruz diozu?

-Honexeri buruz. Beharbada, ikusmenaren bidez neurri berbera ez zaigu berdin agertzen hurretik zein urrunetik.

-Ez, bada.

-Eta ikusleentzat gauza berberak, uretan ikusi eta kanpoan, konkorrak edo artezak agertzen dira, eta halaber margoekiko ikusmenaren saihekeraz, zulaun eta ganbil; eta guzti hauetako (d) nahasmenak azaltzen dira arima barruan; eta gure izaeraren ahultasuna dela eta, itzalezko margolaritzak, liluragintzak zein antzeko asmakeria askok, jarriak izanik, ez dute aztikeria bat bera ere egin barik uzten.

-Egia.

-Eta ausaz, horren aurka, laguntzaile egokien bezala ez ote ziren agertu neurtzea, zenbatzea, eta pisatzea eta, ondorioz, handiago edo txikiagoaren, ugariago edo astunagoaren itxurak agindu ordez, ez ote digu agintzen gauza zenbatuak, neurtuak eta pisatuak?

-Nola ez, bada?

-(e) Baina hori benetan ariman dagoen alde kalkulatzaileraren lana dateke.

-Horrexena, bai.

-Baina zenbait gauza bata bestea baino handiago edo txikiago edo berdina bezala neurtzen eta bereizten duen alde horri, sarritan aldi berean gauza bera eta alderantzizkoa bailitzan agertzen zaio.

-Bai.

-Ez ote genuen, bada, esaten ezinezkoa zela alde berberarentzat gauza berberari<sup>6</sup> buruz ere aurkakorik eriztea?

-603. Eta benetan zuzen, esan zuten.

-Beraz, ez dateke gauza bera izan neurriaren aurka gure arimak erizten duen aldea, eta neurriaren arabera erizten duena.

-Ez, bada.

-Eta neurrian eta kalkuluan sinestea daukana arimako alderik ederrena dateke.

-Zer, bada?

-Eta horren aurka egiten duena guregan dagoen alderik txarrenetariko bat dateke.

-Derrigor.

-Hain zuzen, bada, horretan bat egin nahirik esaten nuen<sup>7</sup> margotzeak eta, oro har, imitatzearak, egiatik urrun egonik egiten dituela bere zereginak, eta guregan adimenetik (b) urrun dagoenarekin dituela harremanak eta ez dela inola ere onerako eta egitarako adiskide eta lagun.

-Oso-osoan, bada, esan zuten.

-Imitatze doilorrak, beraz, doilorrarekin baturik, ondoren doilorrak dakartza.

-Badirudi.

-Eta, esan nuen, ikusmenari buruzko imitatzeari buruz bakarrik, ala baita poesia deitzen diogun entzumenezkoari buruz ere?

-Benetan, esan zuen, bidezkoa da hori ere.

-Baina, esan nuen, ez diezaiozun sinets margolaritzaren antza daukanari bakarrik; aitzitik, joan gaitezen imitaziozko poesiarekin harremana duen gure (c) adimeneko alde horretara, eta ikus dezagun doilor ala estimagarri den.

-Beharrezko da, bada.

-Jar dezagun haxe: diogunez, imitatzeak beharturiko edota gogozko egintzak egiten imitatzen ditu gizonak, egite onetatik zoriontsu edo zoritxarreko direlakoan, eta guzti horietan atsekabez edota atseginez egonik. Hauez gain ba ote zegoen besterik?

-Ezer ez.

-Baina gizakumea egoera guztiotan uste berdina izanik geratzen ote da? (d) Ala ikusmenari buruz zatikatzen eta aurkako usteak izaten zituenez bere baitan era berean gauza berberei<sup>8</sup> buruz, bere ekintzetan berdin zatikatuko ote da, eta bere buruarekin borrokan jarriko? Orain, hori ez dugula ezertan aitortu behar datorkit burura, gorago esanikoetatik gauza guztiotan nahiko bat egin dugulako<sup>9</sup>, gure arima honelako aldi bereko milaka kontraesanez beterik dagoela.

-Zuzen, esan zuen.

-Zuzen bai, esan nuen; baina orduan alde batera utzi genuena, (e) uste dut oraingoa beharrezko dugula azaltzea.

-Zer? esan zuen.

-Zentzuzko gizon batek, esan nuen, seme bat galtzea edo ardurarik gehien ematen dion besteren bat galtzea lako zoria izanik, esaten genuen<sup>10</sup> orduan, beharbada, beste inork baino errazago jasango zuela.

-Bai horixe.

-Azter dezagun oraingo honetan haxe ere: ea ezer ez den atsekabetuko, ala hau ezinezko izanik, nola edo hala, atsekabea arinduko duen.

-Benetan haxe gehien, esan zuen.

-604. Baina gizon horri buruz esadazu: gauza biotatik zer uste duzu: gizon horrek atsekabeari hobeto borrokan eta aurre egingo diola, bere antzekoek ikusten dutenean, ala bere buruarekin bakardadean geratzen denean?

-Askoz gehiago nonbait, esan zuen, ikusia izaten denean jasango du.

-Bestalde benetan uste dut, bakarrik dagoenean, inor, entzunez gero, lotsaraz lezaketen negar-zotinak egiten ausartuko dela, eta inori egiten ikustea utz ez liokeen gauza asko egingo dituela.

-Halaxe da, esan zuen.

VI. - Ez ote da, bada, aurre egitea agintzen diona arrazoia eta legea, eta saminera daramana (b) atsekabea ere?

-Egia.

-Gizonarengan gauza berberari buruz, aldi berean osterantzeko diren eragin bi badaude, esaten dugu derrigorrezko dela beragan alde bi izatea.

-Nola ez, bada?

-Eta bata ez ote dago gertu legeari men egiteko, gidatzen duen bidetik joateko?

-Nola?

-Legeak atsekabeetan baretasunik gehien izatea eta gogait ez egitea gauzarik ederrena dela dio, atsekabeetan benetan zer den on edo txar argi ez dagoelako; ezta ez duela ezer aurreratzen jasangaitz denak, eta giza gauzetan ez dagoela ezer (c)

ardura handirik merezi duenik, eta horrelakoetan hainbat lasterren gure laguntzan etorri behar duenari atsekabeak oztopo egiten diola.

-Zeri diozu egiten diola oztopo? esan zuen.

-Gertatu izan denaz pentsatzeari eta arrazoiak hoberentzat harraraziko lizkigukeen eran, norbere arazoak, dadoen erorketan bezala, zortearen arabera jartzeari; alderantziz, umeak bezala, zartada bat jasotakoan zartaturiko aldeari eutsiz, garrasika denbora ez galtzeari; aitzitik, negar eresia sendakuntzaz desagerraraziz, arima ahalik lasterren sendabidean (d) ohitzeari eta eroria eta gaixotua den aldea zuzentzeari.

-Gutxienez, esan zuen, arazoan aurrean horrela dagikeenak zuzenen dagike.

-Esaten dugu beraz, arimako alderik bikainenak arrazoi horri jarraitzea nahi duela.

-Argi dago, bada.

-Eta atsekabearen oroitzapenetara eta dolumenetara daramanari eta hauekin asetzen ez denari, ez ote diogu esango zentzugabeko, nagi, eta koldarren lagun denik?

-Esango diogu, bai.

-Beraz, bata, haserrebera<sup>11</sup> den aldeak, imitatze ugari eta nabarra (e) du, baina izaera burutsua eta barea, bere baitan beti berdina dena, ez da erraz imitatzen eta, imitatzen denean, erraz ulertzen, batez ere jai batean dagoen aldra batentzat eta



teatroan biltzen diren edonolako gizakientzat. Izan ere, imitatzeak ohi ez bezalako sentipenak sortzen ditu euren.

-605. Bete-betea, noski.

-Argi dago, bada, poeta imitatzailea ez dela berez sortu arimako alde horretarako, eta bere jakituria ez dela egin horri eder egitearren, jende artean izen onik irabaziko badu, izaera haserrebera eta nabarrarentzat baino; guztiz imitagarri delako.

-Argi dago.

-Beraz, zuzen jokatu dugu horri eskua ezartzean eta margolariaren parean jartzean. Izan ere egiarekiko gauza txarrak egiten antza izan ez ezik arimako (b) beste alde horrekin, nahiz eta ez alderik bikainenarekin, daukan harremanean ere haren antza dauka. Eta, horrelaxe, bidezkoa genuke ondo zuzendurik egon behar duen hirian ez onartzea: hiri batean inork zital batzuk jartzen dituen hiriari saldukeria egin eta jatorrenak suntsitzen dituen bezala, arimako alde hori bizkortu eta elikatu eta, indartsu eginik arrazoizko beste aldea hondatzen baitu. Era berean esango dugu poeta imitatzaileak ere sartzen duela, bakarka, bakoitzaren ariman hezkuntza okerra, zentzugabeko alde horri eder eginez; honek ez du ezagutu ere egiten zer den handi (c) zer txiki, aitzitik, gauza berak, iduri iduriketaz, inoiz handitzat eta inoiz txikitat dauzka eta egia guztiz alderatzen dago.

-Gustiz, bada.

VII. - Baina ondino ez dugu poesiaren alderik gogorrena salatu. Beldurgarriena beharbada gizaki hoberenei gutxi batzuei izan ezik, irain egiteko daukan ahalmena da.

-Nola ez da izango, bada, benetan hori egiten badu?

-Entzunez ikus ezazu: gutariko bikainenek, beharbada, entzuten dugunean nola Homerosek, zein beste tragediagileetako batek (d) heroiren bat atsekabetan eta auhenetan luze mintzatuz edo eresitan eta bularjoka imitatzen duen, badakizu atsegin izaten dugula, eta guregan harturik eta eurei begitarte eginik jarraitzen dugula, eta arduratsu goستن dugula poeta on bezala, gehien egoera horretan jartzen gaituena.

-Badakit, bai, nola ez?

-Baina gutariko inori berekiko nahigaberen bat sortzen zaionean, badakizu, aldiz, alderantzizkoaz harropuzten garela baldin nahigabe hori baretu ahal bageneza eta jasan, (e) hori gizonari doakiolakoan, eta lehen goستن genuen huraxe andrekoari.

-Ulertzen dut, esan zuen.

-Eta zuzen ote dago, beraz, esan nuen, gorespen hori: inork, taiu horretako gizon bat ikusirik, beretzat duin ez baino lotsagarri lukeena arbuia ordez atsegin izatea eta goستea?

-Ez Zeusarren, esan zuen: ez dirudi arrazoitsu.

-606. Bai, esan nuen, beste alde hartatik aztertzen baduzu.

-Nola?

-Baldin kontutan har bezeneza, lehen indarrez menderatzen zen aldea, hots, norberaren atsekabeetan negar egiteko irrikan zegoena, eta nahi adina antsia eginez asetzeko irrikan zegoena, izaeraz baita irrikagarri, horixe da poetek asetzen eta pozten duten aldea. Eta izaeraz gudan dagoen alderik bikainenak, arrazoiz eta ekanduz behar beste hezik ez dagoelako, bigundu egiten du alde negartiaren zaintza, kanpoko (b) arazoak ikusten dituelako eta beretzat ez delako ezer lotsagarri, beste itxura oneko gizon batek desgokiro negar badagi, horrelakoa goستea eta erruki izatea. Aitzitik, hark atsegina hartzen duela uste du eta hau kentzen ez lezakeela utz, poema osoa gutxietsiz. Uste dut gutxi batzuei bakarrik doazkiela derrigorrez besteengandik norberarentzako onurarik lor dezakeela uste izatea; eta horrelakoak haietan erruki sendo bat elikatuz, ez du erraz izango bere atsekabeetan erruki hori menderatzea.

-Egiarik handienak, (c) esan zuen.

-Eta ez ote da arrazoi bera barrezko poesiari buruz? Norberari barre egitea lotsa eman liezaiokeena, antzetzeko komikoan, eta bakarka entzutean txartzat gorrota ordez guztiz begiko bazaizu, ez ote duzu errukizko antzetzeteetan egiten duzuna bera egiten? Zeren, barre egin nahirik zegoen aldea, zantar ospearen beldurrez zure baitan arrazoiaren bidez menderatu zenuena, orduan askatzen duzu, eta indartsu eginik ez zara ohartzen sarritan arazo arruntetan eramana izaten zarela komediagile bat izateraino.

-Bai horixe, esan zuen.

-(d) Eta haragikeriei eta haserreari buruz, eta arimako grina mingarri zein atsegingarri guztiei buruz, ez ote ditu guregan gauza berdinak egiten poesiazko imitatzeak? Izan ere, berak lehor egon behar duena ureztatuz elikatu egiten gaitu eta agindupean egon beharrekoa agintari bezala jartzen digu bikainago eta zoriontsuago izan gaitezen eta ez gaiztoago eta zorigaiztoago.

-Ez daukat besterik esaterik, esan zuen.

-Beraz, esan nuen, ene Glaukon, (e) Homerosen goresleekin suerta bazintez, poeta honek hezi zuela Helladea esaten, eta egoki dela, giza arazoen zuzenketa eta heziketarako bera kontutan hartuz, beragandik ikastea, eta poesia honen arabera norberen bizitza osoa taiutzea, 607. maitatu egin behar dituzu eta besarkatu, izan litezkeenik eta hoberenak direlako, eta onartu ere onartu Homeros dela poetarik handiena, eta tragedia egileen artean lehena. Eta jakin behar duzu, ordea, poesia guztien artetik jainkoen eresiak eta gauza onen gorespenak bakarrik onartu behar direla hirian. Eta eresietan eta poemetan, legearen ordeztu eta une bakoitzean herriak hoberena dela deritzan arrazoiaren ordeztu, atseginaren Mousa har bazeneza, atsegina eta atsekabea izango dira zure hirian errege.

-Egiarik handienak, esan zuen.

VIII. (b) - Arrazoi hauexek, bada, esan nuen, izan bekizkigu aldeko, poesiari buruz gogora ekarriz, berau halakoa delarik, ondorioz, bidez jaurtiki baitugu hiritik: arrazoiak be-

hartu gaitu. Esan diezaiogun berari zakartzat eta basatitzat salatu ez gaitzan, aspaldikoa dela filosofiaren eta poesiaren arteko ikusi ezina. Izan ere, badira, "nagusiari zaunka dagion txakurreme zaunkaria", eta "zentzugabeen artean handi", eta "Zeus menderatzen duten jakintsu-taldea" (c), eta, agian "behartsu" direlako "zolitasunez kezkatzen direnak" bezalako esaerak eta beste zenbatu ezineko euren arteko etsaitasunaren ezaugarri zaharrak. Eta berdin esan bedi, atseginezko zein imitaziozko poesiak ondo zuzenduriko hirian egotea beharrezko duen arrazoiren bat balu esateko, guk geuk benetan gogatsu onartuko genukeela, benetan ohartzen garelako guregan eragiten duen liluramenaz. Alabaina, agertzen zaigun egiari uko egitea ez dela zilegi. Ala zu zeu ere ez ote zaitu liluratzen, eta batez ere (d) Homerosen bitartez dakusazunean?

-Zeharo, benetan.

-Eta eresi batez, edo beste bertsoren batez aldeztan bada, ez ote da bidezkoa itzultzen uztea?

-Guztiz, bada.

-Bestalde, bere aldezleei, ez poeta diren guztiei bakarrik, poesiazale guztiei baizik, ontzat eman geniezaieke hitz lauz bere alde hitzegitea ez dela atsegingarri bakarrik, hiri-eratzarako eta giza bizitzarako ere baliagarri dela baino. Eta entzun ere abegi onez entzungo genuke, atsegingarri (e) ez ezik onuragarri bezala ere ager baledi, irabazi egingo genuke eta.

-Nola, esan zuen, ez dugu irabaziko, bada?

-Ez balitz, ordea, ene lagun maite, lehendik maitale direnak, beren maitasuna onuragarri ez dela iragar dezatenean, bortxaturik bederen, banatzen diren bezala, berdin guk ere: hiri-eratz e derren hazkuntzaren pean gudan sortu den horrelako poesiaren maitasunagatik; 608. gertu egongo gara bera bikainena eta benetakoena bezala azaltzeko; baina bere burua aldezteko gai ez den bitartean, hartaz lehen genioen hitzaren eta arazoaren leloa entzungo diogu geure buruari, umeei eta gehiengoari dagokien zaletasunean berriro eror ez gaitezen ahaleginduz. Aldiz, entzun ere entzungo dugu, bada, horrelako poesiaz<sup>12</sup> ez dela arduratu behar egiari loturik eta baliagarri bailitzaion, alderantziz baino: entzuten duena zaindu egin behar dela bere barruko (b) hiri-eratzeari buruz beldur izanik, eta eginean jarri behar dituela poesiari buruz esaten genituenak.

-Guztiz, bada, esan zuen, bat nator.

-Handia da, bada, esan nuen, ene adiskide Glaukon, borroka, dirudien baino handiagoa, ona edo gaiztoa izan bestekoa: ez deduz goratu izateak, ez aberastasunez, ez edozelako agintez, ezta poesiaz ere ez du merezi zuzentasunez zein beste bertuteaz arduragabetzea.

-Bat nator zurekin, esan zuen, azaldu ditugunen arabera; eta uste dut beste edonor ere egongo dela.

(c) IX. - Baina benetan, esan nuen, ondino ez dugu ihardun bertutearen ordainik handienei buruz eta jarririk dauden sariei buruz.

-Egundoko gauza handiren bat aipatzen duzu, esan zuen, esanikoak baino beste handiagorik baldin badago.

-Baina, esan nuen, zer dago epe laburrean handi egin litekeenik? Umetatik zahartzarorainoko alde guzti hori zer bait labur dateke denbora osoaren ondoan.

-Ezer ez, bada, esan zuen.

-Zer bada? Uste duzu hilezkor den batek horrelako aldi labur batengatik arduratu behar duenik eta ez (d) betikotasunagatik?

-Ez dut uste, esan zuen, baina zer diozu horrekin?

-Ez ote duzu somatu, esan nuen, gure arima hilezkorra denik eta sekula ez dela galtzen?

-Eta berak niri begira-begira jarririk eta harriturik esan zuen: Zeusarren, nik neuk ez; eta zuk ba ote duzu hori esaterik<sup>13</sup>?

-Benetan, oker ez banabil, esan nuen, eta zuk zeuk ere uste dut, ezer gaitz ez da eta.

-Nik neuk, esan zuen, atseginez entzungo nizuke gaitz ez deneko hori.

-Bazenentzuke, esan nuen.

-Esan baino ez duzu, esan zuen.

-Ba ote dago ezer, esan nuen, on edo txar deitzen diozunik?

-Nik bai.

-(e) Eta horri buruz nire antzera, ausaz, uste ote duzu?

-Zeri buruz?

-Hondatzen eta usteltzen duen oro, txarra dela, gorde eta onuragarri dena, berriz, ona dela.

-Nik bai, esan zuen.

-Zer bada? Ez ote diozu gauza bakoitzarentzat txarrik eta onik dagoenik? Begientzat 609. begi-mina bezala eta gorputz osoarentzat gaixotasuna, edo gariarentzat galbekoa, egurrentzat ustela, edo brontze zein burdinarentzat ugerra, eta diodan bezala ia gauza bakoitzarentzat berezko txar eta gaixotasun bat?

-Nik bai, esan zuen.

-Eta horrelakoren bat zer baitengan sortu izan denean, sortzen zaion horri ez ote dio kalterik egiten, eta azken batean oso-osoan birrintzen eta hondatzen?

-Nola ez bada?

-Beraz, bakoitzaren berezko txar eta gaiztotasunak hondatzen du bakoitza, eta horrek hondatzen ez badu, honezkero, (b) ez luke benetan beste ezerk hondatuko. Onak, bada, sekula ez du ezer hondatuko, ezta on zein txar ez denak.

-Nola egin lezake? esan zuen.

-Eta diren gauzen artetik txarrak gaizto egin arren, bera deseginik galdu ezin duena aurki bageneza, ez ote genuke orduan jakingo horrelako izaera daukanarentzat ez dagoela hondamenik?

-Bidezkoa da, esan zuen, horrelaxe izatea.

-Zer bada? esan nuen, ariman ez ote dago ezer bera gaizto bihurtzen duenik?

-Bai horixe, esan zuen, oraintsu aipatzen genituen guztiak: bidegabekariak, (c) nasaikeriak, doilorkeriak, eta jakin ezak.

-Eta horietakoren batek desegiten eta hondatzen ote du? Kontutan izan ezazu huts egin ez dezagun usterik gizon bidegabekoa eta zentzugabekoa bidegabekeria egiten harrapatzen denean, horregatik ariman daukan gaiztakeriagatik galtzen denik. Aitzitik, azter ezazu honela: gaixotasunak, gorputzeko txartasuna delako, gorputza ezereztu, desegin, eta gorputz ez izateraino daraman bezala, eta oraintsu aipatzen genituen guztiak ere, norberaren txarrak ukitzen duelako (d) eta barneratzen zaiolako, hondaturik, ez izatera heltzen diren bezala.... Ala ez ote da honelaxe?

-Bai.

-Ea, bada! Arima ere, era berean azter ezazu. Ausaz, barruan daukan bidegabekeriak edo beste txarrak barneratzen zaizkiolako edo ukitzen dutelako, usteltzen ote dute eta suntsitzen heriotzaraino eramanez gorputzetik bana dezatenen?

-Hori, esan zuen, inola ere ez.

-Baina eragabeko litzateke, bada, esan nuen, beste inoren txarkeriak gauza bat hondatzea, eta norberarenak ez.

-Eragabeko, bai.

-Konturatu zaitez, bada, esan nuen, ene Glaukon, (e) janariak txarto egoteagatik, dena dela txartasun hori, urdina, zein ustela, zein beste edozein dela, ez dugula uste izaten gorputza hondatu behar duenik. Aitzitik, janarion txartasunak gorputzeko gaitza sor baleza, orduan, haien bidez beragan dagoen gaixotasunaren txarrak hondaturik dagoela esango dugu. Baina janarien txartasunagatik, hauek gauza bat eta gorputza beste bat izanik, 610. eta berezko txarra inorenak sortzen ez duenez, sekula ez dugu sinetsiko gorputza suntsitua izango denik.

-Guztiz zuzen diozu, esan zuen.

X. - Arrazoi berberaren arabera, bada, esan nuen, gorputzaren txarrak arimaren txarra ariman sor ez badeza, inoiz ez dugu sinetsiko bere txartasunaz izan ezik beste inoren txarrez arima hondatuko denik; hau da: bata, beste inoren txarrez.

-Arrazoi da, bai, esan zuen.

-Edo, bada, frogatzen ez dugula ongi esaten, edota (b) frogatua izan ez daitekeen bitartean, ez dezagun inoiz esan ez sukarragatik, zein beste edozein gaixotasun batengatik, zein burua mozteagatik, nahiz eta gorputz osoa txiki-txiki zatitu, horregatik txikerrenean ere inoiz arima hondatuko denik, inork gorputzaren lor hauen bidez arima ere bidegabeago eta dongeago bihurtzen dela erakuts diezagun baino lehen. Inoren gaitza besteren batean agertu arren, bakoitzarena batzen ez bazaio, ez arima, ez beste ezer (c) hondatzen denik, ez diogu inoiz esaten utziko.

-Baina zalantzarik gabe, esan zuen, hau ez du inork erakutsiko: hiltzorian dauden arimak heriotzagatik bidegabeago egiten direnik.

-Baina, esan nuen, inor arrazoi hauei aurre egiten eta hiltzorian dagoena gaiztoago eta bidegabeago egiten dela esatera ausar baledi, arimak hilezkorak direla aitortzera beharturik ez izatearren, beharbada sinetsiko dugu hori diotenak egia badio, bidegabekaria beregan onartzen duenarentzat hilgarri dela gaixotasuna bezala, eta horregatik (d) bere izaeraren hiltzaile izanik, onartzen dituenak hiltzen dituela, batzuk guztiz arin eta beste batzuk astiroago; baina ez orain bidega-

beak hiltzen diren bezala, bidegabekeriagatik beste batzuek jartzen diete zigorra eta.

-Zeusarren, esan zuen, bidegabekeria ez da hain beldurgarri agertzen, hartzen duenarentzat beldurgarri izango bada -kalteetatik askatzea litzateke eta.- Aitzitik, gehiago uste dut guztiz osterantzeko agertuko dela, ahal duen neurrian, (e) besteak hiltzen dituelako, eta bera daukana bizi-bizi egiten eta hori eginaz gainera zuhur. Dirudienez, hain urrun dago hilgarri izatetik.

-Ederto diozu, esan nuen; norberaren txarkeria eta norberaren txarra nahiko ez badira arima hil eta hondatzeko, benetan beste bat hondatzeko jarririk dagoen txarra urrun dagoke arima zein beste ezer hondatzeko, hondatzeko jarririk dagoen hura izan ezik.

-Benetan urrun, esan zuen, bidezkoa denez.

-Beraz, txar bakarraz ere hondatzen ez bada, norberenarekin zein inorenarekin, 611. argi dago beharrezko dela beti izaten izatea; eta beti dena bada, hilezkorra da.

-Beharrezko, esan zuen.

XI. - Hori, bada, esan nuen, horrelaxe izan bedi; eta horrela bada, arimak beti berberak izan litezkeela ohartuko zara. Izan ere, ez litezke ez gutxiago izan ez gehiago, bat bera ere galtzen ez denez gero. Hilezkorren batengan ezer gehiago egingo balitz, hilkorretik sortuko litzatekeela badakizu, eta hilezkor izaten amaituko lukeela den-dena.

-Egia diozu.



-Baina, esan nuen, hori ere ez dugu onartuko, -arrazoiak ez du uzten eta- ezta ere, (b) bere izaerarik egiazkoenez arima bere baitan, ugaritasunez, desberdintasunez eta ezadostasunez beterik egoterainokoa denik.

-Nola diozu? esan zuen.

-Ez da erraza, esan nuen, betiko dena gauza askotatik egina izatea, eta eratzerik ederrenarekin eratua ez izatea, orain arima<sup>14</sup> agertu izan zaigun bezala.

-Benetan, ez da bidezkoa, ez.

-Arima, bada, hilezkor dela oraintsuko arrazoiak eta gainerakoek ezar liezagukete. Baina benetan nolakoa den jakiteko ez zaio begiratu behar (c) gorputzaren partaidetzaz edo beste gauza txarrez moteldurik dagoenean, orain guk dakusagun bezala; aitzitik, nolakoa den zentzumenarekin behar den beste ikusi behar dugu, garbitasunera heltzen denean, eta bera askoz ederrago aurkituko da, eta argiago ikusiko dira ekintza zuzenak eta bidegabeak, eta orain azaldu ditugun gainerako guztiak ere. Baina arimari buruz orain esan dugun egia, une honetan agertzen zaigun bezalakoa da. Hori, ordea, guk, Glaukos itsaskaria ikusten zutenen moduko egoeran, ikusia dugu: bere gorputzeko atal zaharrak batzuk apurturik beste batzuk hondaturik eta olatuez guztiz alferrik galdu zirelako, eta beste atal batzuk maskorrez, itsasbelarrez, eta harrikoskorrez beterik hazi zitzaizkiolako, hala bada, izatez zena baino oso-osorik piztia gehiago baitzirudien, jada ez zuten erraz bere lehengo izaera ikusten. (d) Horrela dakusagu guk ere arima, zenbatu ezinezko

kalteak eraginiko egoera batean. Baina beharrezko da, ene Glaukon, hara begiratzea.

-Nora? esan zuen.

-Jakintzari (e) dion maitasunera. Eta kontutan izan behar da zeri datxekion; eta izaki jainkozko, hilezko eta betierekoaren ahaide denez, nolako lagunena nahiera duen; eta osorik horrelakoari darraionean eta eragin berak orain dagoen itsasotik ateratzen duenean, eta lurraz elikatzen delako, 612. zorioneko deritzaten janaldiek orain bere inguruan sortuak dituen harri eta lurrezko eta haitzezko maskor gogorrak astintzen dituenen, nolakoa bihur litekeen. Orduan ikus liteke bere benetako izaera, ugaria ala bakarra den, edo zein eratan dagoen, edo nolakoa den. Uste dudanez, orain, nahiko ondo azaldu ditugu bere giza bizitzako lor eta itxurak<sup>15</sup>.

-Oso-osoan, bada esan zuen.

XII. - Ez ote ditugu, bada, esan nuen, gure ihardunean gainerako oztopoak askatu, eta ez ote ditugu zuzentasunaren sariak (b) zein aintzak goratu, Hesiodosek eta Homerosen egin zutela diozuenez? Bestalde, ez ote dugu aurkitu arima berarentzat gauzarik hoberena zuzentasuna dela, eta zuzen jokatu behar duela arimak Gygesen eraztuna izan edo izan ez arren, eta eraztun horrez gain Haidesen buru-babeskia<sup>16</sup> izan arren?

-Egiarik handienak diozuz, esan zuen.

-Honezkero, bada ene Glaukon, esan nuen, txartzat hartu ote liteke, horrez gain, zuzentasunari eta gainerako ber-

tuteari, gizonengandik zein jainkoengandik arimak hartzen dituen hainbesteko eta bezalako (c) sariak, gizona bizi den bitartean eta hil daitekeenean, ordaintzea?

-Ezela ere ez, esan zuen.

-Itzuliko dizkidazue, ausaz, ihardunean hartu zenizkidatenak?

-Zer, batez ere?

-Ontzat eman nizuen gizon zuzenak bidegabe-itxura izatea, eta bidegabeak zuzenarena; ezen, zuek uste zenuten, nahiz eta hori jainkoentzat zein gizonentzat gorderik geratzea ezinezkoa zitekeen, eztabaidaren arabera eman behar zela, zuzentasuna bera bidegabekeria beraren arabera (d) epaitua izan zedin, ala ez ote duzu gogoratzen?

-Bidegabe nintzateke, esan zuen, gogoratuko ez banu.

-Honezkero, bada, esan nuen, epaiturik daudenez gero, berriro eskatzen dut zuzentasunaren izenean, jainko eta gizonengan daukan omen onez, guk geuk ere aitor dezagula berari buruz berdin uste dugula, bere ospez irabazirik zuzentasuna daukatenei ematen dizkien garaipenezko sariak eskura ditzan, bera deneko ondasunak ematen agertu denez gero, benetan bera onartu dituenak iruzurtu barik.

-(e) Eskabide zuzena, esan zuen.

-Eta lehenengoen, bada, ez ote didazue itzuliko, gizon bakoitza nolakoa den ez dela jainkoentzat ezkutuan geratzen?

-Itzuliko dizugu, bai, esan zuen.

-Eta ezkutuan geratzen ez bada, bata jainkoek maitatua dateke, eta bestea gorrotatua, hasiera batean aitortu genuenez.

-Halaxe da.

-Ez ote dugu aitortuko jainkoek maite dutenari jainkoengandik 613. sortzen diren gauza guztiak ahalik eta ondoen sortuko zaizkiola denak, aurreragoko hutsen batetik etor liezaiokeen derrigorrezko kalteren bat izan ezik?

-Bete-betea, bada.

-Beraz, gizon zuzenari buruz eutsi behar da, beharizan batean aurkitzen bada, zein gaixotasunen artean, edo txartzat hartzen den beste egoeraren batean, gauzok horrelakoarentzat nola bizi den bitartean ala hiltzean, azkenik on izatera iritsiko direla. Zeren jainkoek ez dute sekula baztertuko zuzen izan nahirik eta bertutean ihardun izanik, ahal duen neurrian, (b) jainkoaren antzeko izaten ahalegintzen den gizona.

-Bidezko da benetan, esan zuen, horrelakoa bere kidekoak ere ez baztertzea.

-Eta bidegabeari buruz, ez ote da alderantzizkoa uste izan behar?

-Zalantzarik gabe.

-Hauexek dirateke, bada, zuzenarentzat jainkoen aldetikako garaipen-sariak.

-Gutxienez bai, nire eritziz, esan zuen.

-Eta gizonengandik, esan nuen, zer? Egia jarri beharbada, ez ote da horrelaxe? Gizon beldurgarriek eta bidegabeek ez ote dute egiten lasterketan goitik beherantz ondo eta behetik gorantz txarto egiten duten lasterkari guztiek bezala? Hasiera batean jauzi bizkor egiten dute, eta azkenean (c) barreagarri bihurtzen dira belarri makur eta koroarik gabe alde egiten dute; eta benetako lasterkariak amaierara heldurik sariak jaso eta koroatuak izaten dira. Ez ote da berdintsu gertatzen gizon zuzenei buruz? Bere ekintza bakoitzaren amaieran, harremanen eta bizitzaren azkenean ez ote dira ospe onez izaten eta gizonengandik sariak jasotzen?

-Bai horixe.

-Jasango ote duzu, ausaz, zuk zeuk bidegabeei buruz esaten zenituenak<sup>17</sup> nik honi buruz esan ditzadan? Esango dut, bada, (d) zuzenek adineko egiten direnean, euren hirian agintzen dutela, aginteak nahi baditzaite, nahi lezaketenekin ezkontzen direla, eta nahi lezaketenekin ezkontzen dituztela seme-alabak; zuk, bada, haiei buruz esaten zenituen guztiak, orain hauei buruz diodaz. Eta gainera bidegabeei buruz gehientsuak

gazte direla ezkutuan geratu arren, lasterketaren azkenean harrapatuak izanik barregarri direla esango dut. Eta zaharturikoan izugarri irainduak izaten dira kanpokoan zein hirikoen aldetik; zartatuak izaten dira, eta, (e) arrazoiz esan ere hain gogorrek zirela esaten zenituenak<sup>18</sup>, [torturatuak eta erreak izango dira eta] eta nik entzun ditudan besteko haiexek guztiak jasaten dituzte. Baina ikus ezazu esaten dudana jasango duzun.

-Zeharo, bada, esan zuen, zuzen diozu eta.

XIII. - Horrelakoxeak dirateke bada, esan nuen, gizon zuzenarentzat, bizi dela, jainkoengandik eta gizonengandik

614. dauden ordain, sari, eta bezuzak, zuzentasunak berak eskaintzen dizkion beste ondasun haiexez gain.

-Bai eder eta sendo direla, esan zuen.

-Hauek, bada, esan nuen, ez dira ezer ugaritasunean eta handitasunean hil ondoren bakoitzak itxaroten dituenen parean; eta beharrezko da gauza hauek ere entzutea, haietariko bakoitzak azkenean entzun behar dituen gauzak eztabaida honetatik har ditzan.

-Esan ditzakezu, bada, esan zuen, ez da beste gauza asko atseginagorik (b) entzule honentzat eta.

-Baina ez dizut kontatuko, esan nuen, Alkinoosen<sup>19</sup> ipuina, gizon zangar zen Pamphylosen jatorriko Er Armeniosen semearena baino, zein gudu batean hil zelarik, eta hil eta hamargarren egunean gorpuak usteldurik ordurako jaso izan zirenean, bera usteltzeke jaso izan zen, eta etxerantz lurperatzeko eramana izanik, hamabigarren egunean su-meta gainean etzanik zegoela berpiztu zen, eta berpizturik han ikusi zituenak kontatzen zituen. Eta esan zuen bere gorputzetik irten zenean, bere arima beste askorekin batera zihoala, eta zoragarritzko inguru batera heldu zirela, (c) non lurak bi zulo-gune zeuzkan elkarri zeutsela, eta goian zeruan beste bi aurrez aurre. Hauen erdian epaile batzuk zeuden jarririk, epaia egin ondoren, zuzenei, epaiturikoen txartela aurrealdean lotuz, eskumarantz, gora zeruan barrena joateko agintzen zietenak,

eta bidegabeei ezkerrerantz eta behera, hauek ere (d) eurak eginiko guztien txartela atzealdean izanik. Eta bera aurreratu zelarik esan zioten hango gauzen iragarle izan behar zuela gizonentzat, eta agindu zioten inguru hartako gauza guztiak entzun eta ikus zitzala. Eta horrelaxe ikusi zituen zeruko eta lurreko zulo bakoitzetik arimak joaten epaituak izan eta gero, eta beste bietako zulo batetik arimak lurretik lohiez eta hautsaz beterik irteten, eta bestetik beste arima batzuk zerutik jaisten. Eta (e) zetozenak bidaia luze batetik bezala zetozela zirudien, eta pozik larre hartara irtenik jai batean bezala egokitu ziren, eta ezagutzen zirenak elkarren artean agurtzen ziren, eta lurretik zetozenek besteengandik hangoen berriak jakiten zituzten, eta zerutik zetozenek, haienak. Eta lurpeko bidaian -izan ere mila urtetako bidaia zen- zenbat neke eta nolakoak jasan eta ikusi zituzten gogoratzean 615. antsiz eta negarrez mintzatzen zitzaizkion elkarri. Eta zerutik zetozen besteek zoriontasunak eta esan ezinezko ikuskizun ederrak azaltzen zituzten. Gehienak azaltzeak, ene Glaukon, denbora asko eramango du, baina garrantzitsuena hauxe zela zioen: bakoitzak inoiz inori eginiko bidegabekaria guztiak banan-banan ordaindu behar zituela hamar aldiz bakoitzeko -eta bakoitzean ehun urte (b) giza bizitza denaren arabera- bidegabekeriaren ordaina hamar aldiz ordain zezan. Eta batzuk hilketa askoren errudun baziren, edo hiri zein gudarosteak saldu bazituzten, edo joputzapean

jarri, edo beste antzeko kalteren errudun, honako gauza bakoitzeko hamar aldiz zigor handiagoa irabazten zuten; eta, aldiz, egintza onak eginaz, eta zuzen eta jainkozale gertatzen baziren, horren arabera irabazten zuten ordaina; eta (c) jaio eta berehala hildakoei eta epe laburrean bizi izan zirenei buruz gogoratzeko lain ez diren beste gauza batzuk kontatu zituen. Eta jainko eta gurasoenganako pietate eta dongekeriari buruz, eta norkbere eskuz eginiko heriotzari buruzko ordainak askoz handiagoak zirela esaten zuen.

Esaten zuen, Ardiaios handia non zegoen itauntzen zuen beste baten ondoan aurkitu zela bera. Ardiaios hau Pamphyliako hiri bateko tirano izan zen duela mila urte, esaten zenez bere aita agurea eta (d) anaia nagusia hil ondoren, eta beste dongekeria asko egin ondoren. Eta esaten zuen itaundua izan zenak erantzun zuela: "Ez da heldu", esanez bezala, "etorri ere ez datorke hona". XIV. Ikaragarritzko ikuskizunen artean haxe ere ikusi dugu: zuloaren ondoan igoteko prest geundenean eta gainerako gauza guztiak jasan ondoren, bat-batean Ardiaios huraxe eta beste batzuk ikusi genituen, -ia gehienak tiranoak ziren, bekatari handienetariko gizabanako batzuk zeuden arren,- zeintzuek harrezkero igoko zirela usterik, (e) ez zituen zuloak onartzen, urruma egiten zuela baino, bakoitza, txarkeriagatik sendatu ezinezkoa edo behar beste ordain eman gabekoa zelako, igoten ahalegintzen zen

bakoitzean. Orduan kontatzen zuen, "han zeuden eta orroeak entzuten zituzten gizon basati eta, begien bistarako suz beteek, haietariko batzuk soin erditik oraturik eramaten zituzten, eta Ardiaios eta beste batzuk, eskuak, oinak, 616. eta burua ere loturik, jaurtiki eta larrutu ondoren, bidetik landa ateratzen zituzten, eta ote gainetan urratu, eta handik beti igarotzen zirenei zergatik eta nola eramaten zituzten agertzen zieten Tartarosera jaurtikiteko." Han, bada, jarraitu zuen, guztitariko beldur asko jasan izan arren, igoeran urruma entzutean izaten zuen beldurra handiago zela, eta ixiltzen zenean pozarren igotzen zela bakoitza. Hauexek eta honelakoxeak (b) ziren ordainak, zigorrak, eta alderantzizko sariak. Eta bakoitzak larrean zazpi egun eginikoan, zortzigarrenean zutiturik handik alde egin behar izaten zuen, eta handik laugarren egunera inguru batera heltzen ziren. Hemen, goitik, zeru osoaren eta lurraren barrena zabaltzen zen zutabearen antzeko argi zuzen bat ikusten zuten: ortzadarraren antzik gehien zeukana, baina argiagoa eta garbiagoa. Egun bateko bidea eginik heltzen zen bertara eta han, argiaren erdigunean (c) zerutik zabaltzen ziren lokarri-buruak ikusten zituzten, -argi hau, bada, zeruko lokarri zen, inguru guztian lotzen zuena, itsasontzien lokarrien antzekoa.- Lokarri buruetatik Halabeharraren ardatza luzatzen zen, zeinen bidez itzul-bira guztiak egiten diren, bere haga eta gakoa altzairuzkoak ziren eta bihurkai-aska gai horrez eta bestez nahas-



turikoa. Bihurkai-aska (d) izaera honetakoa zen: bere itxura hemengoen lakoa zen, baina esaten zituenetatik era honetantxe iduritu behar da, bihurkai-aska huts handi eta barru-harro bat bailitzan, eta beste antzeko txikiago bat egokiturik zeukan barruan, kupelak bata bestearen barruan tolesten diren bezala; eta horrelaxe beste hirugarren eta laugarren bat, eta beste lau ere. Zortzi ziren, bada, guztira, bakoitza bestearen barruan zeuden bihurkai-askak; eta gaineke ertzek (e) biribilak ziruditen, eta erdiko hagaren inguruan goialde-gunea, bihurkai-aska bakar batena bezala egiten zuela; haga zortzigarrenaren erdi-erditik, alderik alde, igarotzen zen. Lehenengo eta kanpo aldeko bihurkai-askak ere ertz biribila besteak baino zabalago zeukan; seigarrena bigarren zen zabaleran, eta laugarrena hirugarren, eta zortzigarrena laugarren; zazpigarrena bostgarren; bostgarrena seigarren; hirugarrena zazpigarren, eta bigarrena zortzigarren. Bihurkai-aska handienaren ertza koloretsua zen, eta zazpigarrenarena argitsuena, eta zortzigarrenak zazpigarrenaren argitik zeukan kolorea, 617. bigarren eta bostgarrenak berdintsuak ziren, besteak baino argiago; hirugarrenak kolorerik zuriena zeukan, laugarrenak gorriskena, eta seigarrenak bigarren zen zuriz. Ardatz osoa, bada, itzul-biribilka zebilen abiada berdinez, eta itzul-biraka zebiltzan guzti honen barruko beste zazpi biribilkiak ere, itzul-biraka zebiltzan alderantzizko norabidean; eurentatik zortzigarrena zebilen bizkorren, ondoren (b) zazpi-

garrena, seigarrena eta bostgarrena bata bestearekin batera hirurak abiada batean; eta iduritzen zaizkien bezala laugarrena osterantzeko norabide horretan hirugarren zen; hirugarrena laugarren; eta bigarrena bostgarren. Ardatza bera itzul-biraka zebilen Halabeharraren magalean. Biribilki bakoitzaren gainaldean Seirena bat zegoen biraka doinu bereko ahots bat jaurtikirik, eta guztiz zortzi zirela, harmonia bat osotzen zuten. Beste hiru andrazko zeuden inguruan bakoitza bere tronoan (c) jarririk tarte berdina zutela, Moirak ziren Halabeharraren alabak, zuriz jantzirik eta buru-xingolak zituztela: Lakheisis, Klotho, eta Atropos ziren, eta Seirenen harmoniaren arabera abesten zuten: Lakheisiek igaraneko gauzak, Klothok oraingoak, eta Atroposek etorkizunekoak. Eta Klothok eskumako eskua ardatzean jarririk kanpoko biribilkiari jirabira egiten laguntzen zion noizean behinka, Atroposek ezkerrekin era berean barruko biribilkiari, eta Lakheisiek (d) esku bakoitzarekin aldizka, behin batera behin bestera egiten zebilen.

XV. Eurak, bada, hara heltzen zirenean, berehala joan behar izaten zuten Lakheisisengana. Aurrez igerle batek lerroz lerro jartzen zituen, gero Lakheisisen altzotik zorteak eta bizitza-eredu batzuk harturik mintzatoki goi batera igorik esaten zuen: "Hona hemen Halabeharraren alaba neskabila Lakheisisen hitza: Iraupen gutxiko arimok, hau da heriotza daraman beste ibilaldi hilkor baten hasiera. Ez zaituzte ez, zoriak

aukeratuko, aitzitik, zoria zeuok hautatuko duzue. Zortez lehenen denak berari derrigorrez loturik egongo den bizimodua hauta dezala lehenen. Bertuteak, bada, ez du jaberik; honetatik bakoitzak gehiago edo gutxiago izango du, dedu gehiago edo gutxiago dionaren arabera. Erantzunkizuna aukeratzen duenarena da, ez jainkotasunarena."

Gauza hauek esanik guztien gaineratik zorteak jaurtiki zituen, eta bakoitzak ondoan jausi zitzaiona hartu zuen, Er-ek izan ezik, ez zioten utzi eta. Eta hartzen zuen bakoitzarentzat argi zegoen zenbatgarrena suertatu zitzaion. 618. Honen ondoren, aldiz, bizi-ereduak euren aurrean, lur gainean, jarri zituen bertan zeudenak baino gehiago, guztitarikoak zirelarik: abere guztien bizitzak, eta gainera giza bizimodu guztiak. Euren artean tiranoen bizitzak ere bazeuden, batzuk azkeneraino tirano izaten irauten zutenak, beste batzuk bizitza erdirantz hondatzen zirenak eta beharrianetan, erbesteetan eta eskaleen bizitzetan amaitzen zirenak. Baziren gizon ospetsuen bizitzak ere, batzuk itxuragatik eta edertasunagatik, zein lehiaketarako beste ahalmenen batengatik, (b) beste batzuk bere jatorriagatik eta gurasoen merituengatik, eta era berean baziren ospe gabeko gizonen bizitzak ere, eta berdin andrazkoenak. Ez zegoen arima mailarik, bizitza desberdina hautaturikoan desberdin izatea derrigorrezko zen eta. Gainerako gauzak elkarren artean nahasturik zeuden aberastasunez eta beharrianenez, gaixotasunez eta osasunez, eta batzuk egoera hauen erdian zeuden. Han aurkitzen zen, bada, dirudienez, ene adis-

kide Glaukon, gizonarentzat arrisku guztia. Horregatik batez ere gutariko bakoitzak (c) arduratu behar du beste ikasketa guztiak alde batera utzirik ikasketa haxe bilatzen eta ikasten: nondik gai datekeen ikasteko eta aurkitzeko nork bihurtuko duen gai eta jakitun, bizitza onuragarria zein kaltegarria ezaguturik, ahal den neurrian bizitzarik ederrena beti eta edonon aukeratzeko. Kontutan izan behar du, orain esan diren gauza guztiak, elkarren artean jarri izanik, nahiz banaturik, nolakoak diren bizitzan bertuteari buruz; jakin behar du edertasunak beharizanarekin zein aberastasunarekin zer dakarren (d) eta arimako zein izaerarekin txarrik edo onik dakarren, eta zer jaiotza onak edo txarrak, arrunta izateak edo aginteak, indartsu edo ahul izateak, ikasteko iaioa edo gogor izateak; izaeraz ariman berez dauden edo lorturiko antzeko guztiak bata bestearekin nahasturik zer eragin daukaten. Gauza guzti hauetatik kontu egin badagi, gai izango da arimaren izaerarantz begiraturik, bizitza txarrago edo hobe bat aukeratzeko, txarrago (e) deiturik bidegabeago izatera eramango duenari, hobeago zuzenago izatera daramanari. Beste guztiei pikutara joaten utziko die; ikusi dugu eta haxe dela bizitzen zein hiltzen denarentzat aukeraketarik hoberena. Altzairua bezalako 619. eritzi hau izanik joan behar da Haidaserantz han aberastasunek eta antzeko txarrek izu utz ez dezaten, eta tiraniapeetan eta antzeko ekintzetan jausi ez daitezen, sendatu ezineko kalte asko egiten dira eta, eta norberak ondino handiagoak jasaten, aitzitik, erdibideko halako bizitza bat aukeratzen jakin dezan, eta, era bateko edo besteko gehiegikeriei ihes egin beti, ahal den neurrian, bai hemengo bizitza

honetan baita geroko guztian ere gizona horrela zoriontsuen (b) egiten delako<sup>20</sup>.

XVI. - Eta orduan hango gauzen berriemaileak, igerleak honelaxe esan zuela, kontatzen zuen: "Azkenengo datorrenarentzat ere zentzuz aukeratzen badu eta egokitasunez bizi, bada bizitza maitagarri eta on bat. Ez bedi arduragabetu lehenengo aukeratzen duena, ezta azkenengoa ere goibel."

Gauza hauek esanik, zortez lehenago zenak, zuzen joanik, tiraniarik handiena aukeratu zuela, esan zuen Er-ek<sup>21</sup>, eta bere neurrigabekeria eta ase ezinagatik gauzak behar beste aztertu barik aukeratu zuela, (c) baina ez zela ohartu nor bere semeak irenstearen eta beste kalteen zoria erabakia zegoenik; eta gero astiro aztertu ondoren bere buruari zartadak ematen zizkiola eta eginiko aukeraz samintzen zela, igerleak aurrez eginiko esanikoetan geratu ez zelako; ez zeukan bere burua kalte hauen erruduntzat eta, zortea baizik, halabeharra edo beste edozer zeukalako erruduntzat. Berau zerutik zetorrenetako bat omen zen eta aurrerako bizitzan ondo eraturiko hiri batean bizi izan zena, filosofiaz beharrean (d) ekanduz bertutearen partaidetza izan zuena. Eta esan ere esatearren, horrelakoetan harrapatuak ez omen ziren gutxienak zerutik zetozenak, nekeetan ohitu barik zeudelako; aldiz lurretik zetozen gehienek nekeak jasan eta jasaten ikusi zutelako, ez omen zituzten aukeraketak arineketan egiten. Horregatik eta jausi zitzaien zortegatik zetorkien arima gehienei zetorkien gauza onak eta txarrak alda-

tzea. Zeren inor, hemengo bizitzara datorrenero, zinez beti filosofian ari baledi, (e) eta aukeratzeko zortea azkenekoetarikoen artean jaus ez balekio, baliteke, hango gauzetatik esaten zenez, zoriontsu izatea ez hemen bakarrik, hemendik harako eta handik honako bidaia ere ez izatea lurpeko eta latza<sup>22</sup>, laua eta zerukoa baino.

Hauxe zen, bada, zioenez, ikusgarri zen ikuskizuna: nola arima bakoitzak aukeratzen zuen bere bizitza; 620. errukigarri, barregarri, eta harrigarri ere bazen ikusteko, aurrerako bizitzan ohiturikoaren arabera gehienetan aukeratzen zelako. Esan zuen, bada, Orpheusen arima zena beltxarga baten bizitza aukeratzen ikusi zuela, andrazkoei zien gorrotoagatik, eta haien eskuz heriotza hartu zuelako andrazko sorturik jaiotzea ez zuela nahi. Eta ikusi zuela baita Thamyrosen arima ere urretxindorraren bizitza hautatzen, eta baita beltxarga bat ere gizonezko bizitzara aldatzen, eta beste hegazti txintariak berdin egiten. (b) Hogeigarren hautatzeko zortea izan zuenak lehoiaren bizitza aukeratu zuen, eta Telamonen seme Aiasena zen: gizon izatetik ihes egiten zuena iskiluen epaiketa gogoan zeukalako. Hurrengoa Agamemnonena zen, honek ere, jasan izan zituenagatik, gizonaren bizitzari gorroto ziolako, arranoenera aldatu zen. Erdialdera aukeratzea suertatu zitzaion Atalanteren arimak, gizon atleta baten ohore handiak ikusirik, ezin zuen aurrera egin, beretzat hartu baino. (c) Honen ondoren Panopeusen seme Epeiosena ikusi zuen, andre zoli baten izaera baterantz zihoala; eta azkenekoen artean Thersitesen

arima ikusi zuen tximino baten antza hartzen. Eta zortearen arabera, guztietatik azkenen Odysseusen arima ikusi omen zuen aukeratzen, lehengo nekeen gomuta zeukalako, bere handizalekeriatik arindurik, hara-horra denbora luze batean ibilirik, gizon arrunt eta arazogabekoaren bizitza bilatzen zebilen, eta azken batean, bazter batean inork ere ardurarik ez zeukan bat aurkitu omen zuen, eta bera ikustean, (d) lehenengo suertatu balitzaio ere, berdin jokatu zukeela esan omen zuen, eta gogo onez aukeratu zuela. Era berean omen zihoazen beste piztietatik gizon izatera eta elkar-trukean, bidegabeak basatietara eta zuzenak otzanetara aldatuz, nahasketa guztiak egiten omen zituzten. Eta arima guztiak bizitza hautaturikoan, Lakheisengana joaten ziren zorteak izan zituzten era berean, eta hark bakoitzari bakoitzak hautaturiko zoria ematen zion bizitzako begirale bezala, (e) aukeraturiko gauzen betearazle. Zoriak berehala eramaten zuen arima Klothoren aurrera eta haren eskupean eta eragiten zuen ardatzaren itzul-birapean jartzen zuen ontzat emanez zortez aukeraturiko patua. Ardatza ukitu ondoren Atroposen irunketara zuzentzen zuen, irundakoa atzera ezina eginik; handik itzuli ezinik, Halabeharraren 621. tronoaren oinetaraino joaten zen arima, eta beste aldera igarorik eta gainerako arimak ere igaro ondoren, Letheko zelaira joaten ziren guztiak izugarritzko bero itogarri baten erdian, egon ere zelaia zuhaitz barik eta lurrak ematen dituen ezer barik zegoen eta. Arratsaldera han egokitu ziren Ameletos ibaiaren ondoan, zeinen ura ezelango ontzian ezin batu zitekeen; guztiak beharturik zeuden, bada, ur hartatik neurri bat edatera, eta zentzuz zaintzen ez zirenek

neurritz baino gehiago edaten zuten; eta edaten zuenak (b) gauza guztiak ahanzten zituen beti. Etzan zirenean eta gauerdia heldu zenean, hodeiak jo zuen eta lurrikara bat gertatu zen, eta bat-batean handik bakoitza leku bakoitzetik gora eramana izaten zen jaio zedin, izarren antzera abiatuz. Eta Er-i berari, uretatik edaten debekatu zioten. Eta nondik eta nola gorputzera itzuli zen ez zekien, berehala gora begiraturik, goizaldean su-meta gainean etzanik ikusi zela baino.

Eta horrelaxe, ene Glaukon, salbatu zen mito hau eta ez zen galdu, eta gu geu (c) ere salbatu gintezke beragan sinets bageneza, eta onez igaroko dugu Letheko ibaia eta ez dugu gure arima zikinduko. Nik diodana sinets bageneza, arima hilezko delat eta kalte eta on guztiak jasotzeko gai delat onartuz, beti goiko aldetik joango gara eta zuzentasuna neurritasunarekin batera erabiliko dugu era guztietan, gure artean eta jainkoekin ere lagun izan gaitezen hemen gauden bitartean, eta zuzentasunaren sariak (d) jaretsi ditzagun garaileek leku guztietatik biltzen dituzten bezala, eta hemen eta azaldu dugun mila urteko bidaia honetan zoriontsu izan gaitezen.